

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiria
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

2006, 1
51. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINdia

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55
Faxa: 94 415 81 44
e.posta: info@euskaltzaindia.net
web gunea: www.euskaltzaindia.net

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua:	Andres Maria Urrutia Badiola
Kideak:	Beñat Oihartzabal Xabier Kintana Jose Luis Lizundia Henrike Knörr Andres Iñigo Jose Antonio Arana Martija Adolfo Arejita Pello Salaburu
Eragile eta idazkaria:	Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Lege gordailua BI-1.244-58

Fotokonposizioa: *Rali*. Particular de Costa, 8-10, 48010 BILBO

Emfasis. Gorbeia, 1 - 48004 Etxebarri (Bizkaia)

Aldizkari hau beste agerkariekin trukatzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.
Rogamos dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

PLAZIDO MUXIKA BERRONDOREN MENDEURRENA

Plazido Muxika Berrondoren mendeurrena, <i>Andres Urrutia</i>	13
Zertzelada batzuk Plazido Muxikaren bizitzaz, <i>Jose Antonio Mujika</i> . .	15

ANDIMA IBIÑAGABEITIA, IMANOL BERRIATUA ETA GORGONIO RENTERIA idazleei omenaldia

Andima, Imanol eta Gorgonio elantxobetatarrei omenaldia, <i>Amaia Eiguren</i>	33
Andima, Imanol eta Gorgonio idazleei omenaldia, <i>Andres Urrutia</i> . .	35
Andima adiskidea, <i>Txomin Peillen</i>	39
Andimaren liburu bat eskuan, <i>Bernardo Atxaga</i>	45
Imanol Berriatua, euskal etorkizunaren ereile, <i>Xabier Kintana</i>	51
Gorgonio Renteria idazle, <i>Igone Etxebarria</i>	59
Olerki barriak Kaliforniatik bialduak	63

FRANTZISKO IGNACIO LARDIZABAL URRETABIZKAIAREN II. MENDEURRENA

Frantzisko Ignacio Lardizabalen II. mendeurrena, <i>Patxi Aierbe</i>	67
Lardizabalen 200. urteurrena, <i>Andres M. Urrutia</i>	69
Lardizabalen gramatika, bere gizarte-giroan, <i>Mikel Zalbide</i>	71
Lardizabalen gramatikaren iturri, ezaugarri eta helburuak, <i>B. Oyharçabal</i>	105

IKER SAILA HIZTEGIGINTZA

Neurri-izenak eta neurri-esamoldeak euskaraz, <i>J.R. Etxebarria</i>	123
--	-----

ONOMASTIKA

Irizpenak, <i>Mikel Gorratxategi</i>	165
Billoda , <i>Mikel Gorrotxategi Nieto, Henrike Knörr eta Andres Iñigo Ariztegi</i>	167
Billoda izenari buruzko dokumentazioa/Documentación sobre el nombre Billoda	170
Abanto , <i>Mikel Gorrotxategi Nieto eta Andres Iñigo Ariztegi</i>	184
Gaubea , <i>Mikel Gorrotxategi Nieto eta Andres Iñigo Ariztegi</i>	185
Marieta-Larrintzar , <i>Mikel Gorrotxategi Nieto eta Andres Iñigo Ariztegi</i>	187
Ondokolanda , <i>Mikel Gorrotxategi Nieto eta Andres Iñigo Ariztegi</i>	188
Ollerietza , <i>Mikel Gorrotxategi Nieto eta Andres Iñigo Ariztegi</i>	190
Erentxun , <i>Mikel Gorrotxategi Nieto eta Andres Iñigo Ariztegi</i>	191
Elosua , <i>Mikel Gorrotxategi Nieto eta Andres Iñigo Ariztegi</i>	193

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIA (IX)

Euskaltzaindiaren Barne-Historiaz, <i>Xabier Kintana</i>	197
Pierre Lafitten gutundegia, <i>P. Xarritton - P. Andiazaabal</i>	199
* * *	
Biografía de Francisco J. Oroz Arizcuren, <i>H. Knörr</i>	241
Jirones de una vida abigarrada (de la gambella a la cátedra), <i>Francisco J. Oroz</i>	241

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BATZAR-AGIRIAK

Donostian, 2006ko urtarrilaren 27an	361
Ageriko bilkura, 2006ko urtarrilaren 27an	364
Bilbon, 2006ko otsailaren 24an	367
Gasteizen, 2006ko martxoaren 31n	370
Ageriko bilkura, 2006-IV-27	373
Urnietan, 2006ko apirilaren 27an	375
Ageriko bilkura, 2006ko maiatzaren 26an	377
Elantxoben, 2006ko maiatzaren 26an	380
Euskaltzain urgazle izendatuak, 2006-V-26	383
Ageriko bilkura, 2006ko ekainaren 29an	384
Zaldibian, 2006ko ekainaren 30ean	386
Ageriko bilkura, 2006ko ekainaren 30ean	388

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

36. Frantziako errepublikako eskualde-, departamendu- eta hiriburu-izenak	393
---	-----

148. Araua: <i>e-ezuste</i>	410
Euskaltzaindiaren 2006ko batzar-egutegia	483

BERRIAK

35 Euskaltzain urgazle berri	487
<i>Plazaberri</i> agerkari digitala, <i>Andres Urrutia</i>	489
Basque fishermen in Iceland. Bilingual vocabularies in the 17 th and 18 th centuries, <i>Henrike Knörr</i>	491
2005eko <i>R. M. Azkue</i> Literatura sariak	501
<i>Antzuolako Topinomia</i> . Onomasticon Vasconiae bildumaren 25. liburu-kia	505
<i>Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri</i> liburuaren aurkez-pena	509
Presentación del libro <i>Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri</i> ..	511
<i>Mendaaur</i> argitalpen bilduma berria sortu dute Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak	513
<i>Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko.</i> Mendaaur I. Aurkezpena, <i>Andres Iñigo</i>	515
<i>Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko.</i> Mendaaur I. Presentación, <i>Andres Iñigo</i>	519

HIL BERRIAK

Juan San Martin Ortiz Zaratekoa, euskaltzain osoa, <i>J.L. Lizundia</i>	525
Patxi Ondarra Erdozia: bizitza eta lanak (1925-2005), <i>Andres Iñigo</i> ..	535
J.M. Aranalde Olaondo, <i>Joxemari Iriondo Unanue</i>	549
Eugenio Agirretxe Azpíllaga. Euskal sermolaria eta Euskararen predikaria (1920-2005), <i>Paulo Agirrebalzategi</i>	563

Juan M ^a Lekuona eta Patxi Altunaren omenez, <i>Andres Urrutia</i>	581
Juan Mari Lekuona: ... eta hitza lanabes bihurtu zuen (1927-2005), <i>Ana M^a Toledo</i>	583
Patxi Altuna: jesuita, euskaltzalea, irakaslea eta euskaltzaina (1928-2006), <i>Miren Azkarate</i>	591

**PLAZIDO MUXIKA BERRONDOREN
MENDEURRENA**

Urnieta, 2006-IV-27

PLAZIDO MUXIKA BERRONDOREN MENDEURRENA

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Agurra

Urnietako Alkatea
Euskaltzainkideok
Jaun-andreok
Arratsalde on guztioi!

Lehendabiziz mila esker Urnietako herriari eta udalari, gaur eskaini di-
gun jarrera abegikorrarengatik. Zorionak, orobat, Plazido Muxikaren omenal-
di bikain hau antolatzearren.

Badira mundu honetako lan kontuetan nor baino nor ibiltzea eta guzti-
on ahotan beti egotea gustuko izaten dutenak. Badira, ostera, lan isila eta jardun
eragilea hobesten dituztenak. Lehenengoen fruituak azaleko eta iragankor iza-
ten dira. Bigarrenekoak, berriz, mamitsu eta iraunkor.

Azken horietarikoa dugu aita Plazido Muxikaren ekina. Urte asko eta lu-
zeak, aldiakada zail eta mingotsak izan zituen hark bere hiztegigintza eta aditz
lanetan.

Fruituak ere ez berehalakoak, ondo helduak eta emanak baino.

Hartara, hiztegigintza, adiztegia, lexikografia, lexikologia, itzulpengintza,
Euskaltzaindiaren urgazletza... Horiek dira zinezko kate-begiak, egun gure bi-
lera honetan gogorarazten dugun jesuitaren kate eta soka luezan.

Nire moduko askorentzat, bestalde, lehen erreferentziak dira euskararen
hiztegigintzan, duela hogeita hamar urte zail samar baitzen Muxikaren modu-
ko hiztegia liburu-dendetan aurkitzea.

Egun ere, hamaikatxo hiztegi ditugula eskura, betiko erreferentzia eta oi-
narri izaten da gure lan lexikografikoetan Muxikarena, eta aitortu zein aitor-
tu ez, baita egungo lan askoren iturria ere.

Goiz eta arratsalde jardun du Euskaltzaindiak Urnietan gaur, Muxikak be-
rak behinola ireki zuen bideari jarraitutasuna ematen. Orduko horri egun Hiz-
tegi Batu deitzen diogu, euskaldun guztiion onuragarri.

Une ezin aproposagoa, hortaz, harenak berriro plazaratzeko eta bera eza-gutu ez zutenek haren berri izateko.

Horretarako du hitza Jose Antonio Muxika jaunak, Plazidoren ilobak, bera ere euskararen munduan murgildua. Haste-hastetik Euskaltzaindiaren gramatika batzordekide den Jose Antoniok eskainiko dizkigu Plazidoren nonzeberri eta xehetasun ugari, hain zuzen ere, gure omenaldi honetara era-erara datozenak.

Mila esker guztioi.

ZERTZELADA BATZUK PLAZIDO MUXIKAREN BIZITZAZ

Jose Antonio Mujika

Euskaltzainak, agintariak, lagunak..., arratsalde on guztioi!

Honako hitz hauekin hasten da Plazido Mujika gazteak jesuita sartu zean izenpetu zuen adierazpena:

«Ego Plácidus Mugica Hispanus natus sum die decima sexta mensis Aprilis anni millesimi nonagesimeti sexti in oppido Urnieta (barrio de Oria), in dioecesi Victoriae, provinciae Guipuzcoae».

Bere burua aurkezten du Plazidok adierazpen horretan eta jesuita sartzean zer asmo eta helburu zituen azaltzen. Eta, ikusten duzuenez, aurrena, bere burua aurkeztean, Urnietan jaioa dela esaten du, Oria auzoan.

Urnietarrok gogoan izango duzue, noski, Oria auzoan lantegi handi bat bazela, oso ezaguna, *Hilados y Tejidos de Algodón Brunet y Cía* izenekoa, ehunka langileren lantokia izan zena. Hain zuen ere, langile haientzat egindako etxeetako batean jaio zen Plazido, haren aita Brunet-tarren lorenzaina baitzen. Etxeak «Baratzalde» zuen izena, baina jendeak «Etxegorri» edo «Casa roja» esaten zion. Orain urte gutxi auzoa berritu zutenean etxe hori eta inguruko beste etxe zahar batzuk bota egin zituzten.

Plazido hamar urteko mutikoa zela, Altzara aldatu zen Muxikatarren familia. Berak, hala ere, urte gutxi egin zituen han, hamahiru urterekin Andoaingo seminarioan sartu baitzen interno eta, gero, hamaseirekin Azpeitiko Loiolan jesuita.

Gogoan izan zuen beti, ordea, eta behar zenean baita ageriki aitortu ere, urnietarra zela jaiotzaz. Bere bizitzaren azken aldera, hil baino urtebete lehenago argitaratu zuen *Diccionario vasco-castellano-aren* hitzaurrean ere honela dio:

«Esta obra planeada en tierras tan lejanas de mi txoko natal (ORIA, barrio de URNIETA) [...]» (1).

(1) Eta gaur behin eta berriro aipatuko dugun *Diccionario castellano-vasco* hiztegi handian ere utzi zuen bere jatorriaren aztarna. «Eclesiásticamente» hitza hartzen baduzue, ikusiko duzue

Urnietako herria egun hauetan bere seme hora hain zabal eta gogotsu omendu duenez, bidezkoa iruditu zait neure hitzaldia haren adierazpen horiek gogora ekarrita hastea.

* * *

Goazen, ordea, aurrera. Zer izan zen eta zer egin zuen bere bizitzan Plazido Muxikak, omenaldi hauek merezi izateko?

Ez dizuet orain, noski, haren bizitza osoa xehetasunetan kontatuko. Ez da hau horretarako lekua (2). Aurkezpen labur bat egingo dut aurrena, eta haren bizitzaren bizpahiru argazkiko ekarriko ditut gero zuen aurrera, hora nolakoa izan zen erakutsiko digutenak.

* * *

Aurkezpen laburra, hasteko.

Ez dakit nik Plazidok bisita txartelik erabili ote zuen inoiz. Ezetz esango nuke, alferrikako gastua irudituko baitzitzaion horrelako txarteltxoak egitea. Bainaz egin izan balitu, ez da asmatzen zaila zer idatziko zuen izen-abizenen ondoan, nor zen azaltzeko. Bi hitz hauek ipiniko zituen, nik uste: «jesulaguna» eta «hiztegigilea», ordena horretan, gainera, aurrena betiere aurrena dela. Bi horiek izan ziren haren bizitzaren ardatz nagusiak. Jesuita izatea bere bizi guztirako aukeratu zuen bizitza-modua izan zen, eta hiztegia egitea, berriz, bere bizitzaren urte gehienetan lanpetua eduki zuen zaletasuna.

Biak uztartzen jakin zuen Plazidok; ez, ordea, lanik gabe.

Gaztetan sortu zitzaion euskal hitzen zerrendak egiteko zaletasuna. Filosofia ikasle zen artean eta euskararen aldeko joera handia aurkitu zuen ikas-kideen artean. Taldetxoa osatu zuten Lauaxetak, Jokin Zaitegik, Andima Ibiñagabeitiak, Iñaki Goenagak, Plazido Mujikak berak eta beste batzuek, euskara lantzeko. Lagunek klasikoak itzultzera, olerkiak idazteria eta horrelakoetara jo zuten; Plazidok, aldiz, esan bezala, hitzak biltzera. Euskararen «Leopold» iza-tera iritsiko zela esan omen zion behin Zaitegik (3) –Leopold hori asko era-biltzen zuten *Lexicon graeco-latinum* baten egilea zen (4)–.

Gaztetan zaletasuna izan zena, betebehar bilakatu zitzaion gerora. Gaztelania-euskara hiztegi bat idaztea bere egiteko, bere «misioa», zela pentsatu zuen.

besteren artean «elizaz» ordaina ematen duela eta honen erabilera argitzeko honako esaldi hau ipintzen duela, adibide gisa:

«legez [...] Urmia'rra naiz ni, eta elizaz Lasarte'rra'».

Modu orokorean emana dago esaldia nori dagokion esan gabe. Bainaz haren berri dakigu-nok badakigu berari dagokiola bete-betean.

(2) Oraintxe batzuk idatzi nuen Plazido Muxikaren biografia, *Bidegileak* bilduman. Han aurkituko du, hala nahi duenak, hari buruzko datu gehiago.

(3) Ik. *El pensamiento Navarro-k* egin zion elkarritzeta (1959-02-25).

(4) Leopold, E. F., *Lexicon graeco-latinum manuale*, Leipzig, 1852.

Gerra ondoko urteetan euskaltzaletasuna ez zen ondo ikusia, ordea, eta nagusiek beste lan batzuetara lotu zuten Plazido. Irakasle, liburuzaín, artxibotako arduradun... bazuen beti bere-berea zuen egiteko hari ekitea galarazten zion lanen bat.

Asmatu zuen, hala ere, bere eginbehar biak uztartzen. Egunez nagusiek agindutako lanak egiten zituen, esaneko jesuita on bati zegokionez, eta atseden orduetan –siesta eta afalorduetan, asteburuetan, oporretan eta horrelakoeitan– «euskararen Leopold» bilakatzen zen.

1944an hasi, eta hamabi urte eta gehiagotan aritu zen horrela, atsedenari orduak kenduz, liburuak arakatuz eta hiztegirako fitxak egin eta egin (5).

Plazidok ez zuen, noski, inoiz nagusien kontrako hitzik esan, zintzoegia baitzen horretarako. Baino garai hartako eskutitzetan-eta askotan aipatu zuen egiten ari zen lanaren nekea eta batez ere egin behar izaten zituen etenek sortzen zioten ondoeza. Honela aitorту zion Mitxelenari, honek EGANerako egin zion elkarrizketa batean:

Nere eginbehar nagusiak [...] bestelakoak ziren eta, nahi eta nahi ez, gaur hartu eta bihar utzi, arteka-marteka hasi nintzen ahal nuen txolarte guzietan nere hiztegi horretarako gaiak biltzen. Ezer aurreratu gabeko tarteak batzutan luzetxoak izan ziren, gainera: lau edo bost hilabete hiru aldiz, beste batean urte t'erdian ez nuen ezertxo ere egin (6).

1958an, lanean aurrera egin zuela ikusita, lana zertxobait arindu zioten nagusiek. Eskolak ematen jarraitu zuen, baina gainerako lanetatik libre utzi zuten (7).

Azkenean, noizbait!, 1962-63 ikasturtean eskoletatik ere libre utzi zuten, hiztegiaren azken orrazketak eta zabalkunde lanak erosoa egin zitzan. Handik urte bira argitaratu zuen bere *Diccionario castellano-vasco* lodi eta mardula. Hiru edizio izan zituen eta 17.000 ale saltzera iritsi zen.

(5) Behin, 1956an, San Ignazioren urtea zenez, Koldo Mitxelena zenak San Ignazioren idaztankeraz artikulu bat idatziko ote zuen eskuat zion, EGANen argitaratzeko. Eskutitz luzea egin zion Plazidok, horretarako astirik ez zuela azalduz: «nere unetxo urriak iztegiari ematea, erabakia daukat aspaldi ontan. Zorionez edo zoritzarrez asi ote nun eztakit, baño asi nun ezkerro, aurrera eragin nai nioko nere iztegi oni. Naiko atzerapide sortu zaizkit asi nunetik, eta enuke besterik ere iñiola ere nai» (KM Kulturguneko funtsetan: «Koldo Mitxelena eta Plazido Mujikaren arteko elkarri dazketa»).

(6) Adiskide berri, «Aita Plazido Mujikak esan digu», *EGAN*, 1957 (3-4), 127 or.

(7) 1961ean, hiztegia aurreratu zuela, lehenez gain zabalkunde lanak ere bere gain hartu zituen. Interesatuen helbideak bilatzen hasi zen eta haien etxeetara harpidetze orriak bidaltzen. Lan handia egin zuen horretan. Dena berak. EGAN aldizkarira ere idatzi zuen, hiztegiaren zabalkundea sartzeko baimena eskatuz: «Zabalkundea era berri ontan egiañaz, nere eginkizun nagusiari (ots, iztegi osoa makiañaz aldatzeari) erosoa ekingo diot. Gogor ekin beharko gaiñera! Beste lau beti atzera ibilliko nintzake nere lan gogor ontan. Luzea ta gogorra da benetan nere lan au, baño (Jaunari eskerrak) osasun ona ta lanerako sasoia ere ba'dituz» (KM Kulturguneko funtsetan: «Koldo Mitxelena eta Plazido Mujikaren arteko elkarri dazketa»).

Horra, bada, nola uztartu zituen, ez beti erraz, bere bizitzaren ardatz biak, jesuita izatearena eta euskal hiztegigile izatearena.

* * *

Horrenbestez, bada, etor gaitezke Plazidoren bizitzako argazki batzuk iku-si eta haiei dagozkien gogoeta batzuk egitera.

Lehen argazkia ezaguna da, askotan agertu baitzuen Plazido Muxikak berak bere idatzietan. Argazki horretan ageri den Plazido, 22-23 urteko jesuita gaztea da. Mendi handi batean dago, bakarrik, enbor batean eserita, atsedena hartzen. Entzun Plazidori berari, Santa Cruz apaiza dela-eta EGANen idatzi zuen artikulu batean:

Alaxe exerita, ukondoak belaunetan eta eskuak buruan nitula, makurtu nin-tzan zerbaite lurrera begira, ta atsedan artzeko asmotan. Bat-batean murgildu zan nere irudimena amets zoragarri batean. Irudimena? Ametsa? Ez iñola ere! Nere begiak enborpean ikusten zutena, etzan irudimena, etzan amets zoroa. Egi utsa-zan! Nere begien aurrean ARGIA nekuscan! Edo obeto esateko, ARGIA gure as-terokoaren puska bat. Nola zitekeen ori? ARGIA Andes'ko mendi-bazter urrutian! (8).

Kolonbian dago, izan ere, Plazido argazki horretan, Ekuadoreko mugatik gertu. Hara joana zen, jesuitek ikasketa garaian egin behar izaten zuten hiru urteko maisualdia betetzera. Zergatik bidali ote zuten, ordea, urrutti haietara?

Bi azalpen entzun ditut nik kontu horri buruz. Lehena, gogo onez egina, Plazidok berak emana: soldadutzatik libratzeagatik bidali omen zuten Ameriketara.

Beste zenbaitek, ordea, azalpen kritikoagoa eskaini zuten, Joseba Intxaustik *Jakin* aldiakariko artikulu batean erakutsi zuen moduan (9). Nagusien artean baziren gorago aipatu ditudan jesuita gazte euskaltzale haien aldeko zi-renak (10). Baziren, ordea, haien euskaltzaletasuna begi onez ikusten ez zute-nak ere. Eta, horregatik, hain zuzen ere, zaletasun horretan epeldu zitezen-edo sakabanatu omen zituzten eta urrutira bidali. Muxika eta Andima Kolonbiako bi muturretara bidali zituzten, eta Zaitegi Venezuelara.

Behin baino gehiagotan entzun ohi den topiko erraza datorkit gogora, orduko gorabehera horiek entzutean: nazionalismoa gaixotasun bat dela, alegia,

(8) Muxika'tar Pl., «*Berriz santa Cruz apaiza!*», *EGAN*, 1956, 3-4, 20-25 or. Santa Cruz apaizak Kolonbian bizi izandako gertakari asko kontatzen ditu artikulu horretan Plazido Muxikak. Ikastetxe berean aritu ziren biak, baina ez garai berean. Hura iritsi baino urte batzuk lehenago hila zen Santa Cruz apaiza, .

(9) Joseba Intxausti, «“Euzko-Gogoa”-ren lankideak», *Jakin* 12, 1979ko urri-abendua, 120-137 or.

(10) Loiolan zirela laguntzaile izan zituzten euskalgintzan Aita Apalategi, Garmendia, Olabide eta Estefania irakasleak (Ik. Joseba Intxausti, *ibid.*, 5. oh.).

bidaiatuz sendatzen dena. Baliteke nazionalismo itsuarekin horrela gertatzea. Ez dakit. Bainaz zergatik izan behar du horrela guztiz naturala eta berezkoan den norberaren hizkuntzarekiko leialtasun eta atxikimenduarekin? Jesuita gazteen urruntzea asmo horrekin egin bazuten, ederra egin zuten nagusi ustez zuhur haiek: epeldu ez, beroagotu egin ziren gazteek beren euskaltzaletasunean!

Ikusi, bestela, nola jarraitzen duen Plazidoren kontakizunak:

Nere atseden-aldi ura uste baño luzeagoa izan zan. Irakurri nun orri ura, inguruko basoak aitzeko eran. Biotza pilpilka bai'neukan! Beti Euskalerrian bizi izan danak, ezin dezake igarri ere, noraño piztuagotu zitzaidan ordun nere euskaltzaletasuna, eta euskeraren alde *lan on bat* egiteko asmoa ere (11).

«*Lan on*» hori, hain zuzen, hiztegia egitea zen (12).

Baina, gerora gabe, Kolonbian bertan ere ez zion erabat utzi euskara lan-tzeari. Ordu luzetan egoten omen zen han ikasleen begirale eta, denbora alferrik ez galtzeagatik, *Noni eta Mani* eleberria itzuli zuen alemanetik, tarte horiek baliatuz.

Hori Plazido Muxikari dagokionez. Beste ikaskideekin ere ez zuten asko asmatu nagusi urrunzale haien. Aski da ikustea Andimak eta Zaitegik gerora izan zuten ibilibidea.

* * *

Goazen arin bigarren argazkira, hamar urteko saltoa eginda.

Hogeita hamar bat urteko gizona da argazki horretan Plazido. Idazmaka-nia baten aurrean dago, bere gelan, makinaren alboan liburu handi bat irekia duela. Nafarroako Xabierreko ikastetxean egina dago argazkia.

Kolonbiako aldia amaituta Europara etorria zen ostera Plazido. Jesuitak Espainiatik egotziak izanak ziren, ordea, tarte hartan, eta Belgikara joan behar izan zuen teologia ikasketak egitera; Belgikan hasi eta Holandan amaitu zituen ikasketa horiek. Han apaiztu zen (13).

(11) Gorago aipatu artikulua.

(12) Hala dio bere euskal hiztegi bien atarian idatzitako «Génesis de la obra» hitzaurrean: «Al leer y releer varias veces de punta a cabo aquel trozo del semanario donostiarra, brilló en mi mente una idea fulgurante como un chispazo... y aquella idea era ya una decisión: Cuando regresara a España, tenía que escribir un gran diccionario castellano-vasco, para colaborar, según mis fuerzas, al cultivo y fomento del euskería».

(13) Teologia ikasten ari zela ere ez zituen erabat utzi euskal lanak. «Euskel-itzak erderan» artikulua idatzi zuen *Yakintza* aldizkarian, Espainiako Akademiako hiztegiak euskal jatorrikozat zituen hitzak bilduz (9 zb., 1934, maiatza-ekaina). Handik idatzi zion J. de Urkijori eskutitz bat *Hispania* hitzaren etimologiaz konsulta eginaz, eta han idatzi zuen *RIVEk* argitaratu zion «Reminiscencias de la lengua vasca en el “Diario” de S. Ignacio» artikulua. Beste batzuek ez bezala, euskararen aztarnak ikusten zituen Plazidok San Ignazioren gaztelaniazko testuetan.

Hango egonaldia amaituta, hona etortzeko aukera irekia zuten berriz jesuitek eta Xabierko ikastetxera bidali zuten nagusiek, gazteen irakasle eta arduradun.

Gauza batek harritzen gaitu begien aurrean dugun argazki honetan: leihoko sareta erabat itxita eta argia piztuta daukala ari da gure gizona lanean. Zer-gatik? Gaua delako, pentsatuko duzue. Ez, bada, ez nahitaez behintzat. Egunez ere horrela aritzen omen zen askotan lanean, leihosaretak itxita, kanpoko ezerk arreta galarazi ez ziezaion.

Batxilerreko programa berrian latina sartzekotan zirela-eta, «Latin-gaztelania» hiztegi bat idazteko eskatu zioten nagusiek, eskuko hiztegia, ikasleen mailakoa.

Pozik eta harro esaten zuen, marka bat jarri izan balu bezala, irailaren 29an, San Migel egunean, hasi eta hurrengo urtarilaren 6an, Erregeen egunean, amaitua zuela lana. Loiolako talde bati grekokoko hiztegia egiteko manda-tua emana omen zioten, eta berak latinekoa amaitua zuenean haiiek artean hasi gabeak zirela esaten zuen irribarrez Plazidok. Gerora editorial handiek hiztegi hobeak argitaratuko zituzten, seguruenik, baina harenak bere garaian harre-ra ona izan zuen: 50.000 ale saldu omen ziren.

Plazidoren izaera nolakoa zen erakusteko ekarri dut argazki hau zuen au-rerra. Langile porrokatua zen, eta baita, hala esan badaiteke, egoskorra ere. Lan bati ekiten zionean eta helburu bat ipini, ez zuen bakerik izaten hura burraturu artean.

* * *

Hirugarren argazkirako hogeita hamar urteko saltoa egingo dugu. Veruelako monasterioan dago Plazido, hango bibliotekan zutik, apaletako liburuak antolatzen. Berrogeita hamar bat urteko gizon heldua da. Aurpegi alaia du. Leku eder eta lasaiaren dago, Moncayo mendiaren oinetan, tradizio luzeko monasterioan (14), eta hor emango dio azken bultzada bere lan handiari.

Urruntzearen gaia dela-eta, honela idatzi zuen artikulu horretan: «A pesar del [l]argo espacio de más de treinta años, que transcurrieron desde que Ignacio dejó la casa paterna de Loyola, delataba el santo Fundador en sus conversaciones y en sus escritos su procedencia vasca. Ni el espacio, ni el tiempo fueron capaces de borrar los rasgos atávicos de S. Ignacio, el mayor de los vascos. Es que la lengua que se ha mamado con la leche materna, influye más o menos claramente a través de toda la vida [...].

Dice una antigua leyenda que vivía la concha marina como en casa propia en medio de las rompientes del mar y fue un día transportada al interior de la tierra firme, a lo alto de las más encumbradas montañas. Pero aun allá conservó en sí la concha, cual inolvidable recuerdo, ese extraño y misterioso rumor como de una lejana rompiente, como eco del inmenso mar! Así también Ignacio, transportada de su casa paterna por la Providencia a lejanas tierras conservó en su acento y en sus escritos el eco dulce y armonioso de la lengua vasca!!» (RIEV XXVII, 1936, 65).

(14) Monasterio hori ostatu bilakatua zen Mendizabalen amortizazioaren ondoren. Han iga-ro zituzten hilabete batzuk G. A. Bécquer espainiar idazleak eta haren anaia Valeriano margola-

Xabirren ikusi dugunetik itzulinguru asko egin ditu Plazidok batera eta bestera. Aurrena Loiolan pasatu zituen hilabete batzuk, grekoko hiztegia egiten ari zirenei laguntzen. Bilbon, gero, beste hilabete batzuk, gerrakoan deseigna geratu zen Mensajero argitaletxearen biblioteka berrantolatzen. Ondoren Burgosko Oñan, zazpi urte, Suarez teologoaren obren edizio kritikorako langaiak prestatzen (15). Han hasi zen, atsedenari orduak kenduz, bere hiztegi handirako fitxak egiten. Hurrengo zazpi urteak Loiolan egin zituen ostera, irakasle eta liburuzain, eta, noiznahi, bestelako lanen arduradun.

Hargatik, pozik zen gizona, 1956an Veruelara bidali zutenean, han bere lanerako asti gehiago izango zuela pentsatzen baitzuen, han ere irakasle eta liburuzain jarri bazuten ere.

Eta halaxe gertatu zen. Hiztegia idazten eta haren zabalkundea egiten urte emankorrak izan zituen Veruelan egindakoak. Nahiko fitxa bildu zuela iritzi zionean –300.000 eta gehiago ba omen zituen–, hiztegia idazteari ekin zion. Informatika aurreko garaiak ziren haiak eta eskuz idatzi zituen aurrena hiztegia osatuko zuten folioak –tomo handitan bilduak–, gero makinaz kopiatzeko. Hiru eskualdi eman zizkion idatzetari: lehenean, hiztegiaren gorputza osatuko zuena idatzi zuen; bigarrenean, zenbait zerrenda eta liburutatik hartutako hitzak sartu zituen; eta hirugarrenerako utzi zuen gehien kezkatzen zuen kontua, hitz berriena.

1959an eskutitz bat bidali zion Veruelatik Euskaltzainburu Inazio Maria Etxaideri, bere lanaren berri emanaz. Neologismoen kontua aipatzen dio:

Itz berriei buruzko arazo au, alde ta alderdi guzietako euskeltzaleen iritzia aztertua, ausnarrean darabilt aspaldi ontan [...]. Oñarri-legean edo lege nagusi batzutan euskeltzale geienak bat etortzea, nere ustez, iritxi diteken gauza da; baño lege nagusi oiek gero *itz bakoitzean* nola bete, ortan izango dira istilluak. Euskeltzale guziak, zar edo berri *itz guzietan* iritzi batera ekartzea, izugarrizko miraria izango litzake, eta eztegu mirari orren zai egon bear. Dirudienez, batzuen lanbide bakarra zorioneko arazo ori aserre bizian gora ta bera astintzea besterik ezta, edo or nimbait. Bestela ere, ba'daukagu zeri ekin. Beste iritzikoei aserrea era-kustea ta eztenka erasotzea, ezta eztarako bide egokia. Gure artean, nere ustez, burruka geiegi egin degu elkarren kontra: garbizaleak alde batetik, eta garbizale eztiranak bestetik. Nik gauza oietan, *azken erabakia* artu baño len, iritzi guziak aztertu nai nituke, eta ortarako beste euskeltzale askorekin itz egin nai nuke, eta batez ere EUSKALTZAIN'ekin (16).

riak (1863-64). Han zegoela idatzi zituen poetak *Desde mi celda* gutun ezagunak. Gaur egun Zaragozako Gobernuarena da monasterioa eta Bécquer anaien erakusketa iraunkorra ikus daiteke harren geletan.

(15) Oñan zegoela inguruko herri batera joaten omen zen igandero meza eman eta sermoia egitera. Sermoia egiten ohitzeko hartzu omen zuen lan hori, baina ez omen zuen inoiz hartara ohitzea lortu. Ez omen zuen predikatzeko balio, eta dar-dar batean egoten omen zen sermoia egin behar zuen bakoitzean.

(16) KM Kulturguneko funtsetan: «Koldo Mitxelena eta Plazido Mujikaren arteko elkarri-dazketa».

Eta eskutitzaren azkenean hitzordua eskatzen dio euskaltzainekin hitz egiteko, hiztegiari azken eskualdia eman baino lehen haien iritziaren berri jakin nahi duela-eta.

Berehala bidali zion erantzuna euskaltzainburuak. Hiztegiarena jakiteak eman dion poza adierazten dio aurrena:

Ezta nolabaitekoa zure bizkarraren gañean artu dezun zama
esaten dio. Eta honela jarraitzen du:

Alperrik det esatea euskaltzain guziok oso pozik aituko dizugula gai oni buruz. Danokin batera, solas bat nai badezu eduki, etorri zaitez batzarrea degun egunean (ille guztieta azkeneko ostegunean). Askok naiago izaten dute gende gutxiagorekin bildu, askorekin baño, obari audiagoa lortzen dalako, beren esanez. Nola nai, garaya elduko danean, idatzi zaiguzu, mesedez, kartatxo bat, eta egin bear dan erabakiko degu, zer eta nola (17).

Ez dakit inoiz egin ote zen bilera hori, baina bere lana Euskaltzaindiari erakutsia ziola esaten zuen Plazidok (18).

Veruelako txoko eder hartan eman zion, bada, bere hiztegiari azken bultzada. Gero, lanik handiena egina zuenean, 1964an, Loiolara ekarri zuten ostera nagusiek. Hartara, inprintako lanak eta zabalkundea gertuagotik segitu ahal izan zituen. Eta azkenean, esan bezala, 1965ean, argitara eman zuen hainbeste urtetako lanaren emaitza zen hiztegia.

* * *

Iritsiak gara, horrenbestez, azken urratsera. Oraingoan ere argazki bat ekarri behar banu zuen aurrera, egunkari eta aldizkari askotan agertu dena eka-rrri beharko nuke: fitxaz betetako zapata-kaxaz eta liburuz inguratua ageri da argazki horretan Plazido zaharra, agure buruzuria, Loiolan, bere gelako mahai aurrean lanean, betaurrekoak sudur-puntara eroriak dituela. Argazkia erakutsi beharrean, ordea, Plazidoren esaldi bat entzunaraziko dizuet nire hitzaldia amaitzeko, poz oihu hau: *Misión cumplida*.

1965ean gailurra jo ondoren, bertan goxo geratzeko aukera bazuen Plazidok, aspaldiko asmoa ondo betea baitzuen. Eta hala bizi izan zen azken urte haitetan, alai eta pozik. Gizon apala zen, tolestura handirik gabea, eta erraz nabaritzen zitzaison barruan zeraman poza. Aupada handi hori egin ondoren, ordea, aurrera lanean jarraitzea erabaki zuen, bere burua sasoiko ikusita.

(17) *Ibid.*

(18) Euskaltzaindiarena aipatzen ari naizela, nahi gabe zabaldu nuen oker bat zuzendu beharrean nago. Loiolako artxiboa osabaren paper zaharrak begiratzen ari nintzela, hura hil ondoren jesuita batek eginiko ohar biografiko batean hau irakurri nuen: «es miembro correspondiente de EUSKALTZAININDIA a partir del año 1977-78». Eta hala esan nien nik elkarritzeta egitera hurbildu zitzaitzidan kazetari batzuei ere. Datu hori, ordea, ez da zuzena: 1957an egin zuten euskaltzain urgazle, Euskaltzaindian berean esan didatenez.

Aurrena, alemanetik itzulitako bi eleberri labur argitaratu zituen 1968an, jadanik 1952an argitaratua zuena bat –gorago aipaturiko *Noni eta Mani*– eta geroztik itzulitakoa bestea –*Mendiko argia*–.

Horrez gain, ordea, beste lan handi bati ekin zion urte haietan: bere hiztegia irauli eta *Euskara-gaztelania* hiztegia prestatzen hasi zen. Horri ekin zio- nean, ordea, ustekabeko eragozpen batekin egin zuen topo. Ordura arte batik bat hitz berrien kontuak kezkatzen bazuen, handik aurrera idazkera batuarekin egin behar izan zituen kontuak.

Jakina den bezala, ez zuen bat egin Euskaltzaindiak Arantzazun erabaki zuen idazkerarekin, *h-ari* zegokionarekin batez ere. Haren aurkakotasuna, ordea, ez zen ideologia politikoen edo gisa horretako arrazoien ondorio. Arrazoi praktikoek eragiten zuten haren jarrera. Ahulegia ikusten zuen euskaldunen egoera, idazkeran horrelako zaitasunak sartzen ibiltzeko. Euskararen egoera kezkagarri hartan, euskaldunei erraztasunak ematearen aldekoan zen, eta hala aitorrtu zuen ageriki.

Bistan da horretan ez zuela asmatu. Ez zen gai izan etorkizunak ekarriko zituen aukerak aurreikusteko. Gure hizkuntza irakaskuntzan sartzeak, hedabide- etan erabiltzeak eta, hitz batean esanda, ofizial izateak zer eta nolako aukerak ekarriko zituen ikusteko gauza ez zen izan. Hargatik haren kezka eta beldurra.

Kontua da bere betiko bidean aurrera jarraitzea erabaki zuela, *Euskara-gaztelania* hiztegirako ere lana gogor eginez. Hain gogor ere: «lanpetua-ocupado» jartzen zuen txarteltxo bat omen zeukan beti gelako atean ipinia. Behin jesuita atzerriar bat etorri omen zen Loiolara egun batzuk igarotzera, eta Plazidoren gelaren ondoko gela bat eman zioten. Gela hartin benetan inor bizi ote zen galdu omen zuen atzerriarrak, ez baitzuen inoiz inor handik ateratzen ikusi. Bere lan-zulotik gutxi ateratzen zen nonbait Plazido. Eta ateratzen zenean, nora joaten zen? LANA galarazten zioten bisitetatik alde egiteko, lan tresnak hartu eta, ez atezaínak ez beste inork ez zekiela, elizako kupula ondoan zegoen gelatxo batera igotzen omen zen zenbaitetan, etenik gabeko la- nean aritu ahal izateko.

Hala, bada, 1981ean bere bigarren euskal hiztegia, euskaratik erdarara- koa, argitaratu zuen liburuki bitan.

Haren hitzaurreari –Urnieta jaioterra eta Oria auzoa aipatzen dituen hitzaurre hari– izenburu hau ipini zion letra handiz: *MISIÓN CUMPLIDA*. Barrren-barrendik egindako poz oihu ozen bat bezala entzuten dut nik esaldi hori. Plazido Muxikaren azken aupada!

* * *

Nik ere hemen amaitu beharko nuke neure hitzaldia. Azken orduan, ordea, aurrera jarraitzeko eskatu didate, Plazido Muxikaren lanari buruz iritzi- ren bat azaltzeko. Aurrera egingo dut, bada, hala eskatu didatenez.

Diccionario castellano-vasco handiari buruzko iritzi batzuk azalduko ditut, labur zurrean. Ez naiz, bistan da, kritiko gisa mintzatuko, ez bainaiz hiztegi kontuetan aditua. Erabiltzaile moduan mintzatuko naiz, hiztegiak eragin dizkidan gogoeta batzuk, eta besteri entzundakoak, azalduz.

- Gorago esan dut hiztegiaren lehen eskualdia amaitua zuenean Euskal-tzaindian aurkeztu zuela Plazidok, euskaltzainen iritzia jakin nahirik. Ontzat eman zuten haiiek, oro har, haren lana, baina bi ohar egin zizkioten. Lehena hau: *erdara-euskara* hiztegia idatzi baino lehen euskarakoa egin behar zela, ahalik eta osoena, euskararen hitz guzti-guztiak ez bada, bai gehienak behintzat bilduko zituena. Hori egin eta gero etorriko omen ziren gainerako lanak.

Bazekien Plazidok egunen batean egin beharko zela euskararen *Thesaurus* handi bat, gaur dugun *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren gisakoa, alegia. Horrek, ordea, talde lan luzea eskatzen zuen. Eta zer egin behar zen bitartean? Zain egon, euskaldunak beren lanetarako beharrezko zituzten tresnak egin gabe utzita? Ez zen Plazido iritzi horretakoa. Aurrera egin eta argitara eman zuen bere hiztegia.

- Eta –eransten dut nik orain– balio handikoa izan zen hiztegi hura bere garaian. Besteak beste, mailegatze itsuak ekarriko zigun gaztelaniarekin-ko morrontzatik libratzeko tresna egokia izan zelako. Itzultzaintzat batez ere, baina ez haientzat bakarrik. Hemengo euskaldun elebidunak –ia euskaldun guztiak, egia esanda– erdaraz pentsatuta buruan ditugun hitzak eta kontzeptuak euskaraz nola eman gabiltzanean, hitz horiek besterik gabe maileguz hartzea izaten dugu biderik simpleena eta errazena. *Elocuente* esan nahi dugula? *Elokuentea* esan eta kito, horixe dugu biderik motzena. *Produkzioa* esatea bezala. Horrela, ordea, erdararen erabateko morrontzan eroriko litzateke euskara. Muxikaren hiztegian aurkitzen ditugu morrontza horri izkin egiteko aukerak. Han ikusiko dugu *ele-ederra* esan daitekeela *elokuente*-ren lekuan, eta *produkzio-z gain ekoizpen* hitza ere hor dugula.
- Balio handikoa ez ezik, harritzeko moduan aberatsa aurkitu zuten kritiko askok hiztegi hori. Honela dio, esate baterako, Mitxelenak:

«la obra del padre Múgica merece en conjunto un elogio incondicional por la riqueza casi exhaustiva de su documentación» (19).

Euskaltzainek eskatzen zuten euskal hiztegi handia artean egin gabe baizegoen ere, jakin zuen Plazidok euskal hitzen *corpus* erraldoia biltzen. Eta ez da hori meritu txikia.

Erabilitako iturrieik lagundu zioten horretan. Ez zen ibili, batzuek hala uste badute ere, euskaldunen ahotik hitzak biltzen. Inoiz, han edo hemen, aten-

(19) *Enciclopedia Auñamendi*, s.v. «Múgica Berrondo, Plácido».

tzioa ematen zion hitzen bat entzuten bazuen, idatzi egingo zuen bere fitxetan, noski. Baserritar bati entzun zion behin hegazkin *keduna* esaten, «a reacción» direlakoak adierazteko. Eta aintzat hartu zuen hitza. Bainaz ez zuen hori ohiko lan modua. Testu idatziak izan zituen iturri, testu idatzi asko.

Hiru iturri mota berezikor nitzuzke nik.

Batetik, hiztegiak eta gramatiketako hiztegitxoak zeuden. Aurreko hiztegi asko hustu zituen bere fitxetan, batez ere Azkuerena.

Euskaratutako lanak, bigarren. Hala, besteak beste, Kempisen *Jesukristoren imitazioa* liburu ezagunaren bost bertsio arakatu zituen. Orixeren lanak ere hustu zituen bere fitxetan. Orixeren mireslea zen Plazido eta arretaz aztertu zituen haren *Urte guziko Meza-Bezperak* eta San Agustinen *Aitorkizunak*, non hitz altxor handia aurkitu baitzuen. Eta horrela beste liburu asko.

Eta, hirugarren, batetik eta bestetik bildu zituen hitz zerrenda bereziak aipa daitezke. Hala, adibide bat emateagatik, Botanika eta Zoologia gaiez jelsulan batek utzitakoak.

- Aberastasun horrek ez zuen, ordea, dena alde onekoa izan. Hiztegiari jarritako eragozpenen artean hau da bat: hitzak erreferentziarik gabe ematen direla. Ez nondik hartuak diren esaten da hiztegian, ez non, nola eta zenbat aldiz erabiltzen diren. Behin bakarrik agertzen dena izan daitete hitza, edo idazle batek bakarrak erabilia. Edo barra-barra erabiltzen dena. Ez zaigu esaten. Denetik biltzen duen biltegi baten itxura du hiztegiak.

Fitxetan idatzita zeuden, bai, hitzen erreferentziak, hasiera-hasierakoetan izan ezik. Azertutako liburu bakoitzari zenbakia bat ipintzen omen zion, klabe moduan. Klabe hori eta orrialdearen zenbakia ipintzen omen zuen gero fitxetan. Hiztegian, ordea, ez zituen erreferentzia horiek sartu, arrazoi praktikoek aginduta. Izugarri handituko zuen horrek hiztegia, garestiegia eginaz, batetik, eta erabiltzeko traketsagoa bilakatuz, bestetik.

Horrek ondorio jakingarri bat izan zuen, ordea.

Mitxelenaren hitzak entzungo ditugu berriro:

«Un reparo más importante [...] es el carácter demasiado poco selectivo de este diccionario. El autor se ha dejado tentar, como tantos otros, por la aparente riqueza que constituyen las variantes de todo género, formales o semánticas, del léxico vasco y ha tratado de recogerlas todas, sin un criterio normativo que en una obra de esta clase parece estar en su lugar» (20).

Erabiltzaileari dagokio, bere euskararen ezagutza baliatuz, hiztegian esan gabe geratu dena betetzea eta hitz bakoitzaren ezaugarriak antzematea. Lan

(20) *Ibid.*

egin behar bu, nolabait esan, eskaintzen zaizkion aukeren artean berari kome-ni zaiona hautatzen.

«El resultado es –berriro Mitxelena– que... su libro será «peligroso» en manos de personas de escasa formación en nuestra lengua, aunque vaya a ser útil y aun utilísimo para quienes disponen de una buena preparación y son capaces de elegir por su propia cuenta» (21).

- Azken hitz bat, oraindik, neologismoei buruz. Lehenago esan dudan moduan oso kezkatua zegoen Plazido Muxika auzi horrekin. Gaztelaniako hitzen ordaina ematean bi aukera izaten zituen maiz: edo gaztelaniatik hartutako mailegua hobetsi, edo asmatutako euskal hitz berriari lehentasuna eman.

Auzi horretan muturretatik ihesi ibili nahi izan zuen. Mailegu zahar etxe-kotuak onartzeko ez zuen inolako zalantzariak. Hala adierazi zion euskaltzain-buruarri gorago aipatutako eskutitzean; Euskaltzaindiak egin berria zuen adierazpenean aipatzen ziren hitzak berak ere onartzen zituela, alegia, gehienak behintzat.

Aukeran, ordea, garbizaletik gehiago zuen. Horrek ez du esan nahi, jakina, bera ibili zenik jo eta ke hitz berriak asmatzen. Baten bat asmatuko zuen, beharbada, baina ez zen horretan bereziki saiatu. Iturrietan aurkitzen zituenei zer leku aitorrtu behar zitzaien erabakitzea zen haren kezka.

Hitz berria gardena bazen eta ondo eratua bazegoen, nahiago zuen hura mailegua baino. Halako hitz berriak proposatzearen aldekoa zen. Gero, herriak eta idazle onek erabakiko omen zuten hitz horien etorkizuna: batzuk aukera-tu eta beste batzuk bidean utziko zitzuzten.

Gaur erabiltzen ditugun irizpideetan bada bat, haren azalpenetan agertzen ez dena: nazioarteko hitza izatearena, alegia. Horiekin ere besteekin bezala jokatzen zuela esango nuke. Triangulo *isosceles* esan beharrean, konparazio batera, *zango-berdin* esatea proposatu zuen, grekoko hitz horrek esanahi horixe duelako, hain zuzen ere.

Kontu horiek gorabehera, esan beharra dago, nik uste, aski zuzena eta neurtoa izan zela Plazido bere irizpideetan. Mitxelenaren hitzekin amaituko dut neure hitzaldiaren zati hau:

«Vuelvo a insistir expresamente en que [la obra del padre Múgica] me parece excelente y no sólo [por] la minuciosidad en la recogida del material y la claridad de su ordenación, sino también por el acierto general con que ha sabido resolver tantos escabrosos problemas» (22).

Horrenbestez hitzaldia amaitzea dagokit. Ez nuke, hala ere, esker hitz batzuk esan gabe bukatu nahi. Eskerrak eman nahi dizkiet, senide guztien ize-

(21) *Ibid.*

(22) *Ibid.*

nean, gure osabaren mendeurreneko ospakizunetan parte hartu duten guztiei. Euskaltzaindiari, gaurko bilera hau antolatu duelako. Urnietako herriari, agintariei eta herritarrei, egin dituzten ekitaldi guztiengatik; bereziki, udaleko teknikari eta langileei, dena hain ongi eta hain egoki antolatu dutelako; berdin, noski, ekitaldienan parte hartu duten beste guztiei, Oria auzoko lagun jatorrak ahaztu gabe. Kazetariak ere eskertu nahi nituzke mendeurren honi eskaini dioten arretagatik. Eta ez nituzke aipatu gabe utzi nahi Mikel Atxaga urnietar idazle eta kazetari trebea, ekitaldi hauen guztien eragile izan dena, eta Guillermo Etxeberria, EGAN aldizkariko arduraduna, gure osabak itzulitako bi eleberriak berrargitaratu dituelako.

Zuei ere, entzuleoi, mila esker eskaini didazuen arretagatik.

Eskerrik asko guztioi!

**ANDIMA *IBIÑAGABEITIA, IMANOL*
BERRIATUA ETA GORGONIO RENTERIA
idazleei omenaldia**

Elantxobe, 2006-V-26



Euskaltzaindia



Elantxobe Udalak

Andrés Urreaga Badiola euskaltzainburua eta Amaia Eiguren Arza Elantxobeko alkateak ategir handiz goibidatzeko zinenez, Andima Iñagabertia, Imanol Berriatua eta Gorgonio Renteria euskal idazleek omenezko elizaldia, 2006ko maiatzaren 26an, ondoko, arratsaldeko 18:00etan, Elantxobe San Nicolás elizan. Hona hemen egitaraua:

- Alkatearen ongiotorria
- Euskaltzainbururen agurra
- Txomin Peillot: "Andima Iñagabertiarren sortasuna".
- Bernardo Atxaga: "Andimaren itzalpen bat eskuak".
- Xabier Kintana: "Imanol Berriatua: euskal etorkizunaren erile".
- Igoa Etxebarria: "Gorgonio Renteria, idazle".

* * *

D. Andrés Urreaga Badiola, presidente de Euskaltzaindia, y D." Amaia Eiguren Arza, alcaldesa de Elantxobe, tienen el honor de invitar a Ud. a la sesión pública que, con motivo del homenaje a tres escritores vascos de Elantxobe -Andima Iñagabertia, Imanol Berriatua y Gorgonio Rentería-, se celebrará el día 26 de mayo de 2006, viernes, a las 18:00 horas, en la Iglesia de San Nicolás de Elantxobe, según el siguiente programa:

- Bienvenida de la Sra. Alcaldesa de Elantxobe
- Palabras del presidente de Euskaltzaindia
- Txomin Peillot: "Andima Iñagabertiarren sortasuna".
- Bernardo Atxaga: "Andimaren itzalpen bat eskuak".
- Xabier Kintana: "Imanol Berriatua: euskal etorkizunaren erile".
- Igoa Etxebarria: "Gorgonio Renteria, idazle".

ANDIMA, IMANOL ETA GORGONIO ELANTXOBETATARREI OMENALDIA

*Amaia Eiguren,
Elantxobeko alkatea*

Arratsalde on eta eskerrik asko etortzeagatik.

Herri honentzat, Elantxoberentzat, ohore handia da gaurko lan saioan gure Hizkuntzaren Akademiako kideei ongietorria eta harrera egitea.

Euskaldunok zorte handia daukagu. Izan ere, Historian zehar bidaiatzeko aukera ematen duen denboraren makina ospetsu hura benetakoa izanez gero, gure arbasoekin topo egingo bagenu, haiekin euskara oinarritzko eta soila erabiliz komunikatzeko gai izango ginateke, eta talde bateko kide ohartuko.

Europan hori egin ahal dezakeen Herri bakarra gara, eta, agian, munduan horretarako gai diren gutxietako bat. Zorte handi hori ez daukate beste batzuek, arbaso horiekin komunikatzerik izango ez luketen horiek, konkistatu eta kolonizatu zuten haien hizkuntzan baizik mintzatzen ez dira-eta, haiiek bezalakoak izan gaitezen gura izateaz gain.

Horregatik eskerrak emon gura deutsaguz Euskaltzaindiari, baita bertako kideei ere, Elantxoberen izanean, haiek gauzatzen dute-eta mirari hori, euren lan eta ahaleginarekin.

Eskerrik asko.

ANDIMA, IMANOL ETA GORGONIO IDAZLEEI OMENALDIA

*Andres Urrutia,
euskaritzainburua*

Agurra

Elantxobeko alkatesa eta zinegotziak,
Euskaltzainkideak,
Elantxobeko guztiak,

Arratsalde on.

Nork bere ametsen artean izaten ditu halako batzuk, barru-barrukoak, bizzitan zehar behin bakarrik gauzatzen direnak, edo, beste modu batera esanda, sarri baino, bakan eta bakoitzurik gorpuzten direnak.

Halakoxea da gaur egunekoa niretzat. Hain zuzen ere, Elantxobeko herrian, Elantxobeko euskal idazleak omentzen ditugula, elantxobetarrei berba egiteko aukera izatea. Ez da, ez, aukera eskasa, Ogoñoko punta etxeko duen batentzat, etxearen entzun bainituen, ume-umetatik, Elantxobeko zertzeladak. Hamaikatxo bider etorri naiz, etorri ere, Ibinagatik behera, Elantxobeko portura nahiz goiko aldera, aspalditik munduan zehar ibilitakoa babes eta kai ezagun eta amultsura datorrenaren antzera. Tankera horretakoa da niretzat Elantxobe, Natxitxun, Ean eta Ibarrangelun erroak izan eta aldian-aldian hona etorri bitartean.

Denborak, alabaina, laburtasunaren izenean dihardu, eta, ondotxo daki-zuenez, ni baino jakituria handiagoakoak daude gaur gure inguruau, zuei hitz egiteko prest.

Zilegi bekit, nolanahi ere, eurok aurkeztu bitartean, bizpahiru gomuta plazaratzea, Euskaltzaindiak Elantxoben duen egokiera baliatuta:

1. Joan bedi lehena gure gaurko hiru idazleak gogoratzeko, hain justu ere, aldi eta egoera desberdinaren euskarari eusteko gauza izan zirela-ko. Kronologiaren aldetik, hasierakoa da Gorgonio Renteria, Igone Etxebarria euskaltzain urgazleak aipatuko dituela haren xehetasunak. Gerokoagoak dira Andima Ibinagabeitia eta Aita Imanol Berriatua. Bi-

-biok elantxobetarrak, bi-biok euskarari atxikita, euren ibilbideak dira erakuslerik agerikoenak garai bateko euskal kulturaren esparruan. Hartara, eurok ezagutu eta gerora ere, euskalgintzaren eta euskal letretako ahaleginetan aditu diren hiru euskaltzain oso izango zaizkigu hizlari: Xabier Kintana, Berriatuari buruz, eta Txomin Peillen eta Bernardo Atxaga, Ibinagabeitiaren inguruan.

2. Hiru izateak ez du ukatzen laugarrenaren aipamena, abagune ezin aproposagoa baita hau Ruiz de Azua'tar Andoni, *Ogoñope* (1904-1974) zuen aurrean aipatzeko. Elantxobeko euskaltzale eta abertzale sutsua, haren lanak, kazetaritzakoak zein bestelakoak, oraindik ere bildu gabe daude, norbaitek noizbait batuko dituelakoan. Gomutaren gomutaz, gogora ekar ditzadan haren *Ipuiñak eta izkirimiriak* (Bilbo, 1936), eta kazetaritza-artikuluak, *Euzkadi, Eguna edo Aberri* argitalpenetan. Gerra ostean Mexikon erbesteratua, *Euzko Deya, Ekin* eta os-terantzeko aldizkarien ardura ere izan zuen.
3. Idazleak, dena den, ezin sortu, horretarako girorik ez badago. Elantxobeko herriak aspalditik erakutsi du euskararekiko atxikimendua, eta horixe izan da betidanik inguruan bizi izan garenontzat eredu eta gildari. Niretzat ere hauxe da unerik egokiena hori aldarrikatzeko, Elantxoben bertan jaso nituelako, gazteago nintzela, Azkue zenaren gramatika eta Novia de Salzedoren hiztegia, eskutik eskura, *Anaitasuna* aldizkariaren sail oso batekin eta euskara aurrera eramateko aholkuarekin batera. Horrexegatik jarri nahi ditut gaur ageriko, elantxobetar guztien irudiz, Eufemia, Petra eta Alfontso Gabiola elantxobetarren izenak, euskaltzaletasunaren adibide nabari moduan. Horienea ere bada itsas euskaltzaletasuna, mundu zabaleko euskaltzaletasuna, Elantxobeko lehorrekoek zein itsastarrek beti adierazi dutena, eta egun omentzen ditugun idazleek ere egoki erakutsi zuten.

Eskerrik asko, beraz, Elantxobeko Udalari eta herritarrei, egunotan eman diguten harrerarengatik. Eskerrik asko, orobat, euskarari erakutsi dioten atxikimenduarengatik.

Buka ditzadan nire hitzak, eta izan bezate orain nire mahaikideek euren txanda. Horren aurretik, hala ere, Euskaltzaindira etorri den mezua irakurriko dizuet, Andima Ibinagabeitia zenaren senideek bidalia, hauxe baita, zalantzak gabe, arestian goraipatu dudan euskararekiko atxikimendu horren erakuslerik begi-bistakoenai.

Honetara dihardu:

ANDIMA IBINAGABEITIAren omenaldian

Idazki hau Andima Ibinagabeitiaren iloba den Miren Lore Mentxaka Ibina-gabeitiak igorri dio Euskaltzaindiarri Caracasetik, bere osabaren omenaldian jende aurrean irakurtzeko eskatuz.

Osaba laztana, azkenean lortu dozu zeuk merezi dozuna, orain danak dakie zeure bizitzan zenbat lan egin dozun euskeraren alde.

Andima omentzen dogun egun honetan, bihotzez gurako neuke zeuekin ego-tea Elantxoben, baina zoritzarrez, Venezuelan bizi naizelako, ezin neike hor egon.

Horregaitik, lerro honen bidez gura dot argitaratu Andimari deutsodan mai-tasuna, eta beti bihotzean gomuta, eta hori dana zeuen aurrean adierazi.

Bere azken hamahiru urteak bizi izan zan geugaz, eta ordutik aurrera neure seme-alabak eta nik ere, euskeraz hitz egiten jarraituten dogu, Venezuelan bizi arren, hori izan zan neure osabaren erakutsia.

Eskerrik asko Pako Suduperi, Euskaltzandiari eta hor zagozen guztiari.

Agur beroena danori bihotzez.

Mentxaka eta Ibinagabeitia 'tar Miren Lore.

Caracas-etik, 2006ko maiatzaren 26-an.

Mila esker.

Esan dut.

ANDIMA ADISKIDEA

Txomin Peillen

Nola ezagutu nuen Andima?

Paristarria izan eta, hamar bat urtez familiaz kanpo, ez neki euskaldunik bazenez, Parisen. Adiskideak ez nituen paristarrak, bretoiak baizik. Haien bidez, etxean aipatzen ez zen euskal nazionalismoaren berri, zerbait neki. Behin, 1948.ean, *Ker-Vreizh* izeneko kultura etxean euskaldun kantariak etorri ziren. *Gernika* izeneko talde horretakoek esan zidaten, dantza eta kanta egiten zela Parisen Avenue Marceau, Eusko Jaurlaritzaren orduko ordezkaritzan.

Jauretxe txiki horretan, ostegunez, dantzariak, eta kantariak biltzen ziren. Hara joan nintzen. Eta ez jakin nori zuzendu lehen solairuko bulego batean atea jo nuen; ez zen hor Gernikako bilera lekua, ez eta politika hitzaldi gela, baina atea ireki eta Andima Ibinagabeitia hantxe zegoen. Gizon adeitsu eta gurbila zen, pixka bat ordu arte ezagutzen nituen euskaldunak baino, esangura onean, kaletarrago.

Lehen ikasbidea?

Lehen ezagutzaldiaz beti gogoratuko naiz. Frantsesetan zuzendu nintzaion. Hark euskara nekienez galdezu. Nik ulertzen bai, baina ez hitz egiten ondo. Bazuen bi urte berriz zubereraz berba egiten hasi nintzela. Esan nion folkloreak adina interesatzen ninduela euskal nazionalismoak. Hark esan zidan

euskara ikas ezazu lehenik hitz egiten eta idazten eta gero beharbada, abertzale edo patriota izanen zara.

Beraz, euskararen maitasuna, han eta orduan, erakutsi zidan. Nahiz eta pertsona trankila, patxadakoa izan, argi zen Andimak hitza jaten zuten traiderreak eta ekonomia eta karrera arazoek gidatu faltsuak ez zituela gogoko, hala nola hainbeste *basque-français* abertzale eta *vasco-español* nazionalista.

Marceau hiribideko etxe eder hartan ikasleak ere biltzen ziren. Behin abertzetasuna gai izan zen, baina faltsukeriarik gabe, Mathieu, Mixel eta Nikolas Intxauspek aitortu zuten ez zirela abertzale, abertzetasunak ez omen

baitzion ezer ekarriko euskal ekonomiari. Andimarentzat horiek errespetarriago ziren, abertzale faltsuak baino.

Andimak gonbidaturik, Aberri Egunera joan nintzen. Agirrek bost minutuz euskaraz eta ordu erdi gaztelaniaz hitz egin zigun. Ondotik, ezagutzen ez nuen Alderdiaren Ereserkia kantatu zen, baina denak isildu ondoren ez nuen, han gaztelaniaz baizik berba egiten entzun eta Andimak orduan esan zidan

horiek ez dira abertzaleak, eraldun nationalistak baino.

Berehalaxe euskarazko bizpahiru klase eman zizkidan, baita Lopez de Mendizabalen gipuzkera osotua ikasteko ikasbidea ere. Oroitzen naiz urte har-tako neguan, 1948.ean, Lizeoko irakasle baten zain ginelarik, Jakes Moal bre-toi lagunak frantsesera itzuli zidala *Soldadoaren Mendi Gabota*, bretoietik eta nik euskaraz jarri. Hau izan zen nire lehen euskal testua.

Handik ia bi urtera, Jon Mirande Andimaren bitartez ezagutu genuen anaiaik eta biok. Andima zoritzarrez, joan zitzai gun baina pare bat urtez, gero gordeko dugun ohitura bat hartu genuen, bataren edo bestearen ordezkaritzan larunbat arrastirietan, hilean behin, biltzea. Bakoitza zetorren bere idazlantxo-ekin; Mirandek olerkiak irakurtzen, nire prosa kritikara eskaintzen eta Andi-ma aholkulari.

Andimak eman zizkidan eleberri batzuk *Ekaizpean*, *Joanixio* eta *Bizia ga-rratza da*. Orduan, Mirandek bere idazlan ederrenak 1948-1953. urte horietan idatzi zituen, eta biok gipuzkera osotua imitatzen zuen hizkuntza batean idazten jarduten genuen. Andimak, bizkaitar izanik gogoz kontra bide hori hartu zukeen, baina aspaldian hartu, zeren gerraurreko batzuek «giputz» izena eman baitzieten eta bere hitzez Parisen 1953.ean idatzia:

Gainera gipuzkera osotuan pulunpatua nintzenean ere, kosta zitzaidan ene Bizkaiko euskarari uko egitea.

Bagenekien Andima kristau zintzoa zela eta geroztik pentsatu dut ez zuela fedegabez jesuitetan apaiztea utzi. Ez zen batere haserretzen gure sakrilegioak irakurtzen genizkionean. Hark zioen literaturan denetarik behar dela. Euskal Literaturari bere sakristau usaina kendu behar zitzaiola. Ez nuen inoiz entzun, ez eta irakurri Andimarengandik gure ideien kritikarik. Izpiritu zabal hori, bere jesuiten artean ikasitakotik zetorkeen, ikuspegii hori jesuita batzue-na izan zen, hala nola Zaitegirena, kristau ez ziren idazleei *Euzko-Gogoa* ireki baitzieten. Halatan ere jendetasunez gazteago ginen Peillen anaiaik tratatzen gintuen. Lehen elkarri idazten baikenion, telefonoak uzten ez dituen oroitzapenak baditugu, hala nola behin Miranderi idatzi zion ez zizkigutela gauza batzuk aipatu behar guri, Peillen anaioi, zintzoegi omen ginelako. Halaber, Huitzin Orixeri omenaldia egin zitzaionean bakarrik jakin nuen Andimak ezkutatu zidana, alegia Jesuitetan apaiz egitekotan gertatu zela. Parisen zegoela, Andimak aita abertzalea eta ama maitagarria zizkigun aipatzen eta bere buruaz as-koz isilago zen.

Andima maitagarria

Zelango poza gurasoena esaten nienean Andima gonbidatu behar genuela. Eurentzat familiakoa bezala zen: egia da amaren aldeko Etxekopar lehen-gusuaren antza handia zeukala, eta bestalde kaletar manera onak zituela; gainera, gurasoek haren euskara ulertzen zuten eta aita, euskaldun erdalzale genuena, apur bat euskaltzaletu zuen. Behin Guatemalako hiri nagusitik, 1954.eko azaroaren 14an idatzi zigun:

*Txomin eta Robert Peillen' tarrei
Paris'en*

Ene aspaldiko adiskideak,

Ez zaituztet oraino ahantzi, nahiz eta ixillaldia behar baino luzeagoa geratu. Ala ere, sarriene gogoan ukana zaituztet anai biok eta zuen buraso maitagarriak. Aldi huntan bereziki are gogoanago izanen zaituztet, urbiltzen ari zaizkigun Eguberriak direla bide. Bai Eguerri gaua, bozkariozko gaua dio zuen zuberotar kantikak, bainan ez dut uste aurtengoak bozkario aundirikene biotzarri ekarriko dionik. Aberritik urrun, adiskide maiteengandik urrunago... Ez da erre, ez noski, ene barne au poztuko. Bortxatuko naiz Paris'ko Eguerri goxoen oroitzapena nolarebait berrituz, ene biotz au alaitzen.

(...) Urrentzera noa, ez ordea, agur bero bat zuei eta zuen buraso maitagarriei igortzeko.

Aita, Andimaren urte berean hil zitzaigun, 1967.ean; aita lehenik eta orduan adiskidantzaz horren oihartzun bizia gutun batean irakur daiteke:

Caracastik Orrillak 2. 1967

Ene adiskide maitea

Atzo iaso nuen zure agorrilaren 19.ekoia eta iruzpalau egun lehenago Jonen geroagokoa berri samin batekin: zuen aita ila zela alegia. Eztakizu ondo zer nolako atsekabe aundia eman zidan berri goibel orrek. Bai biziki maite nittuen eta ditut zuen gurasoak eta inoiz eztitut ahantzikoz zuen artean eman nittuen ordu goxoak: zuen aita zenaren irudia beti daukat present, baita aren erran pullitak ere.

Eta orain denok utzi gaitu. Bai, erio aspaldi dabilkigu inguru-inguru adin batera eldu geranoit, eta gure ordua ez daiteke urrutiegi. Zuen amari elaraziko al dizkiotzu ene doluminok, baita Robert anaiai ere; eta bakerik ederrenean bego zuen aita maitea zena.

Andima adiskidea

Garai hartan euskaldun idazlegoa txikia zen eta elkar ezagutzen eta politika iritzien gainetik, adiskidetzen ginen; ez zen alderdirik eta orain bitxi lite-

keena, orduan Andima adiskidetu zen bere ideiako ez ziren Txomin, Jon Mirande, Koldo Mitxelena, Aingeru Irigaray, Jon Etxaide eta besterekin. Gauza bat, ordea, argi zen denak antifrankista ginela (Miranderentzat Franco ipurtxuri ergela zen) eta hor ez geneukan eztabaidea gairik.

Inork ez dizkigu adiskidantza horiek hautsi, nahiz batekin edo bestearekin adiskide izan garelako, gaurko abertzale hotsezko bat edo beste, nire zikintzen ibili. Hil zitzaitzidan adiskide guztiak bizirik baleude, erantzungo luke teiletatua kristalez duenak ez dezala auzokoari harririk bota.

Andima kristaua izan arren ez zuen bekatuaren zer hori gehiegi onartzen ez eta garai hartan apaizek baino gehiago prakadunek erakusten zuten azaleko sexuaren aiher edo ezinikusi hori, nahiz atzean jende haietan zernahi praktikatu.

Andimak, begi gaitzoz ikusten zuena zen sexu zapalkuntza euskal munduan eta abade batzuen zentsura; horregatik gustuko zituen Jon Miranderen olerki erotikoak eta kantu herrikoiak (Andimarekin parranda egun batez ikasi genuen k.k.ren himnoa). Bestalde erotica zela-eta Lafitte, Chabagno eta Mokoaren inkizizioei erantzun zien, eta Mirandek Nemesio Etxanizen, Salbatore Mitxelenaren, Jokin Zaitegiren ontespenak jaso.

Ez zen, ordea, bereizi sexua erakusten dituenetarik; halere gipuzkoar Andre amorantea, ezkongabea, eduki zuela jakin nuen; hernaniarra zen, Parisen bizi zen, eta Andre hark esan zidan zeinen deitoratzen zuen ez Venezuelara joana, gizon goxo harekin bizitzera.

Orduan, ez genuen sosik, Andimak, ordea, Miranderekin gonbidatzen gituetan Natibitate aldean, kabarete batera, espaniol edo jazz kabaretera. Behin hala lekuaren flamenco dantzari neska ederrekin dantzan jardutzen zuten. Eta tartean, Andimak esan zuen «*horiekin zer gauzak pasa nitzakeen*» eta dantzariak, Bermeokoak baitziren, «*zugaz ez*». Andimari gustatzen zitzai ongi jatea eta edatea, baina ez zen Mirande bezala mozkortzen. Despedida egin genuenean *Invalides* aldean, hango parkean Andima, Jon, Robert anaia eta laurok lerroan jarri ginen eta belarrean ur soberakina utzi, Napoleon diktadorearen desohorez.

Beraz, Andimak bizia maite zuen, maiteegi apaiz izateko beharbada, baina horretan ere zuzena eta zintzoa izan zen. Horregatik Harengandik hartzuen azken karta adierazgarria zen: bazekien garaiko medikuntzarekin ez zuela iraungo, orduan, ezpaitziren koronariak halaxe aldatzen. Hona, gure aitaren heriotza aipatzen duen hartan zer idatzi zidan:

(...) Gainera bi ilabetean ondo-ezik nago, lanera gabe, biotzeko minez, koronaria delakoaren ersturaz. Aspaldikoa dut eritasun hori, bainan oraingo huntan bestetan baino gogorkiago jo nau».

Andimaren herrimina

Nahiz Guatemalan, nahiz Venezuelan Euskal Herriaren ametsan zen benetako abertzale eta euskaltzale sutsua zena. Gutun askotan darabil gaia:

Guatemala 1954.eko azilaren 14an

Eremu auetan bada ikusgarririk, bainan ni asperturik nago. Gure Euskal Herria milla bider ederragoa da, txiroago izan arren...

Handik zazpi urtera 1961.ean, honela Venezuelatik idatzi zidan:

Zenbatetan damutu zaidan Europa maitea bazterrat utzia. Lurralde auetara nintzanez gero usu erabili oi dut buruan Monroek esana: «Ameriketa amerikarrentzat». Ori baino egia galantagorik gizon orrek ez zuela esanuste dut, bere bizi guztian. Bai Ameriketa amerikarrentzat, ez guretzat geure erri doakabea biotzetik maite dugunontzat. Nere bost zentzuak antxe dauzkat jarriak beti, aberriira noiz egaldatuko erpai. Bainan egun ori zeru zola sakonean urrunago eta urrunagotzen ari zaidala dirudit izarbel its baten pare. Noiz eten ahal izango ote ditut lur oni lotuta nadukaten lokarri ilaunak? Ez iakin.

Caracastik bagilak 25-1957.eko gutunean berriz honela idatzi zuen:

Nun da gure Europa ederra? paregabeko Europa? Ez dago lurralteori be-zalakorik mundu zabalean. Alper dukete esan Ameriketak Ameriketak... Naiago dut milla bider gure Europa zaharra bere aje ta eritasun guziekin. Bada oraindik mundu ontan dirua baino garaiago dan zerbaite, Ispiritu, alegia... Eta emen gaindi ez duzu orko ispiritutik aurkituko, eta dirua nekez...

Hil zen urtean, irakasle lan eskaintza egin nion Parisen, Europara itzul zedin, ezen bere erantzuna baizik ez baitzait gelditzen, eskerrak emanez. Hil zen urtean bidali zidan gutunean dio:

Caracastik urrilak 2-1967

(...) eta eskerrik aunitz egiten didazun eskeintza ederraren alderako. Egia esan, orrako gurari aundiz nago, Euskalerriratzeko, gogo bizian alegia. Bainan oraindik oztopo aundiak ditut nire Aberrian sartu ahal izateko. Gezurra dirudi baina ogei urtez gero ere, ez dituzte nere egintza miragarriak ahantzi. Dena den, bortxatuko naiz datorren urtearekin zuek ikusteko, eta mementu batzuez baino ezpadare, gure Paris'ko batzarrak berritzeko.

Andimak, aipatzen zuen, datorren urterik ez zen izan, ez zen anaitasun bilerarik izan, urte berean utzi gintuen. Bai Andima Ibinagabeitia ezagutzearekin, benetako euskaltzale eta benetako abertzale batekin topo egin nuen.

Andima Ibinagabeitiaren gorputza Caracasen egon zen, baina garrantzitsuena, haren arimaren oihartzunak, euskal letretan entzunen ditugu... euskara bizi daino.

ANDIMAREN LIBURU BAT ESKUAN

Bernardo Atxaga

Liburu bat hartu nuen eskuan, eta pentsatzen hasi nintzen zein izan ote zen Euskal Herrian argitaratutako itzulpenen patua. Eskuan neukan harena, kasu, zeinek Virgilioren idazlanak osorik eskaintzen baitzituen: «Ibiñagabeitiátar Andimák lateratik euskerara» eramandako *Unai-kantak* eta *Alor kantak*, alde batetik, eta Aita Onaindiaren *Enearena*, bestetik. Tarteka, pentsatu ez ezik, liburuaren pasarte batzuk irakurtzen aritu nintzen, batez ere *Alor kantak*en laugarren atalekoak, bai bainekein atal hori, erleei buruzkoa, Virgilioren ederrenetakotzat jotzen dela. Eta zioen Virgiliok, zioen Andima Ibiñagabeitiak itzulpenean:

Lenen eta bein, egoitza iraunkorra billatu bear da erleentzat, aizeak io ez dezakena (...), ardi ta auntz ibilkoiaiak lore artean iauzika ari ez ditezkena, edota zelaian alderrai dabilen bigantxak intza astindu eta belar erne-berriak zapaldu ez ditzakena.

Ez zegoen gaizki, inola ere. Agian zail samarra, nola gertatzen den maiz aspaldiko testuekin, testu klasikoekin, edota euskarara garbizaleen sasoian itzulitakoekin; baina irakurketa lasai batek aise menderatzeko modukoa.

Ez zen pasarte bakana; gainerakoek ere antzeko gozotasuna zeukaten:

Noizbait erlategi ospatsua ta gordeta daduzkan ezti-ondasunak soatsi nai baldin badituzu, aurrenik urez garbitu zaite, aoa ere xautu ezazu ta zoaz zuzi ke-iarria eskuartean duzula...

Pentsatzen ari nintzen pasarte gozo horiek irakurri bitartean –gozo, idazkeraren kudentziagatik, ezen ez eztiaz arduratzen zelako; nahiz eta, batzuen esanetara, latinezko *melis* eta hizkuntza erromantzetako *melodia* hitza elkarrekin lotuta egon–; pentsatzen ari nintzen, beraz, eta galdera arrunt bat heldu zitzaidan, gai serioen mezulari omen den erle bati sekula egingo ez niokeena; baina bai, bistean da, neure buruari: ibilia ote zen inor, ardi eta ahuntz ibilkoiaiak lore artean bezala, lerro horien artean jauzika? Zenbatek ote zuen irakurria liburu honetako pasarteren bat? Ez liburu osoa, ez atala edo orrialdea. Gutxiago: pasarte bat, laburra, lerro gutxikoa.

Galderak ziztada moduko zerbaite eragin zidan, Virgiliok aipatu erleetako bat liburutik atera eta hozkada egin izan balit bezala, eta bertan behera uztea

erabaki nuen. Jarraian, airean gora eginez –erle baten modura orduan ere– go-goeta orokorrago bati ekin nion. Zergatik liburu hura euskaraz? Zergatik Andima Ibiñagabeitia eta haren hainbat kideren lana? Zein helbururekin?

* * *

Iruditzen zait niri garai bateko idazle eta intelektual euskaldunek, 1936ko gerra aurrekoek eta, beren lanaren inguruko bi helburu nagusi izan zituztela: ez bakarrik ohizkoa, pragmatikoa, «fisikoa»; ez bakarrik irakurleak biltzекoa, haiengan era bateko edo besteko eragina lortu nahian –Kirikiñoren eta Lizardiren artikuluak etortzen zaizkit burura; Salbatore Mitxelenaren poemak; *Tor-mes-ko itsu-mutila* bezalako liburu erraz eta atseginen itzulpenak–, baizik eta, batez ere, bigarren bat, ez hain ohizkoa, ez hain pragmatikoa, metafisikoa: euskararen gaitasuna frogatzекoa; izan zitekeela euskara kultur-hizkuntza eder bat. Bigarren helburu hori gogoan, testu klasikoak itzultzeari ekin zioten: Homeroen edo Cervantesen hainbat atal aurrena, 1936ko gerraren atarian; obra osoak gero, gerra bukatu eta handik hogeい bat urtera hariari berriro heldu zio-tenean. Aipatzen ari naizen Virgiliorena, adibidez.

Orixek azaldu zuen argi, 1921eko «Euskal Egunetan» Unamunoren esanak aintzat hartuta:

Nonbaiteko euskaldun berrilari batek egundaiñoko ergelkeri edo eztakit zer-keri esan omen-du. Zer, gero? Oraingo asmaketarako ez dela gai gure izkuntza, oso zarra dela, zaarregi, aspaldikoa dela. Zein ote-dugu gizon iakintsu hori. Eto-ri akit: zarra duk euskera, ala duk, aspaldikoa duk; baña ez duk zartu, ez zimel-du, ez igartu, ez amaundu. Gaur erakutsiko diat eginalean, gure izkuntza leuna dela, eze dagola, sasi-iakintsu orrek uste baño geiagorako gai ditekela.

Eta geroxeago:

Zer esango luke euskaldun erdelzale orrek, nik esanen banio nongonaiko iz-kuntzara baino gure ontara obeki itzuli ditezkela *Iliada* eta *Odisea*?

Oztopoz betetako bidea zen Orixek, Ibiñagabeitiak, Zaitegik eta gainera-ko itzultzaleek hartutakoa. Zaila zen berez; are eta zailagoa Barojak, Una-muno eta antzekoak gogoan, «bertako kanpotar» izendatutakoen erruz; zaila halaber, ia ezinezkoa, «bertha-bertako» joerengatik. Berta-bertako asko itzul-penen aurka baitzeuden.

Dio Andima Ibiñagabeitiak, auzi hori gogoan:

Zenbait urte dirala, liburutxo txiki bat erori zen zerutik bezala nere eskuar-tean, erderaz idatzia, gai eta auzi askoren artean euskerarena ere sakonki azter-tzen zuena. Baiñan asieratik gogor ekiten zion itzulpenen aurka. Gogor esatea da, baina itzul-lan eta saio guztiak gure artetik zearo baztertu bear genitukela esaten zuen, kaltegarri izaki nork bere burutapen eta asmamenari leku egiteko. Uste au, gainera, zabal dabil gure artean eta bilduma ederra egin diteke itzul-lanaren aur-ka esan oro bilduko bagenituke.

Ori dioenak, ordea, xalto batean iarri nai luke gure izkuntza millaka gizon argi eta idazle trebeen arnas eta ukituarekin mendez-mende landu eta erabiliak izan diran izkuntza handien mallan. Baña zearo aztutzen dute izkuntza dotore oriek ere beuren asieran itzul-lanaren neke eta izerdi garratzez inguraturik ari izan zirala.

Argudio hori zabaltzerakoan, gehitzen du:

Lenengo europar gudua ezkero buru-iabe gertatu ziren aberri berrien izkuntzak ere itzul-lanean sendotu zituzten euren oin makalak, geroago, eurak eureta-ra, kultur-zabaldietan zear errex eta airoski ibiltzeko.

Leonardo Sciasciak dio ideia mortuek bizi-biziak ematen dutela askotan, hala nola sarraskiek inguruko beleen zalapartaren kariaz, eta –gure kasu honetan ere– arrakasta handiagoa izan dute Unamunorenak nola, beste muturre-an, euskal esentzien zaleenak; baina, arrakastak arrakasta, ideia benetan biziak Orixek, Ibiñagabeitia, Zaitegi eta beren kideenak ziren. Haiek aldarrikatzen zu-tena, munduko obra nagusien itzulpenerkin osatutako Euskal Liburutegi baten garrantzia, ideia zuzena zen. Zuzenagoa oraindik beren oinarritzko proto-ideia: ezin litekeela euskal hizkuntzaren edota euskal kulturaren aurrerabiderik gau-zatzu «itzul-lanaren neke eta izerdi garratzik gabe». Modu arruntago batean esanda, santuek baino arrazoi gehiago zuten... ezinbestean, noski, zeren zi-nezko santuak baitziren; bai behintzat beren pazientzia neuriaz gero. Ez zen xamurra izango unamunotarrak eta esentzialistak aldi berean jasatea: makina bat igoko zen zerura meritu gutxiagoarekin.

Ilusio sobera zeukatela esango du norbaitek. Arrazoiz, noski. Izanez ere, denok ikusten dugu orain, gaur eguneko gainetatik iraganari begiratuta, no-rainokoa den literaturaren eta liburutegien ahalmena, zein mugatua den, zein eragin gutxikoa. Denok izan dugu, bestalde, proventzerari gertatutakoaren be-rrri, alegia desagertzeko zorian dagoela gaur egun, nahiz Nobel sariarekin hor-nitua egon, eta litekeena dela Frédéric Mistralen *Mireio* poemak irakurle gehiago izatea Euskal Herrian, Orixeren itzulpeneri esker, bere sorlekuan bai-no. Nolanahi den, ez dit enbarazurik egiten idazle eta intelektual haien sobe-ratzko ilusio hark, santu guztiak izaten baitituzte antzeko okerrak desertuan ger-tatzen direnean, eta kixoteek, zer esanik ez. Berriro esango dut: nahiz eta ilusioaren lausoak apur bat nahastu, zuzen ibili ziren berak; ni neu behintzat bat nator beren planteamenduarekin: Euskal Liburutegi bat behar da, itzul-lana behar da. Horren ezean, ez dago aurrerabiderik ez euskal hizkuntzarentzat ez euskal kulturarentzat. Bi arrazoirengatik, esango nuke.

Aurren-aurrena, itzulpenean mota horrek –Virgilio, Dante, Cervantes, Shakespear edo Homero bezalako idazleen maisulanak Euskal Liburutegira ekar-tzen dituenak– «prestigio soziala» ematen duelako; antzinako greziarrek *timé* deitzen zuten hora. Prestigioa ematen dio hizkuntzari eta hizkuntza horretan bizi den gizarteari; *aura* bat, alegia, edota Donostian hainbeste entzuten den

glamour delako hori; ekonomista batek «lehen mailako irudi» bezala definituko lukeen ospea.

Hizkuntza edota kultura bati prestigioa emateko modu gehiago daude, noski, eta hor ibiliko da Urlia edo Sandia gure hizkuntza «altxor» bat edo «monumentu» bat dela esanez; itzulpenaren modua, ordea, beste maila batekoa da –lehen mailakoa–, zeren, mugimendua mugituz erakusten duenez, ez teorian baizik eta praktikan, bete-betean lotzen baita hizkuntzaren bizi baldintzekin. Zeren ez baitago beste sekreturik hizkuntza hazi eta lanabes on bihurtu dadin: praktika, erabilpena. Abdetfattah Kilitok dioena kontutan hartuta diot hori:

Hizkuntza –dio Casablancako Unibertsitate irakasleak– xaboiaren kontrakoada: zenbat eta gehiago erabili xaboia, orduan eta urrituago eta xahutuago; hitzak, ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago.

Beraz, hitza biziko bada nahitaezkoa da errepika, nahitaezkoa da jendearen ahoan behin eta berriro egon dadin. Jakintsu arabiar batek ere hala adierazi omen zuen:

Hitzaren iturriak isuri egin behar du bere ura, gastatu eta alferrik galdu egin behar du bere ura.

Kontu garbia da, nire ustez. Virgilio, Dante, Cervantes, Shakespeare edo Homeroren itzulpenen bitartez prestigioa emateko modu horrek bigarren lan bat ere egiten du, funtsezkoa: errepikaren gurpilean, mugimenduan, zirkulazioan jartzten ditu hitzak.

Andima Ibiñagabeitiak, adibidez, «alderrai» terminoa erabiltzen du maiz. Atera egiten du gordeta zegoen kutxatilatik eta mundura bidali. Gaur egun, errazagoa zaigu hitz horren erabilera. Baino, lexikoarekin baino gehiago, sintaxiarekin egiten du lan, eta hau da, zalantzarik gabe, bere lanik garrantzitsuena; Ibiñagabeitia bezalako itzultzaireek, eta ia haien bakarrik, egin dezaketen. Kontuan izan itzultzaireak estutu egin behar izaten duela hizkuntza, lan berriak eginarazten dizkiola –pentsa ezazue zientzia liburuekin ari direnengana–, ezin diola hizkuntzari bere kabuz, bere ohizko eran, aurrera joaten utzi; idazleak, bai, baina hark ez. Idazleak abandona dezake bere burua hizkuntzaren ur korrontean, har dezake aldi bakoitzean bihurgunerik errazena –nola egiten omen zuen Petrarck Mont Ventoux-en ibili zenean, aldapa gutxien zuen bidezidorra hartu–; baina itzultzaireak, nahita ere, ezin du. Virgiliok idatzitako kadentzia, tonua, zehaztasuna errespetatzea beste erremediorik ez dauka. Lehia horretan itzultzaireak forma berriak jartzen ditu zirkulazioan, ez bakarrik hitzak, eta hizkuntzaren erabilpen sofistikatu eta aberatsago baterako oina ezartzen du. Horrelaxe hazi eta garatu ziren hizkuntza guztiak. Ibiñagabeitiak aipatzen dituenak:

lenengo europar gudua ezkerro buru-iabe gertatu ziren aberri berrien izkuntzak,

baita munduan nagusi dabiltzan beste guztiak ere. Ingelesaren zein frantsesaren edo gaztelaniaren oinarrian latinetik egindako Bibliaren, edo Zizeronen, itzulpenak egon ziren.

Galdera bat datorkit orain, erle galdu baten moduan, gogoeta honen hasierako lerroetatik. Galde egiten nion orduan neure buruari: ibilia ote da inor, ‘ardi eta auntz ibilkoia lore artean’ bezala, Virgilioren itzulpenean jauzika? Zenbatek irakurri ote du liburu honetako pasarteren bat? Labur eta ziztadaren beldurrik gabe esanda: bete ote ditu Ibiñagabeitiaren itzul-lanak bere helburuak?

Alde batera bai, eta bestera ez. Batzuk bai, besteak ez. Lorpenekin hasita, uste dut hainbat idazle ahalegindu dela orrialde horietatik ikasten –ni neu, urrutira joan gabe–, eta zer edo zer zabaldu ditugula bertako tonu eta kaden-tziak. Eta, agian, idazle ez direnak ere arituko ziren ahalegin horretan, eta horregatik esango da orain, telebistan behin entzun nuenez, ez dakit zer futbol jokalari «alderrai» ibili zela partida osoan. Bere alea jarri zuen, gainera, hizkuntzaren prestigioa handitzeko orduan, eta arindu, aldi berean, gerrarekin eta ondorengo diktadurarekin euskal kulturan gertatutako etena.

Ekiten diot orain lortu gabeko helburuez pentsatzeari, eta iduri zait bat-batean burua erlategi bihurtu zaidala, eta erle guztiak haserre daudela, borrokan hasteko prest; Virgiliok dioen moduan, hain zuzen ere:

(...) bereala ateman diteke urrunetik taldearen gogoa gudun-miñez biotzak pil-pil; berantkorra Martiren borontze-otserlatzak zirikatzen ditu, eta turut-ots itoa bezelako oiu entzuten da; orduan, dardaraz, elkartzen dira, egoak dirdari, ta eztenak zorrozen dituzte aztalak muturrekin igurtziz eta erregearen inguruan, iau-regian bertan ain zuzen, moltsoan biltzen dira etsaiari eupadaka; ta udaberriko egun ozkarbi eta paketsuan atea bortxatu eta irteten dira...

Baina ez da gaurkoa haserrerako egun egokia. Andima Ibiñagabeitia omentzera etorri gara gaur Elantxobera. Haserretuko gara beste egun eta beste toki batean.

IMANOL BERRIATUA, EUSKAL ETORKIZUNAREN EREILE

Xabier Kintana

Jaun-andreok, bihotz-bihotzez agur guztioi!

Estatistika asmatu baino lehenago ere, jendeak ahoan zerabilen kontua zen herri txikietatik ezin irten zitekeela goi mailako pertsonarik, ez eta gauza handirik ere. Bainax horixe bera esaten zuten judeuk Betlehem-en kontura, eta begien bistan dago ez zutela inondik ere asmatu. Horrenbesterainokoa ez bada ere, Elantxobek ere, bere txikian, maila handiko seme-alabak eman ditu. Lehenengo eta behin, herria kokatzeko hain txoko polita aukeratzen jakin zuten antzinako ezezagunak, eta harrezkero aldapan zehar, itsasora begira etxeak eta kaleak hain egoki antolatzen jakin dutenak ere bai. Ezin ditugu ahaztu arrantzale eta marinel trebreak, ez eta euskal idazleak ere, gaur ohoratu nahi ditugun hiru hauen antzera: Andima Ibiñagabeitia, Imanol Berriatua eta Gorgonio Renteria, besterik ere izan arren.

Askotan pentsatu dut mundu zabalean toki on eta eder asko badira ere, Iparragirrek berak gogoratzen zigunez, gutxi, oso gutxi izango direla gure planetaren luze-zabalean gaur ongietorría egin digun Bizkaiko marinel herri hau bezain zoragarriak. Horregatik aparteko zori ona izen zuen Imanol Berriatua Ibietak, Fidel eta Zeferinaren semeak, non eta hemen, Elantxobeko txoko honetan 1914.eko abenduaren 24an jaiotzeagatik, lehor berdetik itsasora jaisten den leku ikusgarrian, bertako uren ispiñuan bere buru polita ikusi gura lukeen neskatila baten antzera.

Umetan Elantxobe utzi eta Germikara joan zen bizitzera. Ume bihuria izan ei zen, eta nesken atzetik korrika joan eta haien ikaratzea gustatzen zitzaion. Halere, orduko askoren antzera, fraide-bidea hartu zuen gure Imanolek, eta ikasketak Foruan, Arantzazun, Zarautzen, Oliten eta Burgosko Aguilera-n egin ondoren, frantziskotar jantzia hartu zuen 1938.eko ekainaren 11n, non eta Habanan, haraxe joana baitzen Spainiako Errepublikaren kontra militarrek eragindako gerratik ihes egitearren. Hamahiru urte Kuban egin ondoren, 1950ean berriz itzuli zen Euskal Herriira, Foruan, Bermeon eta Bilbon, frantziskotarren komentuetan bizi izanez. Foruko Frantziskotar Ikastegiko maisua, eta 1952-54 urteetan bertako errektore ere izan zen. Orduko bere ikasleen artean Joseba Intxausti, Fernando Mendizabal, Joxe Azurmendi, Joan

Mari Torrealdai edo Paulo Agirrebaltzategi aipa ditzakegu, geroago *Jakin* aldizkariaren bultzatzaileak eta, oro har, euskal kultura idatzian ospe handia lorturikoak.

Bermeon zegoela 1957.etik 1967ra arte, «Itsas Apostulutzako kapilau moduan bermeotar arrantzaleekin Afrikara joaten zen, Dakar aldera, bai eta berauengandik gauza asko ikasi ere. Jatorriz, bera ere portu batean jaioa zen, eta horregatik ez da harritzeko itsasoak gogorki erakartzea.

Gaztetandik Imanolek bi zaletasun nagusi izan zituen: euskara, bere herriko, bere ama-hizkuntza, garai hartan frankismopean hain zapaldurik zegoena, eta atzerriko beste hizkuntzak. Eliz studioetan ikasiriko latin, greziera eta hebreeraz gainera, Imanolek frantses, ingeles eta alemana hitz egiteko moduan ere bereganatu zituen, bai eta, ulertzeko moduan, italiera eta katalana ere.

Bilboko giroan Krutwig, Erkiaga, Gorostiaga, Otxolua, Akesolo eta beste euskaltzale batzuekin biltzen zen, eta azken aldian Gabriel Arestirekin ere bai, beti gure hizkuntzaren egoeraz eta etorkizuneko irtenbideaz berba egiteko. Euskaltzaletasun horren saritzat, 1961eko abuztuaren 25ean Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen. Harrezkero Imanolek Akademiaren biltzarretan sarritan parte hartu zuen, eta bereziki 1968an, Arantzazun batasunaren proiektua aurrera eramateko batzarra egin zenean. Ondoren ere, euskal aditza batzeko batzordearen kide izan zen, euskara batuan ekiadoko euskalkiekin bat zetozen mendebaldeko formak onartzeko ahaleginak eginez (gara, zara, litzateke...).

Idazle moduan, bere bokazioari jarraituz, erlijiozko lan batzuk prestatu zituen (*Kristiñau katezismoa*, *Lagunarteko mezea*, Kubatik heldu berrian argitaratuak) bai eta *Santa María Goretti* eta *Teresalina Zubiri*-ren biografiak ere (argitaratu gabeak). *Itsasoa eta ni liburuan*, aldiz, arrantzaleekin bizi izandako ibilaldiak kontatzen ditu.

Euskararen aldeko ekinaldi nagusiak *Anaitasuna* aldizkariaren inguruan egin zituen, bertako zuzentzailea izanez. Bilboko Irailako komentuko gelatxotik, Imanolek, pazientzia handiz, idazle gazteoi artikuluak irakurri eta zuzenzen zizkigun, maiz, kontura zetorrenean, kostaldeko jendeari ikasiriko berbak tartekatuz: *haizea poparean*, *gizon leberra*, etab. Zenbaki bakoitzean, gainera, hiztegitxo bat prestatzen zuen, irakurleen euskal lexikoa aberasteko asmoz.

Imanol Berriatuak garbi ikusten zuen, euskarak, bizitzeko, munduko gainerako kultur hizkuntza guztien antzera, batasuna eta estandarizazioa behar zituela, eskolan, hedabideetan eta etorkizuneko euskal administrazioan euskaldun guztiok eredu bat izan genezan. Imanolek baina, argi zeukan euskara batua egiteko ez zela nahikoa, orduan eta orain ere zenbaitzuek oraindik uste duten bezala, erdialdeko euskara bakarra hartzea. Literatur eredua nafar-gipuzkoar-lapurtar euskalkien gunetik moldatua izan arren, nahitaezkoa zeritzon erdiko

euskara hori gainerako euskalki guzietako hitzekin osatu eta aberasteari. Eta *Anaitasuna*-n horixe egiten saiatu zen: euskara batuan ahalik eta hitz dialektal gehien sartzen, Bizkaikoak batez ere, beste euskalkietan ezin egin zitezkeen ñabardurak egiteko (*bertan / berton, anaia / neba, lurra / behearen gain, gorputz / gorpu, hatz / behatz...*) hizkuntza sinonimoekin dotoretzeko (*jau-si/erori, askotan / maiz / sarritan, hizketan / berbetan, horma / pareta, nagusi / ugazaba, aitona / aitaita...*) eta herri-hizkerako esaera jatorrez gatz-ozpinetzeko (*total lerdoa, toton egin, eurrez...*).

Oso harro sentitzen zen Imanol bere adiskide bermeotarren euskaraz eta beronen aberastasunaz. Bada pasadizo bat hori ederto erakusten duena. Behin, norbaitek Tolosako euskararen politasuna aipatu zuela eta, berak, oso-osoan, honela erantzun zion: «Ba, nire ustez Bermeoko euskara hobea da, hor, gutxienez jendeak euskara egiten duelako, eta Tolosan, aldiz, gehienei erdara besterik ez zaie entzuten».

Lehenagoko eta geroagoko euskaltzale askok bezala, –gaur teknologia modernoari esker astero beren goi-gidaritza elektronikoa eskaintzen digutenak ahantzi gabe–, Imanolek ere bazekien oraintsu arte irakaskuntza osoa erdara hutsez jaso duen jendeari euskal gaiak ondo irakatsi behar zitzaiatzkiola, erre-gelak azaldu eta erdarakadak eta erabilera okerrak zuzendu. Bestalde, Euskal Herri osoari begira, inoiz herriko esamolde bitxiak, nahasgarriak eta txokokerria batzuk eredu batutik baztertu behar izaten direla ere bai, euskaldunok elkar ondo ulertuko badugu.

Gogoratu behar da gauza bera egin zuela Euskaltzaindiak, hilabeteen ize-nak erabakitzerakoan, *garagarrila* hitzarekin ere, hego-ekialdeko euskaldunentzat gaurko «ekaina» zen bitartean mendebaldekoontzat «uztaila» zelako. Arrazoi berberagatik, gaurko esatari probintzianoegi batzuen *garraiozale, es-nezale* edo *kamioizale* moduko hitzen ordez, euskaldun guztiontzat normalagoak diren *garraioliari, esneketari/esne-saltzaile* edo *kamioilari* gurago zituen Berriatuak, inori nahasbide eta belarriko minik sortzen ez diotelako.

Irakaskuntzari begira, hizkuntzaren homogeneizazioa ere maiz aipatzen zuen, eta inolako zalantzak ez dagoenean, erro bereko euskal hitz guztiak, euskalki ezberdinetan garatuak, ahalik eta gehien grafia batu eta koherenteaz idaztea aldarrikatzen zuen, ikasle eta pertsona arrunt guztiei dialektologo iza-tea ezin eska daki keelako. Hortaz, h letrari dagokionez gaur oraindik pairatzen ditugun inkoherentzia absurdo batzuk (*hatz baina atzamar, atzapar, azaz-kal; hertsia, hertsatu, herstu, hesi baina estu, estutu; hosto, horsto baina orri...*) astiroago berrikusteak mesede betterik ez liguke egingo guztioi. Irakasle moduan dudan eskarmantuak eta ikasleen galderai arazo honetaz arrazoi koherenterik ezin ematean sentitu dudan lotsak ondo erakutsi didate norainoko arrazoia zeukan gure frantziskotarrak.

Imanolek, bestalde, garrantzi handia ematen zion alfabetatzeari, eta horregatik ez zuen pentsatzen euskaldunik jatorrena denik txikitandik euskara ja-

kin eta bizitza osoa euskaraz ezer irakurri gabe pasatu duena, eta are gutxiago, pertsona berberorrek bere erdara, neurri handiz behintzat, erdal liburuei esker landu duenean. Herenegun gauean euskal telebistan bertoko futbol talde famatu baten lehendakaria euskara penagarrian entzuteko aukera izan zenute-nok badakizue zertaz ari naizen.

Bere Herriaren etorkizunean sinesten zuen Aita Berriatuak, eta horrexen aldeko apustua egin zuen bere bizitza osoan. Tokian tokiko txokokeria eta probintzialismoen gainetik Euskal Herriaren batasunean sinesten zuen, euskara batasun horrek ez bestek salbatuko zuelakoan. Gorago esan dudanez, euskalki guztietako aberastasunak, Bizkaikoak batez ere, euskara batuan integratzeten saiatu zen beti, euskal hitz guztiak, esaten diren tokietako jendearenak ez eze, euskaldun guztionak ere badirelako uste sendoa, horiek geureganatzent ditugun neurrian. Horri esker, soilki iparraldekoak ziren *aldiri, deus, eraile, erizain, ihardetsi, jalgi, jin edo kausitu* gaur edozein euskaldun eskolaturen lexikoan sarturik daude, iparraldean hegoaldeko *amildu, garatu, berba, ikastola, jaurlaritz, jela, neba* edo *ulertu* gero eta ezagunagoak diren bezala.

Egia da, inoiz toki bateko eta besteko hitzak lasterregi nahasten ibiltzea, koktela oraindik aski eraginik ez dagoenean, gaurko egoeran bitxi xamarra ger-ta daitekeela, *berba egin gura ukан dut* bezalakoak adibidez. Eta inoiz, etor-kizuneranzko urretsak lasterregi eginez, gure Andolin Eguzkitzak horrelako probokazio nabarmenak egiten zituen, baina, edonola ere, euskal lexiko aman-komuna lehenbailehen lortzea, zalantzak gabe, gure hizkuntza eta literatura-ren normalkuntzarako oinarri-oinarritzko baldintza da.

Euskal Herri osoko berbak zabaltzen diren neurrian, normala da, bestal-de, hitz horiek berenganatu dituzten euskaldunek haien esangura jatorrari dagokionez, denbora joan ahala, jatorrizko erabiltzaileek bezainbeste eskubide izatea. Horregatik, harrigarria da, esaterako, *erresuma* moduko hitz ezagunari, berez «errege baten peko herrialdea» esan gura duenari, gure literatura klasiko osoan ageri den bezala –hegoaldeon behin eta berriro berrargitaratuaren, gogora dezadan bide batez– orain iparraldeko zenbaitzuen erabileragatik ber-ba hori «herrialde» esangura soila utzi nahi izatea, Estatu Batuak edo Venezuela bezalako errepublikei erresuma esatea euskaldun irakurle gehienentzat erabat absurdoa gertatzen dela kontuan izan gabe.

Erabilera orokorreko terminologiari dagokionez, Imanolek egiten zuen bezala, nazio-zentzuagatik Euskal Herri osoa izan beharko genuke geure ikus-pegian, eta ez, bista laburrez, nork bere txokotxoa. *Nazio bat gira* idatzia zuen bere pankartan hegoaldeko euskal alderdi batek Iparraldean egindako agerral-di batean, eta konturatu gabe, horrekin argi eta garbi erakusten zuen oraindik *ez garela nazio bat, tribu batzuk* baizik, nazio serio eta egiazkoek beren hizkuntza normalizaturik izaten dutelako. Gauza bera pentsarazten digu Iparral-deko garagardo-fabrikatzaile batek, Euskal Herri osoan saltzeko ekoizten duen

produktuari hegoaldean sortu eta bultzaturiko *garagardo* berba ezagunaren ordez, izen hori aldatu eta botilen etiketan azken orduko *garagarno* moduko as-makeria ipiniz, hizkuntza zibilizatuetan behintzat terminologia berria ez dela hitz dialektaletarra birmoldatzetan ahaztuta.

Bizkaian normalean *urten* esaten den arren, aspaldian ikasi dugu batasunerako aukeratu den hitza *irten* dela, eta beraz, ez zaigu zailegi gertatu geure autobus, garaje, zinema zein eraikinetan *sarrera*-ren ondoan *irteera* irakurtzean, zer esan nahi duen ondo ulertzea. Horiek dira, hain zuzen, aspaldiko 26 urteotan euskara ofiziala daukan hego Euskal Herri osoan estandar moduan finkatu eta hedaturiko formak, edozeinek dakienez. Horien lekuak, Baionako aparkalekuak, frantses batuko *entrée* eta *sorbie*-ren ondoan *sartzea* eta *jalgitzea* bezalako itzulpenak jarr(araz)itituenak, on luke gogoratzea handik Irun eta Donostia hurbilago daudela Bizkaitik baino.

Arrazoi berberagatik, ez da batere ongi ulertzen, behin eta berriro aitor-tzen duguna, hau da, nazio bat garela sinesten badugu behintzat, auzo erdaretan beti era bakarrean ageri diren *Camino de Santiago / Chemin de Saint-Jacques* esateko, Euskaltzaindiak aspaldian *Donejakue* erabaki eta gero, oraindik *Santio-bidea* eta *Doni Jakobe bidea* bezalako kartel berriak jartzen segitzea, diziplina halako bertute txarren bat izan eta euskaldun jatorra izatearekin bat ez baletor bezala.

Txikitandiko euskaldunen alfabetatzeaz gainera, Imanolen beste kezka bat euskalduntzea zen, hau da, euskara ez zekitenak gure hizkuntza ikastera era-kartzea, eta horretarako beharrezko zekusan gure irakasteko metodoak egunera-ru eta erraztu behar zirela. Izan ere, ordura arte, euskara ikasteko liburu gehienak gramatikak ziren, hau da, hizkuntza zelakoa den erakusteko obrak, baina horiek, latin, greziera edo sanskritoaren barne-erregelak ikasteko balio bazuten ere, ez ziren egokiak gurea bezalako hizkuntza biziaz mintzatzen irakasteko.

Israelen juduek etorkinei hebreera irakasten egindako aurrerakada han-diaren berri jakinda, hara joatea erabaki zuen, Israelgo metodologiatik zuzen-ki ikasteko. Hori dela eta, 1976.eko irailean Imanol Berriatuarekin Herrialde Santura bidaiatzeko zoria izan nuen, eta bertan elkarrekin hilabete eman ge-nuen. Arieh Shoval jaunagandik, orduko Hezkuntza Ministroaren idazkaria ze-nagandik, era guztietako erraztasunak izan genituen, bai eskolak bisitatzeko, hebreera errazeko aldizkariak ezagutzeko, irratia-telebistetako zentroak ikuste-ko eta kultura eta politika giroko pertsona interesgarriekin hitz egiteko.

Bera bi hilabete gehiago gelditu zen Israelen, Ulpian batean hebreera hobeki ikasi nahi zuelako, hango gobernuak horretarako emandako beka bat eman zion eta. Egotaldi horretatik ondorio oso onak lortu ziren gure herria-rentzat.

Alde batetik, berehala pentsatu zuen Israelgo Ulpanen modura, –hau da, pertsona nagusiei hebreera era trinko edo intentsiboan irakasteko eskolak– hemen ere antzeko zerbait egin behar genuela, erdaldun pertsona helduei euskara arin irakasteko: hortik sortu ziren, izenaz eta izanaz gure euskaltegiak, ordutik Imanolek horretarako sorturiko berbaz bataiatuak.

Bestaldetik, Imanolek, judeuk etorkinei irakasten zieten *‘עברית כליה ivrit kalah’* edo hebreera erraza hura oso mesedegarria zela ikusita, berton ikasle erdaldunei begira oinarrizko euskara prestatzentzen jardun zuen. Alde batetik laguntza estimagarria eskaini zigun *Euskalduntzen* metodoa egiten ibili ginenoit, eta haren lana ezagutu eta aitortuz, bere argazkia liburuaren azalean jarri genuen. Gogoratu nahi nuke, nori berea baita zuzenbidea, liburu hartako marraski guztiak Jon Juaristi idazlearen esku trebeari zor zaizkiola.

Geroago, Imanolek, bere aldetik, *Hitz egin* metodoa prestatu zuen, bai eta ikasleentzako irakurgai errazeko beste liburuxka batzuk ere, *Ikasle Israelen* adibidez. Berak pertsonalki eskola asko eman zituen, batez ere Iberdueroko langileentzat. Hortaz, benetan esan daiteke, nire ustez, Imanol Berriatuari zor zaizkiola, neurri handiz, gaurko pertsona nagusien euskal irakaskuntzaren oinarriak.

Imanolek ez zuen inoiz galdu Israeleko harremana. Hara eginiko lehen bidaiaaren ondoren, Euskal Herriko ikasle eta pelegrin talde batzuekin beste bisita bat egin zuen 1980an. Hurrengo urtean azken aldiz itzuli zen Kristoren jaioterrira, Ulpan batean hebreera hobetzeko hiru hilabete egiteko asmoz.

Arieh Shoval-ek eta bere emazte Shoshana-k Imanolen azken egunak nolakoak izan ziren kontatu zidaten. Iluntze batean, aldizka egin ohi zuenez, familia horren etxera joan zen, adiskidetasun handia zuten eta. Arrats horretan, bere ohiko umore onaren ordez, ilun zetorren eta ez zela ongi sentitzen esan zien, buruko min izugarriaz omen zegoen eta: «Buruan aizkorakada bat eman validate bezala» izan omen ziren haren hitzak. Aspirinak hartuak zituen baina ez omen zioten mina kentzen. Shovaldarrek ospitalera joatea gomendatu zioten.

Biharamunean Jerusalemeko frantziskotarren komentuko aita nagusiak dei egin zien, Imanol ospitalera jada konorterik gabe eramana zutela esateko. Han egon zen artean bisita egin zioten Shovaldarrek, baina beti korderik gabe aurkitu zuten. Bi egun geroago hil zen, 1981eko irailaren 15ean, burutik beherako odol-jarioaren eraginez. Arieh-k kontatu zidanez, komentuko fraideak alde batera utzita, emaztea eta bera izan ziren Imanolen hiletan izan ziren pertsona laiko bakarrak. Huraxe izan zen, bestalde, Arieh-k eta Shoshanak beren bizitzan ikusten zuten lehenbiziko kristau hiletat.

Sion mendian frantziskotarrek duten hilierrian ehortzi zuten Elantxobeko semea, horma-hilobi batean. Horrela bete zuten Imanolen azken nahia, Israelen hiltzen bazen, gorputua Euskal Herrira ekarri barik, lurra bertan emateko agindua zuelako, parentzat pozgarria eta ohorea baitzen Jesu Kristoren sorte-rrian betiko etzanik gelditzea.

Handik urte batzuk geroago, 1993ko irailean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolaturiko bidaia batean, euskaldun irakasle batzuekin Israeleko itzuli nintzen, eta Imanolen hilobia bisitatu genuen. Neronek Elantxoben, Ogoño aldean, harturiko lurra eraman nuen, bere ondoan Euskal Herriko oroitzapena izan zean. Bere hilobiaren aurreko zuhaitz baten inguruuan utzi genuen, guztiok aita gurea kantatzen genion bitartean.

* * *

Hebreera modernoa ikastera Israelgo kostaldeko Natania deritzeron herriko Ulpan batera joan zen behin. Ikastegi horren izena: Akiva, horrela deitzen zen judu baten omenez. Dirudienez, Akiva gizon zaharra zen eta ez zuen ordura arte eskolara joateko aukerarik izan. Zahartzaroan baina, ikasteko gogoa etorreri omen zitzzion, baina jadanik beranduegi ez ote zen hasi zen pentsatzen. Egun batean, iturrira pitxerragaz ur bila zihola, txorrotaren beheko harria zulatutik zegoela konturatua ei zen, iturriaren begitik tantaka jausten zen urak, denboraren poderioz beheko harria higatua zuen eta. Orduan Akivak erabaki bat hartu zuen: bera ere, uraren ekimen eta pazientzia berberaz, ikasten hasiko zen, falta zuen jakinduria eskuratu arte. Baita egin ere. Handik urte batzuetara Akiva jakintsu handia izatera heldu zen, eta gaur Nataniako Ulpanak haren izena darama, ikasteko inoiz ez dela beranduegi frogatu zuen zahar haren omenez.

Jerusalemko hiriaren mendixka baten gainean Theodor Herzl (1860-1904) austriar kazetariaren hilobia dago. Imanol eta biok hor izan ginen elkarrekin 1976.eko bisitaldian. Berori izan zen XIX. mendean mundu guztiko judeek elkarrekin bizitzeko estatu propioa behar zutela aldarrikatu zuen lehenbizikoa (*Der Juden Staat* «Estatu judua» liburuarekin, 1896). Ez da harritzekoa gaurko israeldarrek hura beren nazioaren aitatzat edukitzea. Batzuek baina, bizi zenean, ameslarria eta burutik egina zela esaten zuten harengatik. Gauza bera aurpegiratzen zioten gurean haren garaikide zehatzka izan zen gure Sabino Aranari ere (1865-1903). Baina Herzlek honela erantzuten zien alemanez judu ezkor haiei: *Wenn Ihr wollt, ist kein Märchen*, hau da, «Nahi baduzue, ez da ametsa izango». Hori orain ere errepikatzen dute Israeldarrek, baina, ametsaren ametsaz, hebreeraz: *אם תרצו אין זו אגדה*, *im tirtzu, eyn zo aggadah*.

Era horretako pertsonen antzekoa zen Imanol Berriatua bera ere. Beti ikasten, beti lanean, inoiz nekatu gabe, gaurko eta geroko euskaldunak gogoran, haientzako euskal bideak prestatzen, bere etsenpluaz euskarazko esaerak dioena baieztagatuz: *ezina, ekinez, egina*.

Imanol, beti izango zaitugu gogoan. Har ezazu gaurko omenaldi hau zu-rekin dugun zor handiaren nolabaiteko ordain txikitzat.

Eskerrik asko guztioi, jaun-andreok.

GORGONIO RENTERIA IDAZLE

Igone Etxebarria

Elantxobe herri txikia da, itsaso gainean aldarrean etxeak eskegita dituela. Ha eta guzti be, gaur agerian geratuko danez, herritar ospetsu-entzutetsuak izan ditu. Euskereari lotutakoak, eta lehengo mendekoak bakarrik kontuan hartuta, gaur hiru gogoratu ditugu. Ibilbideari eta osterako itxitako eraginari erreparatuta, oso ezbardinak danak.

Nik berbagai daukadana, Gorgonio Renteria, kasualidadez eterri jatan esku artera. Haren alaba Julek han-hor-hemen arakatu eta lan handia egin eban aitaren idatzi gehien-gehienak batzen. Derioko Udako Ikastaroko ikasle izan zan, familiako beste kide batzuen moduan, eta hango hartu-emonak tarteko, Labayru Ikastegiaren esku itxi eban materiala argitalpena egiteko.

Nik lanari heldu neutsanean, halangoetan sarritan gertatzen danez, hasierako ustea, lanari eta testuei hasi aurretik hartutako traza, txiki geratu zan behin sartzen eta barruratzan hasi orduan. Alde bitatik, txiki geratu be: pertsonaaren izaera, irudiaren ikuspegitik alde batetik, eta testuen alderditik bestetik.

Nik irakurri, entzun eta hortik eta hemendik hartu ahal izan dodazan testigantzetatik, gizon dotore, jantzi, atsegin, jendarterako aparteko dohaia eukana zan. Haren alabarik gazteenak, Amaiak, bizirik dagoan bakarrak, harro esaten eustan bere aitaren moduan txapela janzen ebanik besterik ez egoala inguru guztian be.

Lan hau egiteko ezagutu neban Garbiñe Natxitube, Gorgonioren ilobea, eta harek be beste horrenbeste gogoratzen eban, gizon dotore, apartekoak.

Eta halan izango zan, Kirikiñok be antzeko deskribapena emoten dau eta:

Esatera ninoian beragaz behin hitz egitea dala nahikoa bera maite izateko, hain da gizon lagun artekoa, argia eta prestua, baina esan behar dot, nahikoa dela bera ikustea horretarako.

Gorgonio Sabino Aranaren garaikidea ezeze, haren ideologiaren zabaltzaile sutsua be izan zan, bete-betean harrapau eban haren pentsakera eta ideologia zabaltzeko garaiak. Galo Ibiñagabeitia, Andimaren aita, eta biok ibiltzen ei ziran, Gorgoniok hitzaldia egin eta Galok abestu. Galo, osterak, gazterik

hil zan. A mí vasco Ramon Goikoetxea Orkieta *Iber*-en liburuaren propaganda egitearren kartzelan sartu eben, lehenengo elantxobetarra abertzale izatearen atxilotu ebena. Handik urten eta, osasun arazoak gainditu ezinik laster hil ei zan.

Gorgonioren bizitzara etorrita, 1868ko irailaren 9an jaio zan Elantxoben. Lehenengo ikasketak herrian eginda, Nautika ikasi eta 1900. urtean Merkataritza Ontzioko lehen mailako kapitain titulu ofiziala atera eban Ferrolen. Bi-rritan ezkondu zan, Julia Aurrekoetxeagaz lehenengo, horregaz hiru seme-alaba eduki ebazan. Julia hil eta Haren ahizteagaz ezkondu zan gero. Guztira 9 seme-alaba eduki ebazan.

* * *

Haren bizitzan bi zati bereiziko ditugu. 23 urteko zala Filipinetara joan zan, Manuel Intxaustiren ontzioletan kapitain kargua hartuta. Han egin zituen dozena bat urte eta izen ezin hobea hartu eban, gizon artez baina zintzoarena. 1898an, hispaniar-amerikarren arteko gerran, Manilako Hong-Kong bankako deposituak bere ontzian hartuta ibili zan harik eta istiluak amaitu arte. Geroago, Estatu Batuetako Administrazioak Gorgonio ontziburu izendatu eban filipinar ugarteen mapa hidrografikoa egiteko. Zeregin hori zala-eta William Howard Taft Gobernadorearen lagun handia egin zan, geroago Estatu Batuetako presidente izango zanarena.

Haren bizitzako bigarren alderdia jeltzale moduan bete ebazan kargu eta ardurak osatzen dabenak dira. Sabino Aranaren garaikidea zala, hasiera-hasieratik, 1916 eta 1921 bitartean, Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan ardurak bete ebazan BBB eta EBBren barruan, Bizkaiko aldun izan zan Gernikako barrutik. *Euzkadi* egunkariko kronikak ikusita, Elantxobeko batzokia zabaldu zanean gora handikoa izan ei zan, 1919ko ekainaren 9an, Sotaren atoi-ontziak bozina joten hurreratu zirala.

Ekitaldi horretako moduan, beste askotan be Gorgonio Renteria hizlaria oso estimatua zan jeltzaleen ekitaldietan. Berak berba egin, Galok abestu, oihokoia izaten zan, antza. Propaganda-gizon lez behar handia egin eban. Eta, haren garaian beste askok egin eben moduan, aldizkarietan behin eta barriro agertu eban bere burua, ezizenen azpian beti be: *Errebido, Perularra, Etar G.*

Gaurko saiorko idazle izatea aukeratu dogu gaitzat, beste jarduera batzuen artean horretan be ibili zan ezkerro. Libururik argitaratu ezik normalean inor ez da idazletzat aitatzen, beste era bateko lan solteak gehien eginda be. *Sutondoan* izeneko liburu sorta honetan bertan Jean Hiriart-Urruti, Karmelo Etxenagusia, Sorne Unzueta eta besteren bat edo beste idazleen erreperitorio-ekarri izan ditugu, han-hor-hemen argitaratutako idazlan laburrak batuta liburu baten egile bihurtu eta gero.

Gorronioren kasura itzulita, aldizkari askotan parte hartu eban. Gehien gehien *Euzkadi, Ekin eta Euskalzalen* argitaratu eban, baina beste batzuetan be ez gitxi: *Baserritarra, Bizkaitarra, Eguna, Euskalduna, Euzko Deya, Euzko Enda, Ibaizabal, La Baskonia, La Patria, Nación Vasca. Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten olerkiak eta artikuluak* izena emon deutsagun liburuan batu ditugu harek idatzitako guztiak, ustez behintzat.

Idazlanei jagokenez bertso eta prosazko lanak ditu. Kopuruari erreparatura bertsozkoak gehiago dira, baina orritan prosazkoak erdia baino gehiago osatzen dabe. Bertsoak sorkuntzazkoak dira, lirikotasun eta sentimendu adierazpen handienekoak. Baten bat abestekoa da, eta beharbada beste batzuk be kantatzekoak pentsatuta dagoz. Prosazkoak sorkuntza edo fikzinoa baino gehiago artikuluak dira, mezu ideologikoa zalgurdekoak, gehienetan euskera erabiliztzearen alde eta euskaltasuna harrotasunez bizitzearren aldeko mezuak zabalduz.

Elantxobetarra izatea ageri-agerian dago testu guztieta, eta kostaldekoa ezeze itsasgizona izanda, itsasoak leku handia hartzen dau normala danez. Herria eta euskaltasuna bizi-bizirik dagoz bere idatzietan, jeltzaleen ideologiari jagokon moduan kristautasunari lotuta, Begoñako Ama Birjinarenaganako debozinoaren bitartez, kasurako.

Bertsoetan bere garaiko beste bertsogile batzuen idazlanetan aurkitzen duguzan gaiak irakurriko ditugu. Abertzaleen sinboloak: non dagoz gure arbasoak eta gure aurrekoen ohitura onak. Harek barriro bailetoz, sinistu be ez leuke egingo euren Herria lege zaharrak galdu eta euskerea aldenduta dagoela.

Haretxa, zuhaitz donea, paradisuko eta kondairaren erakusgarri be aitatzentz da behin baino gehiagotan. Amaren irudia maitagarri eta maitatua da. Ama Birjina, Begoñako Ama batez be, amatasun-maitasunik handienaren adierazgarri eta herriagazko lokarri hautsiezina da. Aurrekoakaz lotuta, etxetik urrun dagoanean Herria, ama eta Elantxobe bera be maiteago agertzen ditu, herriminez edo.

Aberriaren alde bizitza emoteraino egiteko deia, baten bat bidean galdu ezkerro barriak etorriko direla esanez. Abertzaleak aberriaren alde egiteko deia, albora begitu edo atzean geratu barik. Dantzarako bertssoak be badaukaz, gazteek euskerazko kantuak jakin ez eta beste era batekoak abestu eta dantzatzeko joerea ikusita, eta horrek ardura emonda.

* * *

Hitz lauzkoetan aurretik esandako gaiak ikusiko ditugu barriro be. Has-teko liburuari izentzat ipini deutsagun artikuluarena: «Izartu euskaldunak» horretan hizlari ikusten dogu, jendeari deika aberriaren alde asaben negarrak entzunda.

Bilboko eta Bizkaiko barri laburrak emoten ditu artikuluetako batzuetan, politikariak eta hedabideak gai hartuta askotan. Madrileko agintarien esanak ahoan hartuta, eta egunkarietako barriak zelan emoten diran ironia handiz dabil.

Euskaldunak jopuak gara Gorgonioren esanetan. Beste inork gure izaera, gure nortasuna eta gure hizkuntza zapaldu eta baztertzen ditu; baina euskaldunok errukarriak gara, bestalde, gure hizkuntza alde batera itxi eta erderara joten dogunean, baita gure burua barregarri itxita be.

Euskalduntasuna harrotasunez defenditzeko deia eta eskaria egiten dau. Neska moderno-itxurakoak erderaz egin ezinik, edo euskaldunak merkatarien aurrean, hareei dirua emoteko dala jakinda, lotsatua ikusteagaitik hasarratu egiten da.

Azalpenok emoteko gertaerak hartzen ditu oinarritzat batzuetan, benetako pasadizoak jarrita adibidetzat. Esaera zaharrak be behin baino gehiagotan dakarz harira gero azalduko dauanaren mezua laburtzeko.

Gorgonioren idatzietan mezua argi eta artez adierazita dago, genioa age-ri dau. Gidari, maisu, aintzindari irudia indartsu erakusten dau, umorez be bai batzuetan, ironia eta hasarrea baztertu barik.

* * *

Hasieran esan dot Jule Renteria, Gorgonioren alabea, hasi zala lan hau egiten. Berak ezin ikusi izan dau aitaren idazlanen bilduma argitaratuta, bai ostera haren ahizteak, Amaia Renteriak. Jose M^a Bengoa senarragaz batera Venezelatik etorri barri dagoala, berari eskaini gura deutsat lan hau, biajearen nekea arintzeko astirik barik gaurko ekitaldirako hurreratu diralako eta lan honetarako abegi onez hartu nabelako beti.

OLERKI BARRIAK KALIFORNIATIK BIALDUAK (1)

Elantxobetarra naz (2)
ezin dot ukatu
neure herri maitea
nahi neuke goraldu;
herri ederrak asko
munduak baditu
neuretzako hobarik
ezin dot aurkitu,
ene ama laztana,
eleiza ta portu,
neure maiteak dira
ezin ditut ahaztu.

(1) «Begoñako Ama» artikulan kantu honen hirugarren ahapaldia dakar. *Euzko Deya*-koan lehenengo, bigarren eta laugarren ahapaldiak dakartzia.

(2) Elantxobeko abesbatzak kantatua.

Hortxe jaio nintzan da
 hortxe nintzan hazi,
 neure ama negarrez
 hortxe neban itxi.
 Nanita Kalifornian
 luzaroan bizi
 egunero zaituet
 gomutaz ikusi,
 iruditxu maiteak
 ez dauste igesi,
 eurak dira ba neure
 jaube ta nagusi.

Ama Begoñakoan
 irudi maitea
 idunetik zeustana
 ipini eskegia,
 bular ganean jabilt
 maitero gordea:
 bera da neure lagun
 eta zaindaria,
 berak alaituten deust
 mendiko bizia,
 bera da, zeure ordez,
 amatxu neurea.

Euzkadiko herritxu
 itxasertzeakoa
 arrantzale apalen
 habia gozoa.
 Nebadako mendian
 jaurtitako oihua
 itxas ganean zehar
 zuganantza doa,
 ene bihotz agurrau
 beragaz daroa
 Gora Euzkadi eta
 neure herritxua!

Ekin, 1932

**FRANTZISKO IGNACIO
LARDIZABAL URRETABIZKAIAREN
II. MENDEURRENA**

Zaldibia, 2006-VI-30

FRANTZISKO IGNACIO LARDIZABALEN II. MENDEURRENA

*Patxi Aierbe,
Zaldibiako alkatea*

Euskaltzainok, herritarrok, eta ekitaldi honetara etorri zareten guztioi, arratsalde on eta ongi etorri denoi.

Francisco Ignacio Lardizabal Zaldibian jaio zen orain dela 200 urte. Orduko Zaldibian 19 kale-etxe ziren eta 91 baserri. Orduan ere baziren Zaldibian bertan sortu ez arren, bertan bizitzen jarri zirenak: lardizabaltarrak, konparazio baterako. Litekeena da aurrena, haren osaba etortzea Zaldibiari, bertoko elizan apaiz zelako.

Lardizabalen garaian ere egoera gogorrak tokatu ziren Zaldibian eta Euskal Herrian. Zaldibitar bezala, aurren-aurrena, azpimarratzeko da zer nolako lanak egin zituen euskal kulturaren alde. Eta ez, horiek guztiak, jatorri aberatskoia izanda, haren ikasketa guztiak beka eta laguntzekin egin baitzituen. Ez, ordukoak ere ez ziren garai onak kultura eta euskararentzat. Besteak beste, gure herria ere astindu zuten gerra karlistengatik. Lardizabalen osaba apaizak berak ere mendira egin zuen karlistadetan, eta haren lekua libre geratu zenean hartu zuen kargu Francisco Ignacio Lardizabalek.

Egoera hartan, euskaraz idazteko harti zituen lanak ez dira nolanahikoa. Bere kabuz ikasi zuena beste batzuei jakinarazteko ahaleginean aritu zen, haren *Gramatikan* ikusten den bezala. Bestalde, haren *Testamentu zar eta berriko condairak* herritarren hizkuntza maila ezagutu eta jasotzeko interes handia erakusten du. Ez zen alferrik izan liburu hori orduko best-sellerra, euskaraz.

Euskararen egitura ere aztertu eta zabaldu nahi izan zuen bere *Gramatica Vascongada* liburuarekin batera. Orduko jende jantzi, dotore eta ustez jauntsuak euskararekiko errespetu falta handia zuen. Ez da ahaztu behar Larramendi euskaltzalearen gramatikak *El Impossible Vencido* izenburua daramala. Errespetu hori irabazteko ere idatzi zuen Lardizabalek, eta euskararekiko ardura horren lekukoa utzi ezinezkoa da, kanpotarrak, erdaldunak gure herrira iristen jarraitzen duten bitartean.

Lardizabal 49 urterekin hil zen, eta lan handia utziko zuen egin gabe, bere bizimodu labur horretan oso idazle emankorra izan zenez. Esan dudan bezala, Lardizabal 49 urterekin hil zen, haren garaian ere, oso kutsakorra zen izurritea zabaldu zelako Zaldibian.

Gaur, hemen bildutakooi eta euskaldun guztiei, Lardizabalen jaiotza eta haren bizitzaren inguruan hausnartzeko gonbidapena egin nahi dizuet Zaldi-biako alkate naizen partetik. Haren lanak irakurri, gure orainaz pentsatzeko aukera izango dugulakoan. Zinez, askotan, errazagoa baita gure Herriari buruz, gure kulturari buruz, gizakioi buruz, pentsatzea eta hausnartzea, lehenari begira, etorkizunean eman beharreko urratsen arrastoak iraganean aurkitzea baino.

LARDIZABALEN 200. URTEURRENA

*Andres M. Urrutia,
euskarzainburua*

Agur-hitzak

Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia,
Zaldibiako alkate jauna,
Euskaltzainkideak,
Jaun-andreak.

Arratsalde on!

Lehendabizi, mila esker Zaldibiako herriari, Euskaltzaindia hartzearen.
Orobat mila esker hona hurreratu zareten guztioi.

Lardizabalen 200. urteurrena ospatzen du gaur Euskaltzaindiak, Zaldibiako herriarekin batera. Lardizabalen eragina ezaguna da euskal letretan. Horren ondorenez, zuen aurrean azpimarratu behar dut Lardizabal, gure aurrekoia izatearekin batera, guretzat aurrelarria ere badela, aldiotan euskararen «normalizazio-bide» deitzen dugun horretan. Horra hor, esanaren lekuko, haren *Testamentu zar eta berrico condaira eta Gramatika*. Bata nahiz bestea, euskara ardatz, hizkuntzaren muinari zein erabilera adi-adi. Aspaldiko zaigu Lardizabalen bizitza. Hur-hurrekoa, haren mezua, euskararen ikerketa, babeste eta sustatze-gorabeheretan.

Ahalegin berbera du Euskaltzaindiak, sorreratik bertatik, eta ahalegin horri eusteko asmoa, inoiz baino sendoagoa. Horregatik dira erakusgarri orduko garaietako kontuak.

Horiexek sakontzeko, hona hemen bi euskaltzain oso, Mikel Zalbide eta Beñat Oyarzabal jaunak. Entzun ditzagun euron azalpenak, Lardizabali buruz.

LARDIZABALEN GRAMATIKA, BERE GIZARTE-GIROAN

Mikel Zalbide

SARRERAKO OHARRA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskariz Arantzazu Muñoa eta biok prestatzenten ari ginenei artikulu luzeago baten sintesi modukoa da, funtsean, aurkezpen-lantxo hau. Sintesi moduan prestatu nuen, korrika eta presaka, Lardizabalen omenez Zaldibiako udalarekin batera Euskaltzaindiak antolatua zuen ekitaldirako. Epe laburraren mugak eta bestelako lanen zamak hartaraturik, agertu ere nahi baino hutsarte gehiagoz kargatua agertu zen uda-hasierako azalpen labur hura. Hutsarte haien zuzentzen saiatu naiz azkenik, Akademiaren argitalpen ofizialerako. Ez ditut seguruenik hutsarte guztiak zuzendua izango, larrienak halere konponduko nituela espero dut (1).

ZER DUGU AZTERGAI?

Ehun eta berrogeita hamar urte betetzen dira aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiak Lardizabalen *Gramática Vascongada* argitara eman zuela. Donostian inprimatu zen gramatika-liburu hori, Ignacio Ramon Barojarenean, Lardizabal hil eta handik urtebetetara. Artean sasoi betean zelarik, 49 urterekin, hil zen Lardizabal izan ere, 1855ean, *colera morbo* asiaticoak jota.

Izurritez hildako urte horretan bertan, 1855ean alegia, Lardizabalen beste liburu bat argitara emana zen: *Testamento zarreco eta berrico condaira*. Herri-diruz ordaindua hori ere, eta Tolosan argitara emana, Gorosabel liburugilearen etxean. Beste liburu horrek egingo zuen Lardizabal zaldibitarra euskal

(1) Udan, txosten luzeagoa prestatzenten ari ginelarik, dokumentazio zabala aztertzeko eta hasierako hainbat uste-iritziz zuzentzeko edo osatzeko aukera izan dut. Laburpen honetan ez ditut, jakina, hobekuntza eta aldaketa horiek guztiak, ez eta gehienak ere, sartu. Hasierako txostena itxuragabe aldatzea zekarkeen horrek. Jatorrizko idazkuntza nabarmen aldatzea eta, horren ondorioz, unean uneko leku-kotasuna bere onetik ateratzea. Mugak muga eta moztadeak moztade, hasierako idazkuntzari bere hartan eusten saiatu naiz, beraz, ahalik eta gehien. Informazio zabalagoa eta datu-azalpen kontrastatuagoa ikusi nahi duenak jo beza Gipuzkoako Foru Aldundiak hemendik gutxira Lardizabalen omenez argitaratzeko duen liburu sendora.

letretan famatu. Zabalkundeari eta ezagutzari dagokionez hori izan zen bere obra nagusia, ez gaur aztergai dugun gramatika. Gipuzkoan eta are hemendik kanpora asko zabaldu zen bere *Condaira* hori, XIX. mendearen bigarren erdialdean batez ere. Zabalteaz gainera asko irakurri zen, eta asko entzun. Hori ere kontuan hartu behar baita, idazle baten sonaz eta famaz jarduterakoan. Liburuak ez ziren irakurri bakarrik egiten. Batek irakurri eta familia gehienak entzutea eta adi-adi jarraitzea, hori ere ohikoa zen etxe askotan. Arruek Santa Genovevaren bizitzaz egindako irakurgaiarekin batera *Testamentu Zar eta Berrico Condaira* hori izan bide da, zenbaiten esanean, XIX. mende horretan eta hegoaldean euskaraz gehien irakurritako liburua. Lardizabalen idazle-mai-la neurtezko orduan nekez utz liteke datu hori alde batera (2).

Gaur ez gatoz ordea erlijiozko liburu famatu hartaz hitz egitera, batez ere 1856an argitara emandako euskal gramatikaz eta bere ingurumariaz argitasun bat edo beste eskaintzen saiatzera baizik. Gatozen beraz, besterik gabe, Lardizabalen *Gramática Vascongada* horretara. Ohiz kanpoko izaera berezia zuen liburu horrek: hots, gure artean eta aldi hartan berezia. Ez zen eliza-liburua, dotrina edo deboziozko irakurgaia, hasteko, eta bazuen horrek bere nobedade puntua. Joan den mendera arte euskarazko liburuen %90 inguru erlijiozkoak izan direla jakinik (3), bestelako zerbaitean aurrean geundela esan nahi zuen horrek. «Bestelako» izate hori ez zetorkion, gainera, literaturazko edo saiakerazko liburua izatetik, ez eta eskola-umeentzako kartilla edo ikasmaterial xume izatetik, hizkuntzaren arrazoi bidezko ezagutza lortze aldera prestaturiko argitalpen jasoa izatetik baizik. *Testamentu Zar eta Berrico Condairak* ez bezala, hizkuntza bera zuen oraingo liburu honek aztergai. Euskararen barne-egitura azaldu nahi zuen liburu berriak: begiz jotako irakurleak ez ziren gainera eskola-ume xumeak, euskaraz irakurtzen eta zuzen idazten ikastera zihoazenak, lehendik halako prestaera-maila eskuratura zuten irakurle euskaldun edo erdaldunak baizik. Zeharo langintza berria izan gabe ere, hortaz, hizkuntzaren gibela-erraiak aztertzen jardute horrek bazuen, gure artean, halako berezitasun puntua.

Berezia izanik ere, ez zen ordea goitik beherako nobedade. Euskara bera aztertze hori ez zen, XIX. mendearen erdialde horretan, erabateko berritasun. Ondotxozi lehenagotik prestatzen (eta hainbatean, ez beti, argitaratzetan) hasiak ziren horrelako lanak, gure artean. Euskararen barne-egitura eta hitz-altxorra hainbat euskalariren ikergai bihurtua zen ordurako, ipar eta hego. Gipuzkoan, bereziki, hor zegoen aurreko mendetik Larramendiren testigantza: bere 1729ko *Arte* edo gramatika batetik, eta 1745eko *Diccionario Trilingüe* bestetik, mugarririk sendoak gertatuak ziren XVIII. mendean. Harrezkero, gramatika-lanari heldu nahi zionak nekez hutsetik jardungo zukeen. Andoaindar handiaren itza-

(2) Bost argitaraldi izanak ditu *Testamentu Zar eta Berrico Condaira* horrek, 1855ean lehenengo argitara eman zenetik. Informazio zehatzerako ikuas Urgell, 1995: IV-XIV orr.

(3) Ikuas ibon Sarasolaren *Euskal Literatura numerotan*, 109. or.

la ez zen gainera, hizkuntza kontuan, ohiko corpus-kodeztatze lanera mugatzen. Bai hizkuntzaren gizarte-dimentsioan, eta bai euskaldunon jatortasun etnokulturalaren ikuspegি soziohistorikoan, bide-urratzaile gertatua zen bera. Gidaritza intelektual eta sozioemotiboa piztua zuen Larramendik, bere bizi-denboran eta are XVIII. mende osoan, gai horien inguruan. XIX. mendearren lehen erdialdeko hainbat euskaldun buru-jantziren artean ere erreferentzia-puntu argia izaten jarraitzen zuen *On Manuelek*. Hurbil-hurbileko jesulagunen artean izandako maisu-itzialaz gainera oihartzun zabala eskuratu zuen Larramendik, XIX. mendean ere: Segurako Luis Astigarraga, Zaldibiako Juan Inazio Iztueta eta Hernaniko Agustin Pascual Iturriaga ez genituzke, urrundik ere, gidaritza horren lekuko hutsalenak. Bistan da beste zenbaiten artean, Mogelen baitan bereziki, andoaindarren izaera ausart-trumoitsuak kezka-biderik eta desadostasun-seinalerik azaleratu zuela. Kasu horietan ere asko, izugarri zor diote idazle horiek Larramendiri. Zernahi dela ere, andoaindarrek hegoaldean urratutako ildotik egin zuen zaldibiarrak aurrera, bere *Gramática Vascongada* paratzerakoan.

Probetxuzkoa genuke noski, Lardizabalen euskal gramatika hori eta bere argi-ilunak aztertu nahi izatekotan, liburuaren edukian bertan zentratzea. Bidetxoa genuke zaldibiarraren liburua linguistikaren aldetik arakatzea eta, besteak beste, 1856ko lan hori Larramendik 127 urte lehenago argitaratu emanda koarekin konparatzea. Ez noa horretan saiatzera. Lehendik bada, gutxi-asko, horrelako lanik eginik, eta aurrerantzean are gehiago izango dugu eskueran: Benet Oiharzabalek gaur bertan, eta Jose Antonio Mujikak laster, eskainiko digute ikuspegি gramatikal hori neuk egin dezaketen baino sakonago eta argiago.

Lardizabalen lan honek pizten duen interesa ez da, ordea, azterketa lingüistikora mugatzen. Bada bestelako ikuspegirik ere, lantza merezi duenik. Merezi du bereziki, Lardizabalen omenezko ekitaldi honetan, beste galdera modu hauei ere erantzutea (4): nor genuen Lardizabal?, zergatik eta zertarako idatzi zuen gramatika-liburua?, noorentzat idatzi zen liburu hori? Zer gizarte-girotan suertatu zitzaiion Lardizabali liburu hori idaztea? Nola zebiltzan gizarteko kontuak, Zaldibian eta Gipuzkoan, XIX. mendearren erdialde hartan? Nola zebiltzan industrializazioa eta urbanizazioa, bidegintza eta teknologiazko aurrerapena? Nondik nora zebiltzan ekonomia eta politika, hezkuntza eta literatura? Zertan ziren euskara-erdaren atzera-aurrerak, gizarte-bizitzan? Ba ote dago giro hartako jarduna ikuspegি soziohistorikoan edo soziokulturalean txertatzerik, eta era horretan langintza haren perspektiba zabalago bat eskuratzerik? Galdera horiek, eta beste hainbatek, liburuaren edukiaz izan dezake-

(4) Erantzutea edo, apalago esanik, erantzun-printza batzuk bilatzen hastea: gauza gehiegidi dira, bai bere bizian eta bere gramatika honen inguruan, oraingoz argitu ezin direnak. Bere bizi-denbora gehieneko esan-eginak (batez ere 1824tik 1852ra artekoak) lausoegi ditugu oraindik, hainbat galderari erantzun sendoak eman ahal izateko. Gramatika-liburu honek izan zuen zabalkundea eta erabilera ere, zoritzarrez, ez dakigu ia ezer.

gun jakin-mina osatzen eta aberasten lagun dezakete. Galdera modu horiei erantzuten hasi nahi nieke, labur eta arin izango bada ere, gaurko txosten honenkin. Arantzazu Muñoak eta biok eskuartean dugun azterketa-saioak, uda honetan bukatzekoa dugunak, balio izango du agian gaurkoan aipamen soilean utzitako hainbat punturi aurrez aurreko erantzuna ematen saiatzeko. Iñaki Azkuneri eta, bere bidez, hainbat adituri zor diogun laguntza ezin isilpean utz dezaket, lanari ekiterakoan. Ezta Zaldibiko udalean idazkari den Marisol Alkaiagari eta bere bullegokideei eta, nola ez, Zubiaurreko etxe-koandrea Mariasun Mendizabali, hain eskuzabalik eskaini duten laguntza zintzoagatik. Mila esker guztioi. Eskerrik beroenak, azkenik, dokumentu askoren jakin-iturri ernaia iza-na dugun Gipuzkoako Artxibo Orokorrako Ana Otegik teknikariari.

1. NOR GENUEN LARDIZABAL?

Zaldibiarra izanik Frantzisko Inazio, has gaitezen bere haurtzaroko herriaz argibideren bat emanaz. Zaldibiko benefizio-plana dela-eta (5) badakigu, neurri batean behintzat, Zaldibiak 1791n zer itxura zuen: «En la villa de Zaldivia Provincia de Guipuzcoa de este Obispado, hay una iglesia Parroquial de la advocacion de Santa Fé con mil doscientos veinte y siete personas, ochocientos y cuarenta y cuatro de Comunion y las restantes quatrocienas veinte y tres de sola confession en doscientas setenta y un familias, que habitan en veinte casa sitas en el cuerpo de la villa, y ochenta y ocho Caserios bastante dispersos entre si, á mucha distancia de la Parroquia de camino aspero y costanero». Badakigu, beraz, Lardizabal jaio baino 15 urte lehenago 1.227 persona bizi zirela Zaldibian eta herriak, guztira, 271 familia zituela. Familia horiek, bestalde, ez ziren kaletar. Gutxiengak bizi ziren herriko kaskoan: 20 etxe bakarrik zeuden bertan. Inguruan berriz, kaskotik kanpora alegia, 88 baserri zeuden guztira, hainbat muño, hegazti edo ibarretan barreiatuak. Uste izateko da 1791ko deskribapen demografiko horrek aldaketa xumeak izango zituela, oro har, hurrengo mende-laurdenean. Baserri-giroa zen beraz, kale-bizitzaren ordez, Lardizabalen haurtzaroko Zaldibia hartan nagusi. Urteen joanean, badirudi aurrera ordez atzera egin zuela Zaldibiak, bizilagunei dagokienez, XIX. mendearren lehen erdialdean. Ikus izan ere, 1855eko datuak: «... pueblo situado en una hondonada llana, rodeada por todos lados de altísimos montes, cuya base llega por los lados á la población. Se compone de 203 vecinos, y de 1.015 almas, que la mayor parte viven en los caserios esparcidos por su jurisdicción. Atraviesa toda la población, en dirección del mediodía al N., el río Osin verde, que más adelante se junta con el Oria en Villafranca, engrosado con el agua de varios manantiales, y otro arroyo que baja desde Aralar; así es sumamente húmeda y sombría, la posición de este pueblo. Goza del beneficio

(5) Iruñeko Artzapezpikutegiko Artxiboan aurkitutako dokumentu originalen kopia da, hor eskaientzen dena.

de varias fuentes de agua de excelente calidad.» (6). Demografiazko hazkunderik eta etorkin-uholderik gabeko herri batez ari gara, hortaz, Lardizabalen garaiko Zaldibiaz jarduterakoan.

1.1. Apaiz eta idazle: Lardizabalen biografia xumea

Herriaren gorabehera horiek alde batera utzita, gatozen herritar famatuaren bizi-zertzeladak agertzen. 1806ko uztailaren 5ean jaio zen Frantzisko Inazio Lardizabal. Zubiaurre etxean jaio zen, elizatik hurbil. Etxeko seme zaharrena zen bera: bederatzi anaia-arrebetan zaharrena (7). Orendaingoa zuen aita, Frantzisko Xabier Lardizabal, eta zaldibitar petoa ama, Maria Antonia Urretabizkaia. Bertako Santa Fe elizan bataiatu zuten haurra, jaio eta hurrengo egunean (8).

Etxean ez ziren aberats: jende xehea zen, oro har, Zubiaurrekoa (9). Aita herriko zirujau izanik, kontraesan bat dirudi horrek. Herriko osagile bakarra izanik aita, nola liteke familia diruz justu ibiltzea? Irudipenak irudipen balite-

(6) APUNTES ACERCA DEL CÓLERA MORBO ASIÁTICO QUE SE HA MANIFESTADO EN GUIPÚZCOA EN EL VERANO Y OTOÑO DEL AÑO 1855 ORDENADOS POR EL MÉDICO MAYOR S. M. D. JUAN ANTONIO MONEDERO, CONDECORADO CON LA CRUZ DE EPIDEMIAS POR ASISTENCIA GRATUITA EN LA DE SAN SEBASTIAN, ETC. Probintziaren Inprenta: Donostia, 1885. (50-51 orr.).

(7) Donostiako Artxiboa bertan Frantzisko Inazio Lardizabalen bataio agiria ez ezik, anai-arreben bataio agiriak ere badatoz. Hala, badakigu era berean, Frantzisko Inazio Lardizabal eta bederatzi anai-arreba zirela eta bera zela denetan zaharrena. Arrebarik gazteenaren eta bere artean, gainera, dezenteko tarteza zegoen: 20 urtekooa, hain zuzen ere. Beste anai-arrebak honako hauek ziren:

- 1809-I-21: Jose Maria de Lardizabal (apaiza)
- 1811??-II-9: Maria Polonia de Lardizabal
- 1813-IV-29: Joana Francisca de Lardizabal
- 1815-I-17: Josefa Maria de Lardizabal
- 1817-XII-7: Maria Concepcion de Lardizabal
- 1820-III-28: Francisco Xavier de Lardizabal (apaiza)
- 1823-V-13: Jose Ignacio de Lardizabal (zirujaua)
- 1826-V-21: Maria Dominica de Lardizabal.

(8) Donostiako Elizabarrituko Seminarioko Artxiboa Lardizabalen bataio agiria dator: «En la villa de Zaldivia á seis de Julio de mil ochocientos y seis, con licencia de mi el infrarcuzo Vicario y Comisario del Santo oficio en la Inquisicion de Navarra, Bautizo D. Juan Bernardo de Echave Pró (párroco) y Beneficiado en esta Parroquia á Franº. Ignacio que nació ayer a las siete y media de la tarde hijo legítimo de Franº. Xavier de Lardizabal natural de la villa de Orendain y María Antonia de Urretavizcaya de esta villa. Abuelos paternos Franº. Xavier de Lardizabal natl. de la villa de Idiazabal y María Ana de Urquia Iturrioz así bien natural de esta de Zaldivia. Maternos Jose Martin de Urretavizcaya, y María Ingº. de Jauregui también natural de esta, siendo padrinos Franº. Xavier de Lardizabal y María Ignacia de Jauregui, a quienes advirtió en parentesco espiritual y la obligacion de enseñar la doctrina cristiana á este niño. Y para que conste firmamos= Dn. Jose Ignacio de Echave = Dn. Juan Bernardo de Echave.»

(9) Halaxe dio Belaustegik 1901ean, *Euskal-Erria* aldizkarian argitara emandako artikulu batean: «*hijo de padres modestos y honrados*». Ideia bera erreripikatu zuen Eduardo de Urrutia kidea 1922an *Euskaleriaren Alde* aldizkariko XII. alean: «fueron sus padres unos modestos y honrados trabajadores».

ke, ordea, XIX. mendean zirujau izan eta diruz xume bizi izatea hain gauza harrigarria ez gertatzea. Herriko idazkariaren %10 irabazten zuen zirujauak, izan ere, 1852ko udal-aurrekontuen arabera (10). Udaleko soldata horri, hale-re, iguala bidez jasotzen zuten ordainsaria erantsi behar zitzaion. Zirujauaren urteko irabazbidea, hori zela medio, udaletik zetorkiona baino jasoagoa izango zen nabarmen.

Umetan (eta aurrerago, mutikotan) izandako bizimoldeaz ez dugu argibide handirik. Herriko beste hainbat haurren eta gazteren hazibidea izango zuen, segurueneik, Fratzisko Inaziok. Egunean sei ordu eskolan eginez, eta aldian behin Aralar aldera edo Ordiziako feriara joan-etorriak eginaz, iritsiko zen mutila bere gaztarora. Osaba apaiz zuenez, eta une batetik aurrera herriko erretore, gainera-ko haur gehienek baino elizarako joera sendoagoa izango zuen agian. Anaia bat ere (1809an jaiotako Joxemari) apaiz egin zen gero. Beste anaia bat, berriz, zirujau egin zen, eta aitak utzitako postua hartu zuen herrian, 1855ean (11).

Lehen ikasketak herrian bertan egin zituen, eta Lazkaoko karmeldarreta-ra joan zen gero, handik aurrerako estudioekin jarraitzeko asmoz (12). Fr. Lucas de San Antonio Zaldibiako behin-behineko bikarioak (eta komentuko buruak) horren berri eman zuen 1823ko urriaren 29an, Iruñeko gotzaindegia-ri egindako idazkian (13).

(10) Zaldibiako udal-artxiboko dokumentuetan herriko haziendaren aurrekontuak ageri dira eta bertan, besteak beste, Udaleko langileek urtean zenbat irabazten zuten zehatz-mehatz esan dator. Zirujauaren soldata, Udaleko langile guztien artean baxuena (edo apalenetakoa) zen. Begira 1852. urteko Zaldibiako aurrekontuei:

«El del secretario.....	550 reales vellon
El del alguacil.....	374
El del depositario de fondos	160
El del encargado del reloj	77
El del Cirujano	55
El de los músicos juglares	140».

Bistean da herriko idazkaria eta aguaziola zirela, udaleko enplegatu-en artean, irabazi han-dienekoak.

(11) Aita-semenen lanbidearen inguruko informazioa Zaldibiako Udal Artxibotik atera ahal izan dugu. 1855eko ekainaren 29an jasotako aktak zera dio: «acordaron nombrar para la Junta municipal de Sanidad a (...) Francisco Ignacio Urretavizcaya Vicario á Francisco Javier Lardizabal y Don Jose Ignacio de Lardizabal Cirujanos (...». Beraz, aita bakarrik ez, anaia ere zirujau zuen Lardizabalek. 1855eko abenduaren 16an, gainera, Zaldibiako zirujau-postua anaiaik hartu zuen, aitak uko egin eta gero: «en vista de la solicitud presentada por Don Ignacio de Lardizabal vecino de esta villa, único aspirante que ha pretendido el partido de Cirujano de esta dicha villa, por renuncia hecha por su padre Don Francisco Jabier de Lardizabal, le elejan y nombraban al mismo Don Jose Ignacio de Lardizabal por tal Cirujano para que lo ejerza y desempeñe por las buenas cualidades que le adornan al dicho aspirante Lardizabal y se haría su correspondiente escritura un día de estos insertando las condiciones que se han de observar».

(12) Lazkaoko komentuan beneditarrak badaude ere orain, karmeldarrena izan zen etxe hori garai batean. Desamortizazioan hustu egin zuten komentua, eta 60 bat urtez horrela egon zen, be-neditarrak bertara joan arte.

(13) «se halla estudiando Gramatica con suma aplicación y siempre ha dado pruebas de buen cristiano, humilde, retirado, obediente a sus Padres y Maiores; ha frecuentado la recepcion

Bertan ikasten ari zela, karmeldarren aita jenerala bisitan etorri zen behin batean eta, Lardizabalek ikasteko ageri zuen gaitasuna ikusita, gaztea bere ardurapean hartu, gastuak ordaindu eta Burgosera eramatea erabaki zuen, filosofia eta teologia ikastera. Eta gero Madrila, karrera han amaitzera.

1824an, artean 18 urte bete gabe zuelarik, apaiz-bideari heldu zion Lardizabalek. Urte horren hasieran eskatu zuen tontsura (14): hurrengo garizuman tontsuratua izatea nahi zuen. Eskabidearen lagungarri, zera zioen apaiz-nahia: latina ikasia zuela dagoeneko eta une horretan logika ikasten ari zela.

Besterik ere bazioen zaldibitar gazteak, bidenabar, tontsura-eskari horretan: erlijiozale eta erregetiar zela, eta konstituzioaren (atzerriko ehun mila sanguistarren indarrez ezabatu berria zen konstituzio liberalaren) etsai (15). Aitormen hori egiterakoan baliteke egia osoa esan izana Lardizabal gazteak, eta oso kontuan hartzeko datua genuke hori, bere biografia taxuzkoa prestatzeko orduan. Gizarte-giroa garai hartan zein nahastua zebilen gogoan izatea ere ez da alferrikaoa izango ordea, eta beraz aitormen hori tentuz hartzea. Hasteko, Lazkaoko karmelita eta bere herriko (behin-behineko) apaiz zenak bost bat hilabete lehenago apezpikuari esandakoa ia hitzez hitz errepikatzen du hor Lardiabal gazteak. Besteren hitzak (edota, agian, apaiz-giroko klixe moduko bat) errepikatzen ari da hortaz, bere eske-idazkian. Liberalen hiru urteko (1820tik 23rako) agintaldiaren ondotik boterera itzuli berria zen Fernando VII.a, bestalde, eta liberalen edo liberal-lagunen kontrako zigor-giro gogorra eazarria zuen aginte berriak: hainbat herri-zerbitzari (Tolosako Insue maisu semea, besteak beste) lanik gabe utziko zuen zigor-bidea, ezaguna denez. Kontuak horrela izanik, litekeena da gizarte-giro nahasi hartan aurrera egin nahi zuen gazteak bere burua erregezale eta konstituzioaren etsai aitortzea komenentziazko jokabidea ere izatea, halako neurri batean. Zergatik diot hori? Handik hamar

de los Santos Sacramentos de Penitencia y Comunion, y siempre decidido por la Causa de la Religion y del Rey, y enemigo del Sistema Constitucional tanto el, como sus Padres, en una Palabra, se halla dotado el mencionado estudiante de todas qualidades que pueda tener un Joben para poder seguir qualesquier Carrera».

(14) Zaldibiko parrokián Fr. Lucas de San Antonio zen, une horretan, behin-behineko bikerri. Lardizabalen bataioko eta sendotzako agiriak eskatu zizkioten Iruñeko gotzaindegitik, besteak beste. Fr. Lucas de San Antonio-k 1824ko otsailaren 23an bidali zituen bataio- eta sendotza-agiriak Iruñeko gotzaitegira

(15) Honela dio bere eske-idazkiak: Dn Fran.co Ignacio Lardizabal natural de la villa de Zaldibia con el debido respeto expone , que despues de haber estudiado la gramatica latina por impulsos de su vocacional estado Ecco. Se halla matriculado en la aula de logica de este mismo seminario conciliar. En todos tiempos ha observado un porte y conducta correspondiente al estadio que aspira, ha frecuentado los Santos Sacramentos y está dotado de las cualidades apreciables que pueden apetecer en un joven como todo consta del certificado que se presenta añadiendo haber estado decidido por la Causa de la Religion y del Rey siendo enemigo del sistema constitucional asi como sus Padres; en cuya atencion y á que se halla constituido en la edad de 18 años Suplica á V.E. se sirva admitirlo para la tonsura en las ordenes de la segunda semana de la proxima Cuaresma. Asi lo espera y en ellos Pamplona 4 de Febrero de 1824» Firma: «Exmo Sr. A nombre del Snp.te Pedro Xamén de Asturias».

urtera gertatutako gorabeheretan ez dirudielako hain alde batera makurtua zegoenik. Are nabarmenago ageri da moderazio-kontu hori, bere osaba erretoreoa argi eta garbi karlisten alde atera zela («mendira joan zela») dakigunean. 1839tik aurrerako agintaritza liberal moderatuarrek ere, dakigun neurri apalean, aski harreman egokiak izan zituela dirudi. Esan bezala, gutxiegi da horretaz dakiguna, baieztapen sendorik egiteko (16). Beste hainbat puntutan bezala, jakite mugatuegia dugu egungo euskaldunok orduko esan-eginez. Hala dut nik, behintzat, eta orduko hainbat euskal idazleren biografia taxuzkoa egiteko orduan eragozpen zorrotza daukat, zoritzarrez. Iztueta baten, Pascual Iturriaga baten, Jose Pablo Ulibarri baten eta Mogelen beraren kokapen intelektual eta ideologikoa neurri handi batean egiteke dago oraindik, nire ustez, eta oso zaila gertatzen zaigu beren uste-sinesmen eta jokamoldeak, jarrerak eta esan-eginak garai hartako *Zeitgeist* nagusian eta gure arteko gorabehera korapilatuetan behar bezala uztartzea.

Nolanahi ere, eta bere biografia segurura itzuliz, badakigu aurrera egin zuela Frantzisko Inazioren tontsura-eskabideak (17). Bere eskaerari erantzuenez, Lardizabalen nahiaren berri eman zitzaion Iruñeko Goitzaindegitik Zaldibiako herriari, eta tontsura eman ahal izateko beharrezko informazioa eskatu: «es necesario que preceda informacion de su naturaleza, legitimidad, edad, vida y costumbres, y de las demás cualidades que el derecho prescribe» (18).

Tontsura 1824an lortu zuen Lardizabalek. Eguna justu-justu ez dakigun arren, beneficiadutarako azterketa noiz gainditu zuen badakigu zehatz-mehatz: 1825eko uztailaren 5ean, hemeretzi urte bete zituen egun berean. Handik egun gutxira, uztailaren 24an, aurreko urtetik hutsik zegoen beneficiadu-plazaren jabe izendatu zuen Zaldibiako herriak tontsuratu gaztea.

(16) Orain ere ez gabiltza jakituriaz gainezka, baina ekainean hipotesi gisa emandako zenbait kontu zuzentzeko adina badakigu harrez gero. Iku, horretaz, Lardizabalen gramatikari buruz argitaratzeko den liburuan Muñaoak eta biok eskaintzen ditugun zehaztasunak, aurrez esandakoa gutxi-asko aldatu beharra dakartenak.

(17) Otsailaren 4an eskatu bazuen Lardizabalek tontsura, otsailaren 11n hala esaten da: «Dn. Fran.co Ignacio lardizabal natural de Zaldibia ha de ser examinado para Prima. Pamp.^a 11 de feb.^o de 1824.» Jarraian hiru sinadura ageri dira: «Alejandro Tellechea», «Dn. Pedro Ignacio Gaseviro» eta «Fran.co Ignacio de Lardizabal»

(18) 1824ko otsailaren 23an Fr. Lucas de San Antoniok Lazkaoko komentuko karmelita eta Zaldibiko behin-behineko bikarioak apezpikuaren gutunaren berri eman zuen mezetan, euskaraz. Testiguak, berriz, Zaldibiko Simon Ignazio de Armendariz, Juan Ignazio de Mancisidor, Juan Ramon de Garmendia eta Martin Esteban de Echave izan ziren. Lekuko horiek eskribauaren aurrean Lardizabalen inguruko galderei erantzun zieten. Besteak beste zera azaldu zuten: Frantzisko Inazio Lardizabal ezagutzen zutela, baita haren gurasoak eta aiton-amonak ere; odol garbikoak ziela eta ez zutela inoiz inolako sektan parte hartu; aita medikua zuela Madrilgo Real Proto Medican titulatua (Lardizabalen aitaren lanbidearen inguruko beste datu eta baieztapen bat); zintzoa, sinestuna eta ikasle ona zela, ez zela jokalaria eta ezta biragoilea ere; eta osasuntsu zegoela. Hala, Fr. Lucas de San Antoniok bataio-agiria, sendotza-agiria eta lekukoek aitortutakoa bidali zizkion apezpikuari.

Benefiziadutza eskuratu ondoan, Lardizabal gaztea ez zen herrian gelditu. Apaiz-estudioekin aurrera jarraitu zuen, aitzitik, Burgosen eta Madrilen. Apaiz-graduazioari dagokion informazioa, eskuratu ahal izan dugun neurrian, honako hiru atalotan bil daiteke: a) 1827an *Ordenes menores* direlakoak eta subdiakono-gradua eskuratu zituen (19); b) 1828an, dimisoria bidez, diakono-gradua eskuratu zuen Burgosen (20); c) 1830ean Madrilen bizi zen, San Felipe el Real komentuan, laguntzaile gisa. Teologiako 4. urtea ikasi ondoren Teología moral ikasten ari zen bertan (21). Noren laguntzaile zen ere badakigu: Fr. Martin de Ceberio, Maestro en Sagrada Teología, Karmeliten Ordenako buruaren (22) zerbitzari. Urte horretan bertan lortu zuen Lardizabalek presbiterotza (23), «con dimisiones del obispo de Burgos» (24). Hogeita lau urte zituen Frantzisko Inaziok, presbiterotza lortu zuenean. Bere apaiz-ikasketei amaiera eman zien horrenbestez, eta herrira itzuli zen.

(19) Ikus Iruñeko artzapeziketegiko artxiboa, caja 181-Nº 9.

(20) «D.n Fran.co Ignacio de Lardizabal diacono Beneficiado de la Parroquial de la villa de Zaldibia. Con el debido respeto espone que mediante dimisiones recibió el Diaconado en el Arzobispado en los temp.s de San Marcos del año de 1828» PRESBITERO MAILA LORTZEKO FRANTZISKO INAZIO LARDIZABALEN ESPEDIENTEA, 1830. Ikus, orobat, Iruñeko artzapeziketegiko artxiboa, caja 181-Nº17.

(21) «teniendo el presente 24 años cumplidos y en la actualidad su residencia en la corte de Madrid en la compañía y servicio del P. Fr. Martin de Ceberio Maestro en Sagrada Teología en el Convento de San Felipe el R.I de la misma Correc. habiendo estudiado en el Seminario Conciliar del propio Arzobispado el 4º año de teología y ahora esta instruyendose en la misma Teología Moral, como lo referido aparece de los documentos que acompañan á esta esposición, y como por razon de su titulo de tal Beneficiado firme la Obligación de residencia, conferencias y otras cargas desea habilitarse en el Presbiterado á la posible brevedad para poderlo hacer por sí en utilidad de la feligresía por la escasez de Ministros en que se halla, sin poder (-) á las (-) sirvientes. Por tanto recurre á la Justificación.» (PRESBITERO MAILA LORTZEKO FRANTZISKO INAZIO LARDIZABALEN ESPEDIENTEA, 1830).

(22) Ordenaren buru izate hori, Belaustegik segurutzat ematen duena, 1830eko dokumentu horretan ez da baiezatzen.

(23) Hartarako tramiteei dagokienez zera dakigu: batetik Zaldibiko bikarioak, bere osaba Urretabizkaia alegia, Lardizabalen bataio-agiria bidali zuela; bestetik Fr. Martin Zeberiokoak honako azalpen-idazkia aurkezu zuela: «Certifico yo el infraescrito q.e D.n Fran.co Ygnacio de Lardizabal Beneficiado de la Parroquial de Zaldibia Obispado de Pamplona ha permanecido siete años en mi compañía (beraz, 1823tik 1830era ez zen Herrian bizi izan, Fr. Martin de Zeberioren laguntzaile baizik, han-Hemen) y permanece en la actualidad en clase de sirviente mio en este convento de S.n Felipe el Real de esta corte y q.e desp.s de haber concluido su quarto año de teología, esta instruyendose en las materias de la teología moral con el fin de ordenarse de presbitero; y p.a q.e conste y p.a los efectos q.e haya lugar firmo esta en el expresado convento de S.n Felipe el Real de Madrid a diez y nueve de Julio de mil ochocientos y treinta» PRESBITERO MAILA LORTZEKO ESPEDIENTEA. Ikus Iruñeko artzapeziketegiko artxiboa, c/294-N-19

(24) Bere bi anaiein apaizketa-bidearen berri ere badugu, hainbatean: anaia Joxemariak 1829an lortu zuen lehen tontsura, 1831n Ordena txikiak, 1832an subdiakono-gradua eta 1833an diakono-gradua. 1830ean egin zen, bestalde, Zaldibiako beneficio modernoaren kargu: hots, *Galbarioko bidearen egile izandako Jauregiren plaza lortu zuen, azken hori aurreko urtean hil zelarik*. Ikus Iruñeko artzapeziketegiko artxiboa, Errazu, c/3.000-Nº 6. Anaia Frantzisko Xabierrek, berri, 1837an eskuratu zuen tontsura. Urte horretan bertan lortu zuen Zaldibiako elizako kapilautza kolektiboa, Perun kapitain izandako Martin Olanok sortua eta une horretan, aurreko kapilaua hil zelarik, hutsik zegoena. Ikus Iruñeko artzapeziketegiko artxiboa, Errazu.-c/3.000-Nº-6

Handik aurrera, itxura denez, Zaldibian bizi izan zen Lardizabal batez ere. Hogeitabost urtez, 1830etik 1855era bitartean, bere herriko apaiz-langintza horretan jardun zuen nagusiki. Hori dela-eta, Zaldibiako zuloan bizi izandako gizon isil-iluna izan zela esan izan da aspalditxodanik (25). Belaustegik 1901ean esandako hura ez da, dakigularik, inoiz aurre gezurtatu izan: «Vivió oscuro, metido en su pueblo natal de Zaldivia, y como vivió, murió también». Ez dugu uste, gauzak horrela izan zirenik. Lazkaon, Burgosen eta Madrilen ibilitako gizon ikasia genuen Lardizabal, ez bere mendi-zokondotik inoiz ate-ra gabeko gizaixo arlotea. Gauzak ez ziren hor amaitu, gainera. Bai karlistada-garaian, eta bai horren ondoan, herritik kanpora ibilitako (bere gogoz kontra herritik kanpora bizi izandako) gizona dugu Zaldibiako benefiziadua. Iku- ditzagun bi aldiok, gaingiroki.

Karlistada-garaia oso une bizia izan zen beretzat. Bizia eta larria. Zati- banatze handiak izan ziren Gipuzkoan, gerra hori zela medio, eta ez zen ha- lakorik falta izan Zaldibian ere. Zaldibiako herri xehea, erabilitako dokumen- tuen argitan, batez bestean karlisten alde agertu zela dirudi. Aldiz badirudi zezakeen jendea, estudioak egindakoa eta karguren bat zuena (notario-sekretarioa, herriko maisua,...) erreinuko *establishment* liberalaren aldeko agertu zela nagusiki: karlisten esanean «pesetero»-ak eta «urbano»-ak ziren horiek. Apai- zen artean, kontuak ilunago zeuden. Liberalen alde atera ziren apaiz asko, be- netan asko, eta karlisten alde mordo galanta (26). Apaiz guztiak ez ziren, Zal- dibian ere, iritzi bereko. Karlisten kontra atera zen Lardizabalen osaba, Urretabizkaia bikarioa. Kontra atera zen edota, gutxiengutxienez, erresumako gobernu «liberal-cristino»-aren ildotik ibili zen (27). Ibilera horretan herritik kanpora, Ordizian, bizi izan zen une batez: bertako Ospitale militarreko kapi- lau izan zen (28). Ordizia karlisten esku erori zenean, bere herrira itzuli zen Urretabizkaia bikarioa. Baliteke, zenbaiten esanetik, osaba kanpoan ibili zen denboran Zaldibiako bikario-orde Frantzisko Inazio Lardizabal izatea (29). Osaba ez bezala, pentsaeraz karlista zen Lardizabal gazte-heldua. Karlisten alde egin zuen behintzat, gero ikusiko dugunez, argi eta garbi. Bizia arriskuan jartzera ere iritsi omen zen, karlisten aldeko bere jokabidean. Kontu hori dela- eta Frantzisko Inaziok ez zuen egonaldi gozoa izan herrian, gerra-garai horre- tan. Bere pentsaeragatik, sermoietan esandakoengatik edo dena delakoaga- tik (30), atxilotu egin zuten eta, herritik kanpora eramanik, preso egon zen

(25) Geroztikako aipamenetan ere horrelako zerbaite aditzera ematen da, artez edo moldez.

(26) Bando bakoitzean, orduko iturrien arabera, justu-justu zenbat apaiz zeuden ez dakigu inork aztertua duen. Guk erabilitako iturrien arabera, karlisten bandoan liberalenean baino apaiz gehiago ziren. Gehiago bai, baina askoz gehiago ez.

(27) Sermoi gogorra egin omen zien zaldibiarrei, 1834an, semeei karlisten batailoietara jo- aten ez uzteko edota atzera etorratzeko esanez.

(28) Osaba bikarioa Herrian falta izan zen urte horietan, Frantzisko Inazio Lardizabal izan zen agian Herriko bikario: zehazkiago, bikario-orde. Seguru ez dakigu ordea.

(29) Horren dokumenturik ez dugu inon bilatu. Zaldibiako artxiboean, agian?

(30) Iturriak ez dio, zoritzarrez, zergatik.

Ordizian behin baino gehiagotan (31). Azkenean ihes egin zuen (32) eta Nafarroan bizi izan zen denbora batez (33). herrira noiz itzuli zen ez dakigu, zehatz-mehatz. Itzulera hori 1837an izan zen, agian: osaba Urretabizkaia bikariotzatik kendua-edo zegoen, une horretan, eta bera zen orduan bikario-orde. Gerra-amaieran itzuliko ziren, seguruenik, osaba-iloben arteko harreman-bideak bere onera. Herriko bikario izan zen berriro, 1855eko izurritean ilobarekin batera hil zen arte, Frantzisko Inazio osaba. Frantzisko Inazio iloba, berriz, beneficiadu-mailara itzuli zen eta horretan jarraitu zuen hil arte.

Badirudi gorabehera nabarmenik gabeko eliz jarduna izan zuela Lardizabalek bere herrian, gerra amaitu ondoan. Tartean ez zen une bizi-mingarririk falta izan, beneficiadua erdi-erdian harrapatu zuena. Karlisten 1848ko inarrosaldi-saioan Altzaa-rekin gertatua (34), bereziki, ez zen isilik pasa: ez herrian bertan eta ez Gipuzkoa osoan. Mementoko pasadizoak izan ziren hori eta horren antzekoak, ordea: bere eliz eginkizun etengabean aldian behingo gertakari solteak. Ondotxozi ondorio sendoagok ekarriko zizkion, aitzitik, Irúneko apezpiku edo obispoarekin izandako adiskidetasunezko harremanak. Harreman estuak izan zituen obispoarekin, gero aztertuko dugun zenbait iturrik dioena egia baldin bada (35): eliz notario eta moja-komentuen ikuskari izan zen Lardizabal, apezpikuaren izendapenez. Azken langintza horrek, seguruenik, herritik kanpora eramango zuen benefizadua, aldian behin. Gaztetako ikasketa-periplo luzeak, gerra-garaian preso atxiloturik egoteak eta ihesi ibiliak, eta gerra ondoan herritik kanpora izandako lanbide-lotura episkopal horiek aski zeregin eta aski mugimendu ekarri zioten segurki: herrian bertan ere ez zuen beraz, beti-beti, hain bizitza ilun-oharkabea izan. Ez, behintzat, «vivió oscuro, metido en su pueblo natal de Zaldivia, y como vivió, murió tambien» esateko lain.

Noiztik ez dakigularik, euskal gauzetarako afizioa hartua zuen Lardizabalek. Han-hemengo euskal liburuak, besteak beste, taxuz eta sakon aztertu zi-

(31) «D. Fran.co Ignacio Lardizabal, Beneficiado, tiene bien acreditada su lealtad al Sobrano, por lo que ha sufrido prisión en Villa franca varias veces hasta que fugó á Navarra» (AGG-GAO CA 45,3)

(32) Ez dakigu Ordiziatiak, atxiloturik zegoen horietariko batean, egin zuen ihes, edo Zaldibitik bertatik. Dokumentutik lehenengoa-edo uler liteke, baina ez da seguro.

(33) Ez dakigu ezkutuan edo agirian bizi izan zen Nafarroan. Non egon zen ere ez dakigu.

(34) Karlitate armatan altxa ziren urte horretan, Katalunian batez ere. Hemen ere izan zen halakorik. Oñatiako Joakin Julian Altzaa letradua. Karlistetako jeneral izandakoa, Gobernuaren kontra atera zen 1848an eta, bere guda-mutilekin, guerrilla-lanean hasi. Aralarren preso hartu zuen Altzaa, uztailaren 2an, eta Zaldibira ekarri. Hurrengo egunean, goizez fusilatu zuten Herriko plazan. Frantzisko Inaziori suertatu zitzaión, agidanez, hil aurretik Altzaa jeneral-ohia konfesatzea. Karlistada-garaikit ezaguna izango zuen agian. Ikus, horretaz, batetik Frantzisko Apalategiren Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak, II, Antonio Zavalaren Auspoa liburutegiko 293. alean, eta bestetik Antonio Zavalaren beraren Karlisten Leenengo gerrateko bertsoak, *Auspoaren Sail Nagusian*.

(35) Hala dio Garmendiak: «Lardizábal fue amigo (...) de D. Severo Andriani, obispo de Pamplona, quien le honró con los cargos de notarios eclesiásticos y visitador de convento de religiosas» (EUSKERA, 1996: 1001).

tuen. Ez Goierriko euskal idazleenak bakarrik, eta ez gipuzkoarrak soilik ere: Iparraldeko Larregi, alde batetik, badakigu ondo ezagun zuela. Eta uste izateko da bizkaitarrik ere (Frai Bartolome Santa Teresa buru zela) irakurria eta aztertua zuela. Euskalari fin eta fidagarriaren sona ere eskuratu zuen, une batetik aurrera. Gero argitara gabe gelditu diren, edo zabalkunde mugatuagoa (lekuz eta, agian, irakurle motaz mugatuagoa; ez irakurle-kopuruz, ezinbestean) izan duten zenbait lan idatzirik zuela badakigu: *Historia de san Miguel en Excelsis de Aralar* esate baterako. Belaustegik dioenez liburu lodi samarra zen hori, eta garbian jarrita gerturik zeukan argitara emateko. Elizaren baimena ere aurrez eskuratua zeukan. Belaustegik «otras obritas de menor importancia como son novenas, devocionarios, etc., bien conocidas del público» aipatzen ditu. *Maria Santissimaren amodio ederraren novena* (1857an Tolosan argitara emana) batetik, eta *San Roque zorioneko izurrite edo pestearen contraco bittarteko altsuaren bederatzurrena* bestetik: 1855eko izurritearen urte berean argitaratua da azken hori, Tolosako Lalama etxearen aurrekoan.

Euskal liburuen onespain-azterzailea izan zen, bestalde, Zaldibiako beneficiadua. Iztuetaren lanak hizkuntza aldetik aztertzen eta, agian, txukuntzen ibili zela badakigu, zeharka bada ere. Horretaz ari dela dirudi, behintzat, Lardizabalek Iztuetari bere (hots, azken honen) zenbait lan argitaratzen lagundu ziola dioenean.

Lardizabal ez zen, beraz, euskal liburuen zale huts, ez eta liburuxka batzuen idazle xume ere. Hortik gorako espezialista zen bera, garaiko zenbait idazlerengan berariazko berme-garantia eskaintzen zuena. Horrela bakarrik uler liteke, aurrerago ikusiko dugunez, 1852-3tik 1855era artean Gipuzkoako Batzar Nagusietatik edota Diputaziotik euskalgintzan jarduteko eskaintza, enkargua edo agindua jaso izana. Aurrerago helduko diogu gai horri, dagokion xehetasunez.

1855ean, Lardizabalek 49 urte bete berriak zituelarik eta euskal lanetan buru-belarri murgilduta corpus-plangintza zabalean ari zelarik, kolera morbo iritsi zen Zaldibiara. 1855eko udan iritsi zen kolera morbo asiatiko hori Gipuzkoara (36) eta 4.395 hildako utzi zituen. Abuztuaren erdi alderako 32 herrian zabaldua zegoen izurria; amaierarako, berriz, 64 herritara iritsi zen. Herri gehienetara zabaldu bazeen ere gaitza, ez zuen herri guztieta neurri bereko kalterik eragin. Zumaien, esate baterako, biztanle guztien %16 hil zen gaitzak jota, Mutrikun %14 eta Altzolan %31. Abuztuaren 11n nabaritu ziren Zaldibian kolera morbo asiatikoaren lehen aztarrenak. Abuztuaren 13tik 22ra gogor zabaldu zen gaitza eta, gutxika-gutxika desagertuz, urriaren 6an erabat aldegin zuen. Arrasto sakon eta mingarria utzi zuen ordea. Ahalegin guztiak eginagatik, 34 lagun hil ziren gaitzak eraginda: zaldibiar guztien %3,35. Hilda-

(36) 1854. urtean Europatik etorri zen gaitza eta berehala –urte hartan bertan, hain zuzen ere– zabaldu zen Espainia osora. www.portaldehistoria.com web orrialdean dioenez, 200.000 pertsona hil ziren Espainian kolera morbo asiatikoaren ondorioz.

koen artean, Frantzisko Inazio beneficiadu eta euskal idazlea. Euskalgintzaren gurpilean bete-betean ari zela hil zen zaldibiar buruargia. Neurri batean, Mogelen antzeko heriotza izan zuela esan liteke. Ez dakigu herriko gaixoak atenditzen ari izanik kutsatu zen Lardizabal, Mogelen kasuan bezala, baina nolanahi ere antzeko heriotza izan zuten biek.

Gazterik hil zen, beraz (37), Frantzisko Inazio. Ez zen bakarra izan, gainera, etxearen. Bere arreba bat ere gaitz horrek berak eraman zuen, garai hartako beste agiri batean ikus daitekeenez (38).

1.2. Lardizabalen harreman-sarea

Herri txikia eta Aralarren hegalean erdi-ezkutatua izanik ere, ez da Zaldibia mundutik aparte egon. Iztuetaren garairako nabarmen da hori, aurrerago aiapatuko dugunez, eta herritik edo eskualdetik haraindiko harreman-giro horren lekuko dugu Lardizabal idazlea ere. Bazuen beneficiaduak, euskal letren munduan eta handik kanpora, aski harreman zuzenik hainbat pertsona gailenekin. Eta bazuen gainera, liburuak lagun, leku urruneko eta aldi joanetako euskal idazle-en ezagupiderik. Labur beharrez, honako lotura hauek aipa litezke gutxienez.

Herrikoetatik hasita, bere aurretik Zaldibiako beneficiadu izandako Frantzisko Inazio Jauregi, *Galbarioko Bidearen* idazlea, aipatu beharko genuke. Motiborik ez da falta, bere lanak ondo ezagutuko zituela eta, agian, Jauregi 1829an hil aurretik aurreko ezaguna izango zuela uste izateko.

Herritik kanpora, berriz, Frai Bartolome Santa Teresa ondo ezagutzen zuen Lardizabalek, Lazkaoko komentutik ikasle izandako garaitik. Berak be-

(37) Donostiako Seminarioko Elizbarrutiko Artxiboan aurkitu dugu Lardizabalen heriotzaren berri ematen duen agiria eta honela dio: «Dia veinte de Agosto de mil ochocientos cincuenta y cinco habiendo recibido los Santos Sacramentos de Penitencia y Uncion murió con Colera á los quarenta y nueve años y un mes de edad en esta villa de Zaldivia D. Francisco Igancio de Lardizabal Presbítero Beneficiado decano de la Iglesia Parroquial de la misma villa, Notario Ecco. Y natural de la citada Villa, hijo legítimo de D. Francisco Xabier de Lardizabal natural de la villa de Orendain y residente en esta villa, y de D^a María Antonia de Urretavizcaya, ya difunta (azken bi hitzak gainaldean datoz idatzita), natural y residente que fue de esta villa. No testó y al mismo día fue conducido su cadáver al Campo Santo, habiéndosele echo las funciones de Iglesia cuando ceso el Colera». Agiri hau Jose Maria de Lardizabalek firmatuta dago, Frantzisko Inazio Lardizabalen anaiak, hain zuzen ere. Bertan zera dio: «Benef.º do y Vic.º int.º»

(38) «Dia ocho de septiembre de mil ochocientos cincuenta y cinco habiendo recibido los Santos Sacramentos murió con Colera á los quarenta años y ocho meses de edad en esta Villa de Zaldivia D^a Josefa María de Lardizabal soltera natural de esta Villa, hija legítima de D. Francisco Xabier de Lardizabal natural de Orendain y residente de esta villa y D^a María Antonia de Urretavizcaya ya difunta (azken bi hitzak gainaldean datoz idatzita) natural y residente que fue de esta Villa. No testó; y el mismo día fue conducido su cadáver al Campo Santo habiéndosela hecho las funciones de Iglesia cuando ceso el Colera. Y firma = sobre puesto = ya difunta D. Jose María de Lardizabal Benef.º do y Vic.º int.º»

zala, baina ondotxozi lehenago, Lazkaon ikasi zuten Fr. Bartolome de Santa Teresak eta Juan Inazio Iztuetak. Azkueren ustez, Fr. Bartolomeren ezagupide horri zor izango litzaioke Lardizabalen euskarak duen Bizkai kutsua. Ez dakit kontu hori hain-hain argia den (39).

Nolanahi ere Juan Inazio Iztueta izan zuen Lardizabalek, itxura guztien arabera, hegoaldeko euskal idazleen artean ezagunena. Dudarik ez dago, bere herritar famatu Juan Inazio Iztueta ondo ezaguna zuela. Ezagun ez ezezik, hainbat aldetatik begiratuta ezagun hurbila eta konfiantzazkoa ere bai. Badakigu Iztuetaren zenbait idazlan (1842ko Gipuzkoako Kondaira?) argitaratzen (zuzenketa-lanean?) berak lagundu zuela (40). Eta badakigu, ororen gainetik, Iztueta hil zenean Lardizabal izan zela bere testamentuaren betearazle edo albaiza gisa ari izandako bi lagunetako bat (41).

Bere harreman-sarea ez zen, bestalde, euskalgintzaren esparru meharrera bakarrik zabaldu. Elizaren alorrean ere izan zuen Zaldibiako beneficiaduak, aitzitik, helduleku argirik: Iruñeko apezpiku Severo Andrianiren konfiantzako gizon ere izan zen Lardizabal (42). Bere geroko erraztasuna, Foru Aldundiko goi-agintarietako harremanetan sartzekoa, baliteke beraz lehenagotik, eliza-agintariak tarteko, osatzen eta sendotzen hasi izana.

1.3. Lardizabalen liburutegia eta bere paper galduak

Badakigu Lardizabalen liburutegiarekin, Iztuetarenarekin ez bezala, ez zela inventario zehatzik egin bera hil ondoren. Bereak izandako liburu (liburu batzuen?) berri eman izan da gero, baina bere idazlan argitaragabeen eta gutun-sortaren berri zehatzik ez dirudi dagoenik. Sutara bota ziren bere hainbat paper, eta paper-erretze horrek bere biografiarako ate nagusietariko bat itxi-ta utzi digu. Labur bilduz, alde horretatik ezin dugu jakin Lardizabalek zer lan idatzi (eta argitara gabe utzi, edo utzi behar izan) zituen. Pentsatu bai, pentsa dezakegu, esate baterako, gero aipatuko ditugun hiztegia eta euskaratik gaztelaniara itzultzeko obra (Iztuetaren eskola-liburuaren parekoa zitekeena) aurre-ratatu samarrik izango zituela hil zenean. Segurtasunik ez dago, ordea, horretaz.

(39) Duda-muda handia eragiten dit lotura-bide aski mekaniko horrek. Batez ere aurrez aurreko harremanei dagokienean, ez da batere garbi halako loturarik izan zuenik. Besterik litzateke, jakina, liburu bidezko ezagutza.

(40) Hala esana du bere berri ondo zekien Jose Garmendiak: bai 1968an, «El Diario Vasco»-n , eta bai 1996an, *Euskera* aldizkarian.

(41) «Nombro por mis testamentarios y alvaceas al mismo Mancisidor y Dn Frº Ignacio de Lardizabal Pro. Beneficiado de la Parroquial de esta villa

(42) «Lardizabal fue amigo del ilustre cantor de los bailes vascos. Iztueta, a quien ayudó en la publicación de sus obras y del no menos distinguido don Severo Adriani, obispo de Pamplona, quien le honró con los cargos de notario eclesiástico y visitador de conventos de religiosas...» (Diario Vasco-ko zita)

2. ZER GIZARTE-GIROTAN SUERTATU ZITZAION LARDIZABALI LIBURU HORI IDAZTEA?

Nola zebiltzan kontuak, Zaldibian eta Gipuzkoan, XIX. mendearen erdialde harten? Nola zebiltzan industrializazioa eta urbanizazioa, bidegintza eta teknologiazko aurrerapena? Nondik nora zebiltzan ekonomia eta politika, hezkuntza eta literatura?

2.1. Industrializazioa

Produkzio industriala asko hazi zen Europan, 1830 eta 1870 artean (43). Aurreko mendean egindako zientzia-aurrerapenak langintza jakinetan aplikatzen hasi zen jendea, Europa mendebaldean (Ingalaterran, Frantzian, Alemanian,...) bereziki. Industria-iraultza famatu horren garaikide dugu Frantzisko Inazio Lardizabal. Zertxobait atzeratuxeago ere, laster iritsi zen gure arera industria-iraultza hori. Tximiniaz betetzen hasi zen Gipuzkoa, 1840tik aurrera. Batez ere Probintziako hiru eskualde hauetan antzeman zen molde berriko industriaren zabalkunde hori: batetik Donostian eta bere inguruan (Erreenterian, Lasarten,), bestetik Bergara aldean eta, azkenik, Oria ibarrean (batez ere Tolosa inguruan). Papergintza batetik, makina bidezko oihal- eta janzki-prestaera bestetik eta burdingintza berritua azkenik: horiek dira, askogatik, industria-bide berriutu horrek Gipuzkoan izan zituen zutabe nagusiak. Kostaldeko kontserbagintza, itxuraz beranduxeago hasi izateaz gainera, ez zen neurriaz eta hedaduraz aurreko horien pareko izatera iritsi.

Lardizabalek izan zuen aukera, hortaz, industria-berrikuntza horretaz (berrikuntza horren hasieraz, hobeki esanik) jabetzeko. Umetan eta gaztetan ezagutu zuen Zaldibia eta Goierri aldatzen hasi zen, bertako jendearen lanbideaari (eta horri maiz erantsi ohi zaion bizimoduari) zegokionez. Berrikuntza handia ekarriko zuen horrek: hamarkada batzuen buruan, errotik aldatuko zituen industrializazio horrek nekazari-giro tradizionaleko hainbat lanbide eta jarduera, ikusmolde eta balore-sinesmen. Errotik aldatuko zituen aurreko mintzajardunaren elementu askotxo ere, hiztun arrunten leku-aldatzea eta bestelako harreman-sareetan txertatu eta sare horien bestelako aldaera-sorta zabalagoen (erdarazko jardunbideetara makurtuagoen) baitan murgil egin beharra ekarri zuen neurrian. Bere begien bistan izan ahal izan zituen hortaz, Lardizabalek, molde berriko langintza horren lehen ondorioak.

Neurri apaleko ondorioak izango ziren, halere, bere bizi-denbora laburrean eta bera bizi zen inguruan, lehen uneko industrializazio-uhin berri horren ondorio ekonomiko eta soziokulturalak. Bertako jende gehienak, bai Goierrin

(43) Hala ageri da John D. Bernal autorearen «Historia Social de la Ciencia» liburuko 419. orrialdean: «En la enorme explosión de actividad productiva que tuvo lugar entre 1830 y 1870 la ciencia desempeñó una función vital pequeña pero creciente».

eta bai, bereziki, Zaldibian, lehengo bizimoduaren arrastotik jarraituko zuen izan ere Lardizabalen garaien. Benefiziaduak bazuen, dudarik gabe, han-hemen indartuz zetorren gizarte molde berriaren berri izateko motiborik: herrik 20 kilometroko jira-bueltan bazuen, alegia, industria-iraultza horren testigantza zuzenik. Baino aldaketa horiek mugatuak izango ziren: «betiko» lan moldea, ohiko baserri-legea eta herri-herrixketako artisautza xehea, izango ziren bere bizi-denboran nagusi.

2.2. Bidegintza eta garraioa

1840ko hamarkadan Gipuzkoan zehar (batez ere Oria ibaiaren inguruan) jartzen hasitako industriak, eta ez industriak bakarrik, bide berriak eskatzen zituen. Beharrezkoak ziren horiek, bertako produkzioari irteera emango bazi-tzaion. Hots, Gipuzkoa osoan errepite-sare egokia behar zuen industriak. Bazen bestelako arrazoiak ere, ordea, bide-berritze horren alde zeudenak (44). Aldaketa handien garaia izan zen Gipuzkoan, motibo bat eta beste zela me-dio, 1845etik 1865erako hamarkada parea (45).

(44) Ikus, bereziki, José Angel Insaustiren *Historia de las Vías de Comunicación en Guipúzcoa*

(45) Hona hemen 40ko hamarralditik aurrera Diputazioaren eskutik ziren errepitee-tako batzuk:

«← Carretera del río Urola, de Zumaya á Errastiola	1843-1844
- Carretera de Santa Agueda	1846
- Carretera de Campanzar	1846
- Carretera de Oñate á Ormaiztegi, por Legazpi	1846-1848
- Carretera de la costa, por Usúrbil, Oriño y Zarauz	1851-1853
- Carretera de Oyarzun á Mendiondo de Rentería	1852-1853
- Carretera de Salvatore á Errastiola	1852-1853
- Carretera de Segura y Cegama hasta Idia-Kaitz	1854-1855
- Carretera del puente de Lazkaibar á Ataun	1855-1856
- Carretera de Elgóibar al confín de Vizcaya	1856-1857
- Carretera de Motrico al confín de Vizcaya	1856-1857
- Carretera de Azcoitia a Villa-Real	1860-1862
- Carretera de Villa-Real á Legazpi	1862-1863
- Carretera de Tolosa á Berrobi	1862-1863
- Carretera de Lasarte á Chiki-erdí	1863-1864
- Carretera de Zarauz á Guetaria	1863-1864
- Carretera de Idia-Kaitz á Arkurutzeta	1863-1864
- Carretera de Zaldibia á Villafranca	1864-1865
- Carretera de Elizaberri á Zumarraga	1865-1866
- Carretera de Irún al paso de la estación	1865-1866
- Carretera de Fuenterrabía á dicho paso	1865-1866
- Carretera de Rekalde á la de Oriamendi	1865-1866
- Carretera de Amezqueta á Alegría, cinco de los seis trozos	1865-1866
- Carretera de Deva á motrico	1865-1866
- Carretera del ramal de Segura á Mutiloa	1865-1866
- ...»	

XVIII. mendeko errege-bidearen ordez karretera jenerala osatzeari ekin zitzaion garaia dugu hori, alde batetik. Gipuzkoa barruko herriak eta herrixkak lehen baino bide sendoagoz lotu zituenekoa, bestetik. Karretera jeneralari dagokionez, herritik herrirako joan-etorria errazteaz gainera erdigunearen eta periferiaren arteko ikuspegi berritua ekarri zuen fase berri horrek: aski gipuzkozentrikoa izatetik estatuzentrikoa izatera pasatu zen karretera jeneralaren ikuspegia. Probintzia barruko bide-bidexkak hobetzen, bestalde saio handia egin zen. Orduan zabaldua da, adibidez, Zaldibiati Ordiziatarako bide berria (oraingoa). Lardizabalek ez zuen, damurik, herritik tren-geltokira zeraman bide berri hori ikusterik izan. Bera hil eta handik zortzi-bederatzi urtera gertatukoa da bide-berritze hori ere.

Geltokia aipatu dugunez, gatozen trenbide kontura. Orduantxe ari zen Europa, jakina denez, tren-karrilez osatzen eta betetzen. Gurdien eta diliuentzien joan-etorrirako bide-berritze eta bide-zabaltze horiek garrantzitsuak izanik ere, are importanteagoa gertatu zen noski Gipuzkoan barrena, lehenengo aldiz, trenbidea eratzea. Orduko dugu Norteko karrila, Madril eta Paris lotuko zituena. Bere eragina bereziki sendoa gertatu zen Goierrin, alderik alde pasatzen baitzen bertatik trenbide hori. Berrikuntza hori ere ez zuen Lardizabalek bere bizi-denboran ikusterik izan. 1863tik 64ra artean estreinatu zen trenbidea, Gipuzkoa barruko zein Espainiako garraio-bidea erabat birmoldatzu.

Bide-berritzearen lehen emaitzak ikusteko egoeran izan zen beraz, baina berrikuntza horien hasieraz baizik ez zuen jabetzerik izan. Bidegintza amaituaz, eta bere ondorio demografiko, sozioekonomiko eta soziokulturalez (eta horien tartean soziolinguistikoez) jabetzeko aukera handirik ez zuen izan. Handik mende erdira Domingo Agirrek bere *Garoan* azalduko zituen kezka-beldur eta gaitzespenezko juzguak nekez Lardizabalek izan zitzakeen, nolanahi ere.

2.3. Urbanizazioa

Bistan da industrializazioak eta bide berriak zabaltzeak eragin bizia izan zuela herritarren bizileku eta bizimoldean. Bizilekuari dagokionez, baserritik kalera (eta, hainbatetan, herrixketatik herri edo industrialde zabalagoetara) egin zuen jendeak. Hots, urbanizazioa indartu zen nonahi eta, neurri berean, hainbat herrixkatan nagusi izandako baserriko bizia nabarmen ahuldu. Ameriketarako emigrazioak berekin zeraman demografia-galeraz aparte, eskualde mailako nukleazioa eragin zuen industrializazioak eta bide berrien (batez ere trenbidearen) zabalkundeak. Xenpelar bat, urrutirago gabe, baserritik kalerako gizarte-aldakuntza horren lekuko xuxena dugu.

Lardizabalen garaian indartu egin zen, dudarik gabe, urbanizazioaren fenomeno hori. XIX. mendearen lehen erdialde horretan ez dirudi ordea, oro har, fenomeno horrek berebiziko neurririk hartu zuenik Gipuzkoan. Ez behintzat,

inola ere, 1860ko hamarkadatik eta, batez ere, bigarren karlistadaren amaieratik aurrera, hartuko zuen abiadaren parekorik. Gogoan izatekoa da, alde horretatik, Donostiako harresiak ez zirela 1863ra arte eraitsi. Lardizabal ez dugu hortaz, beste hitzetan esanik, urbanizazio berri eta bizkor horren testigu zuzen izan. XIX. mendeko industrializazioa eta bide-berritzea (fenomeno bien hasiera) aurrez aurre ezagutu ahal izan zituen, baina urbanizazioaren uhina iritsi aurretik hil zen.

2.4. Ekonomia eta politika

Urte gogorrak izan ziren, ekonomiaren aldetik, Lardizabalen gazte-garai-koak. Kalamidadea kalamidadearen gain metatu ziren urteak, askoren esanean. Bertako industria zaharra, ehunka urtean Probintziari dirubide sendorik ekarri izan ziona, maldan behera zihoan: burdinolak ixten ari ziren, bata bestaren ondoan, hortik ez baitzegoen bizitzerik. Motiboak bat baino gehiago ziren Gipuzkoako burdingintza egoera horretara eraman zutenak: atzerrian egindako berrikuntza teknologikoak kalitate hobeko eta prezio egokiagoko produkzio industriala ekarri zuen, eta hemen ez zen berrikuntza horri parez pare erantzuten jakin. Une batetik aurrera, bestetik eta horrezaz gainera, ohiko bezero gehienak galdu (edo galbidean jarri) ziren: batetik Hego eta Errialdeko Amerikakoak, Monarkiaren barruan egondako kolonia horiek independentzia-bidea hartu ahala. Eta bestetik, Donostiako merkatarien hitzetan oso nabarmen, aduanak Ebron egoteak (eta penintsulan saltzeakoak ziren burdin gauzei Madrilek arantzela jartzeak) are larriagoko krisialdira eraman zuen bertako industria tradizionala. 1840tik aurrera hasiko zen industria molde berria suspertzen, gorago esan denez.

Horri guztiari gerra-giroko eta gerra biziko urtealdi ugariak erantsi behar zaizkio: Frantsesteak ondorio latzak utzi zituen Gipuzkoan: herri-lur asko saldu egin behar izan zuten herrietako udalek, gerrak ekarritako zorrei aurre egiteko, eta herri-lur horiek gabe estuasun larrian gertatu zen baserriko bizibidea: gaztaina eta ezkur, su-egur eta ikatz, garo eta txilar, hori zuen baserritar-jendeak bere bizibidearen oinarrietako bat. Napoleonen kontrako gerrak eta, zer esanik ez, karlistada luzeak, areagotu baizik ez zuen egin estuasun hori.

Politikazko kontuei dakokienean, orobat, aldaketa handiko urteak izan ziren Lardizabalen bizi-denborakoak. Ohiko aginpide-sistemak mendeetako modus vivendi bat ezarria zuen: lekuak lekuo herrien, Probintziaren eta Monarkiaren artean eskubide- eta eginbehar-markoa, *Antiguo Régimen* delakoa. Aginpide-sistema hori ondotxozi lehenagotik pitzatzen hasia zegoen. Hiru Proibitzieiz dagokienez nabarmena zen, bereziki, 1766 ingurutik honako bilakaera, erreinuko aginte zentralak gero eta eskumen gehiago bereganatu eta hemengo herrialdeak gero eta marko hispanikoan txertatuagotzera zeramana. XIX. mendearren lehen erdi hori, Lardizabalen bizi-denbora alegia, joera ho-

rren aplikazio-saio nabarmenekoa izan zen. Lehengo aginpide absolutuak monarkia konstituzionalari eman zion bide, eta bertako Foru-sistemak atzerakada nabarmena izan zuen zenbait alorretan: batez ere pase foralaren galeran, bateik, eta aduana-mugak (bertako merkatari gehienen gogora, antza) Ebrotik kostatarra ekartzeaz bat galduztako konpartimentazio-ahalmen operatiboan bestetik.

Egia da ordea, guziarekin ere, 1839ko *Bergarako Besarkada* eta handik gutxira erreinuko Aginteak jakinarazitako arau-xedapenak erdibidean utzi zutela «Arreglo foral» delakoa. Batzuentzat lehengo aldean «gutxi edo oso gutxi» zena, «halere gehiegi» zen beste hainbatentzat. Tentsio handiko fasea izan zen, hori dela-eta, 1839tik 1868ra artekoa. Karlistaden gerla kontuetan gehiegi zentraturik bizi garelarik errazegi ahazten dugun bestelako tentsio-giroa: bake-giroko tentsioa, nolabait esan. Baziren noski, eta ez gutxi, tirabira hori termino politiko-operatiboetan planteatzen zutenak: konpentinaientzien eta eskuduntzen alorrean neurritzen zitzutzen horiek, batez ere, unean uneko atzera-aurrerak. Baziren bestalde, Iztueta zaldibiarrok esaldi argiz esana digunez, tirabiraren muina esfera politiko-operatibotik hainbatean, nahiz ez huts-hutsik, esfera soziokulturalera eramatzen zutenak. Horiek izango ziren hain zuzen, luzarora, euskalgintzaren joan den mendeko euskalgintzaren iturburu hurbilenekoak. Euskal herriaren jatortasun etnokulturala eta modernizazioa bertako arauz eta bertako autorregulazioz bideratu nahi zuten protoelite (inoiz gutxitan elite) horiek, batetik. Aitzitik, xede nagusia estatu monoetniko uniformea sortzea zuen beste hainbatek, etxearen zein (batez ere) kanpoan. Tirabira horrek era askotako argudioak plazarazi zituen, eta aplikazio-eremu berriak eskuratu. Besteak beste argitalpenetan, eskolagintzan, lan-postu publikoen hizkuntza-eskakizunetan eta, oro har, aldez edo moldez ondorio soziokultural nabariak izan zitzakeen beste hainbat alorretan.

Berak jakin edo ez (eta badago motiborik bera ere tirabira horien jakitun izango zela uste izateko), polarizazio politiko eta soziokultural horren altzoan jardun zuen Lardizabalek, Diputazioaren enkarguz eta ordainez bere euskal liburuak (Testamentua, gramatika, eta bidean zituen beste bi eskola-liburuak) prestatzerakoan.

2.5. Hezkuntza eta literatura

Aurreko puntuarekin loturik zetorren, oso loturik ere, hezkuntzaren aloreko bilakaera. Ez da txosten hau Gipuzkoako eskolaketaren ibilbide historikoaren azalpen xehetua egiteko lekua, baina mereziko du halere bilakaera horri buruzko ohar xoil batzuk egitea. Jakina denez, Lehen mailako eskolaketak eboluzio nabarmena izan zuen, gure artean ere, ehun urte horietan. Hots, 1750 ingurutik 1850 ingurura. Horrela,

- Hasieran udal esparruan aski zentratua zegoen konpetentzia Probitziaren eta Madrilen esku egotera pasa zen neurri ohargarrian.

- b) Elizaren eskola-munduko erabakimen-esparrua, desagertzera iritsi gabe ere, murriztu egin zen orobat.
- c) Mutilen kontua izatetik mutilen eta nesken kontua izatera pasa zen, halako neurri batean, lehen mailako eskolaketa.
- d) Irakurketa-idazketaren bestelakotze eta zabalkunde handia gertatu zen, orobat. Letraz letrako irakurtze-bidea gailendu zitzaiion ordura arte memorizazio-bidean oinarritutako formula tradizionalari. Aurrerapen nabarmenik gertatu arren esparru horretan, erabateko alfabetatze-tasetatik oso urrutti gelditu zen, halere, orduko saioa.
- e) Euskarak, ikasleen dotrina-kontuan lehen bezalatsu eginkizun garrantzitsua izaten jarraitzeaz gainera, proskripcio-moldetik elebitasun-modu baterako lehen pausoak eman zituen. Xede anitzekoa izanik ere ele biko irakasbide hori zenbaiten buruan (batez ere Pascual Iturriagaren eta bere bidetik zebiltzanen artean), *transitional bilingualism*-en paradigmara makurtu zen, eskueran ditugun datu mugatuen arabera, hainbat eta hainbat kasutan.

Marko global horretan, aparteko garrantzia eskuratu zuen une batetik aurre-ra euskarazko testu-liburuuen eta euskal irakasleak sortzeko irakasle-eskolen kontuak. Azkenari gagozkionez, 1845etik 48ra eratu zen lehenengo irakasle-eskola, Tolosan (46), eta 1853tik aurrera saio bereziak egin ziren irakasle-eskola handi bat sortzeko. Irakasle-eskola horren xedea, Batzar Nagusien dokumentazioak argi samar dioenez, irakasle *euskaldunak* sortzea zen: «la (Escuela) normal que conviene establecer en esta Provincia es la superior, si ha de atenderse á todas las necesidades y lograrse el fin que se desea, que es el de que haya en todos los pueblos de la hermandad guipuzcoana maestros vascongados, cuya enseñanza sea uniforme». Ikasmaterial bereziak beharko ziren gainera, jakina, ikasketa horiek ondo antolatu eta gutxienezko uniformetasun bat lortu ahal izateko:

Gizarte-giro horretan txertatu behar da, oro har, Lardizabalen euskalgin-tza-lana. Eta hezkuntza-esparruko politika instituzional horren alzoan esplika liteke ongrienik, nire ustez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Lardizabali emandako enkargua, hiru (Testamentuarekin lau?) liburu prestatzekoak.

3. ZERGATIK, ZERTARAKO ETA NORENTZAT IDATZI ZUEN LARDIZABALEK GRAMATIKA-LIBURUA?

Gramatikak ez dira eleberriak, olerkiak edo eliza-liburuak. Kazetari-lanak edo dokumentu administratiboak ere ez, normalean. Xede jakin eta berezia

(46) Hiru urteko bizialdi labur horren ondoan Tolosako irakasle-eskola zergatik itxi zen ez du inork, dakinalarik, oraindik argitu. Badirudi, nolanahi ere, irakasle-eskola *txikia* zela Tolosako hori, ez gero eratu nahi izan zen *handia*.

izan ohi dute gramatiket. Xede hori zein den zehazteko, esan dezagun zer ez den: gramatikaren asmo nagusia ez da literatura sortzea, fedea zaintzea, informazioa zabaltzea edota dokumentazio ofiziala tramitatzea. Xede garrantzi-suak dira horiek guztiak, dudarik gabe, hizkuntza idatziaren eremuan. Ez dira horiek, ordea, gramatiken helburu nagusi. Hizkuntzaren erabilera zuzena zein den, edota egilearen ustez zein izan behar lukeein, esan nahi izaten dute gramatika-liburuek. Hori da beren asmo nagusia, aurrez aurrekoa. Ez dute literaturaren berezko edertasun-asmorik, ez eta prosa arruntaren funtzionaltasun-beharrik. Gramatikak ez dira hizkuntzaz baliatzen beste zerbaite lortzeko: hizkuntza bera da, azal eta mami, gramatika-liburuuen xede eta asmo nagusi. Aurrez aurreko xedea hori izanik ere, ezkutuagoko edo sakonagoko bigarren xede bat ere izan ohi du hainbat gramatikak: hizkuntza horren erabilera sendotzea, aberastea edota, gutxien-gutxienez, bizirik irauten laguntzea. Ez dira sakonagoko horiek gramatika askoren sarrerakoan, ez gehienetan behintzat, hitzez hitz aitortzen. Egon hor egon ohi dira ordea sarri, eta erne dabilen irakurleak ez du hain zaila izaten horretaz jabetzea ere.

Hizkuntzak finkapen-beharra duenean, edo behar hori duela uste denean, prestatzen eta argitaratzen dira gramatika-liburuak. Behar hori, berriz, era askotakoa izan liteke. Inoiz gramatika-azalpenik izan ez duen hizkuntza baten barne-egitura aztertu eta jakitera ematea: hori izan ohi da, hainbatetan, gramatiken iturburuan dagoen motibo nagusia. Lehendik gramatikazko azalpenik baden kasuetan, gramatika hori desegokia dela uste izatea izan liteke beste motiboa. Desegokitasunaren kausa, halakoetan, askotarikoa izan liteke: hizkuntza asko aldatu izana eta, egungo egoeran, lehen emandako arauak zaharkiturik egotea, lehengo azalpenaren oinarrian zeuden formulazio teorikoak traketsak direla uste izatea (edota nabarmen hobetu litzkeela uste izatea), lehengo gramatika hori eskuratzeko zaila dela (ale gutxi gelditzten direlako, garestiak direlako,...), lehengo gramatika horrek ofizialtasun-bermerik ez izatea eta hori beharrezkoa dela uste izatea, egungo irakurleen tipología nagusiarekin aurreko gramatika hori ondo ez uztartzea (teorikoegia eta ilunegia delako, xinpleegia delako, beste hizkuntza batean idatzia dagoelako,...). Gogoeta horiek guztiak, eta beste hainbat, zilegi dira noski Lardizabalen gramatika zergatik prestatu eta argitara eman zen argitzeko orduan. Formulazio generikoak dira horiek, han-hemen berdintsu balio izan dezaketenak. Nola-halako gogoeta-bideaz gainera, ba ote dago gure kasu partikular honetara hurbilago loturikako konsideraziorik? Baietz uste dugu, eta horretan saiatuko gara hurrengo pasarteetan.

3.1. Zergatik idatzi zen gramatika hori?

Bi motibo nagusi ageri dira orduko paperetan: Aginte bidezko erabakia batetik, eta bere kabuzko deliberamendua bestetik. Ikus ditzagun biak:

- a) Gipuzkoako agintarieki egindako enkargua. 1853ko Batzar Nagusien aktetan, hitzez hitz, «obras que por encargo de la Provincia estaba trabajando el Señor D. Francisco Ignacio de Lardizabal» aipatzen dira. Lehen lana bukatutakoan, eskerrak ematen dizkio Aldundiak Lardizabali «por el celo y actividad con que ha procurado y procura evacuar el encargo que le dió la Provincia de escribir una gramática de la lengua bascongada, un diccionario doble y, una obra que sirva de testo para la traducción».
- b) Bere deliberamendua. Lardizabalen beraren hitzak dira ondoko hauek: «impulsado únicamente del deseo de mejorar la escasez que se nota de libros de esta clase»

Kronologikoki, eta beste hainbat zehar-aipamenen ildotik, badirudi Gipuzkoako Probintziaren enkargua etorri zela lehenik, eta bere deliberamendua gero. «La Provincia de Guipúzcoa que sabe el afanoso empeño con que por complacerla se ha dedicado V. á este importante trabajo».

Litekeena da, ordea, gauzak beste era batera gertatu izana: Lardizabal bere kabuz, eta lehendik, honelako ikasmaterialak prestatzen ibili izana eta Batzar Nagusiek, lan hori erdi-eginik edo aurreratu samarrik zegoela jakinik, beren asmoekin bat zetorrela uste izanik enkargua zaldibiar idazleari eman iza-na. Ez litzateke, harritzeko: antzeko konturik gertatu baitzen lehendik ere Iturriagaren lanekin eta, oso bereziki, Zabalaren aditz-liburuarekin, Diputazioak 1848an bere kontura argitara emandakoarekin.

Besterik frogatzen ez den artean, halere, lehenengo hipotesia da sendoeña: herri-aginteen iniziatibaz heldu zion Lardizabalek material horren (eta beste zenbaiten) prestakuntzari. Alde horretatik baluke Arrasateko Batzar Nagusien 1853ko erabaki horrek, hainbat motiborengatik, bide-urratzailerik: aurreko urtean, Tolosako Batzarraldian, Larramendiren hiztegia berrargitaratzea (zegoen-zegoenean edota egunératurik argitaratzea) komeni ote zen eztabaидu zenekoa, hain zuzen. Kontura gaitezen, nolanahi ere, urte batean zein bestean *language corpus planning* eta *language acquisition planning* egiten ari direla, bete-betean ari ere, Gipuzkoako Batzar Nagusiak (47).

(47) 1852ko Tolosako Batzar Nagusietan zera erabaki zuten: «Ultimamente se leyó otro oficio que con fecha 4 del corriente dirijía á la Junta D. Pio de Zuazua, elogiando la importancia del Diccionario trilingüe de Larramendi y ofreciendo hacer su reimpresión, siempre que la Provincia le prestase la cooperación que necesitaba para realizar este proyecto; y penetrada la Junta de la necesidad de reproducir una obra que desgraciadamente va desapareciendo del país por falta de ejemplares de la antigua impresión, accordó recomendar este asunto á la Diputacion, para que oyendo al referido Zuazua y examinando su proyecto, viese de darle la protección que pedía, siempre que conociese que por este medio se podía lograr la reimpresión de dicha obra con la perfección posible, cuidando en este caso de mejorarla en cuanto permitan los adelantos del día y los conocimientos que puedan adquirirse de la lengua vascongada. Al propio tiempo dispuso la Junta, que la Diputacion quedase encargada de recomendar á los Ayuntamientos de los

3.2. Zertarako?

Hemen ere bi helburu ageri dira: instituzionala batetik (Gipuzkoako Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren borondatea), eta partikularra bestetik (Lardizabalen beraren gogo-nahia). Ikus ditzagun biak, hurrenez hurren:

- a) Gipuzkoako Herri Aginteen xedea: Euskara eskola bidez zabaltzea. Lardizabalek Batzar nagusiei idatzitakora bagoaz, aitorpen espresua honako hau da: «los deseos que le animan (Probintziaren Aginteari) de difundir su muy apreciable idioma». Diputatu Nagusiak berak honela dio 1853ko irailean, Lardizabali egindako erantzun-idazkian: «siendo su obgeto, imprimir y publicar esta obra, para que por ella pueda un dia llegar á ser conocida de los hombres una lengua tan antigua y tan poco parecida á las demás del mundo»
- b) Lardizabalen xedea: eskolak testu-libururik gabe (edo testu-liburu gutxirekin) ez edukitzea. Erantzun hori ere, aurrekoa bezala, Lardizabalek berak emana dauka: «en un principio me dedique á la formacion de las tres obras sobredichas, y para los que tengo ya compilados en parte materiales, impulsado únicamente del deseo de mejorar la escasez que se nota de libros de esta clase».

Lardizabali ondo entenditzen bazaio, ordura arteko ikasliburuak (batez ere, Iturriagarenak eta Astigarragarenak) gutxi ziren eta ez ziren nahi bezain erraz eskuratzentz. Gogoan izan bedi Iturriaga eta Astigarraga hilik zirela ordu rako: deseo de mejorar la escasez que se nota de libros de esta clase (48).

Donostiako Batzar Nagusietara bidalitako 3. puntuak («Puntos remitidos») honela dio: «El establecimiento de una escuela normal en la misma». Ez dugu ahaztu behar laugarren puntuak Lardizabalen «Gramatica Vascongada» lanaz hitz egiten duela. 3. puntuari buruz aurrerago zera erabakitzentz dute: «que pase á una comision de instrucción pública». Uztailaren 6ko batzarreko agiriak hauxe dio: «La Comision de instrucción pública encargada de dar su dictámen sobre el punto 3º de los remitidos, presentó el siguiente descargo. (hurrengo lerroan eta bestelako letra batekin) «M.N. y M.L. Provincia de Gui-

pueblos de esta Provincia, cuando llegase el caso, la adquisicion del referido Diccionario, para que pudiera constar en sus archivos esta apreciable recopilacion de voces vascongadas. Con este motivo el Sr. Corregidor político hizo presente á la Junta que para facilitar á los Ayuntamientos la adquisicion de esta obra, contribuiría por su parte con cuanto estuviese á su alcance, admitiendo en los presupuestos municipales las cantidades que se consignasen al efecto, porque se hallaba persuadido de que interesaba á este pais el que se generalizase en lo posible el conocimiento de su lengua»

(48) Astigarragaren kasuan, halere, kontua ez dago hain argi: badakigu bere semea saiatu zela, hain aspaldi ez dela, aitaren lanak berrargitaratzen. Eta badakigu, batez ere, liburu horrek aski salmenta ona zuela Probintziako eskoletan. Uste izateko da Eguren ikuskariek bere testu-liburua 1867an argitara eman arte berori izango zela gehien erabilitako testu-liburua.

púzcoa. —La Comision de instrucción pública, encargada de dar su dictámen sobre el punto 3º de los remitidos, concerniente al establecimiento de una escuela normal en esta Provincia, ha examinado con la detencion y madurez que exigen la gravedad é importancia del asunto, el expediente instruido en su razon; y despues de haber tratado y discutido la materia en todas sus partes, tiene la honra de ofrecer á la resolucion de la Junta el resultado de sus trabajos»

3.3. Norentzat prestatu zen gramatika-liburua?

Besterik agertzen ez den artean, *Gramática Vascongadaren* irakurle potentzialak ondoko sei multzoootan bilatu behar dira:

- Haur eta Lehen hezkuntzako eskola-umeak (eta beren irakasleak);
- Probintziaren Bigarren hezkuntzako Goi-institutuko ikasleak (eta beren irakasleak).
- unibertsitate-mailako ikasleak eta beraien irakasleak;
- Apaizgaiak eta beraien irakasleak;
- Irakaslegaiak eta beraien irakasleak;
- Han-hemen euskara ikasi nahi zuten euskalariak eta interesatuak.

Ez da gauza segurua, herri-aginteeik ikasmaterialaren xede-multzoa aldez aurretik hain zehatz-mehatz definitua izatea: ez idatziz, Batzar Nagusien aktiadazkietan, eta ez hitzez ere, batzarraldietan bertan (49). Oso arraroa litzateke, ordea, dirua zertan gastatu nahi zen erabakitzeko orduan liburu horren era-biltzaile nagusiez inolako kezkarik ez izana. Kezka hori bazutelauste duguk, eta kezka horren identifikazio zehatza da orain eginkizun daukaguna. Goiko sei multzo horien azalpen xehetua azalpen-lan sendorako utziaz, honako lau puntuok aipatuko dira hemen:

- a) Eskolarako liburua. Bistan da, hasteko, irakurtzen eta idazten ikasi behar zuten neska-mutikoentzat pentsatutako liburua ez zela, inondik inora, Lardizabalen gramatika. Ez edukiaren maila aldetik, ez metodo didaktikoarenetik eta ez hizkuntzarenetik zegoen liburua bezeria horrentzat pentsatua. Norentzat, hortaz? Probintziako eskoletara banatzea erabakita zegoenez liburua, bertako irakasleentzat pentsatua zegokeela pentsa liteke, batetik.
- b) Gorago esan denez Irakasle-eskola normala sortu asmotan ari ziren Batzar Nagusiak, eta irakasle-eskola horren bidez irakasle euskaldunak, beren jakitatean eta irakasbideetan neurri bateko uniformetasunik

(49) Kontu hori zehazten duen dokumentu bakarrik ez dugu, behintzat, ikusi.

zuketen irakasleak, sortu nahi ziren, Lardizabali enkargatu zitzaitzkon beste lanak bezala, gramatika hori ere Irakasle-eskola horretarako pentsatua zegokeela uste izatea ez zait gehiegizko lizentzia iruditzen.

- c) «Hiru Probintziatarako» apaizgaitegia ere sortu nahi izan zen 1852tik aurrera, 1851ko Konkordatuak «euskar» elizbarrutiaz begiz jotakoaren ildotik. Badago zehar-motiborik, euskal apaizgai horiek ere bai gramatika eta bai testamentu-liburua idazterakoan kontuan izan zirela uste izateko.
- d) Bertan eta atzerrian euskararekin interesaturik zeuden euskalari jakin-tsuentzat pentsatua zegoeken, azkenik, *Gramática Vasca* hori. Eskueran dugun dokumentaziotik badago motiborik, bezeria hori ere kontuan izango zela uste izateko.

3.4. Nola prestatu eta argitaratu zen Lardizabalen *Gramática Vascongada*?

Lau puntu hartu litezke hemen kontuan. Batetik enkargua eta testuaren idazkuntza, bestetik onespen-azterketa, hurrena argitalpena eta, azkenik, langintza osoaren ordainketa. Ikus ditzagun lau puntuok, halako xehetasun batez.

a) Enkargua eta testuaren idazkuntza

Fase operativoari dagokionez Gipuzkoako agintaritzaren enkarguz egin zen, esan bezala, Lardizabalen *Gramática Vascongada*. Enkargua noiz eman zitzaion ez dago argi. Orain arte ikusitakotik, 1852 inguruaren gertatuko zela pentsa liteke. Ikusi dugu bete-betean lanean ari zela 1853an, hiruzpalau liburuekin itxuraz, eta Gramatika 1853ko irailerako bukatua zeukala (50). Handik bi eguna erantzin zion Aldundiak Lardizabali, eskerrak emanaz eta, argitaratu aurreik, bere lan horren onespen-azterketa eginaraztera zihoala iragarriz (51).

(50) Lardizabalek honela dio Diputazioari eginikako gutunean: «*M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*» «Deseando llenar los deseos que V.S. en sus últimas Juntas Generales manifestó de que continuará en la confección de la Gramática Bascongada, Diccionario doble y una obra de texto para la traducción, cuya operación se había dignado confiar á mis cortas luces, he proseguido en la de la Gramática, sin dejarla de la mano; y tengo el honor de presentarla á V.S. terminada ya: y me cobra el mayor placer, en que merezca su aprobación.) Dios que N.S. muchos años. Zaldivia 17 de Septiembre de 1853. (punto eta aparte) Fran.co Ignacio de Lardizabal».

(51) «Diputacion general de 19 de Setiembre de 1853». Azpian, berriz, zera jartzen du: «Zaldivia: Sr Dn Francisco Ignacio Lardizabal». «Con sumo placer he recibido su atento oficio de 17 del corriente y la gramática que me remite de la lengua bascongada La Provincia de Guipúzcoa que sabe el afanoso empeño con que por complacerla se ha dedicado V. á este importante trabajo, crée que estará concluido con aquella perfección que reclama su naturaleza; pues siendo su obgetto, imprimir y publicar esta obra, para que por ella pueda un dia llegar á ser conocida de los hombres una lengua tan antigua y tan poco parecida á las demás del mundo, debe V. no

b) *Onespen-azterketa*

Ba al dago testigantzarik, Lardizabalen Euskal Gramatikak halako onespen-azterketarik izan zuela esatera eraman gaitzakeenik? Bai, badago. Onespen-azterketa, eta are azterketa zorrotza, ezarri zion Gipuzkoako Agintaritzak Lardizabalen liburuari, argitaratze-bidean jarri aurretik (52). Ez aztertzaile bat eta ez bi, hiru aztertzaile baizik hartu zituen Foru Aldundiak lan hori egiteko. Beren izenak ere badakizkigu orain: Aldundiko akten hitzetan esateko Sres Dn. Juan Ignacio de Larrendoburo, vicario de Monjas de Motrico, Dn. Manuel de Zabal-Inchaurreta – de – a Azcoitia, eta Dn. Sebastian Alejo de Azpeitia, vicario de la parroquial de Cestona. Laster argitaratzeko dugun artikulu zabalean ematen dugu horren guztiaren berri (53). *Gramatica Vascongada*-rekin batera, Manuel Larramendiren euskal gramatika ere bidali zien Aldundiak hiru adituei. Hala, Lardizabalen lana Larramendirenarekin alderatu ahal izango zuten eta, bereziki, zaldibiarrok bere gramatika berri horretan hobekuntzarik egin zuen edo ikusi.

extrañar que antes de dar este paso, quiera cerciorarse de su merito consultando al efecto el coto de hombres competentes en la materia y conocedores de la lengua bascongada. (punto eta aparte) Tan pronto como estos examinen la obra y den su censura, tendré cuidado de comunicarsela á V. para su gobierno, debiendo yo entre tanto tributar á V. las gracias mas expresivas por el celo y actividad con que ha procurado y procura evacuar el encargo que le dió la Provincia de escribir una gramática de la lengua bascongada, un diccionario doble y, una obra que sirva de testo para la traducion».

(52) *Language Acquisition Planning*-en atal bat, hemen eta nonahi, L2 ikasteko eta L2 irakasteko metodointza izan ohi da. Metodogintza horren atal bat, berriz, onespen-azterketa. Ohiturik gaude, erdal ikasmaterialen aldetik, liburu horren edukiz-azterketaz, onespenaz edo autorizazioaz hitz egitera:hots, liburu hori eskolan erabiltzeko eduki aldetik egokia dela dioen erabaki ofizialaz jardutera. Ez gaude hair ohituak, aldiz, ikasmaterialen hizkuntzazko onespen onespenaz, edota onespen-azterketaz, jardutera. Badakigu jakin biak egin ohi direla, egungo egunean, euskarazko ikasmaterialen kasuan, ez dakigu, aldiz, mende joanetan hizkuntzaz onespen-azterketarik egin izan den, eta noiz-nola. Kontua da liburuek oro har, eta ikasliburuek bereziki, onespen-azterkta jasan izan behar dutela maiz, oso maiz, eta herri-aginteen eraginez eta diru-babesez argitara emandakoak ez direla aparteko salbuespen.

(53) Agiriak honela dio: «Este oficio se pasó aunque en distintas fechas á los SresDn. Juan Ignacio de Larrendoburo vicario de Monjas de Motrico Dn. Manuel de Zabal-Inchaurreta – de – a Azcoitia Dn. Sebastian Alejo de Azpeitia, vicario de la parroquial de Cestona». Testuak honela dio: «Hace tiempo que por encargo de esta Provincia se halla ocupado en escribir algunas obras sobre la lengua bascongada D.n Francisco Ignacio de Lardizabal, Beneficiado de la iglesia parroquial de Zaldivia. Una de las que ha terminado primero, es la gramática de la lengua bascongada, y deseando yo asegurarme por el voto de hombres competentes en la materia, si otra obra es digna de ser impresa y publicada, he creido deber remitírsela á V. para que previo su exámen me diga su censura con aquella imparcialidad que le distingue y que espero de su buen celo. Se remitírsela pues á V. en un cuaderno manuscrito que tiene ciento cuarenta y nueve páginas con tres hojas mas de índice y notas, le remito tambien un ejemplar de la gramática bascongada escrita por el P. Dn. Manuel Larramendi para que pueda cotejarlas y ver las mejoras que sobre ella ha podido introducir el referido Lardizabal en su nueva gramática. Las noticias que tengo de su afición decidida á esta clase de estudios y de los conocimientos especiales que posee sobre ellos, me corresponde al mérito de ella y al deseo que tiene la Provincia de que una obra escrita bajo sus auspicios, salga con aquella perfección y lucimiento que reclama su índole y naturaleza.

Hirurek goraipatu zuten Lardizabalen lana. Euren ustez, aspektu batzueta Larramendiren lana hobetu egiten zuen, eta irakaslanerako balioko zuela zeritzaten. Onespen-azterketa gainditua zuen, honenbestez, Lardizabalen gramatika-liburuak. Argitaratu eta eskoletarra-bidean jar zitekeen. Irakasle-eskolarako ere material egokia izango zen hori, Batzar Nagusien eta Diputazioaren ustean, irakasle-eskola hori martxan jarritakoan. Horretan ari ziren buru-belarri.

c) *Argitalpena*

Lardizabalen *Gramática Vascongada* Donostian, Ignacio Ramon Baroja-ren etxean, eman zuen Foru Aldundiak argitara. Mereziko luke zergatik etxe hori, eta ez besterik (Tolosako Gorosabel adibidez), aukeratu zen argitzea. Oraingoz ez dago argitasunik, ordea, puntu horretaz.

d) *Lanaren ordainketa*

Enkarguzko lana zenez, gastu guztien ordainketa Batzar Nagusien edo Foru Aldundiaren kontu joan zen: bai egileari sorkuntza-lana ordaintza, eta bai liburugileari inprimatze-gastuak kitatzea. Lardizabal ordurako hilda zenez, bere oinordekoei egin zitzaien egile-eskubideen ordainketa. Era berean, Donostiako Baroja etxeari inprimatze-gastu guztiaj ordaindu zitzaitzion. 1857an, Deban izandako Batzarretan, hartu ziren erabaki horiek (54):

Gauza garrantzitsua ikusten da hor, Blanka Urgellez aparte oraindaino-koan, dakigularik, inork erreparatu ez zuena. Lardizabalen Gramatika ez ezik bere *Testamentu zar eta berrico condaira* ere Agintaritzaren kontu joan zen, osorik.

Hori guztia, dudarik gabe, Herri Aginteen garai hartako *status planning* zabalagoaren barruan ulertu behar da. Are gehiago garai harten lanak inprimatu eta publikatzeko zein diru gutxi ematen zen ikusita. Artikulu zabalean helduko zaio puntu horri ere.

(54) «Id á los herederos del finado D. Francisco Ignacio de Lardizabal Presbítero Beneficiado que fué de la Iglesia parroquial de Zaldibia, como una muestra de reconocimiento al mérito que contrajo, dando á luz la Gramática vascongada y Compendio de la Historia Sagrada en vascuence.....4.000» «Id a don Ignacio Ramón de Baroja por la impresión de dicha gramática bascongada. 5.000 reales vellón» / «Id a don Andrés Gorosabel, impresor de esta Diputación por los periódicos de dos auxiliares empleados durante cien días en la impresión de dicha Historia Sagrada, escrita en vascuence por don Francisco Ignacio Lardizabal, con inclusión Rs. Vn. 1000 por vía de gratificación al mismo impresor 3.000 reales vellón» Inprimaketarekin lotutako gastu gehiagoren berri ere ematen du

Funtsezkoa da hori argitzea, gramatika horren lekua eta xedea garaiko hizkuntza-politikaren markoaan kokatzen asmatu nahi bada. Oraingo, eta lan-txo honi amaiera emateko, langintza hori marko soziolinguistiko zabalean txer-tatzen saiatuko gara. Gerokoak gero.

4. EUSKARA-ERDAREN EGOERA ETA BILAKAERA, GIPUZKOAKO GIZARTE-BIZITZAN

Diglosia bai, diglosia ez, diglosiaren purgatoriaoa eta diglosiaren miseriak: ondo erroturiko kontzeptuak eta argudio-bideak ditugu horiek, gure artean. Mende-laurden luzea daramagu ikuspegi horietan murgildua. Mende-laurden luzea daramagu eta, egungo egunean nagusi diren hainbat aldarrikapen kontuan izanik, uste izateko da kontzeptu-lanketa eta sentiera-bide hori aski etxe-kotua izango dugula etorkizun hurbilean ere.

Ez dago dudarik oinarri sendoak daudela diglosia-egoera haren mugak eta hipotekak azpimarratzeko. Ez da harritzekoa, horregatik, osabetzko hizkun-tza-erabileraren helburuak konpartimentazio soziofuntzional haren murritzapen-baldintzei gaina hartu izana. Ez dago gaixoarentzako xede ederragorik, osasun beteko etorkizunaren ametsa baino. Osasun beteko egoera deskribatzeko orduan, nolanahi ere, aspaldidanik zehaztu eta azpimarratu izan ditugu diglosia molde haren ahuldadeak eta gaixotasun-arriskuak. Ondotxo gutxiagotan saia-tu izan gara guztiok, aldiz, diglosiaren bizi-iraupenerako berme-oinarria, di-glosiak hemen eta hainbat lekutan menderik mende berekin izan duen ezaugari nabarmena, aipatzen eta azpimarratzen. Behar-beharrezko da ordea kontzeptu-lanketa hori ere, bai hizkuntzaren oraingo egoera eta bai mende jo-anetakoa halako zehaztasun batez ulertu nahi badugu.

Orain inor gutxik gogoratu nahi badu ere, Mendebal Europa osoaren fe-nomeno historiko zabala izana da diglosia. Hizkuntza biren edo gehiagoren konpartimentazioa soziofuntzionala, luze-zabal ezarria eta belaunez belaunez no-labaiteko (nekez erabateko) oreka batean mantendua, salbuespen bitxi edo mingarri baino areago arau zabal izana da europa gehienean. Bai gure artean, bai gu bezalako hiztun-herri txiki-ahulduetan eta bai, are, gurea baino asko-zaz osasun hobea zuten eta duten Mendebal Europako hizkuntza handietan: besteak beste ingelesean, alemanean eta gaztelanian. Erdi Aro gehienean lati-na izana dute horiek guztiak H funtziean, funtzie sakro-klasikoetan eta admi-nistrazio-lanean bereziki, etxekotua: Bertako hizkuntza ez da, halakoetan, bere *lengua vulgar* izaeratik *lengua propia, natural, nacional* edo dena delakora bat-batean pasa izan. Latinarekin batera, hiztun-elkarre eta are hiztun-herri osoetan, hizkuntza bi edo gehiago erabili izan dira H funtzieetan, are Errena-zimentutik hona, *high culture* delakoan. Gogoan izan dezagun, hurrenez hu-rren, frantsesak Ingalaterran (Erdi Aroan) eta Alemanian (XVIII. mendean)

H funtzioan bete izandako lekua eta, batez ere bertako elite politiko eta intelektualetan berekin izandako bizitasuna.

Bistan da aparteko tasunak izanak dituela diglosiak gure artean, Europano molde horretatik aski bestelakotu izan dutenak. Lehengo H (latina) / L (euskarra) dikotomiko hura burubiko bihurtu zen gurean, une batetik aurrera. Hots, goiko atalari zegokionez erdara bi hartu behar izan genituen etxearen, XIII. mendetik aurrera itxuraz. Egoera berri horretan, jakina denez, lekuaren lekuko erromantzea erantsi zitzaien latinari, H funtziorako. Gero, Errenazimentutik aurrera, atzeraka hasi zen latina eta, horren ondorioz, H (gaztelania, frantsesa) / L (euskarra) paradigma berria gailendu zitzaien aurrekoari, gero eta nabarmenago. Litekeena da, oso, Nebriaren 1492ko gramatika-liburuan sarreran aipatzen den aginte-esparruko gogo-giroak bilakaera horretan bere eragina izana.

Nolanahi ere, konpartimentazio soziofuntzional hori indar betean zegoen XVI. eta XVII. mendeetan, oro har (55). Badirudi goi-mailako instantzia operatiboetan batez ere 1573ko eta 1682ko Batzar nagusietan hartutako erabakiek (56), inoiz besterik esan izan bada ere, eragin bizia izan zutela luzeera begira. Jakina denez diglosiazko gizarte-moldaeraren ildotik (baina ez horretatik soilik) erraz esplika litezke Batzarraldi horietan hartutako erabakiak, herriko alkate edo Probintziako alduen izateko irakurtzen eta idazten jakitea ezinbesteko baldintza bihurtu zutenak. Esan beharrik ez dago irakurtzen eta idazten jakiteak, ingurumen horretan, gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakitea esan nahi zuela.

Garaiko testigantza zuzenei dagokienez, XVIII. mendean hasi zen diglosia tradizional hori indargaltzen, arrailatzen eta zenbait lekutan, Araba gehienean bereziki, erabat galtzen. Araban luze-zabal gertatzen ari zen mintzaldatze hori ez zen ordea beste hainbat lekutan, Ipar Euskal herrian eta Bizkai-Gipuzkoetan bereziki, hainbatera iritsi. Ez hainbatera eta ez ondotxo gutxiagora. Hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena segurtaturik zegoen bertan, neurri zabalean, herri xehearen eguneroko mintzajardun arruntari zegokionean. XVIII. mendeko gatelaniaren (eta frantsesaren) *language spread* hori ez zen herrialde atlantikoetan, oro har *language shift* bihurtu. Mintzajardunaren gizarte-moldaera konpartimentazio soziofuntzional argiz zurkaiztua zegoen aspaldidanik eta, erdarak lehen ez bezalako sarbidea izanik ere azken mendean, euskarak etxeko jaun izaten segitzen zuen ohiko bere eguneroko esparru informal, aurrez aurreko eta ahozkoetan. Konpartimentazio soziofuntzional horrek bere alde zituen gainera, oraindik, aginte-esparruko babes-neurri operatiboak. Apaiz eta maisu izateko, esate baterako, euskalduna izan behar zen ezinbestean. Eskakizun-baldintza hori auziperatzen hasia zen zenbait or-

(55) Baino ikus, Nafarroarako, Fermin de Ulzurrun doktorearen 1662ko testigantza goiztiarra.

(56) Ez da ordea lehenagoko testigantzarik falta, artikulu zabalean xeheago adieraziko denez.

gano eta estamentutan (57), baina eskakizun-arau hori oro har indarrean gorde zela esan liteke, gaurkoz eskueran ditugun datuen arabera, lan-postu horietan. Indarrean gorde zen eta, XIX. mendearen erdialdean, bere beharra espresuki argudiatu eta hainbat kasutan alderik alde aplikatu egin zen.

Neurri zabalean segurtatua egon arren euskararen belaunez belauneko transmisioa, gero eta agerianago zegoen ordea euskara-erdaren molde berriko *language contact* delakoa ez zela bertako hizkuntza zaharraren osasunerako arriskurik eta kalterik gabea gertatzen ari. Euskaldun buru-jantzi, merkatari edo profesional kaletar askotxok hautsi eta ezabatu egin nahi zuen diglosia molde hori, beren harreman-sareei zegokien neurrian bederen euskararen era-bilera alde batera utziz. Hartara iristen ez zen beste euskaldun ikasi askotxo, Bizkaiko eta Gipuzkoako apaiz gehienak barne, gero eta erdal elebidunago zen. Gero eta erdal elebidunago: jakin bazekien herritar jende horrek euskara-z eta erdaraz, baina erdara zen bere hizkuntza nagusia. Erdara zen bere *dominance configuration* delakoan gailen: gaztelania Hegoaldean, eta frantsesa Iparraldean. Diglosia molde tradizionalaren galera-bide zen, bide batez, jende jakituna eta zezakeen jendea, gero eta sarriago, euskaldun garbiaren mintza-moldetik urrutti gelditzea.

Diglosia-galtze horri aurre eginaz plazaratu zitzagun Larramendi, XVIII. mendearen lehen erdian, euskara-erdaren ordura arteko gizarte-perspektiba nagusiari paradigma soziolinguistiko berria erantsiz. Euskararen berezko balio-ak, bere *Abstandsprache* izaera eta gizarte berriaren zeregin guztietarako gaitasuna, aditzera eman eta euskaldun-erdaldun buru-jantzien artean onartzeko bidean jarri nahi izan zituen berak, lehenik eta behin. Hori izan zen bere iraul-tza edo paradigma-aldaketa handiaren xede nagusia.

Jakin badakigu nola-halako arrakasta izan zuela Larramendik, ez erabateko, bere ahalegin horretan. Nola-halako arrakasta izanik ere bistan da oihartzun zabala, eta iraupen handiko ikusmolde berria, eskuratu ziela berak han-dik aurrerako euskalariei eta euskaltzaleei. Paradigma berria ekarri zien berak, onerako eta kalterako, euskararen erabileraz, eta erabilera zuzenaz, gero eta kezkatuago agertzen hasi ziren protoeliteei. Hizkuntza-ideologia eta gure arteko *Weltanschauung* berri bat eman zion berak hasiera, eta ordura artekoak ez bezalako zenbait ondorio praktiko indartu zuen horrenbestez.

Paradigma horren ondorio praktikoetako bat, ongi ezaguna denez, corpus-plangintza sendoari ekitea izan zen. Hizkuntza atzera zohoala ikusten zen hiru alorretan: lurrarde-perspektiban, eskualde osoetan atzeraka ari zen euskara eta zenbait lekutan orduantxe ari zen belaunez belauneko jarraipen-ka-tea eteten; perspektiba soziofuntzionalean, ordura arte euskarak bere mende-

(57) Iruñeko Obispadoaren mendeko epai-instantzietai gertatukoaz, zorionez, aski informazio aberatsa dugu aspalditxodanik. Espero eta desio izatekoa da Kalahorrako eta Gaztelako instantzietai gertatutakoaz ere bihar-etzi antzeko argibideak eskuratu ahal izatea.

an izandako zenbait jardun-gune eta harreman-sare eskuz aldatzen ari ziren, funtziotan horietan erdara gero eta gailenago ageri zelarik. Perspektiba indibidualetik, azkenik, bertako hiztun elebidun asko, gero eta gehiago, erdal elebidun zen funtsaren funtsean, ez elebidun orekatu eta ez euskal elebidun edo euskaldun garbi.

Hiru fenomeno horietatik bigarrena eta hirugarrena ziren, XVIII. mendeko Gipuzkoan, askogatik nagusi. Donostian eta Hondarribian ere, garai hartan probintziako hiririk erdaldunenetan alegia, bizi-bizirik zegoen euskara kalean, herritar gehienetan (eta inguruko baserrietatik kalera jaisten ziren euskaldun elebakarren) artean. Ez zegoen han beraz, Araban bezala, galera espazialik. Bigarren eta hirugarren arriskuak ziren, hortaz, kontuan hartzekoak.

Bigarren eta hirugarren kalte-arrisku horiei aurre egiteko, corpus-plangintzan ikusi uste izan zuen Larramendik konponbide nagusia. Nagusia edo, agian zuzenago, larriena eta egingarriena (58). Corpus-plangintak zuen berezat lehentasuna. Euskarazko eskolen beharra (nahiago bada, euskarari herrietako eskoletan sarbide zabalagoa ematea) gogoan zuen berak (59), baina ez zen horretan zentratu. Aldiz bere zenbait jarraitzaile *acquisition planning* delakora lerratu zen, Bizkai-Gipuzkoetan bereziki. Euskara bizirik atera ahal izateko, euskal gramatikak eta hiztegiak ez ziren jarraitzaile horientzat aski. Kardaberazek argi ikusi zuen eskolagintza horren beharra: 1761eko bere *Eusqueraren Berri Onac* liburua, bereziki, ele biko hezkuntza-proiektu berri baten iturburutzat har liteke (60).

XIX. mendearen hasieratik bete-betean heldu zitzaion gure artean, Bizkai-Gipuzkoetan bereziki, Larramendiren paradigma hura indarberritzeari. Hasiera batean, 1740tik 1750era artean jaiotako protoelite euskaltzalearen baitan, corpus-plangintza berrituari heldu zitzaion luze-zabal, kodezstatze-lanari *cultivation* atala erantsiz (61). Aldiz, hurrengo belaunaldiak, 1770 urte-inguruauan jaiotakoak, eskola bidezko euskalgintza hartu zuen bere saioaren oinarri. Horretan saiatu ziren Luis Astigarraga 1806tik aurrera eta, batez ere, Agustin Pasqual Iturriaga 1817tik aurrera. Ikusteko dago, gaurkoz, bere garaikide izan-

(58) Bistan da proiektu pertsonal hutsa baino zerbaite gehiago izan zela, gainera, Larramendiren saio hori: nekez esplika liteke, bestela, bere 1729ko Gramatika eta 1745eko Hiztegia Gipuzkoako Agintaritzak ordaindu izana.

(59) Horretaz ez dago duda zipitzik. Artikulu luzean emango da horretaz hainbat azalpen xehe.

(60) Proiektu hori ez zen, halere, oso aurrera joan. Espainiako erreinuaren 1767ko hizkuntza-politika ofiziala Arandako kondeak Nafarroako Kontseiluari euskal liburuen debeku-aginduaz jakinarazia, erabakigarria gertatu zen oso. 1771ko Errege-erabakia bera, erreinu osoko eskola-sistemaren arau-emailea, 1767ko politika-bide elebakar horren jarraikile eta garapen kontsidera liteke. Zenbait euskaltzaleren testigantza kontuan hartuko badugu, gainera, badirudi lege-xedapen huts baino ondotxoz gehiago izan zela politika-bide elebakar hori.

(61) Mogel batzen figura ezin uler liteke, besteak beste, bere cultivation –langintza hori gabe. Bere lanak Bizkaian, batez ere XIX. mendearen erdialdeko trestugintza.administratibo-juridikoan, izan zuen eraginaz ikus, bereziki, Andres Urrutiaik zuzenduriko *Bizkaiko Batzar Nagusia et Euskara: 1833-1877*.

dako Mariano Arizmendi baten, eta Tolosako maisu Insue aitaren, jarduerak ele biko eskolagintza horren garapenean zer-nolako eragina izan zuen.

Oro har indarrean zegoen euskara, Gipuzkoan, Lardizabalen bizi-denboran. Indarrean zegoen bertako hizkuntza eguneroko jardun-gune ohikoetan: etxean eta familiar, kalean eta lagunartean, lan-esparru arruntetan eta, oro har, herri xehearen bizi-poz eta beldur-kezken oinarri ziren prozesu soziokultural nagusietan. Bere lekuari eusten zion euskarak, erdara biekin batera, elizan ere: sermoi-lanean eta konfesio-esparruan, bereziki, euskara zen jaun eta jabe.

Hori guztia egia izanik ere, begien bistan zegoen gaztelania esparru berriak irabazten ari zela. Aldakuntza ekonoteknikoen eta berrantolakuntza soziokulturalen eskuistik, ordura arte euskarakarenan izandako nagusitasuna bereganatzen ari zen gaztelania hiztun-elkartearren espazio soziofuntzionalean. Irabazi horiek hain ziren sendoak non, gero eta azkarrago, euskara galtzera zihoake-elako beldurra zabalduz zihoan, bertakoena eta atzerritarren artean. Wilhelm von Humboldt-en iragarpena, 1801ean egina, XIX. mendeko beste prognosi askoren gidari eta eredu bihurtzekoa zen.

Gogo-giro horretan sortu zen, gero eta argiago, euskara indarberrituko bazen herri-aginteen hizkuntza-politika sendoa behar zeneko iritzi zabala. Ez zen hori euskaltzale tradiziozale erregetiarren berariazko ustea, gehiegitzotan esan edo iradoki izan denez, eta ez liberal-aurrerazaleen aparteko bereizgarria. Sektore batean zein bestean nabarmendu ohi zen, ikusmolde politiko-operatiboaren aldeko formulazio horren oihartzun. Era berean, euskara alde batera uztearen aldeko formulazioak ere, formulazio aktiboak zein pasiboak, esparru bietan ziren indarrean.

Gizarte-giro horretan eratu eta mamitu ziren, gero eta era esplizitagoan, hizkuntzaren aldeko status-planak. Arrasateko Batzar nagusietan, 1830ean, martxan jarritako ez zen bakarra izan. Bere ezaugarriak hain ongi ezagutzen ez ditugun arren, jakina da antzeko ekimenak eratu zituztela bizkaitarrek, 1829tik aurrera, Gernikako Batzar nagusietan. Are gehiago: hizkuntza-politikaren orduko dokumentazio teknikoa, Iturriagarena zein Ulibarrirena, hizkuntza-plangintzarako ikuspegi aski osatu baten erakusgarri dugu.

Karlistadak gauza asko aldatu zituen gure artean, jakina denez, baina euskara-erdaren arteko elkarbizitzari zegozkion ingurumen-baldintza nagusiek lehengo bidetik jarraitu zuen nagusiki. Hizkuntza bataren indartzea eta bestearren ahultzea ez zen geldiarazterik lortu, are gutxiago itzulipurdikatzerik. 1840tik aurrera indartzen hasitako industrializazioa, eta bide berriak sortu edo aurrekoak zabaltzea, badirudi deskonpartimentazio soziofuntzionalaren lagun-garri gertatu zirela oro har (62)

(62) Gutxiegi azertua dugu hori ere, zoritzarrez, eta litekeena da fenomeno ekonoteknikoek eragindako emaitza soziokultural eta linguistikoen ebaluazio sakon-zehatz batek uste ez bezalako ondioriorik plazaratzea, bihar edo etzi.

Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren protagonismoaren epea da, esparru soziokulturalean eta linguistikoan, bi karlistaden arteko epe hori. Eta epealdi horren erdi-erdian kokatzen da, jakina denez, Lardizabalek Probintziaren erabakiz eta enkarguz euskalgintzari heldu zioneko urtealdia. Ingurumen horretan txertatu behar dira beraz, ezinbestean, Lardizabalen hiztegia eta gramatika, ele biko elkarrizketa-liburua eta *Testamentu Zar eta Berrico Condaira*-ren prestaera-saioa.

Hots, bertako Herri Aginte nagusiaren hizkuntza-politikaren ardatz nagusian txertatu behar dira bere *Gramática Vascongada* eta beste hiru liburuak. Lau liburuetatik bi argitara eman (eta, agian, amaitu) gabe gelditu izanak motibo posible bi ditu: Lardizabalen ustegabeko heriotza goiztiarra batetik, eta une hartako gertaera politikoen (tartean 1854tik 56ra arteko urte biko libera-laren) eta Probintzia barruko indar-korrelazioen joera-aldaaketa bestetik. Ikuskizun dago, oraingoz, zer pisu izan zuten faktore batak eta besteak esandako ondorio horretan.

LARDIZABALEN GRAMATIKAREN ITURRI, EZAUGARRI ETA HELBURUAK (1)

B. Oyharçabal

Arratsalde on orori! Lehen-lehenik erran dezadan plazer handia dudala hemen Gipuzkoan, Lardizabalen gramatika dela bide, zaldibiarren artean ego-tea. Eskerrak bihurtzen dizkiot, beraz, Euskaltzaindia eta, bereziki, Ana Toledo Gipuzkoako ordezkarri eta omenaldi honen antolatzaleari, Lardizabalez haren herritarren aitzinean aritzeko parada hau eskainirik.

Mikel Zalbidek lehenago xeheki azaldu digu nor zen eta zein etxetarik jalgitzen zen Lardizabal, baita zer izan zen bere lanak egin zituen ingurumen soziopolitikoa ere. Niri dagokidana da orain, gramatikaren beraren aztertzea. Bi gaiz bereziki mintzatu nahi nintzateke. Lehenik, liburuaren ezaugarri orokorrak eta iturriak aurkeztuko ditut, xehetasun gehiegitan sartu gabe, haatik, ikusiko dugunaz, ez baitu lan horrek gramatikaren aldetik halako originaltasunik eskaintzen. Bigarrenekorik, liburuaren helburua aipatuko dut, soziolinistika gaietara hurbildurik.

Lehenago erranak entzunik, ez da dudarik Gipuzkoako eskoletxeetan erabiltzeko egina izanik, gramatika horrek helburu didaktikoak zituela. Ordean, hori erranez, kontuak ez dira osoki garbitzen, zeren argitu beharra baita bestalde zer estatutu ematen zitzzion eskoletan erakutsi nahi zen hizkuntza horri eta, halaber, zer betekizun ematen zitzzion euskalaren gramatikaren irakasteari. Eta azken galdera honi behatzeak garai hartan euskalari eta euskaltzaleen artean agertzen hasten zen gai bat aiparaziko digu, euskalaren itzaltzearen edo heriotzaren gaia, alegia. Izan ere, badirudi Lardizabalen gramatikaren aitzin solasa irakuriz, euskara eskoletan sarrarazirik Gipuzkoako Aldundiko garai hartako zenbait kargudunen xedea, ez ororena menturaz, baina, bai, batzuena, euskara monumentu hizkuntza gisa irakastea izan zela, gizartearen oraindik indarrean zen aspaldiko egoera diglosikoa (euskarari euskal lurrardearen parte batean bederen mendez mende gutieneko bizi hatsa eman ziona) azkenetan izan balitz bezala. Hain zuzen, mintzaldi honen hondar partean ikusiko dugu nola ideia bera ondoko urteetan modu orokorrakoan kausituko den hizkuntzalaritza naturalistak proposatuko duen teorizazio batean.

(1) Testu hau Lardizabalen oroitzapenetan Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskaltzaindia Zaldibian 2006ko ekainaren 30ean antolatu omenaldian irakurri zen.

Lardizabalen gramatikaren ezaugarri orokor eta iturriak.

Oroitarazi behar dugu lehenik, Garmendiak (1981) Aldundiaren 1853ko dokumentu bat aipatuz seinalatu zuen bezala, gramatikarekin batean beste bilan manatu zizkiola Aldundiak Lardizabali: sarrera bikoitzeko hiztegi elebidun bat, eta euskara erdarara itzultzeko gidaliburu bat. Zorigaitzez argirik ikusi gabe galdu ziren liburu horiek, antza denaz, franko aitzinatuak zirenak Lardizabalen hil aitzineko urtean edo. Beraz, deus ezin erran dezakegu haietaz, eta haien iturriez, hiztegia denaz bezainbatean, Lardizabalek haren egiteko Larramendiren *Diccionario trilingue* hura ezinbesko tresnatzat jo zukeela baizik.

Gramatikaren barne antolamendua hurbiletk darraio Larramendirenaren *Arte-an* kausitzen denari, salbu anitezzez toki zabalagoa utzi ziela Lardizabalek eranskin batean bereziki bildu zituen aditz paradigmeli, puntu horretan Zavalaren (1848) eragina nabari delarik. Hona nola egituratura den gramatika:

- *Lehen partea: Morfologia* (1-53)
 - Deklinabidea: (2-14)
 - Aditz jokadura: (15-53)
- *Bigarren partea: Joskera* (55-81)
 - Izen elementuei dagokiena: (55-64)
 - Aditzari dagokiona (64-67)
 - Mendeko perpusei dagokiena (67-73)
 - Aditzondoei eta posposizioei dagokiena (74-81)
 - Interjekzioak eta osagai nagusien arteko ordena (81)
- *Hirugarren partea: Prosodia* (82-87)
- *Eranskinak: Aditz taulak* (1-52, zenbaketa berria izanik)

Eranskinek liburuaren heren partea osatzen dute guti gorabehera, eta aditz morfologiari eskaini atalean agertzen diren beste taulak kontuan hartuz gero, aditz taulek liburuaren erdia baino gehiago betetzen dute (%55).

Iturriez dugularik solasa, gauza ezaguna da lan hori, parte handi batean, aitzinetik eginikako zenbait lani jarraikirik egina zuela Lardizabalek. Honen gramatikaz mintzatu diren geroztikako ikertzaile guztiekin (Urgell 1991, Muñika 2006, Gomez 2006) agerian utzi dute puntu hau. Bi iturri nagusi aipatzeko dira: Larramendiren *El impossible vencido. Arte de lengua Bascongada* (1729) lehenbizi, haren eskema orokorra eta azalpen gehienak segitu baitzituen Lardizabalek, eta Zavalaren *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino* (1848) gero, aditzari buruzko kapituluetan. Astarloaren *Apología de la lengua bascongada* ere ezagutzen zuen Lardizabalek (aipatu ere zuen), baina guti baliatu zitzaion ez baitzkarren liburu hark gramatikaz beraz gauza han-

dirik. Mujikak (2006) hurbiletik behatu du zeini zenbat hartu zion Lardizabalek bere gramatika azalpenen osatzeko: haren azterketaren arabera, Lardizabalek azalpenei eskainirakako orrialdeetan %70 Larramendiganikakoak dira, eta %8, berriz, Zavalaganikakoak.

Maiz besterik gabe iturria kopiatzen du Lardizabalek, laburtuz, eta sinpletuz ahal duelarik, baina itsu-itsuan askotan, hala nola Larramendik franko trakeski aztertu zuen izen berezien deklinabidea, eta oro har kasu paradigmak, azaltzerakoan. Horrek ez du erran nahi puntu batean edo bestean zuzenketa zenbait ez zituela sartu Lardizabalek. Adibidez, ez zuen onartzen Larramendik hikako adizkerak forma zuzenetan baizik ez agerraztea, Bonapartez gerrotzik adizkerak alokutiboak deitzen ditugunak isilean atzikiz. Halaber, *ezan laguntzailearen adizki subjunktiboetan, 3. pertsonako datiboaren komunztadura marka (-io-) aditz erroaren (-za-) ezker aldean zeuzkatenen ordez (*diozadan, diozazun, niozan, ciñiozan*), bestelakoak eskaini zituen, haitan indizea aditz erroaren eskuin aldean izanik (*dizayodan, dizayozun, nizayon, ciñizayon*), horretan Larramendiganik urrentzen zelarik (2).

Batzuetan, aurretik ezagunak izanagatik gramatika lanetan jarri gabe zeuden zenbait puntu modu argian eman zituen Lardizabalek. Horrela, literatura-ko idazleen lekukotasunetan oinarrituz, euskararen perpaus osagaien arteko (S-O-Adlag-Ad) ordenari buruzko aholku garbi baina orekatua eskaini zuen. Honela erran zuen:

En esta operacion [perpaus osagaiak behar den tokian jartzea] han sido varios los Escritores vascongados, sin que se hayan sujetado à un método uniforme, como que la índole del idioma presta esta libertad: sin embargo, para que la oracion salga airosa y elegante, será muy conveniente, que el verbo se coloque al fin de la oracion. (...) El agente puede colocarse en primer lugar, el paciente en segundo, y el adverbio antes del verbo: v.g. Jaungoicoac guizona munduaren asieran eguin zuen, Dios crió al hombre al principio del mundo. Pero advierto, que cuanto digo en este capítulo relativo á la colocacion no es esencial é indispensable para una buena sintasis. (Lardizabal 1856:81)

Nik uste, lehenbiziko gramatika da perpaus osagaien ordenaren kontu hau hain garbiki eta zehazki finkatzena saiatu zena.

Lardizabalen iturriak aipatuz, bazterrean utziak izan ziren lanak ere gisa batez agerian ematen dira. Eta hala da: badira Lardizabalek ezagut zitzakeen lan batzuk, itxura guztienn arabera, batere kontuan hartu ez zituenak. Horiek dira, alde batetik, aspaldi egin lan batzuk hala nola Oihenartek bere *Notitia Vtrivsque Vasconiae...* (1636) delakoan euskararen gramatikaz idatzitakoa, Etcheberri Sarakoaren latina ikasteko gramatika (1712) edo Harriet-en frantsesaren ikasteko ikasliburua (1741), eta, beste aldetik, aurreko hamarkadetan

(2) Zabalari ezer hartu gabe, honek *egin* aditz laguntzailea baizik ez baitzuen aipatu subjunktiboko forma haietako.

mugaz beste aldean frantsesez eginak izan ziren lanak ere, hala nola Lécluse (1826), Darrigol (1827), edo Abbadie & Chaho-renak (1836).

Zaila da jakitea azken lan horien berririk ez ote zuen batere izan Lardizabalek, edo bazirela jakinik ere, metahizkuntza ez jakinez beharbada, zer zioten begiratu gabe gelditu zen. Badakigu iturri gisa baliatu zitzaizkion autoreek, alderantziz, ongi ezagutzen zitzeltela bere garaiko mugaz haraindikoa gramatikak: bai, aurreko mendean, Larramendik, baina baita, berdin, Lardizabalen garaikide zen Zabalak ere. Astigarragak ere izan zuen haien berri. Lardizabalek, ordea, ez du holakorik erakusten, eta zenbait puntutan ez da dudarik haren liburuaren kaltetan nabaritu zela jakingabezia hori. Badirudi, halaber, Lardizabalek ez zituela ikusi oraino argitaratuak izan ez ziren Astarloaren gramatika obra, eta Añibarrorena.

Oraintxe hemen erranari segituz, ez dugu gordeko ez dela gramatika hau, egin zen garaian egina izanik, gain-gaineke lana. Aizquibel bera ere liburua atera bezain laster ohartu zen horretaz, eta kritika baten idazteko asmoa ere izan zuen. *Koldo Mitxelena* kulturunean baita hark baliatu zuen gramatikaren alea, bada haren barnean, gramatikari berari erantsia, hosto zuri andana bat, hietan hasi baitzen Aizquibel gramatikaren kritikaren egiten. Hona nola hasten den Azquibelek sekula bukatu ez zuen kritika lan hori:

Cuando mandé encuadernar este ejemplar, añadiéndole estos dos pliegos en blanco fue con ánimo de combatir los errores de que está plagada esta gramática por haberla calcado sobre la latina, tanto en las declinaciones como en las conjugaciones, sigiendo casi el mismo método que el Padre Larramendi hace más de un siglo, cuando todavía no había hecho tantos progresos ni la filología, ni la lingüística en general. (Aizquibel eskuizk.; ikus 2. oharra)

Aizquibel Astarloazalea zen, eta bazuen honek *Apologiaz* kanpo idatzirikako zenbait gramatika lanen berri, orduan argitaratugabeak izanagatik eskratu ahal izan zituenak. Horregatik iduritu bide zitzaizkion guztiz zaharkituak Lardizabalek euskal gramatikaz eman azalpen asko.

Lardizabalen gramatikaren helburua

Lardizabalen gramatika, ez da apologia lan bat Larramendirena bezala, eta ez da hartan kausitzen euskararen ederraz edo abantailez derasan diskurso laudoriozkorik. Guereca Aldundiko idazkariak berak aitzin solasean seinalatu zuen bi liburuen arteko aldea, Lardizabalena eskoletako egina izan zela azpimarratuz:

Pero esta obra [Larramendirena], escrita por causa que revela su primer título de Impossible vencido, es mas bien una apología de la lengua vascongaña, que una gramática dirigida á la enseñanza pública (Guereca in Lardizabal 1856: II)

Irakaskintzan erabiltzeko zela eta beraz helburu didaktikoak zituela erranik, ez dugu dena argitzen ordea. Alabaina, helburu apoletikoak bazterrean uzten badira, didaktikan egonik, hiru helburu izan zitzakeen eskoletan zabaltseko zen euskararen gramatika batek:

- Euskarazko irakaskintza baten osagaia izatea;
- Gipuzkoako ikasleei, beren hizkuntzaren ezagutzatik abiatuz, erdaraz egina zen irakaskintza batean, erdararen ikasteko errazbidearen eskaintzea (euskararen aukako dekekuak arinduz edo kenduz eta euskara bera ere zerbait bederen landuz);
- Erdarazko irakaskintzako ikasgai berezia izatea, euskara ondare hizkuntza gisa harturik haren gramatika erdaraz irakatsiz.

Ikus dezagun Lardizabalen gramatika zein betekizuni egokitzen zitzaison hobekienik.

Lehen helburua, gaur egun euskara ofiziala den toki euskaldunetan ontzat ematen ohi dena (euskarra erdararekin parekatutik), garai hartan ia ezin pentsatzkoa zen praktikan. Suma daiteke gisa batez Larramendik amestua zuela eta, partez bederen, bere hiztegia ere amets hori, edo horrelako zerbaite, gogoan izanki egina zuela. Badirudi, halaber, Larramendiren lana miresten zuen Garatek ere Iparraldean amets bertsua egina zuela mendearren hastapenean. Hori darakuskigu Garatek 1811n Napoleon Enperadoreari aurkeztu zion Fenizia Berria eraikitzeko proiektuak, hartan lehen aldikotz aipatu baitzen modu argian Euskal Herri osorako egin zitekeela euskarazko irakaskintza publiko bat. Izan ere, J. Casenaveri esker azkenean osorik ikusten ahalko dugun eskuizkribu horren arabera, Garatek nahiko zuen euskal zazpi herrialdeetan lehen eta bigarren mailako ikastetxeetan euskara izan zedin irakasgai eta irakasbide nagusia, gai teknikoetan oroz gainetik (3):

Il sera difficile de dénombrer tous les avantages qu'on sera sur de recueillir en faisant d'une telle langue [euska] le principal enseignement de toutes les écoles primaires de tous les Lycées des Départemens formés par la réunion de tous les cantons basques de la France et de l'Espagne. (...) Il ne sera pas très mal aisé, dès le premier instant, de trouver dans les sept cantons basques des hommes en état de bien traduire dans leur idiome les meilleurs traités

(3) Ez du iduri Garatek euskararen erabilera goragoko mailetan ikusten zuen. Oreka diglosiko berri bat zuen gogoan euskara egunero gizarte beharretarako erabilia izanik, eta beraz lehen eta bigarren mailetako irakaskuntzan baliatu zuan. Seinala dezagun, bestalde, haren arabera ohiko euskal gizartea ez zuela gutiesten erdi mailako hezkuntza, alderantziz baizik:

L'ambition que fait naître la gloire des Sciences et des lettres, on le croira sans peine, est inconnue dans ces montagnes et dans leur vallées; mais plus qu'ailleurs, peut-être, on y méprise l'ignorance. Avant la révolution il étoit rare que dans les bourgs les plus indigens il n'y eut pas un régent qui enseignat à lire et à écrire à tous les enfants du bourg. Les pays basques étoient, comme la Phénicie, non pas le pays de la littérature, mais le pays des lettres, de l'alphabet et de l'écriture. (Garat, idem)

d'hydrographie et de mécanique, les meilleurs éléments d'histoire naturelle et de chimie, tous les livres enfin qui deviendroient nécessaires à ces cantons destinés essentiellement à la culture des terres, au service de mer. (Garat, *Les recherches sur le peuple primitif de l'Espagne, sur les révolutions de cette Péninsule, sur les Basques Espagnols et françois*, 1811)

Ez du iduri, ordea, horrelako asmo edo ametsekin zebiltzala mendearen erdialdean Gipuzkoako herri gizonak. Garai hartan Foru Aldundiak herrialdeko eskoletako irakasleen moldatzeko egitasmo berriak izan bazituen ere (segur aski euskara ere kontuan harturik, M. Zalbidek adierazi digunaz), erdaraz idatzi gramatika eskatu zioten Lardizabali, franko urrun, beraz, Garatek aipatu bezalako xedeetarik. Nekez, ene aburuz, horrelako testuinguru batean koka daiteke Lardizabalen gramatika.

Bigarren helburua ere –ikasleen sortzeko hizkuntzaren ezagutzatik abiatuz, erdaraz egina zen irakaskuntza batera hurbiltzeko bidea eskaintza–, ohi-ko egoera diglosikoari zerraiona, ez dut uste Lardizabalen gramatikarena zela, eskola liburu hori egiazki eskoletxeetan erabiltzekoa baten behintzat. Dendarik batere gabe gramatika didaktikoena sailean gisa horretako liburuak ziren orduan gehienik landuak izan zirenak Euskal Herrian, baina beti beste hizkuntza baten irakasteko. Aitzineko mendelean eginak izan ziren Iparraldean, hala nola lehenago aipatu ditugun Etcheberri Sarakoaren eta Harrieten gramatika ikasliburuak. Euskaldun gazteei latina eta frantsesa erakusteko eginak izanik euskaraz idatziak izan ziren eta nahitaez euskararen gramatika ere bortxaz piska bat lantzen zuten, zeharka bazen ere. XIX. mendearen lehen partean, Gipuzkoan ere egin ziren horrelako liburuak. Lehenbizikoa, hainbestetan berrigaratua izanen zena, Astigarragaren *Diccionario manual bascongado y castellano y elementos de gramatica* izan zen. 1825ean argitara eman zen lehen aldiko, eta bi urteren buruan berriz argitaratu zen bertsio osoago batean. Maila apaletan erabiltzeko libura zen, bukaeran otoitz beharrenak bi hizkuntzetan zekartzana. Erdararen gramatika ere bi hizkuntzetan eskaintzen zuen, euskarazko partean Larramendiren neologismoak beldur gabe erabiliz gramatikazko terminologiaren adierazteko. Beste bat Iturriagaren *Arte para aprender a hablar la lengua castellana* (1841) izan zen, aurrekoaren antzkoia. Gisa horretako Eskolako liburuak Iparraldean ere egin ziren garai hartan, hala nola Lapurdin Hiriartek 1840an argitaratu zuen *Introduction à la langue française et à la langue basque*, eta Zuberoan Archuk (1852) publikatu zuen *Uskara eta frances gramatika, uskhalerrietaco haurrentzat*.

Erran dugun bezala, liburu horiek euskara tresna didaktiko gisa baliatzen zuten oroz lehen, ikasle euskaldunak beste hizkuntza baten ikastera laguntzeko. Egoera diglosiko arruntean Eskolan erdarek zuten lehentasuna eta nagusigoa ez zuten zalantzan jartzen beraz, nahiz, euskarari zegokionaz, bigarren helburutzat zeukaketen etxeko eta herriko jendarteko hizkuntza gisa zuen estatutuaren atxikitzea, eta segurenez ere zerbait hobetzea. Konparatzen delarik Lardizabalen gramatika Eskolako liburu hauekin, argi da arras beste zerbaiten aurrean gaudela.

Lehenik, Lardizabalen gramatika euskara bera erakusteko egina baitzen. Bigarrenik, erdara ongi zekitenentzat idatzia baitzen. Izan ere, Lardizabalek euskara batere ez du baliatzen azalpenen emateko eta erdara du horretarako tresna bakarra. Hitz batean, Lardizabalen gramatika Larramendirena bezala printzipioen arabera antolatua zen, adibide guti eskaintzen zuelarik, eta ez batere solasaldi elebidunik. Bestalde, Astigarraga eta Iturriagaren liburuak ez bezala, ez zen mai-la apaleko liburua, eta franko urrun zen ikasbide izatetik.

Aipatu lehen bi zereginen betetzeko egina izan ez bazeen Lardizabalen liburu hori, hirugarren helburuaren arabera egina izan ote zen beraz, hau da, euskararen gramatika osoki erdaraz eginikako irakaskuntza baten gai gisa irakasteko? Bai, dudarik gabe; ahantzi gabe orduan euskara, teorian bederen, bi gisatan har bazitekeen ere, hau da ikasleen etxe hizkuntza gisa, edo monumentu hizkuntza gisa, erran nahi baitu, bi ikuspegi arras desberdinaren arabera, praktikan bigarren ikuspegiak mugatzen zituela ororen buruan gramatikaren edukiak eta hartan baliatu metahizkuntza (4). Menturaz bati baino gehiagori sinesgaitz irudituko zaio hemeretzigarren mendearen erdialde horretan, kasisik osoki euskalduna zen herrialdean, euskara monumentu hizkuntza gisa, mintzairak hila izan balitz bezala, eskoletan irakasteko asmorik sortzea. Bizkitartean, badira hola pentsatzen garamatzaten arrazoiak. Lehenbizikorik, horrela ulertzen da zergatik dituen liburuak dauzkan ezaugarri oinarrizkoak. Zergatik euskararari berari hain toki guti eskaini zitzaion eta zergatik Larramendiren *Arte* famatuaren antolamenduari hain hurbiletik jarraiki zitzaion Lardizabal, alta hora apologia lana izanik.

Bigarrenekorik aitzin solaseko erranek berek ere hala diote, zalantzari toki handirik utzi gabe. Guereca aitzin solas egileak ongi azpimarratu zuen paradoxa: euskara hiltzera zegoen mementoan berean hasi nahi zuten haren gramatika eskoletan erakusten:

Tal vez parecerá extraño que se haya esperado a una época en que la lengua vascongada está casi tocando su fin, para escribir una gramática con reglas para aprenderla (Guereca in Lardizabal 1856: II)

Baina paradoxa gainditu nahi zuen Guerecak, erranez epe laburrean desagertzera eta osoki ahantzia izatera kondenatua zen euskara monumentu eta oroit-irakasgai gisa bederen begiratu behar zutela gipuzkoarrek:

Pero deseando la Provincia no dejar sepultar en el olvido á una lengua que ha formado y forma la base principal de la existencia social del pueblo vascongado, ha resuelto publicar la presente gramática, no como una obra perfecta del arte, sino como un monumento erijido á su memoria. (Guereca, in Lardizabal 1856: II)

(4) Eskolatik kanko, hori erakusten digu XIX. mendearen hondar partetik 1978 arteko euskal gramatikagintzak ere. Garai hartan, euskal gramatikak, bai euskaldun ikasientzat eta bai eraldunentzat egiten ziren, erdaraz beraz. Hala egin zituzten beren gramatika lanak, adibidez, Ithurryk, Azkuek, Altubek edo Lafittek.

Guereca hori funtzionarioa zen eta hari egokitutzaion Lardizabal hil ondoan honen gramatikaren hitzaurrearen idaztea. Ez dakigu zenbatetaraino haren erranek orduan herrialdearen administrazioko arduradunen artean entzun zitezkeen solas batzuen oihartzuna dakarkiguten. Ez zen beldur, hasteko, probintziaren izenean mintzatzeko (*Pero deseando la Provincia...*), osoki bere burutik ari zela adierazterea eman gabe, alderantziz baizik (5). Gainera, aitzin solasak berak erakusten duen bezala, Guereca ez zen euskararen etsaiak edo kontrakoa; hots, ez da haren solasetan euskararen arbuiagarri edo mespretxagarri egiteko nahikeriarik ikusi behar: argi dauka, adibidez, monumentu bihurturik ere, mintzairak dituela euskaldunak populu gisa eratzen (*la lengua vascongada... forma la base principal de la existencia social del pueblo vascongado*).

Testu horrek badu bere garrantzia euskalaritzan: nik uste, euskararen desagertzea etorkizun hurbil batean iragarri duen lehenbiziko testua baita. Eta ustegabekoa da, zeren XIX. mendearren erdialde hartan unibertsalki euskaldunena zen herrialde batez ari baitzen. Ditugun lekukotasun guziek segurtatzen diri euskara zela garai hartan gipuzkoarren sortzeko mintzaira. Hona adibidez, Madozek (1847: 113) zer zioen:

Se habla el vascuence en toda la prov. Es el lenguaje que en su niñez aprenden todos sus naturales, y el único que saben los que por su educación ó con el trato de gentes no han aprendido el castellano.

Velascock (1879: 483-484) ere, modu berean, zioen 1867ko zentsuan zenbatu ziren biztanleetarik %96 pasa euskaldunak zirela Gipuzkoan, eta %82 ia beti euskaraz bakarrik mintzatzen zirenak:

De las 176,297 almas que poblaban Guipúcoa al realizarse ese censo-miento [1867ko], creo bastante exacto calcular que las 170,000 hablaban el vascuence, y entre ellas las 140,000 hacían uso casi exclusivo de esa lengua en sus diarias relaciones.

Aurreko garaietan zenbait lekukotasun baditugu (lehenbizikoak Lapurdin berean XVII. mendearren lehen partean, Etcheberri Ziburukoaren garaian) era-kustera ematen digutenak Euskal Herrian berean euskarak etsaiak izan zituela eta aldebat desager zedin desiratzen zutenak ere izan zirela. Berdin horrelako asmoa aurkitzen da Dithurbide bezalako Iparraldeko zenbait iraultzazale batzuen baitan (Oyharçabal 1993), baina haietan gertakizuna inondik ere ez zen agertzen Guerecak ematen zion berehalakotasun eta larritasun kolore horrekin. Humboldtak berak ere aipatu zuenean, franko urrun ikusten zuen, XX.

(5) M. Zalbidek (2006) ematen digun informazioaren arabera, badirudi Guereca egiazki Diputatu Nagusiaren erranei jarraiki zitzaiela bere aitzin solasean, zeren 1853ko gutunean argiki aditzera eman baitzuen honek ez zela gramatika hori euskaldunentzat bereziki egina, baina ororen-tzat, denek noizbait euskaren (kanpoko) ezagutza izateko moldatua: *siendo su objeto, imprimir y publicar esta obra, para que por ella pueda un dia llegar á ser conocida de los hombres una lengua tan antigua y tan poco parecida á las demás del mundo.*

mendearen hastapeneko gertatzekoa (Mitxelena 1973). Badirudi Gipuzkoan euskararen kezka areagotzearekin agertu zela euskararen osoki itzal zitekeelako kezka. Alabaina, modu argian aurkitzen da jadanik, Iturriagaren 1830eko txostenean:

Qué importa, digo, todo esto [apologisten goraipamenak], si cada día [eus-kara] camina con más celeridad hacia su perdición y se nos va a desaparecer totalmente? (Iturriagak, 1830eko Batzar Nagusietan aurkeztu txostenean)

Ikusten den bezala, Guerecak bere aitzin solas idatzi baino mende laurden bat lehenago jadanik, Iturriaga bezalako euskaltzaileen gogoan, hasia zen agertzen euskara epe laburrean hilen ez ote zen beldurra. Badaiteke garaiari zegokion idea zen hau, iturburua erromantizismoak eragin errepresentazioetan zukeena: iraganetik heldu ziren kultura moldeak gorestearekin batean, iraganari betiko lotzen zituen, eta horrela, mekanikoki bezala, garaiaz kanpokoak egiten, Gipuzkoako hizkuntza egoeraren aurkezpen honetan ezin hobeki ikus daitekeen bezala (6).

Hizkuntzen heriotza eta hizkuntzalaritza naturalista

Euskara eta euskara bezalako hizkuntzen desagerpenaren inguruko teorizazioa, ordea, piska bat geroxeago eginen zen, bereziki hizkuntzalaritza naturalista deitua izan zen eskolaren lanei esker. Vinson izan zen, baita haren ondotik, beste modu batean, Unamuno ere bai, ikupugi honen zabaltzailea euskalaritzako munduan (Oyharçabal Argit.).

Eskola hori 1860 hamarkadaren bigarren partean sortu zen (Desmet 1996). Lehen eragileak Honoré Chavée (1815-1877) eta Abel Hovelacque (1843-1896) hizkuntzalariak izan ziren, nahiz August Schleicher (1821-1868) izan zen lehenago ikusmolde horren nolabaiteko aitzindaria eta eragilea. Hizkuntzalari hau garai hartako indoeuropeanaren espezialista famatuinetarik bat izan zen, teoria oso bat eratu zuena hizkuntzen eboluzioari buruz. Neurri handi batean bat zetorren haren teoria, darwinismoak izaki bizidunen eboluzioaz sortu zuen teoriarekin (Schleicher 1863), zeren haren ikuspegiaaren arabera hizkuntzak ere natura izakiak baitziren, gaineratiko izaki bizidunak bezala garapen katea batean sartuak zirenak. Garapen desberdinako hizkuntzak eremu beren gertatuz gero hil-ala-biziko lehiaketa batean sartuak izanki, ahulenek

(6) Badaiteke euskararen galera gisa horretan ikustea diglosia zaharreko orekan agertzen hasiak ziren aldaketen ondorioa izatea. Alabaina, kanbiamentu nabaria izan behar zen garai haientan, gaztelera gipuzkoarren artean hedatzen eta indartzen ari baitzen. Aldaketa horrek, halere, ez zuen berehalako ezkerten behe-mailako hizkuntzaren desagerpenea, lehenik aldi elebidun batetik iragan behar baitzen horretarako, hau laburrago edo luzeago gerta zitekeelarik. Menturaz, Iturriaga eta Guereca bezalako euskaltzaileek erdararen aitzinamendua ikustean, horrek euskararen galtzea epe labur-laburrean ekarriko zuela pentsatu izan zuten.

desagertu behar zuten nahitaez. Garapen mailak, hizkuntzen kasuan, tipologiko lanetako baliatua zen partikamen hirukoitzaren arabera egiten zen: hizkuntza isolatzaileak > hizkuntza eranskariak > hizkuntza flexiodunak.

Vinsonek, osoki bat egin zuen hasta-hastetik hizkuntzalaritza naturalista-ren ikusmolde eta hatsarrekin (Gomez 2006). Frantzian garai batez franko indartu zen eskola horretako eragile garrantzizkoenatarik bat izan zen, teoria mailan berak bere baitarik deus guti ekarri bazuen ere. Eskola hark ateratzen zuen aldizkariak ere (*Revue de linguistique et de philologie comparée*) euskalartzaren historian garrantzi zerbait izan zuen, eta luzaz Vinson izan zen harren zuzendaria, baita artikulu egile emankorrena (aldizkari horrek iraun zuen urteetan, 1867-1916 artekoetan, orotara 710 artikulu argitaratu baitziren, 154 artikulu egile izanik, jakitekoa da Vinsonek berak orotara 237 idatzi zituela, erran nahi baitu hiruretarik bat). Bada, zuzen-zuzenean euskarari aplikatu zizkion Vinsonek naturalisten teoriak (ikus Vinson 1874), haurrean ikasi zuen tamil hizkuntza dravidiarrarekin egin zuen bezala (7), ondorioz beste euskalari zenbaitekin haserratuz edo behintzat liskarrak eta kalapitak sortuz (Granja 1985, Gomez 2006). Izan ere, guztiz bat egiten zuen Vinsonek hizkuntza darwinismoarekin:

Les organismes phoniques [ohart hizkuntzen deitzeko moldeari] sont des produits spontanés et inconscients des organes humains, soumis, en leur qualité d'êtres naturels [natura izakiak dira hizkuntzak, ez kultura izakiak], à la grande loi de l'éternelle variabilité (...) Les êtres linguistiques sont soumis aussi à la loi terrible de la concurrence vitale qui a fait disparaître bien des langues inconnues. (Vinson 1874)

Euskara zela-eta, argi zen Vinsonentzat, hizkuntza kondenatua zela, eta horretan bat egiten zuen Guerecak hogei bat urte lehenago erranikakoarekin:

tout indique sa [euskararen] disparition complète dans un avenir plus proche qu'on ne le pense. (Vinson 1874: 56)

Kontuan izan, Iparraldean ere (euskararen ohiko eremuaz ari gara, noski) 1870ko urteetan oraindik indarrean zela euskara. Frantsesa herritar xumeen artean sartzen hasia baten ere, euskara zen egun orozko hizkuntza arrunta, han bizitzeko jakin beharrekoa. Baino Guerecak Gipuzkoan bezalatsu, Vinsonek ere Iparraldean euskara laster hiltzera zihola pentsatzten zuen.

Haatik, puntu batean desberdintzen bide ziren bien ikuspegiak. Duda guti da Guerecarentzat (eta areago Lardizabalentzat) ez zela berez gertakari baikorra edo atsegin hartzekoa, euskara gipuzkoaren ezpaineratik desagertzea. Vinsonentzat, ordean, bai, gauza ona eta poztekoa zen gauzak horrela gerta zitezzen, zeren euskara hizkuntza eranskaria izanki bere garapenean bide erdi gelditu baitzen, eta ondorioz, nahitaez, hizkuntza flexiodunak zitzutzen zibili-

(7) Vinsonen aita Pondichéry-n izendatua izan baitzen, han egin zituen bere ikasketak Vinsonek (Lacombe 1927), eta ingelesa eta hango mintzairak (indiera eta tamila) ere ikasi (Vinson 1905).

zazioen ondoan, zibilizazio primitibo eta osatu gabe baten ekarlea baitzen. Euskarak, hitz batez, euskaldunak modernotasunean sartzetik gibelatzen zi-tuen, eta zibilizazio-maila apal-apaleko aitzinekotasun batean atxikitzen:

Nous croyons qu'il y a plus à se féliciter qu'à se plaindre de la mort d'un idiome dont l'âge nous reporte à une époque de civilisation très-inférieure. (Vinson, idem)

Ez zen gure gaia egun Lardizabalen gramatika aipatzerakoan, Vinsonen eta haren eskolako kideen eztabaideatzea. Halere, liburu hartako aitzin solas doi bat harrigarri hora irakurri ondoan, erakutsi nahi genuen Gipuzkoan mendearen erdialdean agertu ziren ideia batzuk, objektiboki orduko errealityte soziolinguistikaren arabera neurritz kanpokoak iruditzen zaizkigunak, nolabait mendeak sortu errepresentazio batzuei zegozkiela. Are gehiago, laster antropologia berriak finkatuko zituen ikusmoldeen eraginarekin, oinarri zientifiko bat ere emanen zitzaien, ondorioz, oraindik ere indartzenago baizik ez baitziren. Itxura guzien arabera, Guerecaren solasek giro batzuetan ongi errroturik zegoen ideia baten oihartzuna dakarkigute. Nola sortu ziren errepresentazio horiek? Zer lotura izan zuten bestalde garai haietan, Estatuaren jokabidearen aitzinean, Hegoztean bereziki, euskal herrialdeetan nabari zen giro politiko nahasiarekin? Zer eragin izan zuten? Luzeegi lihoakiguke gorabehera horien hemen aztertzen hastea. Beste egun bateko utziko dugu kontua.

Bibliografia

- ABBADIE, ANTOINE & CHAHO, JOSEPH AUGUSTIN. 1836. *Études grammaticales sur la langue euskarienne.* Paris: A. Bertrand.
- ARCHU, JEAN-BAPTISTE. 1852. *Uskara eta franzes Gramatika, uskalherrietako haurrentzat egaina.* Baiona: Foré eta Lasserre. 1868ko 3. argitalpenaren argitalpen faksimilea *Bi mihiren gramatika.* Donostia: Hordago, 1979.
- ASTARLOA, PABLO PEDRO. 1883. *Discursos Filosóficos sobre la lengua primitiva ó gramática y análisis razonada dela euskara ó bascuenze.* Bilbo: P. Velasco.
- ASTIGARRAGA Y UGARTE, LUIS. 1825. *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de gramática, para el uso de la juventud de la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa, con ejemplos y parte de la doctrina cristiana en ambos idiomas.* Donostia: I. Baroja.
- BILBAO, GIDOR. 2006. *Joanes Etxeberri Sarakoaren saiakera-lanak eta latina ikasteko gramatika: edizioa eta azterketa.* EHUKo doktore tesia. Ikasketa klasikoak Saila.

- CASENAVE, JON. 2006. «Dominique-Joseph Garaten *Les recherches sur le peuple primitif de l'Espagne, sur les révolutions de cette Péninsule, sur les Basques Espagnols et françois* (1811)». Transkripzioa eta oharrak. *Lapurdu XI*.
- DARRIGOL, JEAN-PIERRE. u.g. [1827]. *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*. Baiona: Duhart-Fauvet. Argitalpen faksimilea. 1979. Toulouse: Eché.
- DESMET, PIET. 1996. *La linguistique naturaliste en France (1867-1922). Nature, origine et évolution du langage*. Leuven / Paris: Peeters.
- ETCHEBERRI, JOHANES. [1712]. *Escual-Herriari eta escualdun guztiei escuarezco hatsapenac latin ikhasteco. Lehenbiciric icenen declinacinoez eta verboen conjugacinoez, azquenean icenari, eta verboari dagotzen gauçac*. Edizio kritikoa in G. Bilbao (2006).
- GARMENDIA, JOSE FRANCISCO. 1981. Inazio Lardizabal-en lan eta idazkiez eza-gutzen eztiren berri eta gauza batzuk. *Euskera* 26-2. 795-797.
- GRANJA PASCUAL, JOSÉ JAVIER. 1986. «Julien Vinson, el euskera y una polémica del XIX», *ASJU* 20:1. 217-235.
- GÓMEZ, RICARDO & LAKARRA, JOSEBA. (arg.) 1992. *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*. (*ASJUren gehigarriak*. 25). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia/UPV-EHU.
- GÓMEZ, RICARDO. 2006. *XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*. EHuko doktore tesia. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketa Saila. Vitoria/Gasteiz.
- HARRIET, MARTIN. 1741. *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua franecez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*. Baiona: Fauvet Alarguna & J. Fauvet.
- HIRIART, A. 1840. *Introduction à la langue française et à la langue basque*. Baiona: V^e Cluzeau.
- ITURRIAGA, AGUSTÍN PASCUAL. 1841. *Arte de aprender a hablar la lengua castellana: para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*. Hernani.
- LACOMBE, GEORGES. 1927. «Julien Vinson». *Gure Herria*. 60-64.
- LARDIZABAL, FRANCISCO IGNACIO. 1855. *Gramática Vascongada*. Donostia: I. R. Baroja. 2. argitalpena. 2006. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- . 1856. *Testamentu Berriko Kondaira*. Tolosa: Gorosabel. 5. argitalpena. 1996. Klasikoak. 83. Donostia: Euskal Editoreen Elkartea.

- LARRAMENDI, MANUEL. 1729. *El impossible vencido. Arte de la Lengua bascongada*. Salamanca: A. J. Villargogo Alcaráz. Argitalpen faksimilea; 1979. Donostia: Hordago.
- LÉCLUSE, FLEURY. 1826. *Manuel de la langue basque*. Tolosa & Baiona: J. M. Douladoure & L. M. Cluzeau. J. Lakarraren 1987ko berrargitalpena in ASJU 21, 813-916.
- MADOZ, PASCAL. 1847. *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. 9. liburukia: Gua-Juz. Madril: i.g.
- MITXELENA, KOLDO. 1973. «Guillaume de Humboldt et la langue basque». *Lingua e stile* 8.107-125. Argitalpen berria in Gómez & Lakarra (arg.) 1992, 379-393.
- MUJICA, JOSE ANTONIO. 2006. «Lardizabalen gramatika, Larramendirenaren bertsio “didaktikoa”». In Lardizabalen (1855). Bigarren argitalpena. 2006. Atariko partean.
- OYHARÇABAL, BEÑAT. 1993. «Les documents recueillis lors des enquêtes linguistiques en Pays Basque durant la période révolutionnaire et le Premier Empire». In J. B. Orpustan (Zuzend.) *La Révolution française dans l'histoire et la littérature basques du XIXe siècle*. Baigorri: Izpegi. 63-120.
- . Argit. «Linguistique et anthropologie: la langue basque entre primitivisme et darwinisme linguistique dans le seconde partie du XIXè siècle». Baionako 2006/05/16-17ko kolokioa Bayonne: *carrefour de langues et cultures*. Aktetan argitaratzekoak.
- URGELL, BLANCA. 1996. «Hitzaurrea». In Lardizabal (1856). 1996ko berrargitalpena. XV-XCIII.
- VINSON, JULIEN. 1874. «Sur la méthode de la science du langage et de ses applications à la langue basque». *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres & Arts de Bayonne*. 37-43 & 49-57.
- SCHLEICHER, AUGUST. 1863. *Die darwinsche Theorie ind die Sprachwissenschaft*, Weimar: Böhlau. Frantsesezko itzulpena, C. De Pommayrol-ek egina, *La théorie de Darwin et la science du langage*, 1868. Paris: Franck.
- VELASCO, LADISLAO & FERNANDEZ DE LA CUESTA, 1879. *Los euscaros en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya: sus orígenes, historia, lengua, leyes, costumbres y tradiciones*. Barcelona: i.g.
- VINSON, JULIEN. 1874. «Sur la méthode de la science du langage et de ses applications à la langue basque». *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres & Arts de Bayonne*. 37-43 & 49-57.
- . 1905. «Science, critique et vanité». *Revue de Linguistique et de Philosophie comparée* 38. 192-207.

ZABALA, JUAN MATEO. 1848. *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*. Donostia: I. R. Baroja.

ZALBIDE, MIKEL. 2006. «Lardizabalen gramatika bere gizarte-giroan». Euskal-tzaindiak Zaldibian 2006/06/30ean antolatu omenaldian irakurria. *Plaza Berri* aldizkari elektronikoa, 4. zb. <<http://www.euskaltzaindia.net>>

IKER SAILA

HIZTEGIGINTZA

NEURRI-IZENAK ETA NEURRI-ESAMOLDEAK EUSKARAZ

2006-VI-19

J.R. Etxebarria

Gure inguruko hizkuntzetan, neurri-izenen eta neurri-esamoldeen normalizazioa XIX. mendearen bigarren erdialdean abiatu zela esan dezakegu. Normalizazio-prozesu horretan irakaskuntza-sistemaren garapen zentralizatuak berebiziko garrantzia izan zuen, Frantzian eta Spainian preseski, bi lurralte horietan Estatuaren antolakuntzarako funtsezko puntutatzat hartu baitzen. Horrela, hainbat izen eta esamolde finkatu (edo «inposatu») ziren eskola bitartez, gaur egun era bat normal eta natural diruditenak. Horrez gain, eskolako programazioarekin batera, mendearen bukaera aldera Pisu eta Neurrien Nazioarteko Batzarrak antolatu ziren, eta horietan unitate-sistemak arautu eta onartu ziren (1).

Euskaraz beranduago abiatu ginen prozesu horretan, eta XX. mendearen lehenengo erdialdeko gorabeherak pasatu ondoren, mende horretako hirurogeiko hamarkadako urteetako batasun-ekimena abiatu ondoren preseski, gaur egun normalizazio-prozesua euskarazko irakaskuntzaren garapenarekin eta ikasmaterialaren idazketa sistematikoarekin gauzatzen ari dela esan dezakegu.

Normalizazio-prozesu horretan, hainbat arazo praktiko azaldu dira, erabiltzaileen artean argitu beharrekoak, erabilera arautua eta adostua eskatzen dutenak eta hizkuntzaren arloko adituen onespenaren premia dutenak. Horien artean, neurri-izenen zehaztapena eta neurrien idazketarena ditugu; baina ez horiek soilik, zeren esaldi eta esamolde osoak arautu eta finkatu behar baitira, ahantzi gabe neurzte-prozesua adierazten duten zenbait aditzen (pisatu, neurtu...) jokamoldea ere.

Ikasmaterialaren Aholku Batzordeak berriki argitaratu duen *Ortotipografia liburuaren* (2) atal berezia aurkeztu dute «neurri-izenak» izenburuean, testuetan agertzen diren neurriei buruzko adierazpideak eta esamoldeak arautzeko asmoz. Lana eta proposamena egokiak dira (ñabardura eta zehaztapen

(1) ZABALETA, I., *Hezkuntza-sistema espainiarren sorrera*, UEU, Bilbo (2000).

(2) ZUBIMENDI, J. R., *Ortotipografia. Ikasmaterialaren Aholku Batzordea. Estilo-liburuaren lehen atala*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz (2004).

batzuk gorabehera), baina ene iritziz, labur geratzen dira arazoaren tamaina eta konplexutasuna kontuan izanik. Izan ere, gaiak garrantzi handia du gaur egungo gizartean, eta irakaskuntza bide egokia izan daiteke arlo hori arautzeko eta normalizatzeko.

Bestalde, gai honek argitu beharreko hainbat puntu ditu, eta horren adibide dira lehenago ere aurkezturiko zenbait lan kontrajarri, kasurako, *neurtu/pisatu* aditzen jokamoldea dela-eta 1994an Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean aurkezturiko komunikazioak (3). Halaber, neurri-izenak darabiltzaten esaldien barruan hiruzpalau aukera ditugu lehian, argitu, zehaztu, arautu eta erabaki beharrekoak.

Lan honen asmoa arazoaren aurkezpen eskematiko zabala egitea da, orain arteko proposamenen aipamenetik abiaturik, erantzun beharreko galderen sailkapena eginez eta nire ikuspuntuaren arabera egokiak izan daitezkeen soluzioak edo irtenbideak proposatuz. Egia esanda, nire kezka zientzia-gaietan era-biltzen diren testuei buruzkoa da, bereziki testu teknikoei buruzkoa, eta ikuspegia mugatu horretatik planteatzen ditut gaiak lehen maila batean, baina kontzientea naiz horrek eragin zuzena duela ikasmaterialen prestakuntzan eta, bigarren maila batean, baita hizkuntza orokorrean ere; beraz, kontuan izan beharko da planteamendu hori azalpenak aztertzeraoan. Honi buruz lehenago ere aurkeztu ditugu hainbat iritzi (4), baina argi daukat gaiak eztabaidea zabalago eta zehatzagoaren premia duela. Hortik dator, beraz, lan hau Euskaltzaindian aurkezteko asmoa, bertan azertua izan dadin eta, egoki baderitzo, gaiari buruzko iritziak edo gomendioak eman ditzan eskatuz.

Neurrien erabilera dela-eta mota askotako kasuak agertzen direnez, gaia atalka aurkeztuko dut, alde batetik arazoaren sailkapena eginez eta beste alde batetik erabiltzaileen artean adostasun handi samarrez finkaturik eta arauturik dauden puntuak adieraziz eta, halaber, argitu beharreko arazoak aipatuz. Noan, bada, harira.

1. NEURRIEN ADIERAZPIDEA

1.1. Unitateen adierazpide sinbolikoa eta unitateen izenak

Beharbada, hauxe da arauak onartzeko eta erabakitzeko arazo gutxien sortzen duen gaia. Izan ere, fisikako unitateei buruzko nazioarteko arauak dauenez, logikoa dirudi zientziaren arloan arau horiek onartzea eta betetzea eus-

(3) AZKUNE, I.: «Neurtu aditzaren erregimenaz», *Euskera* 39 (1994, 3), 1025-1026. or.; GARCIA, J. et al.: «Neurtu aditzaren erregimenaz», *Euskera* 39 (1994, 3), 1027-1031. or.; MUJICA, A.: «Neurtu aditzaren erabilera berriaz», *Euskera* 39 (1994, 3), 1023-1024. or.

(4) ENSUNZA, M.: ETXEBARRIA, J. R. eta ITURBE, J.: *Zientzia eta Teknikarako Euskara. Zenbait hizkuntza-baliabide*, UEU, Bilbo (2001).

karaz ere. Bide horretatik *Ortotipografia* liburuan argi proposatzen denez, «matematika, fisika, teknologia eta gisakoak idatziz lantzean, nazioarteko simbolo estandarrak erabiliko dira neurri-izenak adierazteko». Zer esanik ez, ados gaude horrekin. Edonola ere, nazioarteko arauak ongi bereizten dituzte bi kontzeptu: batetik, adierazpide sinbolikoa, eta bestetik, mundu osoan erabiltzen diren unitateek hizkuntza bakoitzean duten izena eta ortografia.

Nolanahi den, sinboloen adierazpideari dagokienez, lauzpabost xehetasun izan behar ditugu kontuan, jarraian zerrenda modura aipatuko ditugunak:

- Sinbolo guztiak letrakera arruntaz adierazten dira eta sinboloaren atzean ez da punturik jartzen (esaldiari dagokion puntuak izan ezik).
- Izen arrunta duten sinboloak letra xehez idazten dira. Mota honetakoak dira sinbolo hauek: m, s, g...
- Zientzialarien ohorez jarritako izena dutenak letra larri bakarraz edo letra larri batez eta letra xehe batez adierazten dira. Adibideak: A, V, W, Wb, Gy...
- Unitate konposatuak unitate bakunen bidez eratzen dira, horien arteko biderketa eta zatiketen bidez. Adierazpen sinbolikoan, biderketak bokalen altuera erdian jarritako puntu batez (·) adierazten dira, eta zatiketak marra inklinatu batez (/), kasu bietan unitate bakunen artean tarterik utzi gabe. Halaber, unitateak berretura modura ager daitezke (berretzaile positibo zein negatiboekin). Adibideak: m/s, m·s⁻¹, N/cm², N·cm⁻²...
- Unitateen sinboloei aurretik jartzen zaizkie multiploak eta azpimultiploak adierazteko aurritzkiak, beti ere nazioarteko arauak errespetatuz, alegría, aurritzietan letra larriak eta xeheak arauak diotenean bezala idatziz. Adibideak: kg, dam, mA, MW, kW... Ikus daitekeenez, batzuetan sinboloa letra xehez hasi eta letra larriz segituz idazten da, hala nola mA, kWh (izatez, kW·h da, baina punturik gabe idatzi ohi da)... unitateen kasuan.
- Unitateen sinbolo eta aurritzki gehienak alfabeto latindarreko letrekin idazten dira, baina zenbait kasutan letra grekoak erabiltzen dira; zer esanik ez, hizkuntza guztiak errespetatzen egin behar dira letra horiek sinboloak idaztean. Adibideak: W (ohm), MW (megaohm), mm (mikrometro)...

Sinboloei buruz esandakoak era berean erabiltzen dira mundu ososan zehar; hortaz, baita euskaraz ere. Besterik da, ordea, sinbolo horien izenak zein diren, izen horiek nola idazten diren eta sinbolo-izenak nola irakurtzen diren. Horretan, hizkuntza bakoitzak bere arauak ditu, bakoitzaren izaerarekin eta fonetikarekin batera doazentzak, nahiz eta izenen «kultura-erroak» dei ditzakegunak gordetzen diren funtsean. Horrela, esate baterako, cm sinboloan c letra erabiltzen da euskaraz ere, nahiz eta unitatearen izena eta idazkera *zentimetro* den, hots, z letraz.

1.2. Neurrien adierazpide sinbolikoa

Neurrien adierazpide sinbolikoetan unitateak ez dira huts-hutsik idazten, aurrean zenbaki bat dutela baizik, hain zuzen ere, neurriaren balioa edo tamaina azaltzen duen zenbakia aurrean dutela. Zenbaki horren eta sinboloaren artean tarte bat utzi behar da. Hortaz, adibide hauetan agertzen den antzera idatzi behar dira magnitude fisikoen neurriak, unitatearen sinbolo eta guzti:

$$7 \text{ km}, 25 \text{ m/s}, 1,03 \text{ N/cm}^2 \dots (5)$$

Bi ohar egitea komeni da:

- Neurrien adierazpide sinbolikoan, zenbakiarekin batera, beti idatzi behar da unitatearen sinboloa; hots, zenbaki hutsak ez du inolako esanahi fisikorik, zenbaki hutsa izatearena baizik.
- Zenbakia, edozein izanik ere, unitatearen sinboloaren aurretik idatziko da beti adierazpide sinbolikoan. Beste kontu bat da zenbakia eta sinboloa nola irakurriko diren, alegia, hizkuntza bakoitzean zein ordenatan irakurriko diren, esan nahi baita, zenbakia sinboloaren izenaren aurretik edo atzetik irakurriko den. Xehetasun horrek bere garrantzia du euskaraz, 1 zenbakiaren idazkera eta irakurkera ez baitatuz bat ordenari dagokionez. Dakigunez, neurria adierazten duen zenbakia 1 ez denean, euskarazko ordena eta nazioarteko ordena berberak dira, hots, kasu bietan lehenik zenbakia irakurtzen da eta ondoren unitatea; baina zenbakia 1 denean, ordena horiek elkarren alderantzizkoak dira; hots, geure inguruko hizkuntzetan ordena bera gordetzen da, baina euskaraz lehenik unitatea eta ondoren *bat* zenbakia irakurtzen da. Hala ere, idazketaz ari garenez, nazioarteko ordena onartu da euskaraz ere. Beraz, nazioarteko arauei jarraituz,

$$1 \text{ V}, 1 \text{ }^\circ\text{C}, 1 \text{ MHz} \dots$$

idatziko ditugu, nahiz *volt bat*, *Celsius gradu bat*, *megahertz bat*... eran irakurriko ditugun. Zernahi gisaz, arau honek salbuespena du euskaraz portzentajeen kasuan (neurri erlatiboak, azken batez), zeinean % sinboloa zenbakiaren aurretik idazten den. Alegia, % 4 idatzi eta *ehuneko lau* irakurtzen da euskaraz.

1.3. Neurrien adierazpen sinbolikoen irakurbidea

Dena den, analisi dimensionala kontuan izanik, unitate guztiak ez dira mota berekoak, eta horrek eragina dauka adierazpide sinbolikoan, zeinean sin-

(5) Horrez gain, neurketa esperimentalaren doitasuna ere adieraz daiteke, honelaxe: $1,03 \pm 0,01 \text{ N/cm}^2$

bolo bakunak edo eragiketa matematikoen bidez elkarturiko sinbolo konposatuak ager daitezkeen. Ondorioz, adierazpen sinbolikoen irakurbidean eragiketa matematiko horiek nola edo hala adierazi behar dira, eta horretan zenbait buruhausteko sor daitezke, ahalik eta modurik egokienean ebatzi beharrekoak. Arazo horien konponbidea nolakoa den ikusteko, sailkaturik aipatuko ditugu mota desberdinak unitateak.

1.3.1. Izen bakuneko unitateak. [A] motako unitateak

Izen bakuneko unitateak izen bakarrarekin adierazten dira. Eskematikoki azalduz, «[A] motako unitateak» direla esan dezakegu, [A] hori unitatearen izen soila izanik. Hona hemen zenbait adibide:

metro, segundo, kilogramo, volt, watt...

Izatez, fisikaren ikuspuntutik izen bakuneko unitateak bi motatakoak izan daitezke, aurreko adibideetan ere ikus daitekeenez. Batetik, oinarrizko unitateak ditugu –hala nola *metro, gramo...*– (eta oinarrizkoak direnez, unitate horiek ezin idatz daitezke beste oinarrizko unitate batzuen bidez), eta bestetik, oinarrizkoak izan ez arren ere (alegia, dimensionalki konposatuak izan arren eta oinarrizko unitateen bidez idatz daitezkeen arren), zientzialari baten oho-rezko izena duten magnitude ez-oinarrizkoak –hala nola, *volt, watt, pascal...*– (esate baterako, *watt* unitatea unitate konposatura da, eta halaber adieraz daitake *joule* unitatearen funtzioan, esanik *watt* bat *segundo* bakoitzeko *joule* batetako energia sortzen duen sistemaren potentzia dela, edo nahiago bada, $1 \text{ W} = 1 \text{ J/s}$ idatziz). Nolanahi den, [A] motako unitateak izen bakarraz adierazten dira guztiak.

Izen bakarraz adierazten direnez, ez dute inolako arazorik sortzen neurrien adierazpen sinbolikoak irakurtzeko, nahikoa baita lehenik zenbakia eta ondoren unitatearen izena irakurtzea, besterik gabe. Horren adibidetzat, ondo-ko taulan izen bakuneko zenbait unitateren adierazpen sinbolikoen irakurbidea agertzen da.

Magnitudea	Ikurra	Adierazpide sinbolikoa	Irakurbidea
denbora	t	10 s	hamar segundo
korronte elektrikoa	I	7:00 am	zazpi ampere
angelu laua	α	2π rad	bi pi radian
indarra	F	25 N	hogeita bost newton
erresistentzia elektrikoa	R	17 Ω	hamazazpi ohm

1.3.2. Izen konposatuko unitateak

Kasu honetan, unitateen izenak izen bakuneko zenbait unitate elkartuz eratzen dira, eta elkarrengan horretan eragiketa matematikoak (biderketa, zatiketa eta berreketa, preseski) daude tartean. Eragiketa matematikoak esplizituki adierazi behar dira, bai adierazpide sinbolikoan eta bai irakurbidean ere, eta horrek zenbait arazo sortzen ditu.

Lehenago azaldu dugunez, adierazpen sinbolikoan biderketak bokalen altuera erdiko puntu batez (\cdot) adierazten dira, eta zatiketak marra inklinatu batez (/), kasu bietan unitate bakunen artean tarterik utzi gabe. Halaber, unitateak berretura modura ager daitezke (berretzaile positibo zein negatiboekin). Zer esanik ez, unitateen irakurbidean kontuan izan beharko ditugu eragiketa horiek, hots, irakurri egin beharko ditugu. Irakurketa horrek zenbait arazo tekniko sortuko dizkigu, unitatearen egitura zein den kontuan hartuta. Horregatik, arazo horiei banan-banan irtenbideak emateko asmoz, hiru multzotan sailkatuko ditugu unitate konposatuak.

1.3.2.1. $[A] \cdot [B]$ motako unitateak

Kasu honetan *bider* terminoa erabil daiteke biderketa adierazten duen puntuadierazteko, nahiz eta termino horren elipsia ere egin daitekeen, ohi-turaz-eta termino horren aipamena ez baita beharrezkoa.

Magnitudea	Ikurra	Unitatearen adierazpidea	Irakurbidea
erresistibitatea	ρ	$\Omega \cdot m$	ohm (bider) metro
energia (elektrikoa)	E	kW·h	kilowatt (bider) ordu
lana	W	N·m	newton (bider) metro

Esan bezala, *bider* terminoa ez da zertan irakurri, implizituki ulertzten baino (estate baterako, *kilowatt ordu* esaten da normalean); horregatik idatzi dugu parentesi artean, irakurtzea ala ez aukeran dagoela adierazteko. Hala ere, hizkera teknikoan, *bider* terminoa eta guzti irakurtzea gomendatzen dugu arau orokor modura, interpretazio-arazorik ez sortzeko.

Batzuetan unitateetako bat berretura positibo modura ager daiteke. Horrelakoan *ber* terminoa gehi dezakegu eta ondoren berretzailea adierazten duen zenbakia esan, edota besterik gabe *karratu* edo *kubo* hitzak erabili, hurrengo adibidean ikus daitekeen bezala.

Magnitudea	Ikurra	Unitatearen adierazpidea	Irakurbidea
inertia-momentua	I	$\text{kg} \cdot \text{m}^2$	kilogramo (bider) metro ber bi / kilogramo (bider) metro karratu

1.3.2.2. $\frac{[A]}{[B]}$ edo $[A]/[B]^{-1}$ motako unitateak

Kasu honetan, idazketako bi aukera eta irakurketako hiru aukera ditugu unitatea irakurtzeko. Horietako bat hizkuntza arrunteko esamoldea da, baina beste biak irakurbide teknikoak dira, hizkuntza arruntetik urrun samar daudenak. Ikus dezagun nola joka daitekeen adibide arrunt batean, abiaduraren kasuan hain justu. Hauexek dira abiaduraren adierazpide sinbolikoak eta horri dagozkion hiru irakurbideak:

Magnitudea	Ikurra	Unitatearen adierazpidea	Irakurbidea
abiadura	v	m/s $\frac{\text{m}}{\text{s}}$ $\text{m} \cdot \text{s}^{-1}$	metro segundoko / metro zati segundo / metro (bider) segundo minus bat

Bestalde, lehenengo motako irakurbidea bi eratara antola daiteke hitzen ordenari dagokionez, ondoko koadroan ikus daitekeen bezala:

Neurria	Irakurbidea	Eskema
10 m/s	Hamar metro segundoko Segundoko hamar metro	Hamar $[A]$ $[B]$ -ko $[B]$ -ko hamar $[A]$

Bi irakurbideak zuzenak eta egokiak dira; hala ere, ene iritziz, bi irakurbide horiek bi ikuspuntu desberdin dagozkie. Izan ere, lehenengoa irakurbide soila da (lineala edo teknikoa, nahi bada), baina bigarrena gehiago da azalpena irakurbide soila baino (irakurbide analitikoa). Hortaz, bigarren era hori ego-kia da azalpenetan erabiltzeko, baina ez da oso praktikoa egitura bereko beste edozein unitateren kasurako (salbuespenak salbu, hala nola dentsitatearen kasua); preseski, ez du betetzen irakurbidearen «linealtasunaren printzipoa» (6) eta, ondorioz, desegokia da arau orokor modura. Zer esanik ez, ego-

(6) Linealtasunaren printzipoak dioenez, adierazpide sinbolikoetan sinboloak idazteko era-bili den ordena bera gordetzea komeni da irakurtzean ere. Printzipo hori nahiko ondo betetzen da hizkuntza guztietan adierazpide fisiko-matematikoen irakurbidean (salbuespen gutxi batzuk

kia izan daiteke irakaskuntza ertainera bitarteko ikasmaterialetan, bereziki kontzeptuak azaltzeko orduan, abiaduraren kasuan preseski, eta horrelaxe proposatua izan da *Ortotipografia* liburuan. Baino kasu hori salbuespen modura hartu behar dela uste dugu, mota horretako unitateen arteko simpleena baita. (Dena dela, geroago, 2.3. atalean, berriro aztertuko dugu arazo hau.)

Bestetik, abiadura-unitatearen bigarren eta hirugarren irakurbideak guztiz teknikoak dira, hizkera teknikoari dagozkionak, eta zehatzak eta hedagarriak dira mota honetako edozein unitateren kasuan; gainera, biek betetzen dute linealetasunaren printzipioa. Horregatik, oso baliagarriak dira bizitza arruntetik erabat aldenduta dauden magnitudeak adierazteko, eta hizkera teknikoan horiexek hobesten ditugu, orokorragoak, abstraktuagoak eta guztiz hedagarriak direlako. Unitatearen irakurbide teknikoak direla esango dugu. Bestalde, era bat baliokideak direla esan daiteke, eta unitateen adierazpidean bi erak erabilten diren modu berean, irakurbidean ere bi erak erabiltzen ditugu. Dena den, gehienetan praktikoena bigarren era da, alegia, «[A] zati [B]» eskemaren araberakoa, guztiz argia izateaz gain simpleena eta laburrena baita. Hortaz, horixe da proposatzen dugun irakurbidea, eta baita idatziz datozen testu teknikoenetan ere erabiltzeko, esamolde orokor modura.

Neurria	Irakurbidea	Eskema
10 m/s	hamar metro zati segundo	[A] zati [B]
10 m·s ⁻¹	hamar metro (bider) segundo ber minus bat	[A] (bider) [B] ber minus bat
8 N/m	zortzi newton zati metro	[A] zati [B]
8 N·m ⁻¹	zortzi newton (bider) metro ber minus bat	[A] (bider) [B] ber minus bat
5 m/s ²	bost metro zati segundo karratu	[A] zati [B]
5 m·s ⁻²	bost metro (bider) segundo ber minus bi	[A] (bider) [B] ber minus bat

Edonola ere, orain arte esandakoa neurriak bere hutsean adieraztean sortzen diren arazoei buruzkoa izan da. Egia esanda, kasu gutxi batzuetan horrelaxe agertzen dira, modu enuntziatibo hutsean; hain justu, gehienetan testu berruan integraturik agertzen dira, eta orduan bestelako arazoak sortzen dira neurrien deklinabideari eta joskerari dagozkienak. Arazo horiek geroago aztertuko ditugu neurrien deklinabideari eta joskerari buruzko ataletan. Ikuusiko dugunez, orduan ere irakurbide teknikoaren eta azalpenezko irakurbidearen arteko lehia agertuko zaigu.

salbu), eta neuk euskararako ere printzipio hori betetzea proposatzen dut, Martxel Ensunkak bere doktoretza-tesian egindako bidetik. Iku ENSUNZA, M.: *Ikur eta zeinu bidezko adierazpen matematiko-fisikoaren irakurbidea. Bilakaera historikoaren azterketa eta zenbait proposamen berri*, Tesi Doktorala, UPV-EHU, Bilbo, 2001.

1.3.2.3. $\frac{[A]}{[B] \cdot [C]}$ motako unitateak

Unitate hauen kasuan irakurbide teknikoa proposatzen dugu, zeren mota honetako unitateak dituzten magnitude fisikoak korapilatsuak baitira azalpena hitz laburretan eman ahal izateko; alegia, azalpenezko irakurbidea zaila gertatzen da, ondoko koadroan datorren edozein unitaterekin saiatuz gero ikus daittekeenez. Horregatik, alde batera utzik dugu azalpenezko irakurbidea eta zuzenean saiatuko gara irakurbide teknikoa erabiltzen.

Bestalde, irakubide teknikoari dagokionez orain arte aipaturiko bi aukeretatik, argi eta garbi kokatzen gara *zati* terminoa duen irakurbidearen alde. Hortaz, eskema hau erabiliko dugu kasu guztietan:

$$\frac{[A]}{[B] \cdot [C]} \rightarrow [A] \text{ zati } [B] \text{ (bider) } [C]$$

Gauzak horrela, hona hemen zenbait adibide:

Magnitudea	Ikurra	Unitatearen adierazpidea	Irakurbidea
biskositatea	μ	$\frac{\text{kg}}{\text{m} \cdot \text{s}}$	kilogramo zati metro (bider) segundo
permitibilitatea	ϵ	$\frac{\text{C}}{\text{m} \cdot \text{V}}$	coulomb zati metro (bider) volt
eroankortasun termikoa	λ	$\frac{\text{W}}{\text{m} \cdot \text{K}}$	watt zati metro (bider) kelvin

1.3.3. Neurri adimentsionalak

Orain arte aipaturiko unitateek egitura dimentsional jakina izan dute. Bestela esanda, analisi dimentsionalak ematen digu magnitude bakoitzaren egitura. Badira, ordea, dimentsiorik gabeko magnitudeak, berez dimentsio bereko magnitudeen arteko erlazio batez lorturikoak; hortaz, neurri erlatiboak dira, nolabait esateko. Horrelakoak dira angeluak eta portzentajeak. Zernahi gisaz, izaera berezikoak eta desberdinakoak direnez, arazo bereziak sortzen dituzte, eta horregatik bereziki aztertzea komeni da.

1.3.3.1. Angeluak

Bai angelu lauak eta bai angelu solidoak ere magnitude adimentsionalak dira, zirkunferentzia-arkuaren eta erradioaren arteko arrazoia (edo *ratioa*) eta

gainazal esferiko baten azaleraren eta esferaren erradioaren karratuaren arteko arrazoia adierazten dutenak, hurrenez hurren. Dimentsiorik gabeko neurri erlatibo horiek, ordea, izen jakineko unitateak dituzte. Betidanik erabilitako gradu ($^{\circ}$), minitu ($'$) eta segundo ($''$) hirurogeitarrez gain, nazioarteko sistemakoak *radian* (angelu laua) eta *estereorradian* (angelu solidoa) izeneko unitateak ditugu; alde horretatik, unitate bakun modura har daitezke, hots, [A] motako unitatetzat.

Nolanahi den, salbuespen txiki bat aipatu behar da angelu-unitateen idazkerari dagokionez, bi arau desberdin baitaude kasu honetan, unitateak zein neurri-sistematakoak diren kontuan izanik. Batetik nazioarteko sistemako unitateak ditugu, hots, radiana eta estereorradiana. Unitate horiek zeinek bere laburdura sinbolikoa dute, eta gainera, dimentsiodun unitateak bezala, zenbakiaren ostean idazten dira, zenbakiaren eta sinboloaren artean tarte bat utziz, honelaxe:

$$2\pi \text{ rad}; 4 \text{ rad}; \pi \text{ sr}; 2,5 \text{ sr}$$

Baina sistema hirurogeitarreko angeluak idaztean, salbuespena gertatzen da, zeren zenbakien eta sinboloen tartearen ez baita tarterik utzi behar; ordea, adierazpen konplexuan, tarte bat utzi behar da sinboloaren ostean, hurrengo zenbakira bitartean, honelaxe:

$$90^{\circ}, 25^{\circ} 32' 45'', 23' 17''$$

Bestalde, aurreko neurrietan ikus daitekeenez, gradu ($^{\circ}$), minitu ($'$) eta segundo ($''$) sinboloak eskuinaldeko goi-indizeen posizioan idazten dira.

1.3.3.2. Portzentaje motako magnitudeak

Portzentaje motako magnitudeak kantitate bati erreferentzia egiten diotena dira, eta izatez, neurrikorik balioaren eta erreferentziakorik balioaren arteko zatidura adierazten dute; hots, dimentsiorko gabekoak dira hauexek ere. Erreferentzia modura gehien erabiltzen direnak 100, 1 eta 1.000 zenbakiak dira. Hortik datoz «ehunekobesteak» edo «portzentajeak» (%), «tanto por ciento» gaztelaniaz, «tant pour cent» frantsesez) eta «batekobesteak» («tanto por uno») eta «milakobesteak» (‰, «tanto por mil»); baina zientzian bestelakoak ere erabiltzen dira «milioikobesteak» (ppm, «parts per million») eta «bilioikobesteak» (ppb, «parts per billion») adibidez.

Euskaltzaindiak erabakia hartu du portzentajeen erabilera dagokionez. *Ortotipografia* liburuan diotenez, bi puntutan zehazten da erabaki hori. Laburbilduz, hauexek dira puntuok:

- Portzentajeak adierazteko sinboloa, %, zenbakiaren aurretik idatziko da.
- Sinbolo hori «ehuneko» irakurtzen da, eta horren ostean portzentajea adierazten duen zenbakia irakurtzen da: «% 10 = ehuneko hamar».

Hala ere, zenbait ohar egitea komeni da, irakasmateriala prestatzean matematikaren arloan sor daitezkeen arazoak kontuan hartzeko. Hona hemen:

- Erabaki horiek egokiak dira neurri portzentual osoa irakurtzean, alegia, sinbolo eta guzti irakurtzean, horixe baita euskara arruntean hitz egitean erabiltzen den ordena. Hortaz,

% 15 → ehuneko hamabost

- Edozein kasutan, bada arazo bat terminoaren izendapenari dagokionez. Izan ere, matematikan «ehunekoak» terminoa «hamarrekoak», «milakoak» eta antzekoekin batera erabiltzen da, portzentajeari dagokion kaskoak ez bezalako adiera batean. Zehazkiago esateko, esanahiari dagoionez, adiera honekin:

hamarreko = hamar unitateren multzoa (gazt. «decena», fran. «dizaine»)

ehuneko = ehun unitateren multzoa (gazt. «centena», fran. «centaine»)

milako = mila unitateren multzoa (gazt. «unidad de mil»/ «millar», fran. «millier»)
Eta berdin *hamarmilako*, *ehumilako*, *milioiko*, *bilioko*...

Hortaz, nahastea sor daiteke «ehuneko» hitza bere hutsean adieraztean, ez baita argi geratzen «ehun unitate» edo «ehuneko erreferentzian zenbait unitate» adierazi nahi dugun. Horregatik, termino modura egokiatuztak ditugu «ehunekobeste/ehuneko hainbeste», «batekobeste/bateko hainbeste» eta «milakobeste/milako hainbeste» gaztelaniazko «tanto por ciento», «tanto por uno» eta «tanto por mil» esateko, hurrenez hurren, bikoitzasunagatik sor daitezkeen nahasteak saihesteko.

- Egia esanda, Euskaltzaindiak ez du finkatu sinboloaren eta zenbakiaren artean tarterik utzi behar den ala ez. Ordea, *Ortotipografía liburuan* tartea uzteko proposamena dago. Ondo deritzogu, inguruko hizkuntzetan ere tartea uzteko joera baitago.
- Sinboloa zenbakiaren aurretik jartzea dela eta, Euskaltzaindiaren era-bakiak urrundu egiten gaitu nazioarteko joeratik, guk dakigula bederen, idazkerari dagokion arauak atzetik idaztea eskatzen baitu (7 %, kasurako). Besterik da nola irakurri behar den, eta horretan ez dago zalantzak, hizkuntza bakoitzaren senaren arabera egiten baitira gauzak. Bestalde, badakigu euskaraz ordena horrek zenbait abantaila dituela deklinabidearen atzikia gehitzerakoan. Dena den, bego bere horretan Euskaltzaindiaren erabakia, baina bego, halaber, horretan nazioarteko arau orokorreko salbuespen modura jokatzen dugula gogoratzea.

1.3.4. Maila adierazten duten unitateak (temperatura-graduak)

Mota honetako unitateek ez dute kantitate bat adierazten, hitzarmenez jarritako eskala bateko kokapena baizik; horrelakoa da, adibidez, temperatura.

Hori dela eta, kontzeptualki ezin erabil daiteke *ukan* aditza kantitate horiek adieraztean; hots, kontzeptualki, desegokia da «gorputz batek 10 °C dituela» esatea, eta esatekotan «gorputzaren temperatura 10 °C dela» edo «gorputzaren temperatura 10 °C-koa dela» esan behar da. Hain zuzen, temperaturaren adierazpideari dagokionez, adibide hau dakar *Ortofotografia* lanak, egokiro jarria:

Uraren temperatura 82 °C bada, zenbat gradu falta zaizkio irakiten hasteko?
Hau da, zenbat gradu falta zaizkio 100 °C-ra iristeko?

Temperatura adierazteko sinbologia dela eta, hiru ohar egin behar dira, sarri ikusten diren tipografia-akatsak zuzentzeko:

- Celsius, Reamur eta Fahrenheit eskalak erabiltzean, gradua adierazten duen ° sinboloa zer eskalakoa den adierazten duen letraren ezkerraldean idatzi behar da, sinboloaren eta letraren artean tarterik utzi gabe. Honekaxe: °C, °R, °F, hurrenez hurren. Eta irakurtzean, *Celsius gradu, Reamur gradu eta Fahrenheit gradu* esaten da. Dena den, ez da °C idatzi behar, alegia, ° sinboloaren azpian ez da marrarik jarri behar, sarri ikusten den bezala.
- Gainerako unitateen sinboloen kasuan bezala, zenbakiaren ostean tartea utzi behar da. Era honetan:

100 °C, 25 °R, 410 °F

Tarte hori dela eta, nahastea sortzen da batzuetan, angeluak adierazteko graduen sinboloa kasuan bestela jokatzen baita. Hain zuzen, lehenago 1.3.3.1. azpiatalean azaldu dugun bezala, angeluen kasuan, graduak adierazten dituen sinboloa zenbakien eskuinean idazten da, tarterik utzi gabe (eta berdin egiten da minutu eta segunduak adierazteko sinboloekin). Hau da:

60°, 20', 35" (adierazpide bakunak),
25° 15' 36" (adierazpide konplexua)

- Ostera, Kelvin eskalan (hots, temperaturaren eskala absolutuan) gradua- ren adierapen sinbolikoa K da, graduen ° sinbolorik gabe. Esate baterako,

273 K, 325 K

Halaber, irakurtzean ez da gradu hitza esaten, eta *berrehun eta hirurogeita hiru kelvin* irakurtzen da, huts-hutsean.

1.3.5. Magnitude intentsiboak eta magnitude estentsiboak

Fisikaren ikuspuntutik –Termodinamikaren arloan bereziki– bestelako irizpide baten arabera ere sailkatzen dira magnitudeak, puntutik punturako ba-

lioak batugarriak diren ala ez kontuan hartuta. Horrek zer esan nahi duen uler-tzeko, bi magnituderen bidez azalduko dugu kontzeptua; hain zuzen, presioa magnitude intentsiboa (edo batuezina, hots, «metaezina») da, eta bolumena, estentsiboa (edo batugarria, hots, «metagarria»). Izan ere, orekan dagoen sistema termodinamiko baten presioaren balioa berbera da edozein puntutan, eta ez dira batzen sistema horretako puntuen presioak; alegia, presioa ez da magnitude batugarria, eta hortaz, intentsiboa dela esaten da. Ostera, bolumenarekin ez da gauza bera gertatzen. Sistema osoko bolumen txikiak, partez parte, batu egiten dira sistema osoaren bolumena lortzeko; hots, bolumena magnitude batugarria da, hots, magnitude estentsiboa. Horrelaxe sailka daitezke beste magnitude termodinamikoak ere; kasurako, barne-energia eta entropia magnitude estentsiboa dira eta temperatura magnitude intentsiboa da.

Neurrien idazkera sinbolikoari dagokionez, intentsiboa izan edo estentsiboa izan ez da inolako desberdintasunik, baina, aditzaren komunztadurari dagokionez, bereizi egiten dira normalean; izan ere, magnitude intentsiboa singularrean jokatzen dira beti eta magnitude estentsiboa batzuetan singularrean eta besteetan pluralean, esamoldeen arabera.

2. NEURRIEN DEKLINABIDEA ETA JOSKERA

Aurreko atalean neurrien adierazpide sinboliko hutsari buruz aritu gara, eta ikusi dugunez, nazioarteko arauak betetzeko erabakia hartuz, arau horiek ikasi eta bete besterik ez dago. Horretan ez da arazorik sortzen, bizpahiru ñabardura izan ezik. Arazoak, ordea, neurri horiek euskarazko egituretan eta testuetan integratzean azaltzen dira (hots, irakurtzean eta testuen barruan idaztean), orduan euskarara egokitu behar baititugu, edota euskara bera egokitu behar baitugu ordura arte ohikoak izan ez diren esamoldeak sortzeko. Hain zuzen ere, bi arlotan agertuko zaizkigu problemak, batetik, deklinabide-atzizkiak gehitzen ditugunean eta, bestetik, deklinaturiko neurri unitatedunak esaldien barneko beste hitzakin lotzen ditugunean. Neurrien deklinabidea eta joskera izango dira, hortaz, euskaraz bereziki egokitu eta erabaki beharko ditugunak.

2.1. Neurrien deklinabidea idazteko arau orokorra

Zenbaki batek eta unitate-sinbolo batek osaturiko izen-sintagma deklinatu egiten da bere osotasunean, euskarazko izen-sintagmekin egin ohi den moduan (izatez, *zenbatzailea + izena* motako izen-sintagma da). Hortaz, idaztean, bada arau orokor bat, erabiltzaileen adostasuna bereganatu duena. Hain zuzen, arau hori da azken urteotan ohikoa izan dena eta *Ortotipografia liburu*an proposatzen dena, honako hau alegia: «*deklinabide-atzizkia sinboloaren*

ondoren idazten da, unitate-sinboloari marratxoz erantsita». Hona hemen zenbait adibide:

15 km-ra, 5 kg-ko, 3 N/cm²-tik, 7 kW-eko...

Arau horrek sortzen duen arazo bakarra, unitatearen izenaren amaierako letra dela-eta atzizkiari lotu beharreko *e* epentetikoa da, hots, 5 kg-ko eta 7 kW-eko kasuetan zergatik batean *-e-* idatzi eta bestean ez. Araua euskarazko deklinabidean dago, hitza bokalez edo kontsonantez bukatzen den hartu behar baita kontuan *e* epentetikoa satzeko edo ez sartzeko. Agerikoa denez, erantzuna ere bide beretik doa, zeren *bost kilogramo* denez, deklinatzean *bost kilogramoko* behar baitu, eta *zazpi kilowatt* denez, ordea, *zazpi kilowatteko* beharko baitu. Hortaz, honelaxe idatziko ditugu:

5 kg-ko baina 7 kW-eko

Horraino ados. Nolanahi den, arazoa sortzen da 1 zenbakiarekin. Izan ere, neurriaren balioa zenbaki horren bidez adierazten dugunean, alderantziz jokatzen baitugu neurria bere osotasunean idazteko eta irakurtzeko. Hain justu, lehenago 1.2. atalean azaldu dugunez, idazteko orduan nazioarteko araua beteko dugu, baina irakurtzeko orduan euskara arruntean erabiltzen den joskeraz baliatuko gara, hots:

«1 kg» idatziko dugu, baina «kilogramo bat» irakurriko dugu.

Beraz, zer jokabide hartuko dugu kasu horretan deklinabide-atzizkia gehitzean? Geure praktikan neurriak irakurtzean euskararen joskera erabiltzen dugunez, logikoa dirudi atzizkiekin ere era berean jokatzea. Eta horren arabera, «kilogramo bateko» esaten dugunez, «1 kg-eko» idatzi beharko genuke, *e* epentetikoa eta guzti, izatez *-eko* baita *bat* hitzari gehituriiko atzizkia. Hain zuzen, bertan puntu hau espresuki azaltzen ez bada ere, implizituki horixe da *Ortotipografía* liburuan proposatzen dena, horrelaxe agertzen baita testu barruko adibideetan, hala nola kasu hauetan:

Makila bakoitzak 50 cm-koa bada, zenbat makila sartuko dira 1 km-ean?

Kilo laurdenak 40 euro balio baditu, zenbat balio du 1 kg-ek?

5 € lituzke orduan, 1 €-en ordez

Nik neure zalantzak ditut erabaki horretan, baina bego, zeren, arau bat zein bestea erabaki, beti egongo baita antisimetriaren bat. Beraz, kasu horretan honelaxe idatzi beharko dira neurri deklinatuak:

1 km-ean, 1 kg-ek, 1 €-en, 1 cm-eko...

Honelatan, bada, orain arteko proposamenetan, ia-ia erabateko adostasuna dagoela esan dezakegu. Ikasmateriala idazten dihardugunok eta erabiltzai-leok ados gaude arau horiek betetzeko orduan. Dena den, hurrengo azpiatalean ikusiko dugunez, horrekin ez da kontua bukatzen; izan ere, unitatedun neurriak esaldietan kokatzean arazoak azalduko dira, eta joskerazko irtenbide

desberdinaren arteko zalantzak agertuko zaizkigu, esamolde estandarrak aurkitzeko orduan; zalantzak, esamoldeak euskara zuzen eta egokizkoak diren jai-kiteko, eta zalantzak, irtenbide egokienak aukeratzeko.

2.2. Joskerazko arazoak eta aukerak neurriak adierazteko

Ohiko esamoldeak era deklaratiboan egiten direnean –alegia, objektuen edo magnitudeen neurriak zein diren era zuzenean adierazi nahi dugunean–, zenbait eratako esamoldeak erabiltzen dira, jarraian adieraziko ditugunak.

Ene ustez, esamolde horiei dagokienez, bi motatako arazoak ditugu plan-teaturik: batetik, argitu beharra dugu ea esamolde horiek guztiak egokiak diren euskaraz edota horietako batzuk gramatikaren ikuspuntutik desegokiak diren, eta bestetik, erabaki egin beharko dugu ea horien arteko esamolderen bat bultzatzea eta nagusi modura finkatza komeni den (izatez, arlo jakinetan horietako batzuk nagusitzen ari direla dirudi). Gauzak horrela, ikasmaterialetan noizbait erabilitako erak sailkatuko ditut, aukerak zein diren kontuan hartzeko eta ondoren horien azterketa egiteko. Hona hemen esamoldeak sailkaturik:

- 1a Kalea 500 m luze da / (?) Kalea 500 m da (7)
- 1b Kalea 500 m-koa da
- 1c Kaleak 500 m du/ditu
- 1d Kaleak 500 m-ko luzera du
- 1e * Kaleak 500 m neurzen du (8)
- 2a Azalera 18 dm² da / Presioa 40 N/cm² baliokoa da
- 2b Azalera 18 dm²-koa da / Presioa 40 N/cm²-koa da
- 2c Gainazalaren azalerak 18 dm² balio du/ditu / Balbulako presioak 40 N/cm² balio du/ditu

Aurreko esamoldeetan, gramatika-izaeraz gain, fisikaren ikuspuntutik oso kontuan hartzekoa da hitzen semantika. Izan ere, esaldi horien subjektuak bi kategoria oso desberdinak dira. Horregatik, bi multzo nagusitan sailkatu ditut (1 eta 2 multzoak), bakoitzean kasu desberdinak konsideratuz. Preseski, lehenengo bost esaldietako subjektua neurrtua den objektuaren izena da (kasu honetan, *kalea*) eta posible da, neurria zehazteaz gain, neurri mota ere zehaztea; ostera, azken hiru esaldietako subjektua neurrik magnitudearren izen abstraktua da (*azalera, presioa*), hots magnitudearren izaera zehazturik dago lehen unetik. Beraz, semantikaren ikuspegitik, oso desberdinak dira esaldiak, baita fisikaren ikuspuntutik ere. Eta horrek desberdin egiten ditu baita joskerari dagokionez ere; esate baterako, hori dela eta, posible da lehenengo lau

(7) Kasu honetan, (?) ikurra aurretik jarritz, esaldi hori zalantzakotzat dudala adierazi nahi dut.

(8) Hemen, * zeinua jarritz, esamoldea desegokia dela adierazi nahi dut.

esaldietan (hots, 1 multzokoetan) magnitudeari buruzko erreferentzia gehigarria egitea, honelaxe hain zuen:

- 1a Kalea 500 m **luze** da / Kalea 10 m **zabal** da / Igerilekua 2 m **sakon** da
- 1b Kalea 500 m-koa da **luzean/luzeran**
- 1c Kaleak 500 m du **luzean/luzeran**
- 1d Kaleak 500 m-ko **luzera** du

Ordea, erreferentzia hori sobera dago azken hiru esaldietan, magnitudeara aipatzen baita (*azalera, presioa*), nahiz eta magnitudearen aurretik zein objekturi dagokion zehatz daitekeen (*gainazalaren azalera, balbularen/balbulako presioa*).

Ohar berezia merezi du bosgarren esamoldeak. Ene ustez, azken urteotan jendartean zabalduz doan laugarren esamolde hori desegokia da, erdaratiko kalko ez-beharrezko baten emaitza baita, geroago 4. atalean *neurtu* aditzari buruzko oharrak azaltzean aipatuko dudanez. Horregatik jarri diot * zeinua au-rrean, gutxienez zalantzakoa dela adierazteko.

Esandako bereizketa semantikoa kontuan izanda, joskerari dagokionez, zortzi egitura hauek erabiltzen dira (edo erabil daitezke) neurriak adieraztean:

- 1a. «*Objektuaren izena + neurria + (magnitudeari buruzko adjektiboa) + da*»
 - Kalea 500 m luze da.
 - (?) Kalea 500 m da
- 1b. «*Objektuaren izena + neurria + -(e)koa + da*»
 - Kalea 500 m-koa da
- 1c. «*Objektuaren izena ergatiboan + neurria + du/ditu*»
 - Kaleak 500 m du/ditu
- 1d. «*Objektuaren izena ergatiboan + neurria + -(e)ko + magnitudearen izena + du*»
 - Kaleak 10 m-ko zabalera du
- 1e. * «*Objektuaren izena ergatiboan + neurria + neurtzen du/ditu*»
 - * Kaleak 500 m neurtzen du/ditu
- 2a. «*Magnitudearen izena + neurria + (baliokoa) + da*»
 - Presioa 40 N/cm² da
 - Presioa 40 N/cm² baliokoa da
- 2b. «*Magnitudearen izena + neurria + -(e)koa + da*»
 - Azalera 18 dm²-koa da
 - Presioa 40 N/cm²-koa da
- 2c. «*Magnitudearen izena ergatiboan + neurria + balio du/ditu*»
 - Gainazalaren azalerak 18 dm² balio du/ditu
 - Presioak 40 N/cm² balio du / * Presioak 40 N/cm² du (!!!)

Aurreko bereizketa argigarria gerta daiteke, sarri euskaraz «jatorragotzat» hartzen den esamoldearen izaera kontuan hartzen denean. Esate baterako, *Ortotipografia* lanean -(e)ko atzirkirik gabeko forma erabilienak aurkezten ditu, kasu guztietan *Orotariko Euskal Hiztegi*ko corpusetik harturiko adibideak aipatuz. Dena den, adibide horiek aurreko irizpidearen arabera aztertuz gero, guztiak lehenengo motakoak direla konturatuko gara; alegia, guztien egitura 1a motakoa da. Hots, objektuaren izena da esaldiaren subjektua (nahiz eta kasu batzuetan elipsia egiten den) eta esaldian magnitudearen izaerari dagokion adjektiboa (edo erreferentzia egiten duen hitza) azaltzen da. Hona hemen liburu horretan aipaturiko adibideak (letrakeria lodia guk jarritakoa da):

- 380 metro **luze** zan eta 290 metro **zabal** (Anabitarte)
- amabi-amalauna metro **luze** (Erkiaga)
- ogei bat metro **luze** / bazan hamasei metro **luze** (Munita)
- Zenbat legua **bide** egin biar dozak? (Otxolua)
- 24 ordutan 20 legua **bide** egin (Orixe)
- bost legua **bide** baizik ez zegoan (Lardizabal)
- zortzi legua **bide** dagoelarik batetik bestera (Iztueta).

Zer esanik ez, esamolde hori euskara onekoa da, «jatorra» nahi bada, baina arazoak ditu mota desberdinak magnitudeetara hedatzeko, ez baitago argi zein izan daitekeen magnitudeari dagokion erreferentziazko adjektiboa edo hitza. Izan ere, aurreko esaldiak aztertuz kontura gaitezkeenez, kasu guztietan aipatzen den magnitudea *luzera* da (analisi dimentsionalean, [L]). Horregatik erraz egiten zaigu erreferentzia (*luze, zabal, sakon, bide, garai...*) aurkitzea (9). Baina zer erreferentziazko hitza erabil ote dezakegu beste edozein magnitude fisiko adierazteko, kasurako, azalera, bolumena, presioa, indarra, erresistentzia elektrikoa... adierazteko? Ez dirudi hortik irtenbiderik dagoenik. Eta ez pentsa eguneroko bizitzan gutxi erabiltzen diren edo fisikaren arloan soilik erabiltzen diren magnitudeez ari garenik. Esate baterako, hor dugu aditzaren ikuspuntutik ere hainbat arazo sortzen dizkigun *pisua*. Zer adjektibo erabili beharko genuke *pisua* adierazten duen esamoldean? Honelaxe esan beharko ote genuke?

- 1a Mikel 70 kg **pisu** da (10) / Mikel 70 kg **astun** da (??) / Mikel 70 kg da (!!)

(9) Angelu lauak ere mota honetako unitateak dira. Hain zuzen, «angelu hori 45° **zabal** da» esan daiteke, angeluak planoak harturiko eskualdearen «zabalera» adierazten baitu. Dirudinez, esamolde hori magnitude geometriko linealen kasuan aplika daiteke.

(10) Jazinto Iturbe adiskideak berriki informatu didanez, *Herria* aldizkarian behin baino gehiagotan azaltzen dira mota horretako esamoldeak. Hona hemen, adibidez, berak bidalitako bi adibide:

Txibi erraldoi horrek zazpi metra pasako zabaldura ukanki eta 104 **kilo pisu**. Holakoak Asturietako itsas-aldean kausitzen dira baina... («Kostaldeko berri», 2001-XI-1, 2. or.) ...alimaleko itsas-aingira, mota hortako arrain guti ikusten baita hein hortakoa denik! Pentsa, 38 **kilo pisu**, ez baita harritzeko holako arraina ezin menperatuz... («Kostaldeko berri», 2004-IV-21, 2. or.)

Nahiz eta lehenengoa egokia izan daitekeen (baina pisuaren kasurako soilik), ziur asko, kasu horretan bestelako esamoldea aukeratuko genuke, adibidez hauetariko bat:

- 1b Mikelek 70 kg du/ditu
- 1d Mikelek 70 kg-ko pisua du
- 1e * Mikelek 70 kg pisatzen du/ditu
- 2b Mikelen pisua 70 kg-koa da

Itxura batean, gaur egun, 1e motako esamoldea lekua irabazten ari da jendearen ahoan, nahiz eta, 4. atalean ikusiko dugunez, kalko desegokitzat harzen dugun; hortaz, baztertzekoa.

Esandakoaren arabera, ene ustez, soluzio estandarra(k) proposatzeko orduan, oso kontuan eduki beharko dugu esamoldearen hedagarritasunerako ahalmena. Hain zuzen ere, horixe baita 1a motako egiturak duen arazo nagusia –luzeraz kanpoko magnitudeetarako hedagarria ez izatea, alegia–, eta ziurrenik ere horrexegatik saiatu dira erabiltzaileak bestelako esamoldeak biltzen, edozein magnituderen kasuan baliagarriak izan daitezkeenak.

Zernahi gisaz, aurreko esaldiak ez dira soilik esaldi nagusi modura agertzen. Gehiago oraindik, ikasmaterialetako testuetan gehienetan menpeko esaldi modura agertzen dira, bereziki problemen enuntziatuetan, eta horrelakoetan alderantzizko ordenako esamoldeak erabiltzen dira. Honako hauek, preseski:

- 1a. «Neurria + (*magnitudeari buruzko adjektiboa*) + den + *objektuaren izena*»
500 m luze den kalea / (?) 500 m den kalea
- 1b. «Neurria + -(e)ko + den + *objektuaren izena*» / «Neurria + -(e)ko + *objektuaren izena*»
500 m-ko den kalea / 500 m-ko kalea
- 1c. «Neurria + du/dituen + *objektuaren izena*» / «Neurria + -(e)ko + *objektuaren izena*»
500 m duen/dituen kalea / 500 m-ko kalea
- 1d. «Neurria + -(e)ko + *magnitudearen izena* + duen+ *objektuaren izena*» / «Neurria + -(e)ko + *magnitudearen izena* + -(e)ko + *objektuaren izena*» / «Neurria + -(e)ko + *magnitudearen izena* + -dun + *objektuaren izena*»
10 m-ko zabalera duen kalea / 10 m-ko zabalerako kalea /
10 m-ko zabaleradun kalea (11)

(11) Deklinabidean sortzen diren -ko atzizkiaren errepikapenak ekiditeko, sarri -ko eta -dun atzizkiak konbinatzeten dira hitzen segidetan. Esate baterako, «**buruko ile luzedun** neska», «**elurezko** esku **zuridun** panpina». Honetaz, M. Azkaratek eta P. Altunak 1992an argitaraturiko lana kontulta daiteke: «-ko/-dun atzizkiez», Iker 6. Euskaltzaindia.

- 1e. * «*Neurria + neurten duen+ objektuaren izena*»
 * 500 m neurten duen kalea
- 2a. «*Neurria + (baliokoa) + den + magnitudearen izena*»
 40 N/cm² baliokoa den presioa / (?) 40 N/cm² den presioa
- 2b. «*Neurria + -(e)ko + magnitudearen izena*» /
 «*Neurria + -(e)koa + den + magnitudearen izena*»
 18 dm²-ko azalera / 18 dm²-koa den azalera
 40 N/cm²-ko presioa / 40 N/cm²-koa den presioa
- 2c. «*Neurria + balio duen + magnitudearen izena*»
 18 dm² balio duen azalera / 40 N/cm² balio duen presioa

Dena dela, eguneroko praktikan ikusten dudanez, irakaskuntzako erabil-tzaileen artean kasu honetan joera dago perifrasiaiak saihesteko, eta aditzik gabeko formak erabiltzeko, bereziki hauek:

- 1b/1c. 500 m-ko kalea
 1d. 10 m-ko zabalerako kalea / 10 m-ko zabaleradun kalea
 2b. 18 dm²-ko azalera / 40 N/cm²-ko presioa

Ikus daitukeenez, kasu guztietan -(e)ko atzizkiaren bidezko esamoldeak hobesten dira praktikan. Horrek ez du esan nahi bestelako esamoldeak ere era-biltzen ez direnik, eta baldintza jakin batzuetan hobestekoak ez direnik.

Ikasmaterialaren prestakuntzarako aholkuak ematen hasita gaudenez (aholkuak entzuteko inor badago, behintzat), badirudi egokia litzatekeela esa-molde horien estandarizaziorako erabakiak hartzea edo gomendioak ematea,, testuen idazleek eta erabiltzaileek zer egin jakin dezaten. Nik neuk esango nuke esamolde guztiak dutela beren lekua euskara estandarrean, 1e motako esamoldeek izan ezik; horiek kalko desegokitzat hartuko nituzke, eta ahalegi-na egingo nuke ikasmaterialetatik kentzeko (besterik da, erabiltzaileen artean erabaki hori praktikan kontuan hartuko ote den). Halaber, alde batera utziko nituzke (?) simbolekin markaturiko esamoldeak.

Dena den, hedagarritasunaren printzipioa kontuan hartuta, agian esamol-derik malguenak 1b, 1d, 2b eta 2c esamoldeak dira esaldi nagusietan, eta 1b, 1d eta 2b esamoldeak menpeko esaldien kasuan. Alegia, esaldi nagusietan esa-molde hauek:

- 1b Kalea 10 m-koa da
 1d Kaleak 10 m-ko zabalera du / Balbulak 5 atm-ko presioa du
 2b Presioa 40 N/cm²-koa da / (?) Presioa 40 N/cm² da
 2c Presioak 40 N/cm² balio du

eta menpeko esaldietan honako hauek:

- 1b 10 m-koa den kalea / 10 m-ko kalea
- 1d 10 m-ko zabalera duen kalea / 10 m-ko zabaleradun kalea
5 atm-ko presioa duen balbula / 5 atm-ko presiodun balbula
- 2b 5 atm-ko presioa

Horrek ez du esan nahi besteak erabili behar ez direnik, baizik eta auke-ratutako esamoldeak magnitude fisiko guztien kasuan erabil daitezkeela. Hor-tik dator praktikotasuna; baita nire proposamena ere. Edonola ere, gai hau gehiago eztabaидatzeko premia dagoela uste dut, eta proposamen hauek abia-puntu egokia izan daitezke horretarako, gomendioak ahalik eta gehien zehaz-teko bidean.

2.3. Irakurbide lineala vs. irakurbide analitikoa (12)

Normalean, unitate bakunen kasuan ([A] motako unitateak) ez da arazo berezirik sortzen, eta aski da aurreko azpiatalean adierazitako jarraibideak kon-tuan izatea. Unitate konposatuak direnean, ordea, problemak sortzen dira uni-tatearen beraren irakurbidea esaldi barruan integratzeko (bereziki, [A]/[B] eta [A]/[B]-[C] motako unitateen kasuan). Arazoa nolakoa den konturatzeko, bi adibide hauek hartuko ditugu abiapuntu modura:

- 10 m/s-ko abiadura
- 40 N/cm²-ko presioa.

Lehenengoaren kasuan, irakurbide analitiko bat eta bi irakurbide lineal ditugu aukeran, honako hauek hain justu:

- 10 m/s-ko abiadura → segundoko hamar metroko abiadura (irakurbide analitikoa)
- hamar metro segundoko(ko) abiadura (irakurbide lineala – I)
- hamar metro zati segundoko abiadura (irakurbide lineala – II).

Lehenak euskarazko joskera jatorrarekin jokatzen du, eta, agian horrega-tik, kasu horretan ez da arazo handiegirik sortzen, lehenago 1.3.2.2. azpiata-lean aipaturiko linealtasunaren araua hankaz gora uzten duela izan ezik. Hain zuzen, *Ortotipografía* liburuan irakurbide analitikoaren aldeko apostua egiten

(12) Zalantza izan dut izendapen hauek aukeratzeko orduan. «Irakurbide lineala» erabili or-dez, agian, «irakurbide trinkoa» edo «irakurbide teknikoa» erabil daiteke, zeren horrekin adiera-zti nahi baita teknikan eta teknikarien artean modu trinko eta praktikoan adierazi nahi dela unita-tea; hots, ez hainbeste gramatikaren legeen arabera, sinboliogiai markatzen duen bidetik baizik. Bestalde, «irakurbide analitikoa» erabili ordez, «azalpenezko irakurbidea» ere erabili izan dut inoiz; izan ere, irakurbide hori azalpenak ematean erabiltzen baita, unitatearen esanahia esplika-tu nahi denean.

dela dirudi, gutxienez tartean deklinabideko atzizkiak daudenean, honako testu honetatik ondoriozta daitekeenez:

- Honela irakurri behar dira abiaduraren kontuak:

Zenbat galderari dagokionean (hots, absolutiboa), 6 m/s irakurtzeko, bietara esan daiteke: «segundoko sei metro» nahiz «sei metro segundoko». Berdin berdin jokatuko da km/h sinboloarekin: 100 km/h «orduko ehun kilometro» nahiz «ehun kilometro orduko».

Neurri-izen horiek deklinabide-atzizkia daramatenean, ordea, ez dago irakurketaren ordena aldatzeko aukerarik. Honela irakurri behar dira: 6 m/s-tik «segundoko sei metrotik», 4 m/s-ra «segundoko lau metrora», 100 km/h-an «orduko ehun kilometroan»...

Jakina, *zenbateko* galderari dagokionean, *-e(ko)* erantsi behar zaio: 6 m/s-ko abiadura «segundoko sei metroko abiadura» da, eta abar.

(*Ortotipografia*, 42-43. or.)

Honaino aipamena. Dena den, ene iritziz, lan horretan salbuespenezko tratamendua ematen zaio *abiadura* magnitudeari, alde batera utziz problema bera dutela [A]/[B] eta [A]/[B]-[C] motako unitate guztiak. Bestalde, esan gabe baina, irakurbide analitikoaz ari direla uste dut; eta irakurbide linealaren posibilitatea ez dutela konsideratzen. Ostera, uste dut magnitude guztientzako irtenbide komuna bilatzen saiatu behar dela, salbuespenezko irtenbideak kasu bereziatarako utziz; horregatik, irtenbide lineala erabiltzea komeni dela uste dut, mota bereko unitate guztien kasurako hedagarria delako hain justu. Eta horrelaxe planteatzen dut, jakin arren abiadura bizitza arruntean ageri den magnitudea dela, eta horregatik kasu horretan salbuespenea ere egin beharko dela, agian. Dena dela, erabakiaren irtenbidea irakurbide lineala eta irakurbide analitikoa, biak, onartzetik etor daiteke, testuaren sortzailearen eskuetan utziz noiz irakurbide lineala erabili eta noiz analitikoa, esamoldearen korapilotasuna kontuan hartuta.

Preseski, bigarren adibidearen kasuan, irakurbide analitikoa korapilatsuaga da (baita kontzeptualki ere) eta bi irakurbide linealetatik badirudi bigarrrena dela arau modura edozein kasutan errazen moldatzten dena, alegia, hiru hauetako azkena:

$$\begin{aligned} 40 \text{ N/cm}^2\text{-ko presioa} &\rightarrow \text{zentimetro karratu bakoitzeko } 40 \text{ newtoneko presioa} \\ &\text{berrogei newton zentimetro karratuko(ko) presioa} \\ &\text{berrogei newton zati zentimetro karratuko presioa.} \end{aligned}$$

Nik neuk bigarren motako irakurbide linealaren baliagarritasuna praktikan egiaztatu dut edonolako unitate konposatuak erabiltzean. Uste dut soluzio ona dela, beti ere kontuan izanik eremu teknikoan ari garela (ahaztu gabe irakurbide analitikoa, noski, egokia eta argigarria denean). Horregatik, horixe proposatzen dut irakurbide tekniko modura unitate konposatuuen ka-

suan. Praktikan esamolde malgua dela adierazteko hona hemen zenbait adibide:

10 m/s-ko abiadura	→ 10 metro zati segundoko abiadura
40 N/cm ² -ko presioa	→ 40 newton zati zentimetro karratuko presioa
11,5 kg/dm ³ -ko dentsitatea	→ 11,5 kilogramo zati dezimetro kubikoko dentsitatea
8,854·10 ⁻¹² C/(V·m)-ko permitibilitatea	→ 8,854·10 ⁻¹² coulomb zati volt bider metroko permitibilitatea.

Gainera, bada oraindik erabili gabeko arrazoi bat, irakurbide linealaren alde egotera bultzatzen nauena, esaldiaren kontzeptuaren azalpenaren zehaztuna, hain zuzen. Azal dezadan puntu hau astiroago, baina ez euskararen ikuspegitik, fisikaren ikuspegitik baizik. Horretarako, har ditzagun berriro ere aipaturiko lehenengo bi adibideak, eta analiza ditzagun kontzeptualki sorturiko irakurbide analitikoak. Hauexek, preseski:

10 m/s-ko abiadura	→ segundoko hamar metroko abiadura
40 N/cm ² -ko presioa	→ zentimetro karratu bakoitzeko 40 newtoneko presioa.

Euskararen ikuspegitik duten zuzentasuna ahantzi gabe, ene ustez, dese-gokiak dira kontzeptualki, azaldu behar dutenaz bestelako kontzeptua adierazten baitute. Izan ere, fisikari dagokionez kontzeptua zuzen adieraztekotan, honako esamolde hauek erabili beharko genituzke:

10 m/s-ko abiadura	→ segundoko hamar metroko desplazamendua
40 N/cm ² -ko presioa	→ zentimetro karratu bakoitzeko 40 newtoneko indarra .

zeren, esaldiak analizatzuz, 10 m/s-ko abiaduran joatean «hamar metroko *desplazamendua*» (ez *abiadura*) gertatzen baita segundo bakoitzean eta «40 newtoneko *indarra*» (ez *presioa*) baita zentimetro karratu bakoitzari dago-kiona. Beraz, azalpen teknikoa emateko, ondo analizatu behar da kontzeptua, gero akats teknikorik ez egiteko, eta horrek esamoldearen desitxuraketa eka-rriko lezake, esamoldearen eraketarako bi oztopo gehituz: batetik, denbora guztian egon beharko genuke magnitudearen definizioa ematen (magnitudea definitzen edo «azaltzen») eta hori aspergarria litzateke; eta bestetik, desitxuratu egingo genuke esamoldea eta ez genuke argi izango zein den magnitudea (alegia, *abiadura* esan ordez, *desplazamendua* esan beharko genuke, eta *presioa* esan ordez, *indarra*). Ez dut uste bide egokia denik. Horrexegatik, are gehiago gomendatuko nuke esamolde lineala, teknikaren arloan gabiltzan kasu guztiatarako.

2.4. Neurrien balioa ezagutzeko galderak

Puntu honetara iritsita, interesgarria izan daiteke neurri-esamoldeak atze-tik dituzten galderak zein diren ikustea eta horien zuzentasun eta egokitasu-

nari buruzko zalantzak argitzea. Horretarako, bide ona izan daiteke lehenago 2.2. azpiatalean azaldutako sailkapenaz baliatzea, esamolde bakoitzari zein galdera dagokion finkatzeko.

2.4.1. Galderak egiteko hainbat aukera

Lehenago egindako sailkapenean oinarriturik, esamolde bakoitzaren atzean dagoen galdera zein den ikus dezakegu. Hara:

- | | |
|--|--|
| 1a. Kalea 500 m luze da | Zenbat metro luze da kalea? |
| (?) Kalea 500 m da | (?) Zenbat da kalea? |
| 1b. Kalea 500 m-koa da | Zenbat metrokoa da kalea? |
| | Zenbateko da kalea? |
| 1c. Kaleak 500 m du/ditu | Zenbat metro du/ditu kaleak? |
| 1d. Kaleak 10 m-ko zabalera du | Zer zabalera du kaleak? |
| | Zenbat metroko zabalera du kaleak? |
| | Zenbateko zabalera du kaleak? |
| 1e. * Kaleak 500 m neurtzen du/ditu | * Zenbat neurtzen du kaleak? |
| 2a. Presioa 40 N/cm ² da | Zenbat da presioa? |
| | Zein da presioa? |
| Presioa 40 N/cm ² baliokoa da | Zer baliokoa da presioa? |
| 2b. Azalera 18 dm ² -koa da | Zenbat dm ² -koa da azalera? |
| | Zenbateko da azalera? |
| | Zenbateko da azalera dm ² -tan? |
| 2c. Presioak 40 N/cm ² balio du | Zenbat balio du presioak? |

Kasu batzuetan eztabaidatzeko da ea zein den benetan azpian dagoen galdera, esate baterako, 2b esaldiko kasuan. Esan nahi baita, ea galdera «zenbat dm²-koa» den ala «zenbateko» den ala «zenbateko den dm²-tan». Nik neuk lehenengo aukera hobesten dut, pentsatuz «zenbateko» horrek bestelako erabilera ere baduela euskaraz, 2.4.3. azpiatalean aipatuko dudan bezala.

Hortaz, hainbeste posibilitate daude. Dena den, testu teknikoen praktikan badirudi horietako batzuk nagusitzen ari direla, lehenago ere aipatu dugun bezala; preseski 1c, 2b eta 2c motakoak. Zer esanik ez, 1a forma ere erabiltze-ko da, baina bere testuinguru mugatuan. Zernahi gisaz, nik neuk aukera modura utziko nituzke guztiak, kalko desegokitzat dauzkadan 1e motakoak bazterturik.

2.4.2. Zenbat metro luze? Zenbat kilo irin? Zenbat litro ur?

Esamolde hauek tradizio luzea dute euskara. Hala ere, erabilera mugatua dute, zeren, lehenago ere esan dugunez, magnitudetako jakin batzuetan bakanrik erabil baitaitezke. Horri dagokionez, interesgarria da konturatzea nolakoak diren esamolde hauetan agertzen diren magnitudetako fisikoak. Preseski, testuetan agertzen diren adibideak aztertutik ikusten denez, eguneroko bizi-tzako neurriekin zerikusirik dutenak dira guztiak: luzerak, azalerak eta angeluak batetik, eta masak (edo pisuak) eta edukierak bestetik.

Gainetik eginiko begirada batean bi esamolde horiek egitura berekoak direla dirudien arren, sakonago begiratuz, bi motatakoak direla kontura gaitezke. Izan ere, *zenbat metro luze?* motako esamoldeetan neurriarekin batera neurtua den objektuaren kualitate bati dagokion adjektibo bat (*luze, zabal, sakon...*) agertzen da. Ostera, *zenbat kilo irin?* motako esamoldeetan materialaren izena edo substantzia-izena (*irin, ur...*) agertzen da, era mugagabea. Horretan bereizten dira, nahiz egitura analogoa duten (13).

Lehen motatakoak objektu baten magnitudetako geometrikoei buruzkoak dira (luzerak, gehienbat). Gainera, esamolde horietan beti agertzen da objektu bat, zeinari buruzko neurria adierazten den. Hona hemen zenbait adibide, galderaren erantzunari dagozkionak:

- Kalea 500 m luze da
- Bidea 10 m zabal da
- Igerilekua 2 m sakon da.

Hauxe da esamolde horien egitura:

Objektuaren izena + neurria + (magnitudeari buruzko adjektiboa) + da.

Ikus daitekeenez, 2.2 atalean azterturiko 1a motako esamoldeari dagozkio, eta han esandakoak aplika daitezke zuzenean.

Bigarren motatakoak materialen kantitateekin erabiltzen dira, masa/pisuak eta bolumenak (alegia, magnitudetako estentsiboekin) adierazteko bereziki, zer materialen kantitateak neurtu diren espresuki azalduz. Zoritzarrez, hori dela eta, ez dirudi esamolde horiek hedagarriak direnik bestelako magnitudetako kasuan (are gutxiago magnitudetako intentsiboen kasuan). Nolanahi den, bigarren motako esamolde horiek erabilera oso zabala dute zientziaren arlo jakinetan, hala nola

(13) Honetaz, ikus liburu hau: Zabala, I. eta Odriozola, J. C., *Izen-sintagma*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, Leioa (1992). Aztertzen ari garen gaiari dagokionez, bereziki interesgarria da liburu horretako 2.1. azpiatala, zeinean zenbatzaileek izen zenbakariekin eta izen ez-zenbakariekin duten erabilera aztertzen baita, *bi litro ur* eta *bi zentilitro azido sulfuriko* erako esamoldeak aipatuz.

kimikan, zeren pisuak (14) eta edukierak behin eta berriro adierazten baitira gai kimikoen konposizioak aipatzen direnean. Hona hemen zenbait adibide:

30 g amonio nitrato 100 ml uretan disolbatu dira

500 l aire lehor

9 g helio, 12 g karbono dioxido eta 20 g nitrogeno dituen nahastea.

Bigarren motako esamolde horien egitura beti da honelakoa:

zenbakia + unitatearen sinboloa + materialaren izena

eta gehienetan mugagabeen deklinatzenean dira (15).

Bestalde, kontuan hartu behar da neurria biltzen duen esamolde osoa izen-sintagma dela, eta multzo osoak hartzen duela deklinabide-atzizkia, honako adibide hauetan ikus daitekeen bezala:

[100 ml ur]eten disolbatu dira

[5 kg sagar]rek [3 kg madari]k adina balio dute.

Preseski, izen-sintagma horiek nabarmenzeko, aurreko adibideetan koxetxe barruan bildu ditugu, deklinabide-atzizkia koxetetik kanpo jarri.

Beraz, baldintza horietan guztiz egokiak dira esamolde horiek, eta, inolako zalantzak gabe, erabili beharrekoak.

2.4.3. Zenbatekoa da torlojua?

Lehenago *zenbat metroko/zenbateko* bikoteari buruz esandakoak gorabehera, teknikan bada kasu berezi bat zeinean «*zenbateko*» galdera egiten den zuzenean (16). Hain zuzen ere, kontuan izan behar da teknikaren arloan hainbat elementuren neurriak estandarizatuta daudela, zehazkiago esateko, DIN edo ISO arauen kasuan gertatzen den legez. Arau horiek kontuan hartuz, neurri jakineko objektuak fabrikatzen dira bakarrik; esate baterako, torlojuen ka-

(14) Zehatzago esanda, masak dira, baina ohituzaz pisutxat hartzen dira.

(15) Hemen bada hizkuntza arrunteko zalantza bat, azken batez problema bera planteatzen duena. Hain zuzen, *hamar zaku patata* badiogu, *zaku* hitza unitate modura erabiltzen dugu («*zakubete*» esan dezakegu, unitatea dela azpimarratzeko), *hamar zaku bete* (hamar zaku patataz beteak edo patataz beterikoa hamar zaku) baita pataten kantitatea, *hamar litro ur* esaten den bezala. Baina *patata-zaku* hitz konposatura ere erabil dezakegu, *hamar patata-zaku* esanez, espreski patataz betetzeko zakuak direla adieraziz, eta ez kafez betetzekoak adibidez. Beraz, aukera bikoitz dago, zehazki zer adierazi nahi den azpimarratzeko. Gauza bera gertatzen da *ardo-botila / botila bat ardo, kafe-ontzia / ontzi bete kafe, gallleta-paketea / bi pakete galleta*, eta antzekoekin, aukera zein den kontuan hartuta, hots, objektu modura ala unitate modura erabiltzen den, hurrenez hurren. Labur esanda, ene ustez, bi aukerak daude ondo, egoera eta adiera egokian erabiliz gero.

(16) Erabilera berezi honetaz ohar interesgarria egin zuen I. Azkunek, *neurtu aditzari buruz* aurkezturiko komunikazioan (ikus 3. oharreko erreferentzia).

suan 1,6; 2; 2,5; 3; 4... milimetroko diametroak dituzten torlojuak fabrikatzen dira, eta ez 1,8 milimetroko diametrokoak. Era horretan eginez, fabrikatzailen desberdinek eginiko piezak munta eta truka daiteke, eta horrek hainbat abantaila dakarta praktikan makineterako errepidetako piezak prestatzeko. Hortaz, egokia da «*zenbatekoa da torloju hori?*» galdeztzea, eta horixe da, izatez, kasu horretan nagusitzen den joera. Horregatik, neurri jakineko objektuen kasuan, alegia, neurri estandarrak edo arautuak dituzten objektuen kasuan, «*zenbateko?*» galdeztzea proposatuko nuke eta horri dagozkion formak bultzatzea, lehenago 2.4.1. azpiatlean proposaturiko 2b. galderaren bidetik, hots:

2b torloja 4 mm-ko da	Zenbateko da torloja? (17).
-----------------------	-----------------------------

Zer esanik ez, horrek ez du esan nahi lehenago proposaturiko aukerak erabat baztertzeakoak direnik, eta egitura hori eta galdezko era hori desegokiak direnik bestelako neurri estandarizatu gabeko kasuan. Hain zuzen, nik neuk bere horretan utziko nituzke 2b motako esamolde guztiak aukeran, zerren praktikan oso baliagarriak izaten baitira hainbat zirkunstantziatan. Honelaxe:

2b Azalera 18 dm ² -ko da	Zenbat dm ² -ko da azalera? Zenbateko da azalera? Zenbateko da azalera dm ² -tan?
--------------------------------------	---

Dena den, estandarizatu gabeko piezen neurriei buruz galdeztean, «*zer/zein neurriko da pieza hori?*» galdetuko dugu ziurrenik.

Laburbilduz, neurri jakineko objektuen kasuan, alegia, neurri estandarrak edo arautuak dituzten objektuen kasuan, guztiz egokia da «*zenbateko?*» galdeztza, baina bestelako kasuetan «*zer/zein neurriko?*» edo «*zenbat milimetroko?*» den galdeztza izango da beharbada normalagoa, nahiz eta azken kasu horretan ere «*zenbateko?*» forma ere baliagarria izango den praktikan.

2.5. Argitu beharreko zenbait zalantzak

Deklinabideari eta joskerari buruzko atal hau osatzeko, zalantzazko jokamolde batzuk aipatu nahi nituzke, galdera modura plazaratuz, erantzunak eta gomendioak gehiago argitu beharrekoak direlakoan.

(17) Nolanahi den, torlojuen kasuan esamoldeak askoz konplexuak izan daitezke praktikan, zerren diametroaz gain bestelako ezaugarriak ere adierazi nahi izaten baitira askotan, mota honetako segidak sortuz: «4 mm-ko diametroa, 25 cm-ko luzera, hari metriko eta buru hexagonalak dituen torloja». Izan ere, torlojuen kasuan kontuan hartu beharreko ezaugarri bakarra ez da diametroa, horrez gain kontuan hartu behar izaten baitira luzera eta hari-mota ere, besteren artean. Hori dela eta, batzuetan egokiagoa da informazioa beste era batean adieraztea, honelaxe adibidez: «Behar dugu torlojuaren ezaugarriak hauexek dira: diametroa: 4 mm, luzera: 25 cm; haria: metriko; burua: hexagonal».«

2.5.1. Abiaduran joan / abiaduraz joan / abiadurarekin joan

Puntu honi dagokionez, *Ortotipografia* liburuan proposamen zehatza dago. Preseski, honelaxe dio testuak:

Ikasmaterialetarako, *halako abiaduran* egitura hobesten eta gomendatzen dugu «ibili, joan» eta gisako aditzekin erabiltzeko; eta ez *halako abiaduraz* forma.

Dena dela, ene ustez, esamolde hori egokitzat harturik ere, ez dut uste baztertzeko denik bigarren forma. Badakit *abiaduran joan* forma dokumentatuta dagoela, adiera berarekin erabiltzen den *abiada* hitzari dagokionez gutxienez, baina oker ez banago, orain arteko testuetan badira halaber hainbat kasu *abiaduraz* eta *abiadurekin joan* forman idatzitakoak. Hain zuzen, nire zalantza *Orototipografian* hobetsitako egituraren hedagarritasunari buruzkoa da, kasurako pentsatuz ea modu berean joka dezakegung *abiadura* magnitudearekin batera azaltzen den *azelerazio* magnitudearekin ere. Egia esanda, konzeptualki, gogor egiten zait *azelerazioan joatea/ibiltzea* (ez dut uste egokia denik); ostera, askoz ere naturalagoa ikusten dut *azelerazioarekin/azelerazioaz joatea/ibiltzea*. Horregatik uste dut bi forma horiek ez direla besterik gabe baztertzekoak. Labur esanda, puntu hori gehiago aztertu behar delakoan nago, soluzio orokorreir irteera emate aldera.

2.5.2. Komunztaduraren inguruko zalantzak

Neurri-esamoldeek zenbakiak aurrean dituztenez, zalantza sortzen zaigu batzuetan aditzaren komunztadura singularrean ala pluralean egin behar du gun. Kontu hau hizlariaren jatorrizko euskalkiarekin loturik dago beharbada, eta horregatik soluzio bikoitza onartzea izan daiteke irtenbiderik egokiena. Dena den, zalantza modura planteatzen dudanez, zenbait kasu aurkeztea eta eztabaidea irekitzeko deia zabaltzea, besterik ez dut egingo. Zein komunztadura hobetsi behar da kasu hauetan?

Hamar kilo irin dugu/ditugu
 Hogeit litro ditugu / Ontziak hogeit litro ur dauka/dauzka
 Aurrekontua 1.000 euro da/dira
 Kiloak 1.000 g du/ditu
 Autoak 12.000 euro balio du/ditu
 Zenbat metro du/ditu hektometroak?

Adibideen zerrenda nahi adina luza daiteke. Kontua da, ikasmaterialak idazteko orduan gomendio argia eduki behar dela eskura, eta horretan Euskaltzaindiak erabakiren bat hartu beharko lukeela, agian. Dena den, nire ustez, gomendio garbirik ez dagoen bitartean, bi aukerak onartu beharko lirateke, idazlearen ohituraaren arabera, beti ere kontuan izanik puntu honetan garrantzia izan dezakeela idazlearen jatorrizko euskalkiak.

2.5.3. Portzentaje motako unitateen deklinabidea

Euskaltzaindiak bestelakorik erabakitzetan ez duen bitartean, bistakoa da arau argia dugula, eta euskaraz % ikurra zenbakiaren aurretik idatzi behar dela, nazioarteko arauetan alderantziz egiten den arren. Bego horretan. Dena den, arau hori osatzeko bi puntu daude argitu eta erabaki beharrekoak, arauetan era-bakita egon ez arren *Ortotipografia* liburuan ere zehazturik datozenak: bata, sinboloaren eta zenbakiaren artean tarteak utzi ala ez utzi erabakitzean datza; bestea, ehunekobesteen komunztadurari buruzkoa da.

Liburu horretan esaten diren ia guztiekin ados nago, horien artean tarteak uztearen aldeko gomendioarekin; baina bada puntu bat, gutxienez eztabaida-garritzat hartu beharko litzatekeena, eta hortaz, argitu beharrekoak.

Kontua da zenbait kasutan garrantzizkoa eta bereizgarria dela portzenta-jean adieraten den magnitudea zenbakaria ala zenbakaitza izatea. Hain zuzen ere, *Ortotipografia* liburuko 45. orrialdeko 5. puntuaren honelaxe dio:

Ehunekoak singularrean egiten du aditzaren komunztadura.

Ikasleen % 78k garaiz egin ditu lanak. Bezeroen % 57,32 pozik dago.

Sagarren % 31 kanpotik ekartzen dute. Gaixoen % 7ri gertatu zaio.

Oharra:

Testuinguru bereziren batean, pluraleko erreferenteak berera ekar dezake komunztadura.

Zuetariko %87k ondo gainditu du/duzue azterketa.

Zein bere hizkuntzan mintzatu zen/ziren hizlarien % 20.

Ikus daitekeeneez, nahiz eta lehen partean singularraren aldeko gomendioa egiten duen, bigarren partean aurretik egindako proposamenaren mugak aitor-tu beharrean egon da liburuaren egilea. Eta hor da arazoa.

Kontua da, arazo hori ez dela «testuinguru bereziren batean» soilik ager-tzen. Ene ustez, izena zenbakaria denean, egokia da halaber aditzaren komunztadura pluralean egitea; are gehiago, euskalkia edo euskara-moldea zein den, pluralean egitea da aukera egokiena. Horregatik, gutxienez, bi aukerak utziko nituzke, singularreko eta pluraleko, idazlearen senak agintzen duen arabera. Honelaxe hain justu:

Ikasleen % 78k garaiz egin ditu/dituzte lanak. Bezeroen % 57,32 pozik dago/daude.

Sagarren % 31 kanpotik ekartzen dute/dituzte. Gaixoen % 7ri gertatu zaio/zaie.

Komunztadurak pluralean behar duela (edo pluralean izan daitekeela) argiago ikusteko, konparazio simplea egin daiteke ehunekobesteen familia be-rekoak diren frakzioen esamoldeekin, horrelakoetan izenak zenbakariak di-

renean pluralean egin behar baita, honako esaldi honetan argi ikus daitekeen bezala:

Poltsa batean dauden 40 karameluetatik hiru hamarren marrubizkoak dira, bosten bat limoizkoak, hiru zortziren laranjazkoak eta zortziren bat mendazkoak. Zenbat karamelu daude zapore bakoitzeko?

Izan ere, ehunekobesteak izendatzailean 100 zenbakia duten frakzioen baliokideak dira izatez, hots:

$$\% 15 = 15/100 = \frac{15}{100}.$$

Alegia,

40 karameluetatik 3 = karameluen $3/40$ = karameluen % 7,5.

40 karameluetatik $1/5$ = karameluen $1/5$ = karameluen % 20.

Besterik da izena zenbakaitza denean, horrelakoetan ia gehienetan ego-kiagoa baita singularreko komunztadura egitea. Hori dela eta, ez da inolako arazorik azaltzen lehenago liburuan aipaturiko esamolde honetan:

Kontinentearen % 5 izotza da.

Hau da, kasu honetan komunztadura singularrean egiten da.

2.5.4. Zenbait kantitateren idazkera. Kilo(-)laurden, kilo(-)erdiak

Euskaltzaindiak aukera modura utzitako erabakien artean, gidoia jarri ala ez jartzearena ez da burukomin txikiiena ematen diguna. Zenbakien eta neurrien artean ere badira horrelako kasu batzuk, eztabaidearen premia dutenak. Hemen horrelako batzuk aipatuko ditut, nire iritzia gaineratuz, erreferentzia modura harturiko *Ortotipografía* lanean proposatzen direnekin bat ez datozenak:

- *Erdi, laurden* eta gisakoak. Argitu egin beharko litzateke zein kasutan osatzen duten hitz konposatura, eta horrekoetan *kilo-laurden*, *kilo-erdi* eta antzekoak idatzi beharko ote liratekeen. Ene ustez, hainbat kasutan oso argigarria da gidoi eta guzti idaztea; hortaz, egokiagoa.
- Antzoko arazoa gertatzen da multzokako kantitateak adierazten dituzten terminoekin. Hain zuzen, idazkerazko arazorik sortzen ez duten *hamarreko, ehuneko, milako* idatzi ondoren, *hamar milako/hamar-milako/hamarmilako, ehun milako/ehun-milako/ehunmilako, hamar milioiko/hamar-milioiko/hamarmilioiko...* eta gisakoak ditugu, matematikako ikasmaterialetan behin baino gehiagotan agertzen direnak. Ene ikuspuntutik, egokiena lotuta idaztea litzateke –hots, *hamarmilako, ehunmilako,...* eran– lehenago 1.3.3.2. azpiatalean *ehunekobeste, milakobeste...* hitzen kasuan proposatu dudan antzera.

3. DIRUA, NEURRI BEREZIA

Dirua magnitude berezia izanik, arazo espezifikoak azaltzen dira diruneurriak adieraztean. Kasu honetan ere adierazpide sinbolikoak agertuko dira (15 €, \$31, £23, adibidez); eta, unitatedun magnitudeekin gertatzen zen antzera, deklinabidearen eta joskeraren problematika erabaki beharko dugu (bai- ta komunztadurarena). Zer esanik ez, kasu honetan ere esamolde estandarrak finkatzea komeni da.

3.1. Idazkera eta irakurbidea

Lehenengo arazoa idazkera bera da. Hemen, nazioartekoarau bakarra baino gehiago, lurralteko bakoitzeko ohiturak daude, hots, lurralteko bakoitzean beren dirua nola adierazten duten. Dirua moneta-unitatetan adierazten denez, idazkera sinbolikoa du toki guztieta, eta batzuetan monetak ikur berezia dauka: € (euroa), pzt/pta (pezeta), FF (libera edo franko frantziarra) \$ (dolarra), £ (libra esterlina), ¥ (yena)... Hala ere, idazkeran aldeak daude batetik bestetara, batzuetan zenbakia aurretik eta banatuta idazten baita (3 pta, 5 FF, 15 €...) eta bestetan atzetik eta lotuta (\$7, £8...). Hortaz, kontuan izan behar da, halaber, zenbakien eta monetaren ikurraren artean tarterik uzten den ala ez. Gure gaur egungo monetari dagokionez –euroari dagokionez alegia–, lehenik zenbakia, ondoren tartea eta azkenik ikurra idazten dira, honelaxe:

15 €; 2.563,95 €

Bestalde, neurriari deklinabidea eransterakoan, lehenago unitateen adierazpide sinbolikorako onarturiko arauak bete beharko ditugu idazkeran, hots, € sinboloaren ondoren gidoia jarritza eta horren ostean deklinabide-atzizkiak jarritza. Era honetan:

15 €-ko salneurria.

1 €-ean saltzen dira.

Horrez gain, kontuan eduki behar izaten dira diruaren unitatearen azpi-multiploak; euroaren kasuan, *zentimoak* (ez dirudi egoki *ehunenak* esatea, nahiz eta matematikan horrela deritzen), hots, *euro-zentimoak*. Eta horretan ere era-baki beharreko puntu bat dugu, ikasmaterialetan behin eta berriro agertzen dena. Nola idatzi euro-zentimoen laburdura? Magnitude fisikoen arauari jarraituz, badirudi $c\epsilon$ idaztea (cm edo cg bezala) litzatekeela aukera ona, baina agian, Europako lurralteko batzuetan egiten den antzera, *cent* idatzi beharko litzateke, batasunaren izenean (euskal hitzen itxura emateko *zent* ere proposa daiteke). Ahantzi gabe laburdura horren ostean punturik jarri behar ez dela; ala bai? Hortaz, zein laburdura sinboliko aukeratu, horixe da lehenik erabaki beharrekoa.

Nolanahi ere, edozein aukera hartuta, irakurbideak ez du arazorik sortzen, beti ere zenbakia aurretik irakurritz, honelaxe:

15,45 € edo 15 € 45 cent hamabost euro (eta) berrogeita bost zentimo.

Bestalde, idazkerari dagokionez, erabaki beharrekoak litzateke *euro(-)zentimo* hitzaren kasuan gidoirik idatzi ala ez. Ene ustez, hobeto gidoiarekin.

3.2. Deklinabidean eta joskeran arautu beharrekoak (18)

Puntu honi dagokionez, badirudi nahiko adostasun zabala lortu dela deklinabideko kasuak eta esamoldeak finkatzeko. Hala ere, badira zenbait kontraesan eta zalantza, eskematikoki aipatuko ditudanak.

- Itxura batean, Euskaltzaindiak *Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia* izenburuko erabakia hartu ondoren, praktikan adostasun nahiko zabala lortu da diruaren kasuan mota honetako esamoldeak eratzeko:

Litroa hamar euroan saltzen da.

Hots, baztertu egin da «*litroa hamar eurotan saltzen da*» forma. Horrek berarekin dakarren zalantza, egin daitekeen «*zenbat euro(t)an*» motako galderari buruzkoa da. Nola behar du, «*zenbat euroan*» ala «*zenbat eurotan*»? Kontuan izan orain arte eurrez erabilitako «*zenbat dirutan*» forma.

- Eta galderetz hitz egiten ari garenez, aurreko galderaren forma laburtua gogoratu beharko genituzke, preseski *zenbatean* eta *zegan* formak:

Zenbatean saltzen duzu tomatea?

Zegan dago tomatea?

Ene ustez, forma horiei ere oniritzia eman beharko litzaike, eta auke-ra zabaldu ikasmaterialetan, bereziki ia erabat baztertua daukagun *zegan* formari. Hortaz, gogora dezagun Euskaltzaindiak onartuta daukala forma hori bere *Hiztegi Batuan*, hitz hauekin:

zegan *Bizk.* «*zenbatean, zenbat dirutan*»: *zegan erozi dituzu oilaskoak?*

Baina alferrekooa da onarpena, erabili ezean. Eta antz hartzen diot ez ote dugun hitz hori testu guztietatik baztertu.

- Bada beste egitura bat, deklinabideko kasu berezia eskatzen duena (genitiboa). Hona hemen zenbait adibide, *Ortotipografia* lanetik hartuak:

txakur-txiki baten karameluak

(18) Deklinabideari eta joskerari dagokionez, dirua neurri modura kontsideratuz sortzen diren arazoak modu bertsuan agertzen dira denbora neurri modura hartzean ere (alegia, denbora neurteko unitateak erabiltzean, hala nola *segundoa, minutua, ordua, eguna, hilabetea, urtea...*). Bestalde, kasu horretan aplikagarriak dira deklinabideari dagokionez Euskaltzaindian erabakitako bereizketa hirukoitzak (hiru urteko ardoa / hiru urtetako ardoa / hiru urteetako ardoa).

hamar sosen zorra pagatzen duenak (Barbier)

Zenbaten zorra dukezu? (Hiribarren)

30 euroren gasolina edo ezantza.

Badirudi horretan ere akordio zabala dagoela. Forma hori egokia eta praktikoa da eta erraz hedatzeko moduko. Gainera, guztiz baliagarria da lan horretan aipatzen den banaketa egiteko eta bi esamolde hauek bereizteko:

Ekarri 3 euroko kafea! {kiloa hiru euroan saltzen dutena, **bakoitza**}

Ekarri 6 euroren kafea! {kiloa hiru euroan saltzen badute, bi kilo kafe, **guztira**}.

Dena den, beharbada, aurreko zerrenda bietako azken esamoldeak inolako atzizkirik gabe ere eman daitezke, honelaxe preseski:

30 euro gasolina

Ekarri 30 euro kafe.

Zer nahi gisaz, bistan da, kasu horretan materia adierazten duen izena (gasolina edo kafea) mugagabeen doala, lehenago 2.4.2. azpiatalean aipatu dugun eran.

- Zehaztu beharreko zalantzen zerrenda honi amaiera emateko, aurrekontuak bizimodu arrunteko atal askotara iristen ari diren garaiotan, ondo legoke galdera hauek eta horiei dagozkien esamoldeak finkatzea: *Zenbat da aurrekontua? Zenbat eurokoa da aurrekontua? Zenbatekoa da aurrekontua?*

Hemen ere zalantzak agertzen dira aurreko *Ortotipografia* lanean, nahiz eta gomendio modura proposamenak egiten diren, honako hauek hain justu:

Aurrekontua 1.000 € da/dira

Mila euroren aurrekontua

Aurrekontua 1.000 eurokoa da.

Baina, ikus daitekeenez, nolabaiteko kontraesana dago «*zenbat eurokoa*» galdetzearen eta «*mila euroren*» erantzutearen artean. Horrexegatik, badirudi bigarren esamoldearen kasuan proposatuarekin batera «*mila euroko aurrekontua*» ere onartu beharko litzatekeela.

4. NEURTZE-PROZESUA ETA NEURRIAK ADIERAZTEN DITUZ-TEN ADITZAK

Neurrien adierazpidearekin batera argitu beharreko beste puntu bat, neurze-prozesua adierazten duten aditzen jokamoldea da (baita komunztadura ere).

Ene ustez, azken urteotan arlo horretan kalko (oker?) bat –«erdarakada» bat, alegia– zabaltzen ari da euskarazko erabilera, ziur asko gaztelaniaren eraginez sortua, lehenbailehen zuzentzea komeni dena. Preseski, arazo hori *neurtu* eta *pisatu* aditzekin sortu da, eta tartean arazo semantiko/kontzeptual bat dago, zeren, nork/nor motako aditzak izanik, kontuan izan behar baita neurte-prozesuaren egilea edo burutzailea nor (edo zer tresna) den. Ene ikuspuntutik, desegokia edo bortxatu samarra da egilerik gabeko esaldietan aditza nork/nor eran erabiltzea, eta hor kokatu behar da kalko desegokiaren izaera eta iturburua. Izan ere, gaztelaniaren eraginpean gaudela (19), hizkuntza horretan fin-katurik dagoen esamolde jakin baten itzulpena egitean («*esta máquina pesa dos toneladas*» (20) esaldia itzultzean, adibidez), kalkoaz baliatzen dira hainbat lagun, literaltasunari begiratuz, premiarik gabe (hots, «*makina honek bi tona pisatzen du/ditu*» esamoldea erabiltzen dute). Kalko hori, gainera, hizkeria arruntean sartu da eta bertan indartzen ari da, ikus-entzunezko masa-hedabideetan behin eta berriro ikus eta entzun dezakegunez. Esate baterako, lan hau Euskaltzaindira bidaltzeko prestatzetan ari nintzela, esaldi hau aurkitu nuen *Berria* egunkarian (2006-V-28): «*Urrezko nanoegitura bakoitzak bost eta hamar nanometro artean neurtzen du, eta kateen arteko tartea 50 nanometro-koa da*» (letrakera beltza nirea da). Eta mota horretako esamoldeak entzuten dira egunero *Euskadi Irratian* eta *Euskal Telebistan*, beti ere *pisatu* eta *neurtu* aditzen kasuan. Ene ustez, garaian gaude beharrezkoa ez den kalko horren erabilera irtenbidea jartzeko, proposamen zuzen eta praktikoa eginez; baina horretarako, argitu egin beharko dugu lehenik «*zuzentasuna*» zer den.

4.1. Neurtu aditzaren erregimenaz

Neurtu aditzaren erregimenari dagokionez, arazoa lehendik dator eta argitu gabe dago oraindik (21). Sarreran esan dugunez, Euskaltzaindiak eginiko XIII. Biltzarrean (1994. urtean) hiru komunikazio aurkeztu ziren erabilera horren inguruan, zenbait puntutan kontrajarrita zeudenak; baina eztabaida azken punturaino eraman ez zenez, aztergaia airean geratu zen, argipenik eta akor-

(19) Eta frantsesarenean ere bai, noski, baina kasu honetan arazoa gaztelaniatik datorkigu-lakoan nago.

(20) Ondo pentatzu gero, izatez, gaztelaniaz ere arazo kontzeptual berbera izan zezaketen *pesar* aditzaren esanahiarekin. Bainaz ezagutzen ez ditudan arrazoik tartean direla, egitura hori nagusitu da erabat, eta gaur egun erabat normaltzat daukate. Beharbada, esamolde horren arrakasta ekonomia linguistikoan egon daiteke, horren bidez errazagoak eta laburragoak diren esaldiak eratzen baitira.

(21) Badakit *Hiztegi Batuan* Euskaltzaindiak erdi-onartuta daukala hemen kritikoki aipatuko dugun erabilera; eta «*erdi-onartuta*» diot, zeren testuan bertan bestelako forma hobetsia aipatzen baitu. Hain zuzen ere, era honetan aipatzen da *neurtu* hitza: «**neurtu**, neur, neurtzen, du ad.: *zerbaiten luze-zabala neurtu; soka horrek bost metro neurtzen du: h. soka hori bost metro luze da*». Testu horretan h. laburdurak «Hobe (forma hobetsia ondokoak da)» esan nahi du. Zernahi gisaz, ene ustez egokiagoa den erabilera aldeko arrazoik azaltzen saiatuko naiz.

diorik gabe. Bitartean, arlo horretan erabiltzen den kalkoak bere bidea egin du hainbat tokitan, baita entzute handiko komunikabideetan ere. Ene ustez, une egokia da gaia sakon aztertzeko eta ahal bada araua finkatzeko edo, gutxiez, gomendio argigarriak emateko. Goazen, bada, harira.

Abiapuntu modura 1994. urteko biltzarrean aurkezturiko komunikazioak harturik, *neurtu* aditzari buruzko iritziak bilduko ditugu lehenik.

Batetik, Alfontso Mujikaren lanean esaten dena kontuan hartuta, bi esanahiz erabiltzen omen da gaur egun *neurtu* aditza. Bere hitzak hona ekarriz:

1. Esanahi zaharra, ohizkoa, jatorra: *hark hura neurtu* (norbaitek edo zerbaitek beste norbaiten edo zerbaiteen neurriaren balioa zehaztu), hau da, neurtailea eta neurria daudelarik: *dinamometroak indarra neurzen du*.
2. Esanahi berria: *hark hainbesteko neurria ukana* (norbaitek edo zerbaitek nolako neurria ukana), hau da, neurtailerik ez dagoelarik: *isats eta guzti ez du 25 cm baino gehiago neurzen*.

Bi esanahion erabilera-esparrua ez da berdina. Esanahi berriarena mugatua-goa da eta adizki jakin batzuk baino ez ditu onartzen.

Honaino aipamena. Dena den, aurrerago joanda, esanahi zaharreko esamoldeak ontzat eta egokitzat jo ondoren, Mujikak beste zenbait xehetasun egin zituen erabilera berriari buruz, arazoaren funtsa ulertzeko lagungariak direnak. Hona hemen:

- Erabilera zaharra, betidanikoa, ondo dokumentaturik dago. Erabilera berria, ordea, benetan berria da; hain zuzen, testuetan agertzen diren lehenengo bi lekukotasunak 1971koak dira; geroago, bada 1975eko hirugarren aipamen bat eta gainerakoak 1980ko hamarkadatik honanzkoak dira.
- Ohiko erabilera neurten dena edozein magnitude fisiko izan daiteke; esanahi berriko esamoldea, ordea, badirudi magnitude geometrikoez bakarrik erabili izan dela. Preseski, mota horretako esamoldeak luzera, azalera, bolumen (?) eta angeluekin aurkitu ditu Mujikak. Baino guztiz bitxitzat eta ezegokitzat dauka esamolde berria tenperaturarekin edo intentsitate elektrikoarekin erabiltzea, adibidez.
- Aditzaren aspektuari dagokionez, erabilera zaharrean *neurtu* aditzaren forma burutu eta ezburutu guztiak agertzen dira (*neur, neurtu, neurzen, neurtuko*); erabilera berrian, ordea, badirudi forma bakarra onartzen dela, *neurtzen* forma ezburutua hain justu.

Azkenean, arrazoi horiek guztiak azaldu ondoren bi ondorio atera zituen Mujikak:

1. *Neurtu* aditzaren erabilera berri hori ez da inola ere ezinbestekoa euskarra zientifikoan.

2. Erabilera berria ez dago oraindik oso errotuta euskara idatzian, baina errotze-bidean dagoela erakusten dute datuek.

Ados gaude, nahiz eta etsipen-puntua ikusten diogun bigarren ondorioari, errotze-prozesu horri aurka ezin ahalko bagenio bezala. Ostera, nik uste dut, ahalegina egitea merezi duela, eta gutxienez gomendio modura bideratzeko gai bat izan daitekeela.

Beste komunikazio batean, Iñaki Azkunek, erabilera berri horri buruz antzeko iritzia azaldu zuen:

A-k hainbeste (unitate) neurten d(it)u («Etxe horrek hamar metro neurten du») moduko adierazpenak erabiltzea gure ustez «ezinbesteko» ez da.

Gehiago oraindik, horren ordez erabil daitezkeen egiturak adierazi zituen:

Horren ordez A-k hainbeste (unitate)ko dimentsioa du («Etxe horrek hamar metroko luzera du»), A hainbeste unitate + dimentsioari dagokion adjektiboa + da («Etxe hori hamar metro (luze) da», A-k hainbeste unitate ditu («Etxe horrek hamar metro ditu»), A hainbeste unitatekoa da («Etxe hori hamar metrokoa da») etab. bezalako egiturak erabil daitezke.

eta argi utzi ere, kalkoaz ari garela:

Badakigu piezak berak ez duela neurtzen, pertsonak baizik (pieza beste batetik neurtzen du, hau da, piezak ez du neurtzen; piezak neurria dauka). Alde honretatik *Zenbat neurten du?* edo *Hamar zentimetro neurten d(it)u* erantzutea erdarakada litzateke.

Baina, gaur egun hainbat euskaldunek mota horretako esamoldeak erabilten dituztela iritzita, azken esaldietan etsipena agertu zuen honako hau esatean:

Beraz, *Angelu horrek zenbat neurten du?* eta *Angelu horrek 10 gradu neurten d(it)u* egitura saihesterik badagoen arren, jende arruntak nekez baztertuko duela iruditzen zaigu; *Zenbat balio du?, Zenbat pisatzen du?* eta antzekoak ondoan izanik endemas.

Bestela esan, gaur egun *Zenbat neurten du?* eta *Hamar zentimetro neurten d(it)u* egiturak okertzat jotzea «galdutako gerra» litzateke.

Hirugarren komunikazio batean, Julio Garcíak eta bestek bi eratako arrazonamendutan oinarriturik plazaratu zuten beren iritzia. Lehen atalean, osagarriz zuzenaren eta egitura logikoaren arabera, eta bigarrenean, *neurtu* aditzaren aspektu semantikoaren arabera. Berriro ere, Mujikaren antzera, erabilera zaharra (egokia eta jatorra) eta erabilera berria (kalkoa edo erdarakada) bereizi zituzten, lehena onartuz eta bigarrena gaitzetsiz eta ordezko zenbait esamolde adieraziz.

Horrela, erabilera berriko kasuei buruz honelaxe mintzatu ziren:

Aipatu diren esaldiak, beste modu batean adieraz daitezke, gure ustez. Esate baterako,

- *Etxeak 10 metro neurten du/ditu esan barik, etxearen neurria 10 metro(ta)koa da esan dezakegu.*
- *Zenbat neurten du mutil horrek? esan barik, zein da mutil horren neurria/altuera? edo zenbatekoa da mutil horren neurria/altuera esan dezakegu.*
- *Angelu horrek 10 gradu neurten du/ditu esan barik, angelu horren neurria 10 gradu(ta)koa da esan dezakegu.*

Zalantzarak ez dago, lehenengo motako egitura horiek kalkoaren bidez sortuak direla, hau da, euskaraz «*medir*»aditzak dituen adierak eta jokaera, besterik gabe, kalkatu egin direla; eta kalkoa ekidin daitekeenean edo ondo eginda ez da-goaenean (morfologikoki, sintaktikoki, edota semantikoki) hobe da, gure eritziz, bestelako baliabideak erabiltzea. Horregatik, jarritako adibideen kasuan, bigarren moduan eginko esaldiak hobesten ditugu.

Zer esanik ez, guztiz bestelako iritzia agertu zuten mota zaharreko esaldiei buruz:

Baina bestalde, segidan aipatuko ditugun adibideak, erabat zuzenak dira gure aburuz, «*neurtu*» aditzaren erregimena, kasu honetan ere, ZER-NORK delarik:

- *Topografoak 10 aldiz neurtu du mendi bien arteko distantzia.*
- *Behatzaileak neurtu/neurtzen duen abiadura arbuiagarria da.*
- *Dinamometroak indarra neurten/neurtu du.*
- *Dinamometroek indarrak neurten/neurtu dituzte.*
- *Entropia neurten duen funtzioko tenperaturarekiko menpekotasuna du.*

Eta bukatzeko, gakoa non dagoen azalduz eman zuten beren iritzia:

Ikus daitekeenez, bigarren motako esaldi hauetan, osagarri zuzena neur tutako objektua da, eta subjektua, neurtzailea –pertsona edo tresna–, neurten duena alegia. Horretan datza korapiloa askatzeko gakoa eta horixe da, gure eritziz, bide zuzena.

Komunikazio horretan bada arrazonamenduaren bigarren euskarri bat, aditzaren aspektu semantikoan oinarriturikoa, hona ekarriko ez dudana. Nolana hi den, bat egiten dut orduko ondorioarekin. Hots, ene ustez, lehenengo motako egiturak, osagarri zuzenik gabeak, kalko desegokiak dira, eta hortaz, bantzukoak. Irtenbidea erraza da, alegia, bestelako esamolde alternatiboak erabiltzea.

Ene iritziz, aurreko arrazonamenduak kontuan izanik, gakoa *neurtu* eta *neurria izan/ukan* aditzak bereiztean datza. Hain zuzen ere, *neurtu* aditza betiko erabilera zaharrari dagokio, eta neurtzailea eta neurgaia dituzten ekintzak adierazteko erabili behar da. Bigarren kasuan, hots, neurtzailerik gabeko egoera adierazten denean, *neurria izan/ukan* aditza erabili behar da, edota neurria eta unitateak adierazten dituzten esamoldeak. Hau da, bi mota hauetako esa-

moldeak bereizi beharko genitzke, eta bigarren kasukoetan, kalkoaz eraturiko esamoldea baztertu, proposaturiko irtenbideetako bat aukeratuz:

1. Topografoak mendien arteko distantzia neurtu du
2. *Etxe horrek hamar metro neurzen du → Etxe hori hamar metro (luze) da
Etxe hori hamar metrokoa da
Etxe horrek hamar metroko
luzera du
Etxe horrek hamar metro ditu
(luzean/luzeran).

4.2. Pisatu vs. pisua izan/ukan

Neurtu aditzak agertzen dituen arazo bertsuak agertzen ditu *pisatu* aditzak ere. Hain zuzen, aditz horrekin gero eta gehiago zabaltzen ari da egitura bereko kalkoa, eta hainbatetan entzuten dira mota honetako esaldiak:

*Zenbat pisatzen du Mikelek?

*Mikelek hogeita bost kilo pisatzen du/ditu.

Bistakoa denez, lehenago *neurtu* aditzarekin gertatu den bezala, *pisatu* aditzak ere bi motatako erabilerak ditu, alegia, osagarri zuzenaren bidezkoa eta osagarri zuzenik gabea (22). Eta lehen esan dugun bezala, *pisatu* aditzaren kasuan ere, osagarri zuzena duen erabilera guztiz egokia da; osagarri zuzenik gabea, ordea, ezin erabil daiteke aurreko adibideetan egin den moduan, hots, erdarazko erabileraren kalko modura, eta kalko hori saihesteko bestelako esamoldeak erabili behar dira.

Irtenbidearen gakoa, *neurtu* aditzaren kasuan bezala, honako bi aditz hauek bereiztean dago: «*pisatu*» eta «*pisua izan/ukan*». Preseski, «*pisatu*» aditzak ekintza bat adierazten du, eta *pisatzeko* ekintza hori egiten duen norbai-tek (neurtzaile batek) edo zerbaitek (neurgailu edo tresna batek) egon behar du, gorputz jakin baten propietate kuantitatibo bat (*pisua*) neurtzeko. Horrexegatik sortzen da arazo berbera *neurtu* eta *pisatu* aditzekin, azken batez *pisatzea* magnitudetako jakin bat (*pisua*) neurtzea baita; eta era berean bereizten dira *pisatu* aditza eta *pisua izan/ukan* aditzak.

Esandakoak kontuan izanda, *pisatu* aditzari dagokionez, ontzat hartuko ditut 1. motako esamoldeak, noski. Ostera, 2. motako kalkoak (* sinbolodun

(22) Bestalde, aspektuari dagokionez, Mujikaren komunikazioan *neurtu* aditzaren kasuan eginkiro bereizketa berberak egin daitezke *pisatu* aditzaren kasuan ere. Alegia, lehenengo motako esamoldeen kasuan *pisatu* aditzaren forma burutu eta ezburutu guztiak agertzen dira (*pisa*, *pisatu*, *pisatzen*, *pisatuko*); bigarren motako erabilera berriko esamoldeetan, ordea, badirudi *pisatzen* forma ezburutua onartzen dela soilik.

nak) erabat baztertzea proposatzen dut, eta horien ordez eskuinaldeko esaldi alternatiboak erabiltzea:

1. *Zer pisatu du Mikelek?*

Mikelek okela pisatu du.

2. **Zenbat pisatzen du Mikelek?*

→ *Zenbat kilo da Mikel? (!)*

Zein da Mikelen pisua?

Zenbatekoa da Mikelen pisua?

Zenbat kilo ditu Mikelek?

**Mikelek hogeita bost kilo pisatzen du/ditu?* → *Mikel hogeita bost kilo (astun) da (!)*

Mikelen pisua hogeita bost kilo da

Mikelen pisua hogeita bost kilokoa da

Mikelek hogeitabost kilo ditu

Mikelek hogeitabost kiloko pisua du.

Labur esanda, semantikako bereizketa egin behar da, kontzeptualki ere ez baita gauza bera «*pisatzea*» (edo «*neurtzea*») eta «*pisua izatea*» (edo «*neurri jakina izatea*»). Eta horixe da estandarizaziorako egiten dudan proposamena.

AMAITZEKO

Amaitzeko, berriro ere azpimarratu nahi nuke neurri-esamoldeen garrantzia eta horiek arautu beharra. Nire ustez, gauzak ez daude guztiz argi, eta eztabaida sakonagoaren premia dute. Agian Ikasmaterialaren Aholku Batzordean ardura berezia hartu beharko lukete, eztabaidaren ondoren proposamen zehatzagoak egiteko, eta orain arte egin duten bezala, Euskaltzaindiaren ones-penerako aurkezteko eta ondoren argitaratzeko.

* * *

BIBLIOGRAFIA

- AZKARATE, M. eta P. ALTUNA, P.: «*-ko/-dun atzizkiez*», *Iker* 6, 1992.
- AZKUNE, I.: «Neurtu aditzaren erregimenaz», *Euskera* 39 (1994, 3), 1025-1026.
- ENSUNZA, M., ETXEBARRIA, J. R. eta ITURBE, J.: *Zientzia eta Teknikarako Euskara. Zenbait hizkuntza-baliabide*, UEU, Bilbo (2001).
- ENSUNZA, M.: *Ikur eta zeinu bidezko adierazpen matematiko-fisikoen irakurbidea. Bilakaera historikoaren azterketa eta zenbait proposamen berri*, Tesi Doktorala, UPV-EHU, Bilbo, 2001.

- EUSKALTZAINDIA: *Hiztegi Batua, Euskera* **45** (2000, 2).
- GARCIA, J. et al.: «Neurtu aditzaren erregimenaz», *Euskera* **39** (1994, 3), 1027-1031.
- MUJICA, A.: «Neurtu aditzaren erabilera berriaz», *Euskera* **39** (1994, 3), 1023-1024.
- ZABALA, I. eta ODRIOZOLA, J. C.: *Izen-sintagma*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, Leioa (1992).
- ZABAleta, I.: *Hezkuntza-sistema espanyiarren sorrera*, UEU, Bilbo (2000).
- ZUBIMENDI, J. R.: *Ortotipografía. Ikasmaterialaren Aholku Batzordea. Estilo-liburuaren lehen atala*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz (2004).

ONOMASTIKA

IRIZPENAK

Atal honetan udalek eta administrazio batzordeek, baita beste administrazio desberdinek Onomastika Batzordeari egindako irizpen eskaerak biltzen dira. Gogoan izan behar dugu EAEen herri edo kontzejuaren izena aldatzeko irizpena eskatu behar zaiola Euskaltzaindiari. Irizpenak eskatutako hizkuntza edo hizkuntzetan ematen dira.

Mikel Gorratxategi,
Onomastika Batzordeko idazkaria

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, en su reunión celebrada el veintitrés de marzo de dos mil seis en la localidad de Ziordia, estudió el Acuerdo nº 142/2006 de 28 de febrero tomado por el Consejo de Diputados de la Excmra. Diputación Foral de Álava.

Visto el contenido de dicho acuerdo, esta Comisión académica ha estimado necesario realizar las siguientes aclaraciones:

1. La Real Academia de la Lengua Vasca es por Real Decreto 573/1976 de 26 de febrero –firmado por S.M. Juan Carlos I–, y por el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre del Estatuto de Autonomía del País Vasco, la institución consultiva oficial en lo referente al euskera y, por lo tanto, es su competencia, entre otras cuestiones, dictaminar cuál es la forma eusquérica de los nombres de lugar.
2. En cumplimiento de la citada competencia en materia de lengua vasca, esta Real Academia, a través de su Comisión de Onomástica, emitió con fecha siete de octubre de dos mil cinco el certificado en el que dictaminaba que *Billoda* es la forma eusquérica académica de la Junta Administrativa de *Villodas*, del municipio de *Iruña de Oca / Iruña Oka*.
3. Al objeto de determinar la forma eusquérica de un nombre, es preciso documentarlo en el ámbito de uso de dicha lengua. A tal efecto, en el certificado emitido con fecha siete de octubre de dos mil cinco, se aportaron hasta dieciocho testimonios documentados entre los siglos XVI y XX. Esas citas –que son topónimos menores o nombres de términos que incluyen la referencia expresa de la mencionada Junta Administrativa–, demuestran claramente que, sin lugar a dudas, es *Billoda* la forma utilizada por los euskaldunes para denominar en su lengua a dicha localidad.

Esos testimonios aportados fueron los siguientes:

- *Billodabidea* y *Billodabidia*, es decir, «Camino que lleva a Billoda» (años 1547, 1596, 1691, 1696, 1707 y 1698 respectivamente).

- *Billodabidagana* y *Bilodabidegaña*, o sea, «El alto del camino hacia Billoda» (años 1584 y 1621, 1717 respectivamente).
 - *Billodamendi* y *Billodamendia*, es decir «(El) monte de Billoda» (años 1830 y 1556, 1577, 1606 respectivamente).
 - *Billodamendigana*, o sea, «El alto del monte de Billoda» (año 1579).
 - *Billodagirre*, o sea, «A la vista de Billoda» (años 1608, 1939).
 - *Billodasolo* y *Billodasoloa*, es decir, «(El) campo de Billoda» (años 1704 y 1573 respectivamente).
4. A pesar de la aportación de dichos testimonios, en el texto del Acuerdo del Consejo de Diputados de la Excmo. Diputación Foral de Álava se realiza, de forma incomprensible, la siguiente afirmación categórica el certificado aduce investigaciones que no justifica, para suponer que la forma empleada por los euskaldunes es la de Billoda.
- Esta Comisión rechaza rotundamente tal imputación.
5. La Comisión de Onomástica de esta Real Academia ha realizado sus investigaciones en los siguientes archivos: Archivo Histórico Provincial de Álava, Archivo Histórico Diocesano, Archivo Municipal de Vitoria, Archivo del Territorio Histórico de Álava y Archivo de las Universidades Eclesiásticas. En el certificado de siete de octubre de dos mil cinco aportó a modo de resumen –por estimarlo suficiente– una selección diacrónica con los mencionados dieciocho testimonios. Para mayor información, esta Comisión incluye en el Anexo que acompaña al presente certificado, los más de doscientos testimonios extraídos de los archivos referenciados que corroboran y amplían aquella documentación.
6. La pretensión del Acuerdo 142/2006 de restar, al parecer, validez a estos datos o a la calidad del trabajo de la Comisión, sólo puede estar motivada por el intento consciente de ocultar la realidad lingüística del pasado de esta zona alavesa, donde la población era mayoritariamente vasco-hablante. Esta Academia quisiera creer que en modo alguno habrá sido tal el deseo de la Corporación Foral.
7. Los testimonios documentales de 1257 y 1258 recogidos en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia alavesa seguida de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia, sólo vienen a demostrar que en castellano se ha utilizado la forma *Víllodas*, lo cual, no es, en este caso, objeto de debate.
8. Contrariamente a lo que apunta el texto del Acuerdo 142/2006 de la Excmo. Diputación Foral, como es evidente, un topónimo no pertene-


ce a uno u otro dominio lingüístico por su origen o etimología, sino por el uso y evolución que ha tenido en cada lengua, independientemente de su procedencia. Así, por ejemplo, nadie pone en tela de juicio la consideración de topónimos plenamente castellanos de los nombres *Cartagena* (Murcia) *Gibraltar* (Cádiz), *Grijalba* (Burgos), *Maria* (Almería) o *Wamba* (Valladolid), a pesar de ser de origen fenicio, árabe, latino, hebreo y germánico respectivamente. Igualmente, nadie pondría en tela de juicio la vasquedad de nombres como *Luku* del latín *Lucus*, *Gaztelu*, del latín *Castillum*, *Donamaria*, del latín *Domina Maria*, o *Plentzia*, del romance *Placencia*.

La Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, con base a lo anteriormente considerado y en conformidad con el artículo seis punto cuatro del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el artículo décimo de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, ratifica el acuerdo tomado con fecha de siete de octubre de dos mil cinco, haciendo constar expresamente que tal decisión pertenece sólo al ámbito normativo-lingüístico y no al político-administrativo. Por lo cual, nuevamente,

HA ADOPTADO LA SIGUIENTE RESOLUCIÓN:

Que el nombre de la Junta Administrativa de *Villodas* del municipio de *Iruña de Oca / Iruña Oka* en su forma eusquérica académica actual es **Billoda**.

Vº Bº



Andres Iñigo Ariztegi,
Presidente de la Comisión
de Onomástica

Henrike Knörr,
Delegado de Euskaltzaindia en Álava

***BILLODA IZENARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA
DOCUMENTACIÓN SOBRE EL NOMBRE BILLODA***

Araututako izena / Graffía normativizada	Hitzez-hitzeko aipua / Graffía literal	Herria / Población	Urtea eta protokoloa / Año y protocolo	Or. / Hoja	Iturria / Fuente
Bilobidegaña	Bilobidegaña	Ariniz	A.1621 P.3909	S/F	A.H.P.A.Bernabe Gobeo
Billobidea	Villovidea	Margarita	A.1850 P.13249	1031	A.H.P.A. Gregorio Guillerna
Billobidea	Villovidea	Margarita	A.1817 P.8776	356	Cipriano Garcia de Andoin
Billobidea	Villovidea	Margarita	Nº.7 VARIOS	S/F	A.H.D. Parroquia de Margarita
Billobidea	Villovidea	Margarita	Nº.7 VARIOS	S/F	A.H.D. Parroquia de Margarita
Billobidea	Villovidea	Margarita	A.1887 P.19863	183	A.H.P.A. Ramon Gonzalez de Echavarri.
Billobidegana	Villobildegana	Ariniz	A.1753 P.8936	662v	A.H.P.A. Andres de Lezana.
Billobidegana	Villobildegana	Ariniz	A.1797 P.10542	962	A.H.P.A. Pablo Antonio Pinedo.
Billobidegana	Villouidegana	Ariniz	A. 1640-1883. Nº 14. Fundación de escuela.	S/F	A.H.D. Parroquia de Hueto Abajo/Otobarren.
Billobidegana	Villovidegana	Ariniz	A.1848 P.13236	643v	A.H.P.A. Gregorio Guillerna
Billobidegana	Villovidegana	Ariniz	A.1829 P.8786	625v	A.H.P.A. Cipriano Garcia de Andoin
Billobidegana	Villovidegana	Ariniz	A.1766 P.15389	21	A.H.P.A. Juan Antonio de Zarate (Legarda)
Billobidegana	Villovidegana	Ariniz	A.1796 Nº.8 Aniversarios	S/F	A.H.D. Parroquia de Ariñez/ Ariniz
Billobidegana	Villovidegana	Ariniz	A.1796 Nº.8 Aniversarios	S/F	A.H.D. Parroquia de Ariñez/ Ariniz
Billobidegaña	Villovidegaña	Ariniz	A. 1847 P. 8731	255v	A.H.P.A Gabriel Aragon
Billobidegaña	Villovidegaña	Ariniz	A. 1847 P. 8731	257v	A.H.P.A Gabriel Aragon
Billobidejo	Villovidejo	Ariniz	A. 1882 P. 13962	553	A.H.P.A. Cecilio Villaverde

Araututako izena / Grafía normativizada	Hitzez-hitzeko aipua / Grafía literal	Herria / Población	Urtea eta protokoloa / Año y protocolo	Or. / Hoja	Iturria / Fuente
Billobidejo	Villovidejo	Ariniz	A.1896 P.20829	1820	A.H.P.A. Ramon Gonzalez de Echavarri.
Billobidejo	Villovidejo	Ariniz	A.1896 P.20830	2761	A.H.P.A. Ramon Gonzalez de Echavarri.
Billobidigana	Villovidigana	Ariniz	A.1875 P.13717	630	A.H.P.A. Jose Zumarraga
Billobidigana	Villobidigana	Ariniz	A.1897 P.22288	1162	A.H.P.A. Victor Manero Lopez
Billodaagirre	Villoda aguirre	Margarita	A. 1608 P. 2538	449	A.H.P.A. Miguel Sarralde.
Billodaagirrea	Villoda aguirrea	Margarita	A.1656 P.3669	220v	A.H.P.A. Francisco Diaz de Sarralde (Mendoza)
Billodabidagana	Villoda bidagana	Ariniz	A. 1584 P. 6894	561	A.H.P.A. E. Jorge Aramburu.
Billodabidagana	Villoda bidagana	Ariniz	A.1660 P.3672	50	A.H.P.A. Francisco Diaz de Sarralde (Mendoza)
Billodabidagana	Villoda bidagana	Ariniz	A.1677 P.2073	213v	A.H.P.A. Francisco Diaz de Sarralde (Mendoza)
Billodabide	Villodavide	Ariniz	A.1688 P.5989	1273v	A.H.P.A Jose Aguirre
Billodabidea	Villoda bidea	Ariniz	A.1665 P.4141	136v	A.H.P.A. Francisco Diaz de Sarralde (Mendoza)
Billodabidea	Villoda videa	Ariniz	A.1738/39 P.4076	68	A.H.P.A. Jose de Luco. (Arangiz).
Billodabidea	Villoda videa	Ariniz	A. 1640-1883. Nº 14. Fundación de escuela.	40	A.H.D. Parroquia de Hueto Abajo/Otobarren.
Billodabidea	Villodabidea	Ariniz	A.1620 P.2762	19	A.H.P.A. Juan Gonzalez de Junguitu (Mendoza)
Billodabidea	Villodavidea	Legarda y Margarita	A.1756 P.8938	120	A.H.P.A. Andres de Lezana.
Billodabidea	Billodabidea	Lermanda	A.1691 P.9241	S/F	A.H.P.A Jose Aguirre
Billodabidea	Billodabidea	Lermandan	A.1692 P.6083	1251	A.H.P.A Jose Aguirre
Billodabidea	Billodabidea	Lermandan	A. 1547 P. 6657	S/F	A.H.P.A. Esteban Ysunza.
Billodabidea	Villodabidea	Lermandan	A.1619 P.7533	S/F	A.H.P.A. Juan Diaz de Sarralde. (Ariniz)
Billodabidea	Villodabidea	Lermandan	A.1628 P.3383	S/F	A.H.P.A. Juan Diaz de Sarralde. (Ariniz).

Araututako izena / Grafía normativizada	Hitzez-hitzeko aipua / Grafía literal	Herria / Población	Urtea eta protokoloa / Año y protocolo	Or. / Hoja	Iturria / Fuente
Billodabidea	Villoda bidea	Otoak	A.1707 P.9244	S/F	A.H.P.A Jose Aguirre
Billodabidea	Billoda bidea	Margarita	A.1709 P.426	1216+65v	A.H.P.A Jose Aguirre
Billodabidea	Billoda videa	Margarita	A. 1722 P. 6	465	A.H.P.A. Pedro Antonio Mendivil.
Billodabidea	Billoda videa	Margarita	A.1654 P.3780	53	A.H.P.A. Francisco Diaz de Sarralde (Mendoza)
Billodabidea	Billodabidea	Margarita	A.1596 P.5274	S/F	A.H.P.A. Pedro Albistur
Billodabidea	Billodabidea	Margarita	A.1663 P.4142	286	A.H.P.A. Francisco Diaz de Sarralde (Mendoza)
Billodabidea	Billodabidea	Margarita	A.1678 P.3522	23v	A.H.P.A. Francisco Diaz de Sarralde (Mendoza)
Billodabidea	Villoda bidea	Margarita	A.1739 P.901	4 de Mayo	A.H.P.A. Cristobal Domingo de Zaldos
Billodabidea	Villoda bidea	Margarita	A.1686 P.9239	1531	A.H.P.A Jose Aguirre
Billodabidea	Villoda bidea	Margarita	A.1709 P.426	1216+63v	A.H.P.A Jose Aguirre
Billodabidea	Villoda bidea	Margarita	A.1708 P.6415	52v	A.H.P.A. Jeronimo Diaz de Sarralde (Mendoza, Mandoia)
Billodabidea	Villoda bidea	Margarita	A.1720 P.8950	244v	A.H.P.A. Juan Bautista Men-divil y Lazcano. (Foronda).
Billodabidea	Villoda bidea	Margarita	A.1613 P.2543	78	A.H.P.A. Juan Gonzalez de Junguitu (Mendoza)
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A.1743 P.6097	S/F (14/julio)	A.H.P.A. Joaquin Gonzalez de Echavarri y Ugarte.
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A.1746 P.6425	16 de Agosto	A.H.P.A. Cristobal Domingo de Zaldos
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A.1681 P.5992	924	A.H.P.A Jose Aguirre
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A.1706 P.3	1200	A.H.P.A Jose Aguirre
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A.1687 P.3137	S/F (3/4)	A.H.P.A. Juan Amezti
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A. 1596 P. 4948	S/F	A.H.P.A. E. Jorge Aramburu.
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A.1675 P.3133	680v	A.H.P.A. Andres Francisco Esquivel.
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A.1718 P.350	661v	A.H.P.A. Carlos de Baigorri

Araututako izena / Grafía normativizada	Hitzez-hitzeko aipua / Grafía literal	Herria / Población	Urtea eta protokoloa / Año y protocolo	Or. / Hoja	Iturria / Fuente
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A. 1736 P. 859	518v	A.H.P.A Eugenio Errazu
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A.1734 P.858	121	A.H.P.A. Eugenio Errazu
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A.1685 P.6164	95	A.H.P.A. Diego Saenz de Asteguieta Eguiluz (Gereña)
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A.1688 P.4838	159	A.H.P.A. Diego Saenz de Asteguieta Eguiluz (Gereña)
Billodabidea	Villoda videa	Margarita	A.1690 P.4836	57	A.H.P.A. Diego Saenz de Asteguieta Eguiluz (Gereña)
Billodabidea	Villodabidea	Margarita	A. 1645 P. 17581	S/F (2/agosto)	A.H.P.A. Juan Ugarte.
Billodabidea	Villodabidea	Margarita	A.1740 P.773	S/F (7/abril)	A.H.P.A. Joaquin Gonzalez de Echavarri y Ugarte.
Billodabidea	Villodabidea	Margarita	A.1743 P.6097	S/F (14/julio)	A.H.P.A. Joaquin Gonzalez de Echavarri y Ugarte.
Billodabidea	Villodabidea	Margarita	A.1690 P.5985	1132	A.H.P.A Jose Aguirre
Billodabidea	Villodabidea	Margarita	A.1709 P.426	1216+83	A.H.P.A Jose Aguirre
Billodabidea	Villodabidea	Margarita	A.1584 P.5140	S/F	A.H.P.A. Pedro Albistur
Billodabidea	Villodabidea	Margarita	A.1739 P.955	340	A.H.P.A. Tomas Fernandez de Zurbano
Billodabidea	Villodabidea	Margarita	A.1689 P.6172	11	A.H.P.A. Jeronimo Diaz de Sarralde (Mendoza, Mandoia)
Billodabidea	Villodabidea	Margarita	A.1709 P.11367	142	A.H.P.A. Jeronimo Diaz de Sarralde (Mendoza, Mandoia)
Billodabidea	Villodabidea	Margarita	A.1619 P.9337	S/F	A.H.P.A. Juan de Urbina (Guereña)
Billodabidea	Villodabidea	Margarita	A.1633 P.4566	S/F	A.H.P.A. Juan Diaz de Sarralde. (Ariniz).
Billodabidea	Villodabidea	Margarita	A.1642 P.5905	S/F	A.H.P.A. Juan Diaz de Sarralde. (Ariniz).
Billodabidea	Villodauidea	Margarita	A.1720 P.137	835	A.H.P.A. Carlos de Baigorri
Billodabidea	Villodauidea	Margarita	A. 1740 P. 844	120v	A.H.P.A Eugenio Errazu
Billodabidea	Villodauidea	Margarita	A.1734 P.792	374	A.H.P.A. Jose Antonio Ruiz de Luzuriaga

Araututako izena / Grafía normativizada	Hitzez-hitzeko aipua / Grafía literal	Herria / Población	Urtea eta protokoloa / Año y protocolo	Or. / Hoja	Iturria / Fuente
Billodabidea	Villodavidea	Margarita	A.1809 P.10007-A	177	A.H.P.A. Pablo Antonio Pinedo.
Billodabidea	Villodavidea	Margarita	A.1748 P.775	S/F (6/junio)	A.H.P.A. Joaquin Gonzalez de Echavarri y Ugarte.
Billodabidea	Villodavidea	Margarita	A.1746 P.6425	16 de Agosto	A.H.P.A. Cristobal Domingo de Zaldos
Billodabidea	Villodavidea	Margarita	A.1676 P.3596	S/F (19/3)	A.H.P.A. Juan Amezti
Billodabidea	Villodavidea	Margarita	A.1717 P.249	695v	A.H.P.A. Carlos de Baigorri
Billodabidea	Villodavidea	Margarita	A.1765/6 P.1291	490v	A.H.P.A. Miguel de Robredo y Salazar.
Jaun agurgarria on harr itzazu neure agurrik bikainenak eta hautaenak.

Krutwig F.K.

EUSKALTZAININDIA
Bilbao

Bilbaon, 1952-ko Iorailaren 21garrenean

Lafittetarr Bethiri Jauna,
Uztaritz

Iaun agurrgaria ta euskaltzainkidea:

Zorigaitzez azkenengo bilkura hoietaan horrko euskaltzaindiok ikhusi etzaituztegu eztakidan zergatik. Ba dakit batzuok lanpeturik zagozela, dena dela, neuk Azantzarr Luis Iaunari guthun batzuk izkiriatu nerauzkion bainan eztakit bizi ala hil denz, eri denz; nehoiz ere erantzunik harrtu ezpai tut. Beharr bada nire guthunak heldu etzitzaitzakion hemengo mugan askotan auktoritateak idekitzen baititute.

Dathorren Orstaroaren 5 garrenean, zuk Oleagarr Nazario Iaunak igorriren derautzun deitzean ikhusiren duyunez bilkura Donostian edukiren dugu. Azkue hil zenetik etzan bilkurarak gure zadorrlari iauna, Oleaga, eri izan baitzan eta prostato-ektomia pairatu baitzuen eta zio hunengatik Bilbaoko Klinika batetan hospitalizaturik egon baita. Geroago bertze zoritxar bat Akademiari ethori zitzaison, hau da Mgr Saint Pierren heriotza. Orain euskaltzain-gaiak hautatu beharr ditugu. Saint Pierren ondorengoa lapurtarr batek beharr du izan, Laphurdiko dialektuaren errepresentanta (kostakoa), neuk uste Otsobi on-ongi legoke kandidatura hunentzat aurkeztea.

Urrengo bilkurean neuk bertze rapport bat aurkeztuko dut, Akademiari berriro biziaren emaitekotz: hauietan bertze proposizioetan hauk eginen ditut: Gure Bilkurak hunela izan ditezen:

3 bilkura Bilbaon,

3 bilkura Donostian,

2 bilkura Iruñan,

3 bilkura Baionan eta bethi leku batetako bilkurari urgaizle lokaleak dei ditezen. Hunela urgaizleen kollaborazinoaren indarragotzekotz eta hekiek Akademiaz duten atxikidura sendatzekotz.

Geroz lehen zegoan «Akademiaren laguntzaileak» zeritzaison elkharrgoa berphiztea eta «Euskaltzaindiaren Kultur-Elkharrgo» baten kreatzea.

Kultur-Elkharrgo hunen kreatzekotz ni mintzatu izan ba naiz hemengo Universitateko professore batzuekin eta heien kolaborazinoa edukiren dut.

Orain arren bat eginen derautzut. M. Olasoneko (1) iaunari erran iezozu: beharr bada dathorren hilabethean edo dathorren udan hementik Euskalzale batzuk horra ioanen garela zurekin (Lafitterekin) eta M. Olasoneko iaunarekin mintzatzekotz. Euskalherrian' albait-handien izan daiteken kultur-berphiztearen fomentatzekotz. Huni buruz Egillorrtarr M., Hegiatarr J.R. iaunekin eta bertze euskalzalerik askorekin mintzatu naiz eta huni buruz mintzatzekotz horra ioanen gara. Orain dagozen baldintzetan kulturezko ninikatzearen bat eragitekotz eta kultur-ninikatze haur batera edo uniformea Euskalherri osoan izan dadin. Huni buruz ere zurekin mintzatu nahi nuke.

Iaun eta adiskide horrek, on harr itzazu nire agurrik hoberenak eta hau-taenak.

Krutowig F.K.

(1) Jaun hau Telesforo Monzon Olasonekoa (Bergara 1904 - Baiona 1981) besterik ez da.

Federico Krutwig
Hôtel du Château
10, Av. Louis Barthou
Biarritz

Piarres Lafitte iaunari,
Ustaritz

Biarritzen, 1961/01/16an

Iaun agurrrgarria!

Azkenengo egun hoietañ Zaitegi iaunarekin eta bertze euskalzaleekin'-hemengo lurrardeetan euskararen alde ekhiteko problemari buruz mintzo izan nintzan eta neure proiektu bat exposatu nerauen.

Ba dakit' lehenago' euskararen alde ekhiteko probleman' zure aburua eta nirea differentak zirela... halarik ere demporaren iragaitateaz, beharr bada, gure differentzak guttitu dira... eta baldin orain ere berdin ezpa ditez, gauza batean bethi akort egon gara, euskara iraun arazi beharr genuelako baieztean.

Dena dela, Laburdin euskararen alde ekhin nahi izaitean nola zure kola-borazinoaren gabe, euskararen alde hemengo lurretan egiten duzun horren laguntzaren gabe?

Bizkaian nengoelarik' euskararen alde nik ere ekhin bai nuen, problema hantan zeinbait praktika ba dut, batez ere orain Laburdin gerthatzen dena, lehenago'mugaz harantz gerthatu izan dela konsideratzen baldin ba dugu, neuk orduan, euskararen salbatzeko Bizkaian antolatu ukhan nituenak' hemengo lurrardeetan zenbeit valore ukhan lezake. Gure eskualdeetan orduan Euskalherriaren Sozietasunaren problema izanik da, gure herriko Burua erdaltzen baitzen, eta haur motivu bakan batetik, euskara kultur biderik ezpaitzan, gure hizkuntzan egir literaturak ezein qualitate ezpaitzuen, batez ere Hispaniako ta hemengo literaturaz konparatzen ba genuen. Hortakotz, euskara kultur-bidea bilhakatu behar zela erraiten nuen eta «Kultur» hitzaz gure problema konkretizatu nuen. Hunen egiteko hizkuntza batua, literatura-hizkuntza bat euskaldun guztientzat ukhan behar genuela erraiten nuen, eta hau nire aburuz (Urkixo iaunaren aburuz bezala) laburdara klassikoa izaiten da.

Orduan eman genuen deiari bertzaldean iarraiki zaizko izkiriatzale talde bat. Nehoiz baino gehiago orain euskaraz kultur thematei buruz izkiriatzzen bai-

ta, bai eta Gipuzkoan eta Bizkaian. Atsular handia ta famatua' gure izkiria-tzailen Buruzagitzat onhartzen baita.

Kulturaren alde ekhitekotz Bilbaon Kultur Ikhertzeen Institutu bat fundatu nezan eta institutu huntan euskara hizkuntza offizialea izan zedin, ezen euskararen Kulturaren alde ekhiteko ezta naikhoa baserritaren thematei buruz bazik ez mintzatzea, gure bizi modernuaren konplexitate guztiari buruz hitz egin beharr baitugu euskaraz, bertzenaz euskara museuaren obiektu bat baili-zen bezala traktatzen baitugu.

Orain hemen ere iomuga berdinaz Kultur ikhertzeen Institutu bat fundatu nahi nuke, euskalzale guztien kollaborazioaz.

Institutu huntan! berez interesante diren thematei buruz traktatu behar dugu, euskaldun diren ixtudiantek eta kulturdunak euskaragana lethorzen, euskara heien expresatzeko bidea ledin bilhaka. Gizarteko Burua euskaldun-ten iardets baldin ba geneza, gure hizkuntzaren ethorrkizuna salba izanen bai- ta, ezen herriak Buruari, Aristokratia, Burjesiari darraie.

Thema huni buruz euskaltzale batzuekin mintzo izan nendin, neure aburuak exposa niezen bai eta euskaltzale batzuei izkiriatu derauet heien kolla- borazioaz eskatzen eta aburuak zein diren iakiteko ere.

Zure laguntza' valore handikoa izanen zaiku, hemengo euskararen bizia- ren iraun arazteko, nehork ere zuk baino gehiago ekhitzen baitu, nehork baino sukharr handiagoa ezpaitu, nehork zuk baino beharr den konseilu eman bai- tiezakegu.

Beraz, zure erantzuna itxaroten dut. Zure aburua zein den iakin nahi nu- kelakotz...

On har itzazu neure konsiderazinoaren expressino bihotzetikoenak...

F. Krutwig

SÉMINAIRE
des MISSIONS ÉTRANGÈRES
128, rue du Bac
PARIS (VII^{ème})

Le 18 janvier 1953

Cher ami:

Mes félicitations sincères pour le titre d'Officier d'Académie dont on vous a honoré. Tous ceux qui vous connaissent admettront qu'il est bien mérité.

En second lieu merci pour la réponse que vous avez fait paraître à l'Urdekeria de Mirande. Je la prendrai comme sujet de lecture pour mes élèves de basque demain. Je tiens à démasquer ce Monsieur. Le jour de l'Eskuararen eguna, le 11 janvier, on nous a lu ici une poésie écrite en bizcayen par ce Mirande. A la fin de la séance j'ai été trouver l'orateur qui nous a présenté cette poésie et puis deux administrateurs d'*Euzko Deya* pour leur parler de l'article: «*Liburu lizunetaz*»; aucun d'eux ne l'avait lu. Ils étaient fort étonnés des détails que je leur donnais. Ils me disaient: «*Je me demande comment l'article a pu passer.*» Nous verrons s'ils réagiront. Malheureusement Mirande (1) groupe dans un café quelques basquisants. Il leur fait un mal sérieux. Je me demande s'il est communiste.

Dans tous les cas, merci encore une fois pour votre article dans «*Herria*».

«*In charitate Christi*».

Jean Chabagno (2)

(1) Ikus beherago J. Mirandek berak Piarres Lafitteri idatzi gutunak.

(2) **Jean Chabagno** (Aldude, 1881 – Monbeton, 1975). Jaun hau gazterik izan zen aipagai euskal literaturan, ezen Jean Etxepare Aldudeko mirikuak 1910ean idatzi zuen *Buruxkak* liburuaren «Misionestaren ezteiak» deitu kapitulua Pariseko misionestaren saileko aita misionestaren lehen mezaz da solas. Bestalde erran behar da Japoniatik itzuli eta 1914ko gerla ondoan Parisen bere apez lagunen etxearen ekonomo nagusi izendatu zutelarik bere lagunek, euskara irakasten hasi zela, nahi zutenentzat, bereziki De Roca Serra «Legarralde» *Elgar* Pariseko Euskalzaileen Biltzarraren aldizkarian eskatu ziolarik.

SANTUARIO de ARANZAZU
OÑATE
(Guipuzcoa)

1953, Iraillak 29

Lafitte, Apaiz Jaun agurgarriari
Ustaritz-era

Itzal aundiko jaun ori: Agur.

Itz bi egin nai dizkizut, atera-berri duzun «*Lexique français-basque*» ori lenbailen erosi nai nukela esateko. Emendik orra dirua bialtzeko, ordea, eztut erraztasunik, eta biderik onena onako au izango litzake, nere ustez: Euskal-tzaindiko batzarrera urrengo zatozenean, zuk neri liburua eta nik zuri dirua ematea, alegia. Bainax menetarik baizik ezpaitugu, jakinarazi zadazu, arren, zeinbat peseta zor dizkizudan liburu-ordez. Lan honetan gaitza, ardura aundi-koia ta baliotsua zuk eta Tournier Jaunak burutu dezuten ori! Ekin eta Jarrai!

Zurea,

Fr. Luis Villasante o.f.m. (1)

P.D.: *Gure Herria* aldirokoaren suskripzioa ordaintzeko ere zurekin konponduko naiz.

(1) **Luis Villasante** (Gernika, 1920 – Arantzazu, 2000), 1951n euskaltzain izendatua, euskaltzainburu 1970-1988.

SANTUARIO de ARANZAZU
OÑATE
(Guipuzcoa)

1953-ko Azaroaren 5-an

Lafitte Apaiz Jaun agurgarriari
Ustaritz-en

Ene Jaun ori:

Joandako ostiralean egin nuen Donostiko ostera jakina. Zerori ere an azalduko zinalakoan ninjoan, eta gure sal-erosiak-aldez aurretik itzegin bezala an zertuko genitulako ustearekin. Damuz, zu etzinan azaldu. Orduan Dassance jaunari ordaindu nizkion bai *Gure Herria*-ren urte-saria eta bai zure iztegiarena ere. Beraz, iztegi ori edo postaz igorri edo urrengo Donostirat zatozenean ekarri egin zenezake.

Agindu zure zerbitzari oni,

Fr. Luis Villasante o.f.m.

SANTUARIO de ARANZAZU
OÑATE
(Guipuzcoa)

1953 ko Azaroak 16
Lafitte euskaltzainari
Ustaritz'en

Ene Jaun agurgarri hori:

Jasoko zendun, noski, orain dela egun batzu igorri nizun arako karta hura. Gaur berriro iskribatzen dizut orain esatera noakizun hau zuri jakin-aratzearagatik, alegia: Aita Imanol Berriatuak (1) (Bizkaiko Foruan dugun Kolegio baten zuzendaria da berau) zure Hiztegiaren bi exemplare erosi nahi lituzke eta liburuok ordaintzeko dirua neri eskuan eman dit. Beraz Euskaltzaindiaren urrengo batzarrean nik diru hori emango dizut eta zuk ekarri zurekin liburuok (bat Arantzazurako eta bi Foruarako), edo nahi izate ezkerro, postaz bidali.

Har zazu, jaun horrek, nere onginahiaren agiria. «*Oremus pro invicem*».

Fr. Luis Villasante, o.f.m.

(1) *Imanol Berriatua Ibieta* (Elantxobe, 1914 – Jerusalem, 1981), frantziskotarra eta misiolaria. Besteak beste *Anaitasuna* aldizkariaren sortzailea (1953) eta euskara batuaren alde lan anitz egina.

EUSKALTZAININDIA
BILBAO

1971, ekainak 16

Pierre Lafitte jaunari
Ustaritz

Jaun agurgarri eta adiskide maitea:

Gaur Euskaltzaindiko idazkari ordea (Lizundia) enekin izan da hemen gure aferak tratzen. Eta pentsatu dugu on litzakela Beskoitzeko egunaren bezperan aditz batzordekoek bilera berezi bat hor egingo bazenukete (larunbat arratsaldez edo..., Baionan beharbada, «Musée Basque» delakoan). Batzorde hau, nik dakidanez, ez da sekula bildu, eta Beskoitzeko egunaren aitzakiaz parada ona izanen da hortarako. Behintzat mordosta polita, bai hortik eta bai hemendik, elkarrekin bildu ahal izango zerate.

Lizundia jaunak egingo dizkitzue deiak batzordeko denoi. Berak esan di-danez, bera ere joanen da aurretik zurekin egotera (ahal badu, behintzat).

Zeuen bilera hortan bi puntu dituzute aztertu beharrekoak:

- Lehen: Aditz batuaren sariketarako hartu diren lanen aztzertzea, eta saria nori eman behar zaion erabakitzea.
- Bigarren: Aditzaren batasuna nola egin ahal izango den estudiatzea.

Lehenbiziko puntuak erabaki beharra dagoela uste dut, sariketaren epea bete denez gero. Bigarrena ere nahi dute hemen batzuek lehen bai lehen erabaki dedin. Baino nik ez dakit gauzak hortarako aski onduak diren. Mitxelena jaunarekin ere kontatu beharko litzake. Dena dela, zeuek ikus.

Aita Iratzeder'en anaia hemen da, bakantza egun batzuk ematen.

Zure zure

Fr. L. Villasante

SANTUARIO de ARANZAZU
OÑATE
(Guipuzcoa)

Apirlak 11, 1976

Pierre Lafitte jaunari
Ustaritz

Jaun agurgarri eta adiskidea:

Badakizu nola Ministerioan liburuxka bat nahi duten argitaratu Euskal-tzaindiaraz. Hor, beste gauzen artean, kondaira pixka bat ere egin beharko da: Euskaltzaindiari buruzko asmuak noiztikoak diren eta abar. San Martinek zure fitxa bat eman zidan, eta bertan euskal Akademia bati buruz mintzatu direnen artean izen hauk ematen dituzu: Darrigol, Arbelbide, Hiribarren eta Joannate-guy. Arbelbideri buruz topatu ditut xehetasunak *Euskera* gure aldizkarian, lehen zenbakian. Erro euskal apologistaren obrak ere irauli ditut, zerbait aurkituko nuelakoan, baina ez dut deus ikus. Beste hiru jaun hoiek non mintzo diren hortaz ba ote dakizu? Estimatuko nizuke esatea, delako liburuxka hortan aipatzeko. Eta besterik baldin badakizu, berdin. Eta mila esker aintzinetik.

Hilabete huntako batzarrea Gasteizen egiteko zen, Apraiz jaunaren omenez. Bainan hunen omenaldia atzeratu egin da. Beraz batzarre arrunta izango dugu Donostian, apirilaren 30ean.

Izan ongi, jauna. Har zazuene estimazioaren ageri zintzaoa.

Fr. L. Villasante

SANTUARIO de ARANZAZU

Franciscanos

Teléfonos: 780951-780797

OÑATE (Guipuzcoa)

1982, Otsailak 27

Pierre Lafitte jauna
Uztaritzen

Adiskide bihotzekoa:

Uste nuen atzo ikusiko zintudala Euskaltzaindiko batzarrean; baina konprenitzenten dut, bestalde, eguraldi zakar hauekin ez agertzea ere. Iruñean bazkaldu genuenean mintzatu ginen pixka bat Lavieuville-ren bigarren Katiximari buruz. Jon Bilbaok bere Bibliografian dio (berria nondik hartu duen esan gabe) Haroztegi delako batek jarri zuela euskaraz. Ba ote dakizu zuk horretaz zerbait? Nik badut, gainera, Mogel-ek bizkaierara egindako itzulpen bat (argitaragabea). Ene asmoa da, denboraz, «*Lekukoak*» bilduman (1) bi-biak argitaratzea, Lapurdikoa eta Bizkaiko hori. Baina xehetasun zenbait jakin nahi litzateke frantsesezko originalaz, Lapurdiko itzulpenaren egileaz eta itzulpen honek izan duen arrakastaz, etab.

Horretaz Euskaltzaindiko batzarrerako egingo bazenu txosten bat, hori izango litzateke hoherena.

Lapeyre-ren liburua laster agertuko da «*Lekukoak*» hortan. Inprimeriako frogak helduak dira.

Ez dakit ikusi duzun, baina «*Fontes Linguae Vasconum*» aldizkarian bi artikulu agertu ditut, perpaus kausalei buruz, zuri dedikatuak.

Besterik gabe, bihotzez,

Fr. L. Villasante, o.f.m.

(1) «*Lekukoak*» bilduman Aita Villasantek berak argitaratu zuen 11. zenbakia Lavieuville-Harosteguy-ren *Bayonaco diocesaco bigarren caticima*, jadanik 5. zenbakian Etienne Lapeyre-n *Kredo edo sinhesten dut esplikatua* hemen berean aipatzten duena *Fontes Linguae Vasconum*-en Lafitte-ri berari dedikatu dizkion bi artikuluak bezala.

SANTUARIO de ARANZAZU
OÑATE
(Guipuzcoa)

26-10-1967

Nere benetako Jauna:

Artu dut zure karta, eta milla esker dana irakurtzeko artu duzun lanagatik. Eskerrik asko gainera zure eskutitzean ematen dizkidatzun kontseju onen-gatik; eta gorespenengatik ere bai, orren esku apartekoetatik artutako lorak usai gozoagoa baidute, eta eragin ere barne barnetik eragiten baidute aurrera jarritzeko lan gogor ortan.

Orain naiko buruauste izango dut liburu koskor ori argitaratzen. Jainkoak lagunduko al dit gure euskaldun mutikoen eta euskeraren onerako zeozer tajuzkorik egiten.

Milla esker berriz ere eta agurterdi.

L. Fernando Mendizabal'ak (1)

(1) *Fernando Mendizabal* (Zaldibia, 1934), euskaltzain urgazlea.

31/12/1967

Jaun kalonje eta herritar maitea:

Eskerrik hanitx Arnaut Oihernaten lanarentako. Atseginekin irakurri dut, bai eta zure aintzin-solasa eta oharpenak ere. Batere ez nekiene Zuberotar herritarraren lan hori agertu zela. Egia da azken urthe hauetan euskaltzaletarik –eta euskal «olerkaritza»-tik ere– baztertuxerik bizi naizela, bortxaz; lehenik ama hil zitzaidan (burhasoekin bizi bainintzan) luzaz eri egon ondoan; aurthen aita; gero azken uda eta udazken huntan nihaur eri izan naiz; eta azkenekotz, jakin berri dut etxez aldatu behar nuela (apartamendua aitaren izenean baitzen)*. Pentsa dezakezun bezala, leheneko sukarra (eta sukartsuna...) amiñi bat epheldu zaizkit, gauza horiekin ororekin.

Mila goraintzi eta ene phartzet ere,

Urthe Berri Hon!

Jean Mirande (1)

* Huna ene adreza berria, 1967-01-7'tik aintzina:
7, rue Jules Dumien
PARIS XX^{ème}

(1) *Jon Mirande Aiphasoro* (Paris, 1925–1972). Piarres Lafittek 1948an Biarritzeko Mundu Biltzarrean aurkitu zuen eta ongi ezagutu Jon Mirande gaztea, honek ez baitzituen gordetzen nehoren aitzinean bere sentimendu eta ideia heterodoxoak (nazia zela baitzioen berak bainan ez kristau demokrata, are gutiago komunista). Horregatik linguistika sailaren buru baitzen biltzarrean Aita Lafitte, honek hartu zuen haren, jakitatea estimatzaren zuelakoan arauz, bere sailaren idazkaritzat. Geroako gero eta batzuek eta besteek erranak erran, gutun honek eta, ondotik datozten beste hirurek, hartzen dituzte zenbait gogoeta.

Le 27 septembre 1970

Monsieur le Chanoine,

Je viens d'être informé par un ami breton basquisant débutant, qui a récemment passé quelques jours dans le Labourd et aurait aimé vous y rencontrer, qu'il n'a pu le faire ayant appris de mes ex-confrères de l'Académie basque, réunis à Bayonne, que vous deviez être opéré de la cataracte.

J'ose espérer que cette opération s'est heureusement déroulée et en souvenir du temps hélas déjà ancien où grâce à votre Grammaire je m'initiais à la Bascologie, je me permets de vous présenter mes voeux les plus sincères pour un très prompt rétablissement.

Veuillez agréer, Monsieur le Chanoine, l'expression de mes sentiments très respectueux.

Jean Mirande

Parisen, 1971-05-21

Aita Lafitte adiskide maitea:

Atzo dut ukhan Sorhüta-Chahorat igorri zenerautan liburuxka *Etxahunen bertsoak gipuzkeraz*, Zuberoako askazi batek ekharririk. Alabainan, liburua Sorhütarat igorri zenerautanean, ni ordukotz Pariserat itzulia nintzan, eta gerroztik, ene osaba, Chahoko etxeko-jauna eritu zen, eta azkenekotz hil eta, erran gabea, ene etxe koek ahantzi zuten liburuaren igortzea.

Eskerrik hanitz, beraz, zure lanaren gatik, eta nitzaz erraiten dituzun gauza onen gatik...

Esperantza dut bista sendotu zaizula osoki, eta orain irakur eta izkiriba dezakezula gaiztasunik gabe?

Bihotzez, zure

Jean Mirande

Sohütan, 1971-11-22

Jaun kalonje (a)gurgarri eta herritar maitea!

Goraintzi Zuberoatik, bakantzen iragaitera hunat jin bainaiz (baina dat-horren astean Pariserat itzuli beharra naiz) eta denbora berean Urthe Berri on bat bihotzetik desiratzten dautzut.

Agian zure begiak sendotuak dira orai(n) eta nekerik gabe irakur dezakezu.

Ez dakit ba dakizunezene liburu bat haraindiko Euskalherrian argitaratu dutela, novela llabur bat *Haur Besoetakoa*. Beldur naiz ez dela zure gustuko izanen. Dena dela, Franco'ren moral-zentsurak argitaratzeko baimena eman zuen; beraz, ez daiteke hain lizuma.... Orain, aldiz, ez dut euskeraz deus ere haboro egiten. «*Euskaltzaindi, on désespère. Alors qu'on espère toujours*». Bainanik, ez dut Euskaltzaleen ganik gehiago ezer ere igurikatzen eta pürki (hemen diogun bezala) etsitrik nago, eta beraz, ez dut deus gure «langue vernaculaire» delakoan izkiriatzan. Orain got(h)ikoa-hots, Wisigoten hizkuntza-ren istudiatzen ari naiz.

Mila goraintzi igorten dauzkitzu zure Jean Mirande-k.

Zuzenbideak:

a) 1971-01-27 garrena arte:

Maison Chaho
Chéraute 64-MAULÉON

b) Handik aintzina:

Rue Jules Dumien
PARIS (XX)

Cobàn'etik 1969'garreneko Otsailaren 9'an

P. Lafitte Kalonje iaun agurgarriari
Ustaritz'a

Apaizkide ta adiskide on:

Beti ere, zure berri izaten dut *Herria* astekari, *Gure Herria* ta *Jakin* al-dizkarien bitartez, zure lanen berri, beintzat. Dirudienez, osasunez onik zera, Iainkoari eskerrak. Badakit euskal-lan anditan murgildurik zabiltzana, gure erriaren onerako. Egun, egunerokoak dakarrenez, Bretainan agindu duenez, Frantzia'ko eskualdeei nolabaiteko beregaintasuna emateko omen da De Gaulle ikasbide ederra izango dute Spainia'ko sasi-agintariekin; bide hori frantzesak ar ba'leza.

Alare, mendiz-araindiko Euskalerrian ekaizpean daude oraindik: noiz arte, Iainkoak bakarrik daki. Euskeraren alde gogor ari bide dira; gogorrago ari litezen nai genduke oraindik, gizon ikasien artean bederen.

Ni neu parrokiz eta gotzaingoz aldatu egin naiz; lehenago lan geiegi nuen neure gain. Orain, berriz, berriro irakasten ezarri nau gotzain berriak: ogeitailau urte ezkerro, elkarren adiskide gera. Euskal-lanetarako aukera geiago dizut zuzen eta bidez, eta berriro Platon'i ekin diot; onezkerro, Urrestarazu adiskideak (1) esan dizu, nonbait. Dagoneko, *Iopia nagusia*, *Eutifron* Sokrate'ren *Apologia* ta *Faidon* euskeratuak ditut. Ta orain *Lisi'*rekin ari naiz.

«Ekarriko nituzke nonbait zuek ere ezin ekarri zaitzazkedanean, orain, aurreko bizitzartearen baino zaputzago gerta enadin beldurrez baitzerate. Dirudienez, beltxarga moko-beltxak baino azti ergelagotzat naukazutelakoan nago, egon ere. Aiek il bear dutela sumatu orduko, naiz-ta lehenago ederki txorrotxiotxi egin, orduan areago ta ederkiagoioten dute, morroi zaizkion Iainkoaren aldamenera ioateko diran pozez. Gizakumeek, berriz, aien eriotzaren beldurrez, beltxarga moko-beltxak ere itsusitu egiten dituzte, eta deitorez negar egiten dutela diote, aien eriotzaren atsekabeak eraginda, alegia. Bainan, eztute oartzten txori batek erre eztuela txorrotxiorik egiten gosez, naiz otzez, naiz bestelako atsekabez izan ditezenean, ezta uretxindorrak berak ere, ezta enarak ere, ezta basoilarrak ere, ezta atsekabeak eraginda deitoratuz txorrotxiotxi egiten dutela dioten oiek ere. Alabaina eztut uste ezta oiek ere atsekabetuta txo-

(1) Urrestarazu Antonio Karmelo, «Umandi» (Araia, 1902-????) Sabindiarren eskolako idazle arabarra, luzaz erbesteteraturik egona Parisen eta gero Baionan.

rrotxiotxi egiten dutenik, ezta beltxarga moko-beltxak ere. Alderantziz, nik uste, Apolon'en igarle baitira ta Ades'eko ogasunak aldez-aurre ezagututa txorrotxiak egiten dute pozaren pozez egun artan, aurreko aldian baino areago ta bestelakoago. Neuk ere neure burua beltxarga moko-beltzen morroikide ta iainko beraren bereter egiten dut, eta iaunarengandik artuta aiek bezainbesteko antze daukadaloakoan nago, bizitzarteaz, alde bereizterakoan, aiek baino adore gabeago naizenik ere eztut uste. Hori dala-ta, bada, esan eta galdetu bear nai izango zenituzketenak, esan eta galdetu egin ditzakezute, Atenaitarren ize-nean amaika gizonek utz dezaketeino».

Luzexka gertatu da aipamena, baina, ortik ikus dezakezu nola ari naizen.

Naiz-ta neuk esan, eztitut gaizki euskeratu. Euskal-ikastetxe nagusirako gai egoki gerta liteke. Platon geroago ta geiago maite dut. Orobak gure Socrate. Gutartean bizi izan ba'lira, kristau bikain gerta zitezkean. Apologia'ren eta Faidon'en beldur nintzan. Beltxarga moko-beltzen txorrotxioa euskeratzean, zutzaz oroitu nintzan alabearrik; Platon'en atarikoan sartu ote nuen galdeitu baitzenidan or Baiona'n. Dagoen tokian ongi baino obeki dago. Eladerazko buruz ere badakizu, nonbait, eta bestela eskumenean duzu-ta, orratx, euskerazkoa, nola ezarri dudan ikus dezazun:

«Sokrate'k hori esan zueneko, luzaroan ixilaldia gertatu zan; Sokrate bera esandako itzetan murgilduta zala agerian zegoen, ikus zitekeanez, baita gutarteko geientsuenak ere. Kebe ta Simmia, berriaz, elkarren artean txutxumutxuka izketan ari ziran.

Eta Sokrate'k ikusi ta bi-biei auxe esan zien: – Zer? esan zuen; zuek biok, esatekoako oro bear bezala esanak diranik ez ahal deritzazute? Beldur eta aur-kako erantznik asko izango bailuke oraindik, edonork gaiok bear bezala aztertzekoak izango ba'litu. Beste zer-edo-zer aztertzekorik izan ba'zenezate, eztiot ezer, arean. Ortaz ezer irten-ezinik ba'zenezate, berriaz, ez egon ezmezean, zeurok esan eta adieraztea daukazute, ia esateko oberik agertzen zai zutenetz, eta berriro nerau ere zuen laguntzat ar nazazute, nerekin batera irtenbide are-agorik izango duzutela ba'deritzazute. – Bai, noski, Sokrate, esan zion Simmia'k, eta egia esango dizut, esan ere. Aspaldidanik, geuk bi-biok geure burua irtenbiderik gabe ikusita, batak bestea bultzatu egiten baitzuen, aurreratu ta galderazi lezaizken, entzuteko irrikaz baikaude, baina, zerau nekatzeko beldurrez ginan, zauden zoritzarra dala-ta mingarri gerta eztakizun. Eta berak entzun-ala, eztiki irri-parre egin eta auxe esan zion: – Ene bada ta ni, Simmia! Eztudala oraingo zori au zoritzartzat ioten-eta, nekez neure esanetara beste gizonak oro.»

Oraintxe eskuetaratu zait Arantzazu'n ioan daneko urteko Urrilaren 3, 4, 5 egunetarako biltzarre-gaiak batasunari buruz. Onezkero eztauak idatzitza daukadanaren aldatzerik, onartu duzuten ortografia dala-ta, lan geiegi izango lizake. Bestalde, bide berrietan sartzea neke izango zait.

Oraingotan, euskal-lanetan osorik ari izateko aukera ederrean bide zera. Ala obe. Asmatu duzun iztegi laburra onerako izango zaigu, bukatzeko urte askotxo eskatzen duzula baizik.

Oraingoaz besterik ez. Ar ezazu nere euskal-agurrik gartsuena.

Agindu Kristo'gan apaizkide duzun
Zaitegi eta Plazola'tar Iokin'i
Colegio P. Las Casas-Catedral
Cobàn, Alta Verapaz
Guatemala, Centro-América.

I.G.: *Herriaren* zorra ordaintzen aleginak egin gogo ditut. Ez larritu. Gutxien uste duzutenean iasoko duzute.

Zaitegi (2)

(2) *Jokin Zaitegi* (Arrasate, 1906 – Donostia, 1979), *Euzko gogoa*-ren sortzailea eta jakina bere euskara jaso eta guztiz berezi baten kreatzailea. Gutun hauek argi dezakete Lafitte eta Zaitegiren artean izan ziren gora-beheren arteko xoko bat edo beste.

Cobàn'etik 1969 garreneko Orrilak 28

Lafitte P. kalonigu iaunari
Baiona'ra

Aspaldiko adiskide ta apaizkide:

Igorri didazun liburuxka ernagarriaren aldera eskerrik asko egiten dizut biotz-bioiez. Eztugu zu bezalakorik izan Euskalerri txipia Euskalerri andi agerterazten: aldez zure ikuspegi zabala, sakona ta iakintsua zoragarri gertatzen zait: lurrez xume izan arren, gizonez kemen aundiko bilakatu baita. Horko erdal-entzuleak txunditutik lotu bide dira. Aldez, sofisterik andienez ahal zeran buruak eman dit, aiputan artzen dituzu gehienak iakin ere ezpaitzeketen euskaldun ziranik. Makartxo hori, ordea, Euskalerriari diozun maitasun kartsuak ederrago agertzen du-ta zeroren izakera gogo-betegarriago egiten zaio bene-tako euskaldun iatorrari. Dana-dala, euskal-gaietan zu bezalako buru-iantzirik ba ote da inongo bazterretan? Ezezkoan nago. Urratu duzun ildoa arrerra era-mango ahal duzute zerrek eta lagunek. Gahi hori zabalago eman ezkero, egundokoa izango lizake behar bada ematen ari zera ixil-ixilik.

Bestalde, Haritschelhar euskaltzainaren Etxahun andiari buruzko liburu iakingarria zekarren idazki-azala zerrek idatzia artu dut. Txekea atera dizut liburu berri horren ordainketarako ta emen bertan daukazu. Onik eskuetaratu ta alda ba'dezakezu, esatea daukazu, *Herriarekin* daukadan zorra garbi deza-kedan, amarna dolar alda ezkero aukera erreztu egin baitigute, alabeharrak.

Esaten nizunez, Platon'en elkar-izketak euskeratzen lotu naiz: Bi liburu gahia euskeraturik daukat: lenengoa Eutifron, Sokrate'ren Apologia, Kriton eta Faidon eman gogo ditut. Hoien ohar, atariko-ta eginak dauzkat... Bigarrenean Iphia nagusia, Karmida, Laka ta Lisi: hoiek ere euskeraturik dauzkat: hoien ohar eta atariko egiteko dauzkat. Gero Politeia-edo euskeratzen iarriko ote naizen eztakit: lan gogor-xamarra baita ta nere adina ere aurreratuxe. Lanaren lanez, errez gertatzen zait Platon bataz beste. Idazle bezala buruen buruko dut; eta gogoetalari bezala, gure burutapenetan zuzen eta zutik ibilten irakatsi digune-takoa. Euskeralpenaren erakusburuz Platon'en atal bat euskeraz bidali nizun.

Emen igorten dizudan txekea Etxaun'en liburua ordaintzeko da, esaten dizudanez; beraz, liburu hori artuko dudalakoan nago, itsas-legorrez ba'da ere. Ordainbide hori horrako egoki ba'ledi, *Herriaren* ordaintzeko bidea arkituta izango nuke ta *Herriaren* ordain-saria igorriko nizuke: argi ta garbi dagoela-koan nago, beraz.

Oraingoz besterik ez. Ar ezazu nere euskal-agurrik kartuena. Agindu Iesukristo'rengan adiskide ta apaizkide duzun.

Zaitegi eta Plazaola'tar Iokin'i
Colegio P. Las Casas, Catedral
Cobàn, Alta Verapaz
Guatemala, Centro-América.

P.S.: Otoi, argitarazita daukazun frantsez-euskarazko iztegitxoaren ale bat igorri idazu: ordainduko dizut. «H» erabilten erabilten ikas dezadan. Zure

Zaitegi

D^r Hernandorena (1)
Clinica Dental
Ortz-Agiñetako sendakintza
Miramar, 8
FUENTERABIA
Teléfono 641303

02-04-1970

Agur adixkide:

Bi itz saioketak gibeleratu egin bear izandu ditugula esateko.

Apirilaren 26'ean Gernikaren kiskaltze urteurrenara bai-zen, ez digute utzi egun ortan egiten.

Beraz, saioketak izango dira:

- Leizan apirillaren 26an,
- Bergaran maiatzaren 3an,
- Gernikan maiatzaren 10an.

Ustez eta etorriko zeran itxaropenarekin.

(1) *Teodoro G. Hernandorena* (Zizurkil, 1898 – Hondarribia, 1994), EAJ gazteriaren buru eta Telesforo Monzon-ekin batean 1936ko gerla aitzinean joan behar izan zuen ihesi Iparraldera eta odontologo bezala Parisen luzaz familia ederraren hazteko egon ondoan sorterrira itzuli zelarik erran ditake jaun hau izan dela gerla ondoko bertsolari eskola berriaren sortzailea, honek baitzituen ezagutu eta bultzatu Iparraldean berean Xalbador eta Mattin-en mailako artista bikainak. *Herria, Zeruko Argia, Bidasoa, Anaitasuna eta Príncipe de Viana* aldizkarietan idatzi zuen. «Bertsolarien lagunak» elkartea sortu berri du gazteentzat Iparraldeko *Hernandorena saria*.

Tolosa, 1971-ko uztailaren 15

Piarres Lafitte jauna
Uztaritze

Adiskide min:

Gure azken elkar ikustearen galderai erantzunaz, zenbait berri bidali nahi nizkizuke.

Nere azken eskutitzean esan nizkizunak gogoan ukani, beste pontu batzu aztertu beharko ditugu.

Eskuartean, memento hontan, dudan kopian ez dut garbi ikusten non dauden hamaikagarren kapitulutik (Déroulède) hemezortzigarrenrakoak (Léon XIII). Hori azterkatu beharko dugu.

Hiztegiarena kasik egina dago, eta Euskaltzaindiaren bilkurakoan edo, emango dizut, etsamina dezagun.

Horiek hola, beste zerbait dugu orain ikuskatu beharko duguna. Inprimategitik esan zaidanez, guk uste genuen baino ere berrehun bat horrialde gehiago ukanean ditu liburuak: uste dutenez, 464 bat plama. Sobera luze, ikusten duzunez. Zer egin liteke? Begira zer pentsatu dugun.

Bi liburu izanen lirake (18x11zm.): bata, zure sarrera eta lehenen partearekin emanen litzake. Zein titulu? Pentsatu ditugu batzu. Honatx: 1. Gizonak, bitarte. – 2. Gizonak, aurpegi. – 3. Gizonak eta izanak. Liburu hau, hiru liberatan emanen genizueke (3NF).

Bigarren liburuak nere sarrera historikoa eta beste bi parteak izango lituzke. Zein titulu? Liburu bakarrantzat pentsaturik geneuzkanetatik bat:

1. Kontu: ba da Errepublikarik! – 2. Errepublika: bizia ala euskera! – 3. Egunean eguneko borroka bat. Liburu hau ere hiru liberetan eman genezake (3NF).

Harriturik naiz inprimategitik esan didatenarekin: ez nuen uste inondik ere hoinbeste horrialde izan zitzazkeenik. Gure kolekzionerako luzeska da, liburu bakarrean ateratzeko. Honegatik pentsatu dut beste bide hau. Egin ditugu, dato berri hauek eskuartean ditugula (eta zuek 500 ordez, 1000 ale hartuko dituzuela). Kontuak, baina esaten zaidan 464 horrialderekin, nahi ta ez, gora doa dena.

Ba da beste bide bat ere, zuentzat hobeki etor daitekeena: bi liburuok barkerrean emango genituzke zuentzat, bainan hemen bitan inprimatuko genituzke. Pentsa zazu. Beharbada, zuentzat ere hobeki letorke, saltzeko-eta, bi liburu ongi merke eskaintza: bakoitzak berrehun horrialdetik gora lituzke eta hiru liberatan eman genzake alea. Dena batera eginen balitz, sei libera.

Euskaltzaindiaren bilerara etortzen bazera, komeni litzaidake orduan dena erabaki, eta ados bagina, inprimategira eramatea. A, eta ahantzi gabe: hemen esaten den horrialdeetatik behera geldituko bagina, salneurria ere, neurri beraean, merketu eginen litzake.

Izan ongi. Zure berrien zain gelditzen natzaizu. Agur.

J. Intxausti (1)

P.D.: Beharbada, iduriko du titulu horiek ez dutela zure asmoaren berri ematen; bainan ondoan igortzen dizudan azalaren maketen ikusiko duzu, noski, beste nolabait jasotzen dela ideia hura.

(1) *Joseba Intxausti* (Segura, 1936), euskaltzain ohorezkoa, UZEI eta *Jakin-en* sortzailea eta euskalzaleen artean ditugun ofiziozko historialari bakanetarik bat. Jaun honi esker besteak beste, arigitatu zen Piarres Lafittekin prestatu Manex Hiriart-Urruty-ren loretegia, hiru liburukitan (IKAS, Baiona, 1971).

Erlangen, le 15 mars 1973
Haydnstrib

Cher Monsieur,

Pendant mes séjours à Bayonne, j'ai connu et souvent visité les familles de l'ancien maire de Bayonne, J.-P. Brana (1), et de M. François Elissalde, instituteur à St-Léon. Je regrette d'avoir oublié leurs adresses: je me souviens pourtant que la famille Brana avait sa maison à la traverse de la route de Cambio – avenue du Maréchal Harispe? Veuillez excuser cet oubli: il y a très long-temps que j'avais le bonheur d'aller voir mes amis bayonnais et, vous le savez bien, vous y êtes.

Peut-être, vous ou l'administration de *Herria*, auriez-vous l'amabilité de me donner l'adresse des deux familles précitées ou bien celle de l'aînée de mon ami François Elissalde, Madame Catherine Ceccaldi, dentiste à Bayonne. J'espère que je ne vous dérange pas: un jour, je voudrais leur envoyer un petit article et vous l'aurez également.

Har zatzu othoi, jaun kalonje maitea, ene esker egiazkoarekin goraintzi-rik hoberenak.

C. Bouda (2)

(1) *Jean-Pierre Brana* donoztiritarra eta ofizioz erriente, Alemanen denboran izan zuen kuraiaaren ohoretan Baionako auzapez izendatu zuten 1945eko gerla bururatzean. Baionan hila da eta ehortzia 1973an. Aipatzen diren beste adiskideak familiakoak dira.

(2) *Karl Bouda* (1901–1979).

Hersbrucker Str. 226
85 Nürnberg

le 9 mai 1977

Monsieur le Chanoine,

Je vous remercie de votre bel article «Propositions pour un dictionnaire des verbes basques» et vous en félicite. Votre plan me plaît et je vous souhaite le meilleur succès de ce grand travail. J'espère que vous n'avez pas été trop mécontent de mon ouvrage de 1933, cp. votre p.2. Vous savez que je n'étais, en le préparant vers 1930, qu'au début de mes études basques avant d'avoir pu apprendre un peu plus sur place et disposer de textes plus étendus. Plus tard, ça a été, je l'espère, peut-être un peu mieux, par exemple dans les *Fontes Linguae Vasconum*. Là, pourtant, j'étais géné d'envoyer des tirés à part puisque ces articles ont été, malgré les épreuves soigneusement corrigées, fort mal imprimés. Il a été, du reste, pareil pour ceux du *Boletín donostiar* et *Euskal-Jakintza*.

Ci-dessus, vous trouverez ma nouvelle adresse: depuis quelques temps, j'habite Nürnberg.

En vous remerciant encore, je vous prie, Monsieur le Chanoine, de croire à mes sentiments les meilleurs.

C. Bouda

Larrea-tik, 1975-12-15'an

P. Lafitte jaunari
Uztaritze

Agur, adiskide maite:

Eguberri egunak gain dirala-ta, ar zazu nere zorion agurrik kartsuena. Osasuna ta pakea opa dizut batez ere egun oietan.

Ondoren, mesede ttipi baten eske natorkizu, egingo didazun itxaropen goxoz.

EUSKAL LITERATURA ba doa aurrera: laugarren alea inprentan dut; baiña zerbait falta zait oraindik, mugaz or aldekoen xeaztasun batzuk. Auek, adibidez:

- 1) Daranatz, noiz jaio zan ezin dezakegu jakin?
- 2) 1936 aurretik or azaltzen ziran eguneroko ta aldizkarien berri pixkat euki nai nuke, aipatzeko aiña beintzat: *Gure Herria, Eskualduna* ta abar. *Herria* geroagokoa dugu, ta orren aipamena, zeatzagoa, bostgarren alean egingo. Zeuk dakizun bezala egin da, oien berri pixkat nai nuke aipamen ori egiteko. Bakoitzetik kuartilla bat, esaterako. Zeuk dakizuna bakar-bakarrik.

Ale ontarako ortik dauzkadanak auetxek dira: Daranatz, Pedro Garmendia, George Lacombe, J. Jaureguiberri, Albert Léon –noiz jaio ote zan au?–, P. Lhande, H. Gavel, J. Ithurriague, J. Etxepare, J. Elizalde, Léon Lassalle, Léon Léon, Monseigneur Mathieu, C. Tournier, S. Arotzarena, P. Duhour, Abate Xorho, «Espil», Dominique Soubelet... Besterik, 1905 baiño leen jaiota?

Igandez Donibane-Garazi'n izango naiz. An elkar ikusiko dugulakoan.

Biotz-biotzez,

Aita Onaindia (1)

(1) *Santi Onaindia Baseta* (Amoroto, 1909 – Larrea (Zornotza), 1996), karmeldarra. Aita Lafitten laguntza anitz baliaturik Iparraldearentzat bereziki, Aita Onaindiak, besteak beste, egin zuen bere *Euskal literatura* (1972-1990) sei liburukitan.

JIRONES DE UNA VIDA ABIGARRADA

(De la gambella a la cátedra)

Tubinga, noviembre de 2006

Francisco J. Oroz
Universidad de Tubinga

(Nota explicativa. Al proponer a Patxi Oroz como miembro honorario de nuestra Academia, le pedimos, como es habitual en estos casos, un breve currículum. Nuestro amigo accedió al momento. A los pocos días teníamos un texto de una docena de páginas, número que fue creciendo con el paso del tiempo, hasta llegar al texto que hoy sale a la luz, lleno de interés científico y humano. No es sólo la trayectoria de un Vollromanist (o romanista completo). Es una vida de trabajo y vicisitudes, desde la niñez en Berriáin hasta el reconocimiento en la vieja Universidad de Tubinga (como acostumbra decir él).

Henrike Knörr

1. Llegué al mundo al filo de la media noche del 2 al 3 de diciembre de 1934, en el pueblecito navarro de Berriáin, de 30 fuegos, sito en pleno campo, a diez kilómetros al sur de la capital de Navarra, rodeado de historia y cultura (1). Según unos, nací el día de Santa Bibiana; según otros, el del patrón de Navarra. Me contó una tía que esa noche dejaron dos hermanos de mi padre, delante de la puerta de casa, un camión recién comprado que, a la hora crítica, comenzó a rodar cuesta abajo hasta que paró empotrado en un maquinando, junto al regacho que baja de Subiza. Todos se interesaron más por el camión que por la criatura y la madre. Cuando volvieron, la comadrona, la señora D., les enseñó el recién nacido. En el reloj de bolsillo que mi padre había comprado con los ahorros de soldado en Melilla acababa de pasar la media noche. Una prima mía ha podido constatar en el registro correspondiente que el día 6 de diciembre de 1934 figura a nombre de mi padre, que era el mayor de ocho hermanos, un camión nuevo marca Blitz, con la matrícula NA 4320, de modo que esa versión podría acercarse a la realidad. No era

(1) Remito al principio de «Recuerdos de la posguerra y de la Guerra Civil», publicado en: *Hispanorama* 107, Febrero de 2005, 37-39.

ningún signo sobrenatural («grandes señales había») de los que anuncian en la mitología o en la literatura algunos partos, sino la consecuencia lamentable de un simple descuido del chófer, más ducho en conducir galeras tiradas por mulos que camiones propulsados por caballos de vapor.

1.1. Ha tenido su historia, más de sombra que de luz, este camión: En los tortuosos avatares de la Guerra Civil fue confiscado y pasó al servicio de los nacionales. Al terminar la guerra, mi familia lo reclamó con intención de recuperarlo, pero comunicaron que había sido destruido en la contienda. Recuerdo que hubo intercambio de correspondencia con las autoridades competentes y que como compensación nos ofrecieron un chasis de camión y un motor marca Buick, que el tío L. habilitó para vehículo de transporte. Pesquisas de archivo de hace pocos meses han puesto en evidencia que ese Blitz no fue destruido en la guerra, pues el 25 de mayo de 1940 consta que fue transferido a José R. I., vecino de Suqués.

1.2. Para andar seguros en la fecha y garantizarme la bendición del patrón del día natalicio, me pusieron el nombre de los santos de ambos días, del 2 y del 3 de diciembre, Bibiano Francisco Javier. Por la ventana del cuarto donde nací se divisa un buen tramo del Camino de Santiago aragonés, que serpentea, desafiando al cierzo, a pocos kilómetros de Beriáin, al pie de la Higa de Monreal o Elomendi y de la Sierra de Alaiz, en la etapa que, según la *Guía del peregrino medieval*, de Aymeric Picaud, del *Codex Calixtinus*, se extiende «a monte Reello usque ad Pontem Reginę» (2).

1.2.1. Este Reello no es un hapax legomenon, una palabra mal documentada. En esa misma Guía aparece dos veces más. Al exponernos el peregrino de manera resumida en el segundo capítulo las etapas del camino, nos enseña que «A portibus Asperi usque ad Pontem Regine tres pauce habentur diete... Secunda est a Iacca usque ad montem Reellum. Tercia est a monte Reello usque ad Pontem Regine». En el capítulo siguiente leemos: «inde Termas ubi regales balnei jugiter habentur, inde Mons Reellus».

El nombre corriente que correspondía a Mons Reellus era en la Edad Media muy similar –o idéntico– al actual castellano: Mont Real, Monreal, apud Montem Regalem etc., que cuenta con varios homónimos en diversos países. Es un nombre de etimología diáfrana, evidente para cualquiera, de hoy o de la Edad Media, que tuviese alguna noción de latín o de las lenguas románicas. Lo más normal hubiera sido que ese peregrino, que conoce y emplea regalis, nos hubiera legado ese mismo nom-

(2) *Liber Sancti Jacobi. Codex Calixtinus*, transcripsérunt Klaus Herbers et Manuel Santos Noia, Santiago de Compostela 1998. Existe desde 1989 una traducción parcial comentada muy esmerada de Millán Bravo Lozano: *Guía del peregrino medieval (Codex Calixtinus)*, 10ª edición, Sahagún 1991.

bre. Si no lo hizo ha de ser porque se atuvo a lo que oyó. Y él debió de oír reello o algo similar, que latiniza y declina Reellus. Es una forma extraña, con la que no he topado en otros textos latinos medievales. Debido a las circunstancias en las que aparece, no tenemos derecho a desahuciarla como palabra espuria o fantasmagórica (3).

En documentos no oficiales de esa región, en la toponimia menor que con tanto empeño y acierto están recogiendo en los últimos años en el Onomasticon Vasconiae, y en el Nomenclátor euskérico de Navarra hallamos un odónimo que pudiera ayudarnos a explicar ese llamativo Reello. En el siglo XVI y más tarde encontramos varias veces, con referencia a Tiebas y a Subiza, Elo bidea, Elo videa a veces con la correspondencia «Camino de Monreal», de donde se aisla Elo «Monreal» (4). En el apellido Elomendi, cuya antigüedad desconozco, se conserva el nombre vasco de la Higa de Monreal. Con esa documentación ya no resulta tan enigmático ese testimonio del peregrino.

*Para Re- se ofrece una explicación que tiene en su apoyo numerosas formaciones análogas en la toponimia: errege < regem. En composición era corriente la forma erret-, como en erret bide, erretzubi «pontes regales», erret Ihera «molino real», etc. La forma con aféresis se conserva en el apellido Reparaz que supone un *errege-baratz «huerto real», y en otros como Retegui, Retola, según podemos leer cómodamente en Apellidos vascos de Michelena (5). La duplicación de la lateral en la forma latinizada Ellus es imputable a la frecuencia de esa terminación en latín. Elo figura como nombre vasco de la población, junto con Monreal, en un rótulo de azulejos, a la entrada del pueblo llegando de Pamplona.*



Rótulo en un edificio, a la entrada O. de Monreal por la N-240 (Foto: F. J. Oroz, julio de 2006).

(3) Dejo fuera de consideración una explicación facilitona que tomaría por base al francés *réel*.

(4) Véase *Onomasticon Vasconiae* 12, 5.22.

(5) Cf. además en *Onomasticon Vasconiae* 12, el cometario a *erregesoroak* y *erreperro*.

*Nos parece lícito establecer un *Reelo, que supondría una forma anterior *Erreelo y que vendría a significar «Villareal, Ciudad Real». De *Reelo a Real no hay más que un breve paso, y otro hasta la aplicación de ese adjetivo al característico montículo que se alza junto a ese pueblo. Monreal habría nacido por etimología popular, sobre la base de un nombre vasco, favorecido por los Mon(t)reales que pululan por doquier. Si esta hipótesis llega a confirmarse, nos atreveríamos a remontar siglos de silencio, evocando el «estado latente» de Menéndez Pidal, y a insistir en la relación de ese topónimo con el clásico Pompaelo, siguiendo a Estrabón y su pólis pompélon, sobre el que tan sabiamente han disertado, entre otros, Antonio Tovar y Jürgen Untermann (6).*

Podríamos traer a colación los Andelonenses, estipendiarios de Caesaraugusta que menciona Plinio III, 24 y el étnico Andelonenses de CIL II, 2963, Andelo, etc. aunque no queremos silenciar que en Joaquín Gorrochategui, Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania, p. 201, se sigue otro camino para explicar esos nombres (7).

2. Mi padre Florencio era labrador; y mi madre Gabriela, ama de casa. Vivían en la casa paterna, construída hacia 1850, con todos los hermanos del padre: Con tres hermanas y cuatro hermanos, que iban saliendo de casa según iban formando sus familias. Una tía religiosa murió muy joven, en Salamanca.

Ya tenían mis padres, cuando yo nací, dos hijos varones, de tres y de dos años. Cuatro años más tarde nacería mi hermano menor. Demasiadas bocas para el poco pan que producía el escaso y horaño campo. Lo mismo que a mis hermanos, me tocó abandonar de niño la escuela del pueblo (8) —que cobijaba en una sala única a todos los niños en edad escolar— y comenzar a trabajar para ganar el currusco. Tuvimos cierta compensación doméstica de la

(6) Véase Antonio Tovar, «El nombre de Pamplona», *FLV* 25, 1977, 5-8. Se dedica un capítulo a «Los nombres de Pamplona» en *Onomasticon Vasconiae*, 12, 1994, pp. 89-99. En ese mismo año publiqué, con enfoque muy distinto, el artículo «De Pompaelo a Lunapampa. Historia y poesía en el nombre de Pamplona», en: *Lingua et Traditio. Festschrift für Hans Helmut Christmann zum 65. Geburtstag*, edd. R. Baum et alii, Tübingen 1994, pp. 15-28. No conocía yo la curiosa «etimología» del emperador Honorio: «Greco eloquio, Pampilona, latine porta omnium dicitur» que me recuerda el amigo Henrike Knörr, y que me resulta enigmática.

(7) Trata de *Elo* a propósito del nombre aquitano *Eloni* de una lápida funeraria, mencionando para la raíz el téónimo aquitano *Ele*, *Elh* y además *Elegui* y el nombre medieval de mujer *Eilo*, *Elo* que hace entrar en juego Julio Caro Baroja, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca 1954, p. 161.

(8) Este humilde edificio, que es el que más historia moderna de Beriáin encierra, estuvo a punto de desaparecer, a una con el paredón y parte del antiguo cementerio de la Iglesia, con la anuencia popular, para hacer sitio al nuevo edificio del Ayuntamiento. Yo fuí uno de los que escribieron al Obispado para que tomara cartas en el asunto, con cuya intervención se pudo evitar el desaguisado. Barruntaba y me temía que la *auri sacra fames* no tardaría en volver a atentar contra la vieja escuela, que actualmente sirve de consultorio médico, pero el alcalde, don Tomás Prieto, me asegura que no van a tocar ese edificio.

deficiencia escolar, gracias a que los maestros solían estar de posada en nuestra casa y nos entretenían e instruían con su conversación, sus consejos e historias a la hora de la cena. ¡Qué sabrosas estaban las castañas que cenamos una noche mientras un maestro nos contaba los apuros que pasó cazando jabalíes en un monte cercano, cuando tuvo que abrirse paso en la tupida maleza, con la escopeta sin munición, y encaramarse en un chaparro para escapar de una jabalina madre, que le perseguía defendiendo a sus jabatos! Tengo un grato y vivo recuerdo de cuatro maestros: Micaela Goñi, de la Ulzama; José Frisón Mozart, de Caparoso; Sergio Arteta, de Monreal, y Gerardo Eransus, de Cordovilla.

2.1. La primera falta de ortografía: El 24 de mayo del presente año, volviendo en coche de Nagold a Tubinga me ha llamado la atención un gran cartel publicitario de una compañía de circo donde se leía un letrero con este texto incorrecto: «Jetz in Ihrer Stadt» que en castellano sería «Aora en su ciudad». Ese error garrafal me trae a la memoria uno parecido que circuló en mi niñez en mi pueblo en relación con un coto. Había en Beriáin, a pocas decenas de metros de la carretera general N-121, no lejos del mojón del kilómetro 10, un frondoso bosque de chaparrillos, encinas y matorrales. Era probablemente el resto de un monte mucho más amplio que se habrá extendido hacia el oeste en la dirección del casco antiguo del pueblo. Por ahí habrán entrado amparrado y guarida los jabalíes que invitaban a los monarcas a pasar sus horas de ocio ejerciendo el regio deporte de la cinegética. En 1401 consta que Carlos III remitió a los beriaineses parte de las pechas «por el placer que tuvo matando tres puercos monteses en los sotos del lugar» (9).

Hasta que fueron talados todos los árboles –salvo alguno que dejaron de muestra– para construir el poblado de Potasas hacia los años cincuenta del siglo pasado (10), el monte jugó un papel no despreciable en la economía del pueblo. Cada año solían tirarse en ozalán o trabajo communal los árboles necesarios que, repartidos en lotes y debidamente cortados con el tronzador, la sierra y el hacha, servían para alimentar los fogones, estufas y cocinas de los vecinos. El lozano arbolado atraía además en otoño a miles de aves de pasa, sobre todo palomas, que llenaban sus buches de bellotas en el monte, o de trigo en los rastrojos circundantes, antes de continuar su vuelo para invernjar en zonas más cálidas; o en la contrapasa de primavera, para seguir en viaje de novios hacia los Pirineos o regiones más nórdicas a construir sus nidos, obedeciendo

(9) *Onomasticon Vasconiae* 2, Cendea de Galar, p. 76.

(10) Yo estaba entonces en Estella, al margen de lo que sucedía en Beriáin. En la primavera de 1949 comenzaron a excavar el primer pozo, si hemos de creer al *Romance de la Mina* que publicaron en el *Programa de Fiestas de Beriáin* de 1972.

al salmista: Passer invenit sibi domum, et turtur nidum sibi, ubi ponat pullos suos (11).

(234) Ver Azkue, *Diccionario vasco*, y Arbelaitz, *Etimologías vascas*.

(235) El primero, con 84 canciones para coro mixto, fue publicado en Estella-Lizarra en 1987.

(236) «Romania zum Singen gebracht», upf, *Schwäbisches Tagblatt*, 30-3-2000.

soñar cuando andaba de niño trabajando de peón de albañil para ganar el currusco; o cuando abandoné abruptamente, a los 24 años, sin bachillerato, sin oficio alguno, zozobrante, con un yo destrozado, con 10 marcos alemanes en el bolsillo, la segura ruta por donde había navegado plácidamente, al abrigo de vorágines y escollos, durante dos lustros. ¡Cuántas veces no me ha tocado meditar, desterrado y desarraigado, sobre las frases de Ovidio *Perfer et obdura, multo graviora tulisti* (237) y *Perfer et obdura, dolor hic tibi proderit olim* (238); o en una fase menos desazonada y con visos de esperanza, sobre el más trillado *Per aspera ad astra* (239) que aprendimos de nuestro benévollo profesor polaco de latín, el P. Ladislao, en las clases de Coreses!

37. Si fuese lícito comparar lo incomparable, sin pretender mezclar los arbustos y los humildes tamariscos del poeta mantuano —que no agradan a todos— con asuntos mucho más elevados, me atrevería a glosar globalmente el desarrollo, el proceso de formación y evolución de mi vida con «*A un débil principio ha seguido mejor fortuna*». Se me echará en cara que he plagiado, modificando irrespetuosamente, profanando la frase con la que concluye Bernard Etxepare el primer libro vasco impreso que se conserva. Con todo, *venia sit dicto!*, que se me perdone lo dicho. Y lo que estoy por decir.

37.1. Bernard Etxepare y François Rabelais: *Mitxelena juzga poco acertada la equiparación de esos dos autores que hicieran Francisque-Michel y Vinson, ya por el mero hecho de que uno es prosista y otro poeta. Además porque la obra de Etxepare no refleja un hombre del Renacimiento sino un autor medieval* (240). *He vuelto a leer gran parte de Gargantua et Pantagruel y el Linguae vasconum primitiae, y me pregunto, sin tener a mano los pasajes correspondientes de Francisque-Michel ni de Vinson, qué argumentos han podido encontrar para llamar a Etxepare «el Rabelais vasco».*

Esa comparación sólo tendría cierta justificación si con ella se quisiera poner en evidencia algunos rasgos similares del carácter o de la biografía de ambos: Los dos viven aproximadamente en la misma época, los dos son sacerdotes que interpretan generosamente el sexto, los dos tienen problemas con las autoridades, los dos escriben más o menos en los mismos años: Gargantua et Pantagruel, entre 1532 y 1552; para Linguae vasconum primitiae se admite el 1545.

(237) *Tristia*, 5, 11, 7.

(238) *Ars amandi* 2, 178.

(239) Parece que la fuente lingüísticamente más cercana es «*Non est ad astra mollis e terris via*», de Séneca, *Hercules furens*, 437. Se lee en diversos contextos como lema la adulteración «*Per ardua ad astra*». Antoni Peris, *Diccionari de locucions i frases llatines*, 2227, menciona también «*Per angusta ad augusta*», remodelación que el P. Ladislao no nos enseñó y que alguien atribuye a Ernst von Brandenburg.

(240) Michelena, *Historia de la literatura vasca*, p. 46-47. En *Textos arcaicos vascos*, 3.2.5, presenta ese máximo filólogo euskaldún un intento de interpretación del texto vasco de Rabelais, libro II, cap. IX.

37.1.1. Pero a los críticos que se ocupen de la obra escrita de ambos deberían interesar más que los puntos de contacto en el currículum vitae, es decir, más que los vínculos externos, que no tienen que reflejarse necesariamente en lo escrito, las relaciones internas que pudieran existir en su producción literaria. Y desde este enfoque tiene plena razón Mitxelena. Son mundos completamente diferentes, antagónicos, que no justifican una comparación global. Son obras incomparables. Ello no significa que no sea posible descubrir algún elemento común, y tal vez de dependencia, entre los dos autores. De entrada habría que excluir de la comparación gran parte del libro de Etxepare, la religiosa, pues, salvo error, Rabelais no ha escrito nada –al menos yo no conozco nada– de ese tenor. Escenas amorosas, eróticas, que se encuentran en ambos autores, son un lugar común que hallamos en cientos de escritores, y carecen por tanto de contundencia argumentativa, de fuerza probatoria.

La comparación podría con todo resultar fructífera si revelase que los dos autores abordan de manera similar, imitando o parodiando, los rasgos distintivos más destacados dentro de ese acervo común. Por ejemplo, si la escabrosa violencia que se respira hacia el final de la Disputa de los enamorados aparece tratada en Rabelais con tanto desenfado o desdén como en Etxepare. O si los descarados, paródicos intentos de Panurgo de requerimiento de amor a una de las damas de la alta sociedad encuentran el mínimo reflejo en Amorez errequericia. Es más que probable que Etxepare haya conocido parte de la reputadísima obra de Rabelais; es fácil que se encuentren en Linguae vasconum primitiae expresiones o actitudes inspiradas en la lectura de Gargantúa. Hasta pueda ser que el breve texto vasco de Rabelais haya servido de pedernal, para dar chispa a su debido tiempo a la mente de Etxepare, que veía que no era imposible escribir en esa lengua (241). Sin embargo, la ironía, la sorna, la picardía, la sátira mordaz con que Rabelais se desembaraza de las situaciones más enmarañadas, lo mismo que el derroche de fantasía creadora, de erudición, faltan y tienen que faltar en Etxepare ya debido al enfoque general diferente de ambas obras.

37.1.2. Para el crítico que busque fuentes de inspiración e. g. para Potaren galddatzia, la «Petitio osculi», sería más fecundo que husmear en la genial enciclopedia de ciencia y de fantasía creadora de Rabelais recurrir al Cantar de los Cantares y a las numerosas interpretaciones medievales de esa magnífica poesía erótica; los amantes de la literatura clásica latina pensarán en Vivamus, mea Lesbia, atque amemus de Catulo, o en la producción erótica de Ovidio, o en obras posteriores con el

(241) Ya se habían impreso antes breves textos en vasco, cf. mi artículo «Primera glosa vasco-latina en un libro impreso (1510), en: *Euskera* 26, 2, 1981, 93-111.

mismo lugar común inagotable. O para Emazten fauore, respuesta a la poesía misógina, exuberante en la Edad Media (242), a «Mulierem fortem quis inveniet» (243), que ha servido de fuente de inspiración a numerosas obras en laude de las mujeres, como *De institutione feminiae christianaæ de Juan Luis Vives* (1492-1540) y más tarde *La perfecta casada de Fray Luis de León* (1527-1591).

37.2. *Me he alejado del punto de partida, del colofón latino de Linguae vasconum primitiae, «Debile principium melior fortuna sequatur». Es de suponer y desear que se haya dado a esta frase la importancia que le corresponde –aunque me figuro que quedarán aspectos inconsiderados–, sin limitarse a ponderar la modestia a la que quiere hacer referencia el autor. En la pobre biblioteca que conservo tras la jubilación, no encuentro el material necesario para dilucidar definitivamente la primera cuestión que me suscita ese texto, que suena a verso, y a verso pulido, armonioso, elegante: la de la autoría. Que el internet supla de momento esta deficiencia.*

Recuerda de lejos el topos modestiae de la retórica que se solía usar en el exordio para evitar la impresión de arrogancia, o como «captatio benevolentiae» (244). Encaja perfectamente tras los versos finales del Saltarel en los que el autor se siente orgulloso de la labor de pionero que ha realizado con su amigo editor François Morpain, primer impresor de la lengua vasca. No es el canto triunfal del Exegi monumentum aere perennius con el que Horacio cierra su tercer libro de odas. Es una expresión de satisfacción, de complacencia, de alegría, que se acerca a

(242) La literatura misógina es muy abundante en la Edad Media. Uno de los primeros trovadores, *Marcabrú*, lleva el sambenito de misógino. Otro trovador más tardío, *Cerverí de Girona*, escribió en 1271 un poema narrativo, *Maldit ben-dit*, que ha tenido mucho influencia en la literatura contraria a las mujeres. (Cf. Joan Coromines, *Cerverí de Girona, Narrativa*, Barcelona 1985, p. 39 ss., y *Lírica, I*, Barcelona 1988, p. 15). Cito unos versos de *Maldit ben-dit* de esa edición, sobre *femna*: «e toyl prets e lausor / e met hom en error; / e toyl solaç e rire / e met hom en cossire; / e toyl amor de gens / e n'ès hom menys valens» (*Narrativa*, p. 40, vv. 13-18). Puede verse la traducción de esa larga poesía, de 652 versos, en la edición de Martín de Riquer, *Obras completas del trovador Cerverí de Girona, Texto, traducción y comentarios*, Barcelona 1947, pp. 323-347. El mismo trovador ha glosado y ampliado el texto de *Proverbios* 30, 18-19: «Tria sunt difficultia mihi ... : Viam aquilae in caelo, Viam colubri super petram, Viam navis in medio mari», saltándose el «Et viam viri in adolescentia», e integrando el principio del versículo siguiente: «Talis est et via mulieris adulterae», en *Lo vers de falsa femna*, Coromines, *ibidem, Lírica I*, pp. 327-331; Riquer, *ibidem*, p. 214-217.

De fecha cercana a Etxepare menciono una carta con tintes misóginos del humanista Leon Battista Alberti (1406-1472), *De amore*, <http://www.filosofico.net/albertideamoretesto.htm>. Rabelais cita en el Segundo libro, cap. VII la obra «De re edificatoria» de este célebre arquitecto florentino. Algo antes, en 1404/1405, Christine de Pizan, (Venecia 1365-París 1429/1430) escribió *Le livre de la Cité des Dames*, una verdadera apología de la mujer.

(243) *Proverbios*, 31, 10. Rabelais se refiere a ese pasaje en *Le Tiers livre*, cap. XXX.

(244) Lausberg, *Handbuch der literarischen Rhetorik*, München 1960, § 272.

un «orgullo» humilde, moderado, sin arrogancia, nacido de la convicción de haber realizado una labor loable (245) en favor de su lengua.

37.2.1. Es evidente que esa cita de Etxepare «no es lechuga de su huerto». Y ésta es la primera pregunta: ¿De quién ha tomado ese texto? Para quienes hayan leído Gargantúa y Pantagruel, y tal vez para quienes hayan seguido de cerca la discusión sobre Etxepare y Rabelais, no digo nada de nuevo al afirmar que en este autor figura esa misma frase, con una diferencia pequeña, pero significativa: *Debile principium melior fortuna sequetur* (246). *La diferencia sequetur – sequatur no puede dejar indiferente al filólogo.*

Si suponemos, como parece natural a primera vista, que Etxepare ha tomado la cita de Rabelais, tenemos que preguntarnos de dónde proviene esa discrepancia. Dejando de lado especulaciones teóricas sobre un posible error de lectura, o sobre una fuente primaria de doble tradición, parece lo más lógico ver en la cita de Etxepare no un error o una falta o una imprecisión sino una re-creación, una revitalización de una fórmula fija, adaptándola convenientemente a la situación concreta en la que se encontraba ese autor. La cita ya no es un lema que acentúa con optimismo el éxito futuro, «A un principio débil seguirá mejor fortuna», sino que pone énfasis en el deseo de que otros continúen y mejoren lo que se ha comenzado editando el primer libro en euskera: «Que a este principio débil siga mejor fortuna».

37.3. *Me estoy metiendo o me he metido en un avispero. Se atropellan en mi mente a raíz de esta cita varias cuestiones que requieren un análisis en el que no puedo detenerme de momento. Ahora me límito, tras levantar la liebre, a indicar el camino por donde hay que perseguirla, confiando en que, respetando una antigua ley de cinegética, no se me cruce intempestivamente un cazador furtivo antes de que yo haya lanzado, haciendo uso del «ius primae sagittae», el primer disparo.*

*Etxepare se encuentra con su cita latina en una larga y fecunda tradición que tiene representantes en pleno humanismo, en autores medievales de primera fila, y que remonta por lo menos a las Metamórfosis de Ovidio, por más que en la tradición haya sido remodelado el texto original: *Flebile principium melior fortuna secuta est* (247). Y levanto otra liebre, disfrazada de pregunta tergiversante: ¿Conocía Rabelais las *Primitiae* de Etxepare, y ha sido él quien ha tomado del poeta vasco la cita,*

(245) Léanse las ponderosas palabras de Koldo Mitxelena que cita Patxi Altuna en el *Prólogo* a la edición de *Linguae vasconum primitiae* de 1995, p. 131.

(246) *Le tiers livre des faict et dictz héroïques du bon Pantagruel*, cap. XLII. París 1546. En alguna publicación figura la cita como si fuese del Libro II, que se publicó en 1534.

(247) Ovidio, *Metamórfosis*, 7, 518.

y no al revés? De Primitiae se admite que se publicó en 1545, a juzgar por el Extract des regestes de Parlement: «Faict a Bourdeaulx en Parlement le dernier iour Dapuril, mil cinq cens quarante cinq» (248), y según leemos en las historias de la literatura vasca. De acuerdo con el testimonio unánime de los filólogos competentes, Le tiers livre des faict et dictz héroïques du bon Pantagruel se publicó por primera vez en París el año 1546, es decir más tarde que el libro de Etxepare. Es sólo un detalle, pero significativo, que merecerá nuestra atención en ocasión más propicia (249).

38. No fue lamentable, *flebile*, ni mucho menos, el principio de mi vida, mi infancia, mi niñez con todas sus estrecheces (250). Ni lo fue mi juventud, no obstante el doloroso fracaso de mi «grillo misionero», de mis sueños de imitar a mi santo patrón de Javier. Tres factores creo que me influenciaron internamente de manera especial para despertar e intensificar la vocación misionera, además de la oportuna y feliz coyuntura que me ofrecía la reciente llegada de los misioneros SVD a Estella (251): a) En la escuela de Beriáin representamos una vez, cuando yo era muy joven, una velada con el tema «Yo quiero ser misionero», en la que tuve un papel importante, vestido de sotana blanca. b) En una fiesta de San Francisco Javier me dejó impresionado un día un texto que cantó el sacristán, el señor Francisco Zoraquiáin, plantado como un roble junto al altar mayor, con los dedos pulgares metidos a ambos lados de un chaleco oscuro, a la altura de los sobacos, y con las manos apuntando hacia adelante como si quisiera abrir brecha, con una sonora voz de barítono que hacía vibrar toda la iglesia:

«Treinta mil leguas corrió
nuestro invicto en las misiones,
y miles de almas salvó
en las paganas naciones» (252).

c) Además, en plena y pujante juventud, la fuerza del *nomen atque omen*, modificado en *nomen est omen*; llevé muy bien grabado durante los años de Roma al santo navarro, adoptando incluso la firma *Franciscus Xaverius*, que utilicé hasta abandoné la *Societas Verbi Divini*.

(248) Página 75 de la edición de 1995.

(249) Tengo la intención de desarrollar el tema en un aporte para el homenaje a Jean Haritschelhar.

(250) A los años de mi niñez me refiero en la primera parte de «Recuerdos de la posguerra y de la Guerra Civil», en: *Hispanorama* 107, Febrero de 2005, 37-39.

(251) Fue el año 1945, según recuerda una canción, de fabricación casera, creo que del P. Luis: «El año mil novecientos cuarenta y cinco / - antes de cantarlo me santiguó y me ahinco - / vinieron tres Padres a Estella...».

(252) No tengo fuente alguna para este texto. Que me perdone el autor de *El divino impaciente* si se me ha ocurrido pensar en él.

38.1. De la noche a la mañana se esfumó, se desvaneció ese sueño misionero, que se convirtió en terrible pesadilla. «Mañana en un frágil barco me he de embarcar en la mar. Daré un adiós a mi patria, el último adiós quizás». ¡Con qué pasión y entusiasmo no cantaba yo esa despedida del misionero, disfrutando con la idea de que tal vez un día el barco, en el que yo iba a predicar la fe, naufragaría, y el mar sería mi sepulcro! «No temo las muchas aguas, ni el indomable huracán, que es dulce a quien busca el cielo hallar su tumba en el mar», decía más o menos otra estrofa de la misma canción. Y naufragué completamente; fracasó con estrépito ese proyecto por el que había andado bregando durante diez años.

38.2. El empeño y los esfuerzos de dos lustros, disipados, malgastados, dilapidados, como el caudal del hijo pródigo. Aunque no perdidos del todo, pues el hado, la suerte, la fortuna que ha popularizado Carl Orff como inestable, como volátil, como caprichosa, que crece y decrece sin cesar (253) como se le antoja, como rueda voluble; la *fortuna vitrea* de Publilio Siro (254), la *fortuna caeca* de Cicerón (255) y de otros muchos, ha sido benigna, condescendiente y generosa conmigo: Me brindó de niño, gracias a la idea o vocación misionera frustrada, la oportunidad de entrar en un Instituto para los estudios de cultura general, cuyas puertas habrían quedado de otro modo irremediablemente cerradas para mí, hijo de padres sin medios. Tras el naufragio, la fortuna me ha nivelado y alisado el terreno escabroso; me ha enderezado la senda tortuosa, abriéndome paso y conduciéndome con mano segura y con pie derecho por entre abrojos y malezas; me ha ofrecido otros campos de acción, otra patria intelectual, otros valores, otros amigos –aun conservándome los de antes–; y me ha deparado una verdadera familia, en el sentido estricto, tradicional: una imponderable riqueza.

39. Mi aporte personal ha sido modesto, un diminuto grano que ha caído en tierra buena, bien estercolada, y ha germinado con brío; un insignificante óbolo valorado excesivamente por personas benévolas, que me han querido bien. Por este motivo, al margen del proverbial *Faber est suae quisque fortunae* (256), inspirándome en Etxepare y respetando fiel y escrupulosamente la tradición, con sincero agradecimiento, hago míos el verso y la versión *Debole principium melior fortuna secuta est*, que encuentro en un sabio historiador del siglo XII (257).

Venia sit scripto!

(253) Texto en *Carmina Burana*, N° 17: *O Fortuna, velut luna / statu variabilis, / semper crescis aut decrescis...*

(254) *Sententiae*, ed. Otto Friedrich, Berlín 1880 (reimp. en Hildesheim, 1964), F 24.

(255) *De amicitia*, 15, 54.

(256) Appius Claudius Caecus apud Sallustium, *Epistulae ad Caesarem senem de Republica*, 1.1.2.

(257) El historiador de las cruzadas, Guillermo de Tiro (≈1130 – ≈1185), en su obra *«Historia rerum in partibus transmarinis gestarum»*, libro XVIII, cap. XVII.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BATZAR-AGIRIAK

Donostian, 2006ko urtarrilaren 27an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Benat Oihartzabal, euskaltzainburu-ordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagor sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Miren Azkarate,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Ibon Sarasola,
Ana Toledo,
Piarres Xarrition,
eta Patxi Zabaleta euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariodea, Juan Jose
Zearreta kudeatzailea eta Jose Antonio
Aduriz zegozkien gaietan.

du Eusko Ikaskuntzak eta Baionako Hiriak urtero ematen duten Euskal Kulturen Ohorezko Saria Jean-Louis Davant euskaltzainak jaso zuela iazko abenduaren 16an Baionan bere ibilbide oparo eta bikainagatik. Zorionak eman zaizkio.

2.3. Pruden Gartzia Juan Zelaia saria. Halaber, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako zuzendariak, Pruden Gartzia, iazko azaroan Juan Zelaia V. Saiakera saria irabazi duela jakinarazi du euskaltzainburuak, *Lazarraga. Ernazimentua euskaraz* ize-neko saioarekin. Zorionak eman zaizkio.

2.4. Batzarren ordena. A. Urrutiak argitu duenez, Osoko Batzarra goizez izango da eta ageriko bilkura, aldiz, arratsaldean, bertan hilberri txostenak irakurtzeko.

3. Onomastika

3.1 Exonomastika: «Antzinako hirien euskarazko izenak» onartzea. Jose Luis Lizundiak esan duenez, batzordeak aurkezturiko txostenari ez zaio oharrik egin. Antzinako izen batzuek (*Ninive, Babilonia...*) turismoagatik eta azken aldko gorabehera politikoak direla eta (Irakeko gerra...) berriz ere asko erabiltzen hasi direla komentatu du. Araua ontzat eman da.

3.2. Exonomastika: «Euskal Herriaren auzo eskualdetako herri izenak (I): Iparralde ingurukoak» aurkeztea. J. L. Lizundiak txostena eta zerrenda aurkeztu

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejita, ahala idazkari; Jean-Louis Davant-ek, ahala Txomin Peilleni.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregiko tronu-aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Azaroko batzarraren akta oharrik gabe ontzat eman da.

2. Ahoz esatekoak

2.1. Patxi Salaberri ongietorria. Euskaltzainburuak Patxi Salaberri euskaltzainari ongietorria eman dio, bere izendapenaz gero Euskaltzaindia eginiko lehen etorrera.

2.2. Jean-Louis Davantek saria Baionan. Era berean, Andres Urrutiak azaldu

ditu. Izen horietako batzuk finkatzeko orduan inguruko auzo-hizkuntzak (gaskoiera, aragoiera, frantsesa, gaztelania...) kontuan hartu beharra, azpimarratu du. Lehen zerrenda honetako exonomioak aipatu ditu, eta bitasuna agertzen denean iparraldeko horian arteko aukera eta formak finkatzeko laguntha eskatu die. Xarritonek Nafarroa Beherearen ondoko erdal topomimo «euskaldundua» ere kontuan hartu beharko liratekeela esan du. Haritschelharrek *Orthese* eta *Nabarrengeose* hitzei buruz ohar batzuk egin ditu. Oharrak otsailaren 16rako egoitzara bidali beharko dira P. Telleriaren ardurapera.

3.3. Onomastika: Onarturiko «Bizkaiko herri izendegia» banatzaea. Aurreko bilkuraren onarturiko zerrenda euskaltzainen artean banatu da.

4. Hiztegi Batua

4.1. Hiztegi Batua: D letra. P. Salaburu batzordeburuaren ezin etorriagatik, Jose Antonio Adurizen zuzendaritzapean D letrako zerrendari egini oharrak aztertu eta erabaki dira: *demokristau-tik desanimo-rainoko* hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

4.2. Hiztegi Batuko A-B letren zerrenda. A eta B letraz hasten diren hitz orain arte onartuen zerrenda banatu da, kontsultarako.

5. Eskuartekoak

5.1. 2006ko Egutegia banatzaea. Euskaltzaindiaren 2006ko batzar-egutegia, 2005eko abenduaren 16ko osoko batzarrean onartua, banatu da etorririko euskaltzainen artean.

5.2. Azkue sarietarako mahaikideak. Zuzendaritzak urtarrilaren 4an 2005eko Azkue sariarako epaimahaikide hauek izendatza erabaki zuen:

- A mailan: Igone Etxebarria, Amagoia Lopez de Larruzea eta Manu Lopez Gáseni.
- B mailan: Joseba Butron, Kirmen Uribe eta Jabier Kaltzakorta.

Izendapenak berretsi egin dira.

5.3. EGO eta ECO hitzarmen sinadurak. Pello Salabururen zuzendaritzapeko Euskal Gramatika Orokorra egitasmoa dela eta, zuzendaria hitzarmena jadanik sinatura duela jakinarazi du euskaltzainburuak. Era berean, Andres Iñigoren zuzendaritzapeko Euskal Corpus Onomastikoaren egitasmorako hitzarmena jadanik sinatura duela zuzendaria. Hitzarmen horiek ez dira banatuko, baina euskaltzainen batek ikusi nahi izanez gero, jo bezta kudeatzairengana.

5.4. P. Altunaren heriotza. 2006ko urtarrilaren 20an Patxi Altuna euskaltzainaren heriotza zela eta, euskaltzainburuak Haren hutsunea jakinarazi du eta Haren leku betetzeko, kandidatuak aurkeztek bi hilabeteko epea hasten dela. P. Altunaren hilberri txostena egitea Miren Azkarateri proposatu zaio eta ontzat eman du.

5.5. J. M. Lekuonaren hutsarterako hautagaiak aurkeztea. J. L. Lizundiak, A. Toledok eta X. Kintanak sinaturik, Joseba Irazu Garmendia (*«Bernardo Atxaga»* ezinaz ezagunagoa) jaunaren kandidatura aurkezu dutela adierazi du Andres Urrutiak, sinatutako aurkezpen-orria eta merezimenduen txostena banatu direlarik.

J. Haritschelharrek, beraren eta beste euskaltzain batzuen izenean, bere kezka eta ustekabea azaldu du, proposamen hori osoko bilkuran baino lehenago prentsan agertu delako. Euskaltzainburuak berak ere kezka bera agertu eta gertaera hori deitoratu du. Abenduko filtrazioaz ere mintzatu da euskaltzainburua. J. L. Lizundiak eta idazkariak ere hitz egin dute, kazetari baten era horretako jokabideak salatuz. Hemendik aurrera horrelakorik jazo ez dadin informazio-protokolo bat prestatzea proposatu du A. Urrutiak Zuzendaritzaren izenean. Ideia ontzat eman da.

5.6. Federiko Barrenengoa euskaltzain ohorezkoaren heriotza. Federiko Barrenengoa arabar euskaltzain ohorezkoa 2005eko abenduaren 30ean hil zela adierazi du A. Urrutiak. Haren hilberri txostena egitea H. Knörri eskaini zaio. Ontzat eman du.

5.7. Ibon Sarasolaren proposamena. Maiz saio generoan eman gabe gelditzentzat dira euskal literatura-sariak. Hori dela eta, eman gabeko saio horien ordez, edota horien diru-zenbatekoa metatuz, bestelako sariak antolatzea proposatu du, *Premi de les lletres catalanes* moduko zerbaitek, hots, pertsona bat bere bizitza osoko lanengatik sartzezko. Euskaltzainburuak erantzun dio, hori zehazteko, Literatura batzordeak proposamena egin dezala. Ondo iritzirik, J. L. Lizundiak Aurrezki Kutxekin horretaz mintzatzea proposatu du.

5.8. Elurtearen ondorioak. Ricardo Badiola argitalpen-arduradunaren ezin etorriz, ezin izan dira banatu *Oroitzidazkia* eta *Antzuolako toponimia* liburuak. Euskaltzainei hurrengo batean helaraziko zaizkie.

5.9. San Frantses Xabierkoaren eta Joanes Leizarragaren omenaldie. Piarres Xarritonek proposatu du aurten, euskaldun saindu eta idazle horien mendeurrenena dela eta, Euskaltzaindiak zerbaite egitea, agian Euskaltzaileen Biltzarrekin batera. J. L. Lizundiak erantzun dio zerbaite egitea pentsatuko dela, baina egutegia jada egina denez gero, ez dela hain erraza izanen, era horretako omenaldiak ongi eta garaiz antolatu behar dira eta.

5.10. Hiztegiaren izena. Hiztegi Batutik abiatuz, Euskaltzaindiak egingo duen hiztegiaren izenaz proposamena hurrengo osoko batzarrean aurkeztuko dela aurreratu du euskaltzainburuak.

Batzarra 14:40an amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

Donostian, 2006ko urtarrilaren 27an.

Euskaltzaindiak Donostian egin du ageriko bilkura, arratsaldeko 5etan, Gipuzkoako Foru Aldundian, lau euskaltzain lauen hilberri-txostenak irakurtzeko: Juan San Martin, Eugenio Agirretxe, Patxi Ondarra eta Joxe Mari Aranalderenak.

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andres Iñigo, Jagor sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Miren Azkarate, Emile Larre, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Piarres Xarritton, Ana Toledo eta Patxi Zabaleta euskaltzain osoak.
- Koldo Artola ohorezko euskaltzaina.
- Jose Antonio Aduriz, Antton Aranburu, Mikel Atxaga, Pello Esnal, Jose Mari Iriondo, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Paskual Rekalde, Pello Teilleria, Juan Jose Zearreta eta Joxe Ramon Zubimendi euskaltzain urgazleak eta, Amaia Okariz, Euskaltzaindiko Prentsa arduraduna eta Maixa Goikoetxea Gi-puzkoako ordezkaritzako bulego-arduraduna.

Andres Urrutia euskaltzainburuak ongietorria eman die bildu direnei eta entzule izan den Joxe Juan Gonzalez Txabarri diputatu nagusiari eskerrak eman dizkio goizeko osoko batzarra eta arratsaldeko ageriko bilkura egiteko Euskaltzaindiari eman zaion laguntzagatik. Ondoren, hilberri-txostenak irakurriko dituzten lau hizlariei hitza eman die.

Juan San Martin

Jose Luis Lizundia diruzainak irakurri du Juan San Martin euskaltzain osoaren hilberri-txostenak. Bere hitzetan «Juanito euskalgintzaren *Land Roverra* izan da». San Martinek aztertu zituen alderdi ugariak azpimarratu ditu. Mendizaletasunari eta onomastikaren alorriari etekina ateratzen jakin zuen San Martiniek. Hor dago, euskara batuaren historian izan zuen esku-hartze zuzena, bere iniziatiibaz burutu baitzen Ermuko biltzarra, Arantzazukoa antolatzeko erabakigarri izan zena.

Lizundiak nabarmendu duenez, aditz batuaren deklinabide, erakusle, onomastika eta beste araugintzaren lanen buru Villasante bazen ere eta gidari linguistikoa Mitxelena, San Martin idazkari zenez hirukote akademikoaren trianguluaren beste ertza izan zen. Adierazpenokin, argi asko utzi du Lizundiak zein izan zen San Martinen ekarria

Euskaltzaindiaren baitan eta euskalgintzan: XX. mendearen bigarren erdian, euskal kulturgintzan eragilerik izan bada, zalantzak gabe lehen eragilea, eragilerik sutsuena Juan San Martin izan zela esanez amaitu du hitzaldia Jose Luis Lizundiak.

Eugenio Agirretxe

Paulo Agirrebaltzategik egin du Eugenio Agirretxe frantziskotar apaiz eta euskaltzain ohorezko zenaren oroitza, haren biografia eta euskararen alorreko lana eta pentsamendua azalduz.

Hark izan zuen hitzaren dohaina azpimarratu du bereziki, euskal hizlari gisa Euskal Herriko eliza eta plazetan urte luzetan agertu izan zuena: herri-misioetan, gogo-jardunetan eta sermoietan. Jendaurreko hizlari oso trebea izan zen: profetikoa eta gartsua. Karpetatik ugari utzi ditu gainera, berak idatzi eta emandako hitzaldienak.

Erlilio aldizkarietan idazlan askotxo eman zuen (*Anaitasuna, Arantzazu, Goiz Argi*), batez ere gai espiritual, etiko eta sozialak landuz; espiritualitate alorreko zenbait liburuxkaz gain, obra autobiografiko oso interesgarria argitaratu zuen: *Aldi hartan eta Arantzazu inguruau* (1995).

Euskararen bizitzaren eta erabileraren alde borrokatu zen gainera: gizartean, elizelkartean eta erlijiosoen bizitzan. 1956an Euskaltzaindiak Arantzazun antolaturiko Euskaltzaleen biltzarrean partaidetzat bizia izan zuen. 1959an, euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak; 1998an, berriz, ohorezko euskaltzain egin zuen. 2005eko uztailaren 14an hil zen Bermeon.

Patxi Ondarra

Andres Iñigo Jagon sailburuak Patxi Ondarrari eskainitako hitzaldian haren bizitza laburbildu du, historiari eta euskarari zuzendu zion ahalegina nabarmenduz. 1949an apetu eta Txilen hamahiru urte egin ondoren, handik itzultzean, 1964tik aurrera, euskara ama-hizkuntza hobetu eta sakontzeko aukera izan zuen.

Iñigoren azalpenen arabera, Ondarraren ikerketa lana bi esparru nagusitan koka daiteke. Lehenik, megalitika gogoratu behar da, beti agertu izan baitzuen Ondarrak naturarekiko maitasuna eta mendizaletasuna. Nafarroako mendi bideak bikain ezagutzen zituen, baita bertan biltzen ziren aztarnak ere. *Príncipe de Viana* Erakundearen Industekoa eta Arkeologia batzordekide zen 1997tik, gogoratzeko da berak aurkitu zuela 1973an, Baztango Soalar mendiko menhir neolitikoa.

Euskalduna eta nafarra zen aldetik, bere xede nagusia Nafarroako euskalduntasunaren erakusketa egitea zen, alegia, Nafarroan non, noiz eta nola hitz egiten zen ezagutzera ematea, ondoren hartzeko erabakiak hartzeko. Argitara eman dituen lanen artean hiru zati nagusi sailka daitezke: J. Lizarraga Elkanokoaren lanaren gainekoa, Aita Polikarpo Iraizozkoaren ingurukoa eta euskal testuak.

Azkenik Andres Iñigok Ondarrak Euskaltzaindian egindako lana aipatu du: Dialektologian, Onomastikan zein Gramatikan.

Joxe Mari Aranalde

Hitz hauekin laburbildu du Jose Mari Iriondok Aranalde euskaltzain urgazlearen izaera: bihotz handikoa, emailea, laguntzailea, maitagarria; egoskorra ere bai, inoiz. Bere mintzaldian, 2005eko irailaren 24an hildako euskaltzain urgazlearen pasadizorik aipagarrienak gogora ekartzeaz batera –seminarioan izandako garaia edota apaiztu zenekoa, Nikolas Ormaetxea «Orixé» osabarekiko harremana, San Tomas lizeoan irakasle egindako lana–, bere nortasunaren alderik esanguratsuenak aipagai izan ditu. Aranalde bertsozaleak, idazleak, hizlariak, euskaltzaleak, lau Jainko zituen, aspaldi egindako elkarrizketa batean garbi asko kontatu zuenez: 1. Zeruetako Aita Jainkoa. Sisismen handiko gizona zen hora, eta apaiz izateko eman zion aukera ordaindu ezineko pribilegio bat izan zela beretzat esan ohi zuen. 2. Nikolas Ormaetxea Orixé osaba jainkoa. 3. Joxe Mari Agirre «Lizardi», eta 4. Fernando Aire «Xalbador».

Bertsolaritza zaletasun eta grina izan zuen, txiki-txikitatik. Hainbat saio, lehiaketa eta sariketatan epaile eta gai-jartzale aritu zen, eta aipatzeko da 1979 eta 1982ko bertso-txapelketa nagusietan izan zuen esku-hartzea, antolaketa zein epaimahai zereginetan. Bertsolaritzaren haritik etorri dira bere idazlanik oparoenak ere, bere bertsoen bildumak eta Xalbadorri eskainitako liburuak, nagusiki.

Jose Mari Iriondok, bere mintzaldian, Aranalderen beste alderdi hauek ere aipatu ditu: haren euskaltzaletasuna –euskarari eta euskal kulturari guztiz lotuta bizi izan zen–, Euskaltzaindian eta Euskararen Aholku Batzordean egindako lana eta erretorikarako ahalmena.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2006ko otsailaren 24an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita
Miren Azkarate,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Piarres Xarriton
eta Patxi Zabaleta euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariodea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Jose Antonio Aduriz, Kristina Arana, Pruden Gartzia eta Mikel Gorrotxategi, zegozkien gaitean.

Ezin etorriak eta ahalak: Jean-Louis Davant-ek, ahala Tx.Peilleni; I. Sarasola, ahala P. Salabururi; Antonio Zavalak, ahala A. Arejitarra.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Euskaltzaindiaren egoitzako batzar aretoan ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Urtarileko batzarraren akta ontzat eman da, Euskaltzainburuak informazio- protokoloa jaritzeko egin duen oharrarekin.

2. Exonomastika

2.1. Euskal Herriaren auzo eskualdeetako herri izenak (I) Iparralde inguruoko onartzea. Zerrendako izenak aztertzean izandako zaitasun-zalantzak azaldu ditu J. L. Lizundiak, P. Xarritonek ohar bat egin du *Landak* izenari buruz. Tx. Peillenek erantzun dio. B. Oihartzabalek departamenduari jende arruntak *Landesak* esaten diola argitu du.

2.2. Exonomastika: Onarturiko «Antzinako hirien euskarazko izenak». Zerrenda onartua euskaltzainen artean banatu da.

3. Hiztegi Batua

3.1. Hiztegi Batua. Onarturiko C eta D zerrendak. Paperean banatu dira eta horiek euskarri elektronikoan ere banatuko zaiela iragarri du A. Urrutiak.

3.2. Hiztegi Batua: D letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta era-bakitza. P. Salaburu batzordeburua etorri arte, Jose Antonio Adurizen zuzendaritzapean D letrako zerrendari eginiko oharrak aztertu eta erabaki dira: *desanparatu-tik deskontu-rainoko hitzak ikusi, eztabaideatu eta onartu dira. Deseinu moduko hitzak, lehen itzulian h. daramatenak, bigarren itzulian azalduriko asmoarekin batera jartzeko, azkenean guztiak berrikusiko dira, zeini bere marka zehatza ezarri ahal izateko.*

4. Eskuartekoak

4.1. Euskaraz azalduriko hiztegiaren izena. Egiten hasi den Euskaltzaindiaren hiztegi berriaren izena dela eta, A. Urrutiak, I. Sarasolarekin mintzatu ondoren, Zuzendaritzan honela adostu dela jakinarazi du:

*Euskaltzaindiaren Hiztegia
Hiztegi Batua
1. itzulia
Adierak eta adibideak.*

Osoko bilkuran ere horrelaxe berretsi da.

4.2. J. Haritschelharren omenaldirako liburua. Zuzendaritzak J. Haritschelharren omenez liburu bat argitaratzea erabaki duela jakinarazi du euskaltzainburuak. Horretarako epeak eta baldintzak honako hauek dira.

Artikuluak bidaltzeko aukera izanen dutenak: Euskaltzain osoak, ohorezkoak eta Literatura Ikerketa batzordekideak.

Gaia eta izenburua emateko epea: 2006ko apirilaren 30a.

Artikuluak bidaltzeko epea: 2006ko abenduaren 31a.

Artikuluen neurria: gehienez 40.000 karaktere, zuriuneak, bibliografia eta eranskinak barne.

Gainerako xehetasunak lotzea eta garatzea hauen ardurapean izango dira: Euskaltzainburua, Euskaltzainburuordea eta Diruzaina.

4.3. Euskaltzain urgazleen izendatzeaz eta sailkatzeaz. J. L. Lizundiak, aurten urgazle berriak hautatu behar direla eta, horretarako deialdia iragartzea proposatu du, izenak aurkezteko bi hilabeteko epea dela gogoraraziz. Bide batez, kandidatu berrien aukera egiteko eta kargu horretan irauteko baldintzez, berak prestaturiko txostena banatu eta irakurri du, orain arteko barne erregelen puntu batzuk aldatzea komeni dela azalduz. Oharrak eta zuzenketak martxoaren 20rako bidali beharko dira.

J. Haritschelharrek, lehenik martxoan barne erregelen aldaketa aztertzea proposatu du, kandidatuen izenak ekartzeko epea apirilera arte dela kontuan harturik, eta horrela hurrengo hilean, maiatzean, horien izendapena egitea. Proposamena ontzat eman da.

M. Azkaratek urgazle berrien kopuruaz galde egin du, gehiegiz gerta ez daitezen. J. L. Lizundiak argitasunak eman dizkio. P. Goenagak bere kezka azaldu du, ez baita kusa garbi, urgazletza berez ohorea izanik, urgazle batzuk emeritu egoerara pasatzeko premia.

Urgazle berriak izendatzeko deialdia dela eta, Euskaltzainburuak gainerako euskaltzainei galdetu die ea, Euskaltzaindiaren ohikoa denez, Barne Erregelen aldakuntza egin eta kandidatuak aurkezu arte, ez ote den komeni hori osoko bilkura barruko informaziozat jotzea, hedabideetan barreiatu gabe. Aho batez hala egitea onartu da.

4.4. Azkue Bibliotekako katalogazio erregelak. J. A. Arana Martija euskaltzainak aurkezu eta Pruden Gartzia, Azkue bibliotekaren zuzendaria, azaldu ditu horretarako erabiliriko iturri eta erreferentziak. Hor Euskal Herri osoaren kultur eremuaren

batasuna errespetatzen saiatu dira. Kristina Aranak, katalogazio-arduradunak, erregelak nolako irizpideekin ebatzi diren azaldu du xeheki. J. A. Arana Martijak erregela hauek Argitalpen batzordera bidaltzeko asmoa agertu du, hala baderitzo, argitara ditzan.

Irizpideei buruzko argitasun batzuk eman dizkio P. Gartzia P. Goenagari. Mirenek lan hau sarean ipintzea proposatzen du, Euskal Herriko gainerako liburutegientzat ere mesedegaria izan dadin.

5. Azken ordukoak. Euskaltzainburuak, bukatzeko, azken kontu hauen berri eman du:

5.1. Espainiako Hezkuntza Ministerioarekiko hitzarmena sinatu da. A. Urrutiak Euskaltzaindiaren eta Estatuaren Hezkuntza Ministerioaren arteko hitzarmena sinatu dela azaldu du, Akademiaren finantzazioari buruz.

5.3. P. Altunaren heriotzagatiko doluminak. Román Álvarez jaunak, gutun bidez, Salamankako Unibertsitateko Filología Fakultateko dekanoak, P. Altunaren heriotzagatik, Euskaltzainei bere doluminak helarazi dizkie. Eskerrak eman zaizkio.

5.4. J. Haritschelharri zorionak. ETB-k aurten Iparragirre saria J. Haritschelharri eman diola eta, bestalde, Biarritzeko hiriaren domina eskaini berri zaiola eta, Euskaltzainburuak Akademia osoaren izenean zorionak eman dizkio.

5.5. Euskaltzain zenduen hutsarterako hautagaiak aurkeztea. P. Altuna zerenaren hutsartea betetzeko, J. A. Arana Martijak, A. Toledok eta H. Knörr euskaltzainek, Mikel Zalbide Elustondo jaunaren kandidatura aurkezu dute. J. M. Lekuonaren hutsarterako, aldiz, ez da beste inor aurkezu. Beraz, B. Atxaga da kandidatu bakarra.

5.6. A. Toledoren sarrera-hitzaldia. Euskaltzaindiaren arauetan erabakia betetzeko, Ana Toledo andreak bere sarrera-hitzaldia Antzuolan uztailaren 21ean, goizean, Antzuolan, bere sorterrian, egingo duela iragarri du A. Urrutiak, eta erantzuna J. Haritschelharrek emango diola. Horren ondorioz, uzaileko osoko batzarra bezperan egingo da, uztailaren 20an, arratsaldez toki berean.

5.7. Polikarpo Iraizotz-en Lapurren menpean liburua dela eta. P. Xarritonek ohar bat egin du Polikarpo Iraizotz-en *Lapurren menpean liburuaz*, Ines Pagolaren ardurapeko edizioan agian Nafarroako Gobernuarekin atera ote litekeen galdetuz. A. Urrutiak horretaz arduratzeko hitza eman dio.

5.8. Euskaltzainen artean banatzeko argitalpenak. *Euskera* agerkariaren azken zenbakia (2005, 1) banatu da, eta Gorgonio Renteriaren bizitza-liburua, A. Arejitarren oparia.

Batzarra arratsaldeko 18:20an amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Gasteizen, 2006ko martxoaren 31n

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagor sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Piarres Xarriton
eta Patxi Zabaleta euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose
Zearreta kudeatzalea, Jose Antonio Adu-
riz eta Mikel Gorrotxategi, zegozkiene
gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Jean-Louis Davant-ek, ahala Tx.Peilleni. H. Knörrek (beranduago helduak), ahala A. A. Urrutiari; M. Azkaratek ahala P. Goenagari; Antonio Zavalak, ahala A. Urrutiari; Are-jitak ahala J.L.Lizundiari; P. Zabaletak (beranduago helduak), ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Gasteizko ordezkaritza gaineko Círculo Vitoriano-ren liburutegian, ezkerreko zutabe-an ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. X. Kintanaren aitaren heriotza.
Idazkariaren aitaren heriotza dela eta, Euskaltzainburuak doluminak adierazi dizkie idazkariari. Beronek bai buruari eta bai gainerako euskaltzainei eskerrak eman dizkie berengandik jasoriko dolu-hitzengatik.

2. Aurreko akta onartzea: urtarileko batzarraren akta, J. L. Lizundiaren ordena-aldaketa batekin, ontzat eman da.

3. Onomastika: «Arabako herri izendegia: 1. zerrenda» aurkeztea: Aiaral-dea. Aurkeztean A. Iñigok *laudioar* eta *amurrioar* herritar izenak azaldu ditu. J. L. Lizundiak oharra apirlaren 20rako bidali beharko direla gogorarazi du.

4. Euskaltzain urgazleen izendatzeaz eta sailkatzeaz. J. L. Lizundiak, egin zaizkion oharren argitan 5.1 puntuau J. Haritschelharren testua onetsi du. Era berean, 5.2 puntuau berdin utzi eta urgazle emerituen puntuua (5.3) testutik kendu du. Bestetik, 5.4. puntuau, P.

Goenagaren testua onartu da, azken ahapaldia (zigorrena) kenduta. B. Oihartzabalek, A. Iñigorekin bat etorriz, testuan idazleak eta batzordekideak hobeki zehaztea eskatu du, hor M. Azkarateren testuko pasartea Haritschelharren oharreko c atalari erantsiz. Ikertzailearen figura ere sartzea eskatu du P. Salaberrik. Horrela adosturiko testua, 18 botoz ontzat eman da, aurka bota bat ere izan gabe.

Ondoren, J. L. Lizundiak ohargile guztiei eskerrak eman dizkie. P. Goenagak egindako azken oharrez (3-4. orrialdeetakoiez) datorren hilaren 20rako oharra jaso eta hurrengo batzarrean eztabaidatzea erabaki da.

5. J. M. Lekuonaren hutsarterako hautagaia bozkatzea. Bozketa egin aurretik, Euskaltzainburuak hau galdu die euskaltzainei: bozketaren berri komunikabideei ematerakoan nola jokatu behar den, oraingo bideari eutsiz –bozketaren xehetasunik eman gabe— ala xehetasunak emanez. Eztabaidatu ondoren, orain arteko jokabidea ez aldatzea erabaki da, euskaltzaina hautatzen denean gehiengoz osoz hautatua izan dela soilik adieraziz.

Joseba Irazu «Bernardo Atxaga» izan da aurkezturiko kandidatu bakarra. Botoetara joanda, emaitzak hauek izan dira: 20 boto alde. Beraz aho batez onetsia izan da.

Idazkariordeak kandidatu hautuari botazioaren emaitzen berri eman dio. Berria jakinda, B. Atxaga batzar aretora etorri da, euskaltzain guztien abegia eta txaloak jasoz.

6. Hiztegi Batua

6.1. F letrako zerrendari egindako oharrak. Euskaltzainek letra honekin hasten diren hitzei eginiko idatzizko oharrak banatu dira.

6.2. D letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitza. P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean D letrako zerrendari eginiko oharrak aztertu eta erabaki dira. Hasteo, *depositu* hitza, aurreko bilkuraren hobeki aztertzeko utzia, (Heg) markarekin onartu da «batez ere, likidoak gordetzeko ontzia» azalpenarekin. Ondoren, *deskontzentratu-tik destaju-rainoko* hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

Ordu bietan bazkaltzeko etena egin da.

Arratsaldeko 16,15etan bilkurarekin segitu da, *destakamentu-tik determinante-rai-no* helduz. Datorren bilkurarako *detergente* hitzari buruzko txostena aurkeztuko da.

7. Eskuartekoak

7.1. Kultura Ministerioaren Sari Nazionaletarako epaimahaikideak. Urtero bezala, Espainiako Kultura Ministeriotik eskari bat jaso da, berak antolatzen dituen Sari Nazionaletarako Sariak erabakitzeko epaimahaia osatzeko kide batzuk Euskaltzaindiak izenda ditzan. Ondoko pertsonak bidaltzea erabaki da:

Espainiar Letren sari nazionala: Bernardo Atxaga
 Poesia: Iñaki Aldekoa
 Eleberria: Jon Kortazar
 Saiakera: Henrike Knörr
 Teatroa: Patri Urkizu
 Haur Literatura: Mari Jose Olaziregi
 Itzulpena: Adolfo Arejita

7.2. Eusko Ikaskuntzako eta Euskadiko Kutxa Saria. Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien eremuan urtero antolatzen duten Saria dela eta, gutun bat igorri diote Euskaltzaindiari, sari horretarako egokia izan daitekeen pertsonaren baten izena iradokitzeo eskatuz. A. Urrutiak euskaltzainei horrako izenak aurkezteko epea apirilaren 10era arte ukanen dutela esan die.

7.3. Arautegiaren aldaketa. Euskaltzaindiaren arauen aldaketa dela eta, A. Urrutiak Hezkuntza Ministerioaren gutuna eta Instituto de España-ren txostena jaso direla jakinarazi du, formazko eta azaleko puntu batzuei buruz. Horrek baina, mamiari inolako ukiturik egiten ez dionez, proposaturiko testua bere horretan uztea erabaki da.

7.4. Sinaturiko hitzarmenak. Euskaltzainburuak, (ECO) Euskal Corpus Onomastikoaren eta (EGO) Euskal Gramatika Orokorraren zuzendariekin hitzarmenak urtarrilean sinatu ondoren, martxoaren 17an Euskaltzaindiaren Hiztegiaren zuzendariekin ere, hots, I. Sarasolarekin, era bereko hitzarmena sinatu dela jakinarazi du.

8. Azken ordukoak, ahoz esanak

8.1. P. Altunaren hutsarteko hautagaien berri. Ez da hautagai berririk aurkeztu. Beraz, Mikel Zalbide Elustondo da kandidatu bakarra.

8.2. Ohorezko euskaltzainak izendatzeaz. P. Xarritonek konsiderazioak egin ditu Altunaren hutsartearen inguruan bi euskaltzain ohorezko berri izendatzeko: Joan Mari Torrealdai eta Txema Auzmendi. Euskaltzainburuak erantzun dio, gauza bakoitzar ordenaz eta bere garaian egin behar dela gogoratz, eta ohorezkoak izendatzeko garaia eta epea aurten izanen dela argitu.

8.3. Eskerrak emateko gutunak. P. Goenagak Arabako agintariei Gasteizko ordezkaritza berriarengatik eskerrak ematea eskatu du. Lizundiak leku hori Euskaltzaindiari zergatik utzi zaion azaldu du eta euskaltzainak toki berria ikustera gonbidatu ditu. P. Salaburuk bi gutun bidaltzea eskatu du: bata Arabako Diputaziora eta bestea *Círculo Vitoriano*-ra, beronek Euskaltzaindiari, biltzeko, bere egoitza utzi diolako. Eskerrak emateko gutun biak bidaltzea erabaki da.

8.4. J. Haritschelharren omenaldirako lanen izenburuak bidaltzeko azken epea. A. Urrutiak, Euskaltzainburu ohiaren omenaldi-liburuan parte hartu nahi duten euskaltzain guztiei lanen izenburuak egoitzara (P. Telleria idazkariordeari) bidaltzeko azken epea apirilaren 30ean amaituko dela gogorarazi du.

Batzarra arratsaldeko 18.30etan amaitu da.

Andres Urrutia,
eusklatzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

Urnieta, 2006-IV-27

Apirilaren 27an, Plazido Muxika urnietarraren lehen mendeurrenena ospatu du Euskaltzaindiak, Urnieta, arratsaldeko 18:30etan, Lekaio Kultur Etxean egin duen ageriko bilkuran.

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Pierre Charriton, Patxi Goenaga, Emile Larre, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ana Toledo eta Antonio Zavala euskaltzain osoak.
- Jose Antonio Aduriz, Mikel Atxaga, Gorka Aulestia, Pello Esnal, Salvador Garmendia, Sebastian Garcia Trujillo, Iñaki Irazabalbeitia. Xabier Lete, Jose Antonio Mujika, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak.
- Pruden Gartzia batzordekidea eta Amaia Okariz, Euskaltzaindiko Prentsa arduraduna eta Maixa Goikoetxea Gipuzkoako ordezkaritzako bulego-arduraduna.

Florentino Ugalde alkateak ongietorria egin die bertaratutakoei eta, ondoren, Udalaren izenean, Plazido Muxika omentzeko antolatu diren ekitaldietan parte hartu dute-nei oroigarri bana eman die. Euskaltzaindiaren izenean Andres Urrutiak hartu du oroigarri hori eta, harekin batera, Jose Antonio Mujikak, Mikel Atxagak, Jose Mari Guardagilek eta *Aurrera Gure Ametsa* eta *Txanbolin* dantza taldeek.

Ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak hitz egin du, Euskaltzaindiari Urnieta egin zaion harrera eskertuz, eta hiztegigintzan Plazido Muxikak izan duen garrantzia azpimarratuz, lexikografian eta itzulpengintzan aritu direnentzat nahitaezko erreferentzia izan dela adieraziz.

Azkenik, Jose Antonio Mujika euskaltzain urgazle eta Gramatika batzordeko ki-deak –Plazidoren iloba ere denak– *Zertzelada batzuk Plazido Muxikaren bizitzaz* ize-neko hitzaldia eman du.

Plazido Muxika 1906ko apirilaren 16an jaio zen, Urnieta Oria auzoan, gaur egun Lasarte-Oria udalerrian dagoena. Azpeitian hil zen, 1982ko abuztuaren 27an. Jesuita izan zen, ikasketak Andoain, Loiola, Oña, Marneffe (Belgikan) eta Valkenburg-en (Holandan) egin ondoren. Kolonbian misiolari ibili zen. Argitalpen hauetan parte hartu zuen: *Jesusen Biotzaren Deya, Argia, El Día, Yakintza* eta *RIEV*. Hizkuntza klasikoetan aditua izan zen eta latin eta grekozko hiztegiak egin zituen. Euskaraz egin

zuen lanik garrantzizkoena *Diccionario castellano-vasco* izan zen. Euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 1957ko uztailaren 26an.

Jose Antonio Mujikaren aburuz, bi izan ziren Plazido Muxikaren bizitzaren ardatz nagusiak: «Jesuslaguna eta hiztegigilea. Jesuita izatea bere bizi guztirako aukera-tu zuen bizitza-modua izan zen, eta hiztegia egitea, berriz, bere bizitzaren urte gehienetan lanpetua eduki zuen zaletasuna. Biak uztartzen jakin zuen Plazidok; ez, ordea, lanik gabe».

Hitzen zerrendak egiteko zaletasuna gaztetan sortu zitzaiion Plazidori. Ikasketak egiten ari zela, Esteban Urkiaga «Lauaxeta», Jokin Zaitegi, Andima Ibinagabeitia eta Iñaki Goenaga izan zituen ikaskide: «Lagunek klasikoak itzultzen, olerkiak idatzera eta horrelakoetara jo zuten; Plazidok, aldiz, esan bezala, hitzak biltzen. Eta gaztetan zaletasuna izan zena, betebehar bilakatu zitzaiion gerora. Gaztelania-euskara hiztegi bat idaztea bere egitekoa, bere «misisioa», zela pentsatu zuen».

Gerra osteko urteetan, baina, euskaltzaletasuna ez zen ondo ikusia eta nagusiek beste lan batzuetara lotu zuten Plazido. Bera, ordea, ez zen inoiz desanimatu eta atsedenari orduak kentzen zizkion, beti ere egin nahi zuen hiztegian aritzeko. «Azkenean, noizbait! –esan du Jose Antonio Mujikak– 1962-63 ikasturtean eskoletatik ere libre utzi zuten, hiztegiaren azken orrazketak eta zabalkunde lanak eroosoago egin zitzan. Handik urte bira argitaratu zuen bere *Diccionario castellano-vasco* lodi eta mardula. Hiru edizio izan zituen eta 17.000 ale saltzera iritsi zen. Horra, bada, nola uztartu zituen, ez beti erraz, bere bizitzaren ardatz biak, jesuita izatearena eta euskal hiztegigile izatearena».

Jarraian, Plazidoren bizitzako hiru argazkiren inguruan gogoeta egin du Mujikak. Lehen argazkian, 22 urte inguruko gaztea da eta mendi handi batean dago, bakarrik, enbor batean eserita, atsedena hartzen. Kolonbian dago eta bertan izan zen urteotan ere euskara lantzeari ekin zion.

Bigarren argazkian hogeita hamar bat urteko gizona da. Idazmakina baten aurrean dago, bere gelan, makinaren alboan liburu handi bat irekia duela. Nafarroako Xabierreko ikastetxean egina dago argazkia.

Hirugarren argazkian, hogeita hamar urteko jauzia eginda, Veruelako monasterioan dago Plazido, hango bibliotekan zutik, apaletako liburuak antolatzen. Berrogeita hamar bat urteko gizon heldua da. Aurpegia alaia du. Leku eder eta lasaian dago eta hor emango dio azken bultzada bere lan handiari. Gero, lanik handiena egina zuenean, 1964an, Loiolara ekarri zuten ostera nagusiek. Hartara, inprintako lanak eta zabalkunde gertuagotik segitu ahal izan zituen. Eta azkenean, 1965ean, argitara eman zuen hainbeste urtetako lanaren emaitza zen hiztegia.

Diccionario castellano-vasco amaitu zuen, bai, eta beste bati ekin zion: Euskal-gaztelania hiztegiari, hain zuzen ere. Hau, 1981ean argitaratu zuen, liburuki bitan. Honela amaitu du Jose Antonio Mujikak hitzaldia: «Haren hitzaurreari izenburu hau ipini zion letra handiz: *MISIÓN CUMPLIDA*. Barren-barrendik egindako poz oihu ozen bat bezala entzuten dut nik esaldi hori. Plazido Muxikaren azken aupada!».

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Urnieta, 2006ko apirilaren 27an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagor sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Piarres Xarriton
eta Antonio Zavala euskaltzainak

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose
Zearreta kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi
eta Jose Antonio Aduriz, zegozkiengaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: B. Atxagak,
ahala A. Urrutia; M. Azkaratek ahala P.
Goenagari; Jean Haritschelharrek, ahala
P. Xarrittoni; Beñat Oihartzabalek, ahala
P. Xarrittoni; P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10.10ean hasi da Urnieta
oko udaltxeko batzar aretoan, ezkerreko
zutabeen ageri diren euskaltzainak
eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Martxoko
batzarraren akta ontzat eman da.

2. Onomastika

2.1. Onomastika: «Arabako herri izendegia: 1. zerrenda» onartzea: Aialde. Aurkeztean, M. Gorrotxategik lehen
zerrenda honi inork oharrik egin ez
dionez gero, ontzat ematea eskatu du.
Halaxe erabaki da.

2.2. Onomastika: «Arabako herri izendegia: 2. zerrenda» aurkeztea: Ondoren, M. Gorrotxategik bigarren
zerrenda aurkeztu du, *Asparrena, Barrundia, Burgu* eta
Agurain izenei buruzko oharra egin. Proposaturiko izenoi oharra egiteko epa
maiatzaren 15era artekoa dela gogorarazi du.

2.3. Onomastika: «Frantziako Errepublikako eskualde izen batzuk egunera-tzea» aurkeztea. J. L. Lizundiak, Euskaltzaindiak lehenago Frantziako Errepublikako
eskualde izenekin argitaraturiko zerrendan gertatu diren aldaketak eta aukuritako lapis-s
batzuk zuzentzeko testua aurkeztu eta aldaketa nagusiak azaldu ditu.

Bretainiako eta Kataluniako herri-izenak direla eta, P. Xarritonek, Tx. Peillenek
eta J. L. Lizundiak gogoeta batzuk egin dituzte.

Bretoi eta katalan izen horiek Frantzian ofizialak ez diren neurrian, frantses formen
ondoan, ohar gisa agertuko dira. Oharrak maiatzaren 15erako bidali beharko dira.

3. Patxi Altunaren hutsarterako hautagaia bozkatzea. Botazioa eginda, 21
boto eman dira, guziak Mikel Zalbide hautagai bakarraren alde. Beraz, berau hautatua
gertatu da. Idazkariordeari, kandidatu hautatuari botazioaren emaitzen berri emateko
agindu zaio, une horretan Bruselan, bilkura batean aurkitzen baita.

4. Barne erregelen 7. eta 10. artikuluen aldaketa onartzea. P. Goenagak bere ohar-aldaketak irakurri eta azaldu ditu. J. L. Lizundiak eskerrak eman dizkio egindako oharrengatik, horiek testuan jarriko direla adieraziz. H. Knörrek testuan *instituzio* hitzaren ordez *erakunde* jartzea eskatu du. P. Salaberrik eta P. Salaburuk beste ohar batzuk egin dituzte koherentzia eta egokitasunaren alde. Horien oharrak ere ontzat eman dira. Erabaki denez, proposatzialeak eta idazkariak prestatuko dute azken testua, euskaltzainen artean hurrengo bilkuran banatzeko.

5.1. Hiztegi Batua: D letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta era-bakitzea. P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean D letrako zerrendari eginiko oharrak aztertu eta erabaki dira. Hasteko, *detergente* hitza, aurreko bilkuran hobeki aztertzeko utzia, onartu egin da *iz.* eta *izond.* gehigarriarekin. Ondoren, *detxema-tik dia-na-rainoko* hitzak ikusi, eztabaидatu eta onartu dira.

6. Eskuartekoak

6.1. Euskal Herritar Unibertsala izendatzeko proposamena. Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak eta Euskadiko Kutxak aurten 10. edizioan plazaratu duten sari honen deialdia iragarri du Euskaltzainburuak. Proposamenak maiatzaren 4erako idatziz egin beharko direla gogorarazi du.

6.2. Eusko Ikaskuntzako Humanitate saria. Zuzendaritzak sari honetarako J. A. Arana Martija proposatzea erabaki duela jakinarazi du A. Urrutiak.

6.3. Plazaberry agerkari digitala. Hemendik aurrera Euskaltzaindiaren egoitzatik era informatikoan argitaratu eta banatuko den agerkari berriemaile honen berri eman du Euskaltzainburuak.

6.4. P. Xarrittoni zorionak. Euskaltzainburuak P. Xarritton euskaltzainari zorio-nak eman dizkio Sarako liburu azokan aurten eman zaion sariagatik; ondoren, euskaltzain guztien txaloak jaso ditu. Eske onez, P. Xarrittonek liburu baten eskaintza egin die San Frantses-en bizitzari buruzko dokumentazioaz.

6.5. Mikel Zalbide, bere izendapenaren jakitun. Idazkariordeak Belgikara deiturik, Mikel Zalbideri bere izendapenaren berri eman diola jakinarazi da, bai eta izendatuak euskaltzainei eskerrak eman dizkiela ere.

Ordu biak hamar gutxiagotan bantzuketako etena egin da.

Arratsaldeko 16.30etan goizeko bilkurari segitu zaio, Hiztegi Batuaren zerrendari berriro ekinez: *dianagusi-an* hasi eta *diferitu-raino* heldu da.

7. Azken ordukoak, ahoz esanak

7.1. Euskaltzain urgazleak izendatzeko proposamenak. Euskaltzainburuak, urgazle izendatzeko aurkezu diren pertsonen izenak irakurri ditu (ikus eranskina), horien zerrenda idatzia euskaltzainei helaraziko zaiela gaineratuz. Proposaturikoen curriculumak, bestalde, ordezkaritzetan jarriko dira, aztergai, baina horiek bereiziki arakatu nahi lituzkeenari, hala eskatuz gero, bereziki bidaliko zaizkio. Kandidatuen hautaketa maiatzean, Elantxoben izateko den osoko bilkuran eginen da.

Batzarra arratsaldeko 18.15ean amaitu da, ondoren Plazido Muxika hiztegigilearen mendeurrenena ospatzeko batzar irekiari hasiera emateko.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

Elantxoben, 2006ko maiatzaren 26an.

Maiatzaren 26an, Elantxoben izan da Euskaltzaindia. Goizean, osoko bilkura egin du Akademiak Udaletxearen, eta arratsaldean, Elantxobeko Udalarekin batera, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Bizkaiko herri horretan, hiru idazle elantxobetarren omenez: Andima Ibinagabeitia, Imanol Berriatua eta Gorgonio Renteria. Hiruren omenez, San Nikolas elizaren eta pilotalekuaren arteko horman, plaka bat jarri dute bi era-kundeek ageriko bilkura hasi aurretik. Honela dio plakak: «*Euskaltzaindiak eta Elantxobeko Udalak Andima Ibinagabeitia (1906-1967), Imanol Berriatua (1914-1981) eta Gorgonio Renteria (1868-1940) euskal idazle elantxobetarrei. Elantxobe, 2005-V-26*».

Bildu dira: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Bernardo Atxaga, Pierre Charriton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Henrike Knörr, Emile Larre, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ana Toledo eta Mikel Zalbide euskaltzain osoak. Jose Antonio Aduriz, Jon Aurre, Gorka Aulestia, Ricardo Badiola, Luis Baraiazarra, Xabier Erdozia, Igone Etxebarria, Sebastian García Trujillo, Juan Luis Goikoetxea, Jabier Kaltzakorta, Pello Telleria, Patxi Uriarren, eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak eta, Amaia Okariz, Euskaltzaindiko Prentsa arduraduna eta Jon Artza Argitalpen banaketa arduraduna.

Bilkura San Nikolas elizan izan da eta Amaia Eiguren alkateak eman dio hasiera ekitaldiari. Alkate andreak esker oneko hitzak esan ditu, Euskaltzaindia Elantxobera etorri delako.

Andres Urrutia euskaltzainburuak Alkate andreatsi eskerrak eman dizkio Euskaltzaindiari egin dion harregatik eta emandako laguntzagatik. Ondoren, omentzen diren hiru idazle elantxobetarrez gain, Ruiz de Azúa'tar Andoni, *Ogoñope* (1904-1974) aiapatu du, hori ere elantxobetarra. Azkenik, Andima Ibinagabeitiaren iloba den Miren Lore Mentxakaren gutun laburra irakurri du, hark Caracasetik bidalia, une honetan irakurtzeko.

Txomin Peillen: *Andima adiskidea*

Andima Ibinagabeitia adiskidea Parisen ezagutu zuen Txomin Peillenek. Harekin izan zuen harremanaz jardun du gaurko hitzaldian: zer nolako pertsona zen Andima, zer garrantzia izan zuen Txomin Peillenen beraren eta Jon Miranderen euskaltzaleta-

sunean, zelan Andima beti gauza izan zen bere adiskideen etxeekoekin «harreman goxoak» mantentzeko.

Euskaraz hitz egiteko, baita idazteko ere esan zion Andimak Txomin Peilleni: «Euskararen maitasuna, han eta orduan, erakutsi zidan». Peillenek Andimaren bitartez ezagutu zuen Jon Mirande. Izpirituz zabalekoa zen Andima, Peillenen esanetan: «Hark zioen literaturan denetarik behar dela. Euskal literaturari bere sakristau usaina kendu behar zitzaiola». Horrela, Txomin Peillenen eta Jon Miranderen laguna ez ezik, «bere ideiako ez ziren» beste idazle batzuen laguna ere izan zen: Koldo Mitxelena, Aingeru Irigaray eta Jon Etxaide.

Guatemalatik bidalitako gutun batean, Euskal Herrira etortzeko gogoa azaldu ba-zuen ere, ez zen inoiz itzuli. «Andima Ibinagabeitiaren gorputza –esan du Peillenek– Caracases geratu zen, baina garrantzitsuena, haren arimaren oihartzunak, euskal letertan entzunen ditugu... euskara bizi deino».

Bernardo Atxaga (Joseba Irazu): *Andimaren itzulpen bat eskuan*

Bernardo Atxagak Ibiñagabeitiaren itzultziale lana izan du hizpide bere berbal-dian: Andimaren liburu bat eskuan, Virgilioren idazlanen euskarako bertsioa, Hark bizi zuen garaian kokatuta, euskarak behar besteko mailarik ez zuela ziotenei –Unamuno buru zela– aurre egitea egokitu zitzaison belaunaldia gogora ekarri du, –tartean *Orixé*, Zaitegi edota Elantxobeko idazlea bera– eta orduan betetako eginkizunaren ga-rantziaz ohartarazi du Atxagak: «ezin liteke euskal hizkuntzaren edota euskal kultura-ren aurrerabiderik gauzatu itzul-lanaren neke eta izerdi garratzik gabe».

Bernardo Atxagak adierazi bezala, «idazle eta intelektual euskaldunek obra klasikoak itzultzeari ekin zioten; itzulpen laginak aurrena, gerra-atari hartan, Homeroren edo Cervantesen pasarte batzuenak, kasu; itzulpen osoak gero, gerra bukatu eta handik hogezi bat urtera». Virgilioren lana da horren adibide garbia, Ibiñagabeitiak egindako itzulpen bikaina, «gozo, idazkeraren kudentziagatik», zoritzarrez, beste hainbatek bezala, gerora merezi duen oihartzunik izan ez duena. Bada, beraz, berreskuratzeko ha-rribitxirik oraindik.

Xabier Kintana: *Imanol Berriatua: euskal etorkizunaren ereile*

Imanol Berriatua «beti ikasten zebilen, beti lanean, nekatu gabe». Xabier Kintana euskaltzainak labur eta artez hitz egin du Elantxoben jaio eta Israelen hil zen gizonaz.

Xabier Kintanaren esanetan, Imanol Berriatua bi zaletasun nagusi izan zituen, gazte-gaztetandik: euskara eta munduko beste hizkuntzak, latina, grekoa, hebreera, frantsesa, ingelesa eta alemana hizkuntzak ere baitzekizkien.

Krutowig, Erkiaga, Gorostiaga, Otxolua, Akesolo eta beste euskaltzale batzuekin biltzen zen, eta azken aldia Gabriel Arestirekin ere bai, gure hizkuntzaren egoeraz eta etorkizuneko irtenbideaz berba egiteko. Euskaltzain urgazle izendatua izan zen 1961eko abuztuaren 25ean.

Euskararen aldeko ekinaldi nagusiak *Anaitasuna* aldizkariaren inguruan egin zituen, bertako zuzentzailea izanez. Imanol Berriatuak argi ikusten zuen, euskarak, bizi-tzeko, munduko gainerako kultur hizkuntza guztien antzera, batasuna eta estandarizazioa behar zituela, eskolan, hedabideetan eta etorkizuneko euskal administrazioan euskaldun guztiok eredu bat izan genezan. Alfabetatzea eta euskalduntzea, biak ziren oso garrantzizkoak Imanol Berriatuaren iritziz.

1976an, Israelen izan ziren Imanol Berriatua eta Xabier Kintana, judeuk etorkinei hebreera irakasten egindako aurrerakada handiaren berri zuzena izateko. «Egotaldi horretatik –azpimarratu du Kintanak– ondorio oso onak lortu ziren gure herriarentzat» (artean Euskaltzaindiaren *Hitz egin* metodoa sortu zuen). Are gehiago: benetan esan daiteke «Imanol Berriatuari zor zaizkiola, neurri handiz, gaurko pertsona nagusien euskal irakaskuntzaren oinarriak».

Igone Etxebarria: *Gorgonio Renteria idazole*

Igone Etxebarria euskaltzain urgazleak Gorgonio Renteriaz jardun du, liburu bat oinarri hartuta. Jule Renteria –Gorgonioren alabak– han-hor-hemen arakatu eta lan handia egin du aitarten idatzi gehien-gehierek batzen. Lan horiek guztiak *Izartu euskaldunak! elantxobetar baten olerkiak eta artikuluak* izeneko liburuaren argitaratu dituzte LABayruk eta BBK Fundazioak, *Sutondoak* bilduman. Liburuaren paratzailea Igone Etxebarria bera izan da.

Etxebarriaren esanetan, «Gorgonioren idatzietan mezua argi eta artez adierazita dago, genioa ageri dau. Gidari, maisu, aintzindari irudia indartsu erakusten dau, umorez be bai batzuetan, ironia eta hasarrea baztertu barik».

Aldizkari askotan idazteaz gain, bertso eta prosazko lan ugari idatzi zituen Gorgoniok. Bertsoak sorkuntzazkoak dira, lirikotasun eta sentimendu adierazpen handie-nekoak eta prosazkoak, aldziz, sorkuntza edo fikzioa baino gehiago artikuluak dira, mezu ideologikoa zabaltzekoak, gehienetan euskara erabiltzearen alde eta euskaltasuna harrotasunez bizitzearen aldeko mezuak zabalduz. Hizlariak esan bezala, «Elantxobetarra izatea agiri-agirian dago testu guztieta, eta kostaldekoa ezeze itsasgizonera izanda, itsasoak leku handia hartzen dau normala danez. Herria eta euskaltasuna bizi-bizirik dagoz bere idatzietan, jeltzaleen ideologiari jagokon moduan kristautasunari lotuta, Be-goñako Ama Birjinarenaganako debozinoaren bitartez kasurako».

Andres Urrutia,
eusklatzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Elantxoben, 2006ko maiatzaren 26an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Irazu,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Piarres Xarritton
eta Mikel Zalbide euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkiordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

ohar bat egin du, *h* behar ote duen galdetuz. H. Knörrek, J. L. Lizundiak eta X. Kintanak erantzun diote, Iparraldeko eta Hegoaldeko toponimoen transkripzioa argitzeko.

Barrundia-ren azken –a horren inguruan eztabaidea izan da, P. Xarritton, P. Goenaga, A. Arejita eta J. L. Lizundiaren partaidetasunaz; horretan lehengo eta oraingo lekukotasunak aipatu dira.

Zerrenda ontzat eman da.

3.2. Exonomastika: «36. araua berrikustea. Frantziako Errepublikako eskualde izen batzuk eguneratztea» onartzea. B. Oihartzabalen ustez, *Pays de Loire* eta *Ardenne* formak dira ofizialak eta proposamena ongi begiratzeko eskatu du. Berrikusi eta gero ponentziaren izenak ongi daudela egiaztatu da. Hortaz, zerrenda ontzat eman da.

3.3. Onomastika: «Arabako herri izendegia: 3. zerrenda» aurkeztea.

M. Gorrotxategik aurkeztu du, honi buruzko oharrak ekainaren 16rako bidali behar direla gogoratuz. P. Goenagak jentilizioak *-tar*, *-ar* atzizkiekin moldatzeko irizpi-

Ezin etorriak eta ahalak: Patxi Zubale-tak, ahala A. Iñigori; goiz alde egin behar duela eta, A. Arejita ahala X. Kintanari utzi dio; gauza bera egin du A. Iñigok, ahala P. Salaberri emanez.

Batzarra goizeko 9.15ean hasi da Elantxobeko Udaletxeko batzar aretoan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Hasierako oharrak

Euskaltzainburuak, eguneko programa laburki azaldu ondoren, ongi etorria eman die Joseba Irazu «B. Atxaga» eta Mikel Zalbide euskaltzain izendatu berriei.

2. Aurreko akta onartzea. Aurreko bil-kuraren akta ontzat eman da.

3. Hizkuntza gaiak

3.1. Onomastika «Arabako herri-izendegia: 2. zerrenda» onartzea. A. Iñigok ez dela ohar idatzirik heldu adierazi du. P. Xarrittonek *Azparren* hitzari buruzko

dea argi jartzeko eskatu du, izen berriekin nola joka jakiteko. X. Kintanak eta J. L. Lizundiak erantzun diote. J. Haritschelharrek esan du zaila dela irizpide bakarra erabiltea; euskaraz *baigorriar / arnegitar* eta erdaraz *valenciano / palentino* adibideak jarrí ditu. Dena den, irizpideak idatzirik ekartzea erabaki da.

Alkate andrearen ongietorria

Bilkuraren erdialdean, Elantxobeko alkate den Amaia Eiguren andreak Euskaltzainei bere herrirako ongietorria egin die, hamaiketako bat eskainiz. Euskaltzainburuak, kide guztien izenean eskerrak eman dizkio, hain seme euskaltzale handiak izandako herri politean Euskaltzaindiarentzat bilkura egitea ohore eta pozgarria dela esanez.

3.4. Hiztegi Batua: «D letrako zerrendari egindako oharak aztertu eta erabakitza.

P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *diferitu-tik diozesi-rainoko* hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

4. Euskaltzain urgazleak izendatzea

P. Xarrittonek Iparraldeko kandidatu gai izateko ziren batzuen ezetzaren arrazoia eman ditu. Ondoren, botazioa eginda, aurkeztu diren kandidatu guztiak ontzat eman dira. Horien zerrenda aktaren eranskin gisa jarriko da.

5. Euskalerria irratiaaren arazoa

A. Iñigok Nafarroan euskal irratiei buruzko auzia zertan den azaldu du eta, ondoren, Zuzendaritzak prestaturiko adierazpen moduko testua banatu da eztabaidarako. J. Irazuk azken paragrafoa kentzea iradoki du, testua ahultzen duelako. P. Goenagak gauza bera eskatu du. M. Zalbidek beste ohar bat egin du «komunikazio tresna bihurdadin» pasartea aldatzeko. Euskal eta erdal testuei beste zuzenketa batzuk egin ondoren, Euskal irratien aldeko adierazpen instituzional orokorra onartu da.

6. Eskuartekoak

6.1. OEHren azken gorabeherak. Euskaltzainburuak, ekonomia eta kudeaketa arazo zehatz batzuetan J. L. Lizundia diruzainaren eta J. J. Zearreta kudeatzailearen laguntzaz, Orotariko Euskal Hiztegiko langileekin izandako lan-arazoak azaldu ditu, eskatzen zituzten kalte-ordinak zirela medio. Gaia nola eta zertan amaitu den argitu ondoren, oraingoan izandako eskarmenduaren argitan, ibilian ari diren gainerako projektuen egoerari buruzko galderak, gogoetak eta azalpenak eman dira.

6.2. Euskal Herritar Unibertsala saria. Zuzendaritzak, jaso diren proposamenak kontuan izanik, sari honetarako Jose Maria Setien Alberro jauna aurkeztu du.

6.3. J. Haritschelharren omenaldi-liburuaz. Euskaltzainburu ohiaren omenezko libururako 28 eskabide edo proposamen jaso direla jakinarazi du A. Urrutiaik.

6.4. Hilberri-txostenak. J. M. Lekuona eta P. Altunaren hilondoko biografiak ekainaren 29an, osteguna, Donostian, EUTGn, iluntzeko 7etan irakurriko direla jakinarazi da.

6.5. 2005eko Oroitidazkia. Euskaltzain guztiei batzar-karpetan 2005eko *Oroiti-dazkiaren* euskarazko testuaren ale bana zaiela adierazi da.

7. Ahoz esandakoak

7.1. Ekaineko bileraz. Zaldibian eginen da ekainaren 30ean, goizean, osoko batzarra, eta arratsaldean Lardizabalen omenezko ageriko bilkura.

7.2. Banaturiko liburuak. Jon Artza Argitalpen banaketaren arduradunak eta Rikardo Badiola argitalpen eragileak euskaltzainei ondoko liburuak eman dizkiete:

- Mendaur I: *Satrustegi, ereile eta lekuko*, Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmenaren ondorioz sorturiko bildumaren lehen liburukia, A. Iñigo euskaltzainak paratua.
- Mendaur II: *Baztango mintzoa*, Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmenaren ondorioz sorturiko bildumaren bigarren liburukia, P. Salaburuk eta Mai-te Lakar laguntzaileak paratua.
- Eusko Jaurlaritzaren *Bidegileak* bilduma: *Jean Pierre Arbelbide*, Xipri Arbelbidek paratua.
- Eusko Jaurlaritzaren *Bidegileak* bilduma: *Frantzisko Laphitz*, Oscar, Alvarez Gil-lak paratua.
- Mikel Zarateri iaz egindako omenaldia (DVD + CD) Lezamako Udalaren opari.
- *Neure amatxo maitia* (euskarazko gutunak) Balendin Berri-Otxoa. Paratzalea: Roman Berriozabal eta Adolfo Arejita.

Azken liburu hau dela eta, J. A. Arana Martijaren eskariz, Valentín Berriotxoaren himnoak, Azkuek eta Erkiagak eginak, argitaratzea onartu da.

Bilera eguerdiko 14,50ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Euskaltzain urgazle izendatuak*Elantxobe, 2006-V-26*

	Hautatuak
1	Alberdi Aretxederreta, Dorleta
2	Aleman Astiz, Sagrario
3	Apalategi Idirin, Ur
4	Aranbarri Alberdi, Iñigo
5	Aranberri Mendizabal, Luis Alberto «Amatiño»
6	Artola Zubillaga, Xabier
7	Bijueska Basterretxea, Josu Koldobika
8	Bujanda Oñederra, Mikel
9	Coyos, Jean-Baptiste
10	Dufau, Agnès
11	Egaña Makatzaga, Andoni
12	Epalza Ruiz de Alda, Aingeru
13	Erdozia Mauleon, Jose Luis
14	Etxebarria Bilbao, Jose Ramon
15	Galé García, Patxi
16	Gartzia Isasti, Prudentzio
17	Gómez López, Ricardo
18	Gorrotxategi Txurruka, Joakin
19	Ibisate Lozares, Angel
20	Iturbe Barrenetxea, Jacinto
21	Iturralte Uria, Jose Mari
22	Jorajuria, Pello
23	Juaristi Galdos, Felipe
24	Kasares Corrales, Paula
25	Kruzeta Olañeta, Odile
26	Laka Mugarza, Itziar
27	Meabe Plaza, Miren Agur
28	Mintegi Lakarra, Laura
29	Mujika Etxeberria, Alfontso
30	Oregi Goñi, Eneko
31	Pérez Gaztelu, Elixabete
32	Sarraillet, Jakes
33	Soulé, Bernadette
34	Zabaleta Kortaberria, Josu
35	Zubiri Lujambio, Juan Jose

AGERIKO BILKURA

Donostian, 2006ko ekainaren 29an.

Euskaltzaindiak Donostian egin du ageriko bilkura, Deustuko Unibertsitateko Donostiako Campusean, euskaltzain oso biren hilberri-txostenak irakurtzeko: Juan Mari Lekuona eta Patxi Altunarenak.

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Bernardo Atxaga, Pierre Charritton, Patxi Goenaga, Ana Toledo eta Mikel Zalbide euskaltzain osoak.
- Jose Antonio Aduriz, Ur Apalategi, Aurelia Arkotxa, Xabier Artola, Mikel Atxaga, Gorka Aulestia, Pello Esnal, Izaskun Etxebeste, Jose Mari Iriondo, Maria Pilar Lasarte, Lourdes Otaegi, Koro Segurola, Pello Telleria eta Juan Jose Zerarreta euskaltzain urgazleak eta, Amaia Okariz, Euskaltzaindiko Prentsa arduraduna eta Maixa Goikoetxea Gipuzkoako ordezkaritzako bulego-arduraduna.

Deustuko Unibertsitateko Donostiako Campuseko errektoreordeak, José María Guibertek, ongietorría eman die Deustuko Unibertsitateko irakasleak izan ziren Patxi Altuna eta Juan Mari Lekuonaren hilberri-txostenak entzutera etorri direnei.

Andres Urrutia euskaltzainburuak Lekuona eta Altuna euskaltzainen ekarrria goraiatu du. Hamaikatxo batzar, bilkura, jardunaldi eta ekitalditan, eztabaidean nahiz barealdietan Euskaltzaindiari euren onenak eman dizkio. Gero, haien ikasle izan ziren eta orain haien hilberri-txostenak irakurriko dituztenak aurkeztu ditu, Ana Toledo eta Miren Azkarate euskaltzainak.

Juan Mari Lekuona: ...eta hitza lanabes bihurtu zuen

Ana Toledok, izenburu hori duen txosten irakurri du, Juan Mari Lekuonaren biltzitzera eta lanaren berri emanez. Haren bizitzako ardatz nagusi bezala hauek aurkeztu ditu: kristau fedea, euskaltzaletasuna eta literatur zaletasuna. Berebiziko garrantzia aitortu dio etxeko giroari, kanturako zaletasuna eta literaturarako sentiberatasuna. Hiru ardatz horiek hasiera-hasieratik ageri ziren, indar osoz eta apaiztu zenerako, 1953. urtean, poeta zen Juan Mari Lekuona. 1950 eta 1951 urteetan irabazi zituen «San Tomás» olerki sariak eta hori garrantzi handiko gauza izan zen Juan Mari poetarentzat. «Izan ere –esan du Ana Toledok– hurrengo berrogei urtetan poesia izango du bide la-

gun». *Muga beroak* (1973), *Ilargiaren eskolan* (1979) eta *Mimodramak eta ikonoak* (1990) poema liburuak horren lekuko dira.

Sormen-ahalmena poesiaren gainean jarri bazuen, ikerlerro nagusi herri-literatura hartu zuen, Ana Toledok esan duenaren arabera. *Ahozko euskal literatura* edota *Ikas-kuntzak Euskal Literaturaz* (1974–1996) liburuak, 1973an eta 1998an argitara eman-dakoak, hurrenez hurren, belaunaldi askoren eskuliburuak izan dira.

Euskaltzaindiaren baitan egindako lanaz gain, Toledok Lekuonaren lanaren beste zenbait alde ere nabarmendu ditu bere berbaldian, bestek bestea irakaskuntzari zuzendutako ahalegina –gramatika eta erlijioa apaiztegietan eta euskal literatura Deustuko Unibertsitatean–, kantuen bilketa, moldaketa eta azterketa; eta itzulpenak eta moldaketak.

Patxi Altuna: jesuita, euskaltzalea, irakaslea eta euskaltzaina

Miren Azkaratek Patxi Altuna zenaren bizitzaren hainbat pasarte ekarri ditu gorora, irakurri duen txostenean zehar.

Hasteko, Patxi Altunaren ikasle garaiak aipatu ditu, Xabierren ikasi zuenekoak, baita Loiolan nobiziatura edota Perficit eta Filosofia ikasketak burutu zituenekoak ere: Giro hartan euskaraz hitz egitea guztiz debekatua izan arren, agian horrek berak area-gotu zion Loiolan erne zitzaion grina. Bere denbora librean, gelan sartu eta Mendiburu, Lizarraga, Axular, Orix... irakurtzen jarduten zuen.

Hasierako urte haietan, euskararekiko gogoa handitzen zitzaion pixkanaka-pixkanaka; eta halaxe gertatu zen bere ibilbide akademiko osoan zehar, eta filologia ikasketek euskara aztertzeko lanabes berriak ipini zizkioten eskura, euskararekin gero eta zaletuago bihurtuz. 1963. urtean, Donostiara heldu zen.

Sermoigile bikaina zen Altuna. Sermoitako gaiak, baina, «halakoak» izaten ziren, Euskal Herriak Francoren pean bizi zuen egoera salatzen zutenak, Euskal Herriaren izaera, eskubideak, askatasuna... aldarrikatzen zutenak. Patxi Altuna Carabanche-leko kartzelan sartu zuten, 1974an.

Ezaguna da Altunak, irakasle bezala, bete zuen lana. Ezaguna da ere, euskaltzain gisa egin duena. Hain zuzen ere, euskaltzain izendatu zuteneko haren hitzak gogora eka-rrti ditu Azkaratek: «*Badakit ondotxo izendapen hau ez dela ordain eta sari; ondotxo da-kit ez dituzuela nik gaurdaino euskararen alde irabazitako nola-halako merezimendua-ak sariztatu nahi izan; aitzitik, orain arte, alferkeriaz edo, egin nezakeen baino gutxiago egin dudala ikusirik, lan gehiago egitera deitu eta akiulatu nahi izan nauzuela. (...) Nik neure aldetik hitz ematen eta zin egiten dizuet Jainkoak osasun eta indar eman nahiko didaino, eginahalean saiatuko naizela zuekin batean egiteko hori burutan ateratzen».*

Azkaratek, azkenik, Altunak egindako lanaren lekukotasuna aitortu du, Euskaltzaindiako lanetan ez ezik irakaskuntzan, ikerkuntzan, euskara sustatzen eten gabe jar-dunez, klasikoen lanak argitaratz, belaunaldi berriak heziz egin zuena, eta inola ere haizeak eramango ez duena.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Zaldibian, 2006ko ekainaren 30ean

Andres Urrutia euskaltzainburua (arratsaldean),
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagor sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita (goizez),
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga (goizez),
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Piarres Xarritton
eta Mikel Zalbide euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

dia, Moreda eta Villabuena herri-izenei buruz eta, proposamenarekin batera, zenbait herri-izenen argitasun-txostenak ere erantsi direla azaldu du. J. L. Lizundiak, Arabako Errioxako herri batzuek herri-izena berreskuratzeko egindako gestioen berri eman du. Oharrak uztailaren 10erako bidali behar direla gogorarazi da.

2.3. Exonomastika: «*Montenegro-ren euskal izena» aurkeztea.* J. L. Lizundiak italerazko jatorria duen izen itzuli honen bilakaera eta Europako hizkuntzetan dituen aldaerak erakutsi eta euskararako proposatzen den formaren zergatia azaldu du. Honeitan ere oharrak uztailaren 10erako bidali behar direla esan da.

2.4. Hiztegi Batua: D letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta era-bakitzea. P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *diplomatiko-tik distractitu-rai-noko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.*

14:00etan etena egin da bazkaltzera joateko. Arratsaldean, 16:15ean goizeko bil-kurari segida eman zaio, eta Hiztegi Batuan *distritu-tik doktorego-tesi-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.*

Ezin etorriak eta ahalak: M. Azkaratek, ahala P. Goenagari; J. Irazuk, ahala X. Kintanari; H. Knörrek, ahala A. Iñigori; Andres Urrutiak, ahala X. Kintanari; Panti Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Zaldibiako Kultura Etxean, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Aurreko bil-kuraren akta, oharrik gabe, ontzat eman da.

2. Hizkuntza gaiak

2.1. Onomastika «Arabako herri-izendegia: 3. zerrenda» onartzea. A. Iñigok, ez dela ohar idatzirik heldu adierazi du. Zerrenda onarturik gelditu da.

2.2. Onomastika «Arabako herri-izendegia: 4. zerrenda» aurkeztea. M. Gorrotxategik ohar batzuk egin ditu *Guar-*

3. Esku artekoak

3.1. Barne-erregelak. Barne-erregelen 7. eta 10. atalen testu onartua, J. L. Lizundiak eta P. Goenagak adostasunez egokiturikoa, batzar karpetan sarturik banatu da.

3.2. Dieten atxikipenak. Bizkaiko Foru Diputazioaren aginduekin bat, hemen-dik aurrera euskaltzainei dietengatik helaraziko zaizkien ordainketetan egin beharreko atxikipenak direla eta, A. Urrutiak eta J. J. Zearretak horren azalpen zehatza eman dute.

3.3. Urgazleei diplomak banatzea. Uztailaren 13an, osteguna, 17:00etan, Euskaltzaindiaren egoitzan urgazleei diplomak emanen zaizkiela jakinarazi du Euskaltzainburuak, eta hor segitu beharreko prozedura azaldu ere bai. Ageriko bilkura berezia denez, euskaltzain oso guztiak gonbidaturik daude.

3.4. Uztailoko bileraz. Uztailaren 20an, osteguna, Osoko Batzarra, Antzuolan, arratsaldean izanen dela gogorarazi da, biharamun goizean A. Toledoren sarrera-ekitaldia izango delako.

3.5. Ana Toledoren sarrera-hitzaldia. Uztailaren 21ean, ostirala, goizean Antzuolako herrian Ana Toledoren sarrera-hitzaldia izango dela gogorarazi da.

3.6. Nafarroako Gobernuarekiko protokoloa. Nafarroako Gobernuarekin 2006ko Protokoloa ekainaren 20an sinatu dela jakinarazi da.

4. Azken ordukoak

4.1. Arautegiaren aldaketa onartua. Madrileko Gobernuak onarturiko Arautegiaren berri eman du A. Urrutia euskaltzainburuak. Halere, oraindik ez da BOEn argitaratu eta, beraz, hor agertu arte, ez dela indarrean egonen azaldu du.

4.2. Banaturiko liburuak. Bi liburuxka hauek eman zaizkie euskaltzainei: *Aita Damaso Intzakoa* (Bidegileak bilduman, R. M. Pagolak egina) eta *Euskaltzaindiaren aurkitegia*.

Bilera arratsaldeko 18:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

Zaldibian, 2006ko ekainaren 30ean.

Ekainaren 30ean, arratsaldeko 6:30etan, Zaldibiako Udalarekin batera, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du herriko Antzokian, Frantzisko Ignazio Lardizabalen omenez.

Bilkura hasi baino lehen, Lardizabalen jaiotetxean, Zubiaurre-n, harrizko plaka bat jarri da agerian. Honela dio plakak: *Frantzisko Ignazio Lardizabalen jaiotzaren (1806-1855) bigarren mendeurrenean. Zaldibia, 2006-VI-30.*

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintaña, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Bernardo Atxaga, Pierre Charriton, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Ana Toledo eta Mikel Zalbide euskaltzain osoak.
- Jose Antonio Aduriz, Mikel Atxaga, Salvador Garmendia, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak eta, Amaia Okariz Euskaltzaindiko Prentsa arduraduna.

Patxi Aierbe Zaldibiako alkateak ongietorria eman dio Euskaltzaindiari eta berratatu diren herritarrei, eta F. Lardizabalen lana gogora ekarri du. Ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio Alkateari Euskaltzaindiari egin zaion harrera eta emandako laguntzagatik, eta hizlari biei hitza eman die: Mikel Zalbide eta Beñat Oihartzabali.

Mikel Zalbide: *Lardizabalen lanak bere garaiko euskalgintzaren barnean*

Gramatikaren edukia, eta bere azterketa tekniko-linguistikoa alde batera utziaz, egilearen, obraren eta gizarte-giroaren zertzeladak adierazi ditu Mikel Zalbidek prestatu duen txostenak.

Egilearen biografia moduko egiteaz gainera, honako hiru puntuotan zentratu da Mikel Zalbide:

- Zergatik, zertarako eta norentzat egin zen Gramática Vascongada hori.
- Liburuaren prestaerak izandako ezaugarriak: sorkuntza, onespen-azterketa, argitalpena eta ordainketa.
- Lanaren kokapena. XIX. mendearen erdialdeko Gipuzkoan: euskara-erdaren gorabeherak; Lardizabalen lana eta orduko euskalgintza, perspektiba soziokulturalean.

Beñat Oihartzabal: *Lardizabalen gramatikaren iturri, ezaugarri eta helburuak*

Beñat Oihartzabalen hitzaldian Lardizabalen gramatikaren (1856) iturriak eta helburuak bereziki aipatu dira. Iturriak ezagunak dira, alde batetik, Larramendiren *El imposible vencido* (1729), ehungo lehenago egina, eta Zavalaren *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino* (1848), zortzi urte lehenago argitara emana. Astarloaren gramatika lan garrantzizkoena, eta Añibarrorena, orduan ez oraino argitaratuak, ez zituen ezagutzen Lardizabalek, ez eta frantseset aitzinagoko hamarkadetan plazaratu ziren Lécluse (1826), Darrigol (1827) eta Abbadie & Chahorenak (1836) ere. Horregatik, Oihartzalaren ustez, garaiko irizpideen arabera konsideraturik ere, orduko euskalaritza orokorra baino zerbait gibelago agertzen zaigu gramatika hori, deklinabideari dagozkion atalean ezin argikiago ageri den bezala.

Aldundiak galdeginik idatzi zuen gramatika, Gipuzkoako eskoletan banatua izan zedin. Baino, Lardizabalen gramatika ez da Gipuzkoan XIX. mendearren erdialde hartan, egoera diglosiko klasikoari jarraikirik baliatzen ziren Astigarragaren (1825) eta Iturrigaren (1841) ikasliburuen parekoa, edo Iparraldean Hiriartek (1840) eta Archuk (1852) egin zituztenen antzekoa. Oihartzabalen esanetan, Aldundiko idazkaria esan zuenez, euskara desagerteko puntuari izanik, monumentu gisa egin nahi izan omen zen gramatika, itzali ondoan ere, galdu hizkuntzaren oroitzapena atxiki zezaten gipuzkoarrek. Oihartzabalen iritziz, lehen aldiz agertzen da modu horretan adierazia euskararen heriotzaren gaia.

Andres Urrutia,
euskaritzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

FRANTZIAKO ERREPUBLIKAKO ESKUALDE-, DEPARTAMENDU- ETA HIRIBURU-IZENAK¹

Arau zuzendua eta eguneratua

ATARIKOA

Hamaika urte joan dira Euskaltzaindiak exonomastika alorreko lehenengo Arauak eman zituenetik (32. Araua, Espainiako Erresumako probintzia eta elkarteko autonomoen izenak, 1995eko apirilaren 28koan; eta 36. Araua, 1995eko ekainaren 30ekoan, Frantziako Errepublikako eskualdeen izenak). Hori dela eta, Akademiak egoki ikusi du Arauak berraztertea. 1995eko ekainaren 30ean onartutako 36. Araua, Frantziako Errepublikako eskualdeen izenak, aztertu da oraingo honetan.

Arau hauek eman zirennetik, aldaketak izan dira izen ofizialetan (adibidez, *Châlons-en-Champagne* izena hartu zuen 1998an ordura arte *Châlons-sur-Marne* ibai-izena zuen hiriak). Era berean, toponimoeitan ageri diren izen eta zeinu grafikoez emandako arau berriek idatzeta-aldaketa txikiak ekarri dituzte. Huts batzuk ere baziren, oraingo honetan zuzendu direnak, eta, azkenik, zerrendak aurkezteko era ere aldatu da, erabilgarriagoa izan dadin.

* * *

Frantziako Errepublikaren administrazio-banaketa lau atalez osatua dago:

1. Eskualdeak (frantsesez, *régions*).
2. Itsasoz haraindiko departamenduak (frantsesez, *départements d'outre-mer, DOM*) edo itsasoz haraindiko eskualdeak (frantsesez, *régions d'outre-mer, ROM*). Departamendu bakar batez osatutako eskualdeak dira.
3. Itsasoz haraindiko kolektitateak (frantsesez, *collectivités d'outre-mer, COM*).
4. Departamenduak (frantsesez, *départements*). Eskualdeak departamenduz osatuak daude.

1. ESKUALDEAK

1.1. Frantziako eskualdeak izen ofizialaren hurrenkeran

Eskualdearen izen ofiziala	Eskualdearen euskal izena	Eskualdea osatzen duten departamenduen izen ofiziala	Eskualdea osatzen duten departamenduen euskal izena
Alsace ²	Alsazia	Bas-Rhin Haut-Rhin	Bas-Rhin Haut-Rhin

¹ Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995eko ekainaren 30ean onarturiko testuaren ordez, beste berri hau onartu du Elantxoben, 2006ko maiatzaren 26an.

² Alemanez, *Elsass*.

Eskualdearen izen ofiziala	Eskualdearen euskal izena	Eskualdea osatzen duten departamenduen izen ofiziala	Eskualdea osatzen duten departamenduen euskal izena
Aquitaine ³	Akitania	Dordogne Gironde Landes Lot-et-Garonne Pyrénées-Atlantiques	Dordoina Gironda Landes, Landak ⁴ Lot-et-Garona Pirinio Atlantikoak
Auvergne ⁵	Auvernia	Allier Cantal Haute-Loire Puy-de-Dôme	Allier Cantal Haute-Loire Puy-de-Dôme
Basse-Normandie	Normandia Beherea	Calvados Manche Orne	Calvados Manche Orne
Bourgogne	Borgoina	Côte-d'Or Nièvre Saône-et-Loire Yonne	Côte-d'Or Nièvre Saône-et-Loire Yonne
Bretagne ⁶	Bretainia	Côtes-d'Armor Finistère Ille-et-Vilaine Morbihan	Côtes-d'Armor Finistère Ille-et-Vilaine Morbihan
Centre	Centre	Cher Eure-et-Loir Indre Indre-et-Loire Loiret Loir-et-Cher	Cher Eure-et-Loir Indre Indre-et-Loire Loiret Loir-et-Cher
Champagne-Ardenne	Champagne-Ardenne	Ardennes Aube Haute-Marne Marne	Ardenak Aube Haute-Marne Marne
Corse ⁷	Korsika	Corse-du-Sud Haute-Corse	Hego Korsika Korsika Garaia
Franche-Comté	Franche-Comté	Doubs Haute-Saône Jura Territoire de Belfort	Doubs Haute-Saône Jura Belfort Herrialdea
Haute-Normandie	Normandia Garaia	Eure Seine-Maritime	Eure Seine-Maritime

³ Okzitanieraz, *Aquitània*.

⁴ *Landes edo Landak* izena dela eta, deklinabideak ere bietara egiten du: *Landesetara*, *Landesetan*, *Landesetako...*; *Landetara*, *Landetan*, *Landetako...*

⁵ Okzitanieraz, *Auvernha*.

⁶ Bretoieraz, *Breizh*.

⁷ Korsikeraz, *Corsica*.

Eskualdearen izen ofiziala	Eskualdearen euskal izena	Eskualdea osatzen duten departamenduen izen ofiziala	Eskualdea osatzen duten departamenduen euskal izena
Île-de-France	Ile-de-France	Essonne Hauts-de-Seine Paris Seine-et-Marne Seine-Saint-Denis Val-de-Marne Val-d'Oise Yvelines	Essonne Hauts-de-Seine Paris Seine-et-Marne Seine-Saint-Denis Val-de-Marne Val-d'Oise Yvelines
Languedoc-Roussillon ⁸	Languedoc-Roussillon ⁹	Aude Gard Hérault Lozère Pyrénées-Orientales	Aude Gard Hérault Lozère Ekialdeko Pirinioak
Limousin ¹⁰	Limousin	Corrèze Creuse Haute-Vienne	Corrèze Creuse Haute-Vienne
Lorraine ¹¹	Lorrena	Meurthe-et-Moselle Meuse Moselle Vosges	Meurthe-et-Moselle Meuse Moselle Vosges
Midi-Pyrénées ¹²	Midi-Pyrénées	Ariège Aveyron Gers Haute-Garonne Hautes-Pyrénées Lot Tarn Tarn-et-Garonne	Ariège Aveyron Gers Garona Garaia Pirinio Garaiak Lot Tarn Tarn eta Garona
Nord-Pas-de-Calais	Nord-Pas-de-Calais	Nord-Pas-de-Calais	Nord-Pas-de-Calais
Pays de la Loire	Pays de la Loire	Loire-Atlantique Maine-et-Loire Mayenne Sarthe Vendée	Loire-Atlantique Maine-et-Loire Mayenne Sarthe Vendée
Picardie	Pikardia	Aisne Oise Somme	Aisne Oise Somme
Poitou-Charentes	Poitou-Charentes	Charente Charente-Maritime Deux-Sèvres Vienne	Charente Charente-Maritime Deux-Sèvres Vienne

⁸ Okzitanieraz, *Lengadòc-Rosselhon*.⁹ *Rossello* (azentuarekin nahiz gabe: *Rosselló/Rossello*) izen historiko gisa ere erabil daiteke *Roussillon* izenaren ordez.¹⁰ Okzitanieraz, *Lemosin*.¹¹ Alemanez, *Lothringen*.¹² Okzitanieraz *Mieidia-Pirenèus*.

Eskualdearen izen ofiziala	Eskualdearen euskal izena	Eskualdea osatzen duten departamenduen izen ofiziala	Eskualdea osatzen duten departamenduen euskal izena
Provence-Alpes-Côte-d'Azur ¹³	Provence ¹⁴ -Alpes-Côte-d'Azur	Alpes-de-Haute-Provence Alpes-Maritimes Bouches-du-Rhône Hautes-Alpes Var Vaucluse	Alpes-de-Haute-Provence Itsas Alpeak Bouches-du-Rhône Alpe Garaiak Var Vaucluse
Rhône-Alpes ¹⁵	Rhône-Alpeak	Ain Ardèche Drôme Haute-Savoie Isère Loire Rhône Savoie	Ain Ardèche Drôme Savoa Garaia Isère Loire Rhône Savoia

1.2. Frantziako eskualdeak euskal izenaren hurrenkeran

Eskualdearen euskal izena	Eskualdearen izen ofiziala	Eskualdea osatzen duten departamenduen izen ofiziala	Eskualdea osatzen duten departamenduen euskal izena
Akitania	Aquitaine ¹⁶	Dordogne Gironde Landes Lot-et-Garonne Pyrénées-Atlantiques	Dordoina Gironda Landes, Landak ¹⁷ Lot-et-Garonna Pirinio Atlantikoak
Alsazia	Alsace ¹⁸	Bas-Rhin Haut-Rhin	Bas-Rhin Haut-Rhin
Auvernia	Auvergne ¹⁹	Allier Cantal Haute-Loire Puy-de-Dôme	Allier Cantal Haute-Loire Puy-de-Dôme
Borgoina	Bourgogne	Côte-d'Or Nièvre Saône-et-Loire Yonne	Côte-d'Or Nièvre Saône-et-Loire Yonne
Bretainia	Bretagne ²⁰	Côtes-d'Armor Finistère Ille-et-Vilaine Morbihan	Côtes-d'Armor Finistère Ille-et-Vilaine Morbihan

¹³ Okzitanieraz *Provença-Alps-Còsta d'Azur*.

¹⁴ *Proventza* izen historiko gisa ere erabil daiteke.

¹⁵ Okzitanieraz *Ròse-Alps*.

¹⁶ Okzitanieraz, *Aquitània*.

¹⁷ *Landes* edo *Landak* izena dela eta, deklinabideak ere bietara egiten du: *Landesetara*, *Landesetan*, *Landesetako...*; *Landetara*, *Landetan*, *Landetako...*

¹⁸ Alemanez, *Elsass*.

¹⁹ Okzitanieraz, *Auvèrnha*.

²⁰ Bretoieraz, *Breizh*.

Eskualdearen euskal izena	Eskualdearen izen ofiziala	Eskualdea osatzen duten departamenduen izen ofiziala	Eskualdea osatzen duten departamenduen euskal izena
Centre	Centre	Cher Eure-et-Loir Indre Indre-et-Loire Loiret Loir-et-Cher	Cher Eure-et-Loir Indre Indre-et-Loire Loiret Loir-et-Cher
Champagne-Ardenne	Champagne-Ardenne	Ardennes Aube Haute-Marne Marne	Ardenak Aube Haute-Marne Marne
Franche-Comté	Franche-Comté	Doubs Haute-Saône Jura Territoire de Belfort	Doubs Haute-Saône Jura Belfort Herrialdea
Ile-de-France	Ile-de-France	Essonne Hauts-de-Seine Paris Seine-et-Marne Seine-Saint-Denis Val-de-Marne Val-d'Oise Yvelines	Essonne Hauts-de-Seine Paris Seine-et-Marne Seine-Saint-Denis Val-de-Marne Val-d'Oise Yvelines
Korsika	Corse ²¹	Corse-du-Sud Haute-Corse	Hego Korsika Korsika Garaia
Languedoc-Roussillon ²²	Languedoc-Roussillon ²³	Aude Gard Hérault Lozère Pyrénées-Orientales	Aude Gard Hérault Lozère Ekialdeko Pirinioak
Limousin	Limousin ²⁴	Corrèze Creuse Haute-Vienne	Corrèze Creuse Haute-Vienne
Lorrena	Lorraine ²⁵	Meurthe-et-Moselle Meuse Moselle Vosges	Meurthe-et-Moselle Meuse Moselle Vosges
Midi-Pyrénées	Midi-Pyrénées ²⁶	Ariège Aveyron Gers Haute-Garonne Hautes-Pyrénées Lot Tarn Tarn-et-Garonne	Ariège Aveyron Gers Garona Garaia Pirinio Garaiak Lot Tarn Tarn eta Garona

²¹ Korsikeraz, *Corsica*.²² *Rossello* (azentuarekin nahiz gabe: *Rosselló/Rossello*) izen historiko gisa ere erabil daiteke *Roussillon* izenaren ordez.²³ Okzitanieraz, *Lengadòc-Rosselhon*.²⁴ Okzitanieraz, *Lemosin*.²⁵ Alemanez, *Lothringen*.²⁶ Okzitanieraz *Mieidia-Pirenèus*.

Eskualdearen euskal izena	Eskualdearen izen ofiziala	Eskualdea osatzen duten departamenduen izen ofiziala	Eskualdea osatzen duten departamenduen euskal izena
Nord-Pas-de-Calais	Nord-Pas-de-Calais	Nord-Pas-de-Calais	Nord-Pas-de-Calais
Normandia Beherea	Basse-Normandie	Calvados Manche Orne	Calvados Manche Orne
Normandia Garaia	Haute-Normandie	Eure Seine-Maritime	Eure Seine-Maritime
Pays de la Loire	Pays de la Loire	Loire-Atlantique Maine-et-Loire Mayenne Sarthe Vendée	Loire-Atlantique Maine-et-Loire Mayenne Sarthe Vendée
Pikardia	Picardie	Aisne Oise Somme	Aisne Oise Somme
Poitou-Charentes	Poitou-Charentes	Charente Charente-Maritime Deux-Sèvres Vienne	Charente Charente-Maritime Deux-Sèvres Vienne
Provence ²⁷ -Alpes-Côte-d'Azur	Provence-Alpes-Côte-d'Azur ²⁸	Alpes-de-Haute-Provence Alpes-Maritimes Bouches-du-Rhône Hauts-Alpes Var Vaucluse	Alpes-de-Haute-Provence Itsas Alpeak Bouches-du-Rhône Alpe Garaiak Var Vaucluse
Rhône-Alpeak	Rhône-Alpes ²⁹	Ain Ardèche Drôme Haute-Savoie Isère Loire Rhône Savoie	Ain Ardèche Drôme Savoia Garaia Isère Loire Rhône Savoia

2. ITSASOZ HARAINDIKO DEPARTAMENDUAK (ITSASOZ HARAINDIKO ESKUALDEAK)

Izen ofiziala	Euskal izena
Guadeloupe	Guadalupe
Guyana ³⁰	Guyana
Martinique	Martinika
Réunion	Réunion

²⁷ *Proventza* izen historiko gisa ere erabil daiteke.

²⁸ Okzitanieraz *Provença-Alps-Còsta d'Azur*.

²⁹ Okzitanieraz *Ròse-Alps*.

³⁰ *Guyanako Errepublika* estatuarekin nahasteko arriskua dagoenean, *Guyana Frantsesa* erabiltzea komeni da.

3. ITSASOZ HARAINDIKO KOLEKTIBITATEAK

Izen ofiziala	Euskal izena
Nouvelle-Calédonie	Kaledonia Berria
Mayotte	Mayotte
Polynésie française	Polinesia Frantsesa
Saint-Pierre-et-Miquelon	Saint-Pierre eta Mikelune
Wallis-et-Futuna	Wallis eta Futuna

4. DEPARTAMENDUAK

4.1. Departamenduak izen ofizialaren hurrenkeran

Departamenduaren izen ofiziala	Departamenduaren euskal izena	Hiriburua ren izen ofiziala	Hiriburua ren euskal izena	Eskualdearen euskal izena
Ain	Ain	Bourg-en-Bresse	Bourg-en-Bresse	Rhône-Alpeak
Aisne	Aisne	Laon	Laon	Pikardia
Allier	Allier	Moulins	Moulins	Auvernia
Alpes-de-Haute-Provence	Alpes-de-Haute-Provence	Digne-les-Bains	Digne-les-Bains	Provence-Alpes-Côte-d'Azur
Alpes-Maritimes	Itzas Alpeak	Nice	Niza	Provence-Alpes-Côte-d'Azur
Ardeche	Ardeche	Prives	Privas	Rhône-Alpeak
Ardenes	Ardenak	Charleville-Mézières	Charleville-Mézières	Champagne-Ardenne
Ariège	Ariège	Foix	Foix	Midi-Pyrénées
Aube	Aube	Troyes	Troyes	Champagne-Ardenne
Aude	Aude	Carcassonne	Carcasona	Languedoc-Roussillon ³¹
Aveyron	Aveyron	Rodez	Rodez	Midi-Pyrénées
Bas-Rhin	Bas-Rhin	Strasbourg	Estrasburgo ³²	Alsazia
Bouches-du-Rhône	Bouches-du-Rhône	Marseille	Marsella	Provence-Alpes-Côte-d'Azur
Calvados	Calvados	Caen	Caen	Normandia Beherea
Cantal	Cantal	Aurillac	Aurillac	Auvernia
Charente	Charente	Angoulême	Angulema	Poitou-Charentes
Charente-Maritime	Charente-Maritime	La Rochelle	Arroxela	Poitou-Charentes
Cher	Cher	Bourges	Bourges	Centre
Corrèze	Corrèze	Tulle	Tulle	Limousin
Corse-du-Sud	Hego Korsika	Ajaccio ³³	Ajaccio	Korsika
Côte-d'Or	Côte-d'Or	Dijon	Dijon	Borgoina
Côtes-d'Armor ³⁴	Côtes-d'Armor	Saint-Brieuc ³⁵	Saint-Brieuc	Bretainia
Creuse	Creuse	Guéret	Guéret	Limousin
Deux-Sèvres	Deux-Sèvres	Niort	Niort	Poitou-Charentes
Dordogne	Dordoina	Périgueux	Périgueux	Akitania
Doubs	Doubs	Besançon	Besançon	Franche-Comté
Drôme	Drôme	Valence	Valence	Rhône-Alpeak
Essonne	Essonne	Évry	Évry	Ile-de-France
Eure	Eure	Évreux	Évreux	Normandia Garaia
Eure-et-Loir	Eure-et-Loir	Chartres	Chartres	Centre
Finistère ³⁶	Finistère	Quimper ³⁷	Quimper	Bretainia
Gard	Gard	Nîmes	Nîmes	Languedoc-Roussillon ³⁸
Gers	Gers	Auch	Auch ³⁹	Midi-Pyrénées
Gironde	Gironda	Bordeaux	Bordele	Akitania

³¹ Rossello (azentuarekin nahiz gabe: *Rosselló/Rossello*) izen historiko gisa ere erabil daiteke Roussillon izenaren ordez.

³² Estrasburgo izenarekin batera, frantzeseko Strasbourg eta alemanezko Strassburg grafiak ere erabil daitezke.

³³ Korsikeraz, Aiacciu.

³⁴ Bretoieraz, *Aodoù an Arvor*.

³⁵ Bretoieraz, *Sant-Brieg*.

³⁶ Bretoieraz, *Penn-ar-Bed*.

³⁷ Bretoieraz, *Kemper*.

³⁸ Rossello (azentuarekin nahiz gabe: *Rosselló/Rossello*) izen historiko gisa ere erabil daiteke Roussillon izenaren ordez.

³⁹ Auski erabil daiteke izen historiko gisa.

Departamenduaren izen ofiziala	Departamenduaren euskal izena	Hiriburuaren izen ofiziala	Hiriburuaren euskal izena	Eskualdearen euskal izena
Guadeloupe	Guadalupe	Basse-Terre	Basse-Terre	Guadalupe ⁴⁰
Guyana	Guyana	Cayenne	Cayenne	Guyana ⁴¹
Haute-Corse	Korsika Garaia	Bastia ⁴²	Bastia	Korsika
Haute-Garonne	Garona Garaia	Toulouse	Tolosa	Midi-Pyrénées
Haute-Loire	Haute-Loire	Le Puy-en-Velay	Le Puy-en-Velay	Auvernia
Haute-Marne	Haute-Marne	Chaumont	Chaumont	Champagne-Ardenne
Hautes-Alpes	Alpe Garaiaik	Gap	Gap	Provence-Alpes-Côte-d'Azur
Haute-Saône	Haute-Saône	Vesoul	Vesoul	Franche-Comté
Haute-Savoie	Savoya Garaia	Annecy	Annecy	Rhône-Alpeak
Hauts-Pyrénées	Pirinio Garaiaik	Tarbes	Tarbe ⁴³	Midi-Pyrénées
Haute-Vienne	Haute-Vienne	Limoges	Limoges	Limousin
Haut-Rhin	Haut-Rhin	Colmar	Colmar	Alsazia
Hauts-de-Seine	Hauts-de-Seine	Nanterre	Nanterre	Ile-de-France
Hérault	Hérault	Montpellier	Montpellier	Languedoc-Roussillon ⁴⁴
Ille-et-Vilaine ⁴⁵	Ille-et-Vilaine	Rennes ⁴⁶	Rennes	Bretainia
Indre	Indre	Châteauroux	Châteauroux	Centre
Indre-et-Loire	Indre-et-Loire	Tours	Tours	Centre
Isère	Isère	Grenoble	Grenoble	Rhône-Alpeak
Jura	Jura	Lons-le-Saunier	Lons-le-Saunier	Franche-Comté
Landes	Landes, Landak ⁴⁷	Mont-de-Marsan	Mont-de-Marsan	Akitania
Loire	Loire	Saint-Étienne	Saint-Étienne	Rhône-Alpeak
Loire-Atlantique ⁴⁸	Loire-Atlantique	Nantes ⁴⁹	Nantes	Pays de la Loire
Loiret	Loiret	Orléans	Orléans	Centre
Loir-et-Cher	Loir-et-Cher	Blois	Blois	Centre
Lot	Lot	Cahors	Cahors	Midi-Pyrénées
Lot-et-Garonne	Lot-et-Garonna	Agen	Agen	Akitania
Lozère	Lozère	Mende	Mende	Languedoc-Roussillon ⁵⁰
Maine-et-Loire	Maine-et-Loire	Angers	Angers	Pays de la Loire
Manche	Manche	Saint-Lô	Saint-Lô	Normandia Beherea
Marne	Marne	Châlons-en-Champagne	Châlons-en-Champagne	Champagne-Ardenne
As Hualde states in the prologue to Gidor Bilbao's edition of *Glossaria duo Vasco-Islandica*, the name *Glossaria Gallica* may have been the result of the fact that the sailors were from Donibane and were subjects of the French crown. This does not explain, however, why the second list is entitled *Vocabula Biscaica*. Hualde also mentions that the second vocabulary contains some Spanish translations, such as *boca* ('mouth') and *hermano* ('brother').

Trausti Einarsson (1987) believes that the Basques arrived in Vestfirdir as early as 1604. There are records of a bloody fight between natives and foreigners which took place years later and which resulted in the deaths of 31 people from the Basque Country and France. The well-known poem by Jón Gudmundsson (*The Wise*), published in Icelandic and translated into Spanish by Selma Barkham 1987 tells this sad story, highlighting the outstanding role of the legendary Martín de Villafranca (see Sigursveinsson's work in the same

book). However, as Helgason points out in the prologue to Deen's work, the vocabulary lists reflect a time of peace, not one of war.

As the presence of the Basques in Iceland is not officially recorded until 1604, this means that the Basques inhabited Newfoundland and Labrador before moving to Iceland.

4. These vocabularies are clearly of great importance to the history of the Basque language. Their size must be taken into account: 519 words in the first list, 228 in the second, and another 11 words in a short supplement. Many of the Basque words in the lists remain a mystery. For example, *Tuesday* is translated as *asterdia*. Gidor Bilbao expresses some wariness regarding this word, which is not recorded anywhere else, but I believe that it could be a genuine word which fits well into the linguistic pattern formed by the first three days of the week: *asterdia*, with its second part *erdia*, meaning ‘half’, fits in well between *astelehen*, ‘Monday’, with the second part *lehen*, ‘first’, and *asteazken*, ‘Wednesday’, with the second part *azken*, ‘last’ (see Knörr 2000). Other words are more archaic in character, such as *episcuba*, ‘bishop’, which in modern Basque is *apezpiku*, (a cross between *apez*, ‘priest’, and *ipizpiku*, ‘bishop’). It is also worth noting that the consecrated wafer is called *Januna*, <*Jaun ona*, ‘the Good Lord’: in other words, ‘God’.

There are also some interesting phrases in the second vocabulary which provide good examples of a primitive pidgin language. For example, *Presenta for mi berrua usnia eta berria bura* (‘give me hot milk and fresh butter’) with its Icelandic translation *Gefdu mier heita miölk og nyt smiðr*. In modern Basque the phrase would be *Emaidazu esne beroa eta burra berria*. In this phrase the verb *presenta* appears without an auxiliary. The expression *for mi*, which is of course derived from the English *for me*, is also of note. In addition, it is surprising to see the changes in the normal word order (adjective + noun), which does not follow the same pattern as modern Basque, and is more characteristic of the Germanic languages.

The vocabularies also give, as is the practice in Basque, the definite article with Basque words. If somebody asks how to say, for example, *man*, in Basque, the answer would be *gizona*, that is, *gizon-a*, literally «man-the», with a post-posed article. As well as the pidgin phrases already mentioned, there are also short phrases, such as *estacit*, today spelled *ez dakit*, ‘I do not know’, or *gekiseite*, today *jeiki zaite*, an imperative meaning ‘get up’. In the second list there are also some impolite expressions, as *fenicha for ju / liggia dig / coire / coire* (where *fenicha* is for *fornica*) or *gianzu caca / jettu skut / ede excrementum / ede excrementum* (the German and Spanish words replaced by the Latin one).

Bibliography

- BAKKER, PETER, ET ALII. 1991. *Basque pidgins in Iceland and Canada*. Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca ‘Julio de Urquijo’, XXIII.
- BARKHAM, MICHAEL. 2003. “New documents concerning the French Basque pilot, Martin Hoyarsabal, author of the first detailed rutter of the ‘New Found Land’ (1579)”. *Newfoundland Studies* 19:1, 103-131.

- BARKHAM, SELMA HUXLEY (ed.). 1987. *Itsasoa. 3. Los vascos en el marco Atlántico Norte. Siglos XVI y XVII.* San Sebastián. Etor.
- BILBAO, GIDOR (ed.). 1991. ‘*Glossaria duo Vasco-Islandica*’. Apud Bakker et alii, 11-122.
- DEEN, NICOLAAS GERARDUS HENDRICUS. 1937. *Glossaria Duo Vasco-Islandica*. Amsterdam. H.J. Paris.
- EINARSSON, TRAUSTI, 1987, ‘Sobre los primeros balleneros vascos en Islandia’. Apud Selma Huxley Barkham 1987, 287-288.
- GUDMUNDSSON, H. 1979. ‘Um prjú basknesk-íslensk ordasöfn frá 17. öld’. Apud Ingólfsson, G., 1979, *Íslensk mál og almenn máffraedi*, Reykjavík, 75-87.
- HUALDE, JOSÉ IGNACIO. 1991. ‘Icelandic Basque pidgin’. Apud Peter Bakker et alii 1991, 123-133. Originally published in *Journal of Basque Studies in America* 5, 1984, 41-59.
- ‘Foreword to *Glossaria duo Vasco-Islandica*’. Apud Peter Bakker et alii 1991, 13-15.
- KNÖRR, HENRIKE. 1993. ‘Islandia, la soledad buscada’. *El Correo* and *El Diario Vasco*, October 31st, 1993.
- 2000. ‘Astronomy and Basque Language’. César Esteban and Juan Antonio Belmonte (eds.): *Astronomy and cultural diversity. Oxford VI and SEAC 99*. Organismo Autónomo de Museos del Cabildo de Tenerife. La Laguna, 183-193. Also in *Fontes Linguae Vasconum* 33:3, 2001, 403-415.
- OREGI, ENEKO, with the collaboration of FREYR SIGURJONSSON. 1987. ‘Tres glosarios vasco-islandeses del siglo XVII’. Apud Selma Huxley Barkham 1987, 317-336.
- SIGURSVEINSSON, SIGURUR. 1987. ‘La trágica muerte de Martín de Villafranca’. Apud Selma Huxley Barkham 1987, 289-294.

Appendices

I

[Letter of Christianus Cornelius Uhlenbeck to Julio de Urquijo.
Julio de Urquijo's Archive, Donostia. Catalog number 9.104.]

Nimègue le 29 Mars 1927

Cher Monsieur de Urquijo,

Veuillez me permettre d'introduire chez Vous un jeune savant, M. N.G.H. Deen, doctorand-ès-lettres qui va étudier le dialecte de Getaria. Comme Vous le verrez, c'est un jeune homme plein d'enthousiasme pour les études lin-

guistiques et ethnographiques. Il ne sait pas encore beaucoup de la langue basque, mais il a la méthode pour parvenir à une profonde connaissance de toute langue à l'étude de laquelle il se consacre. [1]

Avec mes hommages très respectueux à Madame de Urquijo

Votre bien cordialement dévoué

C.C. Uhlenbeck

[1] Deen had published in 1929 'Over taalverwantschap, meeningen en vragen'. *Mededeelingen der Koninklijke Akademie van Wetenschappen. Afdeling Letterkunde*. Amsterdam 1926. Separata, Julio de Urquijo's Archive, Donostia. Catalog number 2.336.]

II.

[Letter of Christianus Cornelius Uhlenbeck to Julio de Urquijo.
Julio de Urquijo's Archive, Donostia. Catalog number 9.104.]

Nijmegen le 2 Août 1927
Bergendalsale weg 251

Cher Monsieur de Urquijo,

C'était une surprise bien agréable de recevoir Votre aimable lettre hier dans l'après-midi, et je regrette seulement que Vous semble être un peu fatigué, que 'se le hace todo cuesta arriba', comme Vous vous exprimez. Cette fatigue ou cette dépression ne sera que temporaire, sans doute, et je me flatte encore de Vous revoir à la Haye, si la date de Votre discours de réception à l'Académie Espagnole Vous permettra de Vous absenter de l'Espagne en Avril l'année prochain. Qu'on Vous a élu membre de l'Académie de Madrid, n'est qu'un acte de justice qu'on vous devait et je la félicite de Vous compter parmi ses membres. Vous pourrez y défendre les droits de Votre noble langue, si belle et originale à la fois.

Je reçois des lettres de M. Deen qui témoignent de son enthousiasme pour le peuple basque –les simples laboureurs et pêcheurs de Guetaría– et pour toutes les questions d'ethnographie et de linguistique qui s'y rattachent. Il m'a écrit aussi que Vous voulez bien Vous intéresser à ses études. J'espère qu'il deviendra un collaborateur régulier de la RIEB.

Vous êtes bien aimable d'avoir traduit mon compte-rendu de 'Sprf. & Sprkreise' [1] en espagnol, et je ne crois pas qu'il y ait quelque objection à publier Votre traduction dans la RIEB. Alors Vous voudrez bien m'envoyer les épreuves, comme Vous m'avez déjà proposé. J'y ferai les modifications nécessaires, s'il y en aura.

Je n'ai pas encore reçu le tirage-à-part de mon article sur les noms des parties du corps [2]. Je vous en enverrai un exemplaire aussitôt que possible.

Avec nos hommages les plus respectueux à Madame de Urquijo je reste,
comme toujours

Votre bien amicalement dévoué

C. C. Uhlenbeck

[1] P.W. Schmidt: *Sprachfamilien und Sprachenkreisen der Erde. Revista Internacional de Estudios Vascos* 18, 1927, 546-547. Spanish translation from English by Julio de Urquijo.

[2] 'De mit b- anlautenden Körperteilnamen des Baskischen'. *Festschrift Meinhof*, 1927, V, 351-357.

III.

[Letter of Nicolaas Gerardus Hendricus Deen to Julio de Urquijo.
Julio de Urquijo's Archive, Donostia. Catalog number 8.263. We publish the
letter as per the original.]

Holanda. Venrai. 17-5-'28.

Muy estimado Señor de Urquijo,

Recibi de Bilbao el diccionario anhelado [1]. Para eso muchas gracias.
Como siempre Usted es amabilísimo.

Yo estoy usando mi nuevo diccionario para las glosas vasco-islandesas
que ha descubierto en Copenhagen el Señor Olafsson y que seran enviado a
sus señas para la revista.

Este año tengo poco tiempo y encuentro muchos obstaculos. Non obstante
acabaré este y otro articulo. El año que viene sara mejor para mis estudos
vascophilos.

Mis recuerdos, Señor de Urquijo, desde los paises bajos donde tanto apre-
ciabamos de ver a Usted.

Se sirva Usted de ofrecer mos recuerdos respetuosos a su Señora doña de
Urquijo de quien tenia el honor y el gusto inolvidable de hacer el conocimeinto.

Mientras tanto que de Ud. Afmo. S.S.

N.G.H. Deen.

[1] Undoubtly Azkue's *Diccionario vasco-español-francés*.

2005eko R. M. AZKUE LITERATURA SARIAK

2006ko martxoaren 14an, Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, 2005eko *Resurreccion Maria Azkue* Literatura sariak banatu ziren. Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzeko asmoz sortuak dira.

Jakina denez, sariok bi lan mota onartzen dituzte euren baitan, Narrazioa eta Olerkia, alegia. Adinari begira, bi maila dira: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 18 urte bitartekoentzat.

Hauxe da 2005eko edizioan izan den partaidetza kopurua:

- A mailan, narrazioan: 76 lan.
- A maila, olerkian: 13 lan.
- B maila, narrazioan: 62 lan.
- B maila, olerkian: 73 lan.

EPAIMAHAIKOAK

Urtero bezala, literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaikak, beti ere Euskaltzaindiak izendatuta. 2005eko epaimahaikoak hauek izan dira:

- A mailan: Igone Etxebarria Zamalloa, Manu Lopez Gaseni eta Amagoia Lopez de Larruzea Zarate.
- B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Kirmen Uribe.

SARIDUNAK

A MAILAko epaimahaikoek honako sariak eman zituzten:

Narrazio alorrean

Lehen saria: «Lagun bat bizirako». Egilea: Leire Perret (Angelu - Lapurdi). Kanboko *Xalbador* Ikastetxeko ikaslea da. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune.

Bigarren saria: «Malkoak lehortzen». Egilea: Leire Aranburu (Lezo - Gipuzkoa). Lezoko Institutuko ikaslea. Laguntzailea: Jon Puy.

Hirugarren saria: «Inoiz ikusi gabeko ama». Egilea: Amets Cañizares (Azpeitia - Gipuzkoa). Azpeitiko *Ikasberri* Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Alaitz Olaizola.

Olerki alorreatan

Lehen saria: «Itsasoan». Egilea: Oihana Barrenquy (Itsasu - Lapurdi). Kanboko *Xalbador* Ikastetxeko ikaslea. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune.

Bigarren saria: «Ilargi zaharra». Egilea: Maialen Dagozaret (Itsasu - Lapurdi). Kanboko *Xalbador* Kolegioko ikaslea. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune.

Hirugarren saria: «Euri xorta». Egilea: Anize Amestoy-Paroix (Hazparne - Lapurdi). Kanboko *Xalbador* Kolegioko ikaslea. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune

B MAILAko epaimahaikoek, berriz, honako sari hauek eman zituzten:

Narrazio alorreatan

Lehen saria: «Hamabi segundo, bizitza bat». Egilea: Izar Azpiroz (Oiarzun - Gipuzkoa). *Haurtzaro* Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.

Bigarren saria: «Aspaldiko mendeen mendean». Egilea: Emma Arestegi (Hazparne - Lapurdi). Kanboko *Xalbador* Kolegioko ikaslea da. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune.

Hirugarren saria: «Maitasuna gerra garaian». Egilea: Amaia Elorza (Beasain - Gipuzkoa). *Txindoki* Institutuko ikaslea. Laguntzailea: Joxean Otaegi.

Maila honetan, epaimahaikoek ondoko lanak argitaratzeko gomendioa eman dute:

- «Gau iluna amaitu da». Egilea: Aitziber Lizardi (Arantza - Nafarroa). *Toki Ona* Institutuko ikaslea. Laguntzailea: Encarni Peña.
- «Ez nuen diapositiba emanaldirik egingo». Egilea: Olatz Mitxelena (Oiartzun - Gipuzkoa). *Oiartzungo Batxilergo* Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Aitzpea Aizpurua.



Olerki alorrean

Lehen saria: «Infernutik zerura». Egilea: Haritz Casabal (Pasai Antxo - Gipuzkoa). *Pasaia-Lezo* Lizeoko ikaslea. Laguntzailea: Julen Ezkurdia.

Bigarren saria: «Urrundu gaituzten gauza guztiengatik». Egilea: Irati Gaztelumendi (Oiartzun - Gipuzkoa). *Haurtzaro* Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.

Hirugarren saria: «Ni, zu... eta besteak». Egilea: Ainhoa Larunbe (Olaitz - Nafarroa). *Askatasuna* Institutuko ikaslea.

Epaimahaiko kideek ondoko lanok argitaratzeko eskabidea egin zuten:

- «Euskararen hegaldia». Egilea: Miren Estibaliz Vivanco (Bilbo - Bizkaia). *Botikazar* Institutuko ikaslea. Laguntzailea: Iñaki Azurmendi.
- «Gaur ere zure SMSrik ez». Egilea: Garazi Ansa (Oiartzun - Gipuzkoa). *Usandizaga* Institutuko ikaslea.
- «Errezela itxita». Egilea: Garazi Ansa (Oiartzun - Gipuzkoa). *Usandizaga* Institutuko ikaslea.
- «Izara artean». Egilea: Irantzu Zinkunegi (Azkoitia - Gipuzkoa). *Floreaga* Salestar Ikastetxeko ikaslea. Laguntzailea: Cecilio Salas.

ANTZUOLAKO TOPONIMIA

Onomasticon Vasconiae

Bildumaren 25. liburukia

AURKEZPENA

Otsailaren 10ean, *Antzuolako Toponimia* izeneko liburua aurkeztu zuten Antzuolan bertoko Udalak eta Euskaltzaindiak. Aurkezpenean, honako hauek izan ziren mahaian: Jose Angel Zabalo, Antzuolako alkatea; Andres Iñigo, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeburua; Iratxe Lasa, lanaren gainbegiralea eta Kristina Pavo egilea.

Antzuolako Toponimia izeneko liburua Euskaltzaindiak argitaratzen duen *Onomasticon Vasconiae* bildumaren 25. liburukia da. Antzuolako toponimo historikoak eta egun bizirik dirautenak biltzen dituen lan horren egilea Kristina Pavo Nuñez dugu. Maila akademikoan, Euskaltzaindiak hala izendatua, Iratxe Lasa izan da lanaren gainbegiralea. Argitalpenaren babesleak honako hauek izan dira: Antzuolako Udal, Gipuzkoako Kutxa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Antzuolako *Goizper* Kooperatiba Elkartea, *Elay Taldea*, *Matz-Erreka* Kooperatiba Elkartea eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

2003an, Antzuolako Udalak bertako toponimia jaso eta finkatzeko beka atera zuen eta Kristina Pavok lortu. Pavok, berak azpimarratu zuenez,

Euskal Herrian izenak ditugu euskararen lekukorik zaharrenak. Hauen artean, toponimoek gure hizkuntzari buruzko informazio eta datu ugari eskaini diezagukete. Hainbat faktore direla medio, baina, toponimo asko aldatu edota ahaztuak izan dira mendeetan erabili izan diren izen asko galdua edo galtzeko zorian daudelarik. Horregatik, berandu baino lehen, leku-izenak biltzea, aztertzea eta arautzea egin beharreko lana da, Antzuolaren kasuan ere, herriaren leku-izenak behin betiko gal ez daitezen.

Beraz, Antzuolako leku-izenak biltzea, aztertzea eta forma idatzia finkatzea, arautzea, dira *Antzuolako Toponimia* liburuaren helburu nagusiak. 1.700 leku-izen inguru jasotzen duen liburu hau egiteko, idatzizko nahiz ahozko informazio iturriak erabili zituen Kristina Pavok: batetik, bilketa historikoa egin zuen –artxibootan eta hainbat agiritan gorde diren agirien miaketen bidez– eta bestetik, gaurko edo ahozko bilketa ere burutu zuen –bertoko lekukoen bitartez jasotakoa–. Bilketa egin ostean, izenak aztertu eta arautzeaz gain, mapa batean dagokien kokagune zehatzka eman zitzaien toponimoei. Bestalde, *An-*



O N O M A S T I C O N V A S C O N I A E

25

KRISTINA PAVO NUÑEZ

ANTZUOLAKO
TOPONIMIA



E U S K A L T Z A I N D I A



2005

tzuolako Toponimia liburuak hau ere eskaintzen du: leku-izenen zerrendak auzoz auzo, gaur eguneko kokapena eta nola ahoskatzen diren, hiztegi bat eta baita argazki ugari ere.

Jose Angel Zabalo, Antzuolako alkateak adierazi zuenez,

ez dugu horretan laga nahi lan eder hau. Egindako lana edota toponimia guztia fosilizatu edota bazter batean gera ez dadin, mekanismo ezberdinak martxan jarri beharko ditugu gutxienez orain ezagutu eta erabiltzen duguna ez galtzeko eta era berean toki-izen berriak ere, zergatik ez, ikasten joateko.

Bestetik, Andres Iñigo, Onomastika batzordeburuaren hitzetan,

zalantzarak ez dago Kristina Pavoren prestakuntzaz gain lan hau egiteko ilusioa, gogoa eta konstantzia behar izan dituela, berak baitaki inork baino hobeki zenbat arazo, zaitasun, zalantza eta atsekabe gainditu behar izan dituen liburu honetan ageri diren datu guztiak biltzeko, bildu ondoren ordenatu eta sailkatzeko eta, arestian aipatu bezala, izen bakotzaren aldaera arautua ongi asmatzeko. Horrelako lan batean jarraitu behar diren irizpideak kontuan izan baditu ere, ziur gaude, lan berri guztieta gertatzen den bezala, sortu zaizkion zaitasun eta zalantza askori ere aurre egin behar izan diela.

Hori guzta kontuan hartuz, Onomastika batzordearen izenean zorionak eta eskerrak, biak batera, eman zizkion Andres Iñigok Antzuolako Udalari:

zorionak lan hau gauzatzeko jarri dituen baliabideengatik eta, aldi berean, gure esker ona agertu nahi diot Euskaltzaindiaren Onomasticon Vasconiae bilduman argitaratzearagatik. Euskal Herriko toponimiaren erakusketa izan nahi duen bilduma honen 25. zenbakian islaturik geldituko da *Antzuolako topónimia*.

Iratxe Lasak, amaitzeko, Kristina Pavoren pazientzia eta konstantzia goraiapatu zituen,

biok beharrezkoak izan dituelako lana burutu ahal izateko.

NEOLOGISMOS EN LA OBRA DE SABINO ARANA GOIRI LIBURUAREN AURKEZPENA

Gaur, martxoak 3, *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri liburu aurkeztu* dute Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Donostian. Aurkezpena honako hauek egin dute: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Ludger Mees, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara errektoreordeak; Ibón Sarasola, liburuaren sarrera egileak eta Inés Pagola egileak.

Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri liburu Inés Pagolaren doktorego tesiaren bertsioa da eta, izenburuak adierazi bezala, Sabino Aranaren neologismoak hartzen ditu aztergai. Horiek ulertzeko, baina, testuinguru historikoan kokatzen gaitu egileak. Pagolaren hitzetan,

XIX. mendearren bukaera aldera, Bilbo, abertzalesunaren jaioterria, euskal letron kokagune bilakatzen da, bertan sortzen baita *Pizkunde* izeneko mugimendu edo eskola garbizalea, euskara eta euskal literatura irauliko dituena. Tradizioak etsaitzat izan dituen gizon biren ideien fruitu da mugimendu hau, hots, Arana Goiri eta Azkueren euskarari buruzko ideien emaitza. Haien eskutik purismoa, ideia politikoak bezala, erradikalizatzen da, eta hiztegi eremutik gaindi, morfologiaren eta are joskeraren eremuetara zabaltzen.

Honela –gaineratzen du Pagolak– euskara berri bat sortzen da, garaiko idazle gehienek, onenak eta ezagunenak barne, hautatzen dutena. Hasiera batean, euskara berri hau Bizkaiko gertakaria da, baina aurki hedatzen da, ideia politikoekin batera, beste eskualdeetara, bereziki, Gipuzkoara. Ipar Euskal Herrian, ez zuen, hala ere, eragin handirik izan: Lhande, Jean Etxepare salbuespen dira.

Hala bada,

morfologiaren berritza Azkuek egin zuen; Arana Goirik, hiztegi berritza. Erdarrik hitzak baztertza da berritze honen ezaugarririk nabarmenena.

Liburuaren hasieran, Ibon Sarasolaren «Irakurle euskaldunari» hitzaurrea dago. Sarasolak esaten duenez,

Pagolaren lanaren gorputza hiztegi moduan dago antolatua eta bertan, Sabinok sorturiko edo berari egotziriko neologismo guztien berri ematen digu.

Hitz bakoitza noiz eta nola sortu zen azaltzen du Pagolak, baita zer hiztegi eta testuetan agertzen den edota aldeko eta kontrako iritziak ere.

Askotariko bibliografia eta lehen eskuko informazioa erabili ditu Inés Pagolak. Sabino Aranak sortu zituen neologismo asko politikaren eremukoak dira

(*Euzkadi, alderdi, burukide*); edota hizkuntza, literatura eta kultura arlokoak (*idazki, antzoki, zenbaki*).

Euskara –dio Pagolak– erdaratiko hitzez garbitzen duen bezala, logikaren izenean, euskarazko zenbait forma *oker* zuzentzen, garbitzen ere diitu, historiaz kanpoko garai batean, ustez, ziren bezala ematen. *Begiraturen* lekuaren nahiago du *begiztu; bi(g)urturen* lekuaren, *birgurru, bir-* delako aurritzak; joskeria okerra due-lako, *Jaungoiko* baztertu eta *Goiko jaun* erabiltzen du; eta abar.

Ibon Sarasolaren aburuz,

sabindarren ahaleginaren eta eraginaren entziklopedia moduko bat, zabala eta fidagarria, eskaintzen zaigu liburu honetan.

Sarasolaren hitzak aipatuko ditugu berriro:

Ardura bereziz –dio euskaltzain osoak– azaltzen du Pagolak Azkueren jarrrera Aranak sortutako hitzei buruz. Uste dut argibide benetan interesgarriak direla, topikoak alde batera utzita, benetako Azkuerengana hurbiltzeko.

Eta Inés Pagolak gaineratzen du:

Azkuerekin konforme egon gaitezke Aranaren neologismoak gaizki eratuak daudela dioenean, baina zuzentasun gramatikalak zer ikusi gutxi du hitz baten erabilerarekin: Azkueren bazterreko forma eta aitzakiarik gabeko neologismoak bidean gelditu ziren bitartean, Arana Goirirenak eta, bereziki, bere jarraitzaileek haren estilora, haren egiteko modu berezian egindakoek aurrera egin zuten.

PRESENTACIÓN DEL LIBRO ***NEOLOGISMOS EN LA OBRA DE SABINO ARANA GOIRI***

Hoy, 3 de marzo, se ha presentado en Donostia/San Sebastián el libro *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*, editado conjuntamente por Euskaltzaindia y la Universidad del País Vasco. En el acto de presentación han tomado parte el presidente de Euskaltzaindia Andrés Urrutia, el vicerrector de Euskera de la UPV/EHU Ludger Mees, el académico Ibón Sarasola y la autora del libro, Inés Pagola.

Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri es una revisión de la tesis doctoral de Inés Pagola, que escribió hace una veintena de años y, como específica el título, aborda el tema de los neologismos en Sabino Arana. Para entender el asunto en toda su profundidad, Pagola nos sitúa en el contexto histórico preciso:

A finales del siglo XIX, Bilbao se erige en punto de encuentro de las letras vascas, puesto que es aquí donde surge *Pizkundea*, movimiento o escuela purista que removerá la lengua y la literatura vascas. Dicho movimiento surge desde dos personalidades que la tradición ha tildado de enemigos, nace de las ideas que tenían sobre el euskera Arana Goiri y Azkue. A partir de ellos, el purismo, al igual que las ideas políticas, se radicaliza y más allá del terreno lexicológico, *alcanza*, los ámbitos de la morfología y la sintaxis.

Es así –añade Pagola– cómo surge un nuevo euskera, por el que optan la mayor parte de escritores contemporáneos, incluidos los mejores y más conocidos. Si bien en un principio esto se restringe al ámbito de Bizkaia, pronto se expandirá a otros territorios, principalmente a Gipuzkoa.

Azkue fue el artífice de la renovación de la morfología, mientras que Arana Goiri hizo lo propio con la lexicología. La principal característica de esta renovación fue desterrar las palabras provenientes de otras lenguas.

Ibón Sarasola, autor del prólogo del libro, destaca el hecho de que el grueso del libro de Inés Pagola está presentado a la manera de un diccionario en el que aparecen todos los neologismos que Sabino creó, o bien que le han sido atribuidos. La autora explica en qué momento y cómo fue creada cada palabra, así como en qué textos aparece y también la acogida que tuvo en su momento.

El libro consta de una introducción y tres capítulos seguidos de una bibliografía. La introducción pretende dar una idea clara del marco en el que se

desarrolla la actividad neologista de Arana Goiri, pretende explicar la naturaleza y el alcance del movimiento purista que inician Azkue y Arana. En cuanto a los tres capítulos, el primero constituye el cuerpo central al que alude Ibón Sarasola. El segundo contiene una descripción concisa de los aspectos que la autora considera necesarios para comprender la formación de los neologismos. En cuanto al tercero, denominado Apéndice, se presenta bajo el título «Análisis y reforma de la numeración euzkérica».

NEOLOGISMOS EN LA OBRA DE
SABINO ARANA GOIRI

NEOLOGISMOS EN LA OBRA DE SABINO ARANA GOIRI



NEOLOGISMOS EN LA OBRA DE
SABINO ARANA GOIRI

NEOLOGISMOS EN LA OBRA DE
SABINO ARANA GOIRI

iker - 18

MENDAUR ARGITALPEN BILDUMA BERRIA SORTU DUTE EUSKALTZAINDIAK ETA NAFARROAKO GOBERNUAK

Ekainaren 20an, Iruñean, Nafarroako Gobernuaren egoitzan, Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak sortutako *Mendaur* bildumaren I. liburukiaren aurkezpena egin zen: *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko*, Andres Iñigok prestatua. Aurkezpena Pedro Pegenauta, Nafarroako Gobernuko Unibertsitate-etarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak; Andres Urrutia, euskaltzainburuak eta Andres Iñigo Euskaltzaindiko *Jagon* sailburu eta Nafarroako ordezkariak egin zuten. *Mendaur* bildumaren bigarren liburuan ere kalean da, *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia* da izenburua eta Pello Salaburuak eta Maite Lakarrek (lag.) prestatu dute.

Esan bezala, *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko* da bilduma berriaren lehendabiziko liburua. Andres Iñigok azaldu zuenez, Nafarroako Foru Diputazioaren Euskara Sustatzeko Atalak 1966 eta 1983 bitartean *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarria argitaratu zuen. Hain zuzen ere, Jose Mari Satrustegik euskaraz idatzi zituen 168 artikuluak dira gaur aurkeztu den *Mendaur* bilduma berri honen lehendabiziko zenbakia osatzen dutenak. «Denetik idatzuen Satrustegik –esan zuen Nafarroako ordezkariak–. Zail da sailkapen zehatzera egitea, artikulu batzuek gai bat baino gehiago ukitzen dutelako; baina, laburbilduz, erran genezake, honako hauek zirela ukitzen zituen gai nagusiak, alegia:

- Zenbait pertsonaren ezaugarri eta laudorioak; hilberriak.
- Euskarari buruzkoak: hizkuntzaren inguruko egoera eta kezkak, Euskaltzaindiaren eginbeharrok, euskara batuaren ingurukoak, Nafarroako zenbait herritako euskararen egoerari buruzkoak...
- Garai hartako gizarte arazoak islatzen zituztenak.
- Herrietako ohitura, jai eta ospakizunak.
- Garaiko zenbait gertaera berri eta ideien kritika.
- Nafarroako leku garrantzitsuenetako deskribapenak.
- Ipuinak, olerkiak, herri kantak eta bertsoak.
- Eta azkenik, hain gustuko zuen Onomastikari buruzkoak. Izan ere, artikulu franko idatzi zituen, pertsona izenei buruzkoak, gehienbat.

168 artikulu horiek argitaratzeaz gain, beste zenbait ekarpen egiten saiatu da Andres Iñigo. Hala nola:

1. Satrustegik garai hartan erabiltzen zuen hizkeraren ezaugarri eta joera nabarienak islatzen dituztenak.
2. Idazkietan ageri diren zenbait esapideren bildumatxoa egin du egileak.
3. Hiztegia: Iñigok esan bezala, Jose Mari Satrustegiren bi ezaugarri nabari dituen hiztegia hautatzen saiatu da:
 - a) Jose M.^a Satrustegiren bizi-ibilbidearen lekukotza: *Arruazu-Luzain-de-Urdiain*.
 - b) Lexiko pertsonalarena: haren ukitu pertsonala dutenak, erranahi berzia ematen dien hitzak, gaztelaniazko zenbait hitzen euskal oraindik egokia ezagutzen ez eta sortzen zituenak, etab.
4. Aurkibide onomastikoa. Hau egiteko, bi arrazoi nagusi izan ditu *Jagon* sailburuak: batetik, izenen aberastasuna islatzea, Nafarroako onomastika lanetarako material baliagarria delako. Bestetik, horrelako lan batek argi eta garbi erakusten duelako onomastikaren egokitze eta arautzearen beharra gure hizkuntzaren normalizazio bidean. Satrustegik artikulu horiek argitara eman zituen garaian Euskaltzaindiak ez zuen ezer erabakia izenen forma eta aldaera ofizialaz. Eta artikulu hauetan argi ageri da zein zaila den asmatzea eta behar bezala idaztea ezer arauturik ez dagoenean eta, ondorioz, zer nahas-mahasa sortzen ahal den. Jose Mari onomastika zale amorratua zen; baina, hala ere, beste edozeinek zituen zaitasun berberak izan zituen izen arauturik ez zen garai hartan izen horien forma egokiak asmatzeko.

JOSE MARI SATRUSTEGI: EREILE ETA LEKUKO
MENDAUR I
Aurkezpena

*Nafarroako Gobernuaren egoitza
Iruñean, 2006ko ekainaren 22an*

Andres Iñigo

Gauza jakina da, nafar euskaldunentzat bereziki, Nafarroako Foru Diputazioaren Euskara Sustatzeko Atalak edo «Sección para el Fomento del Vasconce» delakoak *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarri hilabeteikari bat izan zuela 1966 eta 1983 bitartean.

Kontuan izan behar dugu Diputazioaren Euskara Sustatzeko Atal hura osatzen zutenen helburu nagusia nafar euskaldunek bere hizkuntza balioestea zela, eta xede hori lortzeko:

- Batetik, eskolaz eskola joanez, etxetik euskara zekiten haurrei sariak banatzen hasi ziren, ondotik euskararen irakaskuntza eskoletan sartzeko asmoz.
- Bestetik, euskaldunak euskaraz irakurtzera bulkatu nahian, abian jarri zuten *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarria. Eta aldizkari hori Nafarroako familia euskaldun guztiak dohainik hartzen zuten.

Jose Mari Satrustegi aldizkari horren lehendabiziko zortzi urteetan kolaboratzaile izan zen, eta kolaboratzaile oparoa benetan, hilabetero idazten baitzuen eta gehienetan artikulu bat baino gehiago. Euskaraz idatzi zituen 168 artikuluak dira gaur aurkezten den Mendaур bilduma berri honen lehendabiziko alea osatzen dutenak.

Gaiei dagokienez, denetik idazten zuen. Zail da sailkapen zehatza egitea, artikulu batzuek gai bat baino gehiago ukitzen dutelako; baina, laburbilduz, erran genezake honako hauek zirela ukitzen zituen gai nagusiak:

- Zenbait pertsonaren ezaugarri eta laudorioak; hilberriak.
- Euskarari buruzkoak: hizkuntzaren inguruko egoera eta kezkak, Euskaltzaindiaren eginbeharrok, batuaren ingurukoak, Nafarroako zenbait herritako euskararen egoerari buruzkoak.

- Garai hartako gizarte arazoak islatzen zituztenak.
- Herrietako ohitura, jai eta ospakizunak.
- Garaiko zenbait gertaera berri eta ideien kritika.
- Nafarroako leku garrantzitsuenetako deskribapenak.
- Ipuinak, olerkiak, herri kantak eta bertsoak.
- Eta azkenik, hain gustuko zuen onomastikari buruzkoak. Izan ere, artikulu franko idatzi zituen, pertsona izenen ingurukoak gehienbat.

Horiek guztiak biltzen dituen liburu honi *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko* izenburua jarri diogu. Zer dela eta?

Ereile diogu, euskararen ereintzarako lurra prestatu eta ereitearen ideia behin eta berriz ageri-agterian dagoelako idatzi zituen artikulu gehienetan; erraterako:

- *Badira neguko lan ilunak, gero udan agertzen direnak. Udan garia bildu nahi duenak, neguan erein beharko du.*
- *Erein gabe ez dago biltzerik, hori edozein nekazarik badaki.*

Eta *leku*, Jose Mari urte haietan euskararen alde mugitzen zen ekitaldi guztietan eragile eta lekuko izan zelako.

Erran bezala, artikulu hauek 1966 eta 1973 bitartean idatziak dira. Tarte horretan, 1968an hain zuzen, izan zen Arantzazuko biltzarra. Biltzar horren ondotik Euskaltzaindia hartzen hasi zen erabakiek eragin zuzena izan zuten Jose Mariren idatzietan eta nabaria da zortzi urte horien buruan bere testuetan ageri den bilakaera. Badago aldea ortografia eta abarretan lehenbiziko urteetatik azkenekoetara. Eta bilakaera hori kontuan izan dugu testuak moldatzean. Artikulu horiek egungo irakurleari ahalik eta modu egokienean jartzen saiatu gara, baina horretarako egin ditugun moldaketak irizpide batzuen arabera aplikatu ditugu, eta testu guztiak modurik bateratuenean ematearren, salbuespenak salbuespen, Jose Marik azkeneko urteetan erabilitako moldeetara egokitu ditugu.

168 artikulu horiek aipatutako irizpideen arabera argitaratzeaz gain, beste zenbait ekarpen egiten saiatu gara, liburuaren azkeneko zatian ageri diren lau atal hauek hain zuzen:

1. Satrustegik garai hartan erabiltzen zuen hizkeraren ezaugarri eta joera nabarienak islatzen dituztenak, hala nola, bokalismoan eta kontsonantismoan zuen joera, deklinabidean, aditzean, hitz eratorriean, joskeran..., erabiltzen zituen formak, etab.
2. Idazkietan ageri diren zenbait esapideren bildumatxoa egin dugu; erraterako:
 - *Bizi aberats baten neurria ez da harriak (hilarriak) ematen duena.*
 - *Kezka asko eta erdaraz mintzo, ametsez jantxitako hilarria.*

Colección MENDAUR bilduma



**Jose Mari Satrustegi:
ereile eta lekuko**

Andres Iñigo



3. Hiztegia. Gure ustez, Jose Mariren bi ezaugarri nabari dituen hiztegia hautatzen saiatu gara:

- a) Bere bizi-ibilbidearen lekukotza: Arruazu-Luzaide-Urdiain.
- b) Lexiko pertsonalarena: bere ukitu pertsonala dutenak, erranahi beretza ematen dien hitzak, gaztelaniazko zenbait hitzen euskal ordain egokia ezagutzen ez eta sortzen zituenak, etab.

Hautatu ditugun 500en bat hitz horien sarrera bakoitzak honako ezaugarri hauek daramatza kasu gehienetan, egileak non jaso zuen, hitzaren kategoria gramatikala, batuan duen erranahia eta hitzaren aipua bere testuinguruan ageri den artikulua aipatzu.

4. Aurkibide onomastikoa.

Ezaguna da Jose Mari Satrustegiren onomastikarekiko zaletasuna. Izan ere, artikulu hauetan izugarrizko izen pila ageri da eta interesgarri iruditu zaigu horien guztien aurkibidea egitea. Bi arrazoi nagusi izan ditugu hori egiteko:

- Batetik, izenen aberastasuna islatzea, Nafarroako onomastika lanetarako, batik bat, material baliagarria delako.
- Bestetik, horrelako lan batek argi eta garbi erakusten digulako onomastikaren egokitze eta arautzearen beharra gure hizkuntzaren normalizazio bidean. Satrustegik artikulu horiek argitara eman zituen garaian Euskaltzaindiak ez zuen ezer erabakia izenen forma eta aldaera ofizialaz. Eta artikulu hauetan argi ageri da zein zaila den asmatzea eta behar bezala idaztea ezer arauturik ez dagoelean eta, ondorioz, zer nahas-mahasa sortzen ahal den. Jose Mari onomastikazale amorratua zen; baina, hala ere, beste edozeinek zituen zailtasun berberak izan zituen izen arauturik ez zen garai hartan izen horien forma egokiak asmatzeko.

Ez dut amaitu nahi nire esker ona agertu gabe. Euskaltzaindiari eta Nafarroako Gobernuari, gaur hasiera eman zaion Mendaур bilduma berri hau bi Erakundeen artean indarrean dagoen hitzarmenaren ondorioa baita. Lan hau egiteko laguntza eman didatenei. Eta, azkenik, zorionak eta eskerrak Jose Mari Satrustegiren familiari. Bihotzez eskaintzen diet liburu hau bere anai-arrebei eta *Milikonea* etxean bizi den bere ilobari.

JOSE MARI SATRUSTEGI: EREILE ETA LEKUKO

MENDAUR I

Presentación

*Sede del Gobierno de Navarra
Pamplona, 22 de junio de 2006*

Andres Iñigo

Como es sabido, la Sección para el Fomento del Vascuence de la Diputación Foral de Navarra editó entre los años 1966 y 1983 un suplemento de la Revista *Príncipe de Viana* destinado a la promoción del euskera.

Es preciso recordar que aquella Sección para el Fomento se propuso como objetivo prioritario la estima y el uso del euskera por parte de la población navarra euskaldún. A tal fin, se pusieron en marcha, entre otras, dos actividades puntuales:

- Visitar pueblo por pueblo las escuelas para comprobar el grado de conocimiento del euskera de los niños y niñas y otorgarles el correspondiente reconocimiento en forma de diploma. En una segunda fase se comenzó a implantar la enseñanza del euskera como una actividad escolar.
- Crear una revista mensual que se denominó Suplemento de la Revista Príncipe de Viana para el fomento del vascuence, cuyo objetivo no era otro que el de impulsar a las familias navarras de habla vasca a leer en su lengua. La tirada de 7.000 ejemplares era repartida gratuitamente por la Diputación Foral.

José Mari Satrustegi, miembro de la Sección de Fomento, fue colaborador de la revista en sus ocho primeros años de vida. Colaborador prolífico, dado que en cada número escribía habitualmente más de un artículo. La colección Mendaur, que hoy se presenta, recoge en este primer volumen los 168 artículos que Satrustegi escribió en euskera en dicha revista.

Los artículos son de carácter divulgativo y los temas que trata muy variados. Sin pretender hacer una clasificación exhaustiva, podemos decir que, en líneas generales, versan sobre los siguientes temas:

- Aspectos y perfiles de personas conocidas en el ámbito del euskera, así como crónicas necrológicas.
- Consideraciones en torno a la lengua vasca: su situación en Navarra, la labor de Euskaltzaindia, el establecimiento del euskera unificado, consideraciones y preocupaciones por su retroceso en algunos pueblos y valles de Navarra, etc.
- Problemas de tipo social de aquellos años.
- Descripciones de costumbres, fiestas y celebraciones de pueblos de Navarra.
- Comentarios críticos ante ciertas innovaciones, modas y comportamientos de aquella época.
- Descripción de lugares emblemáticos de Navarra.
- Cuentos, poemas, canciones y versos populares.
- Y, por supuesto, escribió muchos artículos sobre uno de sus temas preferidos, la onomástica, centrándose especialmente en nombres de personas, que tanta influencia ha tenido ya desde aquellos años en el cambio registrado en nombres de pila.

Pues bien, a este libro que recoge todos esos temas hemos puesto por título *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko*, es decir, *sembrador y testigo*.

Sembrador, porque muy en línea con los objetivos marcados por la Sección de Fomento, una de las ideas que más se repite en sus artículos es la de que aquellos años eran los años de preparación de la tierra para proceder a la siembra, con la fe y la mirada puesta en los frutos que vendrían posteriormente.

Testigo, porque José Mari Satrustegi ya para aquellos años era impulsor y testigo de excepción de cuanto se hacía en favor de la promoción del euskera en Navarra.

Puede decirse que estos textos, escritos entre los años 1966 y 1973, pertenecen a la primera época de Satrustegi como escritor en euskera. Y en ellos se observa claramente la influencia y evolución motivada por un acontecimiento importante como fue el Congreso de Arantzazu de 1968, en el que se acordó la unificación literaria del euskera. Las decisiones que comenzaron a tomarse a partir del Congreso tienen una repercusión directa en el académico de Arruazu, especialmente en lo que respecta a la ortografía, unión y separación de palabras y otros aspectos.

Esta edición pensada para el lector actual, nos ha obligado a realizar la correspondiente acomodación de los textos. Teniendo en cuenta la evolución observada en el propio Satrustegi a lo largo de los mencionados ocho años,

hemos procedido a adecuar todos los artículos a los criterios utilizados por el autor al final de esa época. Ello permite presentar todos los textos como un conjunto unificado en criterios de ortografía fundamentalmente.

Además de realizar la transcripción de los 168 artículos conforme a los criterios que acabamos de mencionar, cuyo detalle se expone en un capítulo inicial del libro, se han elaborado otros aspectos que están expuestos en la parte final de la obra. Se trata de los siguientes cuatro apartados:

1. Características y tendencias más notables que se observan en el euskera de Satrustegi de esta época, en lo referente a vocalismo, consonantismo, uso de la declinación, del verbo, de las palabras derivadas, sintaxis...
2. Selección de unas 70 locuciones extraídas de sus textos.
3. Selección de unas 500 voces del vocabulario del autor. Gran parte de ellas vienen a ser el exponente claro de su recorrido vital: Arruazu-Luzaide/Valcarlos-Urdiain, y otra parte puede considerarse como léxico más personal.
4. Índice onomástico.

El caudal onomástico que se extrae de sus escritos, tanto en lo referente a la antropología como a la toponimia, es fiel reflejo del interés del autor por el tema. Hemos realizado la elaboración de este índice por considerar que es un material interesante para el estudio de la onomástica de Navarra principalmente, y porque todos estos nombres, escritos entre los años 1966 y 1973, es decir, cuando Euskaltzaindia aún no había procedido a normativizar la onomástica, reflejan claramente la necesidad imperiosa de llevar a cabo dicha normativización, al igual que se realiza en otros aspectos de la lengua, como son la ortografía, el léxico o la gramática.

Antes de finalizar, quiero manifestar algunos agradecimientos. A Euskaltzaindia y al Gobierno de Navarra, porque la colección Mendaur que hoy se presenta es fruto del acuerdo firmado y ratificado anualmente entre ambas Instituciones. A las personas que me han prestado su ayuda en la elaboración de este trabajo. Y a la familia de José Mari Satrustegi, a la que dedico de corazón este libro.

HIL BERRIAK

JUAN SAN MARTIN ORTIZ ZARATEKOA EUSKALTZAIN OSOA

Euskaltzaindiak 1957ko uztailaren 26an izendatu zuen euskaltzain urgazle. 1964ko abenduaren 18an, aldiz, euskaltzain oso aukeratu zuten. Sarrera hitzaldia hamar urte beranduago egin zuen, ez bai ziren urte onak horrelako ospakizunetarako, batez ere Gipuzkoa eta Bizkaian. 1974ko irailaren 14an, Axularren sorterriko Ur-dazubin, bertako Salbatore monastegi famatuan, «Literatura landuaren sorrerako giroa, Axularren garaira arte» gaia hautatu zuela. Jean Haritschelhar buruordeak erantzun zion.

Lehenengo eta behin esan dezadan, Juanito euskalgintzaren *Land Roverra* izan dela, horrela deitu nion duela pare bat urte, bere aurrean, Felix Maraña eta Padrón Plazaolak Mitxelena Kulturunean haren omenez antolatu zitzutzen mahai-inguruetan. Due-la berrogei urte pasa ezagutu nuen Juanito, oker ez banago Bittor Kapanagaren bidez. Hasieratik izan genuen empatia. Berarekin egindako solasaldi luze, baina ez aspergarrietan, asko ikasi nuen. Arantzazuko Euskaltzaindiaren bigarren Biltzarrean, 1963koan izan zirela uste dut. Gerotxoago 1965eko ekainaren 7an, Gerediaga Durango Merindadeko Adiskideen Elkartea hamaika lagunek sortu genuenetik laster, udazkenean, bazkide egin zen, lehen Euskal Liburu eta Disko Azokan, hain zuzen. Ez bakarrik bazkidetu, baita lagundu eta idatzi ere. Euskaltzaindiarentzat Azokaren lehen standa finkatu genuen, eta hala dirau berrogei urtez. Bere babes instituzionala izan genuen handik bi urtera, Euskaltzaindiaren idazkari izendatua izan baitzen.

Eranskin gisa dakart, Ricardo Badiola Euskaltzaindiko Argitalpen eragilearen languntzaz egindako bibliografia. Bertan ikus daiteke zer lan mardula egin zuen San Martinek.

Mendizaletasunari ere onomastika alorrean etekinak ateratzen jakin zuen, zehatzago esan, oronimian ikerketa ugari eginaz. Txomin Uriarte eta Paco Irondoren eskeriari so eginenez, Euskal Herriko Mendi Katalogoa goitik behera arakatu eta normalizatu zuen Onomastika batzorde akademikoak. Zer esanik ez, Juanito izan zen batzordekideon artean emaitzarik oparoena eman zuena, zeren eta mendizaletasunari ere euskaltzaletasun eta hizkuntzaren normalizazioa aplikatzen bai baitzekien.

Norbaitek, noizbait, Juanitoren kultur kosmogonia osoa aztertu beharko luke, eta ez litzateke lan makala aterako! Haren alderdi asko ezagutzen ditugu hemen gaudenok. Oraino honetan, bat azaldu behar dut, ordea: Euskaltzaindian egindako lan ikaragarria. *Euskera* agerkaria hartzea da biderik aproposena horretarako, bertan aurki baitaitezke haren artikuluak, Idazkaritzako batzar-agiriak, proposamenak, Idazkaritza garai-ko, Jagon sailburu garaiko eta Gipuzkoako ordezkarri izan zen urteetako materialak eta beste. Haietan agertuko dira hamaika egitasmo, batzuek aurrera eraman ahal izan zi-

tuenak edo bidean gelditu zirenak, eta ez bere erruz, noski. Aurrera eramandako batzuk aipatuko dituk.

Gerediaga Elkarteko idazkari nintzela, 1969ko programazioa egikeran, euskal idazleen biltzarra antolatzeko eskatu zidan, udarako. Garai hartan ez zen posible, gaur egun bezala, idazleen elkartea bat legeztatzea eta, bestalde, ez zuen egoki ikusten Euskaltzaindiak horrelako jardunaldi batzuk eratzea, udazkenean, Arantzazun, euskara batuari buruz Biltzar bat programatua baitzuen Akademiak berak. Gerediaga Elkartearren Zuzendaritzan onartu genuen eskaria eta Ermuko Eskola Profesionalean, ekainaren hondarrean egitea erabaki zen, bertako ordezkarri zen Agustín Aranberria izan zelarik lanik gehien egin zuena. Gerra ostean ez ziren Hegoaldean hainbeste idazle eta euskaltzale bildu, hasi Gabriel Arestirekin eta Pierre Lafitterekin buka, eta tartean erbestetarrik zeuden Txillardegi eta bestek beren txosten edo iradokizunak igorri zituztelarik. Euskara batuaren historian, Arantzazuko Biltzarra girotzeko eta prestatzeko ezinbesteko suertatu zen Ermua. Juanitoren iniziatiaberen ondorioa hau ere.

Arantzazuko Biltzar famatuaren arima ere Juanito izan zen. Bera zen, Euskaltzaindiaren idazkari legez, antolakizun burua. Orduko idazkarioorde –eta tradizioaren aurka euskaltzain oso– Alfonso Irigoienekin ez zituen harremanik hoherenak. Han egon ginen, Hospederiak kanpo, berak eskatuta, Sindikan, Iñaki Beobide eta biok, Juanitoren esanetara, laguntzaile huts gisa. Probintzia eta Oñatioko agintariekin harremanak, Antonio Arrueren laguntzaz – Gipuzkoa «eszepio legepean» zegoen 1968ko udazkean, mila arazo zaili aurrea ematen jakin zuen.

Arantzazukotik bi hilabete eskasera, Irigoien orduko idazkarioordea, dimititu eta Salamankako Unibertsitatera estudiatzera joan zen. Hara non datorridan Juanito, ezer abisatu gabe, Garaiko Udaletxera, proposamen hau egitera: «Euskaltzaindiak idazkarioorde barri bat hartu behar jok eta aurkeztu hadi, heu izango haiz nire kandidatua». Arrazoi ugari eman zizkidan. Bi euskaltzain urgazle aurkeztu ginen, Gabriel Aresti eta biok, biok Merkataritza ikasketadunak eta, Gabrielek gutun baten bidez uko egin zue nez gero, nire alde jarriaz, Baionako Euskal Museoan –non Euskaltzaindiak Urrezko Ezteiak ospatzentzutitzen– idazkarioorde izendatua izan nintzen 1969ko urtarrilean. Juanito izan zen eragile eta beragatik hartu nuen euskalgintzako lehen erakundeareki ko kudeaketa.

Aditz batuaren deklinabide, erakusle, onomastika eta beste araugintzaren lanen buru Villasante bazen ere eta gidari linguistikoa Mitxelena, idazkari zenetik Juanito zen hirukote akademikoaren triangeluaren beste ertzeta. Aditz batuaren II. Jardunaldiak 1972an hain erabakiorak, bere antolakizun buruzagitzapean egin ziren, bere argazki makinak «inmortalizatu» zituenak, nahiz eta argazkilaria Bitoriano Gandiaga nire «botillerua» izan. Arantzazutik hamar urtera, hurrengo Biltzarra Bergaran, Luis Eleizalde ren mendeurrenkarri, eratu zenean, Juanito izan zen antolakizun buru, ni idazkari. Ez dago esan beharrik, 1978ko biltzar hark gure hizkuntzaren estandarizazio garapenean berebiziko garrantzia izan zuela. Ez zen Debarroko hiri historiko horretan ere arazorik falta izan, ezusteko eta inork sortutakoak barne, baina San Martinek gainditu zituen.

1979an, Eusko Kontseilu Orokorreran, alegia, erakunde preautonomikoan hartu zuen karguagatik, idazkaritza akademikoa utzi beharrean aurkitu bazen ere, Euskaltzaindiko lanetara itzuli zen.

1995ean, Arartekotza utzi ondoren, berriz hasi zen Euskaltzaindian parte hartzen, baina kargurik gabe. Onomastikakoa izan da partaidetzarik oparoena azken urteotan eta horren lekuko naiz, batzordea sortu zenetik, 1972tik, lehen hogeita bost urtetan batzorde idatzari izan nintzelako. Azken zapta urteotan, beste bi batzordetan ere parte hartu du, Azkue Bibliotekakoan eta Argitalpenetakoan. *Onomasticon Vasconiae* bilduman *Eibar eta Elgetako toponomastika / Toponómistica de Eibar y Elgeta* liburuaren egile izan da eta *Eibarko hiri toponimia-ren bultzatzale*. Argitalpen batzordekide gisa *Euskera. Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala 1920-1979 urteen arteko aurkidibea / índice / index. Bilbo 1980*, liburuaren egile. Orobata, bera izan da Euskaltzaindiaren argitalpenen lehen *Katalogoa*-ren egilea, eta katalogo horretan begirada bat ematea aski da, bera zein-tsu libururen eragile izan den ohartzeko. Garrantzuuenak aipatzeko: gerra aurreko *Euskera agerkariaren berrargitalpena*, orobat R. M. Azkueren *Diccionario Vasco-español-francés*, *Euskalerriaren Yakintza, Iker* bildumaren hasiera, *Euskararen Liburu Zuria, Jagon* bildumaren sorrerako *Iparragirre* eta 1982ko bertsolari txapelketa.

Bertsolari txapelketaren liburua dela eta, gogoan dut, Jagon Sailburu izan zen urteetan, Euskaltzaindiaren babespean egin ziren bertsolari txapelketa nagusien antolakizun buru bera zela. Jakin nahiko nuke gaurko zenbat bertsolari eta bertsozalek dakin hori. Ezin, ordea, zerrendatu sailburutzera izan zuen urteetan zenbat egitasmo aurkeztu zituen, asko eta asko aurrera eraman gabe gelditu zirenak baliabiderik eta babesik ez zegoelako. Zenbatek ote du gogoan Juanito izan genuela Alfabetatze-Euskalduntze Batzordeen buru, Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren babespeko urte luzeetan, eta beraz, baita gaurko AEK elkartearena ere. Berak sinatu zuen 1981eko ekainaren 12an, Euskaltzaindiak Gasteizen duen Ordezkaritzan, AEKko arduradunekin «transferentzia» akordioa, AEK elkartea bereizi bezala legeztatzen zuena.

Jagon Sailaren baitan sortu zen 1977an, Oinarrizko Euskararen Batzordea, zeinetan Aita Imanol Berriatuak lan izugarria egin baitzuen. Hebraierazko «ulpan» dela-



koaren esperientziaz baliatu zen eta «euskaltegi» hitz baliokidea sortu eta euskaldunzte bide bat urratu. Egitasmoa onartu egin zuen Juanitok, Iberdueroren babesera lortu eta euskal expedizio bat joan zen Israelera. Ongi oroituko da bidaia horretaz oraingo Gipuzkoako Diputatu Nagusia.

Amaitzeko, hauxe esango nuke: XX. mendearen bigarren erdian, euskal kulturgintzan eragilerik izan bada, zalantzarik gabe lehen eragilea, eragilerik sutsuena Juan San Martin izan zela. Euskaltzaindiko karguetan ere Villasante, Mitxelena, Satrustegi eta gure artean dugun Jean Haritschelharrekin batera lehen lerroan.

Txosten honen bigarren partean haren bizitzako gainontzeko data, ekintza, partaidetza eta bibliografia ematen ditut, baina, gaurkoz, Euskaltzaindiarekiko lerro nagusiok irakurtzera mugatu naiz.

* * *

Juan San Martin 1922ko ekainaren 23an jaio zen, Eibarren. Han egin zituen biziaren lehenengo urteak, 1936an gerra piztu zen arte. Aita Valentziara joan zen Errepublikaren alde borroka egitera eta ama eta lau anai-arrebak ihesi ibili ziren Arratiako Arteagan, Gervasio Uria herriko alkateak utzitako etxean, Bilbon, Santanderren eta Ki-xoin. Bordelerantz itsasontziz zihoa zela, frankistek hartu zuten ontzia eta Ferrolera era-man zituzten San Martin eta bere senitartekoak. Azkenik, Eibarrera itzuli ziren.

Juan San Martin tornulari hasi zen lanean egunez, eta gauez, berriz, eskolara josten zen. Gazte-gaztetatik irakurketa-zaletasuna bizi-bizirik izan zuen eta horrek eman zion autodidakta oinarriaren heziketa. Euskaraz alfabetzeari ere, bere kasa ekin zion. Lanbide aldetik industria arloko zenbait espezialitateren esparruan aritu izan zen Eibarren eta, ondoren, makinaria importatzten zuten enpresetan lankidetza eskaini izan zuen, batez ere Bilboko Abando enpresa entzutetsuan.

Irakurle sutsua izan zen beti Juan San Martin, baita mendizale ere: mendian era guztietako praktikak egin zituen, hala nola mendigoizaletasuna, eskiak, eskalada eta espeleologia. Garai batez eskalada eta mendigoizale eskolako irakasle-gidaria izan zen, hain zuzen «Durangaldeko Eskalada Eskola» deitutako Atxarten. Aipatzekotan, Bulnesko Naranjo mendia igo zuela hiru bide desberdinatik, eta baita Pirinioetako zenbait mendi gailurrera igotzeko bide berriak urratzen aitzindari izan dugula. Europako mendi-ibilbide ugari eginak zituen eta baita Pirinioetako eta Alpeetako mendikate gehienak ere.

Eibarko Kirol klubean parte hartu izan zuen betidanik. Berton zenbait kargu izan zituen, eta besteak beste, buru izatera heldu zen. Klub barruan –gizarteratze mailan– zenbait arlotan banandu izanez ohiturari jarraikiz. Eta ohiturei jaramonik egin gabe kultura saila sortu zuen, bertako biblioteka garatu; honela, kirol ekintzen osagarri modura, berbaldiak, ikastaroak eta zenbait erakusketa antolatuz.

Larran San Martin leizera expedizio espeleologikoetan parte hartu izan zuen. Eta, horren ondorioz, lehenengo idazlanak mendiari buruz idatzi zituen: Eibarko Kirol Elkartearren aldizkarian eta *Pirenayca* agerkarian ere, gazteleraez hasieran, euskaraz ere bai, gerora. Hau guztiau lau kontuan izanik, 1955. urtean, Espaniako Mendi Federazioak zilarrezko domina eskaini zion.

Imanol Berriatuaren *Anaitasuna* eta Jokin Zaitegiren *Euzko Gogoa* izan ziren kultur gaiei buruzko bere lehen artikuluen plaza 1950eko hamarkadaren hasieran, eta ge-

roztik Euskal Herrian izan diren aldizkari gehienetan argitaratu du Juan San Martinek. *Egan* aldizkariko zuzendari izan zen 1983tik 1989ra. Eta zenbait urtez, Jon Bilbao jau-naren gidaritzapean, Eusko Bibliographia taldeko laguntzaile eta zuzendaritzako kide ere bai.

Euskal Herritik zehar ibili zaigunez gero, jarraiko gaiak landu zituen: historiau-rrea, linguistika, arteak, arkeologia eta etnografia. Honela ba, historiaurreko zenbait az-tarnategi –erromatarren garaikoak– eta artelan batzuk identifikatu egin zituen. Aldi be-rean, zenbait herri-kanta eta eskuz egindako lanen bilketa egin izan du.

Artikuluak ez ezik, poemak ere plazaratu zituen Juan San Martinek, batez ere *Euzko Gogoa*-n eta Santi Onaindiak zuzentzen zuen *Olerti* aldizkarian. Poesia lanetarako erabili zuen goitzena, *Otsalar*, erreferentzia garrantzitsua izan zen 1960. hamarkadako euskal poesigintzan. 2001ean, argitaratu zituen orduko poema gehienak, *Giro Gori* liburuan.

Bere lehen liburua aspaldikoa dugu. Juan Antonio Mogelen bizitzari eta obrari buruzko liburua kaleratu zuen 1959an, eta gero beste hainbat etorri ziren: umorea, li-teratura, artea, etnologia, hizkuntza... era guztietako alorrek landu baititu Juan San Martinek bere liburuetan.

Espainiako Trantsizio politikoaren garaian Arte Ederretako Kontseilari izendatu zuten. Bestetik, zenbait urtez, Donostiako San Telmo Museoko Zuzendaritzako kidea izan zen, baita Eibarko San Andres elizaren berriztatze-lanetan, Kontseiluko aholkulari ere.

Aranzadi Natur Zientziako Elkarteko kidea izan zen eta baita Euskalerriaren Adiskideen Elkartekoa ere. Euskal Idazleen Elkarteak eta Euskal Itzultziale, Zuzen-tzaile eta Interpretari Elkarteak, aldiz, ohorezko kide izendatu zuten Juan San Martin, elkarteko bion sorreran izan zuen partaidetzagatik.

36. Durangoko Liburu eta Disko Azokan, Durango merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkarteak 2001.eko «Durangoko Argizaiola» omen-saria eman zion. Aipatu bezala, Gerediaga Elkartearen baxkide ere izan zen, sortu eta hilabete batzueta, ez ba-karrik elkarte honi ematen zion garrantziagatik, baita ere gure eskualdeko ere nolabait sentitzen zelako, bere ama abadiñarra izan baitzen, Traña auzoko Topiñenekoa, hain zuzen, oker ez banago aitita Ortiz de Zarate arabarra lurrezko topingilea zelako. San-martindarrak beti ospatzten zuten amaren urteguna Abadiñoko Abarketeruena jatetxean.

Azkenik, azpimarratzeko da 2001. urtean, Eibarko Udalak, Udako Euskal Uni-bertsitatearen laguntzarekin, «Juan San Martin» beka sortu zuela, ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko. Beka honen irabaz-lea Patxi Salaberri euskaltzaina izan zen, lehenbiziko deialdian.

SARIAK, OMENALDIAK

- Espainiako Mendi Federazioak zilarrezko domina eman zion 1955ean.
- Baionako Euskal Idazleen Entitateak Lauaxeta saria eman zion 1964. urtean.
- Euskal Idazleen Elkarteak ohorezko kide izendatu zuen.

- Euskal Itzultzaitzaile, Zuzentzaile eta Interpretari Elkarteak ohorezko kide izendatu zuen.
- 2001. urtean, Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin, «Juan San Martin» beka sortu zuen, ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko.
- 36. Durangoko Liburu eta Disko Azokan, Durango merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkarteak 2001.eko «Durangoko Argizaiola» omen-saria eman zion.
- 2002ko ekainaren 3an, Bilboko Liburu Azokak Urrezko Luma eman zion.
- 2003ko urrian, Koldo Mitxelena Kulturuneak bere omenezko jardunaldiak antolatu zituen, *Konpromisoa eta lekukotza euskal kulturaren zerbitzura izenburu*rean.
- 2003ko abenduan, Hondarribiko urrezko domina eman zioten eta seme kuttun izendatu.
- 2004ko ekainean, Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak, *Humanitate, Kultur, Arte eta Gizarte Zientzien* 2004ko saria eman zioten.
- 2004ko abuztuan, Zuloaga Museoak omendu zuen.
- 2005eko maiatzean, Eibarko «seme kuttuna» izendatu zuten.

ARGITARATURIKO LIBURUAK ETA ARTIKULUAK

Euskaraz

- *Juan Antonio Moguel eta Urkitza: bere bizitza ta lanak*. Euskaltzaindiaren ardurapean. Zarautz: Itxaropena, 1959.
- *Zirikadak*. (Ipuin barregarridun liburua.) Zarautz: Itxaropena, 1960.
- *Zirikadak*. Donostia: Elkar, 1984.
- *Eztenkadak*. Zarautz, 1965
- *Uhin berri*. 1964-1969 bilduma, 1. zenb. Donostia: Sociedad Gipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969.
- *Euskeraren inguruan*. Saiakera. Donostia: Lur, 1980.
- *Hegatsez* (Serafin Basaurirekin elkarlanean.) Zarautz: Itxaropena, 1971.
- «*Euskal Artea*» (Lur eta gizon entziklopedia liburukan.) Oñati, 1974.
- *Literaturaren inguruan*. Saiakera. Donostia: Lur, 1980.
- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) 1920-1979 urteen arteko agerkarietan azaltzen diren egile eta gaien «Aurkibidea/Índice/Index». Bilbo, 1980.

- Bestalde, aipatu Euskera agerkarian beste hainbat eta hainbat txosten idatzi ditu Biltzar, Jardunaldi eta hileroko batzarretan, adibidez Hilberri esparruan.
- *Erromanikoa Euskal Herrian*. Donostia: Gordailu, 1983.
- *Landuz: gure Herriko gauzak. Cosas de nuestro país*. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1983.
- *Jose Manterola*. Donostia: Udal Euskara Batzordea, 1985.
- Euskararen ostarteak. Donostia: Erein, 1998.
- *J.M. Iparragirre in José María Iparraguirre. Erro-urratsak. Raíz y viento. Bigarren liburukia, 87-94.* orr. Bilbo, Keinu, 1999.
- «*Txillardegiren bibliografía*». Azkue Biblioteka 912 (460.154) (0:77)
- *Euskera (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala)* Gabriel Areistik beste hizkuntzetatik egin zituen poesi itzulpenak». 535-539 orr., Bilbo, 1985.

Kolaborazioak

- *Bitoriano Gandiaga eta Mendata*, «*Bitoriano Gandiagaren oroitzapenez*». 153-160 orr., «Mendata» bilduma, 2. Mendatako Udala, Mendata (Bizkaia), 2001.
- *Antzinatik gaur egunera*. Hondarribia (Inprimategian)
- *1865 kopla zaharrak*. J.M. Lekuona, J.I. Lopez de Luzuriaga, Antxon Narbaitza. Hitzaurrea, Juan San Martin. Eibar: Ego Ibarra, 1992.
- *Heriotza Euskal Herrian*. Alberto Agirreazaldegi. Juan San Martin-en hitzaurrea. Donostia: Kriselu, 1998.
- *Baigorriko zazpi liliak*. Jean Duvoisin. Juan San Martin-en edizio prestaketa eta aitzin-solasoa. Donostia: Elkar, 1987.
- *Euskera (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala)* 1963-1964; 1965-1966. Etxebarria, Toribio: «Flexiones verbales y lección del euskera dialectal de Eibar». Aurrezpena, Juan San Martin. Bilbo: Euskaltzaindia, 1986.
- *Hiru katakume kezkatia*. Juan San Martinek euskeratua. Zalla: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969. (Abere alaiak, 4).
- *Kurrin txirrikumea eta bere jaia*. Juan San Martinek euskeratua. Zalla: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.
- *Estudio etnográfico del Valle de Urrault Alto* (Luis Peña Santigorekin elkarlanean). Munibe, 1966, XVIII, 69-159.
- *Escritores euskéricos del Duranguesado*. Gerediaga 4-5, 1966.
- *Ataduras de noche y arena-Hondar eta gauezko loturak*. Félix Maraña. Hitzaurrea, Juan San Martin, L. Haranburu. Donostia, 1980.

- *Meendiño* (Homenaxe a Meendiño). Edición e notas de Xesús Alonso Monteiro. Juan San Martinek euskeratua. Vigo: Colexio Universitario, Universidade de Santiago, 1982.
- *Peru Abarka*. Mogel, Juan Antonio (1745-1804). Resurrecion Maria Azkuek pairatutako edizio elebiduna. Juan San Martinen hitzaurrea, bigarren eta hirugarren edizioetan.
- *Monografía histórica de la villa de Eibar*. Gregorio Mujika. Juan San Martinen hitzaurrea. Eibar: Eibarko Udala, 1984.
- *Montañas guipuzcoanas*. Juan San Martinen kolaborazioa. Zarauz: Itxaropena, 1957.
- *Piru ahatetxoa*. Juan San Martinek euskeratua. Zalla: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.
- *Argazkiak-Fotografías*: Gipuzkoa-Donostia. Juan San Martinen hitzaurrekoak. Donostia: Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1986-1990.
- *Ezti-tantak: olerkiak. Sagartzazu'tar Kauldi Sataarka*. Aurkezpena, Juan San Martin. Donostia: Elkar, 1996.
- *Salbatore Mitxelena*. Oñate: Ed. Franciscana, Arantzazu, 1970, 2.
- *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker 2: «Arraten sortzen da bizitza». Bilbo: Euskaltzaindia, 1983.
- *El damasquinado de Eibar*. Juan San Martin, Ramiro Larrañaga, Pedro Celaya. Eibar, 1981.
- *Federico Krutwig-i omenaldia*, Iker 10: «Gure amagandiko Gabon kantak». Bilbo: Euskaltzaindia, 1997.
- *Ulibarri Galindez, Jose Paulo*. Jose Paulo Ulibarri Galindez-en Gutunliburua izeneko eskuizkribuaren facsimil gisako argitalpena. Arabako Diputazioaren Kultur Biltzarra Okondoko idazleen gorazarretan, haren sortzearen berrehun urteurrenean. Gasteizen, 1975.eko abuztuan: «Agurra». Vitoria-Gasteiz: Consejo de Cultura de la Diputación Foral de Alava, 1975.
- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) «Axularren omenez Euskaltzaindiak Urdazubin egindako batzarrea». L. Villasante, J. Haritschelhar. Bilbao: Euskaltzaindia, 1975. (Juan San Martinen Euskaltzaindian sartzea, 20. liburukia. Bilbo, 1975).
- *El escultor Juan de Anchieta*. Jose Camón Aznar, Juan San Martinen hitzaurrea. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1990.
- *Jaqin-bide iritarrautia Espaniako neurquidaren,edo constitucio berriaren era-ra adrezatua, erritarren arguidorarako, gazteen icasbiderako, eta escola-mai-suen usorako / erderatic eusquerara itzulidu Apez Vicario J.F.A. guipuztarrac. Catecismo político. Euskara*. Gasteiz: Ararteko, 1991. Argitalpenaren arduraduna, Juan San Martin.

- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) «Luis Villasante Kortabitarte (1920-2000).
- «Léxico del estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue in R.M. Azkue». *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbo, Euskaltzaindia, 1984.

Argitalpen elebidunak

- *Gozog: gure herriko gauzak /cosas de nuestro país*. 1978
- *Dichos y hechos/Esanak eta eginak*. Vitoria-Gasteiz. Ararteko, 1994.
- *Eibar eta Elgetako Toponomastika/Topónomastica de Eibar y Elgeta*. «Onomasticon Vasconiae» bilduma, 21. liburukia. Eibar eta Elgetako Udalak-Euskaltzaindia. Bilbo, 2000.
- *Giza eskubideen inguruan/ En torno a los Derechos Humanos*. Donostia: Elkarlanean, 2000.
- *Hondarribiko Andre María Jasokundekoa: historia, arkitektura eta artea/ Santa María de la Asunción de Hondarribia: historia, arquitectura y arte*. Gipuzkoako Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua. «Ondare» bilduma. Donostia, 1998.
- *Hitzaurrea in Argazkiak/Fotografías*. Argitalpen eta Publikapen Gipuzkoar Erakundea 1986-1990. Donostia, 1986.
- Euskadi. Ararteko. «*Eusko Legebiltzarri txosten berezia 1992-1993/Ararteko*» Gasteiz: Eusko Legebiltzarra/Parlamento Vasco. Gasteiz, 1990, 1992, 1993, 1994.
- Euskadi. Ararteko. «*Psikiatrikoak: ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera/Los psiquiátricos: situación de los enfermos mentales en los hospitales psiquiátricos*». Gasteiz, 1992.
- *Aintzinako Eibar: etnografia gaiak/Temas de etnografía del antiguo Eibar*. Eibar: Ego Ibarra, 1993.
- *Bidez: gure Herriko gauzak/Cosas de nuestro País*. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1978.
- *Landuz: gure Herriko gauzak/Cosas de nuestro País*. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1983.
- *Giro gori. Juan San Martin*, «Otsalar». Leioa: Argitarapen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1998.

Gaztelaniaz

- *Escritores euskéricos* («Catálogo bio-bibliográfico de escritores contemporáneos en vascuence»). Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.

- *Elgueta con Anguiozar y Ubera*. Donostia: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastian, 1975.
- *Eibar. Diccionario Enciclopédico Vasco*. Auñamendi, X. Liburukia, 180-272 orr. Donostia, 1979.
- «Existe-t-il un art basque?» In *Etre basque entziklopedia*, 311-149. orr. Tolouse, 1983.
- «¿Existe un arte vasco?» In *Ser vasco*, 311-156 orr. Bilbo, 1986.
- «Las artes del Pueblo Vasco» in *Euskalerria*. Bartzelona, 1987.
- *Los Zuluaga: dinastía de artistas vascos*. «El pintor Ignacio Zuluaga», V. Kaititlakua, 195-277. Donostia: Ramón Suárez Zuluaga, Zuloaga, Museo Zuluaga, 1988.
- *Viaje por el país de los recuerdos*. Toribio Echevarría. Juan San Martinen hitzaurrea. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia, 1990.
- *Apéndice a escritores euskéricos: correcciones y adiciones a la primera edición*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.
- «Cornuz: notas sobre término y nobleza». Donostia: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 1988, 525-532 orr. Ondokoaren separata: *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. Año 44, cuadernos 3-4.
- «Don Carmelo de Echegaray: su aportación a la literatura en vascuence» in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*. Año 41, cuadernos 1-2. Donostia: Euskalderriaren Adiskideen Elkartea, 1985.
- *Julio Beobide* (Biblioteca: pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana; v. 23, fasc. 246) Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1973.
- «Luis Pedro Peña en las investigaciones etnográficas: tiempo de recuerdo», in *Bidasoako Ikaskuntzen aldizkaria/Boletín de Estudios del Bidasoa/Revue d'études de la Bidassoa*. Irun: Luis de Urquiza Kultur Taldea, 1996.
- «Ofizio eta tituludun etxe izenak Hondarribian» in *Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria...* Irun, 1997.
- «Paleolitos garaiko aztarnak Hondarribian» in *Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria...* Irun, 1999.
- «Vocabulario euskaro adicional del padre Esteban de Adoain» in *Fontes Linguæ Vasconum Studia et Documenta*. Iruñea, Aranzadi, 1977.

Donostia, 2006-I-27

J.L. Lizundia

PATXI ONDARRA ERDOZIA: BIZITZA ETA LANAK (1925-2005)

Sakanako Bakaiku herrian jaio zen 1925eko maiatzaren 19an. Feliziano Ondarra eta Maria Erdozia, bere gurasoak ere bakaikuarrok ziren. Izaan zituzten sei seme-alaben artean Patxi zen zaharrena.

1937an, 12 urte zituelarik eta Espainiako Gerra Zibila puri-purian zegoela, sartu zen Kaputxinoek Altsasun duten seminarioan, eta, garai hartako bere ikaskide batek jakinaz digunez, karlisten umeek eraman ohi zuten *pelayo* trajez jantzia agertu omen zen.

Apaiz ikasketak burutu arte ikas ibilbide hau egin zuen: Altsasun Humanitate ikasketako bost urteak, Hondarribian Filosofiako bi lehenbizioak, ondoren Zangozan nobiziadu urtea, handik Lizarrara joan zen Filosofiako hirugarrena eta Teologiako lehendabizikoa egitera, eta azkenik Iruñean amaitu zituen Teologiako hiru hurrengoak. 1949ko abenduan apaiztu eta meza berria Altsasuko komentuan eman zuen Eguberri aurretik.

Hasiera-hasieratik nabaritu omen zitzzion historia eta hizkuntzak ikasteko joera berezia. Euskaraz gain latina, greziera, frantsesa eta alemana ikasi zituen eta bere kabuz eskatzen zuten baino maila altuagoa lortzen saiatzen omen zen eta, Teología egiten aritu zen urteetan, hebreera ere nahiko ongi ikasi omen zuen. Hala aitortzen du berak, meza eman eta hurrengo urtean Kaputxinoen Probintzialak igorritako gutun baten erantzunean:

«en Pamplona estudié mucho hebreo y leí casi sin diccionario los libros históricos. Leí el Pentateuco, Josué, Jueces, Samuel, Reyes, etc. Aspiraba a traducir con el tiempo la Biblia de las lenguas originales al vascuence... En cuanto al griego, he leído casi todo el Nuevo Testamento. El alemán, una de las lenguas más necesarias en punto a Escritura, me parece que lo entiendo con bastante facilidad. Vascuence también he estudiado mucho, aparte de ser mi lengua materna. Mi centro está aquí.»

Zergatik adierazten zion bere lekua hemen zegoela? Bada, Probintzialak Txilera joateko proposamena egin ziolako eta Patxik bere burua zertarako ikusten zuen gai eta zertarako ez jakinarazteaz gain, guztiaren gainetik hemen geratu nahi zuelako. Badaezpada ere, Probintzialak zalantza izpirik izan ez zezan edo, honela laburbildu zuen erantzun gutun hori:

«en resumen, yo no me siento ni con aptitudes, ni con entusiasmo para los ministerios a los que me destinan y, en consecuencia, desearía no contasen con un servidor.»

Hala ere, Probintzialak tinko eutsi zion bere proposamenari eta Patxik hurrengo gutun batean honela erantzun zion:

«Me dice que acepte sin titubeos mi destino. Digo, pues, que me resigno, nada más, a ir a Chile. No siento ninguna ilusión por ir allá. Si voy, será únicamente porque me mandan (1).»

Hamahiru urtez aritu zen Santiago hiriburutik 25 kilometrora dagoen Paine ize-neko hirian kaputxinoek zeukaten seminario txikian irakasle, hizkuntza irakasle batik bat; baina, aldi berean, batere bere gustuko ez ziren zenbait ardura ere hartu behar izan zituen ikastetxe harten, bertzeak bertze, ikasketaburu izan baitzen zazpi urtez eta zu-zendariorde eta diziplina prefektu bertze hiru urtez. Hala ere, Txilen emandako urte haiek aprobetxatu zituen ingelesa ikasteko, eta maila ona lortu zuen nonbait, Michigan Unibertsitateko Proficiency in English titulua eskuratu baitzuen 1961ean.

1964an, hamahiru urte jarraituak han egin ondoren, merezitako oporrak hartu eta hona etortzeko aprobetxatu zuen. Hasiera batean oporraldi garai horretan bere familia bisitatzaera eterri bazeen ere, behin betiko hemen gelditu zen.

Hurrengo hiru urteetan Tuteran eta Zangozan aritu zen irakasle, eta bertze bi urtez Donostian. Azken hiri honetan bere ama hizkuntza sakontzen hasteko aukera ona izanagatik, urte bat geroago, 1968an –apaiztu zenetik 19 urte pasatu ondoren–, Lekarozera igorri zutenean, hasi zitzaion Patxi Ondarrari bere betiko asmo eta ametsak ase-tekiko bidea irekitzen. Orduan bai erran ahal izan zuen «mi centro está aquí». Emeten duenez, oraingo honetan aurkitu zuen leku eta gune aproposa bera gai sentitzen zen lanetan murgiltzeko, ikasten segitzeko eta ikerketan trebatzen hasteko. Lekarozko komentua, euskal kulturarekin lotura handikoa izateaz gain, zenbait euskaltzainen bizileku ere izan baitzen, bertzeak bertze, Damaso Intzakoa eta Polikarpo Iraizozkoa eukaltzain osoena eta Arrigarai, Eusebio Etxalarkoa, Aurelio Etxarri Aranazkoa eta Jurgi Errezungoa urgazleena. 19 urte lehenago Biblia euskaratzeko asmoak urrutixko gelditu zitzaizkion nonbait eta Lekarozko ikastetxean, irakasle aritzearrekin batera, alor berriak jorratzen hasi zen. Euskararen ikerketarako bere burua hobeki jantzi nahian, UNEDn matrikulatu eta lau urteren buruan, 1980an, 55 urte zituela, filologian lizen-tziatura lortu zuen.

Ikasketa hauet amaitzean zituela izendatu zuten euskaltzain urgazle, 1979ko abenduaren 20an, eta zazpi hilabete geroago, 1980ko uztailaren 31n, euskaltzain oso, Jose Mari Satrustegi, Jean Haritschelhar eta Henrike Knörr euskaltzainek proposatuta, bertze kaputxino batek, Aita Polikarpo Iraizozkoak, hutsik utzitako aulkia betetzeko. Sa-rerra ekitaldia Altsasuko kaputxinoen komentuan egin zen, 1981eko martxoaren 22an, eta hitzaldian «Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena» izen-buruko gaia garatu zuen. Erantzule J. M. Satrustegi izan zen.

25 urte egin zituen Patxik Lekarozen, baina fraideek ikastetxe hura Nafarroako Gobernuari saldu ziotenetik, bakaikuarrak Iruñera joan nahi izan eta 1993az ge-roztik bere azkeneko 12 urteak, Altsasun egindako egonaldi batzuk salbu, Iruñeko San Pedro auzoko kaputxinoen komentuan pasatu zituen. Urte hauetan buru-belerri aritu zen ikerketa lanetan eta, bere bibliografian ikusten ahal den bezala, euskarazko testuak argitaratzea izan zuen ia-ia helburu bakarra, idatzi zituen liburu gehienak eta artikulu franko garai honetakoak baitira.

(1) Informazio hau eta bertze zenbait datu eskura jarri dizkigun *Tarsicio de Azcona* izene-ko kaputxinoari eskerrak eman nahi dizkiogu.

Patxi Ondarraren lanak

Aipatu dugu Lekarozeren hasi zela alor berriak lantzen, eta hilberri txosten honekin batera argitara eman dugun haren bibliografian ikusten ahalko den bezala, nahiz eta bertze zenbait gai ere landu, bi izan ziren gehien jorratu zituenak: Arkeologia (Megalitika bereziki) eta Euskara.

1. Megalitika

Patxi, alde batetik, pertsona isila, langilea eta gauza guztiei zuhurki erreparatzen ziena zen; eta bertzetik, beti agertu izan zuen naturarekiko maitasuna eta mendizaletsuna. Bere jai eta opor egunetako atseden eta gozamenik handiena mendian ibilbide luzeak egitea izaten zen, zer ikusi eta ikasi, zer berri aurkitu bere fitxategia osatzen joateko. Mendizale ibiltari nekaezin honek, bai Baztandik hasi eta Bertizarana, Malerreka, Bortzerrriak, Artesiaga, Kintoa, Lantz, Belate, Ultzama, Anue... eremuetako bidexka eta xoko guztiak, bai bere sorterri inguruko Aralar, Urbasa, Altzania, Lizarrusti... mendietakoak ere, pausoaz pauso ezagutzen zituen eta trikuharri, oroitarri, mugarrirri, monolito, cromlech, tumulu... ugari aurkitu zituen. Nafarroan urte haietan megalitikan aditu zirenekin harremanak izan zituen, bertzeak bertze, Tomas López Sellés jaunarekin eta, hain zuen ere, 1977an López Sellés zenu zenean, Nafarroako Foru Diputazioak *Príncipe de Viana Erakundearen Indusketa eta Arkeología batzordekide* berria Patxi Ondarra izendatu zuen.



Alor honetan egindako aurkikuntzen lekuko dira aldizkari espezializatuetan argitara eman zituen zenbait artikulu, bost *Príncipe de Viana* eta hiruna *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, *Trabajos de Arqueología de Navarra* eta *KOBIEn*. Guztien gainetik aipagarria, izan duen oihartzunagatik, 1973an Bartzango Soalar men-

dian aurkitu eta izen hori daraman menhir neolitikoa, 4 metro eta 30 centimetroko altuera, 3'5 tona, eta gizon eta emakumearen grabatuak dituena. Orain Elizondoko J. Oteitzeta Etnografia Museoan dago ikusgai.

2. Euskara

Euskaltzain izendatu berri hartin egin zitzzion elkarrizketa batean zioen euskal gauzatarako izugarrizko grina izan zuela beti eta, euskalduna eta nafarra zen aldetik, bere xede nagusia Nafarroako euskalduntasunaren erakusketa egitea zela, alegia, Nafarroan non, noiz eta nola hitz egiten zen ezagutzera ematea ondoren hartu beharreko erabakiak hartzeko.

Argitara eman dituen lanak hiru atal nagusitan sailkatzen ahal dira: a) Joakin Lizarraga, b) Aita Polikarpo Iraizozkoa eta c) euskal testuak.

- a) Joakin Lizarraga Elkanokoa. Lekarozko hasierako urteetan Megalitikan mur-gildu bazen ere, ikusten ahal da berehala ekin ziela euskararen inguruko gaiei eta hauen artean lehendabizikoak *Fontes* aldizkarian argitara emandako «Producción literaria de Joaquín Lizarraga» (1972), «La Escuela de gramática de Joaquín Lizarraga, en Elcano» (1978) eta «Joaquín Lizarraga en el Diccionario de Azkue» (1980) izan ziren. Berehala etorri ziren hurrenez hurren lan mardulagoak, Elkanokoari buruz idatzi zituen liburuak, *Ongui iltzen laguntzeko itzgaiac* eta *Urteko igande guzietarako prediku laburrak*, Euskaltzaindiaren Euskararen Lekukoak bildumaren 10. eta 16. aleak, eta *Jesukristo, María eta Santuen Bizitzak*, Juan Apechearekin batera prestatu eta Nafarroako Gobernuak argitaratua. Bazuen oraindik material gehiago eta bere azken egunak arte ari-tu zen prestatzen Elkanokoaz laugarren liburua izatea espero duguna, *De Decalogeo* eta *Aitagurean azalpena* izenburukoa.
- b) Aita Polikarpo. Euskaltzaindiko aulkian ordezkatu zuen Iraizozkoaz ere lan ugari utzi dizkigu. *Euskera* aldizkarian lau artikulu, horietako bat sarrera hitzaldian garatu zuen gaia eta bertze bat Iraizotz herrian 1997an Euskaltzaindiak ospatu zuen Aita Polikarporen mendeurrenean azaldu zuen txostena «Aita Polikarpo Iraizozkoaren bizitza eta obrak» izenekoa. Mendeurren honen ondorioz, Euskaltzaindiak proposatuta, Nafarroako Gobernuak hiru liburutan eman zituen argitara Iraizozkoaren lanak, *Hitz neuritzko lanak* batean eta *Hitz lauzko lanak* bertze bitan, hirurak Patxi Ondarrak prestatuak.
- c) Euskal testuak. Aipatutako bi egile horien liburuez gain, *Karmelen* bertze bat ere idatzi zuen, Arakistain eta Zuzaeta karmeldarren idazlanak biltzen dituena. Baino gehiago dira artikulu modura argitara eman zituen testuak, Nafarroakoak eta XVIII-XIX. mendekoak batik bat, *ASJU, Euskera, Fontes* eta bertze aldizkari batzueta, baita euskaltzainei egindako zenbait omenaldi liburutan ere ageri direnak. Kontuan izanik testu horien lekukotasun geografikoak, hala nola, Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Bidasoa Beherea, Eguesibar, Txulapain, Itzarbeibar, Oltza, Olloibar, Iguzkitza, Goñerri, etab. direla, oso material interesgarria da Nafarroako euskara ikertu eta ezagutzeko. Iñaki Caminok orain dela urte pare bat argitaratutako *Hego-nafarrera* liburuan dio On-

darra euskaltzainaren ikerketak baliabide paregabea izan direla Goñerriko euskaraz fruitu gehiago lortu ahal izateko.

Euskaltzaindian izandako ardura

Hiru batzordetan aritu zen batik bat:

1. Dialektologia. Batzorde honetan sarrera hitzaldia egin zuen urte beretik hasi eta hamabi urtez aritu zen; horietako hamarretan, 1981-1987 eta 1989-1993 bitartean, batzordeburu izan zen, eta bertze bitan, 1987-1989, buruorde. Batzorde arduraz gain *Maileguzko hitz berrien* azpibatzordean eta *Lexiko Irizpideen Finkatze lanetan* parte hartze zuzena izan zuen, baita Dialektologiarako Nafarroan egin ziren inkestetan ere. Hiztegia biltzeko zuen zaletasunaz jabetzeko aski da bere lanak ikustea. Adierazgarria da 1965ean argitara eman zuen bere lehendabiziko lana *Voces vascas de Bacaicoa* izan zela eta 40 urteren buruan inprimategira eraman zuen azkenekoa lan hura osatua izan zela, oraingoan euskaraz emana, *Bakaikuko euskal hitzak, esaerak etab.* izenekoa. Lan hau da, hain zuzen, *Fontes* aldizkariaren 100. alean plazaratu berri dena eta Patxi Salaberrik, aldizkari horren zuzendari eta bakaikuarrar Euskaltzaindian ordezkatu duenak, gaurko osoko bilkuraren eskura eman diguna.
2. Gramatika. Batzorde honetako kide bertze hamabi urtez izan da, 1993an Dialektologiakoa utzi zuenetik bere azken eguna arte. Batzordeko idazkariak jakinarazi digunez, Patxi Ondarrak eginbehar guztiak zintzoki betetzeaz gain, oso gustuko zuen *EGLUko* materialetan gramatika-fenomeno bitxi samarrak aztertzen zirenean bereziki, berak prestatu eta argitara eman zituen Nafarroako hainbertze testutatik jaso zituen lekukotasunak proposatzea.
3. Onomastika. Batzorde hau 1983an eratu baino lehenago osatu zen behin-behineko *Herri Izendegia* lantaldeko kide izan zen. 2001az geroztik, berak hala eskatuta, kide-aholkulari genuen. Atal honetan hurbilagotik ezagutu nuen, Euskaltzaindiko bileretarako joan-otorriean gai honen inguruan aritzen baikinen solasean erregularki. Gustuko zuen. Lekarozten egon zenean datu asko bildu zituen; ongi miatu zuen Bartzango udal artxiboan. Lan horren lekuko dugu, erraterako, 1984an argitara eman zuen «Apeo de Bartzan», Bartzango XVIII. mendeko etxe izenen dokumentua; eta artxibo hartan egin zuen lanaren lekuko izan nintzen ni neu orain dela hogeい bat urte, tesia egiten ari nintzela jakin zuenean, Malerreka inguruko datuak bildurik zituen lauzpabost karpeta eman zizkidanean, eta berriro joan den uzailean, bere azken egunetan, Paskual Rekalderi eta bioi iritsarazi zigunean artxibo beretik hartuak zituen gainerako materialak, Bartzango herriei dagozkienak batik bat.

Erran beharrik ez dago zein zehatza zen, bai agirietatik hartzen zituen datuak biltzean, bai bere mendi ibilaldietan entzuten zituen forma biziak jasotzean. Bere ustez oker jarriak ziren zenbait izenen salaketa egin zuen; erraterako, arkeologoek *Abauntz* izenarekin bataiatu zuten Arraizko kobazuloa *Lamiñzulo* zela zioen; Aralar mendian Atlantiko eta Mediterraneorako urak banantzen diren puntuaren dagoen trikuharria, J. M. Barandiaranek, Ataungo ahoskeraren arabera, *Argonitz* izendatu zuena *Arginarotz* dela; eta Barandiaranek *Mairarreta* izenaz bataiatutako Arraiozko trikuharria, Bartzango dokumentazioaren arabera *Mairuilarrieta* dela.

Euskaltzain nafarra

Nafarroan euskararen arrastoak aurkitzen aritzeak liluratzten zuen Patxi eta, gora-go aipatu dugun bezala, euskalduna eta nafarra zen aldetik, euskaltzain izendatzean bere buruari jarri zion helburu nagusia Nafarroako euskalduntasun historikoa erakus-tea zen, non eta noiz hitz egiten zen eta nolakoa zen euskara hori, horren ondorioz eus-kara baturako behar ziren erabakiak hartzeko.

Aipatu ere egin dugu, azkeneko bospasei urteetan Euskaltzaindiko bileretarako joan-erriretan ordu franko egin genituela elkarrekin eta egiaztatzen ahal dugu bere kezka na-gusiak euskararen egungo egoera eta etorkizuna zirela, baina Nafarroako ikuspuntutik. Bertze modu batera errateko, bere kezkak euskara batua eta euskara Nafarroan ziren. Per-tsona isila, hitz gutikoa baina zehatza, behar baino gehiago hitz bat ere egiten ez zuena, eta hitz bat bertzea baino altuago ere ahoskatzen ez zuena. Hala ere, ohi ez bezala, era-bat asaldatua eta haserre bizian mintzatzen ikusi izan nuen pare bat aldiz. Behin, euska-raren munduaren barrenetik batuari buruzko kritika gogorrak plazaratzen ziren batean, hiz-kuntza berria, asmatua, artifiziala, Martekoak, etab. zela zioten zenbait adierazpen eta iritzi kritiko zirela eta; bertze batean, Nafarroan azkeneko 30-40 urte hauetan loratzen ari den hizkuntza itotzeko hartu ziren neurri gogorrak ikusita eta, bereziki, bertako hizkuntza pro-pioari egunkarietako iritzi artikuluek erakusten zioten errespeturik ezak minduta.

Patxi Ondarra, izateko moduagatik, ez zen bere burua inola ere agerian jartzen zutenetakoa; hala ere, euskararekiko zuen kontzientzia eta konpromiso pertsonalak behin edo bertze bulkatu zuen nafar gizartearren aurrean aurpegia ateratzena. *Lingua na-varrorum* inoiz ez zela nafarren hizkuntza izan, nafar batzuena baizik, eta *Nafarroa, Euskal Herria* eta *Vasconia* izenak nazionalisten asmakizun berriak bertzerik ez zirela zioten artikulu egileen aurrean agertu zuen bere iritzia. Datu zehatz eta ongi dokumentatuak emateaz gain, bazekien ironia puntu bat ere erabiltzen bere erantzunetan. Adibidez, horietako batean, *Lingua navarrorum* artikuluaren egileari «un incansable soldado de la pluma» deitzen dio, eta *Nafarroa, Vasconia* eta *Euskal Herria* izenez ari den batean, hainbat aipu historiko eman ondoren, erraten du bere azkeneko kontsulta bibliografikoa Nafarroako Kutxak 1990ean 11 liburukitan argitarra emandako *Gran Encyclopédia navarra* obra izan zela, eta, aurkitutakoa ikusi ondoren, iruzkin honekin ematen dio amaiera artikuluarit:

«*Vasconia* es un banco y *Euskal Herria* no tiene entrada: no ha existido nunca.»

Patxi Ondarra, eroriko batek eragindako zaurien ondorioz, 2005eko uztailaren 30ean hil zen, euskaltzain oso zeneko 25 urte bete behar zituen bezperan, hain zuzen. Isil-isilik, bizi izan zen bezalaxe, eta, itxuraz, ustekabeen joan zitzagun. Berarentzat, ordea, azken ordu hori ez zen ustekabekoa eta bat-batekoa izan. Zendu zenean kontu-ratu nintzen hilabete batzuk lehenagotik erabat jabetua zegoela bere amaiaren hur-biltasunaz, adierazgarriak izan baitziren bere bizitzaren hondarreko hilabeteetako biz-pahiru gertakari. Azkenaldian, Euskaltzaindiaren osoko bilkuretarra joaten ez zenean, erregularki igortzen zidan bere ahala posta elektronikoaz, baina joan den ekainean, ko-mentuko eritegira eraman ondotik, Gema Iruñeko ordezkaritzako bulegariari deitu zion komentura joateko eskatuz. Niri zuzendutako eskutitz azalaren barruko paperak zera zioen «Andres Iñgori beti nire ahala. Sinatura P. Ondarra». Uztalean gisa bereko deia jaso zuen Gemak. Azken honetan lehen aipatu dudan Baztango artxiboa jasotako ma-terialaren zenbait karpeta emateko. Oraindik adierazgarriagoa da kaputxinoek bere ge-

lan aurkitu zuten paper bat, antza denez, eritegira joan aurretik, martxoan edo apirilean, idatzia utzi zuena. Bertan, zehatz-mehatz ematen du aditzera zer lan zituen eginak edo amaitzeko puntuak, bere gelako zein karpeta eta apaletan zegoen horietako bakoitza eta zein pasahitz edo klaberri emanda aurkitzen ahal ziren bere ordenagailuan (2). Argi adierazi nahi izan zuen nonbait, depresioak jota komentuko eritegian sartu zenean, ez zuela bere burua gai ikusten ez Euskaltzaindiko bilkuretarra etortzeko, ez lanean segitzeko. Nolabait errateko, testamentu baten modura utzi zuen idatzirik esku artean zituen lan eta arduren berri.

Lehenago aipatu dugu euskaltzain izendatu berri harten, euskalduna eta nafarra zen aldetik, zertan saiatu nahi zuen argi eta garbi adierazi zuela. 25 urteen buruan, bere bizitzaren helmugan, Patxi Ondarra langile nekaezinak uzta oparoa utzi dio euskarari eta Nafarroari. Uzta baliagarria Euskaltzaindiaren lanetarako eta kultura ekarpen interesgarria Nafarroarentzat, bai historiaurreko megalitika aurkikuntzengatik, bai paper zahar ez-kutatuetatik aterata ezagutzera eman dituen bertako hizkuntzaren ezaugarriengatik. Espero dezagun merezimendu horiek balioztatuak ikustea eta espero dezagun, halaber, Nafarroako *Entziklopedia* hori berrargitaratzen denean, *Vasconia* eta *Euskal Herria* izenen sarrerak agertzea, eta hauek agertuko ez balira ere, *Ondarra Erdozia, Patxi sarrera berria ikustea*, Nafarroaren alde egin duen lanaren errekonozimenduaren seinale.

BIBLIOGRAFIA

Laburdurak

ASJU = *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo».*

BIA/BEB = *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria / Boletín de Estudios del Bidasoa*.

BRSVAP = *Boletín de la Real Sociedad Vasca de Amigos del País*.

CEEN = *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*.

FLV = *Fontes Linguae Vasconum, studia et documenta*.

PV = *Príncipe de Viana*.

TAN = *Trabajos de Arqueología de Navarra*.

1. Argitaratutako liburuak

1.1. *Euskararen Lekukoak, Euskaltzaindiaren bilduma*

- *Ongui iltzen laguntzeco itzgaiac. Joakin Lizarraga*. Edizio kritikoa, Frantzisko Ondarrak paratua, Euskararen Lekukoak 10, Euskaltzaindia, Bilbo 1984.

(2) Honako hauek aipatzen diu:

- *De Decalogo*, Joakin Lizarraga Elkanokoa.
- *Euskal Lan Argitaragabeak*, Fr. Joan Endara Berakoa.
- «Santiago Arazurikoa edo Kintin Eraso, predikaria».
- «Hemezortigarren mendeko testuak gipuzkeraz».
- «Fr. Joan Endara Berakoa KAI-n».

- *Urteko igande guzietarako prediku laburrak. Joakin Lizarraga, Elkanokoa.* Edizio kritikoa. Frantzisko Ondarrak paratua, Euskararen Lekukoak 16, Euskal-tzaindia, Bilbao 1990.

1.2. Karmel

- *Fr. Migel San Frantziskorena (Zuzeta), Fr. Jose Jesus-Mariarena (Arakistain): XVIII-XIX. mendeetako Karmeldarrak. Idazlanak.* Frantzisko Ondarra & Antonio Unzueta, Karmel Sorta 10, Markina-Xemein 1997.

1.3. Nafarroako Gobernua

- *Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak. Joakin Lizarraga.* Edizio kritikoa. J. Apececheak eta F. Ondarrak prestatua, Nafarroako Gobernua, 1994.
- *Hitz Neurtuzko Lanak. Aita Polikarpo Iraizozkoa,* Nafarroako Gobernua, 1997.
- *Hitz Lauzko Lanak I (1927-1949). Aita Polikarpo Iraizozkoa,* Nafarroako Gobernua, 1999.
- *Hitz Lauzko Lanak II (1928-1949). Aita Polikarpo Iraizozkoa,* Nafarroako Gobernua, 2000.

2. Omenaldi liburueta lanak

- «Hemezortzigarren eta hemeretzigarren mendeetako euskal gutun ez-ezagunak», Iker-2, *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Euskaltzaindia, 1983, 475-489.
- «Juan de Beriain eta perpaus koposatua». *Aingeru Irigarayri Omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta Literatura 4, 1985, 221-235.
- «Bizkaierazko testu berri bat (1778)», Iker-6, *Luis Villasanteri omenaldia*, Euskaltzaindia, 1992, 367-391.
- «Mendiburu gipuzkerara itzulia». Iker-10, *F. Krutwig-i omenaldia*, Euskaltzaindia, 1997, 279-298.

3. Liburuen hitzaurreak

- «Aurkezpena», *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*, J. L. Erdozia Mauleon, Nafarroako Gobernua – Euskaltzaindia, 2004, IX-XI.

4. Aldizkari espezializatuetan argitaratutako lanak

4.1. Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»

- «Zegamako Doctrina Christiana (1741)», *ASJU* 18-2, 1984, 3-62.
- «Nafarroako Bertitzaranan aurkitutako euskal testuak», *ASJU* 23-3, 1989, 701-755.
- «Amoresco eta doloresco Jesu Christoren pausoac», *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, Gehigarriak 14, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991, 301-313.
- «Oierregiko testu berriak», *ASJU* 26-1, 1992, 181-204.
- «Gartzainen aurkitutako Kristau Ikasbidea», *ASJU* 26-3, 1992, 977-1002.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (IX)», *ASJU* 27-1, 1993, 299-320.
- «José Matías de Elizalde (1776-1856), Urdazubiko monastegiko azken abatearen predikuak», *ASJU* 27-2, 1993, 575-611.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (X)», *ASJU* 27-3, 1993, 903-947.
- «Juan Martín de Ibero (1729-1783), Izuko parrokuaren testuak (I)», *ASJU* 30-2, 1996, 645-702.
- «Juan Martín de Ibero (1729-1783), Izuko parrokuaren testuak (II)», *ASJU* 32-1, 1998, 231-309.

4.2. Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria / Boletín de Estudios del Bidasoa

- «Irun eta Hendaian emandako bi euskal prediku (1831-1932)», *BIA/BEB* 7, 1990, 7-37, Irun.
- «Irun eta Oiartzungo bi testu (1832-1834)», *BIA/BEB* 8, 1991, 103-132, Irun.

4.3. Boletín de la Real Sociedad Vasca de Amigos del País

- «Voces vascas de Bacáicoa», *BRSVAP*, XXI, 3-4, 1965, 387-412.

4.4. Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra

- «La parábola del hombre y el dragón», *CEEN* 27, 1977, 377-388.
- «Apeo de Baztán (1726-1727)», *CEEN* 44, 1984, 5-48.
- «La parábola del hombre y el dragón», *CEEN* 46, 1985, 103-108.
- «Los altos mojones de Belate-Zahar», *CEEN* 50, 1987, 365-375.

- «Lantz eta Ultzamako mugetan edestiaurreko oroitarri berrikuak», *CEEN* 54, 1989, 503-519.
- «Lantz hiriko mendietan edestiaurreko oroitarri berriak», *CEEN* 56, 1990, 335-340.

4.5. *Egan*

- «Iraizoz-ko Polikarpo Aitaren hamalaukoak», *Egan* 1-6, 1981, 29-32.

4.6. *Euskera*

- «Goñibarko euskara XVIII. mendeko sermoietan», *Euskera* 26, 1981-1, 349-365.
- «Aita Polikarpo Iraizoz (1897-1980)», *Euskera* 26, 1981-1, 495-496.
- «Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena», *Euskera* 26, 1981-2, 633-649.
- «Garesko euskarari buruz zerbait», *Euskera* 27, 1982-2, 647-653.
- «Oieregi-ko Buenaventura Aita (1886-1956)», *Euskera* 32, 1987-1, 25-32.
- «Igorre-ko Julen Aita (1898-1988)», *Euskera* 33, 1988-2, 483-485.
- «Los Arcos-en euskal izena Urantzia ote?», *Euskera* 34, 1989-2, 723-724.
- «Fr. Juan Ajuriaren idazlanak (1800-1825)», *Euskera* 36, 1991-3, 923-992.
- «Fr. Migelek darabiltzan zenbait hitzez», *Euskera* 37, 1992-1, 545-555.
- «Errezuko Jurgi aita (1896-1992)», *Euskera* 37, 1992-1, 623-627.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (VIII)», *Euskera* 38, 1993-1, 59-124.
- «Aita Polikarpo Iraizozkoaren bizitza eta obrak», *Euskera* 42, 1997, 1+2, 61-75.

4.7. *Fontes Linguae Vasconum*

- «Producción literaria de Joaquín Lizarraga (1748-1835)», *FLV* 11, 1972, 265-281.
- «La Escuela de gramática de Joaquín Lizarraga, en Elcano», *FLV* 28, 1978, 127-138.
- «Manuscrito de pláticas en euskera guipuzcoano en los capuchinos de San Sebastián (I)», *FLV* 30, 1978, 525-546.
- «Manuscrito de pláticas en euskera guipuzcoano en los capuchinos de San Sebastián (II)», *FLV* 33, 1979, 91-119.
- «Joaquín Lizarraga en el Diccionario de Azkue», *FLV* 34, 1980, 107-141.

- «Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga (Valdizarbe)», *FLV* 35-36, 1980, 173-221.
- «Las vascongadas de Barbarin y Corres, Navarra y Álava», *FLV* 35-36, 1980, 371-382.
- «Primer sermón en vascuence navarro (1729)», *FLV* 38, 1981, 147-173.
- «Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Gofí», *FLV* 39, 1982, 133-228.
- «Textos en vascuence navarro de Baztán, Nuin y Urdazubi», *FLV* 40, 1982, 387-401.
- «Escritos en vascuence del P. Esteban de Adoáin (1808-1880)», *FLV* 46, 1985, 343-405.
- «Dos pláticas inéditas del P. Sebastián de Mendiburu», *FLV* 47, 1986, 151-165.
- «Textos en vascuence en el pueblo de Gofí», *FLV* 49, 1987, 117-140.
- «Dos pláticas en vascuence del siglo XVIII», *FLV* 50, 1987, 281-316.
- «Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)», *FLV* 53, 1989, 97-144.
- «Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII. mendean)», *FLV* 55, 1990, 73-121.
- «Goñerrin aurkitutako beste sei testu», *FLV* 57, 1991, 131-168.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (IV)», *FLV* 60, 1992, 297-333.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (V)», *FLV* 62, 1993, 137-153.
- «Hemezortzigarren mendeko bertsoak», *FLV* 64, 1993, 531-553.
- «Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz-ek izan zituen testuak», *FLV* 65, 1994, 161-183.
- «Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz-en euskal testuak», *FLV* 66, 1994, 349-369.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (VI)», *FLV* 67, 1994, 521-554.
- «Goñerrin aurkitutako testuak (VII)», *FLV* 68, 1995, 173-190.
- «Juan Martin de Ibero (1729-1783), Izuko parrokua (1754-1783)», *FLV* 72, 1996, 235-267.
- «Ollon 1777. urtean emandako testuak», *FLV* 73, 1996, 465-482.
- «Bakaikuko euskal hitzak, esaerak etab.» *FLV* 100, 2005, 481-523.

4.8. KOBIE

- «Los cromlechs y túmulos de la estación megalítica de Atxuri», *KOBIE* (Serie Paleoantropología) 15, 1986, 229-232.

- «Bertitzarana eta Malerrekako trikuharriak», *KOBIE* (Serie Paleoantropología) 17, 1988, 169-179.
- «Edestiaurreko oroitarri berriak Nafarroan», *KOBIE* (Serie Paleoantropología) 18, 1989, 167-182.

4.9. Labayru

- «Aulestia: 1833. urteko testua», *Litterae Vasconicae* 7, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1999, 9-49.

4.10. Príncipe de Viana

- «Nuevos monumentos megalíticos en Baztán y zonas colindantes», *PV* 138-139, 1975, 5-46.
- «Nuevos monumentos megalíticos en Baztán y zonas colindantes», *PV* 140-141, 1975, 403-433.
- «Nuevos monumentos megalíticos en Baztán y zonas colindantes», *PV* 142-143, 1976, 21-54.
- «Nuevos monumentos megalíticos en Navarra», *PV* 144-145, 1976, 329-363.
- «Nuevos monumentos megalíticos en Navarra», *PV* 165, 1982, 7-29.

4.11. Trabajos de arqueología navarra

- «Nuevos monumentos megalíticos en Navarra (III)», *TAN* 7, 1988, 119-143.
- «Noticias megalíticas en los papeles de Tomás López Sellés», *TAN* 10, 1991-92, 167-183.
- «Edestiaurreko oroitarri berriak han eta hemen Naparroan», *TAN* 11, 1993-94, 31-37.

5. Bestelako aldizkarietan argitaratutakoak

- «Edestiaurreko oroitarri Baztanen», *Baztandarren Biltzarra*, Elizondo, 1988, 36-37.
- «Monumentos megalíticos en Baztán», *Pueblos de Navarra hoy*, Pamplona, 1988.
- «Euskaltzaindia», *La Verdad*, Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietako astekaria, 1993-X-16.

6. Egunkarietan argitaratutakoak

- «Patria Vasconum lingua», *Diario de Noticias*, 2001-III-27.
- «Lingua Navarrorum», *Diario de Noticias*, 2001-VII-29.
- «Nafarroa», *Diario de Navarra*, 2001-XI-26.
- «España, País Vasco, Navarra», *Diario de Noticias*, 2003-II-07.
- «Bakaiku 1951», *Diario de Noticias*, 2004-VI-08.
- «Bakaiku 1936», *Diario de Noticias*, 2004-VI-19.
- «Provincia hermana», *Diario de Noticias*, 2004-VII-01.

Donostia, 2006-I-27

Andres Iñigo

J.M. ARANALDE OLAONDO

Arratsalde on, euskaltzain jaunok, Joxe Mari Aranalderen lagun eta adiskideok, eta, batez ere, aren senideok.

Ez dakit nik ala beste norbaitek egin beharko zukeen kontakizun hau gaur. Bainan Euskaltzaindiaren agindua gustura onartu nuen, horixe eta gehiago zor diodala pentsatu izan dut-eta Gaztelukoari, bizialdi honetan lagun eta askotan lankide izateko aukera eman zidan-eta. Ez da zorte makala, egia esan.

Gipuzkoako Gaztelun jaiotza

Gipuzkoako Gazteluko Apaiztegi-onuzkoa baserrian jaiotza zen, 1933ko martxoaren 27an (goizeko bederatzietan jaiotza zela esaten du haren bataio-agiriak (1)). Eta «baiez apaiz honek ehun urte harrapatu!», esan zion behin gure lagun batek, haren osasuna eta sasoia ikusita; baina denok engainatu gintu, eta Ibarren hil zen, 2005eko irailaren 24an, larunbat arrasaldeko ordu biak aldera. Bi hilabete eta erdian –beste bi hilabete inguruan isildu zuen bere gaixotasuna, itxura denez– eraman zuen gaixotasun gaizto batek. Eta berak horrelaxe eskatuta, Gazteluko hilerran lur eman zioten, irailaren 26an, astelehenez.

«Horrenbeste jende bildu ote da sekula Gaztelun?», esan zidan Pello Esnal lagunak, Gaztelura heldu ginenean. Izan ere, ehunka, milaka gizon eta emakume ezagun eta ezezagun bildu ginen. Hantxe ikusi genituen Joxe Mariaren senide eta ahaideak, haren apaiz lagun asko, Donostiako gotzain jauna, Euskaltzainburua eta euskaltzain asko, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburu andorea eta ordezkarriak, Gipuzkoako Aldun nagusia, Aranalderen lankide eta ikasle ohiaek, bertsolari eta bertsozaleak, eta herritar soiliak. Gazteluko plaza inguru eta bide-bazter guziak autoz bete ziren. Eliza, zimiterio-pea eta inguruak betean zen jendea. Bazekien hark ondo maite genuela, baina hainbeste maite genuenik ez seguru asko, hiletakoan Xabier Amurizak bere bertsoan esan zuen bezala:

Merezi huen mundualdi hau gozatzea luzeago,
joateko ere gertu hintzena hilkorren mugaz harago.
Xalbador ezker, Orixo eskuin: bake txarrean ez hago.
Maite hindutenak asko gintuan, heuk uste baino gehiago,
eta segiko haugu maitatzen nahiz ta urteak igaro.

Gizaseme ederra zen Joxe Mari, dotorea, bihotz handikoa, emailea, laguntzailea, maitagarria; egoskorra ere bai, inoiz. Ez dakit zalduna zen –zaldirik bazuenentz, alegia–, baina badakit kabaileroa zela hasi burutik eta hanketaraino. Eta maitasunezko mirespen horixe erakutsi nahi izan genion astelehenen arratsalde eguzkitsu baina triste hartan.

«Bizitza horetan asko hartu diat nik, eta, horregatik, eskerrak ematen pasa nahi dizkiat ondorengo urte denak!», esan zigun elkarritzeta batean. Eta, halaxe, bere medikuei, erizainei, lagunei, senideei eta inguratu zitzazkion guztiei eskerrak emanez hil zen bihotz handiko gizon hura.

Hika, zuka, berorika

Familia handi bateko hirugarrena zen Joxe Mari; hain zuzen, Felix Aranalde Maitxalar eta Maria Olaondo Ormaetxeak izan zituzten hamaika seme-alabetan mutikoa eta neskato baten ondorengoa.

Joxe Mariren gurasoak gazteluarrak ziren; baita aitaren aldeko aitona Alejo eta amona Frantziska ere. Amaren aldeko aitona Migel ere Gaztelukoaren, eta amona Frantziska, berriz, Orekako alaba, Nikolas Ormaetxea *Orixe* zenaren arreba.

Hizkuntzari dagokionez, euskara izan zen eta da beti haien etxeko hizkuntza. Baino hiru trataera ezberdin erabili izan dute haienean, Euskal Herriko beste familia askotan ere erabiliko den bezalaxe, seguruenik: Anai-aurreba eta lagunen artean, hika hitz egiten zuten eta dute; aitari, osaba-izeba eta adinekoei, zuka; eta amari, beti berorika. Behin kontatu zidanez, inoiz edo behin ama gogor haserretu omen zitzaison, bere apaiz lagunei-eta hika hitz egiten zielako. Baino entzunaren entzunez ohitu egin zen gero.

Joxe Marik bere etxekoentzat eta batez ere amarentzat zuen itzala eta maitasunaren lekuko dela uste dut *Bihotzak dion hura* liburuaren (Auspoa, 258) idatzi zuen bertso-sailaren hasierako ahapaldia:

Anaiei lo harrarazten ikasi nuen aire xamurrean
kantari hastera noa, ama, beroren gorazarrean.
Neretzako bakarrik bederen nago esan beharrean
nolako zerua izan dutan nik berorrekin lurrean.

Apaiz

Hamahiru urte zituela abiatu zen apaiz-bideetan barrena. Eta horretarako, Donostiako Mirankontxako *Preceptoría* zeritzen etxean egin zuen urtebete inguru, Saturraranera joan eta latina ikasten hasteko gazteleraez ere zerbait ikasteko-edo (horrela egiten omen zuten orduan gaztelerarik ez zekiten baserrietako mutilek). Gero, Saturraranera joan zen, 1946ko uda hondarrean; eta han lau urte egin ondoren, Gasteizera, 1950eko udazkenean, bosgarren ikastaroa egiteko. Hangoak hiru urtean egin eta Donostiako Seminario berrira heldu zen azkenik 1953ko udan, talde osoarekin batera. Eta gero bost urteren buruan, 1958an, apaiz egin zen, beste hogeita hemeretzi kiderekin batean. Talde handia zen, ezbairik gabe: berrogei apaiz berri Gipuzkoan!.

Donostiako Seminario berrira heldu zirenean, sekulako lanak egin behar izan zituen «grupo zulueta» deitzen zuten talde hark (Aldaregia, Aranalde, Atxaga...). Esaten dutenez, goizeko lehenengo klaseak amaitu ostean, mailua eta zintzela hartu eta

kapila berriko sabaia metrotik metrora zulatzen aritu ziren hilabete inguruan. Leher egiten zuten hartran, baina gero izerdi eta hauts erabat zikinduta borroka-saio ederrak ere egiten zituzten, beren gaztetasuna, indarra eta sasoia errenditu ezinda.

Haren lagunek esaten dutenez, ikasle ona zen Joxe Mari, oso formala. Eginbehar bakoitza zuzen errespetatzea gustatzen zitzaoen. Zintzoa eta serioa zen; ez endredamakila horietakoa. Eta asignatura guztietan ondo ibiltzen zen, goiko arrastotik hurbilago erdikotik baino. Eta berak esana da Filosofia, Teologia eta Literaturaren ederrak eta graziak era bat liluratu zuela apaizgai izan zen urte haietan.



Urteak joan ziren, eta subdiakono ordena hartu zuen, 1957ko abuztuaren 4an; 1958ko ekainaren 1ean, berriz, apaiz ordenatu zuen Font i Andreu Donostiarra gotzain jaunak Lourdesen, hango Andre Mari agertu zeneko mendeurrenaren ospatzen zen-eta. Gero, Gazteluko elizan eman zuen meza berria, ekainaren 8an, apaizen artean ohitura zenez. Herriko parroko Lukas Dorronsoro jauna zuen laguntzen aldamenean, eta sermoia, berriz, don Tomas Otaegi egin zuen, Lukasen aurretik Gazteluko parroko izan eta garai hartan Berastegiko parroko zenak, hain zuzen.

Aramako apaiz ekonomo izendatu zuten, 1958ko uztailaren 28an, izendapena alfabetoz eginez. Eta bere arreba Petrarakin joan zen Goierriko txoko hartara. Bizilagun eta sukaldari oso onarekin, alegia, apaiz-legeak eskatzen zuen bezala. Badakizue: «apaizaren lapikoa, txikia baina gozoa»; edota, «apaiza eta lurra, eman gabe ez dira engainatzentz».

Aramara heldu zenean, bere aurreko apaizak zera esan omen zion, kargua ematean: «Begira, Joxe Mari: hemen dena egina dago; zuk, hasitakoari jarraitu beste lanik ez daukazu hemen». Hasitako bidean edo bestela, lan asko egin zuen han iraun zuen urte eta erdi inguruan. Eta Ameriketatik etorri eta bateko Orekan zela, besteko Lazkoko beneditarretan zela, batetik bestera zebilen Nikolas Ormaetxea *Orixe* osaba garai hartan; eta Aramako apaiz-etxearen berekin hartu zuten Aranaldetarrek eskasia gogorran bizi zen gizon harrigarri hura, bi aho betetzen ziren tokian hirugarrena ere bete zi-tekeela pentsatutsa, hura jatun handia bazen ere. «Etorri al zera, osaba? Bazenuen garaia!», esan omen zion Joxe Marik, diosala bere modura eginez.

Hamabost hilabete bakarrik egin zituen Joxe Marik Araman, Añorgako apaiz laguntzaile eta Zabalegiko Nekazari Eskolako gazteen arduradun izendatu zuten-eta, 1959ko abenduaren 7an. Eta Zabalegin bizi izan zen gero, Añorgako eliztarrenak eta Zabalegiko Nekazari Eskolako baserritar gazteen hezkuntzan buru-bihotz sartuta. Osaba Orixe ere berekin eduki zuten, 1961eko abuztuaren 9an hil zen arte, Zabalegin.

Gero, hogeita bederatzi-hamar urte gazteei irakasten egin eta Santo Tomas Lizcano erretiroa hartu zuenean, Belauntza eta Leaburuko apaiz izendatu zuen don Jose Maria Setien gotzainak, 1999ko uztailaren 26an, sei urterako. 2002ko urtarrilaren 22an, berriz, Tolosako Yurramendiko Zaharren Egoitzako kapilautza eman zion Juan Maria Uriarte gotzain jaunak. «Mutil, mutil: noiz erretiratu behar dek hik?», esan ohi genion. Bainan ez zegoen erretirorik harentzat, berak esan ohi zuenez gustuko tokian aldaparik ez da-eta.

Hala ere, lan horiek denak egin eta bere lagunak bisitatzeko, Galarretan pilotapartiduren bat edo beste ikusteko, astean pare bat aldiz anaia Luis eta lagunekin pilotan «a cara de perro» jokatzeko, Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordera zuzen asko etortzeko, han eta hemen egiten ziren lagun eta ezagunen ospakizun eta hiletetan parte hartzeko, hitzaldiak emateko, bere apaiz lagunekin egun-pasa batzuk egiteko, bertso-jaialdietara joateko... denerako adina asti ateratzen zuen nonbaitetik. Mutilzahar izatearen abantaila omen zela hori esaten zuen, umore ederrarekin. Arrazoi izango zuen, seguruenik.

1964an jantzi omen zuen azkenengoz bere sotana beltza. Bainan, hala ere, inor gutxi ezagutu izan dugu apaiz izatearekin huraxe bezain gustura, harro eta zoriontsu zenik. Ez zen ikara eta beldur modan ez dagoen Jainkoaren defentsa zorrotz eta serio egin behar zuenean. Lagunartean, elizkizunetan, bere hitzaldi eta sermoietan, erraz aldarrikatzen zuen bere sinestearen handitasuna.

Irakasle

Hamahiru urte inguru egin zituen Joxe Marik Añorgan apaiz eta Zabalegiko Ne-kazari Eskolako ikasle baserritarren arduradun: 1959ko udazkenean hasi eta 1972 arte. Bainan garai hartan Donostiako Santo Tomas Lizeoan irakasleak behar zitzatela-eta, hamalau-hemezortzi urteko neska-mutilei Giza-hezbidea eta Filosofia irakasteko eskaintza egin zioten, eta hantxe sartu zen buruz aurrera. Lanbide berriak denbora askotxo eskatzen ziola-eta, Añorgako parrokiakoak beste esku batzueta utzi behar izan zituen, gero ere ahal zuenero laguntzen jarraitu zuen arren. Ez zen-eta lana eta inori laguntzeko aukera hori horrenbestez baztartzen zituen horietakoa.

1972ko urriaren 1ean hasi zen Santo Tomas Lizeoko irakaskuntza-lanetan, eta hoigeita hamar urte inguru hantxe egin zituen, biziki maite zituen neska-mutilen hezkuntzan, 1997ko urtarrilaren 28an erretiroa hartu zuen arte. 1997ko urtarrilaren 28an amaitu zitzaison Lizeoko kontratua, baina ondorengo bi-hiru urtean, gutxienez, Lizeoko bere lankide ohiei laguntzen jarraitu zuen. Ezin ahaztu zituen hango irakasle eta ikasleak, bere bizitzaren zati handi bat ziren-eta. Gero ere, Lizeoko ikastaroen hasiera eta amairako jaietan, edo hango edozein ospakizunetan nekez huts egingo zuen hark, azken-azkenera arte. Benetan maite zuen hango giro gazte eta euskalduna, eta ahoa betetzen zitzaison Lizeoko kontuak esaten hasten zenean. Ikastetxe horretako bere lankide eta lagun askori ere horixe eta bera gertatzeari zaiola ikusi ahal izan dugu. Neska eta mutil ikasle gazteen artean oso erosoa eta gazte sentitzen zen, eta bere benetako ume maiteak haiexek zirela gainera esaten zuen, zer arraio! Nik sinestu, umezale porrokautua zen-eta. Bestalde, behin baino gehiagotan entzun nion erakutsi baino gehiago ikasi zuela Santo Tomas Lizeoan egin zituen 30 urte inguruan, gazteak izan zirela bere benetako mai-su, alegia.

Goizero-goizero Lizeora iristen zenean, «egun on» esatea gutxi samar iruditzen eta, mutilei esku ematen zien banaka-banaka eta serio. Neskatxei, berriz, eskuan muin. Errekreto denboran-eta erdi ezkutuka zigarrotxo bat eskatzen zionari nekez ukatuko zion, eta inoiz edo behin bokadilo eske joaten zitzaisonari-eta nekezago. Soinean zueña ere emango zukeen hark, nori ematen zion begiratu gabe.

Idazle

Seminarista zela hasi zen idazten; bertsoak eta poesiak, batez ere. Eta sariak ere jaso zituen inoiz. Bere idazlanetatik hauek azpimarratuko ditut, gutxienez:

1. *Hirutasun-isplu*. 1956ko udazkenean Arantzazun antolatu zuten sariketa batera bidali zuen izen hori zeraman bere lehenengo poesia lan bat. «Ama Birjinaren sortzezko garbitasuna du gai», esan zuen. Eta harekin batean prosan egindako beste idatzi bat ere bidali zuen, eta *accesita* eman zioten bigarren hari. Poesia, ordea, isilik pasatu omen zen, saririk gabe, alegia (ikus Auspoa, 258: 68 or.).
2. *Agur; Tokaio!* Tolosan, 1961ean, Lizardiren omenaldia antolatu zuten, eta beste zenbait ospakizunekin batera poesia-lehiaketa bat ere bai haren gorazarrez. Han ere bigarren saria eman zioten Gaztelukoaren *Agur, Tokaio!* idazlanari (ikus Auspoa, 258: 70 or.). Bere osabak irabazi zuen lehenengo saria; Orixek, alegia; eta hirugarren saria Lukas Dorronsortori eman zioten.
3. *Jainko-aurpegi gurean*. Orixetik hil eta handik pare bat urtera, 1962an-edo, bere omenez Tolosan egindako lehiaketa batean berriro ere bigarren saria irabazi zuen Joxe Marik (ikus Auspoa, 258: 74 or.). Lehenengo saria Gabriel Arestiari eman zioten, eta hirugarrena, Lukas Dorronsortori, berriro ere. Aurrenbigarren izateko jaioa zela nonbait esan ohi zuen.

Honaino aipatu ditudan hauez gainera, bere osabaren biografia ere idatzi zuen 1965ean, elkar-lanean. Baita haren *Jainkoaren bila* liburuari hitzaurrea egin ere.

Horiez gainera, Sendoa argitaltegia eta Antonio Zavalaren eskariz, honako beste liburu hauek argitaratu zituen, Auspoa sailean:

1. *Xalbador pertsularia* (Auspoa, 240; 1996). Bereziki Xalbador zenaren bertso-gintza goraltzen eta aztertzen saiatu zen liburu honetan. «Izan ere, ez al zuen horrelakorik mereziz bertsolarietan olerkariena eta olerkarietan bertsolariena izan zenak?»
2. *Xalbador*. Sendoako Joakin Berasategiren eskariz idatzi zuen, Txirrita bildumarako, ikastolako neska-mutikoentzat. Lehenengo argitalpena 1998an egin zela uste dut, eta bigarrena, 1999an.
3. *Bihotzak dion hura* (Auspoa 258; 1999). Honela aurkeztu zuen liburua: «Liburu honetan berririk izatekotan, bertsoak dira, neure bertsoak. Barruak eskatzen zidanetan eginak ditut gehienak. Beste ehundaka batzuk ere badira hor nonbait, baina haien biltzen hasterik ez dago. Zertako gainera? Ezin hasiko gera bandoa jotzen». Oker handirik gabe, hogeita sei bertso-saio dira, gutxienez. Horietatik hiru «poesi-nahiko bertsoak», berak dioenez; eta Deia egunkarian argitara emandako artikuluak, hirurogeita sei kronika, oker ez banago.
4. *Bertso kontuak* (Auspoa 264; 1999). 1986an hasi eta 1990era arte *Deia* egunkarian astero argitara emandako artikulu-sorta, baina ez denak.
5. *Xalbadorren barrua* (Auspoa 274; 2001). Xalbadorren esanak hartu eta haren sentimendu eta pentsamenduak erakusten saiatu zen. «Hori aberastasuna barrunbe horretako!», zioen bere lanaren atarikoan.

6. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak argitaratzen duen *Bidegileak* bildumako ale bat eskaini zion bere herritar Juan Inazio Goikoetxea *Gaztelu* poetari, 2002an, «Juan Inazio Goikoetxea *Gaztelu*» izenarekin.

Denok dakigunez, Joxe Mari ez zen kazetaria; baina 1970ean hasita *Zeruko Ardia* astekarian gai ezberdinei buruz egindako aldian aldiko idazlanak ere aipatu beharko nituzke; edota 1986an hasi zela Deia egunkarian bertsolaria eta bertsolaritzari buruz idazten, Mikel Atxagak eskatuta. 1990era arte astero-astro hutsik egin gabe idatzi zuen. Orduko lan asko, ez denak, *Bihotzak dion hora* edo *Bertso kontuak* liburuetan bildu eta berrargitara emanak daude, arestian aipatu bezala.

Itzulpenak

Lorentzo Bereziartua gotzain jaunak aginduta, 1961ean hasi zen don Manuel Lekuona liturgia euskaratzeko batzordeak antolatzen, eta Joxe Mari Aranalde taldera gonbitatu zuen. Hogeい urte inguru egin zituen gazteluarra lantegi harten. Taldeko gaztea bera zen, eta lan bikaina egin zuen. Orain irakurtzean eta entzutean besterik badirudi ere, aski lan korapilotsua zen hora, baina Joxe Marik sekulako euskal sena zuen latinezko esaldiak-eta euskaratzeko. Etxean maisu ona izan zuelako-edo, erraz aurkitzen zituen itzulpen argiak egiteko ordezkorik erosoenak. Lagun eta taldeko lan-kide dugun Pello Esnalek 2005eko irailaren 28ko Diario Vasco egunkariko bere zutabeen ederki asko laburbildu zuen haren ekarpen ezin egokiagoa:

- Elizako testuen euskaratzalea izaki, han ari omen zineten, talde-lanean, *Gloria euskaratzen*, latinezko «laudamus te, benedicimus te, gratias agimus tibi...» haien ordain egokia aurkitu ezinik, gogorregiak izan nonbait «goresten zaitugu, bedeintzatzen zaitugu, ahuspez agurtzen zaitugu, eskerrak ematen dizkizugu...». Eta, orduan, hik: «gora zu, bedeinkatua zu, gorespen zuri, ahuspez agur, eskerrik zuri....». Itzulpen biribilagorik!

Beste zenbait itzulpen ere egin zuen, noski. Baino asko eta asko ezezagunak dira, egin eta izenik jarri gabe argitara emanak, seguruenik. Hala ere, Etor argitaletxeak aspaldi plazaratu zuen Margo Ederdun Enziklopediaian argitaratu zuen *Egaztien mundua* zeritzona gogoratuko dizuet, gutxienez.

Hizlari egokia

Hitz-etorri ederrekoia, patxada handiko gizona, retorika, irakaslearen mimika eta ahots-modulaketa ongi zaintzen zekiena. Aktore handi bat zen hizketan ere. Hain zuzen, hitzaldi batean ezagutu nuen nik, 1962ko azaroan, Donostiarriko Bergara kaleko liburutegi batean. Hitzaldi haren gaia hauxe zen: «Lehengo zenbait bertsolariren euskara traketsa». Egia esateko, harritu gintuen gogotik Joxe Marik. Ez zitzaiola gustatzen esan zuen zenbait bertsolari zaharren euskara traketsa, erdarazko hitzak eta esaldiak erabiltzeko zuten joera. Eta gaurko bertsolariak –1962koak, alegia– askoz ere txukunagoak iruditzen zitzaiatzkiola. Pello Errrotak-eta hartu zuten astindu ederra!

Bere saioa amaitu zuenean hitz egin nuen nik lehenengo aldiz Joxe Marirekin. Eta biziki gustatu zitzaidan, nahiz eta bertsolari zaharren hizkuntzari buruz han esan zituenekin guztiz bat ez nentorren. Gero, hantxe hasi eta 2005eko irailaren 22an harenkin azkenengo aldiz hitz egin nuen arte, auskalo zenbat berriketaldi eder egin genuen elkarrekin, eta zenbat ahalegin Euskaltzaindian, bertsolari-txapelketa eta lehiaketak antolatzen, bertso-jaialdiak prestatzen, bertsolariei gaiak ematen eta abar. Neuk ezin eta, behin baino gehiagotan eskatu nion halako jaialdi edo herritara joan zedin, mesedez, gaiak jartzera; eta hark niri ere bai. Bainan hori dena gaitz zakar batek eten zuen, lehengo udan. «Beneno puta horrek izurratzen natxiak!», esan zidan 2005eko irailaren 22an, azkenengo aldiz telefoonoz hitz egin nuenean. «Baina ez diat etsiko inola ere» agindu zidan, gaixotasuna gainditu eta berriz ere elkartzen hasteko esperanza betez. Bainan hartan gelditu zen Joakin Berasategik prestaturik zuen txakolina, zoritzarrez.

Ananalderen hitzaldiak aipatzen hasi naiz; eta, 1962ko azaroan Donostian eman-dakoaz gainera, dozenaka aldiz hitz egin zuen, han eta hemen. Besteak beste, hauexek azpimarratu behar ditut gaur hemen, gutxienez:

- «Orixeren *Euskaldunak* eta festa-giroa»: Tolosan, 1998ko azaroaren 13an, Euskaltzaindiko Herri Literatura Batzordeak antolatutako jardunaldietan.
- «Genio y lengua, euskal arima, eta *Euskaldunak* poema», batzorde berak antolatuta, 2001eko udazkeneko jardunaldietan.
- «Herriaren memoria lanbidez lanbide berritzen, *Euskaldunak* poeman». Eibarren, 2002ko azaroaren 28an.
- 2004ko urriaren azkenengo igandeko *Xalbador Eguna* zela-eta, Urepeleko parronian eman zuena ere aipatu beharko nuke, *Odolaren mintzoa* liburuaren hirugarren argitalpenean bere betiko adiskide eta lagun miretsiaren goralmenak eginez. Oraindik ere ikusten nago, hango meza ostean, aldare aurrean ezker-eskuinera paseatuz nolako berotasunarekin hitz egin zuen Urepeleko artzainari buruz. Antzezlar bat zirudien, baina ez zen txantxetan ari, ez zegoen txantxari-eta Xalbador aipatzen zuenean. Egingo nuke apustu inork ez dakiela buruz hark zekien adina Xalbadorren bertsio eta pasadizo. Ahoa bete hortz uzten gintuen halako bertsio edo beste halako esaldi hitzez hitz esaten hasten zenean.

Bertsozalea

Nork ez daki, zuen artean, bertsoa, bertsolaria, bertsolaritzia, bihotzez maite ziuela Joxe Marik? Bainan berak ez omen zekien zerik liluratu zuen aurrena: gizonak ala bertsolariak. Hala ere, hamaika ordu, hamaika ibili egin zuen bertsoaren eta bertsolarien inguruan, beti bertsoaren edertasuna eta bertsolarien onbeharrez, gure bertsolari-za bikaindu eta jendeari zerbaite duina eskani nahirik. Izan ere, gai-jartzaile onaren zeregina horixe baita, askok besterik pensa baleza ere.

Nondik eta nola zuen bertsogrina hori, ordea? Beste askotan ere gertatu izan denez, Aranaldetarren gurasoek taberna koskor bat zuten Gazteluko beren etxearen, eta hantxe bertsozaletu zela esan ohi zuen. Haurra zela, sei-zazpi urte zituela, «Gazteluko Martintxo bertsolari zaharrari entzuten egon ohi ginen, aita zenarekin, Martintxo hark zuen ahots egokia, eta haren arrazoiaren sendotasuna eta edertasunarekin harrituta», esaten

zuen. Gurasoen tabernan askotan aditzen omen zituen bertsoak, auzoko gizonak feriatik ohi baino gehixeago argitura zetozenean-eta. «Zenbat aldiz joan ote ginen penatan ohera bi anaiok, gizonak eztarriari eraginda bertsotan hastera zihoazenean!», eransten zuen. Koskortu eta idazten hasi zenean ere, bertsoak idatzi zituen lehendabizi. Joxe Alkiza apaiz lagunarekin jardun omen zuen behin baino gehiagotan, bertsoak aurrez idatzi, buruz ikasi eta gero jendeareen aurrean kantari.

Hala ere, bertsolariekin harremanetan serio hasi, 1958ko irailean hasi zen. Izan ere, Aramako apaiz izendatu zutenean, hurbil samar egon eta Ordiziako bertsolarien sarijeta batean epaimahairako gonbidatu zuten, osaba *Orixo*, berak ezagutzen ez zituen Jesus Lete *Ibai-ertz*, don Manuel Lekuona eta Basarrirekin batera. Sekula ez omen zuen jakin nondik nora gonbidatu zuten bertsolarien norgehiagok hartako epaile.

Gero, urteak joan eta zenbat aldiz izan ote zen epaimahaiko, bertsolarien txapelketan, bertsopaper-sariketan eta abar? Lehiaketa horietakoren batzuk aipatzekotan, Orenxako *Orixo bertsopaper-sarijeta*, Zarauzko *Basarri sarijeta*, Lazkaoko *Lazkao Txiki sarijeta* eta abar datozerik gogora. Edota, bat-bateko bertsolari-lehiaketetan, Zarauzko *Bertsolari Gazteen Lizardi sarijeta*, Idiazabalgo *Zepai sarijeta*, Gipuzkoako *Eskolarteko Bertsolari Gaztetxoen txapelketa* eta beste hainbat, denak aipatuko ez baditut ere. Beste sarijeta askotako antolatzale ere izan zen, gogoan dugunez:

Añorgako *Orixo sarijeta* aipatuko dut lehenik. 1972an, bertsolari gazteentzat sarijeta antolatu zuten herri honetan, eta halaxe laguntzen hasi eta urteetan hango antolatzale eta gaiemaile izan zen. Joxe Mari arduratzen zen sariketaz, hango antolaketaz, gaiak jarri eta epaimahaia izendatzearaz eta abar, Añorgako bertsozaleekin elkar-lanean.

Bertsolarien Txapelketa Nagusia 1979, Euskaltzaindia. 1967ko Bertsolarien Txapelketak sortu zuen zaputzaldi eta etenaren ostean, 1979ko udaberrian elkarrekin hasi ginen berriro Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa nagusia antolatu nahirik, Euskaltzaindiaren eskariz. Eta 1979ko udazkenean kanporaketak egin ondoren, 1980ko urtarrilaren 6an egin zen azkenengo jai nagusia, Donostiarra Karmelo Baldan. Esan bezala, antolaketa-batzordean eta gai-jartzaleen taldean lankide izan ginen. Horrez gainera, epaimahaiko izan zen Aranalde, Fernando Artola *Bordari*, Anton Aranburu, Jesus Mari Etxezarreta, Alfontso Irigoien, Mitxel Itzaina, Juan Mari Lekuona, Abel Muñiategi, Juan San Martin eta Antonio Zavalarekin batera. Beste horrenbeste egin genuen 1982ko maiatzaren 8an Hernanin hasi eta urte hartako abenduaren 19an Donostian burutu zen 1982ko Bertsolarien Txapelketa nagusian ere. Hain zuzen ere, Amuriza izan zen txapeldun bietan, eta horrek bertsolari bat baino gehiago mindu zuen nonbait. Hala, behintzat, 1986ko Txapelketa nagusirako antolaketak egiten 1985ean hasi ginen, aurreko bi lehiaketako talde berbera; baina eztabaidak (aitzakiak) sortu ziren, eta besete esku batzuetaen gelditu zen lan hora azkenean, bakeak gehiago balio zuela-eta. Zorioneko aldakuntza guretzat, ezpairik gabe.

Aurkezle eta gai-emaile, berriz, «Jainkoak dakien toki guztietaen ibili naiz bertsolarietik, gai-jartzale batzueta, epaimahaiko besteetan», esan zuen. Eta egia da: ehunka jaialditara joan zen aurkezpenak egitera, bertsolariei lagundu eta ahal zuenik ondoena xaxatzera. Eta urtero egin ohi zen «bertsolarien emazteen egunean», meza-emaile izaten zen gehienetan; eta hamaika bertsolarien ezkontzan ere izango zen, kontuak ate-ratzeko hainbat xehetasun ez badut ere.

Bertsolari zaharrak eta gazteak denak maite zituen. Gazteen hezitzale eta laguna zenez, ez zuen izan bertsolari gazteei laguntzeko oztoporik; eta haiei buruzko iritzia eskatuz gero, «oraingoak eta lehengoak bezalaxe gustatzen zaizkidak bertsolari gazte hauek neri, nahiz espresio asko neretzat oso arrotzak diren, nahiz eta bertsolari gazte-en argota arrotz antza izan neretzat askotan», esaten zuen. Bere garaiko bertsolari zaharretan, berriz, erruz maite zituen Uztapide, Basarri, Lizaso, Lasarte, Mattin, Azpilla-ga, Lopategi, Xanpun, Amuriza eta abar. Bainan bat bereizteria behartzen bazenuen, garbi esango zizun: «Mutilak, Urepeleko artzaina gauza handia duk bertsotan, bai bat-batean eta bai idazten». Amurizari buruz, berriz, zera idatzi zuen, 1980ko urtarrilaren 6ko finalaren ostean:

Gero eta ikasiagoa den gizartean, gero eta ikasiago izan beharko du bertsolariak ere. Eta ikasteak, edo lantzeak, ez diola gaitzik egiten garbi erakutsi du txapelketa honetan Amuritzak. Berezkoa behar du lehenik. Bainan berezkotasuna eta landutasuna ez direla elkarren etsai erakutsi du bertsolari bizkaitarrak.

Bertsolaria, orakulo, kritiko, kulturgile izan da haren iritziz, eta ez nolanahikoa. Orain igarle bezala itzala galdu duela uste zuen, dibertitzaile bezala ere bai, baina ez balio ez duelako, mila kontrario sortu zaizkiolako baizik. «Garcia Marquezek balio dit neri, eta bertsolariek ere bai. Garcia Marquezek bakarrik balio dionaren gustuak era-bat galdu du, pobretu egin da, apreziazio ahalmena murriztu zaio» zioen (2).

Aranalderen lau jainkoak

Eta behin hotzera ezkerro, haren lau jainkoak aipatu beharko ditut, labur. Aspal-di egindako elkarrizketa batean garbi asko kontatu zizkigun:

1. Zeruetako Aita Jainkoia. Sinismen handiko gizona zen hora, eta apaiz izateko eman zion aukera ordaindu ezineko pribilegio bat izan zela beretzat esan ohi zuen;
2. Nikolas Ormaetxea *Orixea* osaba jainkoia;
3. Joxe Mari Agirre *Lizardi*; eta
4. Fernando Aire *Xalbador*, batez ere. Zeruetatik gora jasotzen zituen Orixea eta Lizardi, baina ahoa betetzen zitzaiion Urepelekoia aipatzen zuen bakoitzean. Eta pentsatzen nago, Mitxel Labegerieren kantak dioen bezala, «inon bada zero/hantxe dagoke aingeru» izango dela Gazteluko kabaileroa, bere kuttunekin solasean eta bertsotan, aita Jainkoari noizik behin burua makurtuta begiratuz.

Noiz eta nola Xalbadorzaletu zen?

Euskaltzaindiak antolatu zuen gerraondoko lehenengo Bertsolarien Txapelketa nagusian ezagutu omen zuen Xalbador, Donostian, 1960ko abenduaren 18an, hain zuzen. Berak idatzi zuenez (3), Joxe Mari eta bere lagun batzuk txapelketa hartako bertsosaiora joan ziren, eta ondoan zeuzkaten Aizarnako bertsozale batzuk han ari omen ziren Basarri gora eta behera. Bainan Joxe Mari berotu zen eta, «tutik ez dakizue zuek bertso kontuan! Nola arraio konparatuko dituzue, ba, Basarri eta Xalbador? Por favor,

hombre!», eraso omen zien gogor; eta aizarnarrak ahoa bete hortz mutu utzi omen zi-tuen, artean ez zuten ezagutzen-eta Xalbadorrekin guztiz itsutu zen apaiz gazte hura.

Egun hura hala pasatu zen. Eta handik urte batzuetara, 1967an, joan omen ziren lehenengo aldiz haren etxera, berak aitortzen duenez: «Hirurogeita zazpian joan ginен bere etxera lehen aldiz, neu eta beste hiru apaiz ginен lehen aldi hartan, eta betebehar edo eginkizun batekin bertaratu gintzaizkion: txapelketan entzundako txistuen ondoren, gure miresmena agertu eta gure animoa ematea. Gerotzik zenbat aldiz joan ote nintzaion! Baita belarretan laguntzera ere behin baino gehiagotan. Xalbadorrekin erabateko sintonia izan nuen. Ez dakit berak miresten ninduen, baina bai lagun handi izan eta asko istimatzen ninduela. Nik, adiskidetasunaz gain, miresmena nion, beti bait zuen ar-gizko sorpresa» (4).

Baina arazo larri bat zuen Joxe Marik Urepelera joan eta Xalbador bisitatzea era-baki zutenean (Jesus Mari Mujika, Mikel Atxaga eta hirurok), nahi izatea ez baitzen aski. J. M. Aranaldek ez zuen pasaporterik garai hartan, ezta izateko esperantzarik ere, itxuraz. Eta, zer egin zutela uste duzu? Garai hartan Zeruko Argia astekariko zuzen-dari zen aita Beizama –Kaietako Ezeiza– kaputxinoari bere pasaportea eskatu zioten, mesedez, mugazaina ez zela ohartuko-eta, baldin eta despiste- aurpegia jarri eta bes-taldera begiratzen bazuen behintzat Joxe Marik muga pasatzeko momentuan. Esan eta egin: halaxe pasatu zuten muga, eta Urepelera joan ziren, egun-pasa.

Gero, egun hartakoa erraz samar lortu zutela ikusita, berriz ere joan ziren, behin eta berriz; eta uda garaia baldin bazea, belarrak ontzen, ganadu-jatekoak egiten eta ho-rrela laguntzen zioten Ferranddori. Udazkena edo negu garaia zenean, berriz, basora joan eta azpiak egiteko garo eta orbela, edo surtarako egurra ekartzen laguntzen zioten, goiz partean. Gero, bazkalondoan, kontu-kontari egoten ziren sutondoan, Xalbador kontalari aparta zen-eta. Bertsoak ere kantatzen zizkien inoiz, haien onespain beharrez-edo.

1975-1976an Xalbador bere *Odolaren mintzoa* liburua prestatzen ari zela, berriz, Fernando Artola Bordari eta Antonio Zavalarekin joan ohi zen Urepelera, baina orduan bere pasaportearekin, hombre! Eta bakoitzak bere zeregin jakina izaten omen zuen: Antonio Zavala, Xalbadorren idazkaria zen, hark esandakoak zuzen apuntatu, edo haren eskuidatziak jaso eta makinaz idazteko. Bordari, taldeko errege magoa bezala zen, egun-pasa egiteko behar zirenak eta familiarentzat erregaliak berak eramatzen baitzi-tuen; eta, nola Leoniri hala Xalbadorri, bina musu ematen zien. Joxe Mari Aranalde, berriz, hegoaldeko enbaxadore ofiziala bezala zen, eta lehen agurrak begiramendu eta maitasun handiz egiten zizkien: lehenengo, Leoniri eskuan muin eman, burua pittin bat makurtuz; eta gero, Xalbadorri eskua ematen zion, begirune handiz.

Euskalzalea

Azkenik, ez nituzke utzi nahi aipatu gabe Joxe Mari Aranaldek euskararekin zi-tuen atxikipena eta konpromisoa, labur bederen. Berea eta gurea delako maite zuen, eta herri honek euskara behar duelako. Nekez onartuko zuen hark euskarari mespretxu-egin, edo euskara bai ala ez eztabaidan hasten zenaren argudiorik; berehalaxe haserre-tu eta egoskortzen zen horrela jokatzen duten politikoak-eta aipatzen hasita ere.

Euskara onaren jabe zen etxetik, eta bere ama-hizkuntza maite zuen edozeren gai-netik. Baino gehiago nahi eta euskara lantzen saiatu zen gazte-gaztetatik. Euskara ikasi, euskaraz kantatu eta irakurtzen ikasteko lagunzaile onak izan zituzten hark eta haren lagunek, Saturrarango urteetan. Besteak beste, hilero bisitatu ohi zuten don Andoni Basterretxea apaiz jauna. Joxe Mari berak idatzia da honako hau: «Ordukoa dugu guk gure ezagutza don Andonirekin. Eta nolako ezagutza! Berak erakutsi zizkigun gerora idazle izango ginengoratu euskarazko lehen letrak. Eta zenbat euskal kanta! Eta zenbat izar gau oskarbietan!» (Auspoa, 270; Andoni Basterretxea: *Ene Ondarru*). Bestalde, gainera, garai hartan euskara ikasten eta irakasten ahaleginu zen don Antonio Garro Abaroarekin izan zuen gramatika ikasteko aukera eta haren euskal liburutegi bikainaz baliatzeko zoria. Horregatik idatzi zituen harentzat esker onezko bertso hauek:

Maisu eta ikasle ginengoratu elkarrengana ingura;
Saturrarango itsas-erzean zenuen gure ardura.
Zure abizen ederrari guk egin genion bihurra,
harekin jotzen genuelarik maiz zure bihotz xamurra.
Barka zaiguzu, don Antonio maite, ezizen pikaro hura.

(J. M. Aranalde: *Bihotzak dion hura*. Auspoa, 258)

Apaiz eginda gero, euskarari eta euskal kulturari guztiz lotuta bizi izan zen. Eta irakurle handia zenez, euskarazko egunkari eta hilabetekariak nekez baztertuko zituen hark. Maite zituen idazle zaharrak, baina baita gaur eguneko idazleak ere. Jabier Kalzakorta irakasle eta taldekuideak idatzi zuena berrituko dizuet, oso ondo laburbiltzen duela uste dut-eta Joxe Mariren izatea:

Ez dut ezagutu inor, euskal kulturan, bera bezalaxe egunean eguneko aldizkari, egunkari eta berrien pentsamenduaren den euskaltzale suharriak. Euskal idazle gazte eta berrien azken lanak irakurtzen zituen. Eneko Bidegainen eleberriak, Bernardo Atxagaren eleberri zein ipuinak, Iban Zalduaaren ipuin-liburua zein azken bertso-saioetako berriak zituen hizpide... Euskal kulturan «egunean» egotea maite zuen Joxe Marik, azken berrien talaian begirari egotea, talaiai begi-erne eta ohartu bat bezalaxe. Inor kritiko ezagutu badut euskaldunen artean, bera izan zan zalantzak gabe. Hala ere, harrigarria egiten zitzaidan hain kritiko izanik hain optimista izatea... Baino optimismoa bere nortasunaren alderdirik disdiratsuenetakoa zela iruditu izan zait beti.

Egunero klaseak euskaraz eman beharrak ere behartzen zuen Kalzakortak zioen zabaltasun horretara. Baino, halaxe izan ez balitz ere, espíritu zabalekoa zen, eta euskaltzalea, orpotik bururaino.

Helduei euskara erakusten ere ahaleginu zen. Horretarako egin zuen, adibidez, 1984an grabatzen hasi eta 1985ean Euskal Telebistan emititu zen saio hura, *Berbeta* izenarekin. Miren Azkarate eta Patxi Altuna euskaltzainek jarraitu zuten gero.

Euskaltzain urgazlea

1975eko ekainaren 27an euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak; eta Akademia honen eskariz, nahiz bere kasa, lan asko egin zuen euskara eta euskal kulturaren alorrean. Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordeko kide izan zen azkenengo urte hauetan, Juan San Martin zena, Juan Mari Lekuona, Antonio Zavala, Emile Larre,

Jesus Mari Etxezarreta *Izazpi*, Pello Esnal, Joxe Ramon Zubimendi, Antton Aranburu, Joxemari Iriondo eta Jabier Kalzakortarekin –Patziku Perurena ez zuen ezagutu taldean, sartu berria baita–. Eta batzorde honek antolatu izan dituen jardunaldietañ hizlari izan zen eskatu zitzaison bakoitzean, lehenxeago esan dizuedanez.

Euskararen Aholku Batzordean

Saltsa askotako perrexila izateko jaioa izaki, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeko kide izan zen, 1982ko urtarilean hasi eta 1988ko otsailera arte, Jaurlaritzako aro berriko sei urte luze haietan. Karlos Garaikoetxea Lehendakari eta Pedro Migel Etxenike Kulturako Sailburu zirela, hain zuzen. 1982ko urtarilaren 11ko 5/1982 dekretuan proposatu zuten, eta 1982ko otsailaren 15ean onartua izan zen Joxe Mari eta talde osoa; eta 1988ko otsailaren 26ko 23/1988 dekretuaren arabera desegin zen lehenengo talde hura.

Mahaian eta jokoan

...ezagutzen omen dela egiazko kabaileroa esan ohi ziguten ikastetxeko gure zuzendariek, gaztelerez (*En la mesa y en el juego se conoce al caballero*). Eta Joxe Mari Aranaldek mahaian eta jokoan zuen handitasuna aipatzea beharrezkoa dela pentsatzen dut.

- a) Lagunekin pilotan ari zenean, menderakaitza zen, gogorra. Gauzak ziren bezala, edo berak uste zuen bezala, argi eta garbi egitea gustatzen zitzaison. Galdetu bestela asteazken eta larunbatetan bi-bitara haren lagun eta kontrario izan ohi ziren anaia Luisi, Mikel Atxagari edo Luis Mari Mujikari. «Basurdea baino domakitzagoa zuan!», erantzungo dizute. (Nik ere ez dut ahaztu Xabier Lete eta bioi Zarautzen eman ziguten egurra!)
- b) Mahaian, mokofina zen, jan-edanean; baina beti neurrian ibiliko zen. Sekula ez nuen ikusi *brasiatuta*, gure aldean esaten den bezala. Bere edaririk maiteenak, eguerdia baino lehen bazen, Getariako txakolina; eta eguerdian edo arratsean, biziki maite zuen sagardoa, edo ardo ona; ordena horretan. Gero, ongi jan eta edan ostean, *Espainiako koñak xahar bat* gustatzen zitzaison, hartu behar zenean behintzat. Eta Frantziakorik izatekotan, berriz, xanpaina. Erre, *montekristo* koskor bat, ahal zenean, ez handiena, ez txikerrena. Ez dakit oraingo lege berriein nola konponduko zen.
- c) Eta bere lagunentzat otordu-prestatzaile berdingabea. Artista hutsa zela esango du hura ezagutu zuen edonork. Su-gaineekoak egiten egokia, janariak mimo handiz maneiatu eta detaillerik huts egin gabe dena prestatzea gustatzen zitzaison: mahai-zapia, ontziak, koilara eta tenedoreak, bakoitzta bere tokian txukun bakoitzarentzat jarrita. Ez dakit non eta nola arraio ikasi zuen, baina emakume-eskua zuela iruditu izan zitzaidan beti lan horietarako. Ama zena, arreba eta koinata izango ziren maistra eta erakusle zeregin horiek ikasteko. Gustatu egiten zitzaison gainera, eta harro asko aitortzen zuen.

- d) Etxeko lanen kontuak aipatzen hasi naizenez gero, esan dezadan zerbait gehiago ere: Arropak garbitzen eta plantxatzen ere maisua zen, eta inoiz zerbait josi behar zenean josten, edota etxetik irten baino lehen bere oinetakoak txukun garbitzen, mutila.
- e) Umezale purrukauta zela esan dut, eta bere iloba maiteak zaintzen berdingabea zen. Zenbat fardel zikin kendu eta garbia jantzi ote zien, tartean egin behar zirenak asko eginez, Añorgako eta Gazteluko bere etxean! Orain hazi eta gizon-emakume diren horiek ondo balikete hori dena... Horregatik esango zuen nonbait bere lagun batek: «Jainkoak bakarrik zekik andreren batek zer senar eta haurren batzuek zer aita galdu zuten hi apaiz egin hintzanean!».

Nolanahi ere «bere arazoak eta besterenak konpontzen pasatu zian bizitza osoa», entzun izan diot inoiz haren anaia Luisi. Iloba eriarekin Alemanian, Gazteluko base-rriko lanetan, gaueko lab-e-suan okindiegian lanean eta gero Lizeoan klaseak ematen... Lan asko egin behar izan zuen, gauari orduak harrapatuz.

Tira, tira. Pakea behar diu!

Nik gaur hemen esan ditudanak entzuten balego, sinu ezaguna eginez eskua jaso eta, «tira, tira, pakea behar diu, e!», esan zuen honezkero. Eta gaurkoz bada ere arrazoi izango zuen, seguruenik, luzatu egin naiz-eta.

Baina, amaitzeko, berak sinesten zuen zero ederrean bakea eta atsedena izan de-zala opa diot bere maiteekin, eta Alfonso Irigoyen, Juan San Martin eta Juan Mari Lekuona batzordekideekin batera.

Eskerrik asko!

*Joxemari Iriondo Unanue,
Euskaltzaindiko Herri Literatura Bazordeko kidea*

EUJENIO AGIRRETXE AZPILLAGA

Euskal sermolaria eta Euskararen predikaria

(1920-2005)

I. BIZITZA ETA LANAK

1920 azaroaren 15ean jaio zen Eujenio Agirretxe Azpillaga, Errezilgo Otegitxo baserrian. —«Otxo» deitzen zioten ikasle-lagunek gaztetan—. Bederatzi urte zituela galdu zuen ama —amaren heriotza gogoratz hasten du bere *Aldi harten eta Arantzazuren inguruaren liburu «autobiografikoa»* (1). Guztiz lagungarria dugu liburu hori Eujenioren biografia, haren lanak eta pentsaera ezagutzeko—. Aita 1943ko udaberrian galdu zuen:

Euskara besterik ez zekien, jakina, mutiko errezzildarrak familiatik eta lagunartetik; baina euskarako esperientzia gogorra bizi behar izan zuen mutikotatik bertatik eskolan, Primo de Riveraren diktaduraren pean:

Euskara hitz egiteagatik, ni neu eskolan —bazkaltzera erten gabe— itxita behin baino gehiagotan egona nauk zioen 1970ean *Jakin-ek* Salbatore Mitxelenari buruz argitaraturiko liburuan (2) —Salbatore 1965eko abenduan hila zen—.

Errepresioaren pean ametsak lantzen

Hamaika urte betetzean zituela —Errepublikaren garaia zen ordurako— joan zen Arantzazura fraidegai (hiru urte) eta gero Forura (bi urte). Eta erabateko barnetegian bizi arren, kampoko mugimendu politiko eta kulturalen berri iristen zitzaien nonbait, eta hortxe euskaltzaletu eta abertzaletu omen zen 13-14 urteak orduko, berak aitortzen digunez (3).

1936an, 16 urteak bete gabe artean, jantzi zuen fraide-habitua Zarautzen, nobizio-urtea egiteko —bide batez esan dezagun, Otegitxo baserri hartatik beste hiru anaia erlijioso ere izan zirela: frantziskotarra bata, gero apaiz diozesiar bihurtua, pasiotarra bestea, jesuita hirugarrena—. Espainiako gerra zibila bizi-bizirik zegoen Euskal Herrian Eujeniok nobizio-urtea hasi zuenean; errepresio-ondorioak indarrean jartzen hasita zeu-

(1) EFA, Arantzazu-Oñati, 1995.

(2) «Mitxelenarekin pentsaketan», in: *Salbatore Mitxelena, «Jakin sorta»-2*, 1970, 121. or.

(3) Ik. ibid., 121-122. orr.

den ordurako, eta beldurra zen nagusi euskarazko edozein agerpideren inguruan; baita komentu barruan ere. Berak aitortzen digunez:

Ordurako banituengi nik euskarazko liburu batzuk. Kendu eta erre egin zizkidaten komentu ilun harten (4).

1937an Erriberrira aldatu zen, Humanitateetako ikasketak amaitzeo eta Filosofiako egiteko (hiru urte); ikasteko giro eskasa izan zuten, ordea, gerra-urte haietan. Berak ez zuen gerra-frontera joan beharrik izan; baina gerrako bestelako zerbitzutan jardun behar izan zuen berak ere:

Nola edo hala, batzuk fusilarekin gudatzen, besteok hemengo lan bigunagoetan, hor pasa genetxezkin gerrako urteak xelebre asko. Ez priale, ez soldadu, ez ikasi, ez jator joastu, ez bide argirik arkitzent... (5).

Kanpoko eta barruko beldur giro nahasi harten, ikaslagun batzuk taldean elkartu ziren, eta

Isilik baina biziki euskal suari –gure fedearekin batera– gure bihotzetan beti eutsiko geniola hitz eman genion elkarri,

dio aipaturiko bere «autobiografian» (6).

Arantzazuko Teologiako ikasketa-urteak ziren (1940-1944). *Bai* zuen izena ikasleen taldeak; gerora hain ezagunak gertatzen zaizkigun fraide gazte hauek ziren «bai-kideak» –Agirretxek berak erabili zuen hitz hori garai hartako txosten luze batean: Luis Villasante, Salbatore Mitxelena, Karmelo Iturria, Eugenio Agirretxe, Jose Antonio Gandarias, eta beste zazpi lagun, Agirretxek berak izenez izen gogoratzentzat dizkigu-nak (7). Taldearen helburua ez omen zen negar edo amets egitea bakarrik, eta bai norberaren euskara lantzen eta euskal kulturgintzan saiatzea ere; beren arteko aldizkari bat ere argitaratu zuten, *Izarño*, hasieran, eta gero *Bai* izenekoa hori ere. Talde-lan hartatik ekin zion bakoitzak euskararen eta euskal kulturaren alorrean luzarorako bere lanari: hizkuntzalaritzan eta espiritualitatean batek, poesian eta literaturan besteak, kaze-taritzan, irakaskuntzan edo itzulpenetan beste batzuk... Agirretxek berak euskarazko hizlari-ziri heldu zion bereziki, Elizako apostolutzaren alorrean. Hizlari-ztan izan zituen bere bizitzako arrakasta eta osperik zabalenak.

Gaztelatik Euskal Herrira

Arantzazuko urteak amaitzean (1944ko uda-udazkenean) *Bai* taldekoak sakabatatu egin ziren: Villasante, adibidez, Cantabriako Comillas-ko Unibertsitatera joan zen, teologi ikasketak jarraitza; Agirretxe, berriz, Salbatore Mitxelenarekin batera, Burgosko La Aguilera-ko komentura bidali zuten «Pastoraltzako ikastaroa» egitera. Handik hilabete gutxira honela zioen Villasantek La Aguilerako bi adiskideei idatzitako gütunean:

(4) *Aldi harten eta Arantzazuren inguruan*, EFA, Arantzazu-Oñati, 1995, 34. or.

(5) «Mitxelenarekin pentsaketan», a. a., 123. or.

(6) *Aldi harten...,* a. l., 35. or.

(7) Ik. *Aldi harten...,* a. l., 40. or.

Bazenekite nolako biotzmiña, nolako utsunea sentitzen dedan, nere lagun maiteengandik aldenduta, ain ambiente ezberdinean, batez ere gure artean erabilli ditugun lanak eta ametsak gogoratzen ditudan bakoitzean...

Villasantek berak «Otetxori» –Agirretxeri– zuzenduriko beste gutun batean honela zioen hurrengo urtean (1945 epaillaren 18an)...

Ta gure lengo euskal-asmo aiek? Ni lengo berbera nazute, beti bezela nago ni biotzean sua ta garra, lan egiteko prest. Orain jakiña, Arantzazuko lanetarako betarik ez, orain teolojia ikasi ta geroko gauzak kolkoratu-bearra, baña biarko egunean dama ondo etorriko zaidalako asmoz.

Gaztelan hasi zituen Agirretxe herrietak bere sermoi-lanak; han emandako urtean irakurri omen zituen Santa Teresa Avilakoaren obrak ere. Eta urte hura amaitu bezain laster (1945eko udan) Zarautzera hasieran eta udazkenean Arantzazura bidali zuten. Handik aurrera bizitza eta lan ia osoa Euskal Herrian eman zituen: Zazpi urte Arantzazun (1945-52) eta gero berriro Zarautzen (1952-1958); ondoren Bilbon (1958-1959), Tolosan (1962-1963), berriro Arantzazun (1963-1966), Durangon (1966-1969), berriro Bilbon (1969-1977) eta Errenterian (1977-1992) eman zituen bere urte sasoi-koenak. Zahartzaroan sartuta, Zarautzen jardun zen, gogotsu eta ekintsu artean (1992-2004); urte horretan, gaixo eta ezindurik, Bermeoko fraideen komentu-eritexera era- man zuten, 1995eko uztailaren 7an bertan hil zen arte.

Misiolari eta predikaria

Gaztelatik Euskal Herrira itzulita, hamabost bat urtez (1945-1959) ozen entzun zuten Agirretxe predikariaren ahotsa euskal herrietan: Hondarribia, Zegama, Hernani, Donostia, Arbizu, Ezkurra, Aramaio, Gernika, Plentzia, Gernika, Barakaldo, Gasteiz, Bilbo, Erandio, etab. etab. Herri-misioak, gogo-jardunak, bederatzurrenak, Ostiral santuko Zazpi Hitzak, Arantzazuko gazteen gau-igoerak, santuen panegirikoak, sermoiak: horietan eta bestelakoetan jardun zuen sutsu eta ekintsu. Urte horietan batez ere oso ezagunak egin ziren Euskal Herriko bazterretan Agirretxe predikari gartsu eta zorrotxaren irudi lerdena eta ahots ozena. –Espainia aldean ere jardun zuen herri-misioak ematen: Cartajena, Sevilla eta Ecija-n. (1957)–.

Egunean eguneko predikaria zen Agirretxe, egunkari eta aldizkari berrienetako munduko albiste hunkigarrienetatik abiatu zalea, entzuleak erne jartzeko asmoz; eta hurbileko predikari sarkorra zen, hitzaren berotasunarekin batera jendearen gertuko adibideak, konparazioak eta metafora konkretuak erabiltzen zekiena. Hurbilekoa gertatzen zen, nahiz elizako goiko pulpitutik (jaietako sermoiak edota bederatzurrenak), nahiz udaletxeko balkoitik (herri-misioak eta), nahiz bideko furgonetatik (gazteen Arantzazuko gau-igoeretan, adibidez) mintzatu, inguruau bildutako entzuleei; jendearen tarte-an sentitzen zuen bere burua, eta tartean sentitze horrek inspiratzen eta berotzen zuen bera.

Jakina, garai hartan ez zen trabarik falta izan gure predikari profetikoaren hitzarentzat. Gaztelatik lehen aldikoz Zarautzera iritsi orduko, honako aholku hau eman omen zion bertako nagusiak, apostolutzaz sukarrez sututa zetorren fraide gazteari:

Kontuz, gero, politikan etaizatezela sar!

Eta bere aldetik gaineratzen du berak:

Gero ere askotan errepikatu zidaten kontseilu edo agindu hori, batez ere, publikoki hitz egin behar nuen egunetan (...). Ze ote zen, bada, politikan sartzea edota ez sartzea? Makina bat buruhauste ekarri izan digun galdera eta arazoa izan da horixe (8).

Gainean ezarritako «ezpata» mehatxuzko horrek etengabe jarraituko zion, bada, Frankismoaren garaian gure predikari ausartari. Behin baino gehiagotan, nonbaiteko salaketak edota presioak tarteko, apezpikuaren zentsurari eta gutun mehatxuzkorik ere hartu izan zuen, berak egindako sermoiren bat zela eta. Berarekin batera Salbatore Mitxelenak ere bai; biok Eibarren emandako misioaren ondoren (1953) izan zen, hain zuzen ere, horietako bat; predikatzeko baimena kendu zion ondorioz apezpikuak Mitxelenari (9). Agirretxeri ez zitzzion orduan zuzeneko debekurik etorri, baina mehatxupean jarraitzen zuen. Dena dela, bere aldetik ez zuen sekula bere hitza isilpetu, hitza zuelako bere apostolutzako lanabes nagusia, hitzaren indarrean zeukalako bere indarra.

Mitxelenarekin, hain zuzen, joan zen Agirretxe, Euskal Herritik urrun 1954an: Kubara, bertan herri-misioak ematera. Salbatore Ameriketan geratu zen zortzi urtez; baina Eujenio Euskal Herrira itzuli zen, ia urte erdi Kuban eman ondoren.

Aire eta bide berrien bila

Eliz apostolutzarako eta predikaziorako aire eta bide berrien bila zebilen, ordea, Agirretxe. Horretarako aukera aurkitu zuen «Mundu Hobearen aldeko Mugimendua» izeneko Eliza barruko ekintza apostolikoan. Hiru urtez (1959-1962) gehienbat Euskal Herritik kanpo –Italian eta Spainian– jardun zen mugimendu horren baitan «Eserciziioni per un mondo migliore» zelakoan, apostolutzarako jardunaldi apartekoak, laiko nahiz apaiz kezkatuei zuzenduak, ematen eta zuzentzen. Mugimenduak Segoviako La Granja herrian zuen etxe nagusiaren zuzendaria ere izan zen aldi batez. «Ejerzitazio» apostoliko horiek San Ignazioren «Ejerzizio» espiritual klasikoan aldean bestelako gaiak zerabiltzaten eta bestelako helburuak bilatzen zituzten; eta horietako hitzaldi-estilo teologikoa herri-misioetako estilo moralista eta apokaliptikotik oso urrun zegoen, entzuleak ere oso bestelakoak izan ohi ziren eta.

Hiru urteko esperientzia hori amaituta, berriro Euskal Herrian dugu Eujenio; Vatikanoko II. Kontzilioa hasia zen, horrek Elizarentzat eta nolabait gizarteari begira ere ekarri zituen berrikuntza eta molde berriak eta guzti (10). Gure arteko giro ideologiko

(8) *Aldi hartan..., a. 1., 53-54. or.*

(9) Urtebete lehenago, Agirretxek ere hartua zuen apezpikuaren aldetik baimena kenduko zion mehatxu zorrota, Zumaiako gazteei emandako gogo-jardunak zirela eta. «Dijo entre otras cosas que si los obreros no recibían jornal suficiente, podían cruzarse de brazos durante un par de horas en su trabajo, en señal de protesta», zioen apezpikuak Arantzazuko gardiano Pedro Aranguren idatzitako gutunean. Eta gaineratu zuen: «... Esto además de sus acostumbradas soflamas en materia social con ribetes políticos, impropios del púlpito, desde donde debe predicarse exclusivamente la palabra de Dios y siempre con lenguaje prudente y decoroso» (Arantzazu Komentuko Artxiboa, Arm. 5, Carp. 46, Dos. 1).

(10) «Eta Kontzilioa hasi eta aurrera ziohoalarik, ni Euskal Herrira itzuli nintzen betirako», gaineratzen du aipaturiko bere liburu autobiografikoan (*Aldi hartan..., a. 1., 40. or.*)

eta politiko itxi eta itogarri hura gainditu nahian edo, Frantziako eta Europano pentsamendu eta mugimendu filosofiko-teologikoa eta sozial irekiagoez jabetzen saiatu zen Agirretxe urte haietan. Adi egon ohi zen Elizan nahiz gizartean ari ziren mugimendu eta korronte moderno eta berritzaleei buruz eta grina handiz saiatu ohi zen horietaik ikasten. Vatikanoko II. Kontzilioaren inguruau Elizan gertaturiko «Aggiornamento» mugimendua bizi izan zuen bereziki itxaropen handiz. «Eliza Amak nire bizi guztian eman didan pozik ederrena eta betegarriena halako batetan (1962-X-11) hasi zen Vaticano II.a izeneko Kontzilio hura izan da. Hark bete gintuen itxaropenez eta ilusioz», aitortzen du berak (11). Nik neuk Arantzazun izan nuen Agirretxe Teologiako ikasle gazteon arduradun –«maisu»– urte haietan: 1964-1966. Ilusio haiiek guri komunikatzeaz gain, aire berriak sartu zituen fraide gazteon «barnetegiko» hezkuntzan ere.



Kontzilioa amaituta (1965) eta Arantzazuko hezitzaila-lanak lagata (1967), metodo eta bide berriei ekiten die gure hizlariak: kristau talde txikien animazioari eta fededun helduen katekesiari. Hitz du beti bere tresna nagusia; baina bestelako entzulei zuzendua eta bestelako metodoz landua orain. Bide horretatik jorraituko du nagusienik hurrengo hogeitabost urteetan: aurrenik Bilbon eta Bizkaian eta gero Errerterian eta Gipuzkoan.

Hiru fase –agian fase jakin baino gehiago hiru metodo eta estilo– bereiz genitzake, beraz, bere hitzaren dohainaz eta indarraz baliatzen jakin zuen Agirretxe hizlariaren apostolutzat-ildoa:

- Jendolde handien aurreko sermoiak (herri-misioak, Arantzazuko gazteen igorrek, eliza edota plaza beteko hitzaldiak) (12);
- Talde espezifiko eta aukerakoentzako zenbait egunetako berrikuntza-jardunaldiak (aipaturiko «Mundu Hoberako Esercitazioni» edo «Ejercitaciones» hiae, San Ignazioren Gogo-jardunak, etab.);
- Oinarriko kristau elkarte txikien katekesia eta hurbileko animazioa, fede sakonetari begira. Hiru metodo-estiloak erabili zituen, erabili, nolabait bere bi-

(11) *Aldi hartan...*, a. I., 90. or.

(12) Bere egunkarian honako hau aitortzen digu 1982an:

Zaratzen jarraitzen dut; gaur igandea. Hemengo meza-elizkizunak jende askorekin. Horrelako jendetzen aurrean hizlari izateko gogoa berritzen zait beti. Eta hori egin ezinak sufritu egin arazten dit.

zitza osoan, baina herri-misio jendetstuak nabarmendu ziren lehen fasean (Kontzilioaren aurretik); Mundu Hoberako elite-jardunaldiak nagusitu ziren bigarren fasean; talde eta elkarteko txikien katekesian saiatu zen nagusienik hirugarraren fasean, Kontzilioaren ondoren.

Azken batez, jendaurreko hizlitzan ezezik, irratia bidez ere landu zuen Agirretxek hitzaren dohaina: «Egiaundiren hizketak» (1958 inguruan), elkarritzeta gisa eratua dira horietako batzuk –horietakoenean 13 gidoi, berak prestatua, artxiboa aurki ditzakegu–.

Sustatzaile eta antolatzailea

Bide berrien bilatzaile bezala antolamendu berrien sustatzaile eta eratzaile ere bazen etengabeko ekimenak eragindako Eujenio Agirretxe hura. Bide berriak urratuko zituzten antolamenduak eratza zen, hain zuzen, kontua. Euskal Herriaren eta euskal fededunen zerbitzu egokiagoa bilatu zuen gehienetan horien bidez, eta euskararen erabilera izan zuen horrelakoetan kezka nagusietako bat.

Kristau apostolutzari guztiz emandako frantziskotarra zen aldetik, Frantziskotar Hirugarren Ordenari (edo Frantziskotar Ordena Sekulararra) atxekia jardun zuen bere apaiz bizitza osoan; apaiz gazte-gaztea zenetik eta gaixorik Zarautz Bermeora erretiratua zen arte, ia etenik gabe eduki zuen bera bizi zen herriaren eremuko, edo inguru zabalogoko eskualde edo herrialdearen barrutiko edota Frantziskotar Probintziaren lurraldetako Hirugarrendarren ardura espirituala; bederatziz bete zuen azken maila goren hotetako kargua (1952-1958 eta 1966-1969). Tradizio handikoa eta nolabait astuna zen Hirugarrendarren Ordena; saiatu zen bera behin eta berriro horren barruan bide berriak irekitzen. Eta euskaldunentzako euskarazko zerbitzua eskaintzen era berean: horren bulletinean euskarazko artikuluak idatziz (eta geroago euskarazko buletin berezia, *Anaitasuna*, sortuz), Ordenaren Erregela eta bestelako materialak euskaratuz, etab.

Aipaturiko sormen eta antolakuntza-grinaren eta bere barru-barruko beste kezka nagusietarikoen adierazgarri eta lekukoa da bereziki 1960an eratu zuen *Arantzazuko Amaren Misiolariak* (ARAMI) elkartea, Euskal Herriko neska euskaldunei zabaldua, eta bakoitzaz bere lekuaren eta bere lanbidean bizi izateko moduan antolatua. Beraien kristau heziketarekin eta fedeko bizitza sakontzearekin batera, Euskararen eta Euskal Herriaren alde lan egitea zen «Aramitarren» helburua, Eliza barruan nahiz gizartean. Elkartearen oinarrietako bat, kideek beren arteko bizitza eta apostolutz-laiana, eta ahal zuten neurriaren beren lan profesionala ere, euskaraz egitea zen (13). Agirretxe bera izan zen elkartearren gidari eta sustatzaile espirituala, hil arte. Horrela erantzun nahi izan zion berak minez eta saminez bizi zuen kezketakoa bati: nola gure baserri eta herriatik mojatarra sartzen ziren neska euskaldun-euskaldunek euskara baztertu behar izaten zuten komentuko ateetatik barrura sartu orduko (14).

Ez dakit jatorriz beraren ideia izan zen Euskal Erlijiosoen Loiolako Batzarrena; baina bera izan zen horien sustatzaile eta antolatzaile nagusietakoa. Izan ere, 1972-1979 tarteko urteetan urtero beren batzar zabal eta irekia egin zuten Euskal Herriko

(13) Ik. *Aldi hartan...*, a. I., 161-165. orr.

(14) ARAMIri buruz, ik. *Aldi hartan...*, a. I., 161-165. orr.

hainbat Kongregaziotako erlijiosoek, dena euskaraz, jakina, Euskal Herriarentzako beraien zerbitzuak nolakoa izan behar zuen aztertzeko. Horien helburuetako bat honako hauxe zen: euskararen eta euskal kulturaren egoera eta balioa erlijiosoak hobeto ezagutzea, horiei buruzko beren erantzukizunaz jabetzea eta beren misioaren barruan eta lanean horiek aintzat hartu eta praktikatzea. Batzar horiek aski eraginkorrik izan ziren, besteak beste, Erlrijoso Institutuen euskararekiko jokabideak aldatzeko, irakaskuntzan, liturgian, apostolutzan nahiz barruko bizitzan (15).

Batzar horien ondorio izan ziren urte haietan antolaturiko euskal Erlrijiosoen jardunaldi edo kongresuak ere, Oñatin eta Donostian ospatuak. Horien asmatzaile eta sustatzaile nagusien artean ere beti zegoen Eujenio Agirretxe.

Era berean, kezkatuta zegoen apaizek urtero egin ohi zituzten gogo-jardunak euskaraz egiteko aukerarik ez zegoelako; beraren eraginez seguruenik, apaiz eta erlijiosoren batzuk elkartu ziren, beren aldetik euskarazko gogo-jardun bereziak antolatzeko, eta hainbat urtetan antolatu zituzten horrelakoak. Beti zegoen Eujenio Agirretxe antolatzaileen artean.

Kazetari eta idazlea

Elizako predikari, hizlari, antolatzaile eta sustatzailea izateaz gain, euskal kazetari eta idazle izan zen aldetik aipatu behar dugu Agirretxeren lana; haren Eliz apostolutzari eta militantziari begira edo horren ildotik eta zerbitzura eman zuen gehienbat haren idazle-lana; eta hainbat arazo sozialekin batera, teologiako, etikako eta espiritualitateko gaiak landu zituen nagusiki bere idatzietan.

Agirretxeren euskarazko idatzizko kazetaritza erlijiozkoa neurri batez Frantziskotar Hirugarrendarrei lotuta dago. Bazen garai hartan *Irugarrongoen Irakaslea/El Maestro de los Terciarios* hilebetekari elebiduna (1944-1949), Gerra zibilaren aurreko *Irugarrongoen irakaslea* izenekoaren jarraitzailea, eta 1950etik aurrera bitan banatu zena: *Anaitasuna* (euskaraz) eta *Franciscanism* (gaztelaniaz) –*Anaitasuna* hori gipuzkerazkoa zen; geroago sortu zen *Anaitasuna* bizkaierazkoa; *Irugarrongoen Irakaslea-n* aurrenik eta *Anaitasuna-n* ondoren ia hilero-hilero bere idazlana argitaratu izan zuen Agirretxek euskaraz hamabost urtez (1944-1959).

Hurrengo urtean (1960an) sortu zuen Jose Antonio Garatek *Goiz-Argi* aldizkaria; horko lankide saiatua ere izan zen Agirretxe urte askotan; eta 1962-1963 urteetan aldizkariaren zuzendaritzan zuten gainera bere esku. Aldizkari honetako hainbat artikulu (1965-1975 bitartekoak) daude bilduta *Baserriko lehotik* liburuan. *Aránzazu* aldizkarian ere hainbat lankidetza eman zuen –aldizkari horren zuzendari ere izan zen denboraldi batean–. Aipatzeoak dira, era berean, egunkarietan Agirretxek argitaratutiko lankidetzak: *Diario Vasco*, *Deia*, etab.tan.

(15) Batzar horiei buruz ere Agirretxe bera mintzatu zitzaigun luze samar aipatua dugun liburuan: *Aldi hartan...,* a. I., 168-171. orr. Bere Egunkarian «birjaitze» esperientzia modukotzat hartzten zuen Agirretxek beretza Loiolako Batzar horietakoak, Mundu Hoberako Mugimenduan bizi izandakoa hartzen zuen bezala, edota Vatikano II. Kontzilioaren garaikoa.

Espainiako Gerra zibilaren ondoren Hego Euskal Herrian argitaraturiko liburuetan, eta Kristau Dotrina kenduta, aurrenetarikoa izan zen Agirretxeak argitara eman zuen liburuska: *Arantzazuko Ama Birjñaren bederatzi-urrena* (1946) (16). Hurrengo hamarraldian eman zituen argitara beste bi liburu, deboziozkoak horiek ere: *Umetxoen otoi-tzak* (berak sinaturiko sarrerarekin) (17) eta *Arantzazu'ra erromes* (18).

Bestelakoak dira geroago argitaratu zituen bi liburuak: maiz aipatu dugun *Aldi hartan eta Arantzazuren inguruaren liburu autobiografikoa* (19) eta *Baserriko leihotik. Aldi hartako kezkak eta gogoetak. 1965-1975* (20).

«Eugenio Agirretxe» sinaduraz gain honako ezizen hauek erabili zituen bere kategoritzako lanetan: «Otetxo», «Anaia», «Egiaundi», «Atarre», «Zubigile».

Argitaragabeko beste zenbait liburu edo liburugai utzi du Agirretxeek, beti euskaraz idatzita, burututa nahiz burutu gabe. Espiritualitate alorreko gaiak darabiltza gehienbat horietan.

Aipatzekoak dira Agirretxeren euskarazko itzulpenean lanak ere. Autorearen izenik ez baldin badarama ere, seguruenik berak itzulia da *Frantziskotar Ordena Sekulararren Bizi-bidea* (Arantzazu, 1979), Paulo VI. Aita santuak onartua (1978); *Asisko Frantzisko. Asisko Klara* liburu mardularen itzultzaleen artean ageri da bera (21). Argitaratu gabe geratu ziren berak gaztelaniatik itzuli eta moldaturiko *Kristau bizitza berritzen* tituluko helduen katekesi-gaiak; eta argitaratzeko guztiz prestatuta utzi zuen berak oso gogoko zuen eta aspalditik itzulia zeukan liburu hau: Jacques Loew-en *Dans la nuit j'ai cherché – Gauez Bila* (22).

Dena dela, Agirretxeek idatzita utzitako euskarazko materialik interesgarriente tarikoak seguruenik haren sermoiak eta hitzaldiak dira. Hainbat karpetetan ordenatuta aurki daitezke horiek, berak hala lagata. Material horren guztiaren azterketa sakonagoa egitea bidezkoa litzateke, zalantzarik gabe: Eugenio Agirretxeren oratoriaren estiloaren aldetik, batetik, eta garai hartako Eliza predikuetako gaien aldetik, bestetik.

II. EUSKARARI BURUZKO PENTSAERA

Esperientzia latzak bizitako gizona da Agirretxe, euskara zela eta. Mutikotan eskolan bere zigorak izan omen zituen euskaraz mintzatzearagatik, gorago aipatua dugunez; Arantzazuko kolegioan bertan halako zigorrik ez, baina erdara nagusi: «... erdara hutsezko mila errezo», dio berak (23). Eta hala ere, hamahiru bat urtetarako euskara

(16) EFA, Arantzazu, 1946.

(17) AS CEA, Bilbo, 1950.

(18) Itxaropena, Zarautz, 1956, 46. or.

(19) EFA, Oñati, 1995, 198. or.

(20) EFA, Oñati, 1998, 253. or. (*Goiz Argi aldizkariko hamar urtetako artikuluen antologia da*).

(21) Arantzazu E.F., 20021, 288. or.

(22) Orain dela hogei urte (1985an) liburu hori laster argitaratuko zioten itxaropena agertu zuen Agirretxeek. Hori ikusi gabe hil zen.

(23) *Aldi hartan..., a. I.*, 27. or.

maitatzen ikasias omen zuen, eta gero eta gehiago maitatu ere –horrelako esperientzien ondorioz, bestelakorik ere gertatu ohi den arren: hau da, norberaren hizkuntza gorrotatzen aldatzea–. Urte gogorrak jasan behar izan zituzten komentuan bertan Espainiako Gerra zibilaren ondoko urteetan: etxe barruko susmo txarreko (24) eta debekuzko (25) giroa euskara eta euskal kulturari buruz, euskal liburuak bahitu eta erretzea, gorago ere aipatu dugunez (26), euskaraz mintzatzeko debekua Erramatik bidalita zetorren Bisiitari Jeneralaren aldetik (27), etab. Baino euskararen suari eustea lortu zuen berak, eta euskalgintzan saiatu zen, Euskal Herriaren zerbitzura, bere apaiz-lanaren eta apostolutzaren ildotik.

Euskaltzale eta Euskaltzaina

Bere aldetik saindu zen Eujenio, saindu, euskara lantzen, bere apaiz-lanetarako obligazio larritzat hartuz hori. Horretarako sortu zuten gorago aipatu dugun BAI taldea eta aldizkaritxoa Arantzazuko Teologiako zenbait ikaslek, Agirretxe tarteko: Elkarrí lagunduz, beren euskara lantzeko eta hitzez nahiz idatziz hori praktikatzeko asmoarekin. Izan ere, bestela oso murritzuta eta atzenduta geratzen baitziren fraide apaiz-gaiak beren apaiz-lanetan euskaraz jarduteko, apaizgintzarako orduko ikasketetan lekurik ez zeukalako euskarak. Teologiako ikasle zeneko urte haietako da seguruenean oraindik ere Agirretxeren artxiboa aurkitu ahal dugun koadernoan, non euskal atzikien zerrenda osoa baitzeukan bertan eskuz kopiatuta, Sebero Altuberen liburutik hartuta. 1978an, 58 urte zituela, atera zuen Agirretxek Euskaltzaindiaren «Euskara D titulua». Eta zazpi bat urtez euskara-irakasle izan zen Erreenteriako Tolareberriko esku-la publikoan. 1986an utzi zuen lan hori.

Euskararen bizitzaren eta erabileraaren alde ahalegindu zen Eujenio Agirretxe: gizartean, Eliz elkartean eta erlijiosoen bizitzan. Euskal jendeen duintasunak eskatzen zuen, beraren iritziz, euskararen erabilera duina, Elizaren eta predikarien aldetik bereziki. Horren adierazgarri da, 1953an Salbatore Mitxelenarekin batera Eibarren euskaraz eman zuen herri-misioa, nahiz eta bi hilabete lehenago erdaraz emana zuten besteren batzuk (28). Era berean, horren adierazgarri da 1964an Hernaniko herri-misioan gertaturikoa, Agirretxek berak kontatua duenez. Bi misio eman zituzten aldi berean, Agirretxe tarteko: eraldunentzat, batetik, eta euskaldunentzat bestetik. Erdaldunentza-

(24) «Euskara bera eta euskal kutsua zedukan guztia gaiztotzat jota zegoen» (*ibid.* 39. or.).

(25) «... fraide bizitzari jarrai nahi bagenion, abertzale eta euskarazale izaterari uko egin behar geniola behin eta berriz esango zitzaigun. Esan eta egin: nire laguna kanpora bota zuten» (*ibid.* 34. or.).

(26) Gorago aipatu dugu nola erre zizkioten bere euskarazko liburuak komentuan; berari eta beste lagunen batz ere, gaineratzen duenez (*ibid.*, 34. or.).

(27) 1943an gertatu zen hori. Francisco Aldegunde Bisiitari Jeneralak hala aginduta:

«... legearen eta heziketa onaren aurkakoa zelako, eta, beraz, zigortzekoa, euskaraz hitz egitea, batez ere errekreo-gelan eta pasiloetan (eguneroko komentutik kanporako solas-ateraldietan, alegia)...», zioen bere aginduan.

(28) Eibarko Misio horien ondorioz kendu zion Donostiako gotzainak predikatzeko baime-na Mitxelenari. Misiolarien aurkako salaketa ipini zuenak modu ironikoan aipatzen zuen euskarazko misioak antolatu izana bera, horien premia zalantzan ipiniz, admirazio-zeinuaren bidez: «...las cuales han sido organizadas para completar(!) las que en castellano tuvieron lugar con éxito impresionante el pasado Enero». (Arantzazuko Komentuko Artxiboa, VI. lib., 121. dok.).

ko iluntzeko ekitaldi nagusia parrokan jarri zuten; eta aldi berean euskaldunak «Zintzotasuna» izeneko zinemaren areto estu eta eskasean bildu behar zuten berentzako hitzaldia entzutera. Euskaldunen protesten ondoren lortu zuten iluntzeko ekitaldia ere elizan jartzea euskaldunentzat; Agirretxek euskaldunen eta parrokoaren bitartekoarena egin zuen orduan (29).

Gorago aipatu ditugun Euskal Herriko erlijiosoen Loiolako Batzarren asmatzaile eta antolatzaileetan nagusienetakoia izan zen bera. Era berean, Frantziskotar Probintziaren 1979ko Kapitulu (batzar) probintzialerako fraideak euskalduntzeari buruz landutako azterketa eta txostenaren egileetako bat Agirretxe bera izan zen. Beste horrelako hainbat ekimen eta partaidetza aurkitu ahal izango genuke haren bitztan.

Euskararen inguruko biltzar eta jardunalditan parte hartu zalea zen gainera Agirretxe. 1956an, Zarautzen bizi zelarik, Euskaltzaindiak Arantzazun antolaturiko Euskalzaileen Biltzarrean partaidetza bizia izan zuen, hark hitzaldirik eduki ez bazuen ere. 1963ko Euskalzaileen Biltzarrean, osteria, hitzaldia aurkeztu zuen: «Gaurko izlariak eta euskeria» (30); baina bileretan ez zuen parte hartzerik izan nonbait, eta Luis Villasanteek irakurri zuen hark idatzia: (31).

Horiek denak kontuan izanik, uste izatez, euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 1959an; 1998an, berriz, ohorezko euskaltzain egin zuen.

Euskarari buruzko bere pentsamendua zenbait artikulutan ezezik, hitzalditan (batzuetan argitaratu gabekotan) agertu izan zuen Agirretxek; horien artean bereziki aipatzekoak dira, 1963an Euzkalzaileen Biltzarrean emandakoarekin batera, Frantziskotarrek 1960an Arantzazun antolaturiko «Congreso de literatura y predicación franciscana en euskeria» izeneko jardunaldieman emandakoa —«Los medios industrializados y el euskeria» (32)— eta Euskal Herriko Ordena Erlijiosoetako Nagusi Probintzialen II. Batzarrean, Loiolan, irakurritakoa: «La lengua y la cultura vasca en la vida de comunidad religiosa» (1974) (33). Hitzaldiokin batera, ordea, behin baino gehiagotan aipatua dugu autobiografia gisako Aldi hartan eta Arantzazuren inguruaren liburua dugu, beraren euskarari eta euskal kulturari buruzko pentsaera ezagutzeko iturririk nagusiena (34), non behin eta berriro azaltzen baitu euskararen aurkako erasoengatik bizi izandako min eta saminen konturik, eta euskararen eta euskal kulturaren zapalkuntzaren aurkako protesten berri ematen; bai eta apostolutzan eta fraideen anaiaranean euskara erabiltzeko bere arrazoibideak agertu ere.

(29) Eta Agirretxek bere aldetik gaineratzen du: «Eta handik aurrera eliz nagusia gainezkatzeraino bete, ongi bete ere, egiten zuten Hernaniko euskaldunek, bai arratsaldez eta bai ilunabarreko ordutan. Eta, horrela, bai Jaun Erretoreak eta bai kristau herri hark pozik jarraitu zioten misioaldi luze hari» (*Aldi hartan...*, a. I., 129. or.).

(30) 1956ko Biltzarrean Jose Mari Lojendiok antzeko gaiari buruz eman zuen bere hitzaldia: «Kristau ikasbidea eta Eliz-hitzaldiak». Eta ondoren Agirretxek hitza hartu zuen, hizlariaren salaketa berresteko, eta Donostian (eta bestelako hiriburuetako elizetan) predikuak euskaraz eta ordu egokietan antola zitzatzen eskatzeko, eta horretarako bere burua ere eskainiz.

(31) Ik. *Euskeria*, VIII-IX, 1963-64, 443-449. orr.

(32) *Cantabria Franciscana*, 57-58-59 zenb., 1961, 294-295. orr.

(33) Testu daktilografiatua (1974ko ekaina), 9. or. Inon argitaratu gabe dago nonbait.

(34) EFA, Oñati, 1995.

Euskara eta euskal kultura: Elizaren eta agintari publikoen erantzukizuna

Agirretxek ez zuen hizkuntz antropologiako edo hizkuntzalaritzako teoria berezikari asmatu, baina analisi soziolinguistiko interesgarriren eskaini izan zigen (35). Euskarari buruzko bere iritziak ematean bere bizitzako eta laneko esperientzia eta horien inguruko gogoeta kritikoa eskaini izan zigen zuzenean, eta hizkuntza praktikara bideratu zituen batez ere bere gogoetak.

Bere bizitzako esperientzia mingarriez harantza, eta arrazoibide antropologiko handitan sartu gabe ere, honako hau zuen argi Agirretxek: Euskal Herriak bere «herritasunaren» eta euskaldunak bere «nortasunaren» ezaugarririk behinena duela euskara (36). Herritasun-nortasun horiek bizirik zaindu eta garatzea, berriz, gizatasunak ezezik kristau fedeak eskatzen du, beraren iritziz (37).

Euskararen biziraupenak kezkatu izan zuen barru-barrutik Agirretxe, gainbehera eta galtzar ikusten baitzuen. Horrelako egoera bizi izan duten herriek beren hizkuntza salbatzeko zein bide egin izan duten aztertzea proposatu zuen 1956ko Euskalzaleen Biltzarrean (38), eta geroago 1960ko aipaturiko Frantziskotarren kongresuan, flamandera eta txekiera bereziki aipatuz (39). Euskararen biziraupen eta «salbaziorako» iradokizunak eta proposamenak eskaintza eta eskabideak egitera jo ohi zuten zuzeanean haren idazlan eta hitzaldi gehienek.

Euskararen «salbaziorako» bi ardatz edo giltzarri ikusten zituen berak: Botere politikoa (Estatua) eta Eliza (40):

«Todo se podrá salvar en el euskera el día en que la autoridad estatal –sea cual sea– no sólo permita, sino estimule y fuerce a los ciudadanos al cultivo hablado y escrito de nuestra lengua materna» (41).

(35) Ik., adibidez, goraxeago aipaturiko 1960ko Kongresuan emandako hitzaldia.

(36) Eta gure herri honetako jende euskaldunak badu aspalditik nortasun berexi bat. Euskal odoleko izateak ematen dion nortasuna. Eta lurraldeak (itsaso, mendi, ibar hauen ondoan jaio izanak) ematen dion nortasuna. Eta ahoz aho, belaunaldika Aitor zaharraren ilunpetatik datorkion pentsakeraz eta irizkeraz ja-sotako nortasuna. Eta hizkuntza harrigarri eta aparteko batek eman dion nortasuna

(«Herri bat izan eta Herri bat izan nahi», in: *Baserriko leihotik*, a. I., 113. or.). Euskal Herriko Nagusi probintzialei Loiolan egindako hitzaldian (1974), honela zioen:

Se trata de un Pueblo [Euskal Herria] fácilmente *identifiable* por sus profundas características de diversa índole y particularmente por su idioma (1. or.).

(37) «Nortasun horri bizirik eta gero eta mardulago eusten ahalegintzeko agindua eman digu gure giza izamenak, gure Jainkoak, gure kristau izateak eta baita –Kontzilioaren bidez– gure Elizak ere» (*Baserriko leihotik*, 114. or.). Beherago zehazkiago azalduko dugu ideia hori.

(38) Ik. *Euskera*, I, 1956, 283. or.

(39) *Cantabria Franciscana*, 16, 1961, 195. or.

(40) Villasantek herritarren gain jartzen zuen bazala funtsean euskararen biziraupenarena eta jarraipenarena, hau da, herritarrek euskara erabiltzean ikusten duelako giltza, Agirretxek era-kunde publikoek eta Elizak (bereziki apaizek eta erlijiosoek) duten erantzukizuna nabarmenzen zuen euskararen biziraupenean eta horren garapenean. Horrek ez du esan nahi, Agirretxek herritarrengan jartzen ez zuenik euskararen etorkizuna; baina euskara erabiltzeko baldintza politiko, sozial eta instituzionalen garantzia nabarmenzen zuen bereziki berak.

(41) *Cantabria Franciscana*, 16, 1961, 294. or.

Horretarako funtsezkoa zen euskarari ofizialtasuna aitortzea:

tenga vida y vigencia oficial y cívica (42).

Haren kritikarik gogorrenak Estatu agintariei zihoazkien, jakina, urte luzetan euskararen aurka egindako politikarengatik. Askotan salatu zituen gerra garaiko eta ondoko debeku eta eraso-urte ilunak, euskararen aurkakoak.

Eliz predikazioa euskaraz

Elizaren, apaizen eta mojen jarrera eta jokabideari ikaragarrizko garrantzia ematen zion Agirretxek, euskarak bizirik iraun eta aurrera aterako bazez, batez ere bestelako erakunde publikorik ez zegoenean horren alde, edota horiek kontra zeudenean (43); erretroriko onaren erara, baieztapen borobil honekin ekin zion 1963ko Euskalzaileen Biltzarreko bere hitzaldiari:

Euskeraren bizia elizgizonen eskuetatik zintzilika dagola, esango nuke. Berak nai badute euskera biziko da eta euskeraren eriotza nai baldin badute, euskeraren eriotza gertatu egingo...

Baina berehala leundi zituen bere hitzak:

Geiegi esan det. Egiaigo da orain esatera noana: elizgizonak asko dezake euskeraren alde; baita ere asko dezakete euskeraren ondamendirako (44).

Euskalduna euskaraz bizi ahal izatea da helburua harentzat; eta horren arabera, fededunak ere bere fedea euskaraz bizi ahal izatea eta erlijiosoak bere erlijioso-bizitzaz euskaraz egin ahal izatea (45). Hortik abiatuz, sutsuki defenditu zuen euskara erabiltea euskaldunentzako apostolutzan eta predikazioan:

Entzule euskaldunak ez al dira bestelakoak bezin eskubidedun beren dotriña-erakusleen aurrean? galdedu zuen 1963an Arantzazuko Euskalzaileen Biltzarreko bere hitzaldi aiapatuau (46).

Hortik abiatuta, benetako plana proposatu zuen Agirretxek Elizan euskarazko predikazioa indartzeko. Edozein plangintzak eskatzen duen erara, ostera, egoera aztertu eta kritikatzetik abiatu zen: Eliz hizlari euskaldunen urritasuna; horien trebetasunik eza euskaraz jarduteko, sarritan bakoitzaren axolagabekiagatik; hizlari euskaldunen tra-keseria beren hitzaldietan (47).

Funtsezkoena zen, beraz, elizgizonak gai horretan zuten erantzukizunaz jabetzea. Horretarako Bibliatik eta Eliz dokumentuetatik jasotako argumentu-mordoa ekarri zuen: arrazoi teologikoak eta etikoak. Gainera bi objezio hauei erantzuten saiatu zen:

(42) Ibid., 294. or.

(43) Duela 25 urte edo gehiagoko Elizaz ari gara, jakina, orduan Euskal Herrian Elizak zuen indar sozial eta moralaz, eta baita eragin kulturalaz ere.

(44) «Gaurko izlariak eta euskera», in: *Euskera*, VIII-IX, 1963-64, 443. or.

(45) Ik. *Aldi hartan eta Arantzazuren inguruan*, 158. or.

(46) *Euskera* 1963-64, VIII-IX, 443-449. orr.

(47) Dena dela, euskarazko predikuren indarrak ezaren errurik bazuten kristau entzule euskaldunek ere, haren ustez, sarritan errazkeriagatik edo erdarazkotara jotzen zutelako, euskarazkotara joan beharrean.

- a) *Objekzioa*: Zertarako erabili euskara, entzuleek erdara jakin baldin badakite?
 –*Erantzuna*: Kristau entzule batzuk ez dakite euskara baizik, eta gainera amahizkuntza euskara duenarentzat sentimenduzko komunikazio-indarra darama euskarak, erdarak ez duena;
- b) *Objekzioa*: «Erlijioa zaitu ta zabaldu ezkerro bost ajola izan bear zaigu izkunta bategaitik edo bestegatik. Erlijioa ez da izkuntzari begira egoteko» (48).
 –*Erantzuna*: «Ez, ez da ortarako bakarrik erlijioa. Ez, ez da ortarako batez ere. Bainaz ortarako ere ba-da erlijioa. Erlijioak izadi guztia bere balore guztiekin konsagratu egin bear du...» (49).

Erlziejoko terminologia erabili zuen, hain zuzen, sarritan Agirretxek euskararen biziraupena edota garapena adierazteko; oharteko da zenbat aldiz erabili ohi zituen hark «salbatu» eta «salbazio» hitzak euskarari buruz hitz egitean: «Euskera salbatu beurreko balio bat bezela serioski artzea» eskatu zien Loiolako II. Batzarrean bildutako Euskal Erljiosoei (50).

Honako neurriok proposatu zituen Euskaltzaleen Biltzarrean egindako hitzaldian (1963):

1. Eliz hizlari gehiago prestatzeko, apaizgai eta fraidegaien ikastetxeetan euskararen ikasketari bestelako hizkuntza baharrezkoenari ematen zaion leku bera ematea;
2. Hizlariak euskara «ona, ondo josia ta ikasia» erabiltzen ahalegintza;
3. Erdaraz entzun ohi dituzten gai modernoak euskaraz ere ematea;
4. Euskal predikariei beren lana errazteko, euskarazko aldizkari berezia sortzea;
5. Kristau euskaldunen aldetik euskarazko hitzaldietara joateko «moda» sortzea;
6. Euskarazko hitzaldiak ordu egokietan ipintzea;
7. «...gaurko kultura-gai guztia euskeraz esaten lagunduko digun iztegi bat» presztatzea Euskaltzaindiak (51).

Eta honetara amaitu zuen bere hitzaldia:

...erantzunkizun txitxaudia degu guk izlariok ere euskeraren bizitza ta etorkizunari buruz. Geroak juzgatuko gaitu edo txaloka edo zigorka.

(48) *Euskera*, VIII-IX, 1963-64, 447. or.

(49) *Ibid.*, 447. or.

(50) «Erljiosoa gaurko Euskalerriko giroan eta Elizan» (daktilografiatura, 1973, 9. or.). Izadia, gizon-emakumeak eta herriak osotasunean salbatzeak zera esan nahi du euskaldunentzat: euskara eta guzti salbatzea. «Es grave la situación de agonía del tesoro de nuestra lengua y ello nos une en una labor de conjunto para la salvación de la misma», zioen Loiolako I. Batzarrean, «Euskal pastoraltzaren berrikuntza» gaiari buruz emandako hitzaldian, horren aktetan jasota da-goenez (ez hitzetz hitz).

(51) Ik. «Gaurko izlariak eta euskera», a. a., 448-449. orr.

Erlbijosoa eta euskara

Predikariez gain, Elizako beste sektoreei ere, bereziki irakaskuntzakoei, behin baino gehiagotan zuzendu zitzaien Agirretxe, euskararekiko eta euskaldunekiko erantzukizuna gogorarazteko bakoitzaren apostolutz-a-lanean. 1972ko Euskal Erlbijosoen Loiolako Batzarrean aldez aurretik Erlbijoso Institutuen artean zabalduriko galdeketari emandako erantzunaren gain egin zuen bere hitzaldi luzea «Gure Euskal Pastoraltza-ren berrikuntza» tituluarekin (52). Euskararen erabilera, Institutuz Institutukoari, buruzko erantzunen berri eman zuen (53). Ondoren, Euskal Herriko erlbijoso guztiei egin zien deia, Ebanjelizazio eta Sakramentuen «pastoraltza berrituan», euskara arduraz lan-tzera, ordura arteko horien jokabide zabarra deitoratu ondoren.

Loiolan 1972-79 urteetako Euskal Herriko Erlbijosoen Batzar haien sintesia honetara dakar Agirretxek bere liburu «autobiografikoan»:

Hainbeste euskal erlbijoso(a) urrutiko misio lurrardeetan gure laguntza jatorki zabalten dauden bezalaxe, gure Herrian bertan ere horixe egin nahi dugu: Herri honi Jainkoaren Erreinuaren Berriona bere hizkuntzan eta kulturan eman (54).

Apaizek eta erlbijosoek kristau euskaldunei Eliza zerbitzuak euskaraz eskaintza da bata; bestea da, ordea, Euskal Herriko erlbijosoak bertako kulturan txertatzea eta euskaraz jabetzea, eta hori beren komentuko bizitzan erabili ahal izatea: euskal inkulturazioa eta euskaldunentzat euskara bizi-hizkuntza izatea, herritarrentzako edo fede-dunentzako zerbitzu-hizkuntza izateaz gain. Euskal erlbijosoek beren buruak «kultura-tu» eta «euskal-kulturatu» beharra aipatu zuen Euskal Erlbijosoen Loiolako II. Batzarrean eman zuen hitzaldian (55). Izatez, erlbijosoentzat «inkulturazioaren» bi al-derdi horiek –horien heziketa eta bizitzarena eta horien zerbitzu apostolikoarena– bata

(52) 1972ko horixe izan zen Loiolako Batzar haitan lehena. Lau atal zituen hartarako egin-dako galdeketak; azkenak honela zioen:

Euskalerrrian gure lane egin bear dugulako eta, ortarako, gure lenengo izkuntza *Euskera* dugula-rik, Euskera landu t'ongi ibiltzeko, zuen artean: –zer egiten da –zer egin bear litzake.

(Batzarreko Aktak, testu polikopiatua eta argitaratu gabea, 20. or.). 32. orrialdean galdera-gilearen ohar jakingarría dator, galdetuen aldetik etor zitekeen objektzioari aldez aurretik erantzun nahian edo:

Guk –Euskal Erlbijoso– Euskalerrrian ardura aundiz begiratu bear ditugun arazo larrien arte-an ez dago *euskeraren eztabaidea* bakarrik. Orren mailla berean edo lenagokoan, Erri onen sinismenaren planteamentua daukagu. Orregatik, gure Erri osoaren problematika osoaren aurrean erantzundun osoak izan gaitezen, eratu ditugu emen azaldu diran galdekizunak.

Baziren gainera beste galdera bana euskararen lekuari buruz, honako gai hauen inguruan: hitzezko ebanjelizazio-ekitaldietan, elizbarriutarekin baterako pastoraltzan, kontenplazioko mojen monastegietan... (33. or.).

(53) «Egin behar litzatekeenari» buruzko Frantziskotarren erantzunak honela zioen: – Gure ikastetxetan euskera askoz geiago erakutsi; – Gure etxetan euskerari ofizialtasuna ta bizi-tza eman; – Probintzi-maillan ere ofizialki euskera sartu; – Euskal-probintzia sortu dezagula es-katzen digute askok gure artetik eta kanpotik (ibid., 30. or.).

(54) *Aldi hartan...*a. I., 171. or.

(55) «Erlbijosoak gaurko...», a. a., 9. or. Agirretxeren artxiboan aurkitu dugu beste hitzaldi bat ere, eskuz idatzia, honako titulua daramana: «Gure liturgi otoitzta, Erlbijoso komunitatean, nola euskeraz egin», inon argitaratuta ikusi ez duguna. Euskal Erlbijosoen Loiolako Batzarren ondo-rioz 1974an (uztailaren 8-14 egunetan) Orduen Liturgiaren inguruan Oñati antolaturiko asteal-dian «Eliz-otoitza gure pastoraltzan» gaia jorratu zuen Agirretxek (ik. *Jaunaren Deia* aldizkaria,

besteari guztiz lotuta doaz, Agirretxeren iritziz, Eliz misioaren «enkarnazio-printzipio» teologikoak eskatzen duenez (56).

Gorago aipatu dugunez, mojetara sartu ohi ziren neska euskaldun-euskaldunei buruzko kezka berezia agertu zuen Agirretxek, hainbat bider horiek erdara hutsez bizitzera aldatu behar izaten baitzuten komentuan. Euskal Herriak eman ohi zituen mojen ugaria goraipatu ondoren, honela dio bere liburuan:

Baina salakuntza haundi bat ere egin beharra badago hemen: gure herrietatik erlijioso bizitzara zihoa zen gazteei, emakumezkoei batez ere, euren euskaldungoa komentu gehienetan larrutu egiten zitzaien: moja sartzearekin batera, euskaldun izateari agur egin behar zitzaito (57).

Arazo horri erantzuteko sortu zuen ARAMI elkartea, gorago adierazi dugunez.

Euskal Herriko erlijioso-komunitate hainbatetan benetako «kolonizazio kulturala», hizkuntzakoa bereziki, salatu zuen, aldi berean horretarako erabili ohi zituzten arrazoia ere salatuz, Euskal Herriko Erljioso Institutuen Nagusi probintzialei Loiolan egindako hitzaldi gorago aipatukoan (1974): kolonizazio pasiboa («comunidades colonizadas») eta kolonizazio aktiboa («comunidades colonizadoras») bereizi zituen hitzaldian (58). Eta batekoentzat eta bestekoentzat inkarnazio-inkulturazio «komunitarioaren» legea aldarrikatzearrekin batera (59), erlijioso-komunitate bereziengatik proposatu zuen, beren bizitza euskaraz egin eta beren zerbitzua liturgiko-pastoralra euskaraz eskainiko zutenea. –Hain zuzen ere, komunitate horietako bat eratu zuen Agirretxek berak beste fraide batzuekin Erreenteriako Zamalbide auzoan, handik hiru urterako (1977)–.

Frantziskotarra izanik Eujenio Agirretxe, Euskal Herriko fraide frantziskotarraren barne-bizitzaren eta apostolutzaren euskalduntzeaz kezkatu eta arduratu zen bereziki. Orduko hainbat fraide-kidek gogoratu zuen gai horri buruzko haren eskabideak eta arrazoiketak bileretan eta idatzietan. Goian aipatua dugunez, 1979ko Frantziskotar Probintziako Kapitulurako (batzar probintzialerako) gai horri xe bu-

48-49, 1974, 155-167. orr. *Orduen Liturgia* liburua euskaraz argitaratzea zegoela eta, antolatu zuten astealdi hori, dena euskaraz. Astealdiaren tituluaren inguruuan zalantzak ageri dira. Erdaraz egindako deialdian honako titulua eman zioten:

La oración de las horas entre nosotros. Doctrina y experiencias.

Agirretxek hedabideentzat euskaraz prestaturiko testuan titulu zabalagoa eman zion lehen parteau, baina zehatzagoa bigarren parteau: «Eliz-otoitz gaurko Euskal Herrian».

(56) Ik. «La lengua y la cultura vasca...», a. a., 7. or.

(57) Aldi hartan..., a. I., 63. or. Ik. era berean, 158. or. Loiolako Batzarreko hitzaldirako galdeketan galderetako bat klausurako mojei buruzkoa zen. Erantzunak bilduz, hiruzpalau euskarrari buruzkoak ageri dira: «Euskera aintzat artu dezatza», «Euskal-giroan oretuak eta kokatuak bizi ditezela», «Euskal-eziketa bat bidezko ta bearrezkoa dutela konpreniarazi», «euskaldunago izan ditezela» (Batzarreko Akta, poligrafiatua, 23. or.).

(58) «La lengua y la cultura vasca...», a. a., 4-5. orr.

(59) [La vida religiosa] ha de cotizar e impulsar *comunitariamente* [azpimarra nirea da] los valores autóctonos de cada lugar» (ibid., 7.). Gogoratzekoak dira euskararen normalkuntzaren kontrako jarrera «colonialista» zurikatzeo erabilzen bide zituzten arrazoia, Agirretxek hemen sailean aipatzen dituenak: fraide edo mojen arteko karitatea, landu beharreko unibertsaltasuna, hezkuntzarako euskarazko baliabiderik eza, Euskal Herriaren tamaina txikia, euskal hiztunak gutxi izatea, euskaldunek beste hizkuntzak ezagutzea, eta... arazoa politizatzea. Jakina, berari gezurrezkoak edo onartezinezkoak iruditzen zaizkio arrazoi horiek, edo inkarnazio-inkulturazioaren prinzipioaren izenean gainditu beharrekoak. Ez zen jarri, ordea, zuzenean arrazoioik gezurtatzen.

ruzko txostena lantzeko batzordean hartu zuen parte, bere idatzizko ekarpen eta guzti. Besteak beste, «Eskakizunak, premiak, aukerak» izeneko V. atalean, arazoa teologo aldetik argitu eta horretaz fraideak jabetu beharra nabarmendu ondoren, honako eskabidea ipini zuen 3. puntuaren: «Euskerización progresiva de nuestras casas de todo Euskadi –«Euskal Herria» adierazi nahi zuen–, para llegar a un mínimo de comunicabilidad en euskera». Era berean, erlijiozko liburu euskarazkoen hutsunea betetzen ahalegintzera deitu zituen fraideak, erlijiozko literatura berria sortuz. Azkenik, fraide frantziskotarrek moja frantziskotarren hezkuntza espiritualean zuten eragina gogoratu zuen, euskalduntzearen eremura ere eragin hori zabaltzeko aukera nabarmenduz (60).

Euskara modernoa eta Euskara batua

Soziolinguistikatik begiratuta, azken batez Euskal Herri industrialean ikusten zuen euskararen salbazioaren giltza, euskal baserriari eta nekazaritzari hain atxikia eta horietaz hain arduratua –hain baserri-zalea– izan zen Eujenio Agirretxe; ikuspegi guztiz modernoa eta errealista erakutsiz alde horretatik.

«Se puede decir, pues, que en los medios industrializados se decide el porvenir de nuestra lengua, así como también en ellos se decide la vitalidad o desaparición de nuestra Religión, de nuestro folkllore, etc.» (61).

Horregatik euskararen modernizazioa eskatzen zuen, gaurko mundu industrialaren hizkuntza izan zedin.

Industri munduari begira, hain zuzen, eta euskararen salbazioa bere esku hartuko zuen botere politiko-estatalik ezean, eta hori etorri bitartean, bestelako neurri lingüistiko eta sozialak proposatu zituen bere 1960ko aipaturiko Frantziskotarren Arantzazu-ko Kongresuko hitzaldian, bost puntutako plangintza moduan:

- a) Hiztegi modernoa lantzea, industri munduaren adierazpen premiei erantzungo diena (62);
- b) Beren hizkuntza «arkaikoari» biziraupena segurtatu eta mundu industrialerako egokitutu duten Herrien esperientziak ezagutzea;
- c) Euskara ikasteko eskola eta akademiak zabaltzea;

(60) Puntu hau 1976ko Kapitulu probintzialak aipatua zuen nolabait bere Konklusioetan, 11. zenb. Dena dela, moja-komunitate euskaldunei gogo-jardunak, hitzaldiak, etab. euskaraz es-kaintzeari buruz ziharduen konklusioak; Agirretxeren eskabidea haratago ziohan: euskarari buruz mojak mentalitzatzeko eta horiek euskalduntzeko erantzukizuna eta euskal inkulturazio-eginkizuna mahai gainean ipiniz fraideentzako.

(61) *Cantabria Franciscana*, 16, 1961, 294. or. Hainbat harrigarriagoa da hori, Kongresu berean bestelako ikuspegiak ere nabarmendu baitzen, batez ere Zelestino Zabalaren hitzaldian.

(62) Hain zuzen ere euskararen modernizazioari begira, irekia ageri zen Agirretxe urruneko 1956an bertan, erdaratiko terminologia berriari buruz, garbizale itxien aurka:

Nik alde batetik ikusten det oso bearrezkoa duala euskerak kanpoko izkuntzetatik itzak artzea, euskeratuta artea. Beste aldetik ez det ikusten eragozpenik euskerak nai baldin balitu itz berriak sortu Euskatzaindia baimenarekin eta oiek jatorrak izateko biderik baldin badute itz berri oiek ere artzeko (*Euskera*, I, 1956, 250. or.)

- d) Urteroko euskararen eguna antolatzea, euskalazko kultur edukia izango duena;
- e) Herri industrializatuetako euskarazko elizkizunen berri zehatza zabaltza jendearentzat.

Dena dela, herri-hizkerari eta herri-euskarari atxikia zen Agirretxe. Euskara batuaren prozesuaren inguruko bere zalantzak eta guzti, ez zen inoiz Euskaltzaindiaren aurauen aurka jarri, eta horren premia onartu eta defenditu egin zuen, kontra zeuden Euskerazaintzako aurrean ere; baina, bestalde, euskara herritarra eta erraza erabili beharra eta euskalkiak zaindu eta erabili beharra nabarmendu zuen, euskararen beraren biziraupenerako. 1973an Loiolan zenbait idazlek egindako bileran honako irizpideak eman zituen Iñaki Goikoetxeak euskalkien eta euskara batuaren erabilera buruz: batetik, euskal idazleek bakoitzak bere euskalkia ondo ikastea, bai eta ingurukoak ere, bileretan eta elkar ulertzeko, eta euskalki bakoitzeko «irakurgaiak» beren euskalkian eskaintza; eta, bestetik, gaurko zientziak eta kultura jasoak adierazteko euskara batua erabiltzea. Agirretxek ontzat eman zituen irizpide horiek, bilerari buruz idatzitako artikuluan (63); baina zera gaineratu zuen:

...Oraingoz horrela jokatu behar dugula, hots egin zuen Aita Iñaki Goikoetxeak.

Oso aintzat hartu zuen nonbait «oraingoz» hori; eta berak 1965-1975 urteetan gipuzkeraz idatzitako artikuluen bilduma euskara batura aldatuta eman zuen 1998an gorago aipaturiko *Baserriko Leihotik* liburuan.

Konklusioa

Berriro Eujenio Agirretxe gizon eta hizlariagana itzuliz, haren heriotzakoan neronek idatzitako oroitzapen-artikuluko paragrafo pare bat ekartzea zilegi bekit hemen, hark bere bizitzan irekitako bidetik egin dugun osteratxo hau amaitze aldera:

Kezkatan kezkatua bizi zen etengabe Agirretxe; fraideen artean, lagunengan, Elizan, gizartearen, Euskal Herrian, munduan kezkagarri zen edozerk kezkatzen zuen bera barru-barrutik, eta arduraz hartzen zituen denak. Kezka horiek jaulki ohi zituen bere hitzaldi eta idatzietan eta ardura horiei irtenbidea ematen saiatu ohi zen ekimen berriein beti.

Eta baieztapen horrek euskarari eta euskal kulturari buruz ere balio du.

Hitzeko gizona zen Eujenio, leialtasunean leiala. Eta hitzaren gizona zen, hitzaren belezko indarrari indar berria jartzen zekien hizlaria, mintzatzean nahiz idaztean. Eman nahi zuen mezuaren indarrean sinesten zuen; eta treba zen, bere hitzaren indar beroarekin sinesgarriagoa egiten, zabaldu eta entzuleengan sartu nahi zuen mezuia.

Euskal hitza zabaldu zuen bizitza osoan Eujenio Agirretxek, Jainkoaren Hitza predikatzearekin batera.

Donostia, 2005-I-27

Paulo Agirrebaltzategi

(63) Ik. «Bizirik jarraitzeko bideak», in: *Baserriko Leihotik*, a. I., 150-151. orr. Berak idatzi, gipuzkeraz eta hizkera xamurrez idatzi ohi zituen bere lanak *Goi-Argi* aldizkarian herri «xehearentzat»; euskara batuak bidea egin ahalra, ordea, «herri xehea» ere horretara hurbiltzeko moduan edo hurbildua ikusi zuen, dirudinez.

JUAN M^a LEKUONA ETA PATXI ALTUNAREN OMENEZ

Donostian, 2006ko ekainaren 29an

*Andres Urrutia,
euskarzainburua*

Arratsalde on guztioi!

Mila esker hona hurreratu zaretenoi, bereziki, Juan Mari Lekuona eta Patxi Altunaren familiakoei.

Orobat, Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko agintariei, euren etxeen Euskaltzaindia hartzearen.

Arauzkoa izaten da Euskaltzaindiaren estatutuetan hilberri txostena egitea hildako euskaltzainei buruz. Sarritan, hala ere, letraren aginduak ezin du ostendu adiskidetasunaren erakutsia eta agerpena. Horrela gertatzen zaigu guri, euskaltzainoi, Juan Mari Lekuona eta Patxi Altuna bikotea gogoratzan dugunean.

Herioak ia-ia batera eraman arte, gure alboan, gurekin batera, lanean jardun dute bi-biek, Euskaltzaindiari euren onenak emanez. Hala ikusi ditugu urte askotan, hamaiatxo batzar, bilkura, jardunaldi eta ekitalditan, eztabaidetan nahiz barealdietan beti prest eta adi, euskararen aurreratze-bidean euren jakturia eskainiz.

Era berean, poeta zein hizkuntzalari, bi-biak barru-barrutik izan dira Deustuko Unibertsitateari lotuta, euren apaiz- eta jesuita-bokazioari muzin egin gabe.

Biona ere, Unibertsitateko campus honek aurrera egiteko bultzada, hainbat ikasle eta irakasle euskal gaien arlora erakartzeko ahaleginekin batera, euskararen nondik norakoak gaur bezain gozo eta erraz ez zirenean.

Bion maisutasuna ere nabari eta agerikoa, irakasletza hartatik sortu baitira gerogarrenean euren bidea jarraitu dutenak, literatura nahiz hizkuntzalaritzan.

Hartara, euren orduko ikasle egungo irakasle dira, orduko euskaltzain ur-gazle egungo euskaltzain oso diren ber.

Bide horretatik datozen, hain zuzen ere, jarraian zuen aurrean mintzatuko direnak, Ana Toledo eta Miren Azkarate. Biok dira Lekuona eta Altunaren ikasle; bitzuok ere, eurokin batera, unibertsitateko irakasle, literatura-ikerketa eta hizkuntzalaritzan.

Hitz gutxitan esateko, laurak, gaur gogoratzen ditugunak eta haiek gogoraziko dizkiguteneak, Euskaltzaindiaren zereginetan erro-errotik murgilduta egon ziren eta dauden euskaltzainak.

Entzun ditzagun euron hitzak.

JUAN MARI LEKUONA: ... ETA HITZA LANABES BIHURTU ZUEN (1927-2005)

Juan Mari Lekuona Berasategi 1927ko azaroaren 11n jaio zen Oiartzunen. Hirurogei eta hamazortzi urte geroago zendu zen, 2005eko abenduaren 5ean. Oiartzungo San Esteban elizan izan ziren hileta-elizkizunak. Goian bego.

Juan Mari Lekuona, gizona, mutikotan oso alaia omen zen, lagunen lagun, berriotsu eta kirol zalea. Gerora, gogoko zituen lagunarteko solasaldiak. Solaskide atsegin eta abegikorra, unibertsitari jantziaren ironia zorrotza eta bertsolariaren bat-batekotsuna zuzen uztartzen zekien Juan Mari Lekuonak, solasaldiak gatz fin eta umore argiz jantziz. Sentsibilitate biziko gizona, sentsibilitate zoli horretatik atzeman zuen natura, pertsona eta transzendentzia eta beraiekiko harremana eratu. Euskaldun eta Euskal Herrriko seme, kristau eta apaiz katoliko; pertsona sakona, gizalegez jokatzea eta gauzak ondo eta txukun egitea izan zituen Juan Mari Lekuonak bere bizitzako goiburua. Kalitatea eta perfekzioa zituen maite. Ezin lanak bukatutatz eman! Beti zeukan zer hobetu! Irribarre gozoa ezpaintedan, harrera zabala egingo zion nornahiri. Ontasunaren ispi lu, hitz batean, maitagarria zen Juan Mari etxeko, adiskide zein lankideentzat. Oroitzapen honek iraungo du ezagutu genuenon artean. Haatik, ezagunen eta adiskideen oroitzapenean txertaturik gelditu den nortasuna baino iraunkorragoa izango den aztarnarik utzi du Juan Marik euskalgitanzan eta kulturgintzan.

* * *

Aztarna iraunkorragoa uzteko zimenduak botatzen jaioterrian bertan hasi zen. Etxetik zetorkion haria. Juan Marik etxeko giroan arnastu zituen baloreak eta zaletasunak bere egin zituen, bizitza osorako oinarri sendo gisa. Aurreko belaunaldiak eman-dako lekuoari irmo helduko dio eta, indarrak ahitu arte, aurrera egingo du kristau fedea, euskaltzaletasuna eta literatura bere bizitzako ardatz nagusitzat hartuz. Lekuonatarren aldetik izan bazituen bi osaba apaiz, baita kanturako zaletasuna eta literaturarako sentiberatasuna ere; Berasategitarren aldean usario zuten herri-literaturaz gozatzea. Zutabe horietan oinarritutik, familiak eragindako hazia handi eta zabal egingo du Juan Marik, bere bide berezia irekiz. Lehen hezkuntza-gunea den familiak era-kutsitakoa bildu eta, aurrerago ikasitakoak gehituz osatutako ezaguera eta baliabideekin, bere-berea den ibilbidea eraikiko du. Oiartzundik Oiartzuna egiten duen bidaian Oiartzungo sendiari lotzen zion sustriatetik elikatuko da eta elikadura hau uztartuz eta nahasiz joango da ikasketek, irakurketek, bizitzako eskarmenak eta abarrek irakatsitakoarekin, sustri horietatik jasotakoa etengabe berrituz.

Oiartzungo mojen eskolatik Arrasatera darama ikasturte batez Teodoro Iñarra ahaideak. Arrasatetik, Bergarako «Apaizgaitegi txikira» eta, bertako ikasketak amaitu

ostean, Gasteizko Apaizgaitegi Nagusira doa 1943an, 1953an Arrasaten apaiztu arte. Egun batzuetara eman zuen Meza berria, Oiartzungo San Esteban elizan, eman ere.

Ordurako aurkeztuta zeukan bere burua poesiaren plazan: idatzi ez-ezik, sarike-tetara aurkeztu eta argitaratu ere egiten ditu. Gerora 1950 eta 1951 urteetan irabazitako «Santo Tomás» sari hauek zenbaterainoko garrantzia izan zuten aitortzen du:

sariak eman zidan aditzera poesigintza zela niri euskal gizartea eskatzen zidana, eta beti eutsi diot orduan hartutako zeregin pertsonalari (1).

Eutsi egin zion, bai, orduan hartutako zeregin pertsonalari; izan ere, hurrengo berrogei urtetan poesia izango du bide lagun. Berezko jaidurarik gabe, nekez har daiteke horrelako konpromisorik, baina berezko jaidura horrek giro aproposaren laguntza ere izan zuen. Etxeko giroak, etxean jaso behar izan zuten liburutegiak, eskolako formazioak eta abarrek berezko senaren garapena sustatu zuten.

Etxeko giroak eman zion bertso-papereren berri, Berasategitarren aldeko amonak oso gogoko zituelako; gerrak (1936-1939) eragindako gaitzek osaba On Manuelek Gas-teizen zuen liburutegiaren tokialdatzea ekarri zuen: Lekuonatarren baserriak eman behar izan zion babesia On Manuela liburutegiari. Horrela, gazte gutxiren eskura zegoen euskal liburutegian barneratzeko egokiera izan zuen Juan Marik: han zeukan, besteak beste, XIX. eta XX. mendeetan ondutako euskal poesia. Apaizgaitegiko ikasketek apaizaren formazioa zuten jomuga, baina literatura ere interesgune zuenak aterazekiokeen etekinik alderdi honetatik: erretorika ikasgaia ez da bakarrik predikua era-tzen ikasteko, deklamazioko eskolak ez dira bakarrik predikua ahots, tonu eta abar ego-kiz emateko. Gainera, deklamazioko eskoletan poesiak ere errezitatzen zituzten...

Berasategitarren sutondoko bertsopaperak, lekuonatarren kanturako zaletasuna, osaba On Manuel Lekuona idazle eta herri-literaturaren aztertzailearekin duen harremana, On Manuelek lekuonatarren etxera ekarri behar izan duen euskal liburutegia, Apaizgaitegiko ikasketak... erreka baterantz egiten duten isuriak dira: 1950ean, hogeita hiru urterekin, euskal gizartean atzeman zuen eskaerari erantzutera; baina, aitortzen duen zeregin pertsonal honetaz gain beste hainbat eginkizun ere bereganatu zituen.

Apaiztearekin ez dira amaitzen ikasketak. Urte horretan bertan Erromarako bidea ireki zioten: 1955ean Teologian lizentziatzen da. Ikasketek utzitako tarteetan bere zeregin pertsonalarekin jarraitzen du: poema solteak idatzi eta argitaratu. Ikasketa aldi hau amaitu eta, 1956tik 1959ra Añorgako parrokan da apaiz. 1959-1960 ikasturtean be-rriro Erroman igarotzen du ikasketetan sakontzen. Itzultzean, oraingoan, Saturrarango Seminario txikian ditu ardurak. Hiru urtera, berriz, Donostiako Seminario Nagusian, eta hemendik, atzera Erromara abiatuiko da doktoradutza-tesia amaitzera: 1965-1966 ikasturtearen ostean *Ideario ascético-pastoral de Fray Bartolomé de los Mártires (1514-1590)* izeneko tesia irakurri zuen.

Ordurako euskaltzain urgazle zen (1963). Osaba On Manuelek utzitako hutsartea betetzeko hautatu zuten euskaltzain oso 1987an. Laster, jardun akademikoari kudeake-tarena gehitu zion: 1989tik 2005erarte Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkari izan zen, baita euskaltzainburuorde ere 1989-1996 urteen artean.

(1) LEKUONA, Juan Mari (1996): *Ibilaldia. Itinerario (1950-1990)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 19. or.

1. EUSKAL GIZARTEAREN ZERBITZUAN

Lanabes bakar batez baliatuz burututako lana da Juan Marirena. Hitza da bere lanabesa. Hitza darabil nola kantua lantzen duenean, hala itzulpen eta moldaketetan diharduenean. Halaber, hitza darabil irakasten duenean eta aztertzen duenean. Gainera, hitzaz baliatzen den arteaz mintzatzen da bere eskoletan eta hitzaz baliatzen den artea du aztergai. Egiteko guzti hauetan hitzaren erabilera ikasitakoarekin hitzaren zizelkarri bihurtzen da poema ontzen duenean. Hizkuntzaren Akademiako kide hautatu zute-nean, hizkuntza lantegi zuen norbait hautatu zuten.

Hitza norbaiti zuzentzen zaio. Hasiera-hasieratik euskal gizartearen zerbitzuan jarrí zuen bere burua eta gizarte horren eskakizunei erantzun zien bere formazio, trebetasun, zaletasun eta abarretatik; hots, ondoen egiten zekien hartatik. Behatoki berrieik, lantoki berrieik, erronka berrieik, ez zuten inoiz uzkurtu, baldin eta bere ezagueretatik erantzun ziezaiekeela uste bazuen.

Hitza zerbaitetarako da. Juan Mari euskal gizartea aurrera egiteko, euskal gizartea berritzeko erabili du. Eta horretan zuen onena ematen saiatu zen.

Juan Mari Lekuonak **kantuak** egiten ditu. Kantuareniko zaletasuna beti izan du bere-berea: kantuak egin edo moldatu, kantuak kantatu, baita kantuak bildu ere, 2001ean argitaratu zuen *Oiartzungo kantutegia*. *Bertako herri memoriatik* bildumak erakusten duenez. Aforgako parrokian apaiz zelarik, 1956-1959 urteetan hasita, elizan kantatzeko kantak egiten ditu. Oraindik elizetan bizirik dirauten kantak dira. Elizarako kantez gain, XX. mendearren bigarren erdiko lehen hamarkadetan oso ezagunak ziren kantak ere euskarara itzuli eta moldatu zituen. Horietako bat 60. urteetan oso modan egon zen «Arratsa Moskun» (1967) kanta da. Oso entzunak ziren kanta horiek itzultzean eta euskaraz ere kantatzeko aukera ematean, euskal mundutik kanpo dabilenaz euskara eta euskal gizartea aberastu beharrari erantzuten dio. Ez zen bizi izan iraganari begira, iragana begiratzen duenean, aurrera begiratzeko da: garaiak irteera berriak eskatzen ditu.

Juan Mari Lekuonak eliza giroko **itzulpenak eta moldaketak** egiten ditu. Osaba On Manuelekin batera *Ezkongai* (1957) itzulpen-egokitzapena kaleratu zuen. Ikasketak eragindako Erromarako joan-etorriak tesiaren defentsarekin amaitzean, Donostiaro Apaizgaitegi Nagusira dator. Ordu ezkerro harreman estu eta iraunkorrean da Gotzain-degiarekin. Liturgiako taldean lanean hasten da: salmo eta abarren itzulpen eta egokitzapenak, Gotzaindegiko testu ofizialen itzulpenak...

Juan Mari Lekuonak **irakatsi** egiten du. Apaizgaitegiak ditu lehen irakaskuntza-eskola, aurrena, Saturrarango Seminario txikia. Gramatika eta Erlilioa ikasgaiekin, Donostiaro Apaizgaitegi Nagusia hurrena. Hemen ari zen euskara irakasten Euskal Filologiako lizenziaturak, lehen aldiz, unibertsitatearen egoitza eskuratu zuenean. Deustuko Unibertsitateak 1976an jarri zuen Euskal Filologiako lizenziatura Bilbo eta Donostiaro campusetan. Donostiaro campusetik iritsi zitzaion deia euskal literatura irakastera bertaratu zedin. Apaizgaitegi Nagusiko eskolak utzi eta erronka berriari heldu zion: euskal literatura irakatsi, ordu arte egindako ikaskuntza urriak abiapuntu izanaz eta unibertsitate-mailako ikaskuntzek eskatzen duten sistematizazioarekin eta azterbi-de-mailako zorroztasunarekin ikasturteari aurre eginaz. Berez, ikasturteak eskatzen zuen lantegia zuen aitzinean: ikasgaien euskarri bibliografikoa sendotzea eta berritzea urtetarako zeregina zen.

Nola Euskaltzaindian, hala Deustuko Unibertsitatean, herri-literatura izan du ikerlerro nagusi. Unibertsitateko irakaskuntzari hasiera eman aurretik bazuen eskarmenturik alor honetako eginkizun desberdinetan: ordurako ibilia zen bertsolari-jaialdi eta bertsolari-txapelketen antolaketan, baita bertsolari-txapelketetako epaimahaietan ere, Euskaltzaindiaren izenean. Jakina, ikaskuntzak plazaratzen ere hasita zegoen, *Euskera* (1975) agerkarian argitaratua zuen «Txirrita eta Basarri», kasu. Unibertsitateak beharrrezkoagoa besterik ez zuen bihurtu azter-eremua jorratzen jarraitzea: zaletasuna izan zi-tekeena profesio bilakatzen da: ikasleak euskarri bibliografikoa behar du, irakasleak berak ikasgaiak sistematizatzea.

Juan Marik zerbitzuak emanez jarraitzen zuen. Eskoletan azaldutako gaien uler-kuntza errazteko, prestatu eta argitaratu zuen *Ahozko euskal literatura* (1982):

orrialdeok herri-literaturaren mesedetan eta irakaskuntzaren zerbitzurako gerta daitezela (2) esanez amaitzen du liburuari eginikoko hitzaurrea. Zalantzarak gabe, irakaskuntzan zerbitzurik handiena egin duen azterlana da: hamaika ikasle unibertsitatioren eskuliburua eta geroztik beste irakaskuntza-mailetako hainbat testu-liburu egiteko erabili den oinarrizko bibliografia osatu du.

Erabilera mugatuagoa izan dute artikulu gisa kaleratutako ikaskuntzak. Beren izaera monografikoak eta argitalpen-moduak –beti liburu edo aldizkariren baten atal– es-kuragaitago bihurtu ditu. Ikaskuntza hauek, monografikoagoak badira ere, helburu berberarekin egin zituen eta, horregatik, eskuragarriago bihurtzea jomuga, Juan Mari Lekuonak erretiroa hartu zuenean, Deustuko Unibertsitateak honako eskaintza egin zion: han-hemenka barreiaturik zeuden azterlanak bildu eta liburu bakar batean argitara eman. *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)* izenburuarekin argitaratu zuen 1998an. Ikaskuntzarak gehienek herri-literatura jorratzen dute, baina bada literatura landuaz diharduenik ere. Berez, liburuak jasotzen duen lehen artikuluaren izenburua «Bi literatura kontrapuntuan» izanik, bi literatur sailen –idatzia eta ahozkoa– arteko harremanaren berri emanez hasten da.

Hitz gutxitan esateko, liburuak agerian uzten du, herri-literatura, batetik, bere oso-tasunean eta zatietan atzeman nahi izan duela; bestetik, bere nolakotasunean eta ibil-bidean. Azkenik, azterketek azter-moduren bat dute euskarri: azterzaile ororentzat hain garrantzizkoak diren azterbideen gaiari ere helduko dio.

Osotasunean behatu nahi izan du, ahozkotasunaz ez-ezik, erdi-ahozkotasunaz ere arduratu delako, hau da, euskarri idatzirik gabeko gertaera eta euskarri idatziaz baliazen denaz. Euskaltzaindian sartzeko hitzaldirako hautatzen du, hain justu, bigarren hau: «Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz». Zatietan behatu nahi izan du, genero desberdinak aztertzen dituelako (narratiba, paremiologia, poesia eta, honen barnean, nola tradiziozkoa, hala bertsolaritza). Nolakotasunaz eta ibilbideaz jardun du; izan ere, herri-literaturaren barrutiko osagaien deskripzioa eta historia aurki daiteke, batzuetan ikuspegi panoramikoa ematera joaz, bestetan monografikoa. Zeinahi aztergai alderdi bakar batetik begiratzea hautatzen duenean, alderdi metrikora biltzen du bere arreta.

Literatura landuaren barrutia, ez du herri-literaturaren bezain zabal aztergai izan: poesia du interesgune, garai jakin bateko poesia, gainera, XX. mendekoa. Ikaskuntza hauek direla eta, bidezko eta egoki izan daiteke Juan Marik asko estimatzen zuen sai-

(2) Erein, Donostia, 10. or.

la aipatzea: hitzaurreak. Euskaltzain osoaren jarlekua hartzera zohoala eta, Joxe Austin Arrieta eginiko elkarrizketan honako gaia jarri zion: «Baduzu beste espezialitate oso markatu bat ere: prologista» (3). Juan Marik, gustura egiten zuela aitortzeaz gain, «zerbitzuko kritika» deitzen du. Uste bat du horrela izendatzeko: hitzaurreok irakurlearentzat lagungarri direla, baita idazolearentzat berarentzat ere.



Zertarako galderak honako erantzunak ditu: irakaskuntzaren zerbitzurako, herri-literaturaren mesederako, idazole-irakurleen zerbitzurako kritika... Hitz batean, kantak, eliz giroko itzulpen eta egokitzapenak, azterlanak... euskal gizartearen zerbitzurako egin ditu. Baita poemak ere. Hitzaz modu artistikoan baliatzen denean ere, euskal gizarteak eskatzen dionari erantzuten ari da, euskal gizartearekin hartutako konpromisoa betetzeko bide baitu zeregin pertsonal hau.

Oso kutuna zuen poesia eta txiki-txikitatik hasi zen bidea urratzen. Agian, txikititan horixe besterik ez zen: jarduera kutuna. Baina, gerora, hori baino gehiago izan zen: berebiziko ardura eta erantzukizunarekin gauzatutako lana. Zeregin hori ongi betetzeko, bizitza osoan joan zen prestatzen eta sasoi bakoitzean bereganatuta zeukan prestakuntzatik ondu zuen poemategi bakoitza. Berasategitarren sutondoko bertso-paperak, lekuonatarren kanturako zaletasuna, osaba On Manuel Lekuona idazle eta herri-literaturaren azterzailearekin duen harremana, On Manuelek lekuonatarren etxera ekarri behar izan duen euskal liburutegia, Apaizgaitegiko ikasketak... erreka baterantz egiten duten isuriak dira: 1950ean, hogei eta hiru urteekin, euskal gizartean atzman zuen eskaerari erantzuteko behar duen corpus lingüistikoa eta kulturala biltzera. Ez da, jakin, formazio-urteetan ixten den corporusa, etengabe aberasten doana baino. Jarduera desberdinetan hitza du lanabes. Hitz aintzatzen ari da, kantuak sortzen, itzultzen edo moldatzen dituenean, Gotzaindegiko testu ofizialak itzultzen ari denean, Liturgiako taldean salmo eta abarren itzulpen eta egokitzapenak egiten dituenean; herri-literatura az-

(3) *Oiartzun*, 1988, 11. or.

tertzen ari denean, hitzaren erabilera ikertzen ari da, XX. mendeko idazlan poetikoez dihardueñean, hitzaren erabilera arakatzen ari da... Guztia, lantegi desberdinetan ikasitakoa, langintza batean elkartzen da: hitz poetikoaren bilaketa nekagaitzean.

* * *

Hiru poesia-liburuk jasotzen dute sasoian sasoiko bilaketen emaitza. Lehena *Muga beroak* (1973) da. Hiru ataletan zatiturik, lehenik, herenegungo poemak datoz, hurrena atzokoak eta azkenik gaurkoak; alegia, 50. urteetan argitara emandako poema solteen antologia, 60. urteetan egin zuen lehen poemategia, 1966an Donostiako Apaizgaitegi Nagusian ziklostilean argitaratutako «Mindura gaur» eta, hirugarrenik, bere bigarren poemategia: «Hondarrean idatzia». *Ilargiaren eskolan* (1979), bigarren poesia liburuak, bi atal ditu: batak, «Oihu ilunak espiralean» poemategia jasotzen du, besteak, «Liburuen karroxa». Hirugarren liburua ere, *Mimodramak eta ikonoak* (1990) bi partetan banaturik dator: «Gruteskoak» eta «Planeten adar-biran». Berrogei urtetan zehar argitaratu duen da: agindutakoa bete du. Ez, edonola, gainera; izan ere, zerbaitem berria esateko zeukanen bakarrik heldu dio poemategi bakoitzaren lantze-prozesuari: bere ibilibidean leialtasun osoz gordeko duen jarrera da. Mimo eta ahalegin handiz lantzen du hizkera poetikoa. Poemategi bakoitzta ondo planifikatutako abentura da, urrats berria emateko saio sakona. Nekagaitz landuko du poemategi bakoitzta, harik eta esan nahi zuena esan nahi zuen bezala atzematen duen arte. Hondoan eta forma uztartu behar dira, aditzeraz eman nahi denari egitura egokia bilatu behar zaio: poemategiaren egitura osoa bilatu behar da, egitura oso horren barnean poema bakoitzarena eta eraikuntza horretan txertatzen joan kontu handiarekin aukeratutako hitza. Adierazi nahi dena eta berau adierazteko modua ezin bana daitezke: forma ez da edukia emateko erabiltzen den ontzi bat, ahalik eta dotoreena izan behar duena. Dotoretzea baino askoz sakonagoa da zeregina: adierazi nahi denak eskatzen duen adierazpen-modua bilatzea, poemategiaren osotasunean, poema bakoitzean, ahapaldi bakoitzean, neuritz bakoitzean. Osagai txikienetik handienera eta handienetik txikienera gaiaak eskatzen duen forma aurkitu behar da. Prozesu semantikoa ezin bereiz daiteke prozesu semantiko hori aditzera emateko modutik.

Bilaketa iraunkorra da. Obra batetik bestera hausnarketa-prozesu luze batean sartzen da. Poeta konformagaitza, zorrotza, arinkeriatik urrun dabilena, bilatzen zebilena ustez aurkitu duenean bakarrik helduko dio hurrengo poemategiari. Horregatik, seguru aski, ez zen izan ugaria, esana zeukana berresateari uko egin ziolako, hain zuen ere: erronka ez zegoen ahalik eta gehien argitaratzean, baizik eta argitalpen bakoitzean urrats berria ematean. Bizitzako eskarmentuak, hausnarketak, eguneroko eginkizunetan ikasitakoak... bultzada berria ematen diotenean helduko dio sortze-prozesuari.

1.1. Elkarlanean eta elkarritzetan

Gizakia du bere kezken erdigune. Agerikoa denez, garai eta leku orotako kezka da, literatur sorkuntzak, beste batzuekin batera, –maitasuna, adibidez–, bere-berea izan duen gaia. Agortu gabeko gaia, haatik. Izan ere, garai bakoitzak bere ikuspegitik azaldu du, garai eta idazle bakoitzak bere erara adierazi du. Juan Marik, Orixé, Lizardi edo Lauaxetarengandik hurbil hasi zuen bere ibilibidea. Lehen poema solteak idazleok markaturiko ildoaren barnean mamitzen dituela aitortzen du, nahiz eta horiengandik kanpo gelditzen den saiakerarik ere egin, poesia libreak, kasu. Lehen poemategian, –«Mindura

gaur»—, berriz, Arrestiren eragina atzematen zuen: arazoak, ardurak, sufrimendua, kezka sozialak edo existentzialak poesia izan dezaketela adierazpide, Arrestiren poesiak irakatsi omen dio. Aldian aldiro ikuskera eratzen lagunduko zuten Orixek eta Lizardik, Lauaxetak edo Arrestik, beste hainbat irakurketa eta bizeinenkin batera; aldian aldiro adierazpidea osatzera ere lagunduko zuten, Juan Marik bere subjektibotasunetik iragazten duen corpus literarioaren zati izanaz. Baino, Juan Marik bere poemategiak hezurmamitzeko aldian aldian abiapuntu duen ondarea ez da mugatzen literatur barrutira, ezta hitzaren barrutira ere. Harantzago doa. Hitzaren barrutia, enuntziatu eta enuntziazio bezala ezaguzeaz gain, adi-adi dago beste alor batzuetako ekarriei, nola ikaskuntza-mailan, hala adierazpen artistiko mailan. Aita Barandiaranek eta Jorge Oteizak bere poesigintzan izandako eragina handia dela esan du. Edo «Oihu ilunak spiralean» poemategiaren abiapuntua «zinema batean dago: “Gritos y susurros” filme entzutetsua dago azpian» zioen eta, aurrerago, berriz, «Denbora nahiko luzea igaro zen zinema ikusi eta poemategia lantzen hasi nintzenerako. Lehen bulkoa Txillidarengandik jaso nuen han-hartan» (4).

Azken batez, adierazpen artistiko desberdinak ez ditu ikusten isolaturik, baizik eta elkarrekin harremanean. Ulkerkuntza estetikoa da lokarria: garaikide diren zenbait sortzailek ulerkuntza estetiko bera azal dezakete adierazpen-bitarteko desberdinez baliatuz.

Elkarlanak eta elkarritzak laburbilduko lukete Juan Mari Lekuonaren lan egiteko modua. Elkarlana Euskaltzaindian, elkarlana Euskaltzaindiaren Literatura-batzordean, honen bi azpibatzordeetan –literatura-ikerketa eta herri-literatura-, elkarlana Filosofia eta Letren Fakultatean, elkarlana Gotzaindegiko Liturgia taldean. Baita poesiagintzan bertan ere: iritzi, irizpide edo esperientziengatik gainean jarduteko urtebetetz astero bildu ziren Lekuona, Iratzeder eta Gandiaga.

Idazleak, seguru aski, elkarritzak bakarrik mami dezake bere sorkaria. Lehendaldi osoa du elkarritzak kide: bere idazlana burutu arte gizakiak sortu duen kultura osoa. Honenbestez, altxor erraldoi honetako osagaietan egin ditzakeen konbinazioak mugagabeak dira. Juan Marik ere altxor hori zuen elkarritzak kide. Bere ibilbide poetikoaren ardatz nagusien berri ematean izendatu zituen elkarritzak kide oinarrizkoenak. Ez guztiak, bai ordea, gehienak euskal barrutikoak dira. Dena den, barruti batekoak edo bestekoak, badira aipatu gabeak: ez du aparteko garrantzirik ere elkarritzak kideen zerrenda zehatz-mehatz ezagutzeak; izan ere, zerrenda luze-luzearekin edo laburragoarekin honakoa ondorioztatu beharko litzateke: Mendebaldeko kulturarekin elkarritzak eta, batik bat, bere herrikoarekin, bere-berea den ibilbide poetikoa eraiki duela. Bere-berea, bai, zeren eta elkarritzak horiek Juan Mariren subjektibotasunetik iragazi ostean bihurtzen dira poema. Alegia, «ni» baten subjektibotasuna da elkarritzak horiek antolatzen, transformatzen, itxuraldatzan, konbinatzen, uztartzen, nahasten... dituena. Subjektibitate hori da jarduera sortzailearen eragilea: eskuratutako altxor kulturalarekin elkarritzak ikuspegi eta adierazpen-modu berezia, sortzailearena, emanen duena. Elkarritzak horietatik bere-berea duen ibilbidea eraikitzen du, ibilbide oso pertsonala. Horrela bete zuen euskal gizartean atzman zuen eskakizuna. Horrela moldatuz zuen euskal gizarteari zerbitzuan egindako bizi-ibilbidea.

Gure oroitzapenean iraungo duen zerbitzua da. Baita gure oroitzapenaz harantz ere. Azterlanetan iraungo du. Egia da azterlanaren eginkizuna etengabe aurreratzea dela, aurrekoan zaharkitua uztea. Berrizte etengabea eskatzen du ikerketak, baina, beti

(4) *Ibilaldia. Itinerario*, 33. or.

ere, erreferentiazko bihurtzen diren ikaskuntzak, luzaroan izaten ditu lagun ikertzai-leak. Poetak, berriz, ez dira hiltzen: poemetan diraute. Poemak lekugune hutsak aurkezten ditu. Lekugune huts hauek irakurle bakoitza bere esperientziatik betetzean idazle-irakurleen arteko topagune bihurtzen da poema: bi esperientzielen elkargune. Esperientzia horietako batek, idazlearenak, bere horretan dirau liburuaren orrialdeetan, konstantea da, behin batean gauzatu bezala dirau. Besteak, ordea, aldakorra da: irakurlearen erantzuna da aldakorra. Aldakorra evezik, baita noiznahikoa ere. Poema orain aldirako topagune izateaz gain, etorkizunera irekirkir dagoen bilgunea da: poeman, hain zuzen ere, elkartuko dira joandako idazlea eta etorritako irakurlea. Hala bedi.

Donostian, 2006ko ekainaren 29an

Ana M^a Toledo

PATXI ALTUNA: JESUITA, EUSKALTZALEA, IRAKASLEA ETA EUSKALTZAINA (1928-2006)

Patxi Altuna euskaltzain osoa gaur hil da, Loiolan, 78 urte zituela (2006-I-20). Haren aldeko hileta bihar, urtarrilak 21, izango da, arratsaldeko 18:00etan, Loiolako Basilikan.

Hau izan zen euskaltzainok hartu genuen mezua. Eta euskaltzain oso, urgazle edo ohorezkoren bat hiltzen denean, ohikoa du Euskaltzaindiak hurrengo hilabeteetan kide hil berriaren txostenia ageriko bilkurana irakurtzea, hora omentzeko asmoz.

Baina zein zaila gertatzen den edozeinen bizitza lerro batzuetara biltza! Saia zaitetzeke haren bizitzako xehetasunak ematen: noiz jaio zen, nolako ikasketak egin zituen, ezkondu ote zen, seme-alabarik izan zuen, zertan eman zituen laneko urteak, nolako lana egin zuen Euskaltzaindian, zein batzordetako kide izan zen, zenbat artikulu eta liburu idatzi zituen... Nahi bezain zehatzak izan gaitezke lan horretan, eta, hala ere, ezagutu duenak jakingo du hil dena «kronika ofizial» hori baino askoz gehiago izan zela. Azken batean, euskaltzain izan zein ez, pertsona baten bizitza, kanpotik ikusita ere, poliedroaren parekoa da; harekin harremana izan duen pertsona bakoitzak emango dizu bere aldea. Nekeza, ezinezkoa ez esatearren, alde guztiak bildu eta irudi bakarra osatzea.



JUAN M^a LEKUONA ETA PATXI ALTUNAREN OMENEZ

Donostian, 2006ko ekainaren 29an

*Andres Urrutia,
euskarzainburua*

Arratsalde on guztioi!

Mila esker hona hurreratu zaretenoi, bereziki, Juan Mari Lekuona eta Patxi Altunaren familiakoei.

Orobat, Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko agintariei, euren etxeen Euskaltzaindia hartzearen.

Arauzkoa izaten da Euskaltzaindiaren estatutuetan hilberri txostena egitea hildako euskaltzainei buruz. Sarritan, hala ere, letraren aginduak ezin du ostendu adiskidetasunaren erakutsia eta agerpena. Horrela gertatzen zaigu guri, euskaltzainoi, Juan Mari Lekuona eta Patxi Altuna bikotea gogoratzan dugunean.

Herioak ia-ia batera eraman arte, gure alboan, gurekin batera, lanean jardun dute bi-biek, Euskaltzaindiari euren onenak emanez. Hala ikusi ditugu urte askotan, hamaiatxo batzar, bilkura, jardunaldi eta ekitalditan, eztabaidetan nahiz barealdietan beti prest eta adi, euskararen aurreratze-bidean euren jakturia eskainiz.

Era berean, poeta zein hizkuntzalari, bi-biak barru-barrutik izan dira Deustuko Unibertsitateari lotuta, euren apaiz- eta jesuita-bokazioari muzin egin gabe.

Biona ere, Unibertsitateko campus honek aurrera egiteko bultzada, hainbat ikasle eta irakasle euskal gaien arlora erakartzeko ahaleginekin batera, euskararen nondik norakoak gaur bezain gozo eta erraz ez zirenean.

Bion maisutasuna ere nabari eta agerikoa, irakasletza hartatik sortu baitira gerogarrenean euren bidea jarraitu dutenak, literatura nahiz hizkuntzalaritzan.

Hartara, euren orduko ikasle egungo irakasle dira, orduko euskaltzain ur-gazle egungo euskaltzain oso diren ber.

Bide horretatik datozen, hain zuzen ere, jarraian zuen aurrean mintzatuko direnak, Ana Toledo eta Miren Azkarate. Biok dira Lekuona eta Altunaren ikasle; bitzuok ere, eurokin batera, unibertsitateko irakasle, literatura-ikerketa eta hizkuntzalaritzan.

Hitz gutxitan esateko, laurak, gaur gogoratzen ditugunak eta haiek gogoraziko dizkiguteneak, Euskaltzaindiaren zereginetan erro-errotik murgilduta egon ziren eta dauden euskaltzainak.

Entzun ditzagun euron hitzak.

Kaleidoskopioa eskuetan, eman beharko dudan ikuspegi honetan, lana erraztuko didaten lagunak baditut, ordea. Josune Etxeberria azpeitiar gaztea lehenik, Patxi Altunaren ikasle izana, *Patxi Altuna nolanahi ere maisu* biografia prestatu zuena, Uztarria, Azpeitiko Kultur Koordinadorak argitaratua 2003an.

Deustuko Unibertsitateko bi irakasle, Elixabete Perez Gaztelu eta Ester Zulaika, aldi berean Patxi Altunaren ikasle izanak, *Haizeak ez eramango!* paratu zutenak, Patxi Altunak berak idatzitako hainbat lanen bilduma, Deustuko Unibertsitateak 2002an argitaratua.

Eta Elixabete Perez Gaztelu eta Patri Urkizu, Donostiako EUTGen 25 urte irakasle lanetan jardun ondoren egin zitzaien omenaldia, *Patxi Altunari Omenaldia*, ize-neko liburuaren argitaratzaileak, *Mundaiz* bilduman 1990ean argitaratua.

Ekin diezaiodan, beraz, Josune Etxeberriaren eskuak, Patxiren ikasle-urte luzeen errepasoari, hor aurkituko baitugu geroko Patxi Altuna apaizaren, irakaslearen, euskal-tzalearen eta euskaltzainaren hazia eta ernamuina. Jesulaguna, irakaslea eta euskaltzalea, ezinezkoa da Patxi Altuna nor izan zen ulertzea hiru ezaugarri horiek batera har-tu gabe.

1. Patxi Altuna ikasle: Hiru Probantzak gainditu arteko urte luzeak

Francisco Maria Altuna Bengoetxea Azpeitian jaio zen, 1927ko irailaren 8an. Francisco Maria izenaz bataiatu bazuten ere, Patxi izenaz ezagunagoa da. Etxekoentzat, berriz, Patxiko, eta ama zenarentzat Patxiko Mari

Hauek dira Josune Etxeberriaren lehen lerroak. Horra hor, izenetik beretik hasita, zenbat alde izan ditzakeen gutako edonork, Patxi Altunak izan zituen bezalaxe.

Ezinbesteko zaigu lehen urteen berri izatea, ondoko ibilbidea ulertu ahal izateko. Azpeitiko giroa, Xabierko egonaldia lehenik, eta Loiolakoa ondoren, izan baitziren Patxi jesulagun eta irakasle izatearen eta haren euskaltzaletasunaren sorburua.

Patxi Altunari bokazioa etxetik datorkio, oso elizkoiak baitziren bere gurasoak. Familiar bertan ere osaba jesuita eta bi izeba moja Frantziskotar zituzten, eta hauek eredutzat izan zituzten.

Ez Patxi bakarrik, familiako eta garai hartako Azpeitiko giroak beste bi anaia –Javier eta Sebastián– jesuita izatera eraman zituen, eta arreba bakarra, Mari Carmen, jesuitina. Anaia gazteena, Manuel, izan zen ezkondu zen bakarra.

Batxilergoko ikasketak Xabierren (Nafarroan) egin zituen 1939 eta 1945 bitartean.

«Ikasgairik maiteenak lehenengo egunetik latina eta frantsesa izan nituen» dio Patxik. Latina eta frantsesaz gain, espainiera, grekoak eta alemana ere izan zituen ikasgai Xabierren.

Ordu arte ez zen alemanik ikasten batxilergoan, baina Francok eta Hitlerrek egindako akordio bat zela medio, Espanian alemana eta Alemanian espainiera ikasi behar izan zuten bi urtetan makina bat ikaslek. Hala, Patxiri batxilergoan alemana ikastea suertatu zi-tzaion, ordu arte ikasten zen ingeleraren ordez.

Irakasle lanak ere lehen aldiz Xabierren egin zituen. Ikerketa fina zenez eta bizikleta zuenez, Irunberriko joaten zen, azken urteetako beste ikasle batzuekin, umeei dotrina irakastera...

Irunberriko haurrei dotrina irakasteaz gain, Xabierren ere aritu zen, azken urteetan, irakasle lanetan. Izan ere, bazen Xabierren latina oso zail egiten zitzaion taldetxoa, eta Patxi eskola orduez kango hauei latinaren korapiloak askatzen lagundu nahian aritu zen. Beraz, Xabierren egin zituen lehenengo aldiz Patxi irakasle lanak, eta izugarri gozatu zuen lan horretan (23-24).

18 urte bete orduko hasia zen, beraz, irakasle lanetan, hil arte utzik ez zuen jardueran.

Irakurri ditudan Josune Etxeberriaren lerroek erakusten duten bezala, Xabierko egonaldiak hizkuntzetarako zaletasuna, eta irakaskuntzarako grina sortu baizotan, hurrengo urteetan, eliz ikasketen garaian, atzenduxea zuen euskarara hurbiltzeko aukera izan zuen Patxi. 1945ean Jesulagunen Loiolako nobiziatiuan sartu eta nobiziatiuko bi urte egin zituen. Hilaren azken ostegunetako elizkizunean, nobizioek pulpitutik arrosarioa euskaraz errezatzen zuten, baita kanpotik gogo-jardunetara etortzen zirenei jatordutan irakurketaren bat ere.

Zail egiten zitzaidan euskaraz irakurtzea –aitortzen du Patxi–; hau da, intonazioa egoki ematea, etenak behar ziren lekuaren egitea. Hala ere, oso ondo etorri zitzaidan. Gainera, orduan hasi nintzen konturatzan apaizei entzunda, euskaraz egiteko era ezberdinak zeudela (45).

Lan handia eman zioten bizitza osoan zehar Patxiri «euskaraz egiteko era ezberdin horiek». Esaera berri, hitz bitxi, esamolde ezezagunen bat entzun orduko, *nola esan duzu?* galdeitu eta paper muturren bat beti aukituko zuen zehatz-mehatz jasotzeko.

Arrosarioa errezatzeaz gain, inguruko herrietan, Urrestillan, Errezilen, Oñatzen... hango umeei eta gazttxoei dotrina erakustea ere bazen nobizioen eginkizuna. Berriro ere, irakaskuntza eta hizkuntza uztarturik, Patxi Altunak gozatu egiten zuen dotrina irakastaldi haietan. Trakestua zuen euskara berreskuratzan laguntzen zioten saio haiet. Aurrerago ere, Salamancako Unibertsitatean ikasten ari zela, udako oporetan, Loiolan, hango juniorrei euskarazko eskolak ematen jarduten zuen. Irakaskuntzak eta euskarak betiko bereganatua zuen hogeい urte inguruko azpeitiar gaztea.

1950etik 1953ra bitartean, Filosofiako hiru urteak ikasi zituen Oñan (Burgos). Giro hartan euskaraz hitz egitea guztiz debekatua izan arren, agian horrek berak area-gotu zion Loiolan erne zitzaion grina. Bere denbora librean, gelan sartu eta Mendiburu, Lizarraga, Axular, Orixe... irakurtzen jarduten zuen; Orixeren olerkiekin txunditura gelditzen zen. Horrek eragin ote zion metrika gaietarako zaletasuna, doktore tesiko gaia aukeratzean, Oihenarten metrika edo Loiolako jesuita olerkari gazteena aztertzean erakutsi zuena? Orain arte Patxi Altuna irakaslearen eta euskaltzalearen ernamuina aukitu badugu, horra Oñako urteetan, Patxi Altuna klasikozalearen, Patxi Altuna iker-tzailearen, eta azken batean Patxi Altuna euskaltzainaren sorburua.

Oñako egonaldia amaitu ondoren, Salamancako Unibertsitate Zibilean sartu zen Ikasketa Klasikoak ikastera; eta unibertsitateko munduak, hain gogoko zituen hizkuntzaren eta literaturan sakontzeko aukera paregabea eskaini zion. Eta filologia ikasketek euskara aztertzeko lanabes berriak ipini zizkion eskura, euskararekin gero eta zabetuago zegoen Patxi Altunari.

Irakasleak ere ez zituen nolanahikoak izan, horien artean Antonio Tovar, latin eskolak emateaz gain *Manuel de Larramendi* katedra sortu zuena Salamancako Unibertsitatean. Eta horren inguruan, euskarari buruzko eskolak ematen ziren; Axular, Leizarraga, Orixe... irakurtzeko aukera aparta berriro ere Patxirentzat!

Edo Martín Ruipérez, euskarazko ‘ts’ ahoskatzen irakatsi ziona:

Eskola hauetan hizkuntza desberdinaren sistema fonetikoak ikusten genituen eta horien artean euskararena. Ruipérez irakaslea euskal kontsonanteak ari zen azaltzen eta ‘ts’ra iritsi zenean, aiba la mar!, zeharo harrituta geratu nintzen. Niretzat deskubrimendua izan zen, ez bainuen ‘ts’aren ahoskeria inoiz aditu. Eta aditu banuen ere, ez nintzelako halako desberdintasun batez konturatzeko gauza izan.

Hala izango da. Haren ikasle izan ginenok badakigu zenbaterainoko garrantzia ematen zion ahoskerari, kontsonanteak, ez ‘ts’ bakarrik, behar bezala «esateari». Ora- toriak eta deklamazioak ere izango zuten zer ikusirik, baina Fonetika eskola haien eragin sakona eta luzea izan zuten hurrengo urte guztietan.

Koldo Mitxelena ere urte haietan ezagutu zuen, Martín Ruipérezek gonbidaturik hitzaldi bat ematera joan zenean.

Eta ez irakasle jendea bakarrik. Salamancako urteetan euskalgintzan murgildu zen, euskaldun asko baitzebilen Unibertsitate hartan.

Beraz, 1957an lizentziatura eskuratu zuen, Josune Etxeberriak dioen bezala, «altxorrik preziatuenaren pareko» bihurtu zen Patxi Altuna. Areago, kontuan izanik, 1957tik 58ra, Doktoregoko ikastaroak egin zituela.

Garai haietan hurbildu zen Patxi Altuna Euskaltzaindira ere, 1956ko irailaren 14an, 15ean eta 16an Arantzazun antolatu zen biltzarrean. Hizlarikei izan zituen egun haietan Aita Luis Villasante, Jose Migel Barandiaran, Cándido Izagirre, Bitoriano Gandidaga, Koldo Mitxelena edo Ignacio Ormaetxea. Patxik aukeratutako gaia, *Azpeitiko euskeria aztertz*; horixe izan zen *Euskeria* agerkariañ argitaratu zen Haren lehen artikulua. Egunen batean tesi-gai izatea nahi zuen Azpeitiko euskararen gainean mintzatu zen. 45 urte geroago, ordea, lotsatu egiten zen orduko asmoez:

La ignorancia es atrevida. Sobre todo cuando es supina» esaten zuen batek. Edozeini koloreak ateratzeko modukoak dira hitz horiek [hitzaldi hartan tesia egiteaz esan zituenak], nik orduan tesia zer zen ere ez nekieta (74)

* * *

Unibertsitateko ikasketak amaitu eta Loiolan hasitako bidea osatzen jarraitu zuen, Teologia ikastera Oñara itzulia. Baino han ere ezin izan zituen euskal liburuak eta euskara alde batera utzi. Ordurako euskararen grinak mendean hartua zuen Patxi Altuna eta Oñan ere aurkitu zuen lagun taldea (Iñaki Arregi, Julian Bereziartua, Jose Ignacio Iruretagoiena, Inaki Larrañaga, Patxi Olariaga, Pedro Mari Sarrikolea, Vicente Zabala...) euskaraz hitz egin eta euskara lantzeko. Urrunago ere joan ziren, ordea, Loiolan eman zuten 1959ko udan, Koldo Mitxelena, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* eta Inazio Eizmendi *Basarri* ere eraman baitzitzuten hizlari, euskal gaien gainean zer-bait irakats ziezakelakoan.

Ondoren Innsbruckera, Teologia ikasketetan aurrera egitera eta... bizio guztiak hartzera. Hala dio behintzat Patxi Altunak berak:

Innsbrucken hartu nituen nik bizio guztiak. Han utzi nion sotana janzteari –han inork ez baitzuen erabiltzen–, eta han hasi nintzen erretzen, eta nola! Izugarri erretzen nuen (86)

1961eko uztailaren 26an apaiztu zen Patxi, Innsbrucken, gurasoak eta lagunak inguruan zituela. Eta *Ad Gradum* azterketa gainditu ondoren, Bigarren Probantza amaitu.

Hirugarren Probantza zen azken urratsa, jesulagun izateko bide luze eta malkartsuan, eta Gaudiara joan zen Patxi, Valentziara, 35 urterekin. Etxe ederra eta eguraldia lagun izateaz gain, sukaldaria ere primerakoa omen zuten. Bereziki paellarekin oroitzen da Iñaki Arregi:

Gaudiako etxean izugarrizko paella ona ematen ziguten; inoiz ez ginuen aspertzen. Patxiri ere asko gustatzen zitzaiion. Garai hartan, ordea, Patxik argaldu beharra zuenez, jatekoari begiratu beharrean zen. Baina paella ateratzen zigutenean, Patxik esan ohi zuen pae-lak ez zuela gizentzen eta lasai jaten zuen.

Asko izan gara Patxi zenbateraino zen paella zale ikusteko aukera izan dugunok. Gramatika batzordea biltzen zela, edo Euskaltzaindiko osoko bilkura zela, bazkal garaian, lehen galdera horixe izaten zen: *ba al da paellarik?* Ez dakit Gandler sortu zitzaiion arroz zaletasuna, baina gure alaba gazteenak, Patxiren hilberri txostenra prestatzentz ari nintzela esan nionean, ez zidan besterik eskatu: «Esan gero arroz esnea izugarri gustatzen zitzaiola!»

2. Aita Patxi Altuna

1963ko uztailean iritsi zen Patxi Altuna Donostiarra, EUTG (Estudios Universitarios y Técnicos de Gipuzkoa) ikastetxera, 40 urteko egonaldi luzeari ekitera. Urte hoztietan, eskolak emateaz gain, apaiz eginkizunak ere zintzo beteko zituen. Donostiako Jesulaguneak Garibai kalean duten elizan euskarazko meza ematen hasi zen igande goizetan 10:30ean. Meza luzeak izaten ziren haiak, 45 minututik gorakoak: ordu erdi inguru Patxi Altunaren sermoia eta ondorengoa ziztu bizian. Baina ez zitzaizkigun batere luzeak egiten. Batetik, Koldo Mitxelenak aitorrtu bezala:

Aita Altuna, besteak beste, sermoigile garaia dela eta izan dela Euskal Herrian. Ez diot deus kenduko bere hitz-etorri eta hitz-jarioaren orrazketari, antzinako segizioko baita arlo horretan, inor baldin bada; hots, Axular, Larramendi eta gure arteko beste hainbesteren segizioko; eta gidari ere bai» («Patxi Altunari erantzunez», *Euskera*, 1981, 2).

Bestetik, sermoietako gaiak ere halakoak izaten ziren, Euskal Herriak Francorenean bizi zuen egoera salatzen zutenak, Ebanjeliotik abiatuz, Euskal Herriaren izaera, eskubideak, askatasuna... aldarrikatzen zutenak. Eta nola ahaztu San Ignazio egunez eta Ama Birjina Guztiz Garbiaren eguneko mezatan egiten zen euskal presoen aldeko diru-eske berezia! Lepo egoten zen eleiza egun haietan.

Sermoi horiek eraman zuten Patxi Altuna Carabanchelera, 1974ko abenduaren 10ean, 90 eguneko kartzela zigorra betetzera, ez baitzuen onartu 400.000 pezetako issuna ordaintzerik. ETAko presoen apologia egitea leporatu zioten, baina bitxiena akusazio horren oinarria da: *Arantzazuko Ama Birjina kantatu izana mezaren amaieran: horritikan zaude Euskal Herriko seme gaixoei begira, gaur zure seme horien kontrako etsaiak asko baitira. Zugana gatoz, Ama Maitea, zure estalpe argira; isuri zazu, zure*

indarra, euskal bihotzen erdira dio kantuak, oker ez banago. Eta hortxe egon apologia! *Euskal Herriko seme gaixo* horietan.

Ez ziren, dena den, politika giroko gaiak bakarrik, baita gizartekoak ere. Edo garaia hartan aldatzen hasia zen erlijio girokoak. Urte haietan, Xabier Letek *Maiteaz galdezena* kantatzen zuen:

etxeruntz nindoala pentsatutzen nuan, Jainkoa ez da bizi gizonen munduan. Urruti zegok Hura, han Bere munduan, gu bakarrik utzirik umezurtz munduan.

Asaldatu egiten zen Patxi horrelakoak entzutean, eta sutsu esaten zigun pulpitotik kontuak ez zirela horrela. Gizarteko eta politikako gaiak bai, baina fedea eta Jainkoa beti hor ziren.

Ez ziren, baina, igande goizetako 10:30eko meza horiek aita Patxiren eginkizun bakarra. Hamaika bikote ezkondu zituen (Iñaki Gabilondo, Antón Valverde edo Iñaki Esnaola horien artean). Eta ez ezkondu bakarrik, gustatzen zitzzion bikote haien bizi-modua jarraitzea. Gustura joaten zen haien etxeetara baziak zitzaion edo afaltzera eta gustura hartzten genuen (eta uste dut guztien izenean ari naizela) guk ere. Badut nik ezkondu gintuen eguneko oroitzapen berezia: sermoia luzea izan zen orduan ere, baina entzundako guztien artean gauza batek hunkitu ninduen (edo agian urteak joan ahala ikasi dut hitz haien benetako balioa apreziatzen). Bikote baten arteko harremana loreak bezalakoa zela esan zigun bertsotan, maiz ureztatu behar dena, zimelduko ez bada. Edozeinek emateko, baina, bereziki, apaiz izanik halako kontuetan «teoria» besterik jakin ez zezakeenak emateko, ez zen batere aholku txarra!

Fededun zintzoa izanik, elizaren dotrinaren jarraitzaile leiala, asko sufritu zuen, berak ezkondutako bikote bat baino gehiago hausten zela ikusiaz. Baina beti izaten zuen begirunea, eta beti saiatuko zen, gauza guztien gainetik, bakoitzarekiko harremari eusten.

3. Patxi Altuna irakasle

1963an, aita Ignacio Errandonearen eraginez omen, Donostiarra EUTGko destinaoa eman zioten Patxi Altunari, sortzekoa zen Hizkuntza Eskolan, Euskal Hizkuntza-ko ikasketak antolatzeko ardura haren esku utziaz.

Ia berrogei urte igaroko zituen Patxi Altunak Donostian. Hala egokitutu bada ere, leku ezin aproposagoa, beraz, gaur hartzen gaituela, Patxi Altunaren hil berri txostenira irakurtzeko.

Horrela gogoratzen zituen urte horiek Patxik berak, *Haizeak ez eramango!* liburuaren hitzaurrean:

Gauzak zuzen gertatu balira, ez nintzatekeen ni Deustuko Unibertsitateko irakasle izango. *Junior* zerizten gure gazteei latina eta grekoa irakasteko hautatua nengoentzat. Horregatik igorri ninduten Salamanca, iraskale handi Tovar, Martin Ruipérez, García Calvo eta gainerako irakasleekin «*Klasikoa*» zirelako ikaskuntzak atxikitza.

Gauzak gero okertu ziren, edo nahiago bada zuzendu. Donostiarra Deustuan beharragoa nintzela pentsatu zuen norbaitek, aita Errandoneak seguruenik, eta delako «*Hirugarren Probantza*» handia amaitzean (1963), Donostiarra etorrarazi ninduen. Garai hartako eta toki

hartako bi gertakari diraute oraindikene buruan batez ere. Bat, nola egin nuen topo han-te berriz, *Comunes* deitzen zitzaien bi lehen kurtsoetako ikasleei latina irakasten zien eta zortzi urte lehenago Salamancara hitzaldi batzuk egitera joana zen batean lehen aldiz ezagutu nuen Mitxelena jaunarekin. Bi, nola biltzen ginenei tartera-martekai EUTGko ikasgela batean Koldo Mitxelena, Rafael Goenaga (s.j.), Carlos Santamaría, Manuel Agud, Gurutz Ansola eta besteren bat agian, euskarari zegokion gaien bat eztabaidatzeko.

Ez da harritzekoa, beraz, Koldo Mitxelena irakaslearen laguntzailea izatea, Latin irakasgaian, Filosofia eta Letretako lizenziaturaren aurreko Komunen kurtoan. Eta Mitxelenak Torrelavegako institutura alde egin ondoren, 1964an, Latin Klasiko eta Arrunteko irakasle titular izendatu izana.

Latina irakastea izan arren ardura nagusia, ezin utzi albo batera euskara irakastea. Ez bakarrik Hizkuntza Eskolan, eskola orduetatik kanpo aditzaren paradigmak, euskara batuaren hastapenak irakatsi zizkgun hara ikastera joandako hamaika gazteri. Helduen euskalduntze eta alfabetatzea hasteren ari zen urte haietan, Donostiako EUTGko Hizkuntza Eskolan euskarazko eskolak sustatzeaz gain lehenetako izan zen metodoa moldatu zuen. Garai hartako euskaraz ikasteko metodoek ez asebetetzen, ez omen zuten-eta zuzenean euskaraz irakasten, baizik gaztelaniaz pentsarazi eta euskaraz esanarazi, eta inguru hizkuntzetan hasi zen Patxi Altuna metodo modernoagoren baten bila. Horrela sortu zen 1967an lehen aldiz argitaratu zen *Euskeria, ire laguna*, metodo berria.

Dela metodo berriagatik, dela euskara ikasteko zegoen eskaintza urriagatik, nolanahe ere ikasle asko hurbildu zen urte haietan EUTGra euskaraz ikastera. Eta, jakina, irakasleak behar. Bere ikasleen artean bilatu zituen batik bat Patxik, Hizkuntza Escolarako behar zituen irakasleak. Ez dakit nola hurbilduko ziren Joxe Agustin Arrieta, Mari Carmen Garmendia edo Mikel Arregi irakaskuntza lan horretara. Ni neu, ausardia handiarekin eta lotsa gutxirekin. Ez dakit urte haietan ikasle izan nituenak euskaraz askorik ikasiko zuten, nik bai eskarmentu ederra hartu haiei esker!

Hizkuntza Eskolan ez ezik, irratitik ere aritu zen Patxi Altuna euskaraz irakasten, okerrak zuzentzen, zalantzak argitzen, 1969tik eta 1973 arte.

Bestetik, distantziak ez zuen Mitxelenaren eta Altunaren arteko harremana eten. Mitxelenaren zuzendaritzapean egin eta irakurri zuen 1978. urtean *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación* izenburuko doktore tesia, Salamancako Unibertsitatean.

Urte horietan guztietan egindako lana oso egoki bildu zuen aita Plazaolak, 1990ean egin zitzaiotz omenaldi liburuko hitzaurrean:

Todos sabemos que (...) Patxi Altuna fue para la carrera de Letras en los EUTG más que un simple profesor. Profesores y alumnos de esta Facultad están de acuerdo en que, entre 1964 y 1974, fue el alma de la institución. El fue quien, avizorando el horizonte literario y cultural que se iba abriendo lentamente en nuestro entorno, y seleccionando entre el alumnado que empezaba a coronar su carrera con la Licenciatura, supo atraerse un profesorado que, en su mayoría, aún sigue rindiendo excelentes frutos en esta obra.

1976an Euskal Filologiako ikasketak berak sortu zituela esatea ez da agian gehiegizkoa. Gotzon Garaterek eta Koldo Mitxelenarekin batera, Patxi Altuna izan zen euskal filologia ikasketen sustatzaile eta eragile nagusi. Kemena eta lanerako beldurrik ez zuen jendea behar omen zuen inguruan:

Ez genuen testurik Morfología, Sintaxis zein Hizkuntzalaritza eskolak emateko. Dena guk sortu behar izan genuen. Une ederrak izan ziren, ilusioz beterikoak, baina era berean, urte latzak, esan zion Patxik Josune Etxeberriari.

Ez zen erraza, egia da, inoiz irakatsi ez ziren eta askotan ordura arte aztergai ere izan ez ziren gaiei heltzea. Kemenaz eta ilusioaz gain, berriro ere ausardia puska bat behar izan genuen gaur hemen gaudenetako batzuek. Bainaxuren beraren kemena eta bultzada ikusita, gugan zenbaterainoko konfiantza zuen ikusita, ezinezko zen atzean geratzea.

Hurrengo hamabost urteetan ahalegin osoan jardun zuen Deustuko Unibertsitatean, Euskal Hizkuntzaren Historia eta Euskal Testuak azaltzen.

Unibertsitateko irakasleak, ordea, ikerkuntza ere badu zor. Eta Mitxelenaren zuzendaritzapean Etxeparerri buruzko doktore-tesitik hasita, euskal klasikoak ikertu eta haien edizio kritikoen bidez utzitako ondarea da, nire ustez, Patxiren ekarpenik sendoenetakoa: Etxepare, Tartas, Mendiburu, Kardaberaz...

Lan hori aitorrtu nahi izan zitzzion irakasle lanetatik jubilatzean, *Haizeak ez era-mango!* liburuan. Ikerlan guztien bilduma liburuki bakarrean biltzea ezinezkoa zenez, omenduaren esku utzi zuten aukera egitea. Patxik begiz jotakoak, jakina, klasikoak izan ziren, klasiko batzuk, eta jesuitak. Beregan biltzen zituen bi alderdiak, alegia, klasikozale eta jesulagun izatea. Hori dugu haren ikasle izandakoena aitorpenik argiena:

Unibertsitatean irakastea ikerlana du eskakizun eta norberak berea aurrera aterako badu, bestek eginaren premia –bibliografia– du noraezean. Patxi Altunak, ordea, ez zuen hastapen haietan gerokoek, beharrik, izan duten egokiera: ia hutsetik hasi behar izan zuen lehengaiak biltzen, filologiaren azterbideez baliatuz prestatzen, eskoletan erabiltzeko moduan atontzen.

Euskal Filologiako ikasketak txit funtsezkoak diren *Euskal Hizkuntzaren Historia* eta, batez ere, *Euskal Testuak* –XVI., XVII. eta XVIII. mendetako euskal idazle klasikoen azterketa– ezin irakatsi ahal izango ziren Patxi Altuna maisuak bere gain hartu eta landu izan ez balitu; gure aurrekoen lan horiek berreskuratu ez ezik, sakon eta xehe aztertzen eta, zergatik ez? maitatzen erakutsi baitigu bere eskoletatik pasatutako ikasleo. Maitasun horrek eraman du bere ikerlana eskoletatik jalgi eta liburu nahiz artikulu itxuran jendartera zabalzera, ondokoentzako oinarritzko lanabesak eskueran jartzera.

Elixabete Perez Gaztelu eta Ester Zulaika dira horrela mintzo zaizkigunak.

4. Patxi Altuna euskaltzain

1956ko lehen harreman haren ondoren, ordurako Mitxelenarekin edo Carlos Santamariarekin «eztabaida taldea» osatua zuen Patxi Altuna euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 1965ean, eta euskaltzain oso, berriz, 1980ko uztailaren 31n, Jose Maria Lojendioren ordez. Sarrera hitzaldia Azpeitian egin zuen, 1981eko urtarrilaren 24an, Ziburuko Ioannes Etxeberri gaiari buruz. Koldo Mitxelenak erantzun zion.

Gertu-gertutik bizi izan dugu hemen gauden gehienok Patxik Euskaltzaindiari eta euskara batuari emanikoa. Askotan esaten dugu euskara batuak bi gidari izan dituela, Mitxelena eta Villasante. Eta hala da. Bainaxuren horien ondoan, orpoz orpo, beste talde bat ere izan zen. Eta Patxi Altuna zen horietako bat. Ez bakarrik aditz batuko batzordean lanean, baita unibertsitateko gazteen artean ere euskara batu horren aldeko sustapen lana egiten. 1980tik aurrera, batzordeen lana indartu zenean, Gramatika batzordean murgildu zen Patxi Altuna buru-bilarri. Hara bildu gintuen orduan hasten ari ginen gazte asko. Eta

bere ondoan ikasi genuen euskal gramatika lantzea zer zen, zehaztasuna zer zen, zorroztasuna zer zen, gai jakin bat alderdi batetik eta bestetik aztertzea zer zen. Baita, eztabaidak luzeegi jotzen zuenean, aurreratzeko modua, punturen bat albo batera uztea zela ere: *¡cómo se avanza cuando se prescinde!* (hamaika aldiz entzun genion esaera).

Urte askotan zehar, Gramatika batzordeburua izan da. 2005eko maiatzaz geroztik, aldiz, Patxi Altuna Gramatika batzordeko ohorezko burua zen, bai eta Euskara Batuko batzordeko kidea ere Euskaltzaindian. Gainera, Argitalpen batzordekidea izana da, baita *Iker* sailburua ere.

5. Berriro ere Loiolan

Udaro, hutsik egin gabe, etorriko zen Patxi Loiolara San Ignazio egunean. 2001eko uztailean behin betiko zen bizitza osoan zehar utzi ez zuen Loiolara, Donostia-Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filosofia eta Psikologia irakasle lanetan. Etxekoengandik sekula baino gertuago, paper eta dokumentu artean murgilduta, azkenera arte izan zuen jakinminari zor diogu, besteak beste, *Errexilko euskara duela 200 urte* 2002an argitaraturiko artikulua, Errezilgo apaiz batek egindako sermoian oinarritua. Eta han ere ezin irakasle izateari utzi! Eibartar gazte batí latin eskolak ematen zizkion.

6. Omenaldien garaia

Etorri zitzaison ondo merezitako aitortza eta esker ona jasotzeko garaia ere.

- EUTGek, hobeki esan, Deustuko Unibertsitateak Donostian duen Fakultateak omenaldia egin zion 1990ean, irakasle lanetan 25 urte zeramatzenean. Elixabete Perezek eta Patri Urkizuk *Patxi Altunari Omenaldia* liburua argitaratu zuten, hainbat lagun eta lankidek ondurioko lanak biltzen dituena.
- 2001eko urriaren 20an, Azpeitiko *Baite* Euskara Elkarteak ohorezko bazkide izendatu zuen Joxe Lizaso bertsolariarekin batera, biok euskararen alde erakutsi zuten jarrera onetsiaz.
- 2001eko abenduaren 2an, urte berean beraz, Azpeitiko Udalaren omenaldia jaso zuen, Patxi Goenaga euskaltzainarekin batera, bere jaioterrian Euskara Biziberritzeko Plana abiatu zenean.
- 2002an, otsailaren 16an, Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkarteak (EIRE) omendu nahi izan zuen, unibertsitateko irakaskuntzatik erretiratutako berriak ziren beste zapiri irakaslerarekin batera, *irakasle emeritu* izendatuaz, euskarazko irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren alde egindako lan akademiko jasoagatik. Patxi Altunaz gain, Txillardegi, Gotzon Garate, Jesús Mari Lasagabaster, Pilar Lizeaga, Joan Otaegi, Karmele Rotaetxe eta Karmelo Zamalloa izan ziren omenduak ekitaldi hartan.
- 2002an, Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko lankideen omenaldia etorri zen, lehen ere aipatu dugun *Haizeak ez eramango!* liburua.
- 2002an, EIZIEk ohorezko bazkide izendatu zuen.

Badakit ondotxo izendapen hau ez dela ordain eta sari; ondotxo dakit ez dituzuela nik gaurdaino euskararen alde irabazitako nola-halako merezimendua sariztatu nahi izan; aitzik, orain arte, alferkeriaz edo, egin nezakeen baino gutxiago egin dudala ikusirik, lan gehiago egitera deitu eta aukilatu nahi izan nauzuela. (...) Nik neure aldetik hitz ematen eta zin egiten dizuet Jainkoak osasun eta indar eman nahiko didaino, eginahalean sariatuko naizela zuekin batean egiteko hori burutan ateratzen, du zuen Euskaltzaindiko sarrera hitzaldian.

Ez Euskaltzaindiko lanetan bakarrik, Patxi, 1981etik eta Jainkoak osasun eta indar eman zizun arte, irakaskuntzan, ikerkuntzan, euskara sustatzen eten gabe jardun duzu.

«No hay probablemente en los EUTG un profesor que, como Patxi Altuna, tenga tan cordial memoria para recordar nombres e historias de alumnas y alumnos; y es probable que sea él también el profesor más recordado por ellos. Que este volumen que hoy le dedican sus colegas y admiradores sirva también para que le conozcan y le recuerden los alumnos y estudiantes del futuro» (Juan Plazaola, *Patxi altunari Omenaldia*)

Ia 40 urte irakasle Donostian, ia 50 urte Euskaltzaindira, artean ikasle zela lehen aldiz hurbildu zenetik, 20 liburutik gora, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* bildumaz gain. Artikuluak ere ugari...

Diogun bakarrik egina, dela handia dela txikia, hor geldituko dela eta ez duela inola haizeak eramango.

idatzi zenuen *Haizeak ez eramango!* liburuaren hitzaurrean. Horiexek izan ziren azken hitzak. Eta hala izango da: zuk egindakoa, zuk irakatsitakoa, zuk argitaratutako klasi-koen lanak, zuk hezitako belaunaldiak, zuk euskalgintzari emandako guztia ez du inola ere haizeak eramango.

* * *

Argitaratutako lan nagusiak:

Euskaltzaindiko Gramatika batzordeburua den heinean, batzordearen bidez, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izeneko Euskaltzaindiaren proiektuan parte hartu zuen, batzordeburu, gidari eta egile bezala. Orain arte, liburu hauek argitaratu dira:

- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I.* 1991
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I-II (Gai Aurkibidea).* 1987
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II.* 1987
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III.* 1990
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak IV.* 1994
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V.* 1999
- *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak VI.* 2005

Horiezaz gain, hauek dira aipagarrienak:

- 1956, «Azpeitiko euskera aztertuz», *Euskera* 1 (bigarren aldia), 67-69.
- 1957, «Euskaldunak Salamanca'n», *Egan* 9, 67-69.

- 1958, «Olabide A. Ta Kristo'ren Antz-bidea», *Euzko Gogoa* 9, 502-506.
- 1959, «Loyola'tik», *Jakin* 10, 74
- 1965, «Orixe itzorkunlari», *Orixe: Omenaldia*, Donostia, Euskaltzaindia
- 1967, «Larramendiren hiztegi berria», *Euskera* 12, 139-300.
- 1967, *Euskera, ire laguna* (Lenengo liburua), Bilbo, Mensajero.
- 1968, *Ariketak, euskera ire laguna*. Bilbo, Mensajero.
- 1971, *Euskal aditza. Batua? Baturakoa*, Bilbo, Mensajero.
- 1972, *Euskara hire laguna: lehen liburua, euskara batuan*, (2. argitaraldia), Bilbo, Mensajero.
- 1972, (par.) *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, Bilbo, Mensajero.
- 1978, «Erakusleak zenbait idazle zaharrengan», *Euskera* 23, 699-712.
- 1979, *Etxepareren hiztegia* (Lexicón Dechepariano), Bilbo, Mensajero.
- 1979, *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación*, Bilbo, Mensajero.
- 1979, «Oihenarten metrika», *FLV* 9-32, 269-284.
- 1980, (par.) *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernard Etxepare (1945), (edizio kritikoa), Bilbo, Euskaltzaindia.
- 1981, «Etxepare herri poeta», Euskal linguistika eta literatura: bide berriak, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 321-341.
- 1981, (par.) *Etxeberri Ziburukoa, Ioannes; Manual Devotionezcoa*: lehen zatia, (edizio kritikoa), Bilbo, Euskaltzaindia.
- 1982, (pr.) *Mendiburu, Sebastián; Mendibururen idazlan argitaragabeak* (I eta II), (edizio kritikoa) Bilbo, Euskaltzaindia.
- 1985, «Bonapartek eta Aita Aranak elkarri egin kartak», *FLV* 46, 305- 341.
- 1986, (par.) Duvoisin, Jean Baptiste; *Laborantzako liburua* (edo bi aita seme- ren solasak laborantzaren gainean), (1856), (edizio kritikoa), Donostia, Euskal Editoreen Elkartea.
- 1987, «Situación del País Vasco Norte en 1612-1614: Relato de un testigo ocular», *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* XIX-50, Julio-Diciembre, 75-195.
- 1987, (par.) *Bartolomé de Santa Teresa; Euskal errijetako olgueeta ta dantzen neurrizko gatz-ozpinduba*, (1816), (edizio kritikoa), Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.
- 1987, (par.) Iturriaga, Agustín Pascual de; *Jolasak*, (1842), Donostia, Euskal Editoreen Elkartea.
- 1987, (par.)Tartas, Juan de; *Onsa Hilceco Bidia* (-ren bi lehen kapituluak) (1666), (edizio kritikoa), Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.

- 1988, (par.) & J.A. Lakarra, I. Sarasola, B.Urgell, *Mitxelenaren euskal idazlan guztiak* (12 liburu), Donostia, Euskal Editoreen Elkartea.
- 1990, (par.) Ioannes de Haraneder: *Jesu Christoren Evangelio Saindua*, Bilbo, Euskaltzaindia, Euskararen lekukoak, 17.
- 1990, «Aita Larramendiren bizitza», J.A. Lakarra (par.), Manuel Larramendi, Hirugarren Mendeurrena (1690-1990), Andoain, Andoaingo Udala, 3-26.
- 1990, «Larramendi euskaldun berritua», J.A. Lakarra (par.), Manuel Larramendi, Hirugarren Mendeurrena (1690-1990), Andoain, Andoaingo Udala, 39-47.
- 1990, «Lau itzulpen kritika», Loiolako Inazio-Joan Gurutzekoa (1491-1591), *Karmel*.
- 1991, *Contribución a la Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano de Pedro de Yrizar*, I. liburukia, Bilbo, Euskaltzaindia, 307-359.
- 1992, «Tratado de métrica vasca (1872)», *FLV* 59, 59-165.
- 1994, (par.) & G. Aldabaldetreku, I. Boneta, Jean Martin Hiribarren, *Eskaldunak*, (1853): 1. Partea, (edizio kritikoa), Klasikoak, Donostia.
- 1995, *Euskara-erdara; Erdara-Euskara hiztegia* (2. Argit.), Mensajero
- 1996, (par.) Tartas, Juan de; *Arima penitentaren occupatione devotac* (1672), Bilbo, Mensajero.
- 2000, (par.) *Aita Aranaren Egunaria*, Iker-12, Bilbo, Euskaltzaindia.
- 2000, *Euskal bertsogintzaz: XVIII, XIX, XXgarren mendeetako jesuita gazteek egin neuritzak, azterketa metrikoa*, Bilbo, Deustuko unibertsitatea.
- 2001, *Raimundo Olabide*, Bidegileak, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- 2001, & J. A. Mujika, *Oihenarten atsotitzak eta neuritzak*, Bilbo, Mensajero
- 2001, Patxi Altuna eta Miren Azkarate, *Euskal morfologiaren historia*. Elkarlanean
- 2002, *Umetako oroitzak. Kittarra*.
- 2002, *Haizeak ez eramango!* Deustuko Unibertsitatea
- 2003, *Loiolako San Ignazioren gogojardunak*. Euskaratzalea, Patxi Altuna
- 2004, Patxi Altuna eta Esther Zulaika, *Eusqueraren berri onac*, Aita Agustin Karaberaz. Edizio kritikoa. Euskararen Lekukoak 23 Euskaltzaindia, Bilbao 2004.

Donostian, 2006ko ekainaren 29an

Miren Azkarate